




BIZITZEA

Itzultzaile: AITA ONAINDIA

SANTA TERESA

BIZITZE

**Itzultzaille:
AITA ONAINDIA**

Larrea, 1989

Beste itzulpen batzuk:

- ON-BIDEA (Camino de Perfección)
Itzultzaileak; Aita Onaindia eta L. Akesolo
Larrea, 1963

- EGOITZAK(Las Moradas)
Itzultzaile: Aita Onaindia
Larrea, 1981

Bear diran baimenakaz

© Aita Onaindia

I.S.B.N.: 84-404-4447-8

Legezko Gordailu: BI-1.422-89

IGARRI, S C. L. — Rafaela Ibarra, 1 — Deusto - BILBAO

SARRERA

I

Espiritu landa da gure burua, landa emakorra. Landa orretan sortzen jakuz, bizitz-egunetan zear, konta ezin beste asmakizun, batzuk egi biurtzen jakuzanak eta beste batzuk, potxu bateko ur-puxpulo edo begiak lez gauzatu barik geratzen diranak.

Ni, karmeldar lez, beti izan naz Teresa-zale. 1932-35 hirlartean, Begoña'n ikasle nintzala, ementxe Larrea'n azaltzen zan «Karmengo Argia»-ra bialdu oi nebazan Teresa Deunari. buruzko lanak, prosaz eta bertsoz. Aldizkari orretan asi nintzan, baita, Akesolo'ren laguntzaz, «Onbidea» (Camina de perfección) euskeraz jarten, beste lan txikiaga batzukaz batera.

Nik euskeraztuak dira, beraz, «Onibidea» (ela an datozan Oldozkunak, Olerkiak eta Arimearen oiuk); «Egoitzak» (1981) eta emen doan «Bizitzea». Ba ditu oraindik beste lan batzuk, ainbat garrantzi ez dabenak, «Lekaimetxeak» eta «Eskutitzak» batez be. Baiña euskerazkuotan, esan gengike, Teresa Deunaren asketika ta mistikazko dotriña oso-osorik daukagula.

«Bizitzea» da urrenez urrengo leenengo idatzi ebana, liburuetatik beintzat. Bere barruko gauzakaz ornidua, bizi ta gozoena. Ementxe dator argi ta edertoen jakin-erazota bere izakera berezia, gai-zabal ta sakon, bere bizitasun eta sentipenez gonburu ta bete-betea. Niretzat leenengo orritik azkeneariño barne-btzitza, sikologi ezautzaille errime ta Jainko-

zale ikaragarri agertzen da, gitxik gainditzen dauana. Gure arima ta giza-almenakaz sustraiz jabetu nai dauanak jorratu beiz aren bizitzako orrialde mamintsuak

Barriro esanda be, emen daukazu oso-osorik adierazota Avila'ko Teresa, emakume zoragama. Eleiz-Irakaslea. Siñisfu ezin lakoxe ar-emona eukan Jainkoaz, ogetamar urtetik gorantza batez be. Eta istori ontan berak diñosku argi be argi zer zan emakume lez eta zer zan Jainko-maiiale lez, beeko gauzetan eta izatez goikoetan.

Esku artean daukazun bizitza au ez dozu, aian be, istori bakarrik. berari jazotako zerez edertua, berak urtez urte bizi izana. Zeozer geiago da, Teresa'k emen azaltzen dauskuna. Agindurik idatzia da, eta Jaunak berak ortarako gaitua; doe, argitastn, mesede ta ikuskariz Jaunak aberastu eban, eta eten barik ahcrastu be, gertakizun herezi-bereziz; eta gauza guztiok adterazo bear zituan, berak ikusi, somatu ta experientziz ikasiak ebazan legez, Otoitzean eta moja-bizitzan bide arrigarrietatik zuzendu eban Jaunak. Ortik bere dudak, ortik onegaz eta aregaz ar-emonean sarturik ibilti bearra.

Jainko-doa apartekoz osoturiho liharua, Biur-une askatan euki eban zain Jainkoa, bere maite-geziz, gaztetxo zala, Beragandu nairik. Sarri ibilli oi da arimea, Teresa'rena lez, Jainkoagandik igesean; Jainkoak, baiña, ba-daki Berak nai dauana, eiztari trebe, bere sareetan arrapaizen. E/a eiztariaren poza olako egazti bat bere eskttetan jaustean!

II

Maitasuna ta sua dario Teresa'k idatzitako guztiari. Berba ta esakunetan eurrez dakarz, ezin ixilduta lez, Jaunagandik arturiko doe, mesede ta laguntzak. Ainbat goi-arnasa, argitze ta egile arrigarri izan zituan eta geriakari orreik jarten ditut. argi ta garbi, berak ikusi ta sentitzen zitun era berean.

Zer dira gertakariak? Zer da goi-arnasa? Zertan datza berau? Leen eta orain? Ugari idatzi da auzi oni huruz; gauzea, alan eta guzti he, leengo gizaldietan eta gaur-egun, bardin samar ez ete daukagu? Psike ta fenomenuetan, izan be, kontzientzia kasu geienetan, Freud eta onen artekoak lan naiko aurreratua daroen arren, oraindik urrats aurrerakor asko emon hañk aurkitzen gara. Avilako Teresa testigu. Au ta bestea salatu hat, haña gertakarten muiñera ez gara eldu. Gure barne-auzian guk haño askoz geiago ekian Santa Teresa'k, Irakur beronen «Egoitzak» eta «Bizitzea», eta mintza.

Ez zapuztu goi-arnasa ba-da zerhait eta. Zeozek eragiña da igarlea, santua, olerkaria, idazlea; ez dago dudarik. Gerkarrak atan iñoen, eta erromatarrak aintxiña baten, eta bardin gaur he. Eta zer dogu berau? Errazoiaren emoa ete da? Sentipenarena ala espirituarena? Ezkufuko heste aalmen batena, naimen edo-ta irudimenarena?

Idazleak lan aundi bat asterakoan, epopeia edo heste olako zerhatt idazten, argi-eske doaz gora, aspaldikoak eta geroagokoak. Baita gure Orixe be «Euskaldunak» astera-koan; idazkortza eskumako atzartean, onela iñoan ak: «Zatozkida Goiarnasa, - eizu nerekin lan, - erri baten arnasa mamitu dezadan».

Emen, ba, ba-da zerbait, «goi-arnasa» dan zerbait, idazleak, bere eritxiz, hear dauana eta, eskatuz, bertatik edo geroago etorten jakona.

Santa Teresa'k ugari izan ebain ontatik, otoitz-aldiko jazokunak, ikuskari. igarpen, arima jasote, gaiñezkaldi, gozotasun eragiñak. Gaur zentzunak, galdurik eta b'tar olako galtze harik, Jainkoaz luzaro gozotasun betean egoten zala. Olakoe-tan baiña, gorputzeko hegiakaz ez ei ehan iñoiz Jainkoa ikusi: ur-ur sentitzen bai Aren egotea. Emen daukazu otoitzaren sua, eta herez onek dakarren herotasun beroa, alkar maite daben bik alkar jardunean artu oi dabena, arimeak Jainkoa

gandik artzen dauan adierazpen misttkud, zer txit gozoa, barne-izketa higu ezl-ia arima ondarrean,

Emen dozu, irakurle, zeure hegi aurrean, hizi ta dizditsu, got-biziak gatllendtt dauan arima eder indartsua. Liburu onek damosku, ez izan ezpairik, era zoragarrian, beste mundttaren 'jainkozko izatasun bete bikaiña. Jainkoak arimearekin daukan artu-emon zoragarria; bizitzea merezi dauan benetako bizia, Santa Teresa'k bizi izana.

III

Vrteetako guraria beteaz, ona nire itzulpena, nik gogo beroz egiña Idazle berezia dozu Teresa, bere garaiko gaztelera errez, jori ta aberatsa darabillena. Berefarrentzat osotu eban batez be komentu bamko alabentzat, eta eleiz-gizn-entzat, jakitun eta ez-jaktuentzat, berak bein eta barriro diñoanez.

Zer da au? Teresa beti asmo bardiñak jota ibillita be, edozeiñen nnerako idatzi ehala bere arimako bizitzea. Aren idatzietako edozeiñek jaso leike irakaisi osasuntsua, probetxugarri litzakinna. Mila gauza errez eta lau azaltzen ditu, bai mistika arhkoak eta bai eguneroko bizi-moldeari dagokioezanak. Danetatik zan expcrientzi ederrekoea.

*Ona gaur goizean aren bizilz-probak orraztuten nenbillela criotzeaz attrkitu dodana. XXXVIITgarren atalean, 5'garren zenbakian, oneia dakar; <*Baita geratu jatan enoizari b'ddurrik cza, edo gitxta, leen nik b'tldur aundia bai neutson het, orain gauza erreza iruditzen jat jainkoareti zerbilzari danarentzat, arimea nnetxo haten aske ikusten da baitegi ontatik eta atsedcnean jarria Jainkoak espirtua eroate au ta gauza ain btkaiñak crakustea onetariko zentzun-galtzeetan, niri irudttzen jaf antz natkoa daukala arima bat gorputzetik urteteaz, lipar baten ikusten bai da o_r, au here osotasutt betean. Laga daiguzan urte-zarrako oiñazeak, ez jake kastt aundiñk*

egtn bear eta. Jainkoa benetan matte tzan cbcnak eta bsz'tza Ofllako gauzai agur eginda legokezanak, askoz /eun-eztiago ilten bide dira». Era onctan beste ainbat eta ainbat gattzatan

Sarn irakurrta dot Tciesa'ren idatz-joskerak ba-dauala. ci gitxi gero, cuskal joskeraren antza. Nik ikusi dodanetik eritxi au cz dabil oker, Euskeraz itztdlzeau nik egitt dot iñoiz herari osoosotik jarraitu, bere joskera ta sintaxis atioan, batzutan biurria ta esakun luzeetan iranha, eta esaldi luze tatr/arta iiOflik be. euskcrazkoaz egoki be egoki bat datorrena. Ideetan luze d/tu batzuk. beste batzuk naikoa trtotz iru-garren batzuk, azkcttez, biur-une ta kikumako askoz etoak.

Antzeko joskerari begira. Orixe'k. Leon'go Fray Luis, Curutzeko Juan Deuna ta Santa Teresa lerro bardtñeait ipiñiz onela idazten dau i «Gaztela Zaarrekoak itzunen ohea baitute Benikoek batño, eta Ihane Gaztela Zaarrekoa tan eta Luis Berrikoa. Norbaitek esan ba'lezait tatin antzerago iotfrt duela Luis'ek. areago csatien diot Jesus'ett Teresa'k. ela ez latin-kutsuz, bai, aurki, euskal-kutsuz. Bi izkelgi artzen dudaz nik Espaiñ'-an, itz urrenari dagokionez: C ta CN iGaztela-Zar-Bcrrikoa). Bearbada, Erroma'ko gudariek itz-urren berbera ckarr't zutert Zertatik brfaratzc or't? Teresa'k euneko ogeita amabost aldiz batzutatt berrogei ere bai. euskerazko itz-um-ita darabil» (Musika ixilla, 22 orr.).

Andtk naiz cmendik begiratu. euskai izate pt'zkat ba-dau Avila'ko Teresa'k. Aren idaztietatik dakusgttnez, artu-etnon zoiia euki izan eban euskaldunakaz; matte ebazatt egiaz. Arett bizttzeak merczi eban euskerara biurtzea. Eta nik neure gazetako gurart bat aseaz. emen dozu Uztdpen ori Irakur egizu, eta zuk be bertatik ots egmgo: «Zergattik ez senti ak senti ebana? Zergaiiik ez maits izan ak maite izan ebana?

Larrea, 1989-3-19

AITA ONATNDIA

Jhs.

1. Nik gurako neukean, neuk euki oi dodan otoitz-era ta Jaunak egin daustazan mesedeak idatzi daidazala agindu ta eskubidea emon dausten legez, neure pekatu guztiak eta bizikera kaskarra be zeatz eta argiro esateko baimena emon dagistela. Onek poz betea emongo leuskit, baiña ori ez dabe nai izan, bai ostera ondo loturik itxi; beraz, Jaunaren maitez eskatzen dautsat bizi-kontaketa au irakurri daistanak begien aurrean euki daiala Jainkoagana biurtu ziran santuetan ez dodala aurkitu bat bera niri poza ekarri leikedanik. Areik, uste dot ba, Jaunak dei egin eutsen ezkerro, ez ebela barriro A iraintzen. Nik, ostera, ez bakarrik txarrago izatera jo, alegiñak be egin nitun Aren Aunditasunak egiñiko mesedeai gogor egiteko, A zintzoago zerbidu bear nebala-ta; ulertzen neban, bai, zor nebanetik gitxiena beintzat ordaindu ez ete nengian.

2. Onetsia izan bedi Bera betiren beti, ainbestez itxaro ninduan eta. Biotz guztiz eskatzen dautsat emon daidala laguntza autor-entzuleak agintzen dausten kontaketa au argi-argi ta egiaz izan dedin. Jaunak berak be, ba-dakit, egun asko dalarik au gura dauala ni orretan alegindu ezpanaz be, Izan bedi Aren aintza ta gorespenerako; eta emendik aurre-ra, ni obeto ezagutuaz, nire argaltasuna bizkor-azo daien, Jaunari zor dautsodan zer-edo-zertan A zerbitzeko gai izan naiten: gauza guztiak beti gorets begie Jauna. Okntxe.

I A T A L A

Jauna zelan asi zan aña au ume-umetatik gauza onelara itxartzen, eta zenbat lagundu eulson ortarako guraso onak eukiteak.

J e s u s

1. Guraso onak (I), Jainkoari lotsa eutsoenak eukitea naiko neukean, ni ain ziztrin izan ezpanintz, ona izan nendin, Jaunak ondo artzen nindun ezkerro. Liburu onak irakurtera emona zan nire aita, ta olan erromantzezkoak eukazan seme-alabak be irakur egiezan. Onek, eta nire amak errezau-azo ta Andra Mariaren eta Santu batzuenganako griña ta joera guri itsasteko eukan ardureaz, gaztetxotik, sei-zazpi urteko nintzala, nik uste, zeru-gauzetaz zaletzen asi nintzan. Lagungarri jatan onetan neure gurasoengan onerako leia besterik ez ikustea. Birtute aundien jabe ziran. Txiro ta beartsuak oso maite ebazan nire aita, eta errukitsu zan gaixoakaz, eta bardin morroi ta zerbitzariakaz; iñoiz be ez eban onartu etxean jopu ta menpekorik, erruki aundia bai eutsen; eta bein bere anaiaren onako mirabe bat etxean eukirik, bere alaba bai litzan artu oi eban. Esaten eban, a aske ez izateak errukiz mintzen eutsola barrua. Egizale zan oso; sekula be iñok ez eban ikusi ez biraoka ez marmarka iñogaitik. Begi-gorde ta eratsu genduan oroz eta erabat.

2. Nire ama be birtute zalalekoa zan, eta gaitz aundiakaz igaro eban bere bizia; oso begiratua erabat. Ondo ederra zalarik be, arek ez eban iñoiz erakutsi orrela zala-

(1) Teresa'ren gurasoak: Alonso Santxcz Zcpeda ta Beatriz Dabila Ahumada.

korik; ogeita amairu urteko il zan arren, aren soinkerak urte askodunaren itxura eukan, izatez atsegiña ta buruz argia. Neke-lan auncliak igaro zituan bere bizitzan. Guztiz kristauki il zan (2).

3. Iru aizta ta bederatzi neba gintzazan. Guztiok gurasoen antzekoak, jaunari esker, on-onak izaten alegintzen giñanak, neu izan ezik, aitag maiteen ebana nintzanagaitik. Eta ni Jainkoa iraintzen asi aurretik errazoi pizkat ba-nebala uste dot ortaraka; min emoten daust, ba, gogora dakardanean, Jaunak emondako joera ain onai orren txarto eurakaz baliatu nintzala ikusiaz. Nire nebak, ba, ezetan be ez ninduen Jainkoa zerbitzetik atzeratzen.

4. Neba bat ia-ia neure sasoikoa neukan (Santuen bizitzak irakurtzeko alkartzen giñan); berau zan nik maiteen nebana, naiz-ta nik guztiak oso maite ta eurak ni bardin maite izan. Santuak Jainko-maitasunarren zelako martiritzak jasaten zituen ikustean, oso merke erosten ebela eristan Jainkoaren atsegiñaz jabetzen joatean, eta orrela be nik iltea gurago neban bizi izntea baiño; ez gero nik Bera maite nebala uste izanik eta bai zeruan egozala (irakuriz nekian) ondasun aundiakaz bertatik jabstu ta gozatzearren, eta neure neba onekin alkartu oi nintzan ori lortzeko ze bide artu geinkean ikusteko. Eta mairuen lurraldea joatea erabagi genduan, Jainkoagaitik burua moztu egiskuen; eta Jaunak berak, uste dot nik, ain gazte giñanok gogo-berotzen ginduzala, andik edo emenlik bideren bat aurkitzen ba genduan, baiña ortarako eragozpenik aundiena gurasoak eukitea zala iduritzen jakun. Miña ta poza beti-betiko zala irakurriak bildur aundia emoskun. Luzaroan egon oi giñan au ausnartzen, eta atsegin jakun sarri e?atea: betiko, betiko, betiko! Au bein eta barrlz esateagaitik, Jaunak nai izan eban, niri ume-aro ontan josita geratzea egiaren bidea.

(2) 1528'garrenerantza il zan, bedcratzi seme-alaba izan ondoren.

5. Jainkoagaitik ilgo ninduen lekura joatea eziña zala ikusi neban ezker, padar edo ermitañuak izatea erabagi genduan, eta etxean geunkan ortu baten al genduan lez ermitak moldatzen alegintzen giñan, ipiñi-ala jausten jakuzan arritxo batzukaz, eta olan ez genduan biderik aurkitzen geure guraria aurrera eroateko; eta orain barne-berotasuna dakarst Jainkoak zelan emoten eustan ain arin nik neure erruz galdu nebana.

6. Limosnak egiten nitun al neban lez, eta gitxi zan nik al nebana. Bakartadea billatzen neban neure aguneroko otoitzak egiteko, asko ziran oneik, batez be nire amak ain maite eban Errosarioa, berak otsegiten ebana eta guri otsegin-azo zaletasun biziz. Eder jatan, beste neskatoakaz olgettan nintzanean, lekaimetxeak jasotea, lekaimeak ba giñan lez, Nik moja izatea nai nebala deritxat, baiña ez esan ditudan beste gauzak beste.

7. Ama il jatanean, gogoratzen dot, amabi urteko geratu nintzan ni, zerbait gitxiago (egiaz amalau egifiak). Nor galdu neban konturatuz, Andra Mariaren irudi aurrera joan nintzan (3) atsekabe aunditan, eta bera izan zeitela aurrerantzean nire ama eskatu neutsan begiak malkoz. Suster aundi barik egin arren, baliagarri izan jatala uste dot eskari au; Birjiña goren onen laguntza, ba, beti izan dot beragana jo dodanetan; eta azken baten beretzat nauala dirudi. Min dot orain ikusi ta pentsatzea zer dala-ta ni ez nintzan egon oso ta sendorik asi nintzan gurarietan aurrera ez egiteko.

8. O ene Jaun! Ni salbatu nadilla erabagita daukazula zirudian ezker, eder bekio olan Zure Aunditasunari; eta egin daustazuzan beste mesede egiñik, zelan ez ete zenduan ontzat euki, ez nik irabaziz, zeure begirunez baiño, ez eitela ainbeste loitu Zuk jarrai be jarraian bizilekutzat euki bear zenduan etxea. Nekezko jat, Jauna, au aitatzea

(3) Adaja ondoko San Lazaro ermitan, itxura danez.

be, ba dakit-eta erru guztia neurea zana; uste dot, bada, Zuri ez jatzula ezer be egiteke geratu ni adin orretatik oso-osoan zeurea izan ez nendin. Neure gurasoengana kejaz noan be, ezin neinke atxakirik asmatu, eurretan ez bait neban ikusi ona oso-osorik eta neure onaren ardura betea bes-tesrik. Sasoi onetan nengoala, asi nintzan, Jaunak emon eustazan izatezko graziakaz konturatzen; iñoenez asko ziran oneik, eta eurakaitik eskerrak emon orde, beingoan esango dodanez, eurakaz baliaturik, Jauna iraintzen asi nintzan.

II ATALA

*Apurh.a epeldu egiten da goi-birtuteetan. On-
ona da umetan pertsona onaka'z arfuem'ona 'izaiea.*

1. Oraintxe esango dodana, uste dot, kalte aundia egi-
ten asi jatan. Burura dakart batzutan zelako kaltea egin da-
roen gurasoak euren seme-alabai beti, alan naiz onan, in-
guruan gauza onak ikus dagiezan ardurarik ez izateagaitik.
Nire ama birtute aundiz jantzia zan, esan dodanez, baiña
nik aren izate ta gaitasun ederretatik errazoizko adiñera
eltzean, ez neban zer aundirik artu, ia ezer bere ez; eta
txarrak kalte aundia egin eustan. Zaldun-liburuetara zale-
tua (1) zan, eta ez eban ain txartzat artzen astia emote au,
nik neuretzat artu neban lez, ori ez bait jakon eragozpen
lanerako, eurak irakurteko giñan eta; au egin oi eban bear
bada eukazan arazo askotatik gogoa barraiatzeko eta bere
seme-alabak ibilli ez zedizan beste gauza batzuetan galduta.
Onek naigabe aundia emotsan nire aitari, eta arduraz ale-
gindu oi gintzazan a, konturatu ez zedin. Ni asi nintzan
olakoak irakurtera zaletzen, eta amagan ikusi neban oker
txiki arek otzitu egin nindun eta gaiñerakoetan be uts-egi-
ten asi nintzan; eta uste neban ez zala txarra, gau ta egun
ordu asko zentzunbako zeregin ortan galdu arren, naiz-ta
neure aita ikusi bage. Onetan ain sartua bai nengoan, ola-
ko liburu barriren bat ezpa-neukan, pozik ez nengoala uste
neban.

2. Dotore jazten asi nintzan, eta itxura onez enparaui
poza emon nai izaten, esku ta ule kontu aundia izanik,

(1) Elebarriak ziran, ordukoak asko irakurten ebezanak.

usainkiak eta ontan euki neikezan uskeri guztiak, askotxo ziranak nunbait, maratz nintzan eta, onartu ta erabili oi nitun. Asmo txarrik ez neban, neure erruz iñok Jainkoa iraintzerik ez bait neukean gura. Luzaro iraun eustan txautasun geiegizko griñak, eta nik pekatu etzirala uste neban beste olako gauza asko; orain dakust barriz zein gaizto ete nintzan, Lengusu neba batzuk neukazan, eta nire aitaren etxean ez euken bestetzkuk sartzerik, oso begiratua zalako, onetxek izan ezik, eta Jainkoarren oba oneina be olan izan balitz; orain ikusten dot ba zelako arriskua dagoan, birtuteak azi-azten asi bear dan sasoian, munduko arrokeri utsa ezagutzen ez daben pertsonakaz artu-emonean astean, bertan sartzera daroenakaz batez be. Neure adiñekoak doi-doi ziran, zerbait zartxoago. Beti genbiltzan alkarregaz; maite-maite genduan alkar, eta zer guztietan poza emon oi neutsen nik, itzalditxoak-eta egiñik; eta nik neuretik eurai atsegin jakezan umekeri ta gertuirudiak entzun neroiezan, beti ez ain onak. Eta txarrena izan zan batak besteari ari-mako tirabirak erakustea: onek galdu ginduzan (2).

3. Onu emotea bidezko ba litzakit, gurasoi emongo neuskioe kontu berezia euki dagiela euren seme-alabakaz ar-emonean dabiltnan pertsonakaz, gaitz-arrisku aundia bait dago emen; gure berezkoa onera baiño txarrera ariñago doa. Orrela jazo jatan niri, aizta bat neukan neu baiño adiñagokoa, on-eratsua guztiz, nik onengandik ez neban ezer artzen, eta etxean artu-emon aundia geunkan senidarteko emakume bategandik okerrerako guztia jaso neban. Joera ariñekoa zan lez bere gauzetan, nire amak alegiñak egin oi zituan gure etxetik urrintzeko (aren bitartez niri etorriko jatan kaltea igarten eban antza), eta etxean sartzeko ainbat era eukazan legez, ezin izan eban gugandik aldendu. Difiandan oni guztiz lotua bizi nintzan. Aregaz zan nire au-

(2) Santa Tercsak aunditu egin daroaz bere utsegiteak eta pekatuak; beronen autor-entzule ta bizitz-idazleak, a'an be, pekatu astunik ez ebala egin diñoskue.

tuak eta izketak; bera neban ba lagun nik nai nituan jolas-keta guztietan, eurretan be sartuz eta esku emonez beregazko alkar-izketa eta uskerietan. Amalau bat urte edo zer-edo-zer geiago neukazala uste dot aregaz adiskidetasuean sartu, diñot, eta bere gauzetatik zati bat emon eustanean, eta oben astunez Jainkoa ez nebala itxi deritxat, ezta Aren bildurra galdu be, neure buruaren izen onagaitik geiago zalarik be. Onek kemena izan eban a osorik ez galtzeko, ezta uste dot onetan munduko ezek be nindukela aldatu-azoko, ezta iñoren maitasunik ni ortara ekarriko nindunik. Era orretan ba nintzan kementsu Jainkoaren deduaren aurka ez joateko, neure izakerak emon oi eustan lez munduko dedua zala nik uste nebana ez galtzeko, eta beste modu askotara galdu arren ez neban kasu aundirik egiten.

4. Zer-esana gordetzeko arrokeriz lez nenbillen arduratsu. Beste gordetzeko bear zan biderik es neban jarten; osorik ez galtzeko, baiña, sotiltasun eta gizalege aundiaz bizi nintzan. Nire aitag eta aitzak penaz ikusten eben nire adiskidetasun au; sarri egiten eusten agiraka. A etxean ez sartzea lortu ezin eben ezkerro, alperrekoak ziran euren ardurak, nire bizkortasuna, bada, edozein gauza txarrerako ikaragarria zan. Izu-ikaraz jarten nau batzutan lagun gaizto batek dagian kalteak, eta ortatik igaroa ezpanintz, siñistu be ez neban siñistu al izango; gaztetan batez be, aundiagoa izan bear dau dakarskun kaltea. Neugan zentzatu daitezala nai neuke gurasoak egi-egiaz arduratsu jokatu dagien onetan. Orrela da bene-benetan, niri beintzat, leen berez ari-ma onzale nintzan oni, ez eustan itxi ia-ia on-zaletasunik, ez birtuterik, eta uste dot arek eta beste batek, aren antzeko jolas-bideak eukazanak, euren izakera itsatsi eustela.

5. Onek bururatzen daust lagunarte onak egin oi dauan probetxu aundia ziurtzat daukada'a, sasoi atan birtute aundiko pertsonakaz artu-emonean egon ba nintz, osoan nengokela onezkero birtutez edertua; sasoi onetan, bada, Jainkoaren bildur iznten erakutsiko eustanik izan ba'neu, indar

artuz lioakean arimea jausi ez eiten. Gero, bildur au osoro aizatua, deduarena bakarrik gelditu jatan, eta onela egiten neban guztiak kezka larria sortzen eustan. Nik egiña etzala jakingo uste izanaz, aren eta Jainkoaren aurkako gauza askotara ausartzen nintzan.

6. Kaltegarri jatazan lenengotan esandako gauzak, uste dodanez, eta itxuraz etzan bere errua neurea baiño, gero ba naiko zan gaitzerako neure joera makurra. Etxeko nes-kameak be ez jatazan egoki, edozein gaitzerako laguntza ederra ekarsten-eta. Eurotatik iñor niri onu emateko lain izan balitz, bear bada ondo egingo leuskidan; baiña interesak itsutu egiten zitun, ni zale-leiak itsutzen nindun legez. Baiña egundo be gaitz aundira makurtua ez nintzlako, badaezpadako gauzak berez. jatazalako iguingarri, alkar-izketa onetara zan nire griña guztia; akn be abagunean jarri ezkerro, esku-mende egoan arrisk.ua, eta bertan ipiñi neroia-zan neure aita ta nebak be. Jainkoak askatu nindun eurotatik, eta itxura danez neure naiaren kontra alegintzen zan ni osorik galdu ez nendin; au baiña ezin izan neban ain ixil euki, nire oore edo deduak asko jasan bait eban, eta neure aitagan susmoa sort-arazo. Beraz, uskeri oneitan murgi. Idua nenbillela, iru illabete ez dot uste joanak zirala, uri onetako monastegi batera (3) eroan nindun aitag, ni lango pertsonak azten ziran lekura, naiz-ta areik ez izan ni baizen kaskarcta dongak oituretan. Au ixillean egin zan, neuk eta beste senitartekoren batek ezik beste iñok be jakiteka; zer barritzat ez artzeko eguna ta ordua bait ziran autu: nire aiztea ezkondu zan eta ni bakar ama barik geratzea etzan egoki be.

7. Aundi-aundia bai zan aitag eustan maitasuna eta ni ixilka ibiltea ain aundia erabat, iñok ez eban uste nigandik orrenbesteko gaitzik, eta olan nirekiko esana etzan itxura

(3) Graziazko Andra Mariaren agustindar mojategia, arriesiz kanpotik, gaur be, zutik dagoana.

ezik; ni izen onaren bildur nintza-eta, nire arduraz guztia izan zan ixillik gordetako, eta ez neroian kontuan au eziña zala guztia ikusten dauanarentzat. Oi ene Jainkoa! kalte aundia bai dagiala munduan au gitxitan eukiteak, eta ixillik euki leikeala Zure kontrako zerbait uste izatea! Ziurtzit daukat gaitz aundiak uxatuko geunkezala gauzea ez dagoala giza-semeengandik jagotean, Zu, Jauna, naigabetzetik ez jagotean baifio.

8. Lenengo zortxi egunetan asko sentidu neban, ez an nengoalako, neure aizekeriaz jabetu ziralakoaren susmoa kezkarazo ninduelako baiño. Ni orduko, ba, nekatua nenbillen: Jainkoa iraintzen nebanean, Onen bildurrak bizibizi astintzen nindun, eta arik eta ariñen autortzen. Barruurduri nenbillen, baiña zortzi egun edo gitxiagoz nik uste, neure aitarenean baifio pozago aurkitzen nintzan. Danak egozan neugaz, Jaunak bada onetan aparteko grazia egistan, nainon nengoala angoai poza emoteko grazia; olan maitatua nintzan guztiz. Eta orduan moja izaterik ezelan be nai ez neban ezker, etxe aretako lekaimeak on-onak ziran-eta, eurak onan ikusteak benetako poza ekarstan; onak ziran bai ango lekaimeak, era, begirune ta erlijioño aundikoak. Guzti onekin be deabruak ez eutson izten ni tentatzeari, eta kanpokoak billatuko mandatu ta ele-ixilka ni zelan artegatu-Jaramonik egiten ez neutsen lez, laster amaitu zan gauzea, eta nire arimea leen-adiñeko onean zaletutera biurtu zan, eta Jainkoak onen artean ipinten dauan erimeari egin oi dautson mesede ikaragarria ikusi neban. Begira ta begira ebillela uste dot Jauna ni zelan Beragana biurtu-azo. Be-deintatua izan zaitez, Jauna, ainbeste jasan nozulako. Olan-txe.

9. Ainbeste erru izan ezpa-nitu, gauza bat zuribide izan daikedala iduritzen jatan: gure artu-emonaz ezkontzaz onean amaitu leikeala, eta autortxen nintzanagaz eta beste askogaz gauzea iraulirik, ori ez joiala Jainkoaren naiaren aurka esaten eusten.

10. Bazan an moja bat —Maria Brizeño— an gengo-
zan gazteakaz lo egiten ebana. Beingoan esango dodanez,
a bitarteko zala asi zan Jauna niri argia emoten.

III ATALA

Moja aren adiskidetasunak laguntzen dautso bere lenengo gogo-asmoak ilxar-azten. Eta Jauna zelan asi jakon, berak ekarren iruzurrari buruz argi pizkat emoten.

1. Izan be, monja on eta santu onegaz euki neban alkar-izketa ezkeru, asi nintzan gero ta geiago atsegin artzen Jainkozko gauzai, zuurra ta on utsa bait zan. Gauza oneik entzutea beti izan jatan pozgarri, nik uste. Berari zelan etorri jakon moja-deia asi jatan esaten, Ebanjelioan dato-rran au irakurriaz ain zuzen: «Asko dira deituak, baiña gixi aukeratuak» (Mat., 20, 16). Jaunak gogorazten eustan, Beragaitik dana izten ebenai Berak emon oi eutsen saria. Adiskidetasun on oni eskerrak, kaskar nintzala neukazan oitura bada-ezpadakoak baztertu ta urrindurik, neure barruan betiko gauzen gogoa barriro sort-azten asi nintzan, eta orobat izugarrizko jatan moja izateko pentsamentu gaiztoa zerbait kendu ta arintzen asi be. Eta norbait ikusi ba nengian errezu edo olako zerbait egiterakoan, negar-mal-koz, aren bekaitzez nengoan; nire biotza alan be sendoa zan onakoetan, Kristoren Nekaldia osorik irakurrita be, ez neukean negar-anpulurik jarioko: onek penaz jarten ninduan.

2. Urte t'erdi egon nintzan monastegi onetan, naiko obetua. Aozko errezuak ugari egiten asi nintzan, moja danai be Jainkoari nire alde eskatzeko esanaz, zein bizi-maillatan nik Bera serbidutea nai eban adierazo eidala eskatuaz ain zuzen. Oindiño be ez neban, egia, moja izan nai, eta ez egistala Jainkoak olakorik eskatu, ezkontzeak be bildur

emoten eustan arren. Emen nengoala, azkenerantza batez be, moja izateko irrits aundiagoa sortu jatan; baifia ez nintzan izatekotan etxe aretan izango, gero konturatu nintzanez, angoen egite bitxi batzuengaitik, arrigarriegiak bait neritxen. Eta ba egoan an, gazteen ariea, onetan laguntzen eustanik; dan-danak izan balitzaz eritxi batekoak, onuragarri litzakidazan noski. Orrez gaiñ, ba neban beste arima on bat beste komentu baten (1), eta au jatan beste errazoi bat moja ez izateko, a egoan lekuan, ez izatekotan. Neure ari-mearen onari baiño geiago neure zentzukortasunari ta uskeriari begiratzan neutson. Moja izateko gurari onok noizik bein etorkidazan, eta gero utsean izten ninduen; eta, jakiña, ezin erabagirik artu.

3. Tarte onetan, nik neure erazoa albora itxirik ez neukan arren, Jauna bera ebillan niri obeto letorkidan bizi-molderako gertatu nairik. Gaixo larria bialdu eustan, eta aitarenera biurtu bear izan neban. Osatu nintzaneke, neure aitzaren etxera eroan nindun, baserri batera, an bait zan bizi, eta ikusi ta sarriago mintzatu gengian; maite-maite ninduan arek, eta ari entzun ba nengion, ez nintzan arengandik egundo aldenduko. Aren senarrak be maite ninduan, nigaz txeratsu agertu oi zan beintzat. Au be, Jaunaren mesedea, doe bat dot, Berak nai izan dau nainora joan beti ondo artua izatea; baiña nik, nazana nazalako, ez dautsot erantzun bear neutson lez.

4. Bidez aruntz giñoiazala an bizi zan nire aitaren anai bat, zentzunduna oso ta birtute aundikoa. Alarguna bera, Jauna au be beretzat izan eiten arduratzen zana, adiefieko zala eukan guztia itxiz praille joan zana, eta bizitzako egunak ondo emonez, uste dot, Jainkoaren erreiñuan gozatsu bizi dala. Bere etxean euki nai izan ninduan onek, egun batzuetan. Liburu onak erderaz irakurtea zan aren egitekoa,

(1) Juana Suarez. Gizakunde eritxon komentuko karmeldar lekaimea.

eta ia beti Jainkoaz zan aren solasa, eta munduko uskerietaz. Nik be liburu areik irakurtea gura izaten eban; eta nik, ain zalea ez nintzala be, baietza erakutsi oi neutsan; onetan izan be, au da, besteai poza emotean, ardura aundia izan oi dot, barrutik nai-ezak estutu arren. Beste batzuen-gan ona izanik au, nigan oker galanta izan da, sarri askotan zur ez nebalako jokatzan. O Jainko on! Zelako bideetatik nenkarren Aran Aunditasunak ni bere zerbitzurako jarri nai izan nindun lekuan egokituz; nik nai ezta be, indar-azo ninduan neuk indar egitera! Bedeinkatua izan bedi beti-betiko. Olantxe.

5. An egon nintzaneko egunak gitxi izan ziranarren, Jainkoaren itzak, irakurriz ta entzunez, nire biotzean egi-ten eben indarraz, eta lagun-arte onari esker, ume nintzaneko egia ulertzera eldu nintzan, au da, oro ez dala ezer, eta munduko uskeria zelan amaitzen dan asko luzatu bari-rik; baita bildurtzen be asi nintzan, il izan banintz, zelan niñioian inpernura. Eta nire naimena moja izatera oindiño makur-makur egiteko egon arren, bizibiderik on eta seguruena auxa zala ikusi neban; eta olantxe apurka apurka bizibide ori artzera indar egiteko erabagia artu neban.

6. Iru illabetea jardun neban burruka ontan, neure buruari indar egiñik errazoi onegaz: neke-miñak eta moja izateko naigabeak, garbitokikoak baiño aundiagoak ezin leitekezala izan, eta nik ondo merezia neukan lez inpernua, etzala asko ni garbitokian lez bizi nintzaiño egotea, eta gero, nik opa nebanez, zerura joango nintzala artez-artez. Eta estadia artzeko auzi ontan, maitasunak baiño zerbitzu bil-durrak geiago eragiten eustala-ta nago. Ain guri-zale bait nintzan, deabruak Erlijijiñoko ildura ta neke-lanak ezingo nebazala eroan, jarri oi eustan buru-muiñean. Onen aurka Kristok jasan zituan neke-miñak nekazan gogora; asko be etzan, ba, nik Aren maitez nekaldi batzuk igarotea. Neke ta atsakabe orreik eroaten Berak lagunduko eustala gogoratu bear neban, azken au baiña ez dakit orrela zanik. Egun areitan tentaldirik naiko izan neban.

7. Beti be osasun gitxiko izan arren, beroenakaz batera, zorabio aundi batzuk etorri jatazan. Geroztik, liburu onen zale egin nintzan. Jeronimo deunaren Eskutitzak irakurten nituan; asko be asko bizkortzen ninduen eurok, eta berau neure aitari adierazteko asmoa artu neban, ia-ia abitua artzeko asmoa edo erabagia, ni ba dedu-gauzetan gutiz arteza nintzan, bein itz-emon ezketiño, ez neban ezelan be atzera egingo. Alan be, maite-maite ninduan aitagandik ezin izan neban baimenik lortu, ezta nik bitarteko lez ipiñi nebazan pertsonak be ezin izan eben ezer jadetsi. Agandik jadetsi al izan zan bakarra au izan zan: bere eriotz ostean, egin nengiala nai nebana. Baiña ni, neure argaltasuna eza gutuaz, bildur nintzan ez ete nintzan atzera biurtuko. Orduan, aitaren asmoa ez jatala egoki begitandurik, neure guraria beste bide batetik, oraintxe esango dodanetik eroaten, alegindu nintzan.

IV ATALA

Jaunak erabilli zituan bideak, bere buruari indar-eragiñez, lekaime jantzia artzeko. Jaunak bialduta asi-asieratik izandako ainbat eta ainbaH gai-xo-aldi.

1. Egunotan, neukazan asmoak egi biurtzen nenbillela, neure neba bati burutara emon neutsan praille sartu eitela, munduko uskeriaren ezereza argi jarten neutsolarik. Eta egun baten biok goiz-goizetik artu genduan nik maite neban adiskidea bizi zan komenturako bidea. Ni onezkero, egia esan, erabagita nengoan moja izatera, eta gaiñera, bardin eustan, Jainkoa ondoen serbiduko neban edo-ta neure aitag begikoago eban edozein komentura joatea. Ordurako bai geiago begiratzten neban neure arimearen ona, munduko uskeri guztiak albora itxiaz. Egiaz esan neikela deritxat, neure aitaren etxeari agur egin neutsanean, euki neban beste-ko sentipenik ez dot uste izango dodanik ikean be. Azur bakotxa berez uste nik bereizten jatala bata-besteagandik. AuJa zan beraz nik Jainkoari neutson maitasuna, eta eziña neban aitari ta senideai neutsena gaintitu; erre-min latza neban barruan, eta Jaunak lagun ez ba'nindu, nire errazoi-keak etziran naiko izango aurrera jo ncngian. Emen Jau-nak neure buruaren aurka jokatzeko kemena emon eustan, olantxe azkeneramo eroan al izan neban neure asmoa.

2. Abitua artu ta laster aitzen emon eustan Jaunak ze-lan lagundu daroatsen bere zerbitzari izateko erabagia ar-tzen dabena; Eta danak ekien nik ortarako gurari bizia neu-kala. Garai atan, izan be, gogo beroagoa somatzen neban moja izateko, gaur arte egundo be uts-egin ez daustana:

Jainkoak leen lior neukan arimea samur biurtu eustan. Atsegiña ekarsten erlejiñoko gauza guztiak, eta egia da etxea garbitzen ibiltzen nintzala batzutan, leen neure burua apaindu ta edertzen emon oi nebazan orductan. Uskeri areitatik aske ikusteak poztasun ikaragarria sartzen eustan; zur ta lur izten ninduan onek au nundik etorkidan ezin asmatu rik nenbillelako. Orain, barruko poztasun a aurrera datorkidanean, edo-zer gauza, naiz-ta astuna izan, ez neuke burutu bage itxiko. Gaur oar-ikasiz dakit, gauza askotan, asieran alegin apur bat ba-dagit zer ori gauzatzer a erabagiteko, Jainkoagaitik bakarrik danean, Onek guk gauzea astea nai daula, irabazi geiago izan dagigun, arimeak be bere larrialdia izanik, eta aundiagoa ta obe, orretan azkeneraifio eltzen bada, sari aundiagoa ta gozoaago izan daian. Bizitza ontan be ordaindu oi dau Aren Aunditasunak, bide askotaz ordaindu be, naiz-ta berau goza-azo dauanak bakarrik berau uler-tu. Experientziz daukat au, esan dodanez, gauza asko naiko astunetan; ortik ez neuskio iñori egundo esango, eritxia emon bearrez aurkituko ba'nintz, goi-argitze on batek sarri erasoka dabillenean, ez daiala bildurrez beintzat egiteke laga, gauzea argi ta garbi Jainkoagaitik bakarrik ba'doa, ez da izan bear ba txarto joango danaren bildurrik, Jainkoa alguztiduna baita danerako. Onetsia izan bedi betikoz. Olantxe.

3. Naikoa litzake, Ontasun garai ta ene atsedent! , oraiñarte egin daustazuzan mesedeak, zure erruki ta aunditasunak ainbat zearka-mearkaz bizimodu ain segurua artu ta Jainko-mirabe asko egozan etxe oneitatik nik autatu neitekean oiñarria Aren zerbitzuan gero ta aziagoaz joateko. Ez dakit zelan igaroko nazan emendik Jekaime eskintz eraz eta artu neban erabagiaz, eta poztasun aundiaz; eta Zugaz Jauna, egin neban ezkontz-itunaz. Au ezin dot adierazo negar-malko barik, eta odolezkoak izan bear leukie malkuok, biotza urratuz; alan eta guzti be, etzan orixe be naiko izango, gero iraindu zindudana garbitzeko. Orain iruditzen jat errazoiz ez nebala gura duintasun orrcn aundia, txarto be

txarto erabilli bear bai neban bera. Baiña Zuk, ene Jaun orrek, nai izan zendun, iraindua izatea, nik ia ogei urtean mesede au txarto erabiltea, ni obetua izan nendin. Antza danez, ene Jainko, eskiñi neutzunetik ezertxo be ez betetea agindu neban; orduan etzan ori nire asmoa, baiña olakoak izan dira gero nik egiñak. Ez dakit ez zelako asmoak neukazan, obeto ikusi zedin Zu nor zarean, ene Senar maite, eta ni nor nazan. Egia da bai, ziur, neure erru aundien sentipenak sarri arintzen daustazala, zeure nigazko erruki zabalak ulertzeak dakarstazan pozak.

4. Norengan, Jauna, erraiñutu ta nabari daitekez olan neuregan ezik, egiten asi zintzakidazan mesede aundiak, nik neure ardura ezez ainbat lausotu ta illun-azoak? Ai ene, neure Egille, aiko-maikotan asi nai ba'dot, ez daukat bat bere! Iñok ez dauka errurik, neuk baifio, agertzen asi zintzatazan maitasunetik zerbait ordaindu ba'neutzu, nik iñorengan be ezin neikean erabilli Zeugan ezik, eta onegaz oro legoken emendatua. Ez neban ori merezi izan, ez neban olako zorionik izan; lagun beist orain, Jauna, zure errukiak.

Bizimodua aldatzea eta janariak kaltegarri izan jatazan osasunerako; poz eztitan nengoan arren, etzan naikoa. Geitzen asi jatazan zorabioak, biotzeko min aundi-aundiakaz eta beste gaitz askoz betea; au ikusten ebenak lauborri ziran geratzen. Olantxe, osasun aulaz igaro neban lenengo urtea; urte onetan, baiña, ez dot uste asko iraindu nebanik Jainkoa. Eta aundia zanez gatxa, ia beti zentzun barik izten nindula, eta batzutan bape barik be aurkitzen, arduraz ebillen aita guztiz osasun-bidea niri aurkitu nairik. Eta emengo sendagilleak bide egokirik ez ekartsoen ezkeror, andik asago gatzak osatzen trebe ziralako entzetea euken toki batera ni be erodateko alegiñak egin zituan. Bai, olan egingo eben nigaz be, iñoenez. Adiskide au, antxiñakoa nunbait, etxean neukala esan dodana, etorri zan neugaz. JMoja zan etxean, etzan itxitu edo klausurarik agintzen.

6. Andik ibilli nintzan ia urte betean; leenengo iru illabeteetan, barriz, oiñaze ta min ikaragarriakaz, egiten eustezan osakeretan batez be. Latz ikaragarriak bait ziran, ez dakit nik zelan eroan al izan nebazan. Azken baten jasan nituan arren, nire zerak ezin eroan izan ebazan, esango dodan lez. Uda-asikeran zan osabidea asteko, ni barriz negu-asikeran joan nintzan ara. Epe guztia onetan baserrian egoala autortu dodan aiztearenean egon nintzan, laster etorren jorraillaren zain, joan eta etorri ez ibiltarren.

7. Aruzkoan, bidean bizi zala esanda daukoda neure osaba arek, liburu bat emon eustan. Irugarren Abezea —*Tercer Abecedario*— deritxona, batu otoitza irakasten saiatzen dana, eta, leenengo urte onetan liburu onak irakurri nebazan lez, ez neban besterik eskuratu gura (ba-nekian ba besteak zelako kaltea ekarri eusten), ez nekian alan be otoitzean zelan jardun, ez zelan neure kautaratu, ez neure barruan zelan kiribildu. Olan atsegin aundi izan jatan liburua, eta berak gaiñera eroan nindun eta erakutsi neure indar guztiz bide atatik ibiltan. Eta Jaunak orduko malkodoez jantzi ta irakur-gogoz bizi-azi nindun ezkerro, unekadak bakar emoten asi nintzan, eta sarri autortzen, eta bide aretatik ibiltan, dalako liburua maisu nebalarik. Nik ez neban aurkitu, ba, maisurik, aituko ninduan autorlerik diñot, billa nenbillela be, ogei urte ostean, diñodan liburu au langorik. Maisurik ez onek kalte egin eustan oso, onela bada ez atzera biurtu bakarrik, zuzendari bage betikoz galtzeko arriskuan jarten neban neure burua. Autorla on batek, oster, beti lagunduko eustan, besterik ezean be Jainkoari gaitz egiteko izan nituan era ta zorietatik urteten. Bakarraldi onen azkenerantza ainbat mesede egiten ebilkidan Jauna (onela, ia bederatzi illabetez izan zan, baiña ez liburuak iñostan baizen aske Jainkoa ez irainduteko, baiña origaitik aurrera niñoian ni, ainbesteko zaintza eziña lez iruditzen jatala; arduraz nenbillen pekatu astunik ez egiteko, eta eder bekio Jainkoari nik beti orrela eukitea; ariñetaz ez neukan ardura aundirik[^] eta euxe izan zan ni galdu nin-

duana), bide onetan mesede ugari egiten asi jatan Jauna, atsedenezko otoitza emoteraiño, iñoizkoren baten baita al-kartezkoa be, nik ulertu ez arren zer zan bata ez bestea, eta zein estimagarria zan berau, ulertze orrek on izugarria egingo eustala uste izanda be. Egia da, alkartze otoitz onek oso labur iraun oi ebana, Agur Mari batez ez dakit zanik. Baiña ondorio aunditan geratzen nintzan, garai onetan nik ogei urte ozt-oztan eukirik, mundua neure oinpean neka-rrela iruditzen jatan eta, gogoratzc-n naz, erruki aundia neutsen aren atzetik ebiltzanai, gauza ezerezetan bazan be. Jesukristo geure ona ta Jaun dana begien aurrean ekartzen alegintzen nintzan; eta auxe zan nire otoitz-erea. Aren bizitz-uneren bati gogo emotekoan, neure barruan iruditzen neban. Geien atsegin jatana, oster, liburu onak irakurlea zan, onek bait ekarstan barne-atsegin bete-betea. Jainkoak ez eustan emon, ba, adimenez gogoketan jarduteko grazirik, ezta gauzai irudimen bidez guna atera al izatekorik be; aalmen au traketsa ta moldakatxa dot izan be, eta neure kautan gogoratu ta iruditzeke be, ale«intzen nintzan lez, gure Jaunaren gizatasuna aurrean izateko, ez neban egundo olakorik lortzen. Adieraz a'an be gogoetarik euki ezin dabenak, eureneara iraun ba'dagie, enparauak baiño lenago elduko dira begiztatze deritxoeun otoitzera. Ariketa ontan egia da, lan eta neke aundiagoak eroan bearko dira, naimc-na geldi egonaz ba eta maitnsuna be nun oifiarritu barik, arimea bertanbera itxita lez dago, irozki ta tentemutil ezean, gogoan ezer iraultzeko gai ez dala. Bakar aurkitze onek, beraz, atsekabe izugarria dakartso; latza benetan liortasun ori, ta erabateko pentsamentuen crason.

8. Kontzientzi garbitasun geiago egoki jake buruz jardun eziña dauken pertsonai, adimenez lan egiteko gai diranai baiño. Mundua zer dan eta Jainkoari zer zor dautson. Ak zenbat sufridu eban eta berak zein zerbitzu kas-karra damotson, maite dauanari maitasun urria emoten dautsola ikusirik, ikasia atera oi dau pentsamentuetatik jago-teko eta eror-bide ta arriskuetaatik alde egin al izateko.

Arrisku aundiago dauka, baiña, onetaz balio ezin danak, eta irakurteari ekin bear dautso, berenez ezin dau-ta eze-tariko gogorakizunik atera. Eta au askoz neketsuago jako, erakusle dauan maisuak, au da, autorleak irakurte barik aldi berean otoitz egitera beartzen ba'dau; orduan ezingo dau orretan iraun, eta irakurria gitxi dala be, irakur daiala zerbait, burutu ezin dauan gogozko otoitzaren orde. Au diñot: laguntasun au barik luzaroan otoitzari ekiten bear-tuko ba'lebe, eziña izango litzakio orretan irautea, eta iraun ba'legi be, kalte egingo leuskio, gauza oso zailla da-ta.

9. Orain uste dot Jaunak berak nai izan ebala nik ontan nok irakatsirik ez aurkitzea, eziña deritxat ba ama-zortzi urtetan neke-lor onekin irautca, legor be legor, di-ñodanez, gogozko otoitzerako gauza ez nintzala. Zer guz-tiotan, Jauna artu ondoren ezik, ez nintzan iñoiz be azar-tzen liburu barik otoitzari ekiten. Bildurgarri zan niretzat liburu bage otoitza astea, jente askogaz burrukan sartzea edo. Indar jatan kguntza eta pentsamentu askoren babeski onekin, pozik nenbillen. Beti ez nengoan biotz-legor, naiz-ta bai Hbururik ez ba'neukan esku artean. Olakoetan ara ta ona sakabanaturik ebilkidan arimea, eta pentsamentu galduak, liburua ba'neukan barriro etozan batera, eta leunkeriz ne-roian neure gogoa. Sarri liburua edegitzea, etzan besterik bear izaten. Gitxi irakurri oi ncban batzutan, beste batzu-tan ugari, Jaunak egin nai eustan mesedearen araueraz. Nik uste dinodan asiera ontan, liburuak euki ezkeru, eta bakar-tadean egon, ez neukala oztoporik ni ainbesteko onetik uxa-tu nindukeanik. Uste dot, Jauna, olaxe izango dala, maisu bat edo-ta pertsona bat asieran galzoritik iges egiteko euki ezkeru, arriskuan sartuko ba'nintz, laster urtengo nintza-kela deritxat, bertatik. Eta deabruak orduan zirikatuko ba' nindu agiri-agirian, uste neban pekatu astunean jaustera ez nintzakela biurtuko; gaizto a, baiña, maltzurra izan eta ni aula gogor egiteko ta gitxi izan jatazan artutako erabagi guz-tiak. Jainkoaren zerbitzuan emon nebazan egunak, alan be, lagungarri izan jatazan gaixoaldiak pazientziz eroan al iza-teko. Eroapen aundiz betc ninduan Jaunak ortarako.

10. Arritua geratzen naz ni askotan, Jainkoaren ontasun gurena gogora ekarriaz, eta gozatsu jarten jat arimea Aren Aunditasunaren aundia ta errukia ausnartuz be, ez daustala itxi, gurari on bat be, ordaindu barik. Nire egitekak ziztrin eta kaskarrak izanik be, ene Jaun onek obetu ta osotu egin dauz indarra ta balioa emonik; gaitzak eta obenak, barriz, estali egiten zituan. Ikusi dabezanen begiak be Aren Aunditasunak itsutu egin oi ditu, euren oroime-netik be aldendurik. Berak azken baten urreztatu daroaz nire utsak eta okerrak, Jaunak berak jarri oi dauz nigan birtute batzuk ñirñir egin dagien, indar egiñik ia-ia niri alakoz jantzi naiten.

11. Agindu daustenera itzuli nai dot barriro be. Au da, zeatz-zeatz esan bear ba'neu, Jaunak sasoi ontan nigaz zelan jokatu dauan, beste ulermen bat bearko litzake, ez nirea, nik onetan zenbat zor dautsadan eta bidenabar nire txarkeri ta esker gaiztoa adierazteko: nik guzti au aaztu bait neban. Beti-betiko onetsia izan bedi, eroapen txit aundia nigaz izan dau-ta Olantxe.

V ATALA

Bere gaixoaldiak azaltzen diardu; jaunak euron emon eutsan eroapen betea, — Gatxetik onez ateraten. — Osatzera joaten zan Bezedas'en gertatua.

1. Aaztu jatan esatea, asi-barri nintzaneko urte-bitartean kezka ta larriz bizi izan nintzala; kezka ta miñok etziran gora aundikoak, baiña sarri errubako gauzak errudun egiten ninduen. Niretzat au neketsua zan naiko, ta kezkaz beteten ninduan, naiz-ta moja izateko neukan poztasun itzalaz dana alai igaro. Beste aldetik, bakar-zale ikusten ninduen, eta iñoiz neure pekatuengaitik negar egiten eta barru-estu nengoalako zala uste eben, eta esan be orixe esan oi eben. Erlejiñoiko zer guztietara jo neban, ez gero gitxi eritxi ta destaiña zirudian ezer jasatera. Eder jatan aintzakotzat artu ta eukia izatea. Nengiana nengiala, ardu-raz egin oi neban, ona zala neritxon edozer gauza batez be. Au baiña ez jat zuribide izango, ba-nekian-eta zer zan neure atsegiñerako, eta beraz ez-jakiñak ez dau errua kentzen. Atxaki apur bat ba-dauko monastegia osotasun betean jarrita ez egoteak. Ni, kaskar au, ez-oso nekusanera niñoian, ona zana albora itxirik.

2. Orduan moja bat gaitz aundiz egoan, benetan neke-tsuz, ao batzuk bait ziran sabelean eukazanak, itsukura ta eragozpen batzuk noski, eta ortik botaten jaten eban guztia. Gaitz ori zala-ta, laster il zan. Guztiak nekusan alako gaitzaren bildurrez; niri, oster, enbidi eundia emostan aren pazientziak. Niri be, eskatzen neutsan Jainkoari, alango eroapenez emon eistazala arek lakoxe min eta gaitzak.

Ez dot uste ni bat bere aren bildur nintzanik, egiña bai nengoan oso betiko ondasunetara, edozein modutan be egiñik ni areik irabazteko. Onek zurtzen nau, alan be, oindiñokarren ez bait neukan, deristanez, Jainko-maitasunik, gero otoitz egiten asterakoan euki nebala uste izan nebanez. Maitatzen danari kasu gitxi egin bear jakola daukat buruan sarturik, eta gora aunditan euki betiko diran ondasunen ekarle litzakezanak. Onetan entzun ninduan Aren Aunditasuna.k; urte bi baifio leen, ainbestekoa nengoan, ez ainbeste gatxean, neke ta lan-ezez ez dot uste, iru urtean iraun bai eustan, oraintxe esango dodan lez.

3. Neure aizteaz, osatzeko, zain nengoan lekuko aldi-kadea amaitu zanean, aitag eta aizteak ardura gozoz, eroso-eroso eroan ninduen urlia tokira (1); geugaz etorren, benetan maite nindulako, neure adiskide moja (2) a be, len neugaz etorri zana. Emen asi jatan deabrua niri arimea naasi ta lardaskatzen; baifia Jainkoak ondo asko atera eban ortik. Eleiz-gizon bat bizi zan osatzera joan nintzan leku aretan, naiko ari onekoa ta buruz argia; eskolatua, naiz-ta ez geiegi. Beragaz autortzen asi nintzan; beti izan nintzan ni letra-zalea, au da pertsona eskolatuak begiko izan jataz beti. Alan eta guzti be, kalte galanta ekarri eutsoen nire arimeari autorle erdi-eskolatuak, nik gura beste jakitate ez ebelako. Bi[^]iak erakutsi daust obe dala bat bere ez euki gizaseme birtutetsu ta oitura oneko izan ezik, eurak be ez bait dira fiatzen eurenaz, onak daukazanai itandu ezean; neu be ez nintzake olakoagandik entzinduko, geiago dakianari esan bari; egiazko jakitunak ez daust egundo ziririk sartu. Beste orreik be, ziur asko, ez ninduen engañau naiko, baiña ez ekien geiagorik. Baietz uste neban nik, eta eurai siñistu ez-kero ez nengoala geiagora bearturik, esaten eustena arras zabala bait zan, eta askatasun geiegikoa; gauza estutua izan ba'litz, bada, mutur-zimur nazalako, beste batzuk billatuko

(1) Castellanos de la Cañada.

(2) Juana Suarez.

neukezan. Oben ariña zana ezer etzala iñosten; pekatu txit astuna zana, ariña zala. Onek kalte itzala egin eustan eta ez da arritzekoa nik berau emen adieraztea, besteentzat be gaitz aundi onen oargarri izan daiten. Jainkoaren aurrean, izan be, ondo dakust ez jatala au atxaki izango, gauza bat egiteko bada naiko zan berez etzala ona jakitea. Jainkoak neure pekatuakaitik laga ebala, uste dot, areik niri naigabea ta nik arei ziria emotea. Nik engañau nitun beste askok neuri esan eustena bera arei esanaz. Itsukeri ontan iraun neban, nik uste, amazazpi urtetan baiño geiago; Aita domini-ku jakitun batek (Bañez'ek) argitu nindun gauza askotan; Jesus'en Lagundiko Aitak, bavriz, bildurretan ipiñi ninduen guztiz, gero esango dodanez, neure aurreko urteetakoa bal- tza go jarririk.

4. Diñodan eleiz-gizonaz autortzen asi nintzalarik, oso itsatsi jatan bera, orduan ba gero euki nebaneko zei: autor- tu gitxi izan neban, bardin moja sartu ondoren be. Etzan txarra onek artu eustan apeta; baifia eraspen geiegia zala- ko, ona ez izatera etorren. Ba-ekian arek ni ezer gaitik be ez nintzala jarriko Jainkoaren kontrako gauza astunik egi- tera, eta berak bere aldetik bardin ziraustan, eta alkar iz- keta luzeak geunkazan. Baiña nire ar-emonak orduan, Jain- koaz nenkarren bero-zera zala-ta, geien atsegin jatana zan Arekiko gauzak erabiltea; eta ni ain gazte ikusiz, nastu egin oi eban onek, eta maite nindulako, bere ondamendia agertzen asi jatan. Etzan gitxi ia zazpi urte eroi-azan ba egoera arriskutsuan, bertako emakume batekin txeratsu ta artu-emonean; eta onelaxe mezea emoten eban. Gauza agi- ria zan lez, galduta eukazan dedua ta izen ona, iñor be etzan ausartzen orri bnrüz itz egiten. Naigabe aundia artu neban nik maite nebalako; auxa zan, izan be, nire argala- ren argala ta itsukeria: birtutea zala uste nik esker oneko izatea, eta maite ninduenai maite-legez erantzutea. Madari- katua izan bedi alako legea, Jainkoaren legearen kontra joa- teraiño luzatzen dana! Munduan zabal dabillen zentzun ba- kokeria dozu au, ni zentzun bakotzen nauana. Egiten daus-

kuen on guztia Jainkoari zor dautsagu, eta adiskide-ari au ez auste, Aren aurka joanda be, birtutetzat joten dogu. Oi, mundua bai dala itsutua! Zenbat, zelako mesedeak egin daustazuzan Zuk, Jauna, ni gizaseme guztiakaz esker txarreko izanik, Zugaz beintzat ezertan be ez izateko! Beste-
ra izan da, baiña, neure pekatuen ordaiñetan.

5. Saia nintzan barri geiago jakiten bere etxekoan ar-
tean, eta aren egoera larriaz jabetu nintzan, are geiago. Eta gizon a leenengotan uste zan beizen errudun etzan, ikusi nebanez. Zori txarreko emakume arek zoradurak jarri eutsozan tupikizko sasi-kutuntxo baten, berak emon eutsoz-
nak, berari eutson maitasunagaitik saman eroateko eskatuz, eta au iñok be ezin izan eutson kendu-azo. Nik eskuarki ez dot, egia esan, sorginkerietan siñisten; baiña neuk ikusitako au diñot, abisu lez, emakumeakaz onako artu emona nai daben gizonak kontu apur bat euki dagien. Jakin be-
gie errez galtzen dabela Jainkoari izan bear dautsoen lotsea, garbitasuna gizonak baiña geiago eurak zaindu bear leu-
kien arren; ez beie, alan be, konfiantza larregirik eurengan izan, ezetan be. Eurak gogo dabena ta deabruak barruan sortzen dautsen griña aurrera eroateagaitik, edozer egiteko gertu dagoz-ta. Ni orren ziztriña izanda be, ez nintzan ona-
ko ezertan jausi, ezta ez neban iñoiz txarra burutzeko as-
morik izan. Ez dot uste, al izan ba'neu be, iñoren irritsak ortara naiezta beartuko nindukenik. Jaunaren graziak la-
gunduta ori bakar-bakarrik; bere eskutik itxi ba'nindu, neu-
rez ezingo neban, beste edozertan nengian gaitza emen be egingo neukean; ez bait nozue fidagarri.

6. Au jakitean, ba, maitasun geiago erakusten asi nin-
tzan. Ona zan nire asmoa, egiña ez oster; ona egitearren, aundia izanik be, etzan gauzatu bear gaitz txiki bat. Jain-
koa zan geienez gure autu-gai. Eta au naiko probetxugarri izan jakon berari; baiña, nik uste, ni asko maite izateak ekarri ebala erabagia artzera. Izan be, niri eder izatearren, aldean eroian kutuna neuri emoteraiño etorri zan, eta nik

beingoan erre kara bota neutson. Au kendu neutsonean asi zan lo-zorro sakonetik itxartzen danaren antzera eta urte areitan egindako guztia gogoratzen, eta bere buruaz izularriturik, bere galeraz damutuaz, aurreko urteetan eroan eban bizimodu gaiztoari gaitz-eritxi ta iguin artzera etorri zan. Asko lagundu izan eutson itxura zanez Andra Mariak, onen Sortze Garbi-garbiaren zale-zale zan-eta, egun orretan jai aundia egiten eutsolarik. Itxi eban azkenez dalako emakumea ikustea oso-osoan, eta etzan asetzen Jaikoa-ri eskerrak emoten, argitu ebalako. Ain zuzen, nik leenengoz ikusi nebanetik urte bster a il zan. Jainkoaren zerbitzuan iraun eban aldioro. Niri eustan begi ona nik ez neban egundo uste izan txarra zanik, garbiagoa izan zeikean baiña. Egia esateko, ba-zan tertzio ta egokierarik Jainkoa begien aurrean ezik, irain astunagoetan jaustekoak. Esan dodanez, nik ez neban egingo jakiñaren gaiñean pekatu astuna zanik. Eta nigan au ikusteak, uste dot, ari lagundu egiten eutsola ni maite izaten; gizaseme guztiak, ba, nik uste, geiago emonak dirala birtute-zale ikusten dabezan emakumeetara; eta emen opa dabena lortzeko be, bide ontatik geiago irabazi bide daroe eurakaz, gero adierazoko dodanez. Ziurtzat daukot salbamen bidean dagoala (3). Arrisku aretatik aldenduta, oso ondo il zan: Jaunak, antza danez, bide oneitatik salbatu nai izan eban.

7. Iru illabetea egon nintzan toki aretan neke-min izugarriakaz, osabidea ba nik eroan neikena baiño latzagoa izan zan. Illa biren buruan, osagaien osagaiez, amaitan neukan doi-doi bizia; biotzeko miña, oster a, au osatzera joan nintzan ara, askoz biziagoa zan, eta batzutan uste neban agin zorrotzakaz oratzen eustela bertatik; amorrua ete zanaren bildur ziran. Ezetariko indar barik, ezin neban ezer jan-eta, edan baiño; narda ta zapora emosten edozer janarik. Sukarra neukan etenbakoa, eta auldurik nengoan; ia illabete osoan muxilarroa (purga) emoten eusten egunero:

(3) Bezedas'en ezagutu eban eleiz-gizona,

azkenerako erreta lez aurkitzen nintzan, eta kirioak kixkur-tzen asi jatazan eroan eziñeko oifiaze-miñetan, egunez ez ga-baz atsedeen apurrik be ez artzeraiño eldurik. Onez gaiñera, tristura ta illunaldi ikaragarriak jo ninduen.

8. Auxe izan zan osabide atatik atera neban irabazia. Aitak oster a be atxeratu ninduan, eta beste osagille batzuk asi ziran ni ikusten. Etsia emonda, danak itxi ninduen; beste batzuk gaiñera gaitz-epelak joa nengoala iñoen. Onek ez eustan biotz eragin aundirik egiten; gorputzeko miñak ziran etenda izten ninduenak, eta burutik oiñetaraiño mi-ña zan nunbait, osagilleak iñoenez, kirioetakoak eroan ezi-ñak bait dira. Guztiok kizkurtzen ziran lez, egi-egia, nik neure erruz galdu ez ba'neu, oiñaze ikaragarria zan. Egoe-ra latz onetan ez nintzan egon iru illabete bai fio geiago, ezifia bai zirudian ainbeste gaitz batera sufritzea. Arriturik nago orain neu be, ta Jaunaren mesede aunditzat daukat Aren Aunditasunak emon eustan pazientzia, Agandik eto-rrela argi ikusten zan-eta. Asko lagundu nindun ortarako Job'en istoria *Gregorio Deunaren Moralak* liburuan iraku-rri izanak, onegaz Jauna bera aurreratu jatan antza, eta nt otoitzean asi, nik pazientzi ain aundiz gaixoaldia eroan ne-gian. Jainkoaz ziran nire autu guztiak. Sarri nekazan gogo-ra Job'en itzok, esanaz: *Onak Jaunaren eskutik artzen ba' doguz, zergaitik ez txarrak be* (2, 10). Onek uste dot ke-mena emostala.

9. Eldu zan bitartean abuztuko Andra Mariaren jaia. Jorrailletik ordurarte luzatu ziran oiñazeak, azken iru illa-betetan aundienak izanik. Autortzen alegindu nntzan, be-ti be sarri autortzea atsegin jatalako. Eriotz-bildurrez egi-ten nebala uste izan eben, eta niri naigaberik ez emotearren, nire aitak ez eustan itxi. O aragiaren maitasun larregia! Ta nire aita eleiztar zan oso! Eskolatua be bai ez gitxi, etzan beraz ez-jakifiez izan! Onek bai ekarri leistala kalte galanta! Gau aretan bertan, minik miñenak jo ninduan, krisis gogor-gogorrak, lau egunez ia konorte barik euki nin-

duenak. Ontan, azken Igurtzia emon eusten eta ordu edo une baktxean uste eben ilgo nintzala, Kredoa esan besterik ez eusten egiten, zer-edo-zer ulertuko ba'neukean lez. Ildakotzat be jo ninduen batzutan, gero ba argizagia be aurkitu neban begietan.

10. Aundia benetan nire aitaren naigabea, autortzen itxi ez eustalako; Jainkoari dei egin eta erregutu ez eban besterik egiten, aspertu barik. Jainkoak atzenez entzun euston. Egun bat eta erdian edegita euki cben obia nire monastegian, geure praillen komentu baten illetak egin ondoren, emendik ara nire gorpua eroanik: Jaunak neure senera biurtzea nai izan eban. Neurera biurtu-ala, autortu nai izan neban nik, eta Gure Jauna artu, negar ugarika; negarrok etziran, nire eritxian, Jainkoa iraindu nebalako bakarrik, olan izan ba'litz eurak ziran naiko ni salbatzeko. Egiaz, jausi ba'nintzan bere, pekatu astunak zirala gero jakin dodan gauza batzuk etzirala pekatu esan eustelako izan zan; au baiña, esan dot, ez jat atxaki. Neukazan oifiazemiñak ezin-sufriduak ziranarren, autorkuntza ona baifia sentipen gitxikoa, Jainkoa iraindu nebala nekianaren aldean; beste mesede batzuen artean auxa be egin eustan Aren Aunditasunak, Jaunartzen asi nintzanetik, iñoiz be, ez nebala itxi autortu barik, pekatu zala uste neban ezertxo be, naizta gauza ariña izan. Nire eritxi baten, alan be, ni orduan il ba'nintz, nire betiko salbamera arriskuan aurkitzen zan, bai autorleak jakitun exkasak ziralako eta bai ni gaizto ezereza nintzalako; baita beste zer askogaitik be.

11. Ontara eldurik, egi-egia diñot, Jaunak berbiztu egin ninduala dirudi, eta ia izu-ikaraz nago neure artean. On litzakela deritxat, o ene arima! Jaunak jagon zaitun arriskuetatik gorde zaizala, eta Jainkoari zeutsan maitasunarren iraintzeari laga ez zeutson ezkerro, bildurrez beintzat itxi daizula; nai izan ba'leu, bada, beste milla abagunez kendu leuskizun bizia egoera askoz larriagoan. Ez dot geiegi gaiñeratzen dodanik beste milla esatean, neure obenak

kontatzean kontuz ibilli nendilla agindu eustenak asarre ba' dagist be, eta naiko edertuak joan. Jainko-maitasunarren deskatsok nire erruetatik ez daiala ezertxo be murriztu, obeto ikusten bai da orrela Jaingoikoaren aunditasuna, eta zelako pazientzia euki daroan arimakaz. Onetsia izan bedi betibetikoz. Eta emon beist eriotza, aurrerantzean nik Bera maitate izaten laga baiño leen.

VI A T A L A

Neke-miñez egoala Jaunak emon eutsan eroa-pena azaltzen dau. — Zelan artu eban bitarteko ta zaindaritzat Jose doatsua.

1. Krisis gogorrean igarotako lau egunotatik guztiz txarto geratu nintzan, eta Jainkoak berak daki bakar-bakarrrik zenbat jasan bear izan neban. Miiña aginka ta aginka zatirurik neukan; eztarria ezer iruntsi barik, aul-aul ta ito bearrean, ura bera be ezin arturik. Oso-osoan neritxon azur-loka nengoala, eta burua durduria aundiz. Kizkur oso, aril bat egiña. Onetan geratu zan egun areitako oiñazea, zirkifiik be egiteko gauza ez nintzala, ez beso, ez oiñ, ez esku, ez buruari eragiteko indar barik; ilda ba'nengoan lez, norbaitek erabilli ezik; eskuiko atzamar bat bakar-bakarrrik uste dot igitu al izan nebala. Ez egoan, ba, nigana eltzerik, ezelan be. Guztiz gupera ta mindua bai neukan gorputz osoa, nik ikuturik be jasan eziñeraiño. Izara baten, batek ertz batetik eta besteak bestetik, erabilten ninduen. Berbizkunde Eguneraifio izan zan au. Gozagarri auxe neukan bakarrik, ots, ikutzen ezpa-ninduen, miñak sarritan gelditu oi jatazan, eta atseden pizkat artzen nebalako, uste neban, obetu nintzala, eta eroapen urriaren bildurrez nengoan; eta orrelaxe pozarren gelditu nintzan oiñaze ain latz eta etenbako barik neure burua ikusten nebalako. Ala ere, lotu zitzaidan lau aldiko otz biziekin, gogorrak noski eroan eziñak euki oi nebazan; iguintza be aundi-aundia.

2. Orduan emon eustan moja-etxe batera joateko gurari bizi-biziak, eta nengoan lez eroan bear izan ninduen. Ilda itxaroten ninduen, oindiño arimaz artu bear; gor-

putzez, baiña, illik baiño be txartoago, ikusi bakarrik erruki emoteko moduan. Benetan aul eta akitu, ezin esanean, azurak soilki geratzen jatazala, onezkero. Onela egon nintzala diñot zortzi illabetean; elbarritua, ostera, obetuz niñoian arren, ia iru illabetetan egon nintzan. Katamarka ibilten asi nintzanean, eskerka nengoan Jainkoari egi-egiaz. Oiñaze guztiok Jainkoaren naia egiñaz eroan nebazan, eta poztasun aundiz, lenengotan ezpazan be: dana egiten ba.it jatan ezereza lenengotan izandako oiñaza-miñen aldean; gertu nengoan Jainkoaren naia egiteko, beti-betikoz orrela izten ba'ninduan be. Osatzea nai ba'neban, uste dot, otoitzean bakarrik egotearren zala, erakusten nebanez, au ezifia zan bada gaixotegian. Sarri-sarri autortu oi nintzan, ar-emon barru-barrukoa izanik Jainkoaz, eta eredugarri guztientzako, eta arri egiñik geratzen ziran Jainkoak emoten eustan pazientzia ikusiaz. Jainkoak esku emon ezik, izan be, eziña zirudian ainbeste neke-min ain pozik croatea.

3. Zer aundia zan niretzat Jaunagandik arturiko otoitzzaletasuna; onek erakutsi eustan zer zan A maite izatea. Momentu atarik, ain zuzen be, birtute barriak ikusi nitun neugandik urteten; ez sendoak gero, etziran ba naiko izan ni okerbidetik osoro atera ta onean jagoteko. Ifiorgaitik eta ezergaitik ez neban txarto esango eta mormoxetik be alegiñak egin oi nebazan alde egiteko; gogoan nenkarren beti ez nebala gura izango, ezta esan be, beste iñortxogaitik, neugaitik iñok esatea gura ez neukeanik. Au bene-benetan artzen neban letorkidazan edozein eretietarako. Orretan, alan be, ez nintzan ain zeatza izan, abagune larriak aurkezten jatazanetako batzutan batez be, geienez olan etzan arren. Beraz, nigaz egozanak eta nigaz artu-emonean ebiltzanak, ontara ekarten alegindu oi nintzan, eta eurok be onako oituraz jantzi ziran. Danak eukien ziurtzat ni nengoan lekuan seguru eukezala euren sorbaldak, eta erabat esan dagiket nire adiskide, senitarteko eta irakasten neutsenakaz be. Beste gauza batzuetan, baiña, kontu aundia emon bear deutsat Jainkoari, emon oi neutsen ikasbide txa-

rragaitik. Parka beist Jaunak, gaitz askoren iLurri izan nintzalako! Nirea egi-egiaz etzan asmo ain makurra, naiz-ta egitez orrela gerta.

4. Bakarti egiña gclclitu nintzan. Eder jatan guztiz Jainkoagazko artuemonan ta Beronegaz itz egitea; nik no-gaz berba egin ba'neukan be, poz-atsegin geiago cmon oi eustan Arek, munduko adei-lege, buru-makurka, itz-arro ta zapuzkeri guztiak baifio. Jaunartu ta autortzera joan sarriago egiten neban, eta ez gurari urriz. Biziro gogo neban liburu onak irakurtea, Jauna iraindu nebalako atsekabe gordiña somatzen neban eta batzuten, gogoratzen naz, otoitzarako gogorik ez neukan Jauna iraindu izanagaitik, naigabe aundi ori zigor lez sentitzen nebalakoan. Au gero ta geiagotiaz joan jatan eta ez dakit berau zegaz ipiñi bardiñean. Etzan bildurraren, ez asko ez gitxi, iñoiz bere ez ori; Jau-nak otoitzerakoan emoten eustazan atsegin aundiak eta zenbat zor neutson gogora etorten jatalako zan batez be, eta nik neuretik zein txarto ordaiñez erantzuten neutsolea ikusiz, ezin neban au ezelan be eroan; onek zumin-erazten ninduen asko ta asko. Negar ugariak erioten nebazan oker origaitik, ez jatazan pozbide ez niñoiara aurrera ikusten nebalako, eta jausi-zori jarri ezkeren ba-nekialako barriz bertan laban egiteko adorerik ez neukalako. Guzur-negar-rak zirala uste neban, eta Jaunak oindiño eurak emonaz egiten eustan mesedea aundia zala ikusi ta euretzan benetako damuz ez urtu, oraindik aundiagoa zala neritxan nire errua. Luzaro barik autortzen alegintzen nintzan, eta, uste dot, al nebana egiten nebala graziara biurtzen. Oker guztia onetan: jausi-arriskuak sustraitik ez kentzean, eta autor-entzuleak gitxi baiño ez laguntzean. Esan ba'leuste zelako gal-zoritan nenbillen eta artu-emon areik etetera bearturik nengoala, dudarik bage nik uste gauza zuzenduko zala. Nik ez bait neban ezelan be sufriduko pekatu astunean egun baten be ibilerik, orrela zala jakinda. Jainkoari bildur izateko ezau-garri danak etorri jatazan otoitzari ekiñaz, eta arrigarri egon nintzaneko guztian, ardura aundiz jagon neban oben astu-

netaz neure kontzientzia. O Jaiko ona!, osasuna nai neban nik Jainkoa geiago zerbitzeko, eta berau izan zan nire oker guztien iturri!

5. Ba, lurreko osagilleak ain ezindua itxi ninduela ikusirik, eta oraindiño gazte ni, zeruetakoetara jotea erabagi neban osatu nengien, oindiño ba osasuna opa neban, gaxak poz aunditan neroiazan arren. Noizik bein, egia autoritzeko, osasunez bizirik betiko galdua izatekotan, nengoan lez obeto nengoala uste neban; baiña oindiño be iruditzen jatan osasunaz lan geiago egingo nebala Jainkoaren zerbitzuan. Auxe da gure amarrua Jaunak gugan dagiana osorik gugan egiten ez iztea; Berak bai daki guri zer jakun egoki.

6. Meza-eraspenak egiten asi nintzan, beste otoitz onartzeko batzuekaz batera. Ez nintzan iñoiz be, egia esan, pertsona batzuk, andrazkoak batez be, egin oi dabezan beste deboziño-zale, niretzat eroan eziñak eta eurentzat deboziño aundikoak z'rudienak ain zuzen; (geroago ulertzer a emon dabez etziral a egokiak, sifiiskerizkoak baifio)! Nik neure alde z zaindari ta bitartekotzat Jose Deuna artu neban, onen ardurapean jarri rik gogo bero-beroz. Ondoren neure aita ta jaun onek atera ninduala argi ta garbi ikusi neban, bai estualdi ontatik eta bai beste aundiago batzuetatik be, deduzko arima galtzekoetatik baitik t>at, nik eskatzen nekiana baiño geiago berak emon oi eustan eta. Ez naz gogoratzen, orain arte, gauza bat eskatu ta emon barik itxi nauanik. Arritzekoa da, egiazki, Jainkoak egin daustazan mesede aundiak, zenbait galzoritik urrindu nauan, gorputz naiz arimakoetatik, Santu doatsu onen bitartez. Jaunak, antza, beste santu batzuei onako edo alako bear-izanetan laguntzeko grazia egin dautse. Santu onen lagunbidea, ostera, nik esperientziz dakidanez, bear-izan guztietara zabal-tzen dana da. Jaunak onegaz aitzen emon nai dausku, lurrean, aita-izenez zaintzaille izanik, agindu leikeonez, menpeko zala, orain zerutik be eskatzen dautsoena emon barik ez dauzala izten.f Beste pertsona batzuk be ikusi dabe au,

nik arengan goraintzi eitezela esaten neutsenak be experian-
tziz ikasia dabe-ta; beste asko ba-dira oraindik olako ex-
perientziz aren debotu aundi agiñak.

I. iAI nebanik eta aundikiroen ospatu oi neban aren
jaia; baiña egia autortuz ospe zentzuna ta ames utsa geiago
sartu oi neban orretan, egiazko espiritu garra baiño;eder
jatan gauza bakotxa bere lekuan jartea, ondo ta egoki; be:i
be baiña asmo onez nenbillenj Alderdi makur au eroian,
alan be: Jaunak, nik ezer onik egiteko doaia emon-ala, nik
uts-akatsez beterik burutzen nebala. Askets daistala Jau-
nak, txarrerako irrits bizia, ainbesje maiña ta ardura bait
nekarren jakingale ta arrokerirako[_Nik, Santu doatsu onek
Jainkoagandik zelako onak lortzen dauazan oar-ikasiz ja-
kin dakidan ezker, ari ta oni buruan sartu dautset bero-
nen deboto aundi izan daitezala. Ez dot iñor ezagutu, Santu
onen zale dala ta beroni zerbitzu bereziak egin dautsazanik,
onerako bidean aurreratuago ikusi ez dodanik: aren zain-
pean jarten diran arimak modu berezi-berezian dira arek la-
gunduak. Urte batzuk dirala, bere jai egunean, urtero, apar-
teko grazi bat eskatu izan dautsat, eta beti entzuen daus-
tala deritxat. Eskaria zerbait oker ba'doa, berak zuzendu
oi dau, eta onek niri on aundiagoa daust egiten. J

8. Idazteko eskubidea daukan pertsonea ba'nintz, po-
zik luzatuko nintzateke pitean-pitteen Santu doatsu onek
neuri ta beste pertsona batzui egin dautsezan mesedeak
adi-erazten. Baifia agindu eustena besterik ez egitearren,
labur idatziko dot gauza askotan, nik nai neukean baiño
laburrago, beste zer batzuetan bear bezela luzeago eginda
be; au da, on guztian zurtasun gitxi erabilli oi dauanaren
antzean.rXuxe bakarrik eskatzen dot, Jainkoarren, sifiisten
ez daustana doala ortara ta berenez ikusiko dau zein ona
dan Erkaba (Patriarka) onen zainpean jartea, beronen de-
botu izanik. Otoizlariak batez be beti izan bear leukie oni
erantsiak; nik ez dakit, ba, zelan gogora elcarri leiken Ain-
geruen Erregiña, Jesus Umeagaz ainbat denpora emon ebana

ta Jose Doatsuari eskerrik egin ez, bi arei neke-lorretan ondo be ondo lagun izan jakenari ain zuzen. Otoitz egiten erakutsi leikeon maisurik aurkitu ezin dauanak, artu bei erakusle Santu doatsu au, ez dau bidean errakuntzarik izango. Eder Jaunari nik bakorik ez egitea aretaz mintzatzen ausartuaz. Nik benetan eraspén aundia dausat, baiña aren zerbitzari ta antzeko izatean, uts egin dot beti. Arek, ba, dan legez jokatu eban ni jaso ta ibiltén lagunduaz, eta ez elbarriturik jarraitu. Nik barriz ez dot, nazanez, ondo begiratu mesede au.

9. Nok usteko, baiña, ain arin jausiko nintzala, Jainkoak orrenbeste doe ta atsegin burutu ostean, orren bizkor jausiko nintzanik! Bera ez ete jatan asi ni birtute ederrez apaintzen, bere zerbitzura bultz eragiten eustenak emoten? Ia illean nik neure burua ikusi ondoren, eta gaiztetsia beste mundura joateko arriskuan! arima ta gorputz berbiztua, ikusten ninduenak zukurrutza sarturik bait egozan ni bizirik ikuskatuaz! Zer da au, ene Jauna! , bizitza ain arriskutsuan bizi bear ete dogu? Au idaztean, zeure errukiz eta laguntzaz bakarrik, dirudit, esan dagikedala Paul deunak idatzirik laga euskuna, baiña ez arek baizen osoki: «*Onezkero ez naz ni bizi, Zu, ene Bgille, bizi zara enegan*» (Gal., 2, 20). Egin-egíñean be, urte batzuk dirala, esan nengike, zeure eskutik euki nozula; eta oraintxe ulertu ta experientziz egiztatu, nire gurari ta erabagiak urte oneitan gauza askotan, txikienean be, zure naiaren kontra ez joateko, naizta ulertu bage irain ugari egin bear dautzudazan arren, Jainko aundi orri. Iruditen jat, alan be, ez jatala aurean jarriko zure maitasunagaitik erabagi sendoz bera egitera bultzatuko nananik, eta batzutan Zeuk lagundu daustazu eurretan ondo urten nengian, eta ez dot mundurik gura ez bertoko ezertxo be, Zeuretik urtena ez baldin bada, eta beste oro gurutze astuna iruditzen jat. Errez ziria sartu neuskio neute buruavi, eta bear bada ez dira zintzoak nire sentimentuak, baiña Zuk ondo dakusazu, ene Jaun orrek, ez dodala uste nik guzorra diñodanik. Gauza batek bakar-bakarrik izutzen nau,

eta errazoi aundiz, Zeuk zeure eskutik itxiko ete nozun barriro. Ba-dakit, ba, noraiño eltzen dan nire indarra ta kemen urriak, Zuk emonaz-emonaz aldioro lagundu ezik, bertanbera itxi ez zagidazan. Eder bekizn, Jainko aundi! , orain berton be ez nadilla idoro Zuk itxita, guzti au neuretikoa dalakoan. Ez dakit zelan dogun ainbesteko bizi-griña ain seguru-eza izanik dana! Niri eristen, ene Jauna! , eziña zala onezkero Zu oso-osorik lagatzea, eta ainbat bider itxi zindudazan ezker, ezin dot orren bildur ez izatea, Zu nigan-dik.apur bat aldendutakoan, guztia bai joian lurrera. Be-deinkatua zaitez beti-betiko z nik Zu itxi arren, Zuk ni ain osorik itxi ez ninduzulako. Barriro zutitzen nintzan ni, Zuk eskua emonda beti. Eta sarritan, Jauna, ez neban nai, ezta ulertu be zelan sarriro dei egiten zeustan, bertatik csango dodanez.

VII ATALA

Zelan joan zan galduaz Jaunak egin izan eutsozan mesedeak, eta zein bizibide galdua asi zan egiten. — Zelako gaitzak datoza lekaime-komentuak guztiz itxiak ez izatetik.

1. Orrela asi nintzan, ba, denpora-pasa ta denpora-pasa, uskeriz uskeri, abagunez abagune, zer aundietan murgildu ta milla zirkilkeritan arima galtzeraino ibiltan. Lotsa nintzan jadanik otoitzak berez dakarren barruko artu-emon gozoa eukiten be. Mingarri jatan orain Aregana urreratzea, eta au zan, ziur asko, pekatuak geitu ta gauza onak onetarako eskintzen daben poz-atsegiñik sentitzen ez nebala-ko. Argi nekusan nik, Jauna, onek uts-egiten eustala Zuregandik urrindua nenbillelako. Auxe izan zan deabruak, apal-itxuraz, eginiko amarru ta kalterik izugarriena. Neure burua orren galdurik ikusiaz, otoitz egiteko bildur izaten asi nintzan. Uste neban besteen moltzoko ibiltea obe zala, okerrera zan izan be ziztrin izatea, eta erreza bear nebana eta aoz otoitz egin, gogokoa itxirik, ez bai zan bidezko ain barrutiko ar-emona Jainkoaz eukitea deabruakaz egotea merezi ebanak; jentea atzipetu besterik ez nebala egiten, kanpo-eder izanik. Eta olan, bizi nintzan etxeari ezin neinkeon errurik bota, neure maiñaz bada eritxi onean euki nengien ainbeste arreta neukan, naiz-ta oartzeke, kristiñau onaren itxura egiñik. Jakiñaren gaiñean —gora Jainkoa!—, ta nik dakidanez, azal-uskeriz eta zudu-eritxizko pekatuaz ez dot uste iñoiz iraindu dodanik. Gai onetan beingo-beingoan etorkidazan eragiñak atsekabe ikaragarria emosten eta galduaz joan deabrua eta irabaziz ateratzen nintzan ni. Onetan, beraz, aren tentaldi gitxi izan dot. Jainkoak, alan be,

itxi ba'nindu beste gauza batzuetan baizen gogor emen be zirikatua izaten, jausiko nintzalakoan nago. Baiña orain arte beiñik-bein Jaunak gorde nau onetan; eta onetsia rzan jenteak eritxi ona izatea, nik bai nekian neure barruaren barri.

2. Neure burua ain kaskartzat ez eukite au, ondo gazte ta ainbat gauzatan sarturik ikusten ninduelako izan zan; sarri leku ezkutura baztarten, erreztatzen eta irakurten eten garik, Jainkoaz mintzatzen; an eta emen Aren irudia pinta-tzen, eta otoiztegira alditxoka joaten eta bertan deboziño-zko gauzak egiten alegintzen nintzala; iñortxogaitik ez ne-bala txarto esaten, eta onako beste gauza batzuk, on itxu-razkoak nunbait; eta nik, uskeri-zale nintzanez, ba-nekian zeintzuk ziran munduan estimagarritzat eukezan gauzak, eta onei guna ateraten. Onela, komentuan ni baiño zarrago zi-ranai baiño askatasun geiago emon oi eusten, nigan zigurta-sun osoa izanik. Nik ez neban iñoiz askatasunik artu ez bai-men barik ezer egin, au da, zuloz edo ormaz nai gabaz ibi-i-lli; ez dot uste nik komentuan olakorik egin nengikeanik; ez neban burutu olakorik, Jaunak bere eskutik euki nin-dulako. Ainbat gauza egin aurretik kontuan artu ta aus-nartu oi nebazan, ainbeste lekaimen izen ona neugaitik arris-kuan ipintea egi-egiaz dongakeri aundia zala neritxan, bu-rutzen nitun beste zer batzuk ondo egiñak ba litzazan. Egi-tan, ekerra ez joian ain biurtua, aundia izanik be.

3. Augaitik deritxat niri naiko kalte ekarri eustala le-kaimetxe itxituan ez egoteak; onak ziran areik onez euki egian askatasuna, itxitua eskatzen etzan lekuan ez bai ziran geiagora beartzen, ni barriz, kaskar-ezerez au inpernura eroango nindun ziurki, Jaunak, ainbeste bide ta osagarritz, bere mesede oso bereziz arrisku onetatik atera ezpa-nindu. Ainbeste andrazko bizi dan monastegi batek, nire gardiz ola-ko askatasunez, arrisku aundia dau ta uste dot oinkada bat in-pernurako doillorrentzat geiago, euren argaltasunarentzat osagarri baiño. Au ez artu, arren, neuri begira, ba-dira ba

asko Jaunaren zerbitzuan egiaz eta zintzo diarduenak, eta Aren Aunditasunak, ona da-ta, ezin dauz itxi mesedeak egiteke; komentu au ez da zabalenetarikoa eta erlijijñoa ondo zaindu oi da berton; beste batzuk dakardaz emen gogora neuk ikusi ta dakidazanak.

4. Barriro diñot atsekabe aunditan: Jaunak aparteko deiak egin bear dautsez batzui, ez baten bakarrik askotan baiño, salbatu daitezana, munduko dedu jolasaldiak onetsirik bai dagoz, eta ez dakie zertan beartuta dagozan be, eta Jainkoak nai bei gaiñera pekatu dana ez onartzea, nik sarritan egin oi nebanez. Zail-zailla da au buruan sartzea, ontan Jaunak berak eskua egiaz jarri ezpa-legi. Gurasoak nire esana onartuko ba'leuskide, au esango neuskioe: ez dagiela ardura geiegirik ipiñi euren alabak salbameneko bidean jarten, munduan baiño be arrisko geiagoz; euren dedua jagon dagiela eta olako monastegietan sartu baiño, apal-apal izanik, be ezkon-azotea naiago izan dagiela, onera makurtuak ez ba'dira —eta Jainkoak nai izan bei orrek on egitea—• edo-ta euren etxean euki daiezala. Gaiztoa izan nai dauanak gitxi baiño ezingo dau kuku iraun, eta azken batean, Jaunak agertazten dau: ez bakarrik bere buruari, beste guztiai be kalte egiten dautse. Eta batzutan gaixoak, eurak ez daukie errurik, aurkitzen daben bidez-bide doaz-eta. Errukior dira bene-benetan, askok mundua laga nai izanik be, arriskutik babes, Jaunaren zerbitzari leial izango diralakoa, eta munduko galzorietatik aske, orren ordeaz amar mundu baterakoan sarturik aurkitzen dira, euren buruak zelan jagon ez zuzendu ez dakiela; euren gatzetasunak, buruaren erosotasunok eta deabruak alkar artu daroe, eta mundumundukoak diran gauza batzuk jarraitzera makur-azo. Zabitza ara, ontzat daukie-ta, esan oi danez. Siñausle zorigorrekoe antza artzen dautset, alde batetik, itsu-azo dabela ta eurak jarraitzen dabena ona dala ulertu-azo, eta orrela siñistu barik siñisten dabela; barruan daroe, ba, dagiena txarra dala diñotsena.

5. O gaitz eskerga! Lekaide-lekaimeen oker aundia!, ez diñot orain emakumeena ala gizonezkoena dan geiago, erlejiñorik zaintzen ez dan lekuan; monastegi baten bide bi dagoz, birtutezkoa ta erlejiñozkoa, eta erlejiñorik eza, eta ia danak dabilta bardin samar. Txarto esan dot, bardin ez, geure pekatuz, osorik-ezena ariñago ba'lebil lez, eta oneik ugariago diranez, mesedetuagoak dira. Ain gitxik bai darabilgu egiazko erlejiñoaren bidea, egiazki bere deiari osotoro jarraitzen astera doan praille eta mojeak bildur geiago izan bear dautso bere etxekoari, deabru guztiai baiño, Deabruak monastegietan eratu oi dabezan adiskidetasun eta maitekerietaz baiño zuurtasun-ardura geiago izan bear da Jainkoari euki nai dautsazun maitasunaz itz-egitean. Eta ez dakit nik zer dala ta arritzen garean Elcizan ainbaste gaitz ikusita; gaiñerakoentzat birtute-iturri izan eitezan, ba, eredu izan bear leukenak, joandako Santuak erlejiñoetan itxi ebezan espiritu-lanak ain galdurik daukiez. Gure Goiko Jaunak jar begi onetan, bear dala ikusten dauanez. Olantxe.

6. Asi nintzan ni, bnda, olako autu ta izketaldiak eukiten. Izketa oneik cz neban uste, emen erabilten ziranak diñot, nire arimara ekarriko ebenik gero ikusi nebanez, olako kalte ta zabarkeririk eurentatik erneko jatanik; uste neban, bai, gauza arrunta zala monastegi askotako alkar-ikusketan au, eta oitura onek ez eustala besteai baiño kalte aundiagorik egingo, nire eritxiz onak ziralako, eta ez nintzan konturatzen ni baiño askoz obeak zirala eta niretzat arriskua zana besteengan etzala ainbeste izango zerbait ba-zalata nengoan arren, denporea alperrik galtzea besterik ezpazan be. Pertsona batekin egonaz, czagutu barritan, Jaunak aitzen emon eustan ez jatazala egoki adiskidetasun areik, iragarri ta argituz itsutasun aundi aretan. Betarte zorrotz aurkeztu iatan Kristo, aitzen emonaz zein mingam jakon egitcn nebana. Arimako begiz ikusi neban gorputzekoakaz ikusi nengian baiño be argiago, eta ondo josita geratu jatan bavruan. Ogeita sei urtetik gora dira ori jazo zala ta orain-

dik aurrean daukodala dirudit. Darda gaiñean geratu nintzan, izu-izu eginda, eta ez neuke geiago ikusi nebana ikusi nai.

7. Nik ez nekian oindiño gorputzeko begiakaz izan ezik eziña zala ezer ikustea, eta onek kalte aundia egin eustan; deabruak lagundu nindun oker onetan, bestera eziña zala adierazo nairik; ikusi nebana lillura utsa zala, deabruaren malmuzkeria izan leitekela, eta beste antzeko gauza batzuk; beti geratzen bai jatan Jainkoarena zalako zerbait, eta etzala lillura bakarrik. Baiña neure atsegiñezko etzan lez, nik neure buruari guzur-diñok esan oi neutson; eta ni, au iñori esaten ausartzen ez nintzan lez, eta gero ni nekagarri ta naste askoz josia ibillirik, etzala ez-egokia alako pertsona ikustea ta oorea be galdu bearrean irabazi egiten nebala, barriro itzuli nintzan dalako alkar-izketara, eta sarri zelako aldiak alako autuetara, berein urte izan bait ziran solasaldi kirats onetan sarturik nenbillela. Ez neban uste, orretan nengoan-eta, izan zan baizen txarra zanik, batzutan ona etzala argi nekusan arren. Iñok be, baiña, diñodan pertsona au nigandik urrintzeko ez eban alegiñik egin, urli au maite-maite bai neban.

8. Beste bein pertsona ber-beragaz nengoala geugana etorrela ikusi genduan, baita an aurkitzen ziran beste pertsona batzuk be ikusi eben, txantxiku (sapo) lakoxe pizti bat etorten, oneik etorri oi diran baiño bizkorrago ibilliz. A etorri zan lekutik (1) etorteko ez dot nik uste, egunaren erdian, alako zomorrorik egon leikeanik, ezta egundo egon be, eta nigan egindako eragiña uste dot etzala misteriobakoa izan. Au be ez jat egundo aztu. O Jainko aundi!, eta zelako ardura ta errukiz niri deika zengozan era askotara, eta nire lozorro ta zabartasuna!

(1) Gizakunde mojategian, sarrerako atearen ezker aldean, iztegi txikian erakutsi oi da Teresak sapo a ikusi eban lekua.

.9 Moja bat neukan an, senidarteko nebana, aspaldi-koa ta Jainkoaren mirabe ona ta erlejiño aundikoa. Onek be iragarten eustan noizik-bein baiña nik ez bakarrik ari ez siñistu, baita beragaz asarretu be egin oi nintzan, errazoi barik gaizpidea emoten nebala uste ebalako. Au esan dot ondo ulertu daiten nire gaiztakeria ta Jainkoaren erruki aundia, eta merezi be merezi nebala inpernua eskertzarreko ain gordiña izan nintzalako; eta baita iñoizkoren baten Jau-nak orrela naita monjaren batek au irakurriz zerbidutea jazoko balitz, neugan zentzatu dedilla olakoa, eta nik eskatzen dautset, Gure Jaunaren maitasunarren, iges egin dagiela olako jolasetatik. Opa izan bei Aren Aunditasunak nik atzipetu dodazanetik bateren bat nik txarra etzala esan eta nik neukan itsuasun aundiaz arriskuaren barri ez emonaz, nik ez bai nitun erabagiz atzipetu gura; eta emon neutsen ikasbide makurragaitik, esan dodanez, gaitz askoren sorburu izan nintzan, naiz-ta olakorik uste bage egiña izan.

10. Leenengo egun areitan ni gaizorik nengoala, neurez zelan ibilli oindiño ez nekiaJa, besteai on egiteko gogo biziak indartzen nindun. Au asibarriengan batez be, tentaldi oso eskuartekoa izan oi da, niri ondo urten ba eustan be. Uste neban bizitza onetan ez egoala otoitzari ekittea baiño gauza obarik, eta maite-maite neban ezkeru neure aita, onek be neuk otoitz-egiñaz neukan poztasuna euki egiala nai neban; ortik, itzul-inguruka ta zear-bidez, al neban moduan, arek be otoitz-zaletu ta ortan arduratu zedin. Liburuak emon neutsazan ortareko. Esan dodan lez Jainko-zale aundia bai zan, guztiz ondo egokitu zan aregan ariketat au, eta bost edo sei urtetan uste dot zala, oso aurreratua ebillan eta nik atsegin aunditan egi-egiaz goresten neban Jauna. Esan eziñak ziran era askotara euki ebazan neke lanak; danak igaro oi zituan etsi on-onez. Sarri etorren ni ikustera, Jainkoari buruzko autuan alkar pozturik.

11. Ondoren, egiz ezereztua ta otoitzik bage nenbilleJa, oituzko bidetik nekusanez noski, ezin neutson eroan txu-

lut egin barik, urte bete ta geiago egon bait nintzan otoitzik egin bage olan jokatzea apalagoa zala use izanik. Eta au, ge-roago esango dodanez, nik euki neban tentaldirik errimeena izan zan, ortik galduko bait nintzan oso-osorik; otoitz egiñez, Jainkoa oi iraindu neban egun batean, eta beste batzutan neu-re barne batzen nintzan, iraintzeko terzioetatik bazterturik gero ta geiago. Dalako gizaseme ona onekin etorkidan lez, go gorra egin oi jatan orren iruzurtua ikustea, oitura nebanez Jainkoaz ar-emona neukala ak uste izatea; eta esan neutson jadanik ez nebala nik otoitz egiten, baiña ez zergaitik. Neu-re gaitzak ipiñi neutsozan txutxu ta aitzaki; izan be, gai-xoaldi luze atatik osatu nintzan arren, beti oraintsu arte euki izan dodaz, eta daukadaz euki be ondo aundiak, naiz-ta oraintsutik ona ez orren gordiñak. Baiña ez dira aienatzen ta modu askotakoak ditut. Ogei urtetan batez be, goize-tan, gorako errebesak euki nebazan, eta eguerdiraiño, ta ba-tzutsn beranduagorarte, ezin baraua ausi izaten neban. Ge-ro emen, gure Jauna sarriago artzen dot-eta, gabaz izaten dira okak, ogeratu orduko, pena aundiagoz, neuk lumaz eta beste zeozerez eragin bear izaten dautsot okari. Orre-la ezpa-dagit, datorkidazan penak askoz aundiagoak dira. Irudi jatanez, labur, ez naz egundo be samintasun aundi barik aurkitzen; batzutan ondo mingarriak benetan, bio-tzean somatzen nebazanak. Jarraikoak, baiño, noiztik noi-zera izan oi ziran. Elbarri (perlesi) gogor eta sukarrezko gaixoz, leen sarri eukiten nebazanetatik aske nagO' zortzi urte dirala, Aspaldi ez dautset jaramonik egiten gaixo onei. Aztu bai egiten naz gaitz onekin sarri, zerbaiten bein-tzat Jaunaren antzeko gareala, uste izanik.

12. Eta nire aitak beronek ez bait eban guzurrik esa-ten, sifiistu egin eustan nik ipiñi neutson atxakia; eta onez-kero, ni beragaz ondo nenbillerarik, nik ez neukan zetan ori adierazorik. Esan neutson, alan be, obeto sifiistu egian, onlo ikusten neban-eta onetarako ez egoala atxakirik, korua zerbituz bai nengian naikoa. Au be etzan naiko errazoi ezer izteko, ortarako gorputzeko indar aundirik ez bai da bear

maitatzea eta oitura baiño, eta Jainkoak emon oi dausku eretirik, nai baldin ba dogu. Eta beti emon be, eta beti diñot, batzuetan zeregifiak, eta gaixoak berak, ereti batzuk galazo arren bakar egoteko beste ereti asko, ontarako egon oi dira beste momentu osasuntsu batzuk; eta gaixoaldian eta zeregiñetan be, egiazko otoitza da, maite dauan ari-mearena bada, a eskiñi ta a norgaifik daroan gogorazo ta ontzat artu a ta gaiñ letorkiozan beste milla gauza be. Maitasunari daragio emen, indarrez ez bait jako bakar-orduan otoitzari ekin bear, beste gauzak otoitz ez ba litzaz bezela. Ardura apurategaz on aundiak aurkitzen dira Jaunak neke-miñakin otoitzerako denpora kentzen dauskun orretan, eta orrela aurkitu nebazan nik kontzientzi ona neukanean.

13. Baiña arek (aitak), eretxi ona bai eukan nitaz, eta maite nindulako dana siñistu eustan, erruki aundia arturik. Baifia bera jadanik egoera goi-goikoan aurkitzen zan ezke-ro, ez egoan geroztik nire aurka ainbeste, neurean tinko ikusi ninduanetz, ba-joian egiñik eta aurka egitea denpora galtzea zala esaten eban. Nik, barriz, denpora ori beste usketi batzuetan galtzen neban lez, ez eustan ardurarik. Etzan aregaz bakarrik, beste pertsona batzukaz be alegindu nintzan otoitza euki egien. Ni neu uskeri oneitan sarturik ibilli arren, otoi-zale ikusten nebazan legez, gogorapen eta gogaldia zelan euki leikeen irakasten neutsen, eta onegin oi neutsen, liburuak be ortarako aukeratzen neutsezala. Esan dodanez, beste batzuk be Jainkoaren zerbitzari izan eitezaneko gurari au, otoitz egiten asi nintzanetik nerotana zan. Nik uste neban neu Jaunaren zerbitzari on ez nintzan ezkero, ez eitela galdu neuk ulertzen neban giñoan Bere Goitasunak aitzen etnon eustana eta neure ordezt beste batzuk izan ekiozala zerbitzari. Au difiot ondo agertu daiten zelako itsutasunean nengoan ni, neure burua galtzen itxi ta beste batzuk irabazten aleginduz.

14. Garai onetan gaixorik jausi zan nire aita, andik egun batzuetara ilten zala. Joan nintzan ari laguntzera, ari-

man ni a gorputzean baiño gaixoago nengoala: ainbeste uskeritan murgil, ez alan be uste nebanez, galdua nengoala difiodan denpora guztion pekatu astunean eurkitzen nintzalarik, jakiñez ba ezelan be ez nintzake egongo. Naikoa lan izan neban aren gaixoaldian; uste dot ak ni zaintzen igaro ebazan neke-lanetatik, zerbait eroan nebala nik agaitik. Neu be txarto samar egon arren, saiatzen nintzan neure aldetik, eta, berak uts-egin ezkeror, on eta atsegin guztia falta jatan niri be, niretzat bera zan dana, eta onek emostan adore be-roa, il zan arte atsekaberik be ez erakusteko, ezek min-azoko ez ba' neu legez. Alan be, maite-maite nebalako, aren bizia amaituz joiala ikusiz^ onek arimea austen eustala irudi jatan.

15. Bene-benetan Jauna goratzekoa izan zan arek euki eban eriotza; eta aren il-naia, Igurtzi sakramentua artutakoan emoten euskuzan kontsejuak; Jainkoari gomentzeko eskatzen euskun, errukitsu agertu zedin berarekin; baita aolkatu ginduzan beti leial izan gintezela Arekin, eta laster amaitzen zala emengo guztia. Eta malkoz erakusten euskun berak Jainkoa ondo zerbidu eza; ots, praille ez izana, diñot, eta bizimodurik latzena daroen artekoa izan be. Segurutzat daukat, Jaunak amabost egun aurretik emon eutsola ulertzen etzala biziko, aurrerago bada, txarto egonda be, ez eban uste ilgo zanik. Gero, obero egin eta osagi-leak orrela adierazo, ez eutson orri jaramonik egiten bere arimea gertatzen alegindu baiño.

16. Aren gaitz nagusiena izan zan, iñoiz kendu barik, sorbaldan sentidu eban min ikaragarria; min onek batzuetan gogor oratzen eutson eta gorriak ikusi bear izaten zitu. Bein esan neutson Jaunak gurutzea eroan ebalakoaren zale-zale zan eskero, gogora eiala Bere Aunditasunak sentitzen emon gura eutsola Berak oiñaze aregaz sufridu ebanetik pizkat beintzat. Egiatzko pozaz ipiñi eban onek, eta nik uste dot geiago etzala alaka iñoiz ibilli. Konorte barik leze gon zan iru egunez. II zan egunean, Jaunak emonda, oso-

osorik zentzuneratuta egon zan, gu arriturik gengozala. Azkeneraiño iraun eban olan, eta kredorearen erdira, berberak esaten ebala, emon eban azken arnasa. Aingeru baten antzean gelditu zan; orrela iruditen jatan niri, a aingeru bat zala esan oi danez, ariman eta izakeran, on-ona bait eukan. Ez dakir zergaitik esan dodan au, neure bizimodu ziztriñari erru geiago ezarteko ezik. Neuri be, ba, alako eriotza ikusi ta alako bizitza ulertuz, alako aitaren antzeko zerbaiten izatearren, neure bizimoldea obetuz aurkitzen nintzan. Aren autorle domekar oso eskolatuak iñoan, arima a zuzen-zuzen zerura joialaren dudarik ez eukala; berak autortzen eban urte batzuk zirala, baita egiz goratu be arek eukan barru-garbitasuna (2).

17. Ona guztiz ta Jainko-zale zan Aita Domekar —Bizente Barron— onek niri be on aundia egin eustan; onekin eutortu nintzan, ba, ta arduraz artu eban nire ari-meari on egitekoa, nekarren galbidea ulertzen lagundurik. Amabostetik amabostera jaunartu eragiten eustan, eta astiro astiro, berarekin ar-emon barrukoagoan sarturik, ze moduko otoizketa nerabillen azaldu neutson. Era ori ez izteko esan eustan, iñolaz be ona baiño ez eustala egingo-ta. Asi nintzan araxe biurtzen, naita ez abaguneak izten, eta ez neban geiago otoitz egitea laga. Bizitza neketsua neroian, otoitzean ulertzen bai nituan neure utsak eta akatsak. Alde batetik deiez neukan Jainkoa; nik bestetik neure munduari jarraitzen. Poz ikaragarria ekarsten Jainkoari buruzko gauza guztiak; loturik neukien mundukoak. Kontrako bi oneik atondu nai nebazan nik, alkarregaz arerio ziran biok, au da, gogozko bizitza ta zentzunen poz-atsegiñak eta denpora pasako zorakeriak. Lan aundi jatan otoitza, espiritua ez nebalako jaun, morroi baiño; eta orrela ezin nintzan neure barruan kiribildu, olan eroana bait nintzan otoitz-orduan, milla uskeri neugaz batera murgildu barik. Urte asko emon nebazan gisa orretan, eta arriturik nauka orain nok ezin

(2) Ziurra da, antza danez, Alonso Zepeda 1543'an il zala.

eikean eroan bata naiz bestea itxi barik. Ondo dakit otoi-tza ez egoala onezkero neure eskuetan, bereakaz neukan ba mesede aundiagoakaz gura nindunak.

18. O Jainko ona! Adierazo al ba'neuz Arek urte oneitan baztertu eustazan arriskuak eta ni zelan biurtzen nintzan areitara, eta askatu ninduan dedua osoan galtzeko arriskuetatik! Ni zer nintzan erakusten eta Jauna nire egin-tza txarrak estaltzen, eta, baldin ba'neban, birtute txikiren bat nabari erazten, guztien begi aurrean aundi egiñik; olan beti euki ninduan autormen eta izen aunditan; nire uske-riak batzutan dizdiz egin arren, beste batzuk onak lez ager-tzen jakezalako, ez eben siñistuten. Dana dakian Arek iku-sirik eukan eta bearrezko zala iruditu jakon, gero mintza-tuko nazan aren zerbitzukoak niri siñistu ta uste ona izan egisten, aren biotz-zabaltasuna gogora ekarri oi neban, ez pekatu aundiak, askotan, A zerbitzeko neukazan gurariak baiño, eta gurari orreik egi biurtzeko indarrik eza negartu be bai.

19. O, ene arimaren Jauna! Eta zelan goratu al izan-go dodaz urte oneitan egin daustazuzan doai ta mesedeak! Eta zelan nik, aldi onetan, geiago iraindu zindudazan une-tan, Zuk, beingo-beingoan ekarten ninduzun damu aundi-ra, beste grazi ta mesede batzuk artu nengizuzan! Egi-egiaz, ene Errege, izan neikean zigor leunenena artu zenduan niretzat, neketsuena izango jatala ekianak letxe. Mesede aundiz zigortzen zenduzan nire txarkeriak. Eta ez dot uste zorakeria diñoadanik, ondo legoken arren zorakeria balitz, orain barrero oroimenera ekarriz neure esker txarra ta don-gakeria. Nire izakerarentzat gogorragoa zan, erru astune-tan jausten nintzanetan, mesedeak artzea eta ez zigorrak. Eurotatik uste dot, seguru, batek austu, asaldatu ta neke-razten nindula, neke-miñezko gaitz guztiak batera baiño geiago; azken au, ba argi nekusan merezita neukala, eta neure pekatuetatik pizkat ordaintzen nebala neritxon; guz-tia ez, alan be, askotxo ziran-eta. Baiña osteria be Jauna

mesedeak egiten ziardudala ikusiz, artutakoak ain txarto kitutuk jakiña, naigabe mota ikaragarria zan niretzat; baita orobat Jainkoa ezagutu naiz maite dabⁿ guztintzat be, nik uste. Geure berezkontik atera geinke au. Emen nire negar-zizpuruak, eta barruan somatzen nebana ikusteak ekarstan sumifia; au da, barriro be jaus-zorian nengoala jakitearenak, nire erabagi ta gurariak orduan, une aretan difiot, sendo egozan.

20. Gaitz aundia nunbait, arima bat bakarrik, ainbat arriskuren artean. Guzti au nogaz aolkatu ba'neu, uste dot, laguntzaille on ekidala jausi ez nendin, lotsaz beintzat, Jainkoari ez neutson ezkerro. Nik, beraz, esango neuskioe otoitzean diarduenai, asieran batez be, gai orretan ari diran beste pertsonakaz adiskidetasuna ta artu-emona euki daiele; oso garrantzi aundikoa da au, euren otoitzakaz alkarri laguntzeko baiño izan ezta be. Zenbat geiago, askoz irabazpen geiago dagozanean! Eta Nik ez dakit (solasak eta giza-naiak, ain ez izanda be, atsedean artzeko adiskideak nai izaten bait dira, uskeri ta gozamen areik alkarri esanaz poztasun geiago izateko), zergaitik, egi-egiaz Jainkoa maitatu ta beronen mirabe izaten asten danari ez jakon itxi bear bere atsegiñak eta nekeak pertsona batzukaz tratetan, otoitzari emonak danetatik euki oi dabez-eta. Egiazkoa bada, ba, Bere Aunditasunaz euki nai dauan alkar maitasuna, ez bei izan arropuzkeriaren bildurrez; cta leen-erasoak eragitean, irabaziz uxa begi eragin ori. Eta nik uste dot, asmo onekin dabillena, anurakor izango dala beretzako ta entziiten dautsenentzako; eskolatuago urtengo dau, eta zelan ulertu ezta be, bcre adiskideai crakutsiko dautse.

21. Ontaz itz dagiana gorantzaz ba'lebil, eukiko leuke baita meza entzuten edo kistar zurrean egingo leukezan beste gauza batzuk be; eta deboziñoz egiten ikusi; eta ez dira laga bear euteski bildurrez. Oso inportanttzi aundikoa dozu au onbidean sendo ez dagozan arimentzat; aurkako ta adiskide asko bait daukiez txarrera bultz-eragiteko, ortaz

nik ez dakit zelan berau goratu. Deabruak, deritxat, atri-kulu au erabilli dauala beretzat gora aundiko gauza lez; emendik dator arima askok euren egiazko asmoa ezkutatzea, au da, ez dabela iñok jakiterik nai, Jainkoa maitatu ta bera pozik euki, besterik ez dabela opa. Beste aldetik Berak azkortu dauz borondate ez ondo zuzenduak, asko erabilliak diralako, itzura danez arrokeriz arturik, iraiñak eurak be nabari jarten dira, kasu onetan Jainkoari egiten jakozanak ain zuzen.

22. Ez dakit zentzun-bakokeriren bat ez ete diñodan. Orrela balitz, zeuk, aita orrek, apurtu egizuz orriok, eta ez ba-dira, erreguz eskatzen dautzut, lagundu daiozula nire ezjakiñari, nire pentsamentua beste errazoi batzukaz orni-durik. Alan dabiltz ibilli be Jainkoaren zerbitzuko gauzak, aul eta nakar. Aren zerbitzuan diarduenak, alkarri sorbal-dak emonda jo bear dabela aurrera. Gauza ontzat artzen dau munduko uskerizale ta atsegiñetan murgil ibiltea, eta oneintzat begi gitxi. Baiña bat-edo-bat Jainkoari emona ba' dabil, askotxo dira mormoxka jardungo dabenak; lagunta-suna bear da orreingandik babesteko, atsekabe ta sentimen-turik ez jasateraiño eldu arte, eta olan ezpada, larrialdi aun-dietan aurkituko dira. Auxegaitik edo zan, nik uste, santu batzuk basamortura baztertu gura izatea. Noberegan ez eta Jaikoak, onak diranen bitartez, babestuko daula uste iza-tea; azi egin oi goi-maitasuna eskoren artean zabaldurik, eta millaka ondasun dagoz, olantxe dala experientziz ez ba'nenki, esaten ausartuko ez nkitzakenak. Egia da ni sor-tutako beste guztiak baiño makal eta ziztriñagoa nazana; baiña uste dot, ez dauala arek galduko bape, sendo izan arren, bere burua apal-azorik, beregan ainbeste uste ipiñi barik, onetan experientzia dauanari siñisten ba'dautso. Nik neuretik esan dagiket Jaunak erakutsi ez ba'leust egi au eta bideak erreztu ez, otoizlari ziran pertsonakaz sarri be sarri artu-emonean jarduteko, jausi ta jagi inpernura ni-ñoiala zuzen. Jausteko, ba, adiskide asko egozan lagundu-ko leuskidanak; jagiteko, barriz, bakar-bakarrik nengoan,

eta orain arriturik nago, zelan ez nengoken beti jausia. Eta Jainkoaren errukia goresten dot, axe bai zan bakarrik eskua emoten eustana. Bedeinkatua izan bedi gizaldien gizaldietan. Olantxe.

VIII ATALA

Arimea ez galtzeko, otoitza osorik ez iztetik etorri jakon ona, eta zein bikaiña dan galdua eskuratzeko. — Otoizlari nai ditu guztiak. — Irabazi aundia dala diño. — Eta iñoizka itxi arren, egoki da ariketa ortara biurtu ta on aundi orri herea emotea.

1. Ez dot errazoi barik ainbeste goratu neure bizitzako aldikada au. Ondo dakust ikusi be iñori be ez dautsola atsegin aundirik emongo gauza ain ziztriña ikusteak, eta egiz gurago neuke au irakurri dagienak iguinduko ba'nindue, arima muker esker txarrekoa Jaunak ainbeste mesede egin dautsona, ikusiaz. Eta baimena nai neuke garai onetan zenbat bider Jainkoa iraindu neban adierazteko, otoitza deritxogun zutoin oni eutsita ez bait nengoan.

2. Jauste oneikaz, ia ogei urte ibilli nintzan itxaso ekaiztun onetan; jagiten nintzan, baiña txarto samar, barriro be jausi egiten nintzan-eta. Bizitza ain ganorabako ta utsean, kasurik be egiteke ia pekatu ariñai begira, eta astunai be, bildurra emon oi eusten arren, ez emon bear eusten neurrian, arriskuetatik ez bai nintzan urrintzen. Esan neike bizitza neketsuetatik iruditu leitekenetik eta neketsuena zala; Jainkoari ez neutson gozotasunik artzen, ezta munduan pozik ekarri be. Munduko pozetan aurkitzen nintzanean, Jainkoari neutsana gogora ekarririk, onek pena aundia sartzen eustan; Jainkoarekin nengoanean, kezka jarten ninduan munduko on-eritxi ta zalekeriak. Burruka penagarria dozu au, eta ez dakit zelan eroan al izan neban illa betean, eta gitxiago ainbat nrtetan. Alan be, argi ikusten

dot Jaunak nigaz egin eban erruki aundia, mundutarrakaz artu-emonean bizita be, otoitzari ekiteko gogoa ez jatan falta-ta. Gogoa diñot, nik ez dakit ba zetarako, bertan dagozan gauzetatik ardura aundi bear bait da, erregeari saldukeria egin, berak ba-dakiala jakiñik, eta ez jakola begi aurretik kentzen bein ez bein. Beti gagoz Jainkoaren anrrean, baiña niri irudkzen jat beste era batera dagozala otoitzari diarduenak, aurrez aurre begira daukenagaz diardue-ta; enparaauak ba'leiteke egun batzuetan egotea, eta orduan be Jainkoak ikusten dabezala gogoratu barik.

3. Urte oneitan, egia da, illabete asko egon zirala uste dot, eta iñoiz urte bete be bai, Jauna nik iraindu barik, otoitzari emona nenbillelako, arduratsuago jokatu ta alegin geiago egiñik. A ez iraindnteko. Idazten doclan guztia egigiaz doalako difiot au emen. Baiña gitxi gogoratzen naz egun on oneikaz, eta olan gitxitxo izan bear ziran eurok, eta asko kaskarretatik. Rgun gitxi igaro oi jatazan otoitzaldi luzeak euki bage, oso txarto edo lanpetua ezpa-nengoan. Txarto nengoanean obeto nenbillen Jainkoaz; eta nigaz artu-emonu eukun pertsonak be, olan ibiltea gura izaten neban. baita Jaunari eskatu be; Aregan zan sarri gure autu-gaia. Olan, esanda daukadan urtea ezik, otoitz egiten asi nintzan ezkeru ogei ta zortzi urteotan, amazortzi urtetik gora enioii ditut Jainkoaz eta munduaz izandako ar-emonezko burruka ta Hpizta ontan sartua. Bestcetan, esateko geratzen jatazanetan, txikia izan ez dan arren, aldatu zan gerrcaren errazoa; uste dodanez, Jainkoaren zerbitzuan egonda be ta mundua zcin uskeri-zale dan jakin, oro joan da leun-leun, gero esango dodanez.

4. Aurretik be esana itxi dodanez, au orren zeatz eta arduraz kontau ba'dot be, cdozeiñek ikusi daian izan da Jainkoaren errukia eta nire esker-txarra; bestea, argi ulertu daigun Jainkoak arima bati zelako ona egin oi dautson, Berak gertatu otoitz gogoz egiteko ta bear bestean ortarako gogotsu egon ezta be, orretan jarraitzen badau, deabruak m]]a

erataraz pekatuak, tentaldiak eta jaus-aldiak ipiñi arren, azken baten, ziurtzat daukat nik, Jaunak salbamen-portura daroala, ni, orain itxura danez, naroan antzera. Eder bekio Bere Aunditasunari, ez nadilla ni barriz galbidera biurtu.

5. Otoitzean diarduanak daukan onari buruz idatzi dabena santu asko ta onak daukaguz, gogozko otoitzaz diñot. Aintza Jainkoari beraz! Eta au onela ez balitz be, apaltasun gitxikoa nazan arren, ez ain arroa ontaz itz-egiten ausartzeko. Nik esperientziak dakidana esan dagiket, eta auxe da, orretan asi danak, gaitz aundik eukita be, ez daiala itxi; barriro onera zuzentzeko biderik egokiena auxe bait dau, ta au barik askoz gatzagoa izango jako. Eta ez beio deabruak ziri-rik sartu niri bezela apaltasunez itxi erazoz; siñistu beiaren itzak ez legikela utsik egin; benetan damutu ta geiago ez iraintzeko erabagia artu ezkerro, leen eukan adiskidetasunera biurtu ta leen egin oi zituan mesedeak egitera, eta batzutan aundiagoak egitera itzultzen da, damuak olan merezi ba'leu. Eta orretan asi ez danari Jaunaren maitasunarren nik eskatzen dautsot ez daitela urrundu ainbeste ondasunetik. Emen ez dago zetan bildur izan, nai izan baiño; aurrera ezpaloa ba eta osoa izaten alegindu, Jainkoak onei egin oi dautsezan atsegin eta doaiak merezi izateraiño, pizkat irabaziaz bakarrik joango da zeruko bidea ulertuaz; eta ortan iraun badagi, nik ditxarot Jainkoaren errukian, iñok ez ebaladaiskidetzat artu (ordainduko ez eutsolakoan); gogozko otoitza ez bait da besterik, nik uste, adiskidetasun artumona eukitea baiño, askotan alkarregaz bakarrik egonaz maite gaituala dakigunagaz. Eta zuk maite ezpa-dozu oindiño, egiazko maitasuna izan daiten eta adiskidetasunak iraun, baldintzak alkar artu bear dabe (Jaunarenak ba dakigu utsik egin ezin leikena, gurea barriz izan daiteke griñaz, zentzun-leiz, esker txarrez betea izatea), ezin zeinkie iñoiz be ainbeste maitatzera eldu, ez baita zeuon izatearena; baiña zenbat doatzuen aren adiskidetasuna aukitetik, eta zenbat maite zaituen ikusirik, atsekabe au daroazue zuen aldean ainbeste zerbait dalakoaz, Iuzaro egon bearrez.

6. O ene Jainkoaren ontasun azken bakoa! Nik bai zu bestera ikusten, eta era one'tan nik neure burua ikusten! O aingeruan bezuza, eta au ikustean, osorik gurako neuke maitatuz ezereztu! Ziurra bai dala Zuk sufritzea, berarekin Zu egotea sufritzen ez zaitunaz! O, zelako adiskide ona dagizun, ene Jauna; zelan zoazan alakoari on egin eta atsegiñak emonaz, eta zeu langoxe egingo dala itxaroten dozu, eta tartcan Zuk aren kondiziñoa sufritzen! Kontuan artzen dituzu, ene Jauna, maite zaitun momentuak, eta damuzko unetxo aregaz aztu egin oi dozu iraindu zinduzenekoa. Neuregan ikusi dot au argi be argi, eta ez dot ikusten, ene Egille, mundu guztiak zergaitik ez dagizan alegiñak Zugana eltzeko adiskidetasun berezi onen bitartez. Zu langoak ez diran dongak be Zugana eldu bear dabe, onak egin gaizuzan, eta eurak jasan zagiezan eurakaz egonik, egunean ordu bitan beintzat, eurak ez egonda be Zugaz, nik egin oi nebanex, munduko ardura ta pentsamentuz nastaurik. Lagun-arte ain onean egoten saiatzearren (asieran ontan geiago ezin dabela ba-dakusu, ezta gero be batzutan), deabruak beartzen dozuz Zuk, Jauna, erasoka ekin ez dagioen eta egunez egun indar gitxiago euki daien euren kontra, eta eurok indar geiago izan daien ziltzaldiak gaintzeko. Bai, Zuk ez dozu iñor ilten. Bizi guztien bizi, Zugan uste on dabenena eta adiskidetzat nai ez zaituenena, eta Zuk olan, osasun geiagor gorputzeko biziari eutsi ezeze, arimeari be emon oi dautsazu.

7. Ez dor aitzen bildur au, gogozko otoitza asten dabenen bildurra ezta ez dakit zeren bildur diran. Ondo dagi guri atzerabide deabruk ipintean, beronek egiz gaitza ekarri daiskun, bildurra sartu nairik ba dabil nigaz, ez beist gogora ekarri zenbait iraindu dodan Jainkoa eta zenbat zor dautsodan, eta ba-dagola infernua ta ba-dagola aintza, eta zelako lanak eta oiñazeak eroan zituan neugaitik. Auxe izan zan nire otoitz guztia, auxe baita arrisku oneitan egon nintzane-koa be, eta auxe gogotan erabilten nik al nebanean; eta urte asko askotan, urte batzuetan, ardura geiago neukan noiz amaituko ete jatan ordua; bai, otoitzari ekin eta beste gauza

on batzuk buruz irauli baiño erlojuak noiz orduan jo, ardura geiago neukala; eta sarri ez dakit ze penitentzi astun etorkidan aurrera, otoitz egitera gogo obez jo baiño atsegiñago jatala neritxona. Eta agia da, deabruak edo neure izate kas-karrak egiten eustan indarra ain eroan eziña bait zan, ni otoitzera ez joateko eta otoiztegira sartzerakoan artu oi neban naigabea, neure gogo guztiaren laguntza bear izaten neban (gogo au etzan makala esan oi daustenez, eta Jainkoak ikusi danez emakumearena baiño gogorragoa emon eustan, txarto erabilli dodan arren), ni beartuteko, eta azkenez, Jaunak laguntzen nindun. Eta gero indar au egin eustolarik, atsedan eta atsegin-sari geiagor aurkitzen nintzan, errezetako naieraz nengoan baiño geiago.

8. Ni lango gauza ezerez bat ainbat denporan sufridu ba eban Jaunak, eta argi ikusten da emendik obetu zirala nire gaitz guztiak, ze pertsona, txarra izanik be, bildurrez egongo? Ainbeste izanda be, ezta urte askotan izango, Jaunagandik ainbeste mesede artutakoan. Nor gibel-bildurtu daiteke, nigaz ba ain eroapentsu izan zan, neugaz egon leiten toki ta denpora pizkat nai izan eta eukiten nebalako, eta au sarri gogo bagarik, neuk neure buruari indar egin arren edo-ta Jaunak berak ortara bultza? Ba, zerbitzen ez, eta iraindu bai, otoitza egoki ba'datorkie, eta oso bearrezkoa ba'jake, eta iñok ezin aurkitu egiaz ez eukitea baiño aundiagoa litzaken kalterik, Jainkoaren zerbitzari diranak eta Bera zerbidu nai dabenak, zergaitik itxi bear ete dabe? Ziur asko, bizitzako neke-lanak neke-lan geiagor eroan nai izan ezik, nik ezin daiket ulertu, eta Jainkoari atea iztearren, pozik emon ez daioen bertan. Erruki damoste egi-egiaz, euren pentzura bait dira Jainkoaren zerbitzari, otoitzean diarduenai Jaunak berak bai dagitse diru-xaupena: lan pitin bategaitik atsegiña emon oi dautse lanak berarekin igaro dagiezan.

9. Jaunak, otoizlari irauten dabenai emon oi dautsezan atsegiñak geroago aitatuco diran ezker, emen ez diñot geiago. Bakar-bakarrrik difiot, niri egin daustazan mesede aundi

onein atea otoitza dala; au ertsi czkero, ez dakit zelan egingo dauskuzan, arima bategaz goza-azten sartu ta goza ba'legi be, bada, ez dago nundik, bakar, garbi ta artzeko gogoz nai dau-ta. Arri-igortzi asko ipinten ba'dautsaguz, eta ezer ez egin eurak kentzeko, zelan etorriko da gugana? Eta Jainkoak mesede aundiak egin daiskuzala, opa dogu!

10. Ikusi daizuen aren ermikia ta zelako ona izan zan niretzat otoitza ta irakurtea ez iztea, emen esango dot, arima bat ondatzeko deabruak darabiltzan tramankuluak eta Jaunak arima ori Beragana biur-azoteko eskuratzen ditun maiña ta errukia, eta zaindu daitezala nik neure burua ez neban arrisku-etatik. Eta batez be, Geure Jaunaren maitasunarren eta gu Beragana ekar-azteko egiten ditun alegiñakaitik, nik deskatset, gorde daitezala arrisku ta arteetatik, orreitan jarri ezker bada ezin daiteke ziur egon: ainbat etsai daukaguz or guri erasoka eta ainbat argalkeri guban geure burua jagoteko.

11. Jakingo gura neuke nik, eta iruditu, aldikada one-tan nire arimeak ekarren morroitza; nik ba-nekian loturik nengoala, eta ez neban ulertzen zegaz, eta osorik ez neinkan siñistu autor-entzuleak ain astun jarten ez eustiena, nik neure ariman somatzen nebala baizen txarra izango zanik. Batek esan euslan, ni kezka niñoakiola ikusirik, otoitz bikaiñean goi-goi egonda be, ez jatazala egoki-ezak olako ebaguneak eta artu-emonak. Azken-aldian zan au, ni, Jainkoari esker, arrisku aundietatik gcro ta baztertuan; o bait niñoian; baifia aukeratik ez neban oso-osoan alde egiten. Gurari onakaz ela otoitzari emona ikusten ninduelako, asko egiten nebala uste eben; nire arimeak ba-ekian, alan be, ainbeste zor ebanak ez ebala a egin bear eban beste egitea. Erruki naz orain ainbeste igaro ta, Jainkoagandik izan czik, iñundik be artu ez neban Jaguntzagaitik, eta zillegi zirala-ta, zenbat askatasun emon oi eutsen bere solasaldi ta poztasunai.

12. Itzaldietako alaka etzan makala, eta ain zuzen ni itzaldi-zale oso porrokatua nintzala: norbait ikusten ba neban

ondo ta gartsu otsegiten, neuk nai ezta be, nok ipinten eus-
tan ez nekian maitasun berezi bat artzen neutson. Ia egundo
be ez jatan sermoi txarra iduritzen, gogo onez entzuten ez
nebana diñot, entzuleen eritxiz izlari ona izan ez arren. Ona
ba'zan, atsegin berarizko jatan. Jainkoaz mintzatu edo-ta
Aretaz entzun, ia egundo be ez nintzan aspertzen, eta au
otoitza asi nebanetik. Alde batetik poz aundia etorkidan
sermoietan, besterik oiñaze jatazan; an ulertzen bait neban
nik, geienetan beintzat, ez nintzala izan bear neukeana. Lagun
nengiala eskatzen neutsan Jaunari; baifia uts egiten neban
nik, antza, orain igarten dodanez, Bere Aunditasunean oso-
rik neure konfiantzea ezarri ta neuregan galdu egin ez ne-
balako. Osagarri billa nenbillan, ara ta ona jorik; baiña ez
nintzan konturatu, bear bada, orotarik dala gitxi gure pro-
betxurako, geugan dogun konfiantzea errotik erauzi ta Jain-
koagan jarten ezpa-dogu. Bizi nai neban, e;a ondo ulertzen
neban ez nintzala bizi, eriotz-kerizpe batez burruka egin
baiño; ez egoan bizia emon leiskidanik, eta nik artu ezin
bera; eta nok emon leikedan... Eta errazoiz ez nindun la-
guntzen, ainbat bidar bai Beragana nindun biurtzen, eta nik
itxi egiten neban,

IX ATALA

*Jauna zelan asi zan bere arimea itxartzen, —
Illunpe aundi artean argia emoten dautso. — Bere
birtuteak sendotu ta babesten dautsoz, iraindu ez
dagian.*

1. Unatua ebillan nire arimea orduko, eta naita be, ez eutsoen izten atsedean artzen eukazan oitura zakarrak. Egun baten, otoiztegia sartuz, an gordeteko ekarri eben irudi bat ikusi neban, etxean ospatzen zan jai baterako kanpotik ekarria. Kristo oso zaurituarena zan, eta deboziño aundia zalako[^] berari begiratzuz, olan ikustiaz, artegaturik geratu nintzan, gugaitik igaro ebana ondo iragarten ebalako. Zauri areik txarto eskertuak nitulako artu neban atsekabeak, uste izan neban, biotza austen jatala, ta Bere ondoan belauniko jarri nintzan malko ta negar-zizpuru ugari ixuriaz, onezkero bein betiko, geiago iraindu ez nengian, sendotu nengiala eskatuaz.

2. Ni Magdalena aintzatsuaren debotu-debotua nintzan, eta sarri gogora ekarri oi neban aren onera biurtzea, Jauna artzean batez be; ziur nekian lez, an Jauna neure barruan, bere oiñetan jarten nintzan, nire malkoak albora itxiak ez zirala izango buruan erabilliz, eta ez nekian zer esaten neban, naiko egin eroiala-ta, beragaitik niri izten eustalako jarioten, sentipen a orren arin aztu oi jatalako; eta Santa aintzatsu onen zainpean jarten nitun, parkamena lortu eistan.

3. Baiña azken aldi onetan, diñodan irudi orrek, probetxu geiago ekarri eustan uste dodanez, eta onezkero oso etsia nengoan ni neure buruaz eta kofiantza guztia Jainkoagan jarten neban. Eta orduan adierazo neutsola dirudit ez

nintzala andik jagiko eskatzen neutsona emon arte. Ziur uste dot ekarri onekoa izan zala, ordutik ba asko be asko obetuz joan nintzan. Otoitz-era au nerabillen, adimenaz asmaketarako gauza ez nintzan ezker, Kristo iruditu oi neban neure kautan, eta obeto aurkitzen nintzan, neure eretxiz, bakarren ikusten neban tokietan. Iruditzen jatan niri, bakar eta naigabez egonik, beartsu bat lez, ni be artuko nindula beragaz. Onako umekeriak asko ziran nik neuzanak. Batez be Baratzeko otoitzean nengoan oso ondo, Kristori lagun egin nairik. Ango izerdi ta naigabea ebillen dardar nire pentsamentua. Al ba'neban, izerdi ain neketsu a gura neutson garbitu; baiña, gogotan daroat, ez nintzan ausartzen egundo be ori egiten, astun-astunak bai ziran gogoan iruditzen jatazan pekatuak. An egon oi nintzan Aregazko pentsamentuak izten eusten bitartean, askotxo ziran ba atsekabetzen ninduenak.

4. Urte askoz, gauetan geienez, loak artu orduko, ogerakoan Jainkoaren ardurapean jarri orduko, beti pentsatu oi neban apur bat Baratzeko otoitz-une onetan, baita moja ez nintzanean be, parkamen asko irabazten zirala esan austielako; eta nenretzat daukat nire arkneak irabazi aundia atera ebala emendik, zer zan ez nekiala asi nintzan ba otoitz egiten, eta' gero eguneroko oiturak ez eustan izten berau lagatzen, lotarakoan Aitaren egin barik izten ez neban legez.

5. Orain, barriz, pentsamentuak ekarsten oiñazera biurturik, auxa dauko adimen-ariketa bage jokatzeko modu onek, arimea egon bear dauala oso irabazia edo galdua, gogarketaz galdua esan nai dot. Aurreratuaz, probetxu aundikoa da, maitasunean da-ta. Baiña onaifio eltzea gauza reketsua nunebait, Jaunak epe laburrean, nik ezagutzen dodazan batzuk lez, atsedengazko otoitzera eroan nai ezpa-ditu. Emetik dabilzanentzat ona da liburu bat norbera arin batzeko. Onurakor jatan niri zelai bat ikustea, ura edo lorak. Gauza oneitan idoro neroian nik Egillearen gomuta, difiot, oneik itxartzen nindun eta kautaratu eta liburutza egin; eta nigan esker txarra ta pekatuak. Zeruko gauzetan, ez goi-goikoetan izan

oi zan ain zakar nire pentsament.ua, ifioiz ez iñoiz ez bait nebazan iruditu al izan, Jaunak berak beste era batez itxuratu eustazan arte.

6. Adimenaz gauzak itxurazteko ez nintzan bape trebe, ikusten nebana izan ezik irudimenak ez eustan ezertxo be laguntzen, beste pertsona batzuk egin oi dabenez, batzen dira leku guztietan irudikizunak egin daroez-eta. Nik Kristo gizon lez iruditu neinkean bakar-bakarrik; baiña neugan ezin izan dot egundo be iruditu, aren edertasuna irakurri ta irudiak ikusi arren, itsu edo illunetan dagoanaren antzera baiño, pertsona bategaz itz-eginda be, eta beragaz dagoala ikusi, ziur an dagoala dakialako, ulertzen dabela diñot eta antxe dagoala, baiña pertsona bera ez dau ikusten. Onelaxe jazoten jatan niri be Gure Jaunagan pentsatzen nebanean. Auxe gaitik nintzan ain irudi-zale. Doakabeak euren erruz on au galtzen dabenak! Jauna ez dabela matte dirudi, maite ba'lebe ba aren argazkiaz poztuko litzakez, emen be poza cmon daroa gura dautsaguna aurrez-aurre ikusteak.

7. Garai ontan *Agustin Deunaren Autorkizunak* esku-ratu eustezan; Jaunak berak agindua zala diridit, nik ez neban ba ortarako alegiñik egin, ezta ikusi be ez nebazan egin, San Agustin atsegin jat niri, laiko nintzala bizi izan nintzan komentua aren Ordenakoa zalako, eta baita pekatari izan zalako be, santuetan ain zuzen be, pekatari izan ondoren, Jaunak Beragana biurtu ebazanetan, poz aundia aurkitzen neban nik, eurengan benetako laguntza izango nebana uste izanik; eta Jaunak arei be parkatu eutsen ezkerro, niri be orobat egingo eustala; gauza batek bakarrik kezkarazten nindun, arei baten bakarrik Jaunak dei egin eutsela, eta etziralara barriro jausten eta ni ainbat bider jadanik, onek albatnatzen nindun. Baiña Berak eustan maitasunean barren sarturik, barriro bizkortu oi nintzan: Aren errukiaz ez nintzan iñoiz etsi; neure buruaz bai, oster, sarri.

8. O Jainko ona!, zelan izutzen nauan nire arimeak euki eban sendotasunik eza, Jainkoagandiko ainbeste lagun-

tza izanik! Ikara sartzen daust ikusiz oso gitxi al nebala neure buruaz, eta zein lotua ikusten neban Jainkoari osoan emoteko erabagi ezifiik. *Autorkizunak* irakurten asi nintzalarikj an ikusten nebala uste neban neure burua; Santu doatsu oni laguntasuna eskatzen asi nintzan, egi-egiaz. Aren biurpenera eldu ta abots a Baratzean entzun ebala irakurri nebanean, Jaunak neuri emon eustala ez dot uste besterik, nire biotzak somatu eban arauera. Luzaro egon nintzan mal-kotan urturik, eta neure barruan atsekabe ta pena aundiz. O, ze sufritzen arima batek, erruki Jainko! etxekoandre izanik euki bear leuken askatasuna galtzearren, eta zelako oiñazeak eroan! Ni orain arriturik nago zelan bizi al izan neban ainbeste neke-miñen artean. Goratua izan bedi Jainkoa, eriotz ain ilkorretik urteteko bizia emon eustalako.

9. Nire arimeak, uste dot nik, indar aundiak irabazi ebazala Jainko Jaunagandik, eta nire deadarrak entzunik, ainbeste negar-zizpuruk be errukitu egin ebala. Beragaz denpora geiago egoteko griña ugariagotzen asi jatan, eta ereti-tarteak begien aurretik kentzen, oneik aurretik kenduaz ba bertatik biurtzen nintzan Jainkoa maite izatera; nik ba-nekian, neure eritxiz, maite nebana, baiña ez nekian nun egoan Jainkoa bene-benetan maite izatea, ulertu bear neukean lez. Ez deritxat ni oindiño gertauta nengoanik Aren Aunditasuna gogoz zerbitzeko, Bera asi jatanean mesede barriak egiten. Ez egiala dirudi beste batzuk neke aundiakaz eskuratzen alegintzen dirana Jaunak ardiesten eustan niri, nik artu nai bai neban, azken urte oneitan onezkero atsegin eta esku-erakutsiz zanpatzen nindularik. Nik ez neutson eskatzen olakorik, ezta deboziñozko samurtasunik be, ez nintzan ifioiz be ola-koetara azartu; iraindu ez nengian grazia eskatzen neutson bakarrik, eta parka eidazala neure pekatu aundiak. Ain aundiak bait nekusan, erregalurik naiz atsegiñik eskatzerik, kon-turatu ezker, ez nintzan ausartuten. Naikoa egian aren errukiak nigaz ni Bere aurrean eukiaz, Berak ni bere begien aurrera ekarriaz, nai nebala edo-ta ez nebala nai. Bein baten tsazala, legor be legor aurkitzen nintzan baten; eta zetan nen-

billen konturatuaz batera, oso naastua geratu bait nintzan, apaltasun gitxiko ikusteak ekarri eustan eten-aldiak emon eustan eskatzen ausartu nintzana. Ondo nekian nik bidezko zala eskatzea, baiño uste neban nik au bidezko jakela ondo gertaurik dagozanai, nobere indar guztiz egiazko deboziñoa dana. lortu, au da, Jainkoa iraindu barik eta on guztirako gertu ta erabagirik egon. Uste neban areik nire negar-mal-koak indar bakoak eta andrazkoenak zirala, eurakaz ez neban ba nai nebana eskuratzen. Alan eta guzti be, uste dot, balio izan eustiola; diñodanez, ba, birritan ixuri nebazan damuzko negar eta biotz-nekeduraren omdoren batez be, otoitzari geia-go emoten eta kaltea lekarkiden gauzak gitxiago erabilten asi nintzan; osorik ez nebazan izten eta, egia esan, Jainkoak laguntzen nindun bide txarretik aldentzeko. Bere Aundita-suna nire aldetik zeozer ikustea besterik itxaroten ez eban ezkerro, azi ta azi joiazan, esango dodan lez, gogozko doe ta mesedeak. Jaunaren emote au ezta arrunta, kontzientzi garbi-garbian dagozanai izan ezik.

X ATALA

Jainkoak otoitzean egiten dautsozan mesedeak esaten asten da. — Guk zclako probetxua atera geinken. — Oso ona da Jaunak egiten dauskuzan mesedeak ulertzea. — Au bialtzen dautsonari eskatzen dautso, aurrera idazten doana, ixillik eukiteko, agintzen dautse-ta. — Agintzen dautselako esango ditu Jaunak egindako doai ta mesedeak ain zeatz-meatz.

1. Ba-neunkan nik noizik bein, esan dodanez, arin iga-rotakoa izanda be, orain aitatutko dodanaren asiera. Irudikizun onetan jazo oi jatanez, esan dot, Kristoren ondoan etzaten nintzan, eta batzutan irakurten be bai, eta ez-orduz Jainkoa ur egoala etorkidan gogora, neure barruan edo-ta neu Arengan murgil-murgil osorik, dudarik ezelan be ez eukiteko moduan. Etzan au ikuskari antzera; Teologi mistika deritxoela uste dot. Jaso egin oi dau arimea, beretik kanpo uste da oso. Maite dau naimenak, gomutea uste dot ia galdurik dagoala, adimena ez dabil antza danez, baiña ez da galtzen; alan be, ez dagi ezer, diñodanez, izu-ikara lez dago asko ulertzen daualako; Ja'nkoak gura bai dau Berak irudikatzen dautsonetik ezcr ez dagiala ulertu.

2. Lenengotan samurtasun bat euki eban jarraikoa, eta onetatik nire gardiz zerbait noberaganatzen saiatu leike; erregalu bat, oso-osorik zentzunetik ez dana, osorik gogozkoa be ez dana; Jainkoak emona dozu guztiz. Onetarako, alan be, dirudienez, zer askorekin egin geinke gertakuntza; Jainkoaz daukagun ezereztasuna ta esker txarra gogora ekarri, gugaitik egin eban guztia, bere Nekaldia neke-min astuna-

kaz, bere bizitza ain atsekabetua; poz-arturik bere egintzak ikusiz, bere aunditasuna, zeabat maite gaitun, eta beste gauza asko, aurrera arduraz egin nai dauanak euretan kontu aundj. barik ibillita be, sarritan topo dagita. Onegaz bat maisun pizkat ba'lego, goza bei arimea, urtu bei biotza, negarmalkotan; batzutan indarka atcratzen doguzala dirudi, bestc batzutan Jaunak dakarskuzala, gogorrik egin cz daioegun. Aren Aunditasunak arduratxo a ordaintzcn dauskula dirudi doai eskerga bategaz, Jaun ain aundiagaitik negar dagian arima ikustearren emoten dautson poztasuna legez; eta ez naz arritzen, badau ba poztuteko erraroirik. Bego or gozotasuna, bego or atsegiña.

3. On deritxat orain burura datorkidan alderatze au; otoitz-aldiko gozotasun oneik, zeruan dagozanentzat zerukoak lez izan bear dabe, Jaunak emona baiño geiago ikusi ez daben ezkeru, merezi dabena ain zuzen, ikus daiela nai dau, eta euren merezimentu kaskarrak ikusten dabez, baxotxa pozik dago dagoan tokian, zeruan goza-azotik goza-azotera alde aundia egonik be, emen dagoan baiño geiago gozoko atsegin batzuetatik bcstera, aundi-aundia dalarik be. Eta egi-egiaz arima bati lenengoetan, Jainkoak mesede au egitean, arima orrek uste dau ez dagoia zer geiago gura izanik, eta egin dauan mirabetza guztiagaitik ondo ordaindua dala iruditzen jako. Ba-dau errazoirik, onako negarmalko bategaz, diñot, ia-ia geuk aterazota, naiz-ta Jainko barik guk ezer ezin, munduko neke-lan guztiekin be, nik uste, ezin leikela erosi, asko irabazten bai da eurakaz; eta zer irabazi geiago Jainkoa poztuteko zer-edo-zer eukitea baifio? Beraz, onaiño eldu danak, gorets begi atertu barik, beuko bere burua zordun aundhzat; itxura danez, bere etxekotzat nai dau onezkero; bai, berc erreñurako autatua da, atzera biur-tzen ez baldin bada.

4. Ezagutzen diran cta laster aitatuko dodazan apaltasun batzuk, ez egizuz onartu; ba-dira batzuk, Jaunak doaiak emoten dautsezala ez ulertzea, apaltasuna dala deri-

txenak. Ulertu daigun ondo, ondo, berau dan lez, Jainkoak emoten dauskuzala geure aldetiko merezimentu izpirik bage, eta egin daiguzan eskerrak Aren Aunditasunari; artzen doguzanik ez ba'dakigu, ba, ez gara itxartzen maitatzeko. Eta gauza ondo ziurra da, ikusiago ta aberatsago gareala, beartsu gareala ezagutuz onura geiago datorkigu, eta baita apaltasun egiazkoagoa be. Beste guztia gogoia kikitzea baiño ezta zer aundietarako ez dala gauza uste izanik, Jauna emoten asten danean, bera bildurtzen asten bada, arrokeri dalakoan. Uste dot onak emoten dauskuzanak grazia be emongo dauskula, deabrua kasu onetan tentatzen asterakoan, etsai-zirika dala ulertu daian, baita kemena be, diñot, gogor egiteko, zintzoki ba'gabiltz Jainkoaren aurrean, Bera soilki pozik eukirik eta ez gizonak.

5. Gauza argia da, pertsona bat maiteago dogula ak egi-ten dauskuzan egintza onak gogora dakarskuzanean, sarrien sarri. Zillegi bada, ba, ta meritu aundikoa, Jainkoak egiñak gareala, eta ezerezetik sortu be, eta bizi-indartzen gaitula ta bere eriotza ta neke-lanetako ontasun guztiak eta gu sortu aurretik orain bizi garean bakotxa gaitik egiñik eukazanak, zer dala-ta ez da zillegi izango, nik ulertu ta ikusi daidala, eta askotan gogotan erabilli, uskerietan solas egiñez aldia akitzen nebala, eta orain, Jaunak bsrak bultzatua, Bera ezik nik autugai iñor ez izatea? Ona emen altxor bat, emona dala gogoratuz, eta esku artean daukagula, naitaez maitatzera dei dagiskuna, orixe bai da otoitzaren on guztia apaltasunaren gaiñ oiñarritua. Eta, zer izango da euren mcnde ikusiaz beste bitxi bikaiñago batzuk, munduaren destaña ta bere buruarena, Jainkoaren zerbitzari batzuk dagoneko artuta daukiezan lez? Argi dago, zordunago aurkitzen dirala ta morroi-tzan zintzoago jokatzera bearturik dagozala, eta konturatu guk ez geunkala olako ezertxo be, eta ezagutu Jaunaren esku zabala, eta nire arima beartsu ta ezereza, bape meritu bakoa, lenengo bitxia naiko jakona, niretzat geiegi be bai, neuk eskatzen nekian b'.iño ab:rastasun geiagn egin nai izan eus-tazana.

6. Barriro atera bear dira indarrak, zerbitzeko, eta ez izan esker txarrekoak; kondiziño onegaz emoten dauskuz Jaunak, ondo ez ba darabilguz altxorra eta jarten gaitun egoera garrantzitsua, oster a be kendu egingo dauskula, eta leen baiño txiroago geratuko gara, eta bitxiok Jainko Jaunak emongo dautsez dirdir-azo ta eurekaz beretzat eta besteentzat probetzua aterateko trebe ta bizkor diranai emon. Zelan, baiña, guna aterako ta esku zabalez eralgi aberats dala ulertzen ez dauanak? Eziña da, gure izateari begiratzuz, nik uste, Jainkoak babesturik dagoala ulertzjn ez dauanak gauza aundietarako gogorik izatea; ain kaskarrak bait gara ta lurreko gauzetara ain makurtuak, oso gaitz egingo jako olakoari egiaz eta esku-zabaltasunez emengo guztiari erra izatea, ango zerbait daukala konturatzen ezpada; doai onekin Jaunak izan be damosku geure pekatuakaitik galdu genduan adorea. Eta ez dau gurako iñor beragaitik atsekabetu ta iñok gorroto izan dagion, eta osotuak daukezan beste birtute aundi guztiak, Jainkoak dautson maitasunaren ezaugarriren bat, fede biziATEGAZ batera, ezpa-dauko. Gure izatea illa da-ta, begien aurrean daukagunera goaz; beraz, mesede oneik eurok dira fedea ta kemena biztu-azoten dauskuena. Ba leiteke nik, ziztriña bai naz, gauzak neurez epaitzea, eta bear bada beste batzuk, egintza oso beteak egiteko, fedearen egia baiño ez dabe bearko; nik, barriz, zirtzil onek dana bear izan dot,

7. Oneik, eurok esango dabe: nik neugan jazo dana diñot, agindu daustienez, eta ondo ez ba'lioia, bialtzen dautsodanak apurtuko dau, nik baiño obeto jakingo bai dau zer doan txarto. Auxe berau eskatzen dautsat, Jaunarren, egin daiala oraiñarte idatzitako bizitz ererezaz eta pekatuak azalduaz. Oraindexek eskubidea damotset, eta autor-entzule guztiai, gaur danari eta au zuzcntzen dautsodanari. Eta naiko ba'lebe, neure bizitzan be bai, atzipetu ez daidan geiago munda, nigan ona dan zerbait dagoala uste dabe-ta; eta ziur, ziur, egiaz diñot, orain neure buruaz dodan eritxiz, poz aundia emongo leuskit onek. Aurrerantzean esango dodanerako, ez dautsat emoten; ez dot nai, iñori erakusteko bada, ez beie

esan nor danik, noregandik igaro zan, ezta nok idatzi ebanik be; augaitik ez dot izenpetzen, ezta beste iñor ordeaz jarri be, idatzi barriz alik eta ondoen idatziko dot, iñok ezagutu ez daian, eta eskatu be orrelaze eskatzen dot Jainkoaren maitasunarren. Naikoa dira pertsona eskolatu ta zentzundun batzuk gauza onen bat baimentzeko, Jaunak grazirik emongo ba leust bera esateko; orrela ba'litz, ori berea izango, eta ezpalitz neurea; ni bada, letrarik eta bizitza onik bage, ez jakitunak, ez beste iñok eskolatua (idazteko esan daustienak (1)bakarrik dakie idazten dodala, eta orain ez dago emen, eta ia-ia orduari ostuz, eta atsekabez, etxe beartsuan gagozalako iruten ez bait daust izten, eta beste arazo asko naste; beraz, trebetasun eta oroimen argiagokoa Jaunak emonda ba-nintz, daukadanagaz be, oso gitxi zan arren, entzun eta irakurri dodanarekin baliatuko nintzateke); origaitik, ezer onik sango ba'neu, onen baterako gura dau Jaunak; zerbait txarto ba'lego, neurea litzake ta zure mesedeak kendu bei. Ez onetarako ez aretarako, ez dauko probetxurik nire izena esateak. Bizitzan argi dago ez dala esan bear ona danik; eriotzan ez dago zertarako, onak indarra galdu daian ezik, eta ez leuskioe siñisterik emongo, pertsona ziztrin eta ezerezak esana dalako.

8. Nik argi adierazo nai izan arren otoitzari buruzko gauza oneik, ondo illuna izango da experientzirik ez daukanarentzat. Eragozpen batzuk esango ditut nire ustez bide onetan aurrera egiteko soster diranak, baita arriskutsu diran beste batzuk be, Jaunak experientziaz erakutsi daustazanak, eta gero neuk jakitun aundiakaz eta urte askodun gogozko pertsonakaz artu-emonak eukiz, eta oneik ikusi dabe otoitzari emonak nazan ogeitazazpi urtetan bakarrik experientzia emonak dautala Jaunak, jausgarri ta kosko askotan eta bide au ondo gaizki ibillita gero emon be, beste batzui berrogetazazpi ta ogetamazazpi urtetan, penitentzei ta bertutez bide ortatik ibilli ondoren. Onetsia bedi oroz, eta tresna naiko ni, Bere Aunditasuna danagaitik, ondo bai da-

(1) Oneik: Domingo Bañez ta Toledo'ko Gartzia.

ki nire Jaunak, nik auxe baiño besterik ez dodala nai, goratua ta goraipatua izan dedilla Bera, sastegi ain loi ta usain txarrekoan lore ain biguiñen ortua egin ebala ikusiaz. Eder bekio Bere Aunditasunari ez daidazala neure erruz aterra barriro, izan zana izatera biurtuaz. Au eskatzen dautzut nik Jaunaren maitasunarren zure mesedeari, ba-dakizulako zelakoa nazan, emen esaten itxi daustazun baiño argiago.

XI ATALA

Zer uts-egin ol dauan Jainkoa epe laburrean, oso-osorik, ez maite izateko. — Lau otoitz-mailla azaltzen ditu, adibide baten bitartez. — Lenengo adierazten dau emen. — Oso ona da otoitzean asten diranentzat, eta otoitzean atsedetik ez daukenentzat.

1. Orain, ba, maitasunaren zerbitzari izaten asten diranakaz mintzatuz, ez bai dot uste nik beste ezer danik otoitz-bide onetatik aurrera jarraitzen erabagitzea; izan be, ainbeste maite izan ginduzunari jarraitu nai izatea; duintasun ikaragarria da au, eta berau gogotan erabilliz ezin ni beste ezertan gozatu: morroi-bildurra gero doa kanpora lenengo ekitaldi onetan joan bear dogun lez ba goaz. Oi, ene barruko Jauna ta neure On guztia! Zergaitik ez zenduan nai izan arima bat Zeu maitatzera erabagiten danean, dana itxiz, Jainkoaren maitasunean zerbitzuan obeto jokatzeko, al dauana egiñik, beingoan maitasun oso au lortuz goiko maillara igotea? Oker esan dot.Esan bear neuke, eta kexaz, geuk gura ez dogulako; uts osoa geurea da-ta, duintasun aundiz gero ez gozatzea, Jainkoarekiko maitasun egiazkoz eukitera eldu ezkeror, on guztiak berak dakarskuzalako. Ain zekenak eta berankorrak bait gara Jainkoari oso-osoa emoteko, eta Aren Aunditasunak nai ez dauan lez gauza ain bikaiña guk neke barik eskuratzea, ez gara ortarako gertatzen.

2. Ondo dakust lurrean ez dagoala zegaz erosi ontasun ain betea. Baiña alegiñak egingo ba'geunkez bertoko ezeri geure barrua ez lotzeko, eta gure ardura ta artu-emon guztia zerukoa ba litz, nik uste dot zalantza barrik epe labu-

rrean letorkigula dalako ona, santu batzuk artu eben bezek. Baiña oro emoten dogula begitantzen jaku, eta Jainkoari zergak edo-ta frutuak emoten dautsoguzalako da, sustrai eta jabetasunaz geu geraturik. Beartsu izateko erabagia artzen dogu, eta merezimentu aundikoa da, baiña sarritan orren kezka ta ardura artzen dogu ostera be, ezeren faltan ibilli ez gaitezan, ez bearrezkoa bakarrik, baita bear-eza be, eta emongo dauskuen adiskideai gili-gili egitera, ardura geiagotan, eta, bear bada, arriskuan sarturik, leen ogasunak geunkazanean geunkanaren faltarik izan ez daiguntzat. Lekaimeak izanaz dedua (ohorea) be itxi genduak dirudi, edo-ta espirituzko bizitza egiten eta onbideari jarraitzen asi giñalako, eta ez dauskue ikuturik egin deduzko unetxo baten be, ezta Jainkoaren eskuetan itxi dogula gogoratzean be, eta, diñoenez, eskutik artu ta barriro be gora jaso nai dogu, geuk naita, antza, berau jaun egiñik. Okntxe dira beste gauza guztiak be.

3. Era polita Jainkoaren maitasuna billatzeko! Eta gero esku baterik gurako dogu bera, esan oi danez. Euki geure zalekeriak, geure gurariak oiñarritu ezin doguzan ezker eta eurak lurretik jaso ez, eta oneikin gogozko< poztasunak ugari; ez, au ez dator ondo, ezta ez dot uste au beste onegaz itundu leikenik. Olan ba, alkartzerik ez dagon ezker, altxor au ez jaku batera emoten. On bekio Jaunari tantaka tantaka emon daiskula Aren Aunditasunak, guri munduko kn guztiak baizen neketsu eginda be.

4. Erruki galanta egiten dautso Jaunak grazi ta gogoa emon oi dautsanari, bere indar guztiz ontasun onen jaube egiteko bizkor-azten dau-ta; ortan iraun ezketiño, ba, Jainkoak ez dautso iñori be ukorik egiten; Berak ortarako, apurka apurka, trebetzen dau okkoaren gogoa garaille urten dedin. Gogoa diñot, asko bait dira deabruak aurrean ipinten ditun gauzak, lenengotan batez be, bide au artu daien egiaz, emetik datorkion kaltea zelakoa dan ba-leki lez, ez bakarrik arima a galduaz, baita beste asko galduaz

be. Asten dana, saia ba'ledi Jainkoak lagunduta osotasunaren erpiñera eltzen, zerura iñoiz be ez doala uste dot bakarrik, beti daroa atzetik jente asko; kapitain onari lez, Jainkoak damotsoz atzetik doakiozanak. Deabruak ainbat arrisku ta eragozpen ipinten bai dautsoz aurrean, ez da kemen gitxi bear atzera ez biurtzeko, asko be asko baifio, eta Jainkoaren laguntza ugari.

5. Itz egiñaz bada ontasun oni onezkero jarraitzeko erabagita doazanen oiñarrietaz, eta zeregin au aurrera eroateko asmoz (Teologi mistika eritxola-ta esaten asi nintzanaz geroago mintzatuko nazan ezkerro), oiñarri oneitan dago lanik zaillena, onexek bait dira lan dagienak, Jaunak emonik ur-ixuria; beste otoitz mailletan gozatzea da geiena, lenenak eta erdikoak eta azkenak, danak daroiez euren kurtzeak; naiz-ta bestelakoak; bide onetatik joan jatzun Kristo eta emendik joan bear dabe aren jarraileak be, galdu nai ezpa-dabe; eta lan doatsuak, emen be bizitzan ain gai-fiez ordainduak izan oi diralako.

6. Bardinketaren bat artu bearko dot lagungarri, nik emakume nazalako zuriztatu ta agintzen daustena lau-lau idatzi, baiña espirituzko izkuntza au oso gaitz da adieraztea ni lez letrarik ez dakienai, eta bide egokiren bat billatu bearko dot, eta geienetan ba leiteke adibide ori ondo ez jaustea; zeure mesedeari solasa emoteko ona izango da, ni nazan baldarra ikusiz. Orain deritxat irakurri edo entzun egin dodala antzeko au, gomutamen urria daukat, ba, eta ez dakit nun, ez zertaz irakurri neban, orain berau pozgarri jatan arren. Asten danak egin bear dau ortu bat lantzen asten dala lur oso uts eta onura bakoan, bedar txarrak daroazana, Jauna zorarazo daiten bertan. Bere Aunditasunak ateraten ditu bedar txarrak, eta Berak landu bear dauz onak. Egin daigun, ba, au egiñik dagoala arima bat otoitz egitera erabagi danean, eta asi dala orretan. Eta Jainkoak lagundurik, ortu-zain onak lez alegindu bear gara landarok azi daitezan ura egiteko ardurea izanik, galdu ez daitezan,

lorak ekarri eta usain gozoa emon dagien, gure Jaun oni atsegiña sortuaz, eta olan etorri daiten sarri atsegin jakon baratz onetara, birtute onein artean arnasa artuz.

7. Ikus daigun orain ortu au ureztatu daikegun ere, egin bear doguna ulertu daigun, eta burutu bear dogun lana irabazia geiago ete dan, edo-ta noiz arte orretan jardun bear dan. Nik uste dot lau eratara ureztatu daitekela: edo potzu batetik ura atarez, geure lan aundiz ain zuzen; edo potzu-gaioz eta irrikillez, tornu bategaz (nik atera dot ifioiz), indar gitxiagoz ur geiago ateraten da; edo-ta ibai naiz erreka batetik; onela ureztatuten da oso obeto, urez asetuago geratzen da lurra, ez dago zertan ureztatu sarri, eta lan gitxiago egin bear dautzu baratz-zaiñak; edo-ta euri-zaparrada ederrakaz, Jaunak berak ureztatzen dau guk ezer be egin barik, eta esandako era guztiak baifio askoz obeagoa dozu.

8. Orain ba, ortu au janaritu bear dan lau ur-era oneik ezarririk, ori barik galduko litzake-ta, auxe da nire kasura datorrena, zerbait azaldu leitekela deritxat lau otoitz-mai-11 ai buruz, Jaunak, ona baita, batzutan nire arimea ipifii dauan ezkerro. Nai bei aren ontasunak igarri daidala esaten au idazteko agindu eustan pertsonetatik bati (1) egin dagon, Jaunak ekarri bai dau lau illabetea ni amazapi urtean nengoan baiño aurrerago. Ondo gertatua dago, eta olan bere neke barik lilitegi au ureztatzen dau lau ur-mota guzti oneikaz, azkena oraindik tantaka baiño emoten ezpajako be; baiña ondo doa ta laster, Jauna lagun, aretan murgilduko jaku; eta poztuko nintzake, esateko modu au erokeria irudituz barre egingo ba'leu.

9. Otoitza eukiten asten diranak ura pozutik ateraten dabenak dirala esan geinke; modu au lan aundikoa da, esanda daukadanez, zentzunak batzen asko nekatuko dira-ta,

(1) Toledo'ko aita Gartzia.

barraiatu rik ibiltan oituak dagozan ezkeru, lan aundia da-
karre. Oitu daitezala ez ikusi ez entzun ezer ez eskintzera,
eta otuiz orduak be egitez jarri, bestelan bakarrik egon,
eta baztertuak euren joan bizitzea gogoratu; au, alan be,
lenengoak eta irugarrenak, danak egin bear dabe sarritan.
Geiagu ta gitxiagu dago onetan, gero esango dodanez. Le-
nengotan min emoten dau oindiño, egindako pekatuen da-
murik ete daukien zalantzaz, eta egiten ete daben, bene-
benetan Jainkoaren zerbitzari izateko erabagiz aurkitzen
dira-ta. Kristoren bizi az jabetu bear dabe, ta onek nekatu
egiten euren adimenak. Onaiño lortu geinke geuk, Jain-
koaren laguntzaz jakiña, au barik ba ba-dakigu ezin geinkela
pentsamentu onik be euki. Au potzutik ura ateraten astea
da, eta ori be, arren!, Jainkoak nai ba'leu eukitea, baiña
gugaitik beintzat ez dedilla gelditu, ateratera goaz-eta,
lora oneik ureztatzeko alegiñak errerik. Eta Jainkoa on-ona
dalako, Aren Aunditasunak dakiane z, geure ordezkua egi-
ñik, ur barik lorai eutsia emon eta birtuteak azi-azten ditu.
Malkoai deritxet emen ura, eta egon ezik be, bai oster a
samurtasuna ta deboziño zko barne-sentipena.

10. Zer egingo dau emen, ba, egun askotan leorta-
suna, naigabea ta gozotasunik-eza besterik ikusten ez da-
benak, eta orrez gaiñ gogo txarra ura ateraten etorteko,
ortuaren Jaunari atsegiña ta zerbitzua egiten jakola gogo-
ratu ta zerbidutako guztia galduko ete dauan ardurarik
ezpa-dau, baita oindiño, mazkelua sarri potzura bota ta ur
barik atera lan aunditan eiñez, irabazi uste ebana, itxiko
ete leuke dana? Onetarako be sarri jazoko jako besoak ez
jasotea, ezta pensamentu on bat eukiteko be gauza ez iza-
tea; adimenaz lan egite au, ba-dakigu, potzutik ura ateratea
dala. Diñodan lez, ba, zer egingo dau emen ortu-zaiñak?
Poztu ta alaitu, eta mesede aundi-aunditzat artu Nagusi
ain bikaiñaren baratzean lan egitea; eta orrexekin pozten
dauala dakian ezkeru, eta bere asmoa ezta besterik, ale-
gindu bei orretan; uste ona sortzen da ortik, ikusten dau ba
ezer ordaindu bage, aginu eutsona ondo beteteko avdura

zolia bait dau; lagun begio gurutzea eroaten, eta uste izan bei bizi guztian ortan ibilli dala, eta ez bei emen nai izan aren erreñua, ezta egundo itxi be otoitza. Eta olan erabagia artu, legorte onek bizitza guztian iraugo ba'leutso be, Kristori ez dagiola itxi kurutzeaz lurrean jausten. Etorriko jakoko eguna dana batera ordainduko dautsona; lana galduko dauala-ta, ezpei izan bildurrik; ugazaba onaren mirabe da, begira dauka. Ez beie kasurik egin pentsamentu txarrai; begira, deabruak Jeronimo Deunari be itxuratuten eutsozan basamortuan.

11. Lan oneik euren salneurria daukie; urte asko dirala igaro ebazanak lez (potzu donetsi onetatik ur-tanta bat ateraten ebanean, Jainkoak mesede egiten eutsola pentsatzen eban), ba-dakit, oso aundiak dirala, eta munduko beste lan askotarako baiño adore geiago bear dala, uste dot. Baiña argi ikusi dot Jainkoak ez dauala sari aundi barik izten, bizitza onetan be; orrelaxe da, ziur, Jaunak berekiko emon daustan ordu beteko poz-atsegiñez, uste dot, ondo ordainduta geratzen dirala otoitzean indar-azten cmon nebazan orduetako naigabe guztiak. Neuretzat daukat, Jaunak sarri lenengotan eta azkenera beste batzuetan, oiñazeak eta eskin-tzen diran beste tentaldi asko, bere maitaleak aztertu ta kaliza edan dagikeen ala ez ikusteko, Berari gurutzea eroateko gai diran ala ez, altxor aundiak euren eskuetan ipiñi baino len nunbait. Eta geure onerako eroan gura gaitu Jainko gure Jaunak emendik, zein gitxi garean ondo ulertu daigun; oso aundiak bai dira ondoren datozen mesedeak, guk esperientziz ikustea nai dau geurc ezereza, emon baiño lenago, Luzifer'i jazoa jazo ez dakigun.

12. Zer ez dozu Zuk, ene Jaun orrek, egiten arimearen onerako ez danik, onezkero zeurea dala dakizuenagaitik, zeure mende daukazuna, Gurutzeko eriotzaraiño Zeuri jarraitzeko gertu, erabagita erabat bera erosten Zuri laguntzeko eta beragaz Zu bakarrik ez izteko? Erabagi au beregan dakusanak, ez, ez bei bildurrik izan. Espiritu-zaleok,

etzaiteze atsekabetu. Onezkero mailla ain goian aurkiturik, au da, Jainkoaz bakarrik artu-emonean bizi gurata, munduko zorakeri ta jolasak itxirik, gaiñerakoa egiñik dago. Goratu, beraz, Aren Gurentasuna, bere adiskideai ifioiz utsik egin ez dautsen ontasunean uste ona izanik. Zotz emon begiai pentsatuz, zergaitik emoten dautson ari, egun gitxiko eraspenez, eta niri ez, ainbeste urte eroanik. Dana dala, uste izan daigun, geure on aundiagorako; garoazala Aren Aunditasunak gogo dauan lekutik; onezkero gu ez gara geu, berarenak baiño; naiko mesede egiten dausku, geuk be bere ortuan atxurtu nai izan eta ortu orren Jaunaren ondoan, egi-egiaz geugaz dagoanaren ondoan egotea. Berak nai ba'dau landara ta lore oneik azi daitezala, batzui potzu ontatik ateratako ura emon, beste batzui ur barik, niri zer daust? Egin Zeuk, Jauna, nai zeunkena; nik ez zaidala iraindu; birtuteak ez daitezala galdu, bateren bat emon ba'daustazu jadanik, zeure ontasunari esker bakar-bakarrik; sufridu egin nai dot, Jauna, Zeuk be sufridu egin zendulako; alan edo onan egin bedi nigan zure borondatea, eta otoi dagizut, Jaun aundi orri, zeure maitasuna lango gauza bikaiña ez daiozula emon atsegiñagaitik soilki otseintzen zaitunari.

13. Oar bedi arduraz, eta experientziz dakidalako di-fiot, gogozko otoitzaren bide ontatik asmo guztiz ibiltan asten dan arimeak, kasu aundirik egin ezik, bere zeraz amaitu leike, ez poztazi ez poztu bagetu asko atsegin eta samurtasunok falta diralako, edo-ta Jaunarenak, bide-arlo galanta ibillia dauko-ta; ez izan atzera biurtzeko bildurrik, ainbat arritan tupust egin arren, oiñarri sendoko etxea aziaz doalako. Bai, Jainkoaren maitasuna ez dago negar-malkoak eukitean, ezta atsegin-samurtasunok be, geienez geure pozerako gura doguzanak; arima zuzen ta sendo ta apalaz serbidutean baiño. Artzea, ori geiego deritxat, guk emotea baiño.

14. Ni lako emakumetxoentzat, aul eta kemen gitxi-koentzat, egoki dala nik uste, Jainkoak orain dagian lez,

crregalu ta bazuzakaz eroan; eroan al izan daizan neke-lan batzuk, Jainkoak nai izan dabezanak nik eukitea; baiña gizaseme jakintsu, eskolatu ta adimen aundikoentzat ez dago ondo, orrela derist, deboziñorik ez dautsela emoten esaka ibiltea, entzuteak be naieza daust ekarten. Nik ez difiot ez daiela artu, Jainkoak emoten ba'dautse, eta aintzat artu daiela, orduan ikusiko bai dau Aren Aunditasunak egokia dala; baiña olakorik ezpa-leukie, ez daitezala nekatu, jakin daiela ez dala bearrezko, Jainkoak ez bai dau emoten, eta bebiltz euren buruaren jaun eta jabe. Oker dala jakin beie; nik neugan ziurpetu ta ikusi dot. Jakin beie lorriña dala ta espirituzko askatasunez ez ibiltea, ari edo oni oratzeko makal baiño.

15. Emen doian au ez diñot otoitzean asi-barri dirana-kaitik; gora aundia dau onek niretzat, askatasun eta era-bagi onegaz, eta ez beste ezegaz, asteak garrantzi bene-bene-takoa dau-ta; izango dira, ta ez gitxi, antxiña asi ziranak eta amaitu iñoiz be amaitu ez dabenak; eta auxe da ain zuzen be, nik uste, lenengotik gurutzea besarkatu ez da-lako naigabeturik ibilliko dirala ezertxo be ez dabela egiten uste izanik. Adimenak lanik ez dagianean, ezin dabe au eroan; eta orduantxe bear bada loditu egin oi da boron-datea, kemendurik, eta besteak ez dabe au ulertzen. Jaunak, pentsatu bear dogu, ez dabezala bere begiak gauza oneitan josten, guri utsak iruditu arren, ez bait dira. Aren Aun-ditasunak ba-daki zein ezerezak garean, eta izate kaskarre-koak, geuk baiño be obeto; eta ba-daki arima oneik orain-dik Bera gogoan ekarri beti eta Bera maite izan, besterik ez dabela gura. Erabagi au da Berak nai dauana. Geure buruari dakartsagun beste naigabe au arimea kezkavazteko baiño ezta, eta geldi egon bear badau ordu bete on izan dakion, lau egon bedi. Nik asko be askotan izan dot expe-rientzi onetzaz, (eta ba-dakit egia dana, arduraz aztertu bai dot eta gero pertsona espiritu-zaleekaz eztabaidatu), eta gor-putz ondoezetik dator, antza, orren bai gara ezerezak, es-petxe aurkitzen dan arima gaixoa laindun edo erdikide egi-

ten dalako gorputzaren miseriakaz; eta denporen aldaketak eta umoreen jirabirak sarri egin oi dabe, berak nai ezta be, ezin dauala nai dauana egin, naitanaiez sufridu baiño; eta garai oneitan geiago beartu gura, txarrago da, eta gaitzak geiago dirau; bego zuur-jokua, onetikoa noiz dan jakin al izateko, eta ez arren ito arima gaixoa. Ulert, otoi, gaixoak dirala; alda otoitz ordua, eta sarri egunetan izango da. Eurak (arimak) igaro beie erbeste au al daben legez, benetan zori txarra bait da Jainkoa maite dauan arimearentzat, mixerri onetan bizi dala ikustea, eta nai leukenik ezin dauala, gorputz au bezelako arrotz ain txarra eukitegaitik.

16. Zuur-jokua esana dot, iñoizkoren baten deabruak berak egingo ditu olakoak; ez ba beti itxi otoitza adimenean zirtzilkeri ta barreialdi ta urduritasuna dagoanean, ezta beti arimea oiñazetu be ezin dauana lortu eragiñez. Ba-d:ra beste gauza batzuk irakur eta maitasunezko ekintzak, batzutan oindiño kanpoko zeregin orreitarako be egon ez arren. Zerbitzu egin beio orduan gorputzari Jainkoaren maitasunarren, bes te batzuetan, askotan, berak arimeari zerbitzu egin dagon; baita beste atsedean aldi santu batzuk artu be, solasketa ta alkar-izketa batzuk, adibidez, edo-ta zelai-landetara joan, autor-entzulearen onuz. Eta gauza guztietan ederra dozu experientzia, zer jakun egoki adierazten dauskuna; edozertan dogu Jauna zerbitzen. Ariña da aren buztarria, eta irabazi ederra arimea baldan eta zori-gogorreko ez ekar-tea, esan oi danez, samur-samur baiño bere probetxu geia-gorako.

17. Orixegaitik, barriro nire dei-onua, eta sarritan esanda be ez da ezer galtzen, garrantzizkoa da-ta; legoraldiz, barne-kezkaz eta pentsamentuzko urduritasunez ez bei iñor estutu ez naigabetu. Espirituzko askatasuna jadetsi eta beti larriturik ez ibilteko, asi bei gurutzeaz ez ikaratzen, eta ikusiko dau zelan lagunduten dautson Jaunak be gurrutze ori eroaten, pozik eroan eta orretan probetxu aundia atera-

rik; ikusten da ba, jadanik, potzuak erio ez[^]k, guk ezin gein-
kela urik ipiñi. Ez dogu, egia esateko, ardura barik egon
bear, datorrenean, atera daigun. Orduan, ain zuzen, onen
bitartez nai ditu birtuteak ugaritu.

XII ATALA

Gai berean darrai. — Geure alegiñez, Jainkoak lagunduta, ja.kiña, noraiño eldu geinkezan. — Zelako kalteak dakazan, Jaunak berak egin arte, gora igon nai izateak, au da, izatez-gaiñetiko la oiez-lako gauzetan murgillzean.

1- Aurreko atal onetan adierazo nai izan dodazanak, beste askotara be zabaldu nazararren, oso bearrezkoak iruditu jataz, au da, guk jadetsi daikeguzanen artean, eta zelan lenengo deboziño onetan geuk be zerbait alkarri lagundu geinkeon; Jaunak zenbat jasan eban gugaitik pentsatu ta aztertzeak, errukira eragin oi dausku, eta gozoak jakuz emendik jagitako naigabe ta negar-malkoak, eta pentsaturik zain daukagun aintza eta Jannak izan euskun maitasuna eta beronen berbizkundera, poztasuna dakarsku, guztiz gogozko ez zentzunezko ez dana, gozotasun onbidezkoa ta irabazi aundiko atsakabea baifio. Era onetan erdizka adimenagaz lortutako deboziñoa dakarren gauza guztiak be, merezi ez irabazi eziña dala be, Jainkoak emona baifio. Ondo datorkio emendik gorago igon ez dan arima bati, ezta igoteko alegiñik egin be berak; eta ezarri emen oarrak ondo, berau ez bai jako izango galtzeko ezik.

2. Onan dagoala egintza asko burutu leikcz Jainkoagaitik asko egiteko, eta maitasunera bultz eragiteko; beste batzuk birtuteai azten laguntzeko, *Jainkoa zerbiduleko Bidea* deritxon liburuak (1) esaten dauskunez, liburu on-ona ta egoera onetan dagozanentz.at oso egokia, berto adimenak lan

(1) Madrid'eko Aita Alonso fi'antziskotarrak idatzia, diñoenez.

dagialako. Kristoren aurrean iruditu daiteke eta oitu aren Gizatasun doneaz maitemintzen oso, eta aterbage beragaz ekarri ta Berarekin mintzatu, bere bear-izanetarako eskatu, eta kexu izan bere neke-lanakaitik, bere pozetan Aregaz poz-tazo, eta eurakaitik Bera ez aztu, otoitz alkarturikoetan ibilli barik, itz lauak eta bere nai-bearrizanakaz ondo datozenak baifio. Era oso ona epe laburrean aurrera egiteko; eta la-gungo bikain au beragaz ekarten alegintzen dana, ta aurrera egin, ainbeste zor dautsagun Jaun oni bene-benetan maita-suna arturik, aurreratuen maillakotzat dot jotzen nik.

3. Onetako deboziño ez eukitekorik ez jaku ezer emon-go, esan dodan lez, Jaunari eskerrak emon baifio Bera poz-tuteko leiaz ibiltzen izten dauskulako, egintzak aulak izanda be. Kristo geugaz ekarteko modu au onuragarri jaku mailla guztietan, eta bide oso segurua da lenengoan aurrera egin eta bigarren otoitz-maillara arin eltzeko, eta atzerengoentzat deabruak ipiñi daikezan arriskueta seguru ibilteko.

4. Auxe da, ba, guk al doguna. Emendik aurrera egiñaz, espirkua emongo ez jakozan atsegiñak sentitzera jaso nai leukeanak, bata ta bestea galdu besterik ez dau egiten, nik uste, gure izatez goitiko zera dalako; eta adimena galdurik, eremu gelditzen da arimea, cta legor be legor. Eta etxe au osorik apaltasunean oifiarriturik doan ezkerro, zenbat eta Jainkoagandik urrago, aurrerago joan bear dau birtute onek, eta orrela ezpada, oro doa galdua. Eta arropuzkeri pizkat dirudi guk gorago igon nai izatea, Jainkoak ba geiegi egin oi dau, gu gareanez, gu bere albora aurreratzeke. Au ez da ulertu bear, au diñodala, oldozpenez igon zeruko edo Jainkoari buruzko gauza garaiak, eta an dagozan aunditasunak eta Aren jakituria gogoz iraultzeakaitik; nik iñoiz egin ezpa-neu be (trebe ez nintzalako, esana dot, eta zirtzilla, lureko gauzak gogora ekarteko be, Jainkoak berak egi au ulertu nengialako mesedea egin oi eustan, ez bait zan azarkuntza gitxi, zenbat geiago zeruko gauzetarako), beste pertsona batzuentzat onurakor izango da, letrak ba'daukiez batez be,

ariketa onetarako ondasun aundia bai da, nire eritxiz, apaltasunean sustraituak ba'dira. Egun batzuk ezkerro ikusi dot au letradun bat/uen bitartez, gitxi dala asi ta aurrerakada ederra egiñaz; eta onek gogo bizi ta garretan jarten nau, geroago esango dodanez, espiritu-zaleak gero ta geiago izan daitezcan.

5. Ba, Jainkoak jaso-azo barik cz daitezala igon diñodana, ezpirituzko izkera dozu. Experientzi pizkat daukenak laster ulertuko dauste, onela ulertzen ez baldin ba'da, nik ez dakit berau zelan adierazo. Esaten asi nintzan Teologia mistikan, adimenak galtzen dau bere lan-egitea, Jainkoak berak gal-azten dautso, gero nasaiago azalduko dodanez, ba'nenki beintzat eta Berak egingo ba'leust orretarako mesedea. Guk ez daigun, ezta burura ekarri be, bera gelditzeko ezer egin au da diñodana, ez daigula ezer egin ezta egiteke itxi be beragaz ezer, txaranda ta otz geldituko garealako, eta ez dogu egingo ez bata ez bestea; Jaunak geldi-azo ta atertzen dauanean, kezka dedilla ta arduratu, eta baita buru-erion barik ulertu be kredo baten guk geure ardura guztiakaz urte askotan baiño geiago. Arimearen indarrak arazotu ta geldi euki nai izatea, zentzun-bakokeri dozu. Eta barriro diñot, ulertu ezta be, apaltasun aundi bakoa da, ez nobere erruz baiña, penaz bai, alpcrreko lana izango baita, eta arimea lankerio txikiz geratzen da, bat jauzi (saltu) egiten joan eta atzetik eltzen dautsoenean lez; bere indarra erabilli dauala uste dau eta orregaz nai ebana bete barik aurkitzen da; eta geratzen irabazi urrian, ikusiko dau, begiratu nai leukenak, esan dodan apaltasunik ezaren apur au. Auxe bai da birtute onen zer bikaiña, bcrak lagun daroan egintzak arimea ez dauala garrazturik izten. Ulertzen emon dodala deritxat, eti bear bada neuretzat bakarrik izango da. Edegi beiz Jaunak au irakurriko leukenen begiak, experientziz; naiz-ta txikia izan, ba, bertatik ulertuko dabc.

6. Urte askotan egon nintzan gauza asko irakurten, eta euretz ez neban ezer be ulertuten; eta luzaroan be, Jain-

koak emoten eustan arren, ez nekian itzik esaten berau ulert-
erazoteko, eta onek ez daust neke-lan gitxi emon. Aren Aun-
ditasunak nai dauanean, une baten erakutsi oi dau oro, ni
zur ta lur itxirik. Gauza bat esan dagiket egiazki: espiritu-
zale ziran askogaz itz-egiten neban arren, Jainkoak nigaz
eukan jokua niri ulertu erazo nairik, nik jakin nengian esa-
ten, nire molde-gaiztasuna aundia bait zan, ez gitxi ez asko
ez jatazan onurakor; edo-ta Jaunak berak nai eban, Aren
Aunditasuna beti izan bait zan nire maisu (onetsia bedi gnz-
tiagaitik, lotsagarri bai da au niretzat egiaz au adierazo al
izatea), eskerrik iñori emon bearrik ez eukiteko; eta ez
berau gura ez eskatu egin bage (onetan ez naz izan ba begi-
luze, beste uskeri batzuetan bai, baiña onetan ez), Jainkoak
berak emon daust une bat-atean argi be argi ulertu eta adie-
razten jakitea, entzuten ninduenak arriturik geratzeraiño;
eta neu be bardin, autor-entzuleak baiño be arrituago, obeto
ulertzen nebalako neure zakartasuna. Au oraintsu, eta olan-
txe Jaunak erakutsi ez daustana jakiten ez naz arduratzen,
neure kontzientziari buruzkoa ezpada.

7. Barriro be leenera nator: gora aundikoa dala esanik
espiritua ez jasotea, Jaunak berak jasoko ez ba'leu; zer dan,
gero ulertzen da. Andrazkoentzak batez be txarragoa da,
deabruak ba zer lillurakorren bat gauzatu leike; nik ziurtzat
daukadan arren Jaunak ez dauala lagatzen Beragana eldu
nairik dabillenari kalterik egin daion; bestela bai, probetxu
ta irabazi geiago aterako dau deabruak galdu eragitea uste
eban lekutik. Bide au izanik lenengoak geien ibillia ta emon
dodazan abisuak garrantzitsuak dira!ako, luzatu naz ainbeste,
eta, autortzen dot, nik baiño ot-eto idatzi izango eben gai
oneitaz beste toki batzuetan, bai, egia da, naspil eta lotsa
naikoaz idatzi dot, ez baiña erakutsi bear neukean aiña
erakutsiaz. Onetsia izan bedi Jauna danagaitik, ni lango bati
bere gauzetaz, ain aundi jagietaz, bero egiten itxi ta nai
dualako,

XIII ATALA

Lenengo egoeran darrai. — Oar moltzoa, dea-bruak asieran ipiñi oi dabezan tentaldiak azpiratzeko. — Atal onek ha-dau bere inportantzi.

1. Asieran euki oi diran eta batzuk neuk eukita ikusi dodazan tentaldi batzuetaz zerbait esatea otu jat, baita nik bearrezko dirala uste dodan abisu batzuk ezarri be. Alegindu beiz asieran espiritu alai ta zabalez agertzen, pertsona batzuk ba-diralako deboziñoa joango jakela begitanduten jakenak, euren buruaz pizkat arduratu czik. Ondo dago noberegan uste ez geiegi ez gitxitgi jarri barik ibiltea, Jainkoa iraintzen dan galzorira ez makurtzeko; naitaezkoa dozu au, birtuteetan oso aurreraturik egon artean. Eta ez dira asko be orren sendo egon leitekezanak, batzutan euren berezkoari moldakor izanik, ardura bakotuko ez diranak. Bizi garean bitartean beti, apaltasunagaitik be, ona da geure izakera kaskarra eza-gutzea. Baiña, aurrerago esan dodanez, ainbat zertzelada dira atsedena artzeko gai diranak, beste ezertarako ez ba'dira be, biotz berotasun geiagoz otoitzera biurtzeko ondoren. Zentzun ona bear da gauza guztietan.

2. Konfiantza on osoa euki bear dogu: egoki bai da gurariak gitxitu ezta, Jainkoagandik uste izan baiño, alegintzen ba'gara, apurka apurka bereala ez ba da be, santu asko Aren laguntzaz eldu ziran lekura gu be elduko gareala; areik be, nai izatera erabagiaz astiro astiro egitez saiatu ez ba litzaz, etziran eldu izango mailla orren goikora. Jaikoak nai dau, ta arima kementsuen adiskidea dogu apaltasunez eta noberagan uste geiegi ipiñi barik, ba doaz; eta onakoetatik ez dot iñor be ikusi bidean bee geratu danik; ezta arima

koldar bat be, apaltasunaren itzalpean, urte askotan ibilli danik, besteok epe laburrean beste. Arrigarri jat bide onetan gauza aundietara oldartzeak dagiana; arimeak gero kemenik ez ba'leu be, egazkada ederra emoten dau urriñera egifiik, naiz-ta len-lumako txoritxoaren antzera, nekatu ta egaz egitea itxi.

3. Beste orduz aurrez aurre nekarren nik sarri Paul deunak diñoana: *Jainkoagan dana daikegula* (Fil., IV, 13); ondo be ondo nekian neurez ezin neinkeala ezer. On aundia egin eustan onek; baita San Agustin'ek diñoanak be: *Emoiclazuz, Jauna, agintzen daustazuna, eta agindu eidazu nai dozuna* (Auri., L. X, XXIX atalean). Gogora ekarten neban askotan, San Pedrok ez ebalaz ezertxo be galdu bere burua itxasora botateaz, naiz-ta gero bildurak artu (Mat., XIV, 30). Lenengo erabagiok, izan be, aundi dira, aurrenengo egoera onetan astiroago ta maisuaren eritxi ta zuurtasunari lotuago joan bear izan; baiña au ez daitela izan iñoiz be txantxiku antzera ibiltea, ezta arimea ez daitela nekatu sugalindarak atzemonetan bakarrik ibilliaz. Apaltasuna aurretik beti, indar oneik geuretik etorriko diranik uste izan ez daigun.

4. Baiña ulert zelakoa izan bear dauan apaltasun onek. Nik uste dot deabruak kalte naiko egin daroala otoitza daukan jentea asko aurreratu ez dadin, apaltasuna txarto ulertu eragiñik, santuen eta martirien antzeko izan gurata, ori arrokeria dala guri irudituz azoaz. Gero esan oi dausku edo-ta ulerterazo, santuen gauzak, mirestekoa dirala, baiña ez pekatari gareanok eurak burutzeko. Neuk be auxe diñot; baiña olan be ikusi egin bear dogu zer dan mirestekoa eta zein antzertzekoa. Ez litzateke, ba, ona izango, ez gero, pertsona makal eta gaitxoti bat barau ta penitentzi gogorrek egiten jarriko balitz, lorik ezin eginda, ez jan ez beste olakorik ez leukaken basamortu batera joanaz. Baiña alegindu geinkezala, Jainkoa lagun, mundua egiaz ukatu, dedu edo onrarik ez nai izan, norbere etxeari loturik ez egotea; biotz oso

estuak bai daukaguz, lurak uts-egingo dauskula uste izanik, gorputzari kendu ta arimeari emon ezketiño. Gero uste da barru biltzeari laguntzen dautsola euki bear dana eukiteak, ardureak kezkarazten bai dau otoitza. Onek mintzen nau ni Jainkoagan uste ain urria eukiteak, eta nobere maite-su ain bizia olako kezkaz bizi izateraiño. Eta orrelaxe da, izan be, espiritua onan ain potoxtua dagoan lekuan, umekeri batzuk damoskue neke-min aundia, beste batzui gauza aundi ta gunezkoak legez, eta geure barnean espiritualak ga-reala-ta gabiltz.

5. Au deritxat orain niri, emen atsedena ez galtzeko ta an Jainkoaz gozatzeko, aragia ta arimea alkar taiutu nai izatea dala bide egiteko era au. Eta izan be orrela izango da, zuzenari dagokionez eta birtuteari oraturik ba'gabiltz, baiña astiro ibiltea dozu ori, oilloak lez nunbait; orrela ez da iñoiz espiirtuaren egiazko askatasunera elduko. Jokabide guztiz ona, nire eritxiz, ezkonduentzako, euren deiari dagokionez bizi bear dabe-ta. Beste estadu baterako, baiña, ezelan bere ez dot gura olako onura biderik, ezta ona danik be ez dauste siñisterazoko; nik probatua daukat eta orrelaxe egon izango nintzan beti, Jaun onak beste bidezidor bat erakutsi ez ba'leust.

6. Gurari aundikoa izan naz beti, baiña esan dodana egiten saiatzen nintzan: otoitzari ekin eta neure naierara bizi. Uste dot, alan be, norbaitek gorago egaz egiten erakutsi ba'leust, gurari oneik egi biurtzen jarriko nindula. Baiña, geure patuengaitik, maisu ain gitxi, ain banakak, kasu onetan zurtasun geiegi ez daukenak daukaguz, eta auxegaitik uste dot nik dala asten diranak osotasun osoruntz ariñago ez joatea, Jaunak ba ez dau iñoiz uts-egin oi laguntzaz; ez da beraz Agaitik aurrera ez ba'goaz. Gu gara ez-oso ta ainbakoak, gu gara adore bako ta biotz il.

7. Santuen antzeko izan geinkez baita, bakartadea, ixiltasuna ta beste birtute batzuk geuganaten bizkortuaz be.

Oneik ez dabez ilgo gure gorputz baltzok, arimea nastu ta lardaskatzeko ain legez eta itxuraz eroan nai doguzanok; deabruak asko lagundu oi dau onakoak gauzaez ta moldakaitz egiteko bildur-samar ikusten dabezanean. Ez dau arek besterik nai, edozek osasuna kendu ta eriotzara eroango gailula guri ulert-eraztea baiño; malkoak eukiteak be itsutu egingo gaitulako bildurra sartzen dausku. Onakoetatik ibillia naz ni, eta orixegaitik dakit zelan dan; eta ez dakit nik ze ikusmen edo-ta osasun obarik nai izan gengiken, bera origaitik galtzea baiño. Gaixotia naz-eta, gorputzari ta osasunari jaramonik ez egiteko erabagia artu neban arte, beti egon nintzan kilik eta loturik, ezetarako gauza ez nintzala. Zer gitxi egiten neban, baiña deabruaren maltzurkeri au ulert negiala Jaunak nai izan ebanetik, osasuna galduko ne-bala ak begien aurrean jarten eustanean, nik esan oi neban: ez daust ardura il arren. Atsedena ba zan au: ez dot bear atsedetik, gurutzeta baiño, eta orrela beste zer batzuk. Argi ikusi neban, asko askotan, gaixoa nazala be, deabruaren tentaldia zala, edo neure zabarkeria; gero, bada, orren begiratua ta mizkeloa ez nazalarik, askoz be osasun ohea dot. Alan, otoitzari emoten astean, ez dira kilik-azo bear pentsamentuak; siñist eidazue au, experientziz dakidana da-ta. Neuregan galendu (eskarmenta) zaitezen, neure uts oneik azaltzea be probetxugarri izan le'teke.

8. Beste tentaldi au be noiz naikoa dozu. Guztiak oso espiritalak izan daitezala, bertotik datozen bake-gozotasuna ta irabazia ikusiaz batez be. Gura izatea ez da txarra; orren billa ibiltea izan daiteke ez ona, zuurtasun aundiz ezipada, eta ona dalakoan ez dalakoan erakusteko itxura barik egiña ez bada; kasu onetan probetxuren bat egin bear dauanak be, birtuteak oso errotuak euki bear ditu besteai tentaldirik ekarri ez dagien, Neuri gertatu jatan bein, eta origaitik dakit, beste batzuk be otoitzera eroaten alegintzen nintzanean, esan dodanez, alde batetik, otoitzari ekitea gauza bikain-bikaiña zala-ta, aundiak esaten, ikusten, eta bestetik, birtutez ezeuki ikusten ninduen ezkeru, zirikatutik eta ur-

duri samar nekazan eta errazoiz ekarri be, gero esan eus-tienez; eurak ez ekien zelan alkartu leikezan bata ta bestea, eta ortik sortzen zan txartzat ez eukitea berez txarra zana, batzutan, ni ontzat eukiaz, nik be egiten nebala ikusiaz.

9. Auxe da deabruaren lana; eta antza danez daukagu-zan birtute onak ditu lagungarri asmotan darabillen txar-keria al daularik legetzeko; onegaz gitxi izanik be, lekaima erxe baten danean, asko irabazi bear dau antza, eta zenbat geiago, nik txarto egifia asko be asko zan-eta. Ala, urte askotan, iru (1) bakar-bakarrik baliatu ziran nik niñotsenaz, eta geroago, Jaunak onbidean kemen geiago emon izan eusta-nean, esango dodanez, polito baliatu ziran bi edo iru ur-tetan. Eta, au barik, beste aker be ba dago arimea galtzen urteten dala; geure ardurea da bakarrik asieran geien kon-tutan artu bear doguna, gogoan ekarriz Jainkoa ta nobere arimea lurrean ez dagoala besterik. Auxe da arimeari on be on jakona.

10. Ba-da beste tentaldi bat (eta danak doaz onbide-griñaz, emen be aitu ta kontuz ibilli bear da), besteengan ikusten doguzan pekatuak eta utsak dakarskuen pena. Jain-koa iraindu ez dagien bakarrik dala deabruak buruan jarten dauskun oiñaze ori, eta gero beingoan kitutu nai leukie;; irain orreik. Benetan kezkatzen ditu onek, otoitza galazo-teraiño kezkatu be. Eta onek dakarren kalterik aundiena da, au birtutea, osotasuna ta Jainkoaganako ardura betea dala pentsatzea. Albora izten ditut agiriko pekatuak, oituraz ba'legoz Alkarte batenak, edo-ta Elizearen makurrak, siñausle oneinak, ainbat arima ondatzen dituenak; au oso ona da, ta ona danez, ez dau kezkatzen. Otoitzean ari dan arimea-rentzat seguruago izango da dana ta danak aztu-azo, bere burua zaindu ta Jainkoari poza emoteko. Oso da au bearrez-ko, ta ez neuke iñoiz amaituko, asmo onean oiñarriturik,

(1) Oneik: Aita Grazian'en ustez, oneik: San Pablo'ren Maria, Gotzonen Ana ta Maria Zepeda andrea.

ikusi dodazan okerrak esaten asiko ba'nintz. Alegindu gaitzezan beti besteengan ikusi leikeguzan birtuteak eta gauza onak kontuan artuta geure pekatu aundiakaz arein akatsak estalzen. Jokabide au, lenengotan ain bete-betea izan ezta be, birtute aundietara eltzeko, au da, guztiak geu baiño obetzat eukitera eltzeko, on-ona dozu; arimea, puntu one-taia elduz, Jainkoari esker, aurreratzen asirik doa. Naitaez dau Jainko-laguntasuna, au barik alperrekoak litzakioz-ta alegin guztiak, esandako birtuteari dagokionez; eta Berari eskatu emon daiskula birtute ori, alegiñak ba'dagiguz Arek ez dautso iñori utsik egiten.

11. Kontuz artu baita abisu au be; adimenaz lan asko dagientzat doa, gauza batetik burutapen, gogai ta zer ateraten diarduenentzat, jakiña; orregaz lanik egin ezin dabenentzat, ba, nik sasoi baten lez, ez daukat abisurik, eroapenez artu ta Jaunak argia ta zertan lanbidea euki emon arte. Eurenez oso gitxi al dabe, adimenak berak laguntza baiño oztopo geiago jarten dautselako. Adimenez ausnartzeko gai diranengana biurturik, ba, au diñotset, ez dagiela ontan otoitzeko denpora guztia emon; ariketa ori, egia, irabazi aundiko ta atsegiñez betea da, eta uste dabe ez dabela egon bear, ez igande ez atsedeen egun, czta unetxorik be lan bakarrik. Denporea galtzea da ori, euren aburuz, eta nik irabazitzat jotene galera ori; eurak, esan dodanez, Kristorene aurrean dagozala iruditzen, adimena nekatu barik itzez Berarekin eta gozatzen; ez da nekatzen, ez, errazoiak eiote, bear-izanak lau-lau erakusten, gu Bere aurrean eukiteko be duin ez gareala apaltasun aundiaz gogora ekarririk. Orain bata ta gero bestea; arimea nekatu ez dadin jateko bardiña beti janaz. Gozoak dira oneik, eta osasungarriak; aoa egiten bada orreitatik jatera, eurekin dakarre eusgarria arimeari bizia emoteko ta irabazitik ez urri.

12. Are geiago azaldu nai dot au. Otoitzeko gauzok, danak bai dira zaillak eta maisurik aurkitu ezik, ulertzeko oso biurriak. Onek eragiten daust, naita nik laburtu nai

izan pizkat eta gauzok idazteko agindu eustanaren adimen bikaiñarentzat ikutu bat egitea naiko izan, neure baldar izateak ez daust izten azaldu bearrezkoa dan gai au, berba gitxitan adierazten. Nik onakoetan asko jasan nebalako, liburuakaz soilki asten diranai errukia dautset, liburuak ba —arritzekoa benetan!— azaltzen dabenetatik, nobere experientziz ikusten danera, alde aundia dago. Esaten niardue-nera biurtuz, jar gaitezan Nekaldiko una edo pausu bat ausnartzen eta adierazo daigun noiztik egoan, adibidez, Jauna zigortzeko arbillari lotuta. Adimenak billatu bear dauz an zigortzeko egozan errazoiak, Jainkoak bakartade artan zelako min-samintasunak eukiko zituan, eta beste gauza asko, adimenak eragillea bada, emendik atera leikezanak. Oi, esko'atua balitz! Auxe da otoizlari asi barri guztiak ekitez beti euki ta jarraitu bear daben otoitz-bidea; goitikoetaraiño Jaunak jaso arte, auxe dogu biderik seguru ta bikaiñena.

13. Guztiak diñot, beste arima asko dagozalako Pasiño Santuan baiño beste gai batzutan frutu geiago ateraten dabenak: zeruan egoitza asko, baita emen be biderik anitz. Pertsona batzui eder ta onurakor jake inpernuaz jardutea, eta beste batzui zeruaz ausnar egitea, eta mintsu inpernuaz eroritzea; gogoko jake beste batzui eriotzea gogotan erabilitea. Batzuk, biotz-samur ba dira alan be, asko nekatzen dira Nekaldia beti gogoan erabilliz, eta atsegin jake ta onuratsu Jainkoaren ala ta aunditasuna beste izakietan so-egiñaz eta guri dauskun maitasuna, gauza guztietan agertzen dana, gogora ekartea. Eta jarduera bikaiña da Kristoren bizitza ta Nekaldia iñoiz be geiegi ez iztea, or-ortik etorri bai jakuz eta etorten on guztiak.

14. Abisua bear dau asibarriak, onuragarrienari begia emon daion. Ortarako txit bearrezkoa da maisua, experientzi aundikoa bada; olakoa ezpada, oker asko jagi daiteke ortik, ulertu ezinka arimea erabilliz, eta bere kasa be ulertzen itxi baga; onek, ba, maisu baten esanera egotea meritu aundikoa dala dakian ezkerro, ezin dau maisu orren esanetik

urten. Aurkitu ditut nik arimak burua eroanak eta ondo naigabetuak, ez bait euken experientzirik, ez nok erakutsirik, crrukia emoten eustenak, baita bat-edo-bat bere buruaz zer cgin ez ekiana bc. Espiritua ulertu eziñik, arimea ta gorputza larritu oi dabez, aurreratzeari cragozpenak ipiñiz. Nigaz bcin czaupidea izan eban, eta csaustanez maisu batek zortzi urtean euki eban lotuta, berc burua ezagutzetik urtcten izten ez eutsola, eta Jaunak atsedenezko oto'tzean eukan ordureko; auts eginda ekarren onck.

15. Nobere burua ondo ezagutzeko lana, ez da egundo be itxi bear; ez dago bide onetan arimarik, ain erraldoi danik, sarri samar ume izatera biurtu ta len-adiñean lez bu-larra ostera bc mustatu bear ez dabenik. Ezpei au iñoiz aztu, eta nik geiagotan be gogora ekarte izan daiteke, garrantzi aundikoa da-ta; goi-goiko otoitz-egoeran aurkituta be, sarri biurtu bear da asierara. Geure pekatuak eta geure burua ezagutzea bedi jateko guztiakaz artu bear dogun ogia; gu-perak izanda be, otoitz-bide onetan, ogi au barik ezingo li-tzakez jan-erazo. Neurriz, baiña, jan bear da berau; arima bat okitua ikusten danean, eta ortik ez datorkiola gauza onik, eta lotsaz aurkitzen danean Errege ain andiaren aurrean, zor dautson askogaitik ain gitxi ordaintzen dautsola-ta, zetan denporea galdu emen?, Jaunak aurrean jarten dauskuzan beste gauza batzuetara jo bear da; ez dago errazoirik arcik izteko, Jainkoak guk baiño obeto daki-ta zer komeni jakun jatea.

16. Garrantzia ba-dau ta, zuzendaria izan dadilla zuurra, irizpide onekoa, au da, experientziz jantzia; guzti oni letrak lagungarri ba'jakoz, gauza edcr-ederra izango da. Baiña iru gauzok batera aurkitu ezin ba'dira, lenengo biak dira inpor-tanteenak; bear ezkerro jakitunak aurkitu leitekez andik edo emendik, kontsultarako. Jakitunak alan be gitxi laguntzen dabe lenengotan, irakatsiagaz batera otoitz-espirtuz be orni-duta ezpa-dagoz. Ez diñot jakitunakaz artu-emonik ez euki-teko, egian errotua ez doan arim?a, nik otoitz barik gurago

neuke. Ondasun ikaragarria da jakituria, onek erakusten bai dauksu gitxi dakigunoi; argia emon eta Liburu Santuetako egietara iritxi ta bear doguna egin oi dogu. Zain gaizala Jainkoak otoitz txaldanetatik!

17. Geiago aztertu nai dot au, gauza askotan sartzen nazala deritxat-eta. Beti euki dot akats au, ez dodala jakin gauzak adierazten, itz askoz ezpada. Asten da monja bat otoitz egiten, gizaseme lau-soilla dau zuzentzaille, eta oni kasketak emoten dautso bere nagusiari baiño oba dauala berari men egitea, ziur asko gogo txar barik bere aldetik, igarten dauala uste izanik, erlejifiozkoa ezpada, orrelaxe izango dala uste izango dau-ta. Eta emakume ezkondua bada, oba jakola dirautso, bere etxeko gauzen ardurea euki, ototzean jardun baifio, senarrarentzat au gogaikarri bada be. Beraz, ez daki zelan atondu ez aldia ez gauzak, egiari dagokionez ibilli daitezkan. Argia falta jakolako berari, naita be, ezirv besteai emon. Itxura baten onetarako eskola aundirik bear ezta be, nik beti uste izan dot, eta izango, edozein kristauk al ba'dau beintzat, euki daiala artu-emona letra onak daukazanaz, eta zenbat eta obeak, obeto; otoitz-bidettik dabiltzanak, barriz, onen bear-izan geiago daukie; otoizlariago ta geiago, ain zuzen.

18. Ez beio iñok bere buruari iruzur egin, jakintsuak otoitz barik daukanarentzat ez dirala esanaz. Nik asko eza-gutzen ditut onakoak, urte batzuk dirala olakoak be bear izan dodazalako, eta beti izan naitzu olakoen adiskide; batzuk experientzirik euki ez arren, ez dabe arbuiatzen otoiez-lera, eta gaiñera gauza batzuk beiñik-bein ezagutzen dabez. Azken baten, esku artean dakarrez beti Liburu Santuak, eta emendik edan oi dabe espiritu onaren egia. Neuretzat daukat nik, gizaseme jakitunakaz artu-emona dauken otoitzari emondako pertsonak, eurak nai izan ezik, deabruak ez ditula atzipetuko ames zoroakaz; oneik ba, nik uste, bildur dautse, asko gero, jakituri apal jainkotiarri; ba-dakie laster izango dirala argitan jarriak, amarru ori kaltekor jakela.

19. Au esan dot, eritxi batzuk or dabiltzalako, otoitz espiriturik ez daukenak otoitz jentearentzat ez dirala jakitunak diñoenak. Espiritu maisua bear zala esan neban, leen be; baiña au jakituna ezpada, eragozpide aundia dala. Benetako laguntasuna izango da, ziur asko, onakoakaz artu-emona eukitea, jainko-zaleak ba dira: espiriturik euki ezta be, onuragarri izango dira niretzat, eta Jainkoak ulert-erazoko dau-tso onakoari erakutsi bear dauana, baita gogo-zale biurtu be guretzat probetxugarri izan daiten. Au ez diñot ikusi ta txas-tatu ezean, ori niri bat edo bigaz baiño geigogaz gertatu jat-eta. Arima bat oso-osorik maisu bati bakarrik menderatuta egoteagaitik diñot au, jakituna dana ez billatzea oker aundia dalako, lekaidea bada, bere Nagusiaren esanera egon bear dau onek, eta bear bada iru gauza oneik faltako jakoz, eta au ez jako gurutze txikia izango, berak bere borondatez bere adimena ona ez daukanaren mende jarri bear daualako. Nik beintzat ezin izan dot au iñoiz iruntsi, eta neure eritxiz ez da egokia be. Mundukoa bada, gora Jainko! , aukera leike nori lotua egon, eta ez bei galdu askatasun ain eder au; alderantziz, bego iñor be barik, idoro arte, Jaunak emongo dautso-ta, apaltasunez sustrituta ara ba doa, eta apara egiteko asmo onaz. Gogor goratu oi dot nik, eta emakume ta eskolarik ezak amai bako eskerrak emon bear leuskiguz betiren beti, norbait ba-dagolako ainbat neke-miñez guk ezjakiñok ez dakigun egia lortu al izan daulako.

20. Sor ta lor izten nabe sarritan jakitunak, erlijiosuak ba dira batez be euren lanaz irabaziak, nirj. olako lan barik, itanduez bakarrik, ainbat probetxu egiten daustela. Eta per-tsonak dagozala oni onurarik atera nai ez dautsoenak! Ez bei gura Jainkoak olakorik! Lekaide oneik ikusten ditugu euren Araudiko penitentzi ta beste zer guztietara loturik, egiaz txikiak ez diranetara, buru-ukapenak, txarto jatera, menpe-kotasunera josirik, batzutan ikaraz izten nauela, baike; onez gaiñera, lo txarra, Ian ta Ian, oro gurutze. Gaitz aundi litza-tekela deritxat iñok bere erruz ainbeste on galduko baleu. Eta izan leiteke batzuk neke-min orreitatik gu aske gagozala

uste izatea; eta, esan oi danez, jana ondo gertatua emoten dauskue. Geure naitara bizi izanik, otoitz apur bat geiago eukiaz, uste dogu, ainbeste neke-lordunak baiño aurrerago gabiltzala!

21. Bedeinkatua zu, Jauna, ain ezerez ta geldo egin ninduzulako! Baiña gorespenak Zuri beti ta keti ainbeste gu itxartzen gaituezan itxartu oi dozuzalako. Etenik bakoa izan bear leukie gure otoitzak, argia emoten dauskuen onein alderako. Zer izango ziñakez eurok barik, orain Eleizeak daukazan ainbeste ekaitz ikaragarriren artean? Doillor batzuk egon ba dira be, dizdiz geiago egingo onak. Euki beiz Jaunak bere eskutik, eta lagundu begiz guri lagundu daiskucn. Olantxe.

22. Larregi aldendu naz esaten asi nintzanetik. Asiba-rrientzat, baiña, dana doa ondo, oso egokia bide onetik joaten astea, ibilten asterakoan, ain garaia danean batez be. Esaten nebanera biurtuz bada, au da, Kristo arbillari loturik dagonekora, ona da puntu au buruan iraultzea zati baten, orduan an izan ebazan atsekabeak gogora ekarriaz; zergaitik euki zituan, nor zan areik euki ebazana, eta zenbateraiñoko maitasunaz euki ta jasan ebazan. Baiña ez daitela arimea geiegi nekatu beti onen billa, iraun dedila antxe Beragaz, zentzunak geldi ta ixil. Al ba leu, ardura bai begira daukala oldoiz, lagundu daiola ta itz-egin, eskatu ta apaldu, Beragaz gozatuz eta an egoterik ez leukela merezi gogoratuz. Au egiteko lain litzakenean, otoitz egiten asieran be, probetxu aundia aurkituko dau, eta oso onuragarri izango jako otoitz tankera au; nire arimearentzat beiñik-bein orrela izan zan. Ez dakit ondo esana doan au, zeuk, Aita orrek, ikusiko dozu. Jaunari nai dakiola, beti Berari gogoko izaten jakin daidan. Olantxe.

XIV A T A L A

Otoitzaren bigarren maila axaltzen. — Jaunak arimeari berarizko gozotasunak emoten deulsaz. — Dagoneko izatez-goitiko doaiak dirala diño. — Garrantzi itzaleko atala.

1. Ikusi dogu zenbateko lanaz ureztatzen dan baratz au, potzutik ura beso-indarrez aterata danean. Esan daigun orain, ura eukiteko bigarren eraz, ortuaren jaubeak eratu ebanez, tornu bategaz eta igoitz-tresneaz baratz-zaiñak ur geiago atera, indarketa gitxiagoarekin, beti lanari ekin bearrean atsedena be artu egian. Modu au, otoitzari ezarrita, atsedean otoitz deritxoen au, nik orain adierazo nai dodana dogu.

2. Ementxe asten da arimea bere barruan batu ta kiribiltzen, emen ikutzen izatez-goitiko erreñuari, eta arimeak berak ezingo dau olakorik lortu, egiñalak eginda be. Egia da, itzura danez, nekatu egin dala gupillari eragiten, aldikada baten beintzat, au da, adimenaz lan egiten, eta urgoitz-tresnak beterik daukaz. Emen, baiña, gorago dago ura, eta olan neke gitxiagoaz lan egin oi da, potzutik ateraten baiño. Ura urrago dagoala diñot, grazia ezagutzeko askoz argiago emoten jakolako arimeari. Auxe da aalmenak euren barruan batzea, poztasun aretatrk atsegin geiagoz gozatu al izateko; aalmenak, alan be, ez dira galtzen ez lokartzen; naimenak diardu bakar-bakarrik, eta au zelan ez dakialarik atxillo geratzen. Baiña Jainkoari bakarrik baimena emoten dautso espetxeratu dagian, maite dauanaren katibu izaten ondo dakinaren antzera. Oi Jesus eta ene Jaun! , zure maitasuna bai dala emen indartsu! Onak dauka, ba, gurea ondo loturik, une orretan Zeu ezik beste iñor izten cz dozula maitatzen.

3. Naimenari, borondateari laguntzen dautsoe beste aalmen biak, alako ontasuna gozatzeko gai izatera eldu dadin. Batzutan, orraitino, naimena Jainkoari loturik dagola be, laguntza ori besteratzeko baiño ezta izaten. Orduan ez egin jaramonik arei, gozotan eta atsedenea iraun baiño; barrura ekarri gurata ba'zabiltz, berak eta eurak galduko dabe. Uso batzuk lez dozuz indarrez orduan, eurak lanik egiteke usotegiaren jaubeak emon oi dautsen garau ta alez naikitzen ez diranak, jan-billa beste leku batzuetara jo ta a be oso txarra aurkiturik, lengora biurtzen diranak barriro. Olantxe doaz ta datoz,, naimenak emoten ete dautsen eurai gozatsu jakena. Jaunak nai ba'leutse alerik bota, antxe geratzen dira; ezezkoan, barriro doaz billa. Eta naimenari ona dakartsoela uste dabe; iñoiz baita, gomutamenaz edo irudimenaz gozaten dirala iruditu naiez, kalte egin be. Ona da kasu onetan, esango dodan moduan jokatzeara.

4. Emen gertatzen dan guzti au, gozotasun aundiaz da; eta lan oso gitxigaz dalako otoitzak ez dau nekarazten, ezta luzarokoa izanda be; bar-bar lan dagi adimenak, eta leen potzutik baiño askoz ur geiago atera oi dau. Jainkoak emen emoten ditun negar-malkoak, gozotasunez igortzita doaz. Nabaituta be, alegiña egin barik agertzen diranak dozuz.

5. Jaunak emen emoten dauan ondasun eta mesede aundiko ur onek, aurreko otoitzak baiño askoz geiago azi-azten ditu birtuteak. Arima au, bada, bere mixeria itxi ta gorantza doa, eta orain-ezkero aintzazko gustuen barri pizkat emoten jako. Onek azierazten ditula uste dot nik, baita egiazko onbidearen urrago eldu be, on guztien iturri dan Jainkoagana noski; Jainkoa bera asten da arima onegaz artu-emonean, eta arimeak auxa gura dau dirudienez sentidu daiala zelan emoten jakon. Onaiñoratu danean asten da arimea, munduko griña ta zaletasunak galtzen ez-ezik, eurotan pozik ez aurkitzen. Argi ikusten dau, ikusi be, atsegin aren unetxorik be ezin leikela emen egon, ez aberastasunetan, ez nausigoe-tan, ez dedu-ooretan, ez atsegiñetan, onek begien itxi-edegi

baten emon leiken lango gozotasunik; au betea da egiaz, eta poztuten gaitula dakusgun poztasuna. Eziña da, nik uste, lurreko gauza aintzagarrietan onenbeste zorion aurkitzea; lurrean izan be beti dogu zerbait zoriona illundu oi dauskuna. Ezta egundo falta «bai» «ez» bat. Emen oster a beti da «bai» aldi aretan; «ez» gero dator amaitu dala ikustean, eta ezin dauala ordaiña jaso, ezta ez dakiala zelan jaso. Penitentziz eta otoitzez eta beste zer askoz zati-zati egiñik be, Jaunak emon nai ezpadau, ez dautso asko balio. Jainkoak nai dau, aundia baita, uler daiala arima onek Bere Goitasuna beragandik ur-ur aurkitzen dala ta ez dauala bear onezkero mezularien laguntasunik; itz begi arimeak berak Jainkoaz ez zarataka ondo-ondoan daukan ezker o, ezpanai eragiñaz bakarrik aituten dautso-ta.

6. Zentzun bageko zera dirudi egi au esatea, Jainkoak, geugaz dago-ta, beti ulertzen dausku; ez izan zalantzarik ontan, orrela dalako. Baiña gure Jaun eta Nagusi onek emen au gura dau: ulertu daigula ulertzen dauskula; eta Bere aurrean egoteak dagiana; arimen lanean asi gura dau, emoten dautsozan barruko ta kanpoko poz aundien bitartez batez be, onein eta lurreko atsegiñen artean, esan dodanez, dagoen aldea erakutsiz; ariman pekatuagaitik egiñik geunken ut.su-nea asetzen dauala dirudi. Arimearen barru-barrukoa da poz-atsegin au, eta beronek ez daki nundik ez zelan etorri jakon; zer egin be ez daki sarritan, ez zer nai izan, ez zer eskatu. Dana batera aurkitua dauala, uste dau eta ez daki zer aurkitu dauan, ezta ez daki zelan aitzen etnon, gauza askotarako letrak bear dirala-ta. Egoki letorke emen, izan be, laguntza guztizkoa edo berebizikoa, askok ez dakiana nunbait. Berebiziko edo norbaiti egindako au opa dau emen Jaunak; ikus daiala arimeak ia-ia bcgiz besi, esan oi danez; oker joango diran beste zer askotarako bardin letrak bear dira. Baiña au oker doan ala ez aitulen daben pertsonak ikusiko dabe-ta, ardura barik noa aurrera. Olan zein jakituri aundiko zein jainko -zale dala, ba-dakit kez kage egon naikena, doanaren eskura doala jakin ezker o, berak jakingo dau nun dagoan okerra ta berak zuzenduko.

7. Ulertzen emon nai neukez mesede oneik. Lenengotan, Jaunak arimeari egiten clautsazanean, onek ez daki zer diran ezta eurekaz za- egin bc. B.ldur bidetik ba daroa Jainkoak (1), nigaz egin eban lez, eia nok a'tzen emonik aurkitzen ez, emendik datorkion naigabea ez jako txikerra; bestera, barriz, atsegin bizi-bizia jako bere egoera zuzen antzeturik ikustea, eta orduan argi dakus daroan bidetik ondo doala. On aundia, izan be, zer egin bear dan jakitea, obarik obari joateko edozein otoitz maillatan. Asko ikusia naz ni eta naiko denpora galdua, zer egin ez nekialako, eta erruki aundia dautset ona eldutean bakarrik aurkitzen diran arimai; liburu on asko irakurri dodazan arren, gai oni buruzkoak ain zuzen, oso gitxi aurkitzen dira onak, eta oitua ezpada arimea, asko azalduta be, naiko zeregin izango dau bear dan bestean beragazko gauzak ulertzeko.

8. Gurago ncuke Jaunak egingo ba'leust grazia emen esan al izateko ariman izten dabezan ondorenak, oneik onez-kero izatez-goitikoak dira-ta. Ondorio oneitatik jakin daikegu beti noiz dan Jainkoaren espiritua. Jakin edo ulertu daikegula diñot, emen ulertu daikegun erara ain zuzen, bildurrez eta zuurtasunez ibiltea beti be egoki jakun arren. Jainkoagandikoa dalarik be, deabrua iñoizkoren baten, argizko aingeru itxura arturik ibilli daiteke, eta arimea, oso trebe-oitua ezpada, ez dau ulertu al izango, eta trebe-oitua izanda be gero, au ulertzeko otoitz-bidean azken erpiñeraiño eldu bearra dago-ta. Gitxi lagundu o: daust daukadan asti urriak eta Jaunaren eskua bear. Etxeko arazoetan jardun bearra daukat, eta beste zeregin batzuetan, gero ikusiko danez oraintxe asteko leka'metxean (2) bai nago; beraz asti-unetan idazten dot idazten dodana, eta ez neuk gura neuken erara. Jaunak garra emotean, alan be, errezago ta obeto egin oi da: orduan, eredia begi aurrean daukanaren antzera da, ereduko lana ateraten diarduanaren antzera. Ba'ña espirituzko garrik

(1) Jainkoarenak elc ziran mo.sedeak.

(2) Avila'ko San Josep'en mon.jategian.

ezpa-dago, urte asko otoitz arloan emonda euki arren, ga-
txagoa da gauza ontaz ganoraz jardutea, esan oi danez, ara-
biar izkeraz mintzatzea. Beraz, obari aundi-aundia jatala ustc
dot, au idaztean, ortan egotea; argi dakust emen ni ez nazala
au difiodana, ez dodala au adimenez eratzten, ezta ez dakit
gero zelan asmau neban esaten; sarri jazoten jat au.

9. Orain gatozan barriro geure lorategira; ikusi daigun
zelan azten diran zugarzok, zelan astundu, loratu ta gero
frutua; lorak eta krabeliñak usaiña ixurtzeko. Atsegin jat
iduri au, alderakizun polit au. Sarritan, izan be, neure asieran
(eta laket bekio Jaunari asia nazala oraintxe Bere Aundi-
tasuna otseintzen), emendik aurrera neure biziaz esango do-
dan asieran diñot, benetako pozbide bai jatan nire arimea
baratz eta Jauna bertan egurasten ebillena, gogora ekartea.
Geitu egiala azten, eskatzen neutson, birtutezko loratxoen
usaiña, itxura zanez agertu naita aztcn asiz joiazala ikusiaz,
eta Bere aintzarako izan zedila ori, eta indar-azo eiza'a Berak.
nik ez bait dot neuretzat ezer gura; eta ebagi eizala nai ebaza-
nak, ba-nekian ba ondoren obeak urtengo ebela. Ebagi diñot,
aldiak izan oi diralako ariman, ortu onen gomutarik be gera-
tzen ez dala; igar dagoala dana dirudi, ta urik be ez dala
egongo beroni eutsi al izateko, ta ariman etzala iñoiz egon
birtute-izpirik. Naigabe gorriak jasaten dira, Jaunak gura
bait dau baratz-zain gaixoaren antzeko izan daiten; onek
euki oi dau galdurik berak landu, bazkatuz ortuak bizi ta
jori iraun daian ateratako izerdi guztia. Orduan dator egiaz-
ko jorratzea ta susterretik bedar txarrak kentzea, naiz-ta pi-
tiñak izan, baita ezagutu be gure alegiñak ez dabela ezer
balio, Jainkoak kendu ba'dagisku grazlazko ura. Ez jako kasu
aundirik egin bear gure ezerezari, eza baiño ezago danari.
Askio irabazten da emen apaltasun arloan: barriro asten
jatzuz azten.

10. Oi ene Jaun eta On. Ezin dot au negar-zizpuru
barik esan, eta atsegin aundi barik. Zuk egon nai dozula,
Jaun orrek, olantxe gugaz! Eta Sakramentuan zagoz, eta au
egi-egia da, siñistu bear dana, orrelaxc da-ta; bene-benctan

autortu geinke geure erruz ezpada Zugaz gozatu geinkezala gu, ta Zu gugaz atsegintzen zareala, Zeuk diñozu ba zeure poza dala gizasemeakaz egotea (*Esak.*, VIII, 31). Oi ene Jaun! Zer da au? Pozgarri jat itz au entzuten dodan guztietan, iñoiz Zugandik urrin ibilli nintzan arren. Izan ete daiteke, Jauna, arimarik Zuk olako mesede ta doaiak egitera elduaz, eta Zu berarekin atsegintzen zareala jakiñik, barriro Zu iraintzen zaitunik ainbeste on-egiten dautsazun maitasunaren ainbat erakutsi artu ondoren, ezin daiteke onen du* darik euki, egintza argi ikusten doguna da-ta? Bada arima ori neu egi-egitan, neu naz Jainkoa iraindu dodana, ainbaten gero, asko askotan. Eder bekio zure ontasunari, Jauna, neu bakarrik izatea esker-gaiztoko ori, eta ain gaiztakeri izugarria buruta dauana. Lar esker txar erakutsia nozu, Jauna; ortik be, baiña, zure muga bageko ontasunak zelanbaiteko ona atera dau; eta gaitz aundiago ta zure errukia nabariago agertzen. Errazoiz bai kanta bear dodazala nik errukiok! 01 an izan dedilla, ene Jainko! , kanta daidazala nik betiren betian nigaz ain errukitsu izan zarealako; arriturik dagoz eurok ikusten dabezanak, eta ni neure senetik atera naroa sarri, Zu obeto goretsi zaidazan. Zu barik ba nengoke, Jauna, ezingo neuke ezertxo egin; barriro be ortu onetako lorak ebagi besterik ez, eta lur kaskar gorri au leen bezela sastar-pillo litzateke. Ez itxi, Jauna, olakorik, ezta ez eizu ainbat izerdiz erosi zenduan arimea galdu daitenik; gero be ainbeste bider ber-erosia Zuk ber-erosi ta ainbat bidar erensuge ikaragarriaren aginartetik Zuk aldendua.

11. Zuk, Aita orrek, parka eidazu, neure asmotik urrindua ba naz. Eta neurean nabillen ezker, etzaitez arritu. Gauza oneik idatziaz, nire arima txundituta geratzen da batzutan, Jainkoak egin dautsozan grazi ta mesedeak gogoratz, eta alegin aundiak egin bear ditu Aren gorespenak ez adierazteko. Eta ez dot uste zuk arpegi muziñez au artuko dozunik, bion artean, nik uste, eresi berbera abestu daikegulako, naiz-ta era ez-bardiñean, Jainkoari nik askoz be geiago zor dautsat zuk ondo dakizunez, geiago parkatu daust eta.

XV ATALA

Gai bardiñean darrai. — Atsedean otoitzean zelan jardun bear dan. — Arima asko eltzen dirala otoitz-era onetara. — Gitxik baiña aurrera jarraitzen. — Bearrezko ta onurakor dira emen datozen gauzak.

1. Biur gaitezan orain geure asmora. Arimearen atsedean eta kiribiltze oneik noiz somatzen ete? Ortik datorren poza ta bakea da, benetako alaitasuna ta aalmenen egoarria ta gozaldi leuna oso. Geiagora ezta eldu-ta, ez jako gertatzen gorago jo gura izaterik, eta gogoz esango leuke Pedro Deunagaz an izan zedilla bere egoitza (*Mat.*, XVII, 4). Ez da ausartzen ziburu-zaburuka ibiltzen, ez zirkiñik egiten, usate daulako on arek iges egingo dautsola esku artetik; arnasa artzerik be batzutan ez leuke gurako. Ez dau ulertzen gaixoak berak berenez ezer ezin izan ebanez on a bereganatzeko, gitxiago euki-azoko ebala Jaunak gurako leukenean baiño geiago. Esan dot lenengo batze ta atsedean ontan ez dabela utsik egiten arimearen aalmenak; guztiz pozetan bai dago Jainkoaz, gozotasun arek dirauño, aalmen biak goibetuz ondatu arren, naimena Jainkoaz alkaturik dagoan ez kero, ez dira galtzen atsedena ta barealdia, arek bestera, ots, arimeak astiro adimena ta gomutamena barriro batzen ditu. Oindiño bera, naimena osoan murgiltuta ez dagoala be, pozarren dago bere zeregiñean zelan ez dakiala, areik alegendariak egin arren ezin dautsoe kendu-azo daukan poza ta gozotasuna. Bera, neke esateko barik, bere burua jaigonaz doa, Jainkoaren maitasun-txingartxo au itzali (amata) ez dedin.

2. On dakiola Jainkoari, emon daidala nik au ondo ulert-erazteko grazia, Asko, arima asko dagoz egoera ontarra eldu ta gitxi aurrera egiten dabenak, eta ez dakit nok daukan errua. Jaunak ez beintzat ziur be ziur, Aren Goitasunak puntu ontaraiño eldu-azoteko mesedea egin dautsota, ez dot uste beste asko egin barik itxiko dauanik, norbere erruz ezpalitz, Guztiz garrantzitsua da, onaiño eldu danean arimeak jakin daiala zelako duintasunera jasoan izan dan, eta Jaunak egin izan dautsan mesede izugarria, Eta aui-rerantzean zelan hirrekoa izan bear ez dauan, Jaunak bada, itxura danez, zerutar biztanle biurtu dau. Olaxe izango da bere erruz egiten ezpada duifiez; zori gaiztokoa, atzera biurtzen baldin bada. Beerantza joateko, nik uste, izango dala, ni niñoian legez, Jaunaren errukiak bide onera ekarri ez ba'nindu. Au, nire aburuz, geienetan, oben astunakaitik izango da, eziña da izan be ondasun orren aundia gaitz eskergak dakarren itsukeri aundi barik.

3. Nik orrela eskatzen dot, Jaunarren, Bere Aunditasunak arimai egin mesede aundiagaitik, egoitza onetara eldu diranai, ezagutu daiela euren burua eta gora aunditan euki, apaltasunean eta auteriste santuan oiñarritua, Egipto'ko k'ipuletara biurtu ez daitezana. Eta euren makalkeriz, gaiztakeriz, doillorkeriz nai bereko zirtzillez jausi ba'lediz, nik egin neban bezela, beti euki daiela begien aurrean galdu eben ona, susmoa beintzat, eta bildurpean ibilli daitezela (errazoa ba'dabelako eukiteko), otoitzera biurtzen ezpa-dira, txarretik txarrera joango dirala. Oni deritxot nik egiazko jaustea, ainbeste ontasun irabazi eban otoitz-bidea nazkagarri jakonera ain zuzen. Arima oneikaz diardut eta ez diñot Jainkoa irainduko ez dabenik, eta pekatuetan jausi; zuzena litzakio, ba, onelako mesedeak artzen asi danak orreitatik arduraz jagon eta zaintzea. Baiña makalak gara-ta... Au da nire aolkua, ez daiala otoitza itxi, antxe bait dau ulertuko zer egiten dauan, antxe irabaziko dau Jaunagandiko damua ta kemena jausi danean jagiteko. Eta siñist begi, otoitzetik urrintzen bada, arriskura doala, nire eritxiz, Ez

dakit ulertzen dodan diñodana beste leku batean esan dodanez, neugan ikusi dodanetik emoten bai dot eritxia.

4. Otoitz-era au, ba, txingar baten antzekoa, Jainkoaren egiazko maitasunarena, Jaunak ariman ixotzen asten dana dozu. Arimea ala ulertuz doala nai dau zer dan maitasun au, atsegingarria benetan. Atsedean eta barruratze au—txingartzeari batez be Jainkoaren espirituaren ondorena da: dakarren gozotasunja. ez da erretan deabmagandik, ezta geuk geure kemenek ekarri-azo be; ez, ezta ez bata ez besteak sortua. Experientzi apur bat daukan arimea, alan be, ez da iruzurrean jausten, bertatik ulertzen dau-ta ez dala norbere indarrez lortu daiteken gauzea. Egia au da: gu izatez geure gozazale gara, eta ori lortzeko bide guztiak aztertu oi doguz; baiña otz geratzen gara laster, atsegin au lortzeko sua ixioitzeko alegiñak erreta be, baiña berau amatetako ura bota besterik ez dauala egiten dirudi. Jainkoak ipiñitako txingar onek, ba, txikia izanagaitik, zirtadura aundia ateraten dau, eta geure erruz itzaltzen ezpa-dogu, auxa da beragandik garra jaurtzen dauan su aundia ixetzen asten dana, bere lekuan esango dodanez, Jainkoaren maitasun bete-betea, Aren Gurentasunak arima goenak aukitea nai langoa.

5. Txingar au dau ezaugarri Jainkoak arimeari damotsona, gaurtik gauza aundietarako aukeratzen dauan ezaugarria; arimea bera mesede orreik artzeko gertatzen bada, jakiña, Doe aundia da, nik esan daikedan baiño aundiagoa. Mingarri oso, diñodan legez, onaiño eltzen diran arima asko ezagutzen ditut, baiña emendik aurrera doazanak, joan bear leukien lez, gitxi baiño ez diralako, lotsa dakarst berau esateak be. Ez diñot nik gitxi dagozanik, asko egon bear dabe-ta; edozergaitik jasoten bait gaitu Jainkoak; ikusi dodana diñot bakar-bakarrik. Benetan esan nai neuskizue kontuz ez dagiela gorde talentua, eurak aukeratu gura ditu ba Jainkoak beste askoren onerako, aldi oneitan batez be, Jainkoaren adiskide sendoak bear dira, argalai eutsi al izateko; eta ortarako euki beitez, mesede au eurengan ezagutu daroenak,

munduak be eskatzen dauan txera onaren legeai erantzuten ba dakie; eta orrela ezpalitz, esan dodanez, bebiltz kontuz eta bildurrez euren buruari gaitz ez dagioen, Jainkoari eskatuz gaitz ori eurentzat bakarrik izan dedin.

6. Atsedan-aldi onetan arimeak egin bear dauna, ez da besterik gozo ta zarata barik iraun baifio. Zarata diñot, adimenaz itz ugari billa ibilteagaitik, iraulketa asko mesede onen ordezkerrak emoteko eta olakorik ez dauala merezi aitzen emoteko bere pekatu ta uts-egiteak billatuz. Guzti au dabil emen, adimena barbarka ta gomutamena irakiten; aalmen biok, izan be, bein baiño geiagotan nekatzen nabe ni, gomutamen urria euki arren, ezin lotu al izaten dot. Naimenak, geldi ta zuur, jakin bei Jainkoarekin ez dala ezer lortzen beso-indarka ez itz-gogorka, egur aundi batzuk baiño ez dira zentzun aundi barik txingar au itoteko; ezagutu bei au, ta esan apaltasunez: ««Jauna, zer dagiket nik emen? Mirebeak zer dau zer ikusirik Jaunagaz, eta zeruak lurragaz? edo-ta emen eskintzen diran maitasunezko itzak, asko oiñarriturik beintzat diñoana egia dala ezagutuz; eta ez beio kasurik egin adimenari, aspergarri bat dalako. Eta naimenak beronek daukan gozotasunaren zati bat emon gura ba'dautso ta a batzeko alegiñak ba'dagiz, sarritan aurkituko bai da naimenaz alkarturik eta oso atsedentsu, eta adimena guztiz goiberatua, eta obe da itxi dagiala, bera, naimena aren atzetik ibilli bearrean; bego bera, naia, mesede arekin gozatuz ta erle jakituna lez bere kautan kiribildua; bat bera be sartuko ezpalitz ba erlauntzean, bata bestea erakarriz danak ba Hoaz, ez leukie erreztirik egingo.

7. Arimeak beraz asko galduko dau, onetan kontuz ez ba dabil; batez be adimen zorrotza bada, itzaldi ta olakueta-rako errazoiak eratzen, apurtxo bat, egoki samar esanak ba' dira, zeozter egiten dauala uste izango dautzu. Emen euki bear dan errazoiak auxa da, ez dagoala errazoirik Jainkoak mesede ain aundia zuri egiteko, Bere ontasuna bakar-bakarrik izan ezik, eta gogora ekarri Jainkoaren ondo-ondoan gagozala eta

Aren Gurentasunari mesedeak eskatu, eta Elizearen alde eskatu, eta arren arduratu gaitezala eskuta dauskuenakaitik eskatu, garbitokiko arimen alde, ez itz-otsez, entzun daiskula erregutuz baiño. Asko barruan artzen dauan otoitza da, eta adimena asko irauliaz baiño geiago jaristen da. Itxar beiz naiak berega.n arrazoi batzuk maitasun au biztu-azoteko ain obetua bere burua ikusiz errazoi beretik urtenak; maitasunezko egintza batzuk be lorturik, ainbeste zor dautsonaren omenez, esan dodanez adimenaren zarata barik, gauza aundien billa. Gero dagie emen apaltasunez ipiñitako' agotz txiki batzuk (agotz baiño gitxiago izango dira, guk ipinten ba doguz), eta lagungarriago ditu biztuteko, nire eritxiz, egur asko errazoi guztiz jakitunakaz baiño, kredo baten itoko dauana noski, Au ona da idazteko agintzen daustenentzat; Jainkoaren ontasunez, ba, danak eltzen dira onaiño, eta ba' leiteke Liburu Santuak ezarten aldia joatea. Eta aintzin-gibel letrak asko lagundu arren be, emen otoitz-aldi oneitan ez dago euren bear-izan aundirik, nik uste, naimena epelduteko izan ezik; adimena bada orduan, argitik ur ikustean, argitasun izugarrian, aurkitzen jatzu, eta neuk be, nazana izanik, beste bat dot emoten.

8. Au onelaxe da, ta egotezko otoitz onetan nagoala jazo jat, latiñez errezatzen dodala, Salmutegian batez be, ia ezer be ulertzen ez dodala, ez bakarrik ulertu erromantzezko bertsoa, baita aurrera igaro be erromantzeak zer esan nai eban ikusiaz poztu ta gozazorik. Itxi dagigun otsegin edo erakutsi bear ba'dogu; orduan, ba, ona da on areta balio-tzea, ni lako gitxi dakien beartsuai laguntzeko: beti eder goi-maitasuna, baita beti txalogarri arimai olan laguntzea, zuzen-zuzen Jainkoagana doanean. Beraz, atsedeen-aldi oneitan, bego geldi arimea bere atsedenean; begoz letrak zokondoo; etorriko da epea Jauna eurakaz goraltzeko, eurak aintzat arturik, ezelan be ez leukiez jakin barik lagako, Aren Aunditasuna obeto serbiduteko, asko be asko lagundu daroeta. Baiña Jakituri muga-gabearen aurrean, siñistu eidazue, apaltasunaren ikasketa apur bat eta beronen egintza pitin

bat munduko zientzi guztia baiño geiago dira. Ez dago au zetan eztabaidatu, argi ta garbi zer garean ikusi baiño, eta lau-lau Jainkoaren aurrean iruditu; Jaunak gura dau arimea ergel egitea, Aren aurrean dan bezelaxe, Aren Aunditasuna ba ain apal-azoa dakusgu, gu gareanak gareala bere ondoan bait gaukaz.

9. Adimena baita ba-dabil oso eratutako eskerrak emoten; baiña naimenak, baketsu, zergalariak lez begiak gora jasoten ausartzen ez dala, adimenak berak baiño be eskeremote geiago metatzen ditu, ausaz erretorika naasi ta iraultzen bear adiña. Azken baten, emen ezin daiteke laga gogozko otoitza osorik, ezta berba batzuk be naiz-ta aozkoak, batzutan nai izan edo al izan ezker; atsedan aldi edo geldiegona, aundia baldin bada, nekez berba egin al izango dau, pena aunditan izan ezik. Somatu oi da, nik uste, noiz dan Jainkoaren espiritua edo-ta geuk alegindua, Jainkoak emoten dauan deboziñoaz asita, eta nai izaten dogu, esan dodanez, naimenaren etseden ontara geure alegiñez igaro; ez dakar ezer, laster urtzen da, liortasuna itxirik.

10. Deabruaren aldekoa bada, arima oituak nik uste ulertuko dauala; onek apaltasun gitxi itxi oi dau eta kezka asko, eta zer aundirik ez Jainkoarenak egiten dauzanantzako: ez dau adimenean argirik izten, ezta egian sendotasunik be. Kalte gitxi edo bapez egin dagike emen deabruak, arimeak an sentitzen dauan atsegiña ta samurtasuna Jainkoari zuzendu ezker, eta, oar danez, bere pentsamentuak eta gurariak Agan jarten ba'ditu. Ezin dau deabruak ezer irabazi, Jainkoak egin bai, oster, ariman jarten dauan atsegin berberaz asko galdu dagiala; onek egingo dau arimeak Jainkoa dala uste izanik, Jainko-gosez sarri otoitzeera joatera; eta arima apala bada ta ez begi-luzea, ta atsegiñakaitik ardurarik cz dautsona, barru-zaleak izanik be, baiña gurutz-zalea ez dautso jaramon aundirik egingo deabruak dakarren atsegiñari, ez leuke baiña orrela egingo Jainko-espiritua balitz, au danean gauza aunditzat eukiko leuke-ta. Deabruak jarten da-

bezan gauzetan, orraitño, gaizto au guzur utsa baita, atsegin-gozotasunaz arimea apaldu egiten dala ikusirik (onetan oso apala izan bear dau, otoitz gauzetan eta atsegin guztietan apal agerturik), sarri ezta itzuliko deabrua, ikusten dau-ta galduko dauana.

11. Auxegaitik eta beste gauza askogaitik, onu emon neban nik lenengo otoitz moduan, lenengo ura azaltzean, irabazi aundiko gauzea zala arimak o'oitzean poz-atsegin guztitik urrinduz astea; erabagi bakar onegaz asi be, Kristori gurutzea eroaten laguntzeko bakar-bakarrik, sari ta aloger barik euren Erregearen zerbitzari izan nai di'ben zaldun onak lez, ondo seguru daukie-ta. Begiak tinko irabazi opa dogun egiazko ta betiereko erreñuan. Oso ona da au buruan ekartea, asieran batez be; gero, ba, argi ikusten da, ta berau aztea obe da une bateko au gogora ekartea baiño, bizi izateko be; eta zelan oro ez dan ezerez, eta ezer-eztzat artu bear dan atsedena.

12. Au gauza oso beekoa dala dirudi, eta olantxe da egi-egitan; osotasunean aurreraiuago dagozanak, irain lez eukiko leukie au, bata ta bestea lotsaturik, pentsatuko ba' lebe mundu ontako ondasunak amaituko dirala itxi egiten dabezala, bestera baiño, betikoz iraungo ba'lebe be, poztu-azten dirala Jainkoarrcn itzi dabezalako; zenbat eta osoa-goak eta geiago, eta geiago iraun cta geiago. Emen onei-takoengan azirik dago onczkero maitasuna, eta berau da lan dagiana. Baiña asi-barri diranentzat gauza garrantzitsua, eta beie euki gauza kaskartxat, zer aundia da-ta beronegnz irabazten dana, eta orixegaitik ainbesteko nire gaztiaua; bear-ko dabez, bai, otoitzean goi-goi dagozanak be, denpora txarretan gagozan lez Jainkoak aztertu egin nai ditu, eta antza danez Aren Aunditasunak bertanbera izten dauz. Leen esan dodanez, eta ez neuke nai au aztuterik. bizi garean biz'tza ontan, arimea ez da azten gorputza lez, baietz diñogun arren, eta egiaz azten da. Baiña ume bat, azi ondoren eta koskon-du eta gizon egin, ez da barriro txikitzen, ez gorputz txi-

kiagoa euki. Emen Jaunak gura dau baietz, nik neugan ikusi dodanez, bestez ez dakidan arren. Gu apaltzearren izan bear dau geure onerako, eta erbeste onetan gagozan bitartean ar-dura bakotu ez gaitezaz; gorenengo legokenak, ba, bildur geiago izan bei, bere buruaren gain uste gitxi izanik. Batzutan Jainkoa ez iraintzetik iges egiteko (oneik diñot euren naia Arenean onezkero ipifiita daukienak, oben arin bat ez egitearren oifiazetu ta eun eriotza be jasango leukezanak), ots, tentaldiz eta erasoz inguraturik dagozalako, pekaturik egin ez dagien, otoitzaren lenengo armak artu bear dabez, eta pentsatu begie oro amaitzen dala, zerua ta inpernua dagozala, eta era onetako beste gauza batzuk.

13. Esaten nebanera biurturik, ba, oiñarri bikaiña da, deabruak dakazan maltzurkeria eta atsegiñetatik iges egiteko, asieratik gurutz-bidez ibiltzen erabagi sendoaz astea eta besterik ez nai izatea, Jaunak berak erakutsi euskun osotasunerako bidea, au esanik: Ar egizu zeure gurutzea ta zatoz neure atzetik» {*Mat.*, XVI, 24). Bera da gure eredu; ez dau zetan bildurturik, Ari poz emotearren bere kontsejuak jarraiki doanak.

14. Aurrera ikusi ba'dagi arimeak, ulertuko dau ez dala deabrua tartean dabillena. Ostera be jausiko da, bear bada; baifia beingoan jagiko, Jauna an egon zanaren ezaugarri. Adigarri dira orain ipifiiko dodazan ezaugarriok be. Jainkoaren arnasa danean, ez dago ausnarrean zetan ibilli aztarna billa, apaltasunari ta zarrapastari su-emon nairik. Jaunak berak emon daroa guk geure gogaketa ipiñiakaz irabazt geinkezan erara baiño obeto, geureak ezer ez bai dira. Jaunak emen bere argiaz erakusten dasku bene-benetako apaltasunaren ondoan. Onek ekarri daroasku alako nas-mas bat suntsitzen gaituna. Gauza guztiz osasungarria dogu au; grazi onen bitartez Jainkoak ezaguterazo nai dasku onik ezer be ezin geinkela jadetsi geure indarrez, eta ezagueria beteagoak eta mesede geiago izango doguzala. Gurari gartsua jarten dau otoitzean aurrera joateko, eta ez dau berau lagako

gerta leikean ezetarik lan-arlogaitik. Ortaz edozertarako prest dago; ziur beste aldetik, apaltasunak eta bildurrak dakarren ziurtasuna, au da, bere betiko salbamenaz oraindixek dago ziur. Onezkero kendu dagike arimatik morroien bildurra, askoz be biziagoa dan zintzoena sar-azorik. Ixiotuz doakiola dakus Jainkoaren maitasun aundia, bere interes izpirik bakoa, eta alako onaz are geiago goza al izateko bakar-momentu billa dabil.

15. Orogen buruan, neka ez nadin, on guztien asiera da grazi au; lorak jadanik euren garaian egotea, ia-ia ez jake ezer falta zildu ta begiak botateko, eta arimeak argi ikusiko dau berau. Eta orduan ez dau ifiolaz uste izango Jainkoa ez dala beragaz egon; ezingo da erabagi, ez, barriz be bere burua akatsez eta utsegitez ikustera biurtu arte; orduan izuak artuko dau oster a be, eta mesedegarri izango jako. Arima batzuei onurakorrigo jake Jainkoagandikoa dala ziur jakitea, jarri leikioezan bildur-zoztor guztiak baiño. Izan be, berez maitekorra ta esker onekoa baldin bada, Jainkoak egin dautson mesedearen gomutak ariñago eroan oi dau Arengana, aurrean ipinten jakozan inpernuko zigor-oiñaze guztiak baiño. Nire arimeari beintzat, ain zirtzilla izanik be, orixe jazoten jakon.

16. Espiritu onaren ezaugarriak eta zantzuak geiago be adierazteko dira-ta, eurak garbi ateraten, aldapa gora egiten neketsu jakonari lez, emen ez dodaz orain esango. Uste dot, Jainkoaren onez, onetan zerbait igarteko zoria izango do-dala; experientzia albora itxirik be, asko ulertu ta ikasi dodana ziur asko, ba-dakit jakitun batzuk erakutsiz eta benetan jakitun diranakaz eta pertsona santakaz ar-emon a eukirik, siñistu geinkeonakaz ain zuzen. Eta olan, Jaunak naita egoera oneraiño eldu diran arimak, ez beitez ibilli ni ibilli nazan lez ain nekaraziak.

XVI ATALA

*Irugarren otoitz mailla. — Gauza gurenak azd-
tzen ditu. — Une onetara eltzen danean arimeak
egin bear dauana. — Jaunaren doai itzalok daka-
rrezan ondorenak. — Mailla ontako arimen gozo-
tasunak. — Eta Jaunari egiñiko gorespenak.*

1. Gatozan orain baratz au ureztatzen dauan iruga-
rren uraz mintzatzeraz; erreka edo iturriko ur arrunta da,
eta askoz neke gitxiagoz ureztatzen, ura bideratzean lor piz-
kat emon oi dauan arren, Emen baratz-zaiñari lagun nai
dautso Jaunak, ia-ia baratz-zaiña bera dala, eta dana dagia-
na, bera dala erakusteraiño. Aalmenen loa dozu au; oneik
ez dira osotoro galtzen; ezta ez dakie zelan darngoien be.
Atsegiña, leuna ta poza igaroa baiño gciago da askozaz be;
graziaren urak eztarriraiño emoten dautso arimeari eta ezin
dau aurrera egin, ez daki gero jakin be zer egin, ez atzera
biurtu be; aintzaz beteriko gozotasuna miazkatu gura leuke.
Kandela bat eskuan dagonaren antzekoa da, opa dauan erio-
tzaz il-agiñik, azken arnasa aretan gozatzen dago esan leite-
ken atsegifiik aundienean. Ez dot uste beste ezer danik, mun-
duko gauza guztientzat ilte doi-doia, Ja'ntkoaz gozatzen as'z.
Nik ez dakit au esateko beste itzik, ezta berau zelan adie-
razo be, arimeak orduan ez daki zer egin, ez itzezin,
ixillik egon, barre cdo negar egin. Ganorarik eza da, oso
dizditsua nunbait, zerutar zorakeria, nun ikasten dan bene-
tako jakituria. Ots batez, arimeak daukan goza-era, atsegin-
atsegiña dozu.

2. Onelaxe da. Aspaldi dalarik oparo emon eustan Jau-
nak otoitz au, bost edo sei urte, sarritan, ez neban nik berau

ulertzen, ezta esaten be nik ez nekian; eta neuretzat neukan, ona eldurik, ezer esan ez edo oso gitxi. Ondo nekian etzala oso-osoaan aalmen guztiak alkar-artzea, aurrekoa baiño geiago zala bai, au argi nekusan; alan be argi dautort ez nintzala erabagitzen, ez ulertzera eltzen zelan zan diferentzi au. Uste dot baiña zuk, Aita orrek, ni lango ezjakiña laguntzean euki izan dozun apaltasunagaitik, gaur emon daust Jaunak, jaunartu ondoren, otoitz au, aurrerago ezin joandn nunbait, eta irudikizunak ipiñi eustazan aurrean eta berau esateko modua erakutsi, baita arimeak emen zer egin bear dauan. Ba, egia esateko arritu nintzan ni, ta bertatik ulertu neban. Sarri egon oi nintzan olantxe norantz jo ez nekiala maitasun orretan mokortua, eta egundo ezin ulertu izan neban zelan ziarduan emen; aalmenak, ba, ia oso-osorik alkartuak egozan, ez alan be ain murgil egifiak ezer egitekc egozalarik. Gozo be gozo izan jat orain aitu dodanean. Be-deinkatua Jauna, orrela goxarotu naulako!

3. Jaingoikoagan danak jarduteko trebeasuna daukie bakar-bakarrrik aalmenak; bat be ez da agertzen, itxura danez, bolbol egiten, ezta guk zirkiñik eragin be maiña ta molde aundiz, eta orduan be ez nik uste ondoren betez. Berbak esaten dira *emen* Jainkoa goratuz, ganora barik, Jaunak berak taiutzen ezpadauskuz; adimenak beiñik-bein ez dau emen gauza aundirik balio. Ederkaduraz, garrasika asi gura leuke arimeak, bere barruak ezin bait dau artu; egon ezin gozatsu! Zorabio esan-ezin! Asi dira, asi dira lorak zabaltzen; asi dira usain emoten. Emen nai leuke ari-meak enparau guztiak be, bere aintza ikusi ta ulertzea, Jainkoa goretsi daien, eta lagun dakiozan berari ortan, eta poz bete orren parte emon nai dautse, ainbesteko atsegiñari ezin eutsi dautso-ta. Nire eritxiz, Ebanjelioak diñoskun emakumeari lez jazoten da emen, au da, auzokoai dei egin nai edo egiten eutsela (*Luk.*, XV, 8-9). Auxe dirudit sentiduko ebala Dabid errege igarlearen arima gurenak be, arpea jo ta abesten ebanean, Jainkoaren goratzarrez. Ni oso zalea naz Errege

aintzatsu (1) onena, eta guztiak izatea gura neuke, pekatari gareanok batez be.

4. O Jainko maite! Arimearen egoera alan dagonean! Mingain nai leuke mundu guztia; Jauna goratseko milla zorakeri santu esan daroaz beti be ori daukana pozik eukiter a jorik. Pertsona bat (Teresa bera) ezagutzen dot nik, olerkari etzala be, kopla sentikor-sentikorrak ontzen eba-zana, bat-batean ondu be, bere naigabea ondo erakusten emonik, ez gero adimenaren bitartez, atsekabe ain gozoa ekartson aintza obeto gozatzeko baiño, ortaz bere Jainkoari kexaz joakolarik. Gorputz eta arima osorik nai leukean zati-zati egitea, samintasun oni esker eukan gozotasuna adieraztearren. Orduan ze oiñaze jarriko jakon au'rrean bere Jau-narren sufritutea gozatsu ez litzakionik? Argi dakus, martiriak euren aldetik oiñazeak eroanaz ia-ia ez ebela ezer be egiten, adimenak ba daki ba beste leku batetik datorkiola sendotasuna. Arima gaixoak, baifia, zer ez ete dau senti-duko munduan bizi izateko, barriro be beronek damotsozan ardura ta eskabideetara biurtu bear ba dau? Ez dot uste ezer goregi jarri dodanik enbeste ontan arimeak gozatzea Jaunak nai dauan gozotasuna. Beti-betikoz onetsia izan zaitetz, Jauna, eta bedeinkatu zadize goiz eta arrats gauza guztiak. Nai izan eizu orain, ene Errege, neuk eskatzen dautzut (au idaztean, ba, ez nago, zeure on-izatez eta errukiz, zeru-zorabio santutik urrin, neuk merezi barik egiten ba daustazu mesede au), edo nigaz artu-emonu dauken guztiak egon daitezala zoro zure maitasunez, edo-ta ez dagidala nik iñorekin artu-emonik izan; edo-ta agindu eizu, Jauna, ez daidala nik onezkero munduko gauzetaz zer ikusirik izan, edo-ta atera nai zu bertotik. Gaur-geroz, ene Jainko, ezin dau zure mirabe onek eroan Zu barik ikusiz datorkiozan lain neke-min; bizi bear ba dau, ba, bizitza onetan ez dau gura atsedetik, ezta Zeuk emoterik be. Arima onak jadanik aske bizi nai leuke;

(1) Dabid erregearen jaia dator Karmeldarren Egutegian, Batzar Nagusiak 1564'garren urtean bir-aztertuan.

ilgarri jako jatea, miña dakartso lo-egiteak; dakusanez, gozotasunean joako bizitz-aldia, eta ezek ezin leikeola gozotasunik emon Zeugandik kanpo; izatearen kontra bizi dala dirudi, ta beragan eleuke bizi nai, Zeugan baiño.

5. Oi ene egiazko Jaun eta egiazko aintza, gurutz mer-gatza ta ez ariña bai daukazula Zuk gertu egoera ontara eldu diranentzat! Meia, leuna dalako; astuna, batzutan oifiaze ain latzakaz eroan eziña egiten jakulako, eta alan be ez geunke iñoiz be bera bage egoterik gura izango, Zeugaz egoteko ez-pada. Ez zaitula ezetan be serbidu gogora dakarrenean, eta Zu otseintzeko eran dagoala ikusi, beste gurutz astunago batekin zamatu naiko leuke ta iñoiz be il ez mundua amaitu arte. Ezertan be ez dau kokatzen bere atsedena, zerbitzu txikiren bat Zuri egitearen orde; ez daki zer nai izan, baiña ondo ulertzen dau ez dauala nai besterik Zeu baiño.

6. O ene seme! Zeuk agindu daustazu au idatzi dai-dala, eta zeure apaltasunean nik orrela deitzea nai dozunez gero, zeuretzat bakarrik izan daitezala nik idatzi onetan da-rabildazan esakun eta itz luzeegiak, Jaunak neuretik atera azotan nauanean, ez dago errazoirik ni ortatik ez aterateko; eta nik ez dot uste gaifiera, gaur goizean Jaunartu nebane-tik, berba dagidana neu nazanik be. Ames da itxuraz ikus-ten dodana, eta ez neuke ikusi nai ni orain nagoan gaixoz jotako gaixoak baiño. Zuri deskatzut, Aita orri, danok izan gaitezala zoro, gugaitik zoro zala deitu eutsoenaren maita-sunez. Eta zuk maite nozula diñozun lez, ondo-nai orren erakutsi bat gura neuke, gertatu zaitezain Jainkoak zuri be mesede au egin daizun. Gitxi dakustaz zentzun geiegiaz da-biltzanak, euren onerako ain zuzen. Zentzun geiegizko arloa ba leiteke neuk eukitea beste guztiak baiño geiago; neure autorle zara-ta, ez eidazu itxi olakorik, zuregan jarri bait dot neure gogoa; izan zaitez nire aita, ta ez gitxiago seme. Zentzatu ta etsi-erazo naikezu, munduan urri erabilten dan egia zintzo erakutsiz.

7. Egi-une au burutzea nai neuke gaur-egun Kristo'gan maite garean bostok. Garai onetan, beste batzuk alkartu oi

ziran ixillean Bere Aunditasunaren aurka, gaiztakeriak egin eta siñausleak aizatuz. Gu be batu gaitezen noizbait, bata besteari erakutsi ta adierazo dagiogun gauza askotan; eta Jainkoari olan poz beteagoa emon. Ez dago egon be norberc burua ain ondo ezagutzen dauanik, geugaz ibilli ta begiratzten dauskuenak baizen sakon ezagutzen gaitunik, maitasunez eta ona atera naiezko arduraz bada beintzat. Ixillean difiot, orain ez da erabilten izkera au. Eleiz izlariak eurak be antolatu egin oi dabez euren sermoiak, mindu ta gogai-karri izan ez dakiozan jenteari. Asko onak eraginda nunbait, eta egintza au ez da txarra izango; orrela, baiña, gitxi bide dira oneratzten. Zelan ez dira bestelan sermoien bidez agiriko grifiak eta akatsak izten dabezanak, asko be asko? Ba al dakizu zer uste dodan? Aldarrikatzen dabenak, zuurtasun larregi daukelako. Ez dagoz ainbarik, Jainkoaren maite-sugartsuez ez, Apostoluak egozan lege, eta olan berotzen dau arein sugarrak. Ez diñot areik eukien beste danik, baiña nik ikusten dodana baiña geiago ikusi gura neuke. Ba dakizu zuk, Aita, zetan joan bear dauan askotxo? Biziaz nekatuta dagozalako, eta euren dedua begiramen faltaz daukielako. Apostoluak egia otsegin eta Jainkoaren aintzarren bera zaindu ta aldeztuten ebenean, bardin eutsen oro irabazi naiz oro galdu. Edozertarako gertu dago, egon be, Jaungoikoagaitik egi-egiaz dana menturazko ipiñirik daukanarentzat, bardin dautso naiz bata naiz bestea. Nik ez diñot au nazanik, baiña izan gurako neuke.

8. Oi askatasun aundi! , bizi dana katibutzat jo ta munduko legeei jarraituaz ibilli! Jaunagandik au lortzen baldin bada, ez dago mendekorik ber-erostearren dana arriskuan ipiñi ta bere lurraldera biurtuko cz litzakenik. Eta, auxa bai da egiazko bidea, cz da geldirik iñoiz egon bear bertan, egundo be ez dogu-ta irabaziko ondasun ain itzala, bizi-aria amaitzen ez jakun artean. Egin beigu Jaunak ontarako laguntza. Olan ba'datitrazu, urra eizu zeuk, Aita, esan dodan au, zeuretzat idatzia lez arturik, Parka eidazu, ausartegi egon bait naz.

XVII ATALA

Gai bardiñari ekiten dautso. — Irugarren oililz-maillari dakio. — Otoitz onek daukazan ondorenak azaltzea amailzen dau. — Irudimena ta gomutamcna dira mailla onetan aurrera joatekn eragozpenik aundicnak.

1. Naikoa jardun dot, nik uste, otoitz tankera oni bu-
ruz, eta arimeak egin bear dabenaz, edo-ta obeto esanik,
Jainkoak arimeagan dagianaz. Jainkoak dagi emen baratz-
zaintza ta arimeak nai dau ar dagiala bere atsedena. Nai-
izateak berak ez dauka besterik emolen jakona artzea baiño,
eta prest egon bear dau egiazko jakituriak beregan egin
nai dauan guztia onartzeko. Beraz, kemena bear dau, ziur
asko; daukan gozotasuna aundia bait da, ez dala geratzen
dirudi batzutan puntu bat be arimea gorputzetik urteteko.
Baiña onako eriotza bai litzakela doatsu!

2. Ondo datorrela emen deritxat, zuk, Aita, beiñola
esandakoa, Jaunaren besoetan oso-osorik iltea. Berak gura
dau apika arimea zerura eroatea? Obeto ezin. Inpernura?
Arimeak ez dau bildurrik, bera ontasuna danez ara joateko.
Nai ete dau Jaunak itxi daiala osorik bizia? Orixe da opa
dauana. Nai dau bizi daitela urte luzeetan? Ez dau ezer orren
kontra. Bera ez da onezkero bere buruaren jaube; Jaunari
emona jako osorik. Arimeak berak ez dau ezeren ardurarik.
Onen antzeko otoitz gurenean diñot, Jainkoak emoten dau-
tsonean, arimeak egin daike au ta askoz geiago, onetxek bait
dira bere ondorenak, eta argi dakus adimenaren aldetiko
neke barik dagiala ori. Arrituta lez, uste dot nik, dagoala
soilki Jaunak zelan dagian ortulauntza eta arimeak bcrak

zelan ez dauan gura ango lanik artzerik lorak usaintzen asiaz atsegiña artu baiño. Onein eldukera baten, iraute laburrekoa izanda be, baratz-zaiña olakoa dalako, au da, uraren sortzaillea, neurri barik emon oi dau; eta arima gaixoak neke aunditan bear bada ogei urtean adimena nekatuz batu ezin izan ebana, zeruko ortuzain onek berealakoxe baten. Frutua azi ta umatzen da, bere baratzetik biziari eutsi aal izateraiño eukirik, Jaunak nai ba leu beintzat. Baiña ez deutso frutuak batzeko baimenik emiten, bera arengandik jan dauenarekin sendo egon artean; ez dakiola joan muxkadaetan, eta probetxuzko ezer emon ez ordaindu emoten dautsonari, janaritu daizala ta aitzen emon bere pentzura, ta bera geratuko da bear bada goseak illa. Au ondo ulertuta, alako adimenentzat doa, eta oneik nik neure indar guztikin esaten baiño obeto jakingo dabe berau ezarten.

3. Otoitz onetan, ain zuzen, gogorrago geratzen dira orain birtuteak aurreko atsedean otoitzean baiño. Areik ezin leikez arimeak aztu, bere burua beste bat egiñik ikusten dau-ta. Lore arein usaiñera azten dira berak zelan ez dakiala gauza aundi biurtzen. Lore oneik aundi egitea nai dau Jaunak, arimeak ikus daian birtuteak daukazala, ondo dakusan arren bere indarrez sortuak ez dirala, ezta urte askoren buruz irabaziak be, eta epe laburtxo aretan zeruko baratz-zaiñak emon dautsozala. Emen, aurreko maillan baiño askoz aundi ta sakonago da arimeak dauan apaltasuna; argiago ikusten berak ez gitxi ez asko ez ebala ezer egin, leku emon bakar-bakarrik Jaunari egin egiozala mesedeak, eta naimenak eurak onartu, besterik ez. Otoitz-era au eristen jat niri, arimea Jainkoaz agiri-agiriko alkartzea dala; jardun orretan, antza danez, Bere goitasunak baimena emon nai dautse aalmenai, ulertu ta aintzat artu dagiezala Berak an egiten diardun gauza arrigarriak.

4. Batzutan jazoten da, baita sarritan be, beste au, borondatea Jainkoaz alkarturik dagoanean. Au difiot, Aita, jakin daizun eta berau ulertu, onakorik izan daikezunean.

Ni beintzat naiko mamalatua erabil nindun, eta orixegaitik diñotzut emen. Arimeak bai argi ikusten dau ta ulertu, bere naimena lotuta lez dagoala, ta atsegiñetan; argi ikusten dala diñotzut, eta naimena dago bakarrik geldi. Beste aldetik aske dagoz adimena ta gomutamena, munduko garatz-negozizoe-tan eta errukizko egintzetan jarduteko moduan. Au bardin dala irudi izan arren, esan neban atsedeen otoitzez ezta bardiña, zati baten beiñik-bein; arimeak an ez leuke zirkiñik be egin nai, dalako Maria'ren lan-arte santuan atsegindurik. Otoitz onetan sartu geinke Marta be; olan batera diardue emen lan-biziak eta otoitz-biziak; orobat errukizko egintzetan eta norberaren egoerari dagokiozan gauzetan ekin be; eta irakurteari emon, adimena ta gomutamena osorik ez diran arren euren jabe; oneik ondo dakie beste mutur baten dagoala arimearen zatirik onena. Norbaitekin berbaz ba gengo lez dozu, eta beste aldetik beste norbaitek itz egingo ba leuskigu lez, ez gintzakez ondo egongo ez onegaz ez aregaz. Argi asmatzen dan gauzea da, ta poz-atsegin aundia dakarrena; apaillu ona benetan, bakartaderako astia izanik edo-ta garatz-ardurarik eza, arimea atsedeen ezne baketsura etorri dadin. Ibilli bat da, pozetan dagoan arima batena legez; jannbearrik ez daukanarena, urdailla beterik euki ta edozein jateko artuko ez leukenarena. Baiña ez dago oso aserik be, onak ba lekusa be jan barik gogoz itxiko leukezana. Olan ez ditu gogoko, ezta orduan ez leuke nai munduko atsegiñik, beragan bai dauka geien atsegintzen dauana. Jainkoakiko poz aundiagoak, Aren naia beteteko gurari biziak, Arekin egon naia geiago gozatzeko. Auxe da opa dauana.

5. Bada beste alkartasun otoitzik, esan dodana baiño geiago dana, eta ez irugarren ur emotean esan dana beste-koa. Eder izango jatzu zuri, Aita (emon beitzuz Jaunak guztiak, ez ba daukazuz onezkero), emen idatzita aurkitu ta zer dan ulertu al izatea, doai bat dozu Jaunak doaia emotea ta beste bat ze doai dan eta ze grazia ulertzea; gauza bat da grazi ori esaten jakitea ta beste bat zelan adieraztea. Eta, lenengotan besterik ez dala bear iruditu arren, arimea nastu

ta bildurti ez ibilteko, eta Jaunaren bidetik gogotsuago aurre-ra jokatzeko, munduko gauza guztiak oinpean eroanaz, probetxu aundiko ta mesede bikaiña dakarrena dozu, ori ulertzea. Daukanak daukan bakotxean, eta ez daukanak bardin, Jainkoak bizi diranen arteko bati emon dautsolako, egoki da Ari goratzarre egitea, gureztat be onuragarri izan daiten. Orain ba, sarri jazo oi da onen antzeko alkartasuna, eta nik esan nai dot (neuri batez be, esan nai dot, Jainkoak niri egiten daustala sarri mesede ori) Jainkoak artzen dauala naimena, baita adimena be, nik uste, ez dau ba ausnartzerik, Jainkoaz gozatzen egon baiño, adi-adi begira daukazunaren antzean, eta zer asko ikusten ditulako, ez daki zein alderditara begitu; ara ta ona daroaz bere begiak eta azke-nean ezin dau iñun be pozik artu. Aske geratzen da gomutamena eta, nik uste dot, irudimena be bai. Bera orduan bakar-bakar aurkitzen dalako, Jainkoa goratzekoa da ekarten dauan gerra itzala eta zelan arduratzen dan guztia nasmastarteko. Ni asperturik nauka ta iguingarri egiña; sarri otoitz dagiot Jaunari, ainbeste zoztor jarri bear ba daust, kendu daistala aldi oneitan. Iñoiz au esan oi dautsat: «Noiz, ene Jainko, egon bear ete, oso alkaturik, nire arimea zure gorespenean, eta ez zati-zati egiña, berau mendera ekarri eziñik?». Emen ikusten dot ondo pekatuak dakarskun gatxa, onek ba guztiz loturik gaukaz guk gura doguna ez egiteko Jainkoagan jarduten beti izten ez dauskula,

6. Batzutan jazoten jatala diñot, eta gaur izan da olako bat; beraz ondo daukat gogoan. Guraritsu sentitzen da arimea bere zatirik geiena aurkitzen dan aren ondoan egon nairik eta ezin ori jadetsi iñolaz be; gomuteak eta irudimenak gerra latza emoten dautsoe ezertarako be gauza ez dala itxirik. Eta beste aalmenak falta diran legez, ez dabe pitsik balio, ezta txarra egiteko be; naiko dagie artega ta larri bazterrak ipiñiaz. Txarra egiteko diñot, ez daukelako indarrik, ezta zer baten geldi egoteko be: ez dautso laguntzen adimemak ez gitxi ez asko aurrean jarten dautsanean, ez dago geldi be ezertxotan, ara ta ona ibilliz; gabeko mitxe-

lelatxoan antzekoa dirudi, aspergarri ta ez-orduko; modu orretan dabil alde batetik bestera. Alderakizun au egoki baiño egokiago datorkidala deritxat, kalterik egiteko indarrak ez daukala be, gogaikarri da ikusten dabonentzat. Ez dakit onetara ze osagarri legoken, Jainkoak ez daust oraindik ulertzen emon-eta; pozik artuko neuke neuretzat, askotan diñodanez, oiñazetzen naualakoa. Emen agertzen da gure ezereza, ta argi be argi Jainkoaren al-izate itzala; au ba, aalmen au aske geratzen dalako kalte egiten dausku, ta nekerazo; besteak, Jainkoaz dagozanak, atsedean gozoaren gozotasuna damoskue.

7. Aurkitu dodan azkenengo osagarria, urte askotan neke-mindu ostean, atsedean otoitzean esan nebana da, ez egiteko ari jaramonik zoro bati baiño geiago; laga bakean bere seta ta kasketaldiaz, Jainkoak bakarrik ken leio-ta. Bera[^] izan be, jopu geratzen da. Pazientziz arean bear dogu berau, Jakob'ek Lia'gaz egin eban lez, Errakel geugaz gozagarri eukiaz Jaunak naiko mesede dagiskun ezkeru. Jopu (esklabu) geratzen dala diñot, ezin ditu ba alegiñak egin arren, beste aalmenak beragana ekarri; bestera, eurak, neke izpirik bage, asko-askotan ekarri daroe eurengana. Jainkoa bera batzutan errukitzen jako ain galdua ta kezatsua ikusiz, besteakaz egon gurarik, eta Jainkoak itxi egiten dautso erre daiten jainkozko kruselu aren sutan, besteak auts eginda dagozan lekuan ain zuzen, ia-ia bere berezko izatea galduta, izatez goitiko ontasun aundi-aundiak gozatzen dagon artean.

8. Irugarren ur ontaz jardunik esan dodan otoitz-era guztiolan, aundia baita arimeak daukan aintz-atsedena, gorputza be agiri-agiriko atsegin eta gozotasun aren partaide dala esan bear. Mesede guztiz sentikorra, ta orduan, esan clodanez, birtuteak euren osotasunera eltzen dira. Itxura danez, Jaunak berak azaldu nai izan dauz arimeak eukiten ditun egoera oneik, emen adierazo al daikezan aiñan, nik uste zuk jardun, Aita, onaiño eldu ta letrak etiki daukazan pertsona espiritu zaleaz. Ondo dagoala ba'diñotzu, siñist-

eizu Jainkoak esan deutsola, eta emon eskerrak Jaunari. Esan dodanez, ba, aldia joanik, atsegin-atsegin izango jatzu au ulertzea. Gozatu oindixek ulertzeko grazia emoten ez dautzun artean be, ta aunditzat etsi Aren Gurentasuna. Onek lenengoa emoten ba'dautzu, zu, zeure adimen argi ta eskola askoz, errez elduko zara ori ulertzera. Goratua izan bedi Jauna gizaldiz gizaldi, bere onegite ugariakaitik. Olantxe.

XVIII ATALA

garren otoitz mailla. — «Era bikaiña» adierazten asten cla. — Jaunak, aña mea egoera ontara eltzen danean, jarten dauan duintasuna. — Irakatsi onak asko indartzen ditu arimak otoitz-bide onetan aurrera jarraitu dagien. — Egoera au jadetsi daiteke lurrean, ez guk merezi dogulako, Jainkoaren on-izate aundiz baiño. — Adi-adi irakurri bear dala, goi-samarrez itz-eguten dalako ta gauza garrantzitsuak adierazo.

1. Jaunak erakuts beistaz itzak, laugarren urarj. buruz 'zerbait beintzat esan dagidan. Bearrezko dot bai aren laguntza aurreko maillan baiño be geiago. Arimeak gogora dakar ez dagoala oso-osorik munduko gauzentzat ilda, orrela esan daikegu ez dagoala egi-egiaz munduari ilda, eta ortik konturatzen da, esan neban lez, bertan sarturik aurkitzen dala oindiño; sentitzen dau bere bakartadea, eta beste aldetik guna ateraten dautso kanpokoari sentitzen dauana aitzen emoteko, kiñuz baiño ezpada be. Esanik geratzen diran otoitz eta otoitz-era guztietan, zertxo baten kn egiten dau baratz-zaiñak. Azken mailletan, alan be, lana pozak eta gozotasunak lagunduta dalarik, arimeak ez leuke andik urten nai izango; nekearen erasona baiño geiago sentitzen da gozotasunaren zauskada. Emen ez dago sentitzerik, gozatzea baiña zer gozatzen dan ulertu barik. On bat gozatzen dala, bai, ulertzen da eta bertan sartzen dirala on guztiak; on au zer dan, alan be, ez da ulertzen. Gozotasun onetan zentzun guztiak artzen dabec esku, bat bera be ez da geratzen lange ta geldi ez kanpoko ez barruko beste zer baten jardun al izateko. Alderantziz baimena emoten jake, diñoenez, as-

matzen daben gozotasun itzalaren erakutsi batzuk egiteko. Arimeak emen geiago gozatzen dau, azkenez be, ta gitxiago aitzen emoten, gorputzean ez bait da indarrik geratzen, eta arimeak be ez dauka gozotasun ori besteai adierazteko la'n. Une aretan oro izango litzakio zoztor eta oiñaze ta esteku aundi bere atseden-aldian; eta aalmen guztien batasuna bada diñot, naita be, ortarako ba dago beintzat, ezin daitekela. Eta, al ba dau, orduan ez dala batasuna.

2. Batasuna deritxon alkartze au zelan dan eta zer dan, nik ez dakit aitzen emoten. Teolojia Mistikan azaltzen da, baiña nik ez dot jakingo itzak zelan erabilli, ez dakit gogamena zer dan, ez ze alde legoken gogoaren eta espirituaren artean; oro deritxat gauza berbera, naiz-ta gogoa edo arimea berenetik urtenda ibilli no'zik-bein, erreten dagoan suaren pareko gar biurturik, batzutan aundi indartsu azten dala sua. Garra sua baiño gorago igoten, baiña ez da gauza diferentea, suaren gorabera baifio. Au zuek, Aitak, ulertuko dozue zeuen jakituri aundiaz, nik ez bait dakit geiago ontaz.

3. Adierazo gura neukena da arimeak zer sentitzen dauan jainkozko batasun ontan aurkitzean. Batasuna zer dan ulerturik dago dagoneko; bestelako gauza bik bat egitea, ezta besterik. Oi jauna, ene Jaun, Zu bai zareala on-ona! Onetsia Zu betiren beti! Gora zaiezala gauza guztiak, ene Jainko! Olan Zuk maite izan ginduzuzan, guk egiaz itz egin gengike olan erbeste ontan be arimakaz Zuk daukazun aremonaz. Onak diranakz au bai esku-zabal eta emonkor izatearen ezaugarri bikain! Zeure ontasuna bai, ene Jaun, zarean lez emoten dakizuna! O mugarik ez dauan esku-zabaltasuna, zure egintzak bai gurenak! Arriturik izten dau gauzetan arazotua adimena ez daukana, egiak ulert-azoteko iñor ez daukana. Zuk egitea, Jauna, mesede ain aundiak ainbeste iraindu zaituen arimai! Oi, ikaraz naukazu ni! Gauza ontan pentsatzen dodanean, ezin dot aurrera egin. Baiña, eta nora jo neike, atzera biurtu ezik. Eskerrak damotzudaz, ba, mescdc ain aundiengaitik, baiña ez dakit zelan emon. Batzuetan ez dot aurkitzen beste biderik zentzun-bakokeriak esatea baifio.

(. Sarri gertatu jat, onako mesedeak artzean edo-ta Ja'n-koa egiten asten jatanean (euretan nagoanean, esan dot ezin leikela ezer egin), onela esatea: «Begira, Jauna, zer egiten dozun, ez egizuz orren arin gaiztakeri itzalak aaztu; parkatzeko aaztu zeustazan ezkerro, gomuta zaitez beintzat, arren bai arren, neurria jarteko zeure grazi ta mesedeai! Ez ipiñi, ene Egille orrek, edateko ain bikaiña ontzi orren apurtuan, ikusi bait dozu beste batzutan be barriro jarioten dodala. Ez jarri olako ondasunik oindiño egon bear leuken lez ez dagonagan, bizi-poztasunak oso-osorik gakluta euki arteño, parrastaka ondatuko leukez-eta. Zelan emoten dozu uri ontako indarra, zelan dozuz izten gazteluko giltzak zaintzailc ain koldarraren eskuetan, arerioen lenengo erasora ta bertoko barruan sartzen izten dautsanari? Ez bedi, oi Errege betikor, izan zure maitasuna arripitxj ain baliotsuak gal-urren jarteko. Itxura danez, ene Jauna, gauzak gitxi eristeko bidea emoten dau, zer ziztrin ziztriñaren eskuetan izten bait dozuz, txatxar, urretx eta zori-gaiztoko baten mende, ain zuzen be; ganora aundi bakoa gaiñera, eurok ez galtzeko zeure laguntzaz lan dagidan ezkerro (eta ez da txikia bear, ni nazanez), ezin leikeo eurakaz irabazten iñori emon. Gero ta gero be emakume naz eta ez ona, doillor baiño. Iduri danez, talentuak bakarrik ez dira gordeten, baita lurperatu be, lur ain zatarrean ipiñirik. Zuk ez dozu, Jauna, olako mesede ta ontasunik egiten arima bati, askoren probetxurako izan ezik. Ba-dakizu, ene Jainko, biotzetiko gurari biziz eskatzen dautzut, lendik be iñoizkoren baten eskatu dautzudan au, eta lurrean euki daikedan onik aundiena galtzea be onartu dagit. Zuk, Jauna, on onekin onurarik geien atera leikenari egin daiozuzala mesedeok, zure aintza beteagotu dedin.

5. Sarri gertatu jatan oneik eta onako gauzak esatea. Gero ikusi neban tentelkeria zala eta apaltasun eskaxa; ondo daki Jaunak egoki jakuna, eta nire ariman ez egoala indarrik salbetako, Arek mesede askoz indartzen ezpa-ninduan.

6. Adierazo nai ditut baita graziak eta ariman geratzen diran onein ondorenak; ala-berean zer egin daiken arimeak

berenez, edo-ta egoera ontara eltzeko beste bere kabuz ete dan.

7. Espirituaren zutitzea, jaso-aldi edo zero-maitasunezko alkartzea, batera datorrena izan oi da: nire iduriko, batzea ta alkartze ontako jasotzea ez dira gauza bardiñak. Azkenengo au izan ez dauanari ezetz irudituko jako, eta nire eritxiz, dana bat izanik be, Jaunak modu diferentean egiten dauana da. Eta nik izakietatik askatzean baiño espirituaren egazkadan geiago, askoz geiago ikusi dot, argiro, mesede berezi bat dala,naiz-ta, esan dodanez, gauza bat bera izan, edo begitandu beintzat. Su txikia, izan be, sua da aundia legez; eta laster ikusten da zelako aldea dagoan batetik •bestera. Su txiki baten burdiña tx'ki trtek lenengo goritu arie denpora naiko daroa; baifia su aundia ba'da, burdiñea aundiagoa izanda be, itxuraz beiñik-bein gitxi baiño ez dau galtzen bere izatetik. Olaxe dala derist niri Jaunaren mesede biotan be; ba-dakit ondo ulertuko dauala au gaiñezkaldi ta zentzun-galtzeetara eldu danak. Onakorik txastatu ez ba'leu, zorakeria dala begitanduko jako, eta leitekena da; ni lako batek, ba, olako gauzetaz berba egitea, eta asteko be itzak aurkitzea eziña dala dirudian zerbait adierazo nai izatea, ez da arrigarri zorakerietan dantzatzea.

8. Ba-dakit baiña Jaunak lagunduko nauala onetan; (Berak ba-daki, esana egifiik, nire asmoa ondasun txit bikaiñaz arimak zaletzea dala). Neugan sarri nabaitu ta ikusi ez dodan gauzarik ez dot esango. Orrela da izan be, azken ur onetaz idazten asi nintzanean, gai au oso zailla da-ta, griego itz-egitea baizen nekeza iruditatu jatan; cta bertanbera itxi-rik, jaunartzera joan nintzan. Onetsia izan beli Jauna cz-jakiñak onan laguntzen ditulako! Oi esana egitearen indarra, oro al dozuna! Jainkoak argitu eustan adimena, orain itzak eta gero zelan esan bear neban gauzea aurrean jarririk, aurreko otoitzean lez, Bere Aunditasunak esan nai dauala dirudi nik ez nekiana ta esan izan dodana. Egi uts-utsa da difiodana; olan ona dana bere irakatsia dozu, eta txarra dana,

argi dago, gaitz-itxaso nazan onena. Olan diñot, Jaunak crrukarri oni egindako otoitz gauzetara eldutako pertsonarik ba lego, eta askotxo egon bear dabe, eta gauzok aizatzeke nigaz ar-emonean sartu nai ba leukie, okerreko bidez doazala uste izanik, lagundu bei Jaunak bere mirabea, bere egiaz arima orrein aurrelari izan daiten.

9. Orain, zerutik datorren ur ontaz jardunik, ugari-ugaria dan ezkerro, baratz osoa urez asetzeko naikoa, Jaunak ez dautso bear danean emoteari itxiko, ikusten danez atsedenden-aldi ederra leukake ortu-zaiñak; eta negurik ezta, beti eguraldi ona, lorak eta igaliak eleukie iñoiz utsik egingo, eta onek bai emongo leuskiola benetako poz-atsegiña. Baiña bizi gareala eziña dozu ori; beti dago arduratu bearra, ur bata falta danean, besteaz baliatzeko. Zeruko au sarri dator baratz-zaiña esku-zuri ta ardura bagako dagoanean. Egia da, lenengotan, ia beti, gogozko otoitz luze ostean izan oi da, Jaunak maillaz mailla txoritxo au artu ta abian ipiñi daroa atsedendadin. Luzaro egazka ikusi dauan ezkerro, adimenez, borondatez eta bere indar guztiakaz Jainkoa billatu ta Berari poza emon naiean, saritu egin nai leuke, bizitza onetan be. Eta zelako sariz saritu be! Unetxo bat naiko litzakio, ba, leuka-kezan neke-lan guztiak bertan kituturik geratzeko!

10. Orrela ari dala arimea Jainkoaren billa, gozotasun leun aundiz makaltzen doala oso sentitzen da, zorabiatuta lez; amasa barik, soin-indarrak gitxituz; min ikaragarritan ezik, eskuai be ezin dautse zirkiñik eragin; begiak berez zarratzen jakoz, edo-ta zabalik, ez dau ia ezer ikusten; irakurri ba'dagi, letrarik be ezin dau ondo ezagutu, ezta esan be; ikusten dau ba-dagozala letrak, baiña adimena ez bait joako lagun, naita bc ez daki eurak esaten; entzun arren, ez dau ulertzen esana. Zentzunak olan ez jakoz ezetan be lagun, bere gogara iztea iñoiz ez lagatzea ez'k; beraz, on baiño kalte geiago dagitse. Berba egitea alperrik, itz bat atontzen ez daki-ta; ez dau kemenik, atonduko ba leu be, bera oguzteko, esan al izateko. Galdu egiten da kan-

potiko indar guztia eta arimearenak geitzen, Aren aintzaz obeto gozartu al izateko. Kanpo aldetik oartzen dan atsegiña, aundia da benetan, eta ezaguna guztiz.

11. Otoitz onek, luzea izanik be, ez dakar kalterik; niri beintzat ez eustan egundo be egin, ezta ez naz gogoratzten Jaunak mesede au iñoiz egin eustanik, txarto egonlk be, edo txarto sentiduten nintzanean, bestera obero egiñik askoz obeto geratzen nintzan. Baiña, zer gaitz egin dagike ondasun ain aundiak? Ezagunak dira egiaz kanpo-aldeko egikunak, eta ezin daiteke adiñon eder bat egon zanaren dudarik izan. Gozotasun orrekin, alan be, Jaunak indarra kendu ba eutson be, kopuru aundiagoz izteko izan zan bakarbakarrik.

12. Egia, oso epe laburrekoa izan oi da lenengotan. Niri beintzat olan gertatu jatan. Kanpotiko ezaugarriotan, ezta zentzunen uts-egitean, ez da orren ondo aitzen emoten, bizkor igaroten da-ta. Ondo ulertzen da, alan be, Jaunak egindako mesede ugarietan; aundia izan da an egon dan eguzkiaren argitasuna, lipar batez orrela urtu dauana. Oar ondo, luzea izanda be, nik uste, arimea bere aalmen guztiak esegita egotea, egiaz momentu laburrekoa dozu; ordu erdi, askoasko da; ni ez nintzan, ustez, iñoiz be ainbeste denporan egon. Egia da, ezin leike ondo ikusi zenbatetan, sentiduten ez dana dozu-ta. Baiña, barriro diñot, aldi laburra dala aalmenen bat berera etorri barik egoten dana. Naimena da geien sor dagoana, ta beste biak be laster biurtu oi dira gogait eragitera. Naimena (borondatea) geldi dagoanez, besteak be beronek zintzilika jarri oi ditu. Olan dagoz beste apur batean, bizira biurtuaz gero.

13. Era onetan ordu batzuk igaro leikez otoitzari ekiñaz, eta emoten dira; aalmen biak dira orditzen, jainkozko ardao aretatik miaztuz, eta irabazkorrago egin naita, errez galdu oi dabe burua, ta naimenari lagun egiten dautse, azken baten irurak gozatuaz. Baiña osorik galduta egote au, irudi-

tiicna ezertan be egotzi barik, epe laburrckoa dala diñot, Euren senera, alan be, ez dira biurtzen ordu batzutan burutik joanda lez egon ondoren. Apurka apurka Jainkoak gero berc kautan artzen ditu.

14. Orain gatozan barrukora, arimeak cinen sentitzeu dauanera. Bsan bei dakianak, ezin da.teke ba ulertu. Ainbat gitxiago adierazo! Pentsatzen nengoan ni au idatzi nai izan nebanean (jaunartu ondoren eta idazten dodan otoitz on-one-tan murgil), zer egiten ete eban arimeak tarte onetan. Jaunak esan eustazan itzak: Ezer-ez zaite oso, alaba, neugan are *gciago jarri zaitezan; onezkcro ezta bera bizi dana. Neu baiño; ulertzen deunari antz emon ezin leion lez, ulertuz ez ulcrtzea da.* Txastatu dauanak berau ulertuko zerbait; ezin daiteke argiago esan, an gertatzen dana illuna da-ta. Bakar-bakarrrik esan daiteke arimeak Jainkoaz dagoala ikusten dauala, Aren ondo-ondoan egon be; onen ziurtasun be-tea gelditzen da, eta berau ez siñistutea ezelan be ezin daiteke arbuia. Aalmen guztiak falta dira emen, sorgor dagoz danak, esan dodanez, eta ezin daiteke dagianik ezer ulertu. Nekaldiko pasarte bat ausnartzen ba iñarduan, gomutamenetik iges dagitso gaiak, eta iñoiz cuki ez ba leu legez gelditzen da. Irakurten ba dau, irakurten ebanean ez da gelditzen, ezta gogoratu be; errezatzen ba dau, bardin. Olan, gomutapena deritxogun mitxeletatxo gogaikarri oni erre egiten jakoz egoak, eta ezin clau zarata geiagorik atera. Naime-nak maitatzen diardu antza, baiña ez dakit zelan maitatzen dauan. Adimenak, ulertzen ba dau, ez dau ulertzen zelan ulertzen dauan; ezin dau beiñik-bein igarri ulertzen dauanc-tik ezertxo be. Nire irudiko, ez bide dau ulertzen, diñodanez ez bait gatoz bat. Nik ezin au buruz artu.

15. Otoitz onetan oartu nintzan Jainkoa ur-urrean neukala; lenengotan cz nekian oindiño Jainkoa gauza guztietan egoala: bakana iruditzen jatan jazokun au. Urre ez egoala siñistutea eziña neritxon, ia argi-argi neure aurrean, antxe, ikusia neban-eta. Askok ikasi bakoak, graziz bakarrik egoala

iñosten. Au nik ezin neban siñistu, diñodanez aurrean neukala iruditzen jatalako, eta penaz beterik gelditzen nintzan. Ezbai onetatik atera nindun Domingo Deunaren ordenako gizaseme jakintsu batek (1); onek esan eustan baietz Jainkoa egi-egiaz neuregan egoala eta gugaz, arimakaz zelako ar-emo-na eukan. Barne-atsegiñez itxi nindun onek. Egoki da oar-azita aitzea zeruko ur onek ots, Jaunaren mesede txit aundi onek, arimea beti laga oi dauala, esan-barri dot, irabazi aundi-aundiakaz.

(1) Domingo Bañez, antza danetik.

XIX A T A L A

Errazoiketa bardiñean darrai. — Otoitz-mailla onelan dagozan ondorenak. — Ezla alzera biurtu bear, mesede onen ostean jausi arren, ezta otoitza itxi be. — Kalteak datoz ait ez egitetik. — Oar-garri dozu berton datorren irakatsia. — Atsegin aundia dakartsena aul eta pekalariai.

1. Otoitz eta alkarte onen ondoren arimea samurtasunez beterik geratzen jatzu; desegin gura leuke, ez atsekabcz, negar-malko gozatsuz baiño. Eurotan aseturik aurkitzen da konturatu barik, noiz ez zelan negartu ebazan jakiteke; atsegin egiazkoa dakartso, alan be, uragazko su-zauskada a gero ta geiago baketurik ikustean; naspilla dirudi onek eta olan-txe jazoten da. Batzutan gertatn jat, otoitz onen azkeneranza neure senetik urtenda egotea; ez nekian amesa zan ala egiaz sentidu neban gozotasuna; eta bardin, urez aserik ikus-teak be arritzen nindun, ezelako naigabe barik indartsu ta bizkor jariaiten bait neban; zerutiko odei arek ixurtzen ebala zirudiane, emesa etzala izan nekusan. Lenengotan jazoten jatan au, diñodan otoitza epe laburrekoa zanean.

2. Adoretsu geldiizen da arimea, eta une aretan Jainko-maitasunarren zati-zati egingo ba lebe be, poz aundiz artuko leuke alako samintasuna. An dira orduan zin-itzak eta cskintzak, erabagi sendoak, gurarien bizitasuna, mundua zapuztu ta iguintzen astca, uskeriak argi be argi ikustea. Aurreko otoitzetan baiño askoz aundi ta onuragarriago dira arimeak emen atera daroazan irabaziak. Azi ta azi doa apaltasuna be, argi ikusten bai eban mesede zabal geiegi artarako berak jarritako ardurarik etzala egon; ezta berak ez ebala

ezer egin olako mesedcrik ez ekarteko ez eukiteko, eta apaltasun barren-sakonean sartua ikusten dau bere burua. Eguzkia eurrez sartzen dan gela baten ez dago amaraun gorderik; era berean, arimeak argi ikusten dau bere mixcria. Kanpora joako, beraz, arropuzkcria, euki lcikenik be pentsau ez egiteko moduan, bere begiakaz ikusi dau ba gauza gitxi edo ezer bere ez dala berak aal dauana, an ez bai zan doi-doi lekurik emoterik; berak nai ezta be, antza danez, atea itxi eutsen zentzun guztiai, Jainkoaz obeto gozatu egian. Arimea bakarrik geratzen jatzu Jaunagaz, eta zer egin daike onezkero Bera maitatu baiño? Ez dau ikusten, ez dau entzuten besoen estutze ezik; ortaz ez dauko zertan eskerka ibillirik. Gero agertzen jako egi-egiaz bere aurreko bizimodua ta Jainkoaren erruki aundia. Adimenak esan lez billa ibilli barik, an aurkitzen dau maneaturik jan bear dauana eta ulertu. Barrurantz begiratz, infernua merezi dauala dakus eta zeruko aintzaz zigortzen. Eta goraka asten errime, Jainkoa goraka, eta nik oraintxe ausi nai neuke bene-benetan. Onetsia izan zaitez, ene Jauna, ni lango loi baltz zikiñez egiten bait dozu ur ain gardena, zeure mairako izan dedin. Gorets zaiezala Zu, aingeruen erregali ori!; ar orren zirtzilla olan goratu nai dozuna!

3. Otoitz onen obariak zati batean iraun oi clau ariman. Frutua ez dala berea argi ikusirik, asi daiteke onezkero bertatik banantzen, bera ez dauala orrek txiroago egingo-ta. Izan be, zeruko onak gordeten ditun arima orrek banatzea n'ai dau besteen artean eta ori esk-itzen dautso Jaunari, bcra bakarrik ez daiten iazn aberais. Ia konturatu barik eta berekiko ezer egiteke, urkolagunei on egiñ jatzu; oneik bai ulertzen dabe, ciagoneko lorak usain jagia ixurtze bait dabe, na'nor eureka chzeko gurari bizitan sutu ta erakarri-aziz. Birtuteak daukezala konturatzen dira la jangarri dan igalia ikusten; berau jaten lagundu gura leuskioe. Lur au lanez eta jazarpenez, marmarkeriz eta gaixoz (au barriz gitxi eltzen bide dira onaiño) beterik ba dago, eta nobere interesik-ezez berazturik aurrera eroanda, ur guztia lur ondarreraiño doa ta ia ezta

iñoz be agortzen. Baiña oindiño lur azalean dagoana bada, eta lur askoz baterik, ni lenengoz nengoan lez, gal-zorietatik alderatu bage oraindiño, ta mesede ain aundiri dagokienez eskerrik agertu bage, bir-legortzen jatzu hirra. Ortularia nagitxo ba dabil, eta Jaunak bere ontasunez bakar-bakarrik egin nai ez ba dau bartiro euririk, galdutzat emon bear ortua. Orrela jazo jatan niri batzutan; egiazki, izu-ikara sartzen jatan, eta neuri jazoa ezpalitz, ez neuke siñistu nai izango. Neurea lako arima aullak poztu daitezcan idazten dot au; ez daitezala iñoiz etsi, ezta ez dagiela Jainkoaren aundietasunean uste onik galdu. Jaunak ain gora, onaiño ekarrita be, jausi arren, ez daitezala txepeldu, osorik galdu nai ezpadabe. Gogora beti, edozer lortzeko gai dirala negar-malkoak, eta ur batek bestea dakarrela.

4. Ona emen zek eragin eustan niri, nazana nazala, au idazteko esan eustanari men egitera, neure bizitza ziztriñaren mirabe leial izan bearrean iraindu dodan Jaunak egin daustazan mesedeen barri emotera. Nik egiaz ospe ta itzal auncikoa izan gura neuke emen esango dodana siñistu daiten, eta Jauna otoizten dot emon daidan grazi ori. Barriro diñot, otoitzari emon dautson iñor ez daitela kikildu, esanaz: «Barriro jausten banaz leengo pekatuetan, txarrago da aurrera jarraitzea, otoitzari ekiñez». Neu be orretan nago, otoitza itxi ta gatxetik aldendu ezik; baiña otoitza itxi czik, siñistu beist olakoa argiaren portura aterako dala. Onetan burruka latza egin eustan deabruak; otoitzean jardutea apaltasunik ez zala-ta denpora luzea emon neban, ain txatxarra nintzalarik, esan dot, tirta bete ta erdian, urte betean beintzat, ez bait naz ondo gogoratzen erdiaz. Etzan geiago izango, ez etzan izan, ez neban ba deabrurik bear izan neure buruan sartzeko. Oi, Jainko on! , zelako itsutasuna! Eta deabruak bai ondo asmatu bere asmoetarakoak, emen eskua armatzean! Maltzurak bai daki, iraupenez otoitzari emondako arimea galdurik daukala, Jainkoaren on-izatearren, gero saltu aundiagoa emoteko Aren zerbitzu arloan. Eta onek asko balio izan.

5. O ene Jesus! Zer da onaiño eldu dan arima bat, pekatuan jausita, Zuk, erruki aundiz, barriro be eskua emon ta jaso-azoten dozunean! Ondo bai ezagutzen ditula zure aunditasunak eta errukiak, eta bere mixeria! Emen da gero egiaz damutu ta zure goitasunak autortu bearra; emen begiak jasoten be azartu eziña; emen eurak gora erigi naia, zor dautzuna ezagutu gurata; emen egiten da zeruko Andra Mariaren debotu, ezti-orrazi zagizan; emen dei dagitse otseginda jausi ziran Santuai, lagun etorri dakiozala eskatuz; emen, zapaltzen dauan lurra eusterik ez dauala merezi-ta, emoten dautsazun guztia zeure esku zabaletik datorkiola uste izatea; Sakramentuak sarri artzea; eta emen geratzen jakon fede bizia Jainkoak eurotan ipiñi eban indarra ikusirik; Zu goratu bearra alako osagarria ta gantzua eurotan itxi zendulako gure zaurientzat, ez oparo osatuak, baita eurak garbitu be osoro egiñik. Arrituta izten nau onek, eta nor ez da, ene Jaun maite, erruki ain aundi ta mesede ain aziaren aurrean arrituko, saltze ain itsusi ta gorrotogarria olan ordaindua dala ikusiz? Ez, ez dakit zelan ez jatan erdibitzen biotza, orren ziztriña naz, au idazterakoan.

6. Emen ixuritako negar-malkotxo Zeuk emonak (neure aldetik, potzu txarreko ura), ainbeste judaskeri, beti txarto egindako jardunakaz eta Zuk egotzi daustazuzan mesedeak suntsitu nairik ibilliaz, ordaintzen dautzudazala dirudi. Zeuk egin, Jaun orrek, baliotsu! Jar garbi ur ain loa, biderik ez emotearren beintzat baten-bateri saio edo uste okerreko tentaldirik emon ez daion, niri emon daustan lez; zergaitik Jaunak, pertsona txit santu batzuk, Zure zerbitzuan beti lan egin dabenak, erlejiñoan azitakoak, eta ola izanik, ez ni langoak, izena besterik cz nekarren onen antzekoak, eta argi ikusi ta ez dautsozuzala niri lako mesederik egiten. Ederto nekusan nik, ene Ona, Zuk ondo gordeten dautsozula saria dana batera emoteko, ta ba-zenkian ezerezak auxe bear ebal; areik clagoneko, leialak dirala-ta, olako barik zerbiduten zaitue, eta jente adoretu ta interesik ez dauana kz artzen dozuz eurak.

7. Baiña Zuk ba-dakizu, ene Jauna, sarri otsegin ne-bala Zure aurrean, nigaitik marmarka ebiltzan pertsonak zurikatuik, arein esatekoak errazoiz jantziak zirala iruditzen jatalako. Au izan zan, Jauna, zeure ontasunari esker, ain-beste iraindu ez zengidazan zeuretzat zeukadazanean eta nik Zu iraindu zeinkedazala uste neban guztitik aldenduaz ni-ñoianean; Zuk, Jauna, nik au egiterakoan, zeure ondasunak zeure mirabeari zabaltzen asi ziñan. Ez zenduan, itxura da-nez, beste ezer itxaroten niregan barondate ona ta gertaera bardiña eurak artzeko baiño; bizkor asi ziñan ba ez emoten bakarrik, baita emoten zeustala besteak ulertu egiela nai izaten be.

8. Mesedeok jakin ziranean, laster asi zan jentea aundiespen ona agertzen, danak oindiño ez euken arren ondo ulertuta zein txarra nintzan, asko agertzen zalarik be. Mar-marra ta eraso danbadan asi ziran eta, nire eritxiz, errazoi aundiaz; ez nintzan ba iñogaz asarratzen, Zuri eskatu baiño begira eizula ortarako euken errazoi. Santua izan nai nebala iñoen eta barrikeriak asmatzen nebazala, orduan oraindiño zati aundi baten beintzat neure Araudi osoa betetera eldu barik, gaiñera komentuan egozan lekaime on santuen antzeko izaten alegiñak egin barik, ezta eldu be ez dot uste elduko nazanik Jainkoak bere aldetik, bere ontasun aundiz, dana egin ezpadagi. Ni neure aldetik ba-nintzan ona kendu ta ain onak etziran oiturak sartzeko lain; alegifia egin oi neban beiñik-bein alakoak jarteko, eta altsu nintzan txar-rean. Mormoxean ba ifiarduen, beraz, euren erru barik iñar-duen. Eta mojak bakarrik etzirala diñot, baita beste pertsona batzuk be. Zuk lagata, Jauna, gauzak ziran lez jarten jatazan.

9. Bein Orduak esatean (nik noizik bein tentaldi au neukalarik), urrengo bertsora eldu nintzan: *lustus es, Domine* (zuzena zara, Jauna) *ela zuzenak zure epaiak* (Ps. CXVIII). Egi benetan aundia zala pentsatzen asi nintzan. Deabruak onetan ez eukan indarririk iñoiz be, Zuk, ene Jaun orrek, on guztiak daukazuzala ni ezpaian jarteko lain kemen,

ezta ledeko beste ezertan ni kezka ipinteko be. Bestera, berezko bidez okertuago ta sendoagoa neukala uste neban, eta onek jaiara (deboziño) itzelez beteten ninduen. Aalguztiduna izatean ortxe egozan niretzat Zuk egin leikezuzan gauza aundi guztiak. Onetan iñoiz be ez neban dudarik. Gogora ekarriaz, Zuk, Tauna, zelan zure zuzentasunak zeure mirabe asko, esan dodanez, zeure mirabe onak, niri, nazana nazan oni egiten zeustan lako esku-erakutsi ta mesede barik izten zenduzala, Zuk erantzun zeustan: *Zuk serbidu naizti ta etzaite ortan-sartu*. Auxe izan zan nik Zuri lenengo ulertu neutzun itza, ta arriturik geratu nintzan. Geroago azalduko dot ulertzeko era au, besta gauza batzuekaz nasteen, eta ez dot emen ezer esango onetzaz, aritik urtetea jitzake-ta; ondo aldendua nabillela deritxat lendik be. Ia-ia ez dakit zer esan dodan. Ezin daiteke gitxiago izan, ene seme, zuri ara ona ibilteok jasan eragitea, Jainkoak nigaz euki dauan pazientzi aundiaz jabetu ta nagoan lekuan neure burua ikusiz, diñodan eta esango dodanagaitik, ez da asko kontua galdurik ibiltea. Eder bekio Jaunari orreik izatea beti nire jokera-ezak, biurriak, eta ez daidala itxi Aren Aunditasunak unetxo baten Bete legearen aurka ezer egiteko indarrik. Nagoan puntuan, ostera, azkendu nad'lla!

10. Naikoa da esana Jainkoaren erruki biribillak ikusi al izateko, ez bein bakarrik, askotan parkatu bait ditu nire esker txarrak. Pedro Deunari baten bakarrik emon eutsan parkamena, niri barriz ainbar bidar; errazoiz ba tentatzen nindun deabruak, adiskidetasun esturik euki ez nengian agiri-agirian arerio nintzanaz. Ni baiitsu bene-benetan! Nun aurkitu nai neban, ene Tauna, osagarria Zugan izan ezik? Itzala buru-bakokeria argitik igesi ibiltea, beti arri-igortzi ta beaztopoka jarduteko! Zelako apaltasun arroa asmatzen eban niregan deabruak, orren beera ez jausteko eutsi daustan zutabe ta makillari urreratuta egotetik ni aldendu nai izatea! Aitaren dagit orain, zurturik, eta ez dot uste igaro dodanik arrisku ain arriskutsua, deabruak apaltasun bidez erakusten eustan asmakizun au langorik. Au.jarri. oi eustan buruan: a'n

bizitzarako be ain leun-atsegingarri jakon gauzea, lur-atsegiña lango zer ziztrin ta zikin bat-gaitik iztea; eta konfiantza onegaz deabruak kendu oi dautso beregan euki bear dauan apurra, eta, diñodanez, arriskueta jarten da eta ardura aundiz asten jatzu neurri bage besteai emoten bere frutuetatik, USLC izanaz bereari dagokionez, ez dagoala zetan bildurtu. Arrokeririk ez dago emen, arkneak ondo daki-ta berenez ezin dauala ezertxo be; ta uste onez betea, neurri barik dago Jainkiagan; pensau bear leuke, alan be, ule barriko egaztia dala. Urten daiteke abitik, eta ain zuzen Jainkoak atera oi dau, baiña ez dago oraindik egaz egiteko eran. Birtutez ez dago oindiño errime ta gogor, ez dauko experientzirik galzori ta arriskuak ezagutzeko, ezta ez daki zelako kaltea dkarren noberagan uste larregi ipintek.

15. Auxe izan zan ni osorik galdu ninduana. Onetarako gaiñerakoetarako, naitaez, maisu bat bear dogu, eta espiritu-zale diranakaz artu-emon euki. Jainkoak arima bat egoera onetara jaso dauanean, nik uste, arimeak oso-osorik Aren Aundi-tasuna itxi ezik, Onek ez dauala arimea laguntasun barik itxiko, ezta galtzeko bidean. Baiña esan dodanez, iñoizkoren baten jausiko balitz, bebil kontuz, kontuz. Jaunaren mitasunarren, deabruak ziririk sartu ez daion otoitza itxi erazoz, niri eragin eustan lez guzurrezko apaltasunez, esan dodanez eta sarri be sarri esan gurako neuke berau. Beuko uste osoa Jainkoaren ontasunean, guk egin geinkezan gaiztakeri guztiak baiño aundiagoa da-ta; ezta gogoratzen gure esker txarraz, guk, geure burua ezaguturik Aren mitasunera biurtu gura dogunean; egin dauskuzan mesedeak be ez dira izango gu zigortzeko, leiakk izan ez garealako. Bai, oster, ariñago parkatzeko zio izango dira, bere etxetiar legez eta esan oi dan bezela bere maitik ogia jan daualako. Ekar eizuez gogora Aren berbak eta ikus zer egin dauan nigaz. Ni geiago nekatu nintzan Bera iraintzen, Bere Aunditasuna niri nik egiñak parkatzen baiño. Emoten ez da iñoiz nekatzen; Aren errukiak ezin daitezke agortu. Ez gaitezkan gu be artzen nekatu! Bedeinkatua izan bedi menderen mendetan! Izaki guztiak gores daglela! Olanixc.

XX ATALA

Alkartzea ta gaiñezkaldia ez dira gauza bardiñak. — Gaiñezkaldia zer dan. — Mesedeak artzen ditun arimeak daukan ona, Jaunak bere on-izatez egiña. — Ondorenak. — Arrigarria da.

1. Jauna lagun adierazo nai neuke orain, ze diferentzi dagoan alkartze ta birlora artean, gaiñezkaldi, espirituaren egaz deituaren edo-ta arrapatzearen artean, dana bardintsu dala-ta, ots, izen edo itz diferenteok, diñot, danak dirala gauza bardiña adierazo nai dabenak; baita sorraldia edo extasisa deritxona be. Au alkartzea baiño goragokoa dozu, onciorenak be aundiagoak eta beste egiñen batzuk. Alkartzea, nire eritxiz, goi-aldiaren asiera da, erdia ta azkena, arimeari dagokionez. Gaiñezkatzea, ostera, goragoko mailla goragokoa, naiz arimaz naiz gorputzez goragokoa. Jaunak berak azai begi dotriña au aurrekoa azaldu daunez. Bere Goitasunak, ziur asko, dierazo ezpaleust zelako era ta gisaz zerbait esan daiken, nik ez nekian tautik.

2. Gogora daigun orain esandako azken ura oso ugaria dala. Lurrak artzen daualako izan ezik, odei eskerga au geugaz dagoala uste izan daikegu, eta, Jainko Jauna geugaz dagoala, ementxe lur onetan. Baiña esker aundiagaitik guk eskerrak egitean, geure indarra dagokiezan egiñakaz saiaturik, Jaunak artzen dau arimea, esan daigun orain lurreko lurrinak odeiak daroazan legez, bere guztia jasoten dauala, (onela entzun dot au, odeiak edo eguzkiak lurreko bafadaz lez). Odeia gorantz doa igonez, arimea berarekin jasoaz eta gerturik daukatsozan erreiñuko aberastasunak ikus-erazten asten jako. Ez dakit bardinketa au erara datorren, baiña egitez orrelaxe jazoten dana da.

3. Birloratze oneitan, antza danez, arimeak ez aau gorputza bizkortzen. Nabari da emen oni galdu egiten jakola igarteko moduan berezko beratasuna, eta otzituaz doala barabara, gozotasun eta poztasun esan-eziñez bada be. Alkartzean, geure lur-gaiñ gagozanez gero, ba dago osabiderik; naiz atsekabc-indarrez izan, beti, ia beti, gogor egin gengike. Emen ez dago gogor egiterik geienetan ez dago osabiderik; emen, sarritan, konturatu orduko ta ezeren laguntza bage, zauskada leiatsu sendoa jatortzu, ikusi ta somatzen dozue zelan jagi-azten dan odei au, edo-ta arrano egalari onek zelan artu ta zaroazan bere ego-gaiñ.

4. Somatzen dala diñot ta eroaten ikusi, baiña ezdakizu nora. Atsegiña dakar onek; gure izatea makala da-ta, alan be, lenengotan bildurra sartu oi dau. Bearrezkoa dozu, beraz, gogo erabagitsu ta bizkorra, esana geratu danerako baiño askoz be geiago, dana arriskuan ipiñi ta oso-osorik norbere burua Jainkoaren eskuetan itxi ta, datorrena datorrela, garoan lekura joateko beti gertu, naiezta be eroango gaituela-ta. Ain dozu orrela au, nik sarri gurako neukc arpegia emon, baita indar guztiak ipiñi be, batzutan agirian eta beste batzutan ixillean, ziria sartuko ete eustelako bildurrez. Batzutan zerbait egin aal neikcn neke-neketan; erraldoi kemen-tsu bategaz burrukatzen dauanaren anttzera edo, aulduta geraturik azkenez. Beste batzutan eziña jatan, arimea eroaten eustan, eta geienetan burua bere atzetik, neugaz euki ezinda; baita iñoizka gorputz osoa be, gora jasoteramo.

5. Au, baiña, bakanka. Bein, lckaiine guztiok kontan belauniko gengozala etorri jatan zentzun-galtzea, jaunartzera gifioiazan unean. Pena ikaragarria emon eustan onek, gauza nabarmena iruditu bait jatan eta esames eta mormoxerako atxakia gero. Au gitxitan jazioa zalarik be, orduan Nagusia nintzan ezker, iñori ez esateko agindu neutsen monjai. Baiña, beste batzuetan be Jaunak orobat egingo eustala iku-

sirik, eta bein, besteetan legez, Deiaren (Erregen) jaian (1), itzaldi baten, andra aundikien aurrean, lurrean nengoen etzuna, ta ene gorputzari eusteko urreratu jatazan eurak. Gauza ondo argia izan zan. Jaunari eskatu neutsan gero, kanpotiko agerpenik euki leikean mesederik ez eistala geiago emon. Orren arduratan ibilteaz nekaturik nengoa ni: egin eistazala alako graziak, baiña ez ain nabariak. Dirudienez Jainkoak, ona da-ta, entzun egin daust eskatu neutsona, geroztik ba ez dot gaur arteño olakorik geiago euki izan; laburtxo bakar-bakarrik.

6. Gogor egitea nai nebanean, iruditzen jatan, oin azpitik jagiten jatazala indar bereziak; ez dakit eurak zetaz bardindu, espirituzko beste gauza oneik baiño bultzada erimeagoak ziran, ni zati-zati eginda izten ninduenak. Labur esanda, burruka izugarria da, eta ez dakar ez irabazi ez onura aundirik, Jaunak nai dauanean ba ez dago iñungo indarrik Aren indarra eroatekorik. Beste batzuetan, barriz, naiko izan oi dau olako grazia emon nai dauskula guri erakutsi ta ez dala Bere Goitasunaren aldetik bako geratzen eta apaltasunez gogor eginda be arimeari emoten dautsoz gogor egin ezta lakoxe ondorenak.

7. Aundiak dira ondoren oneik artzen dabezanak. Lenengo, Jaunaren aal-izatea agertzen dalako, eta, gu ezer ez garean lez, ez gorputza ez arimea pizkat geldi-azteko, ezta euron jaun izan be, geurez ezer egiteko, gura nai gura ez; ezagutu bearrean gagoz ba-dala guve gaiñetik nagusi bat eta grazi oneik Ak emonak dirala eta guk ezin geinkela ezertxo be egin eta era onetan errotuz doa ar'man apaltasun sakpna. Autortzen dot, orraitino, bildur aundia, oso aundia ekarri eustala lenengotan, olan lurretik gora jasota ikusterakoan. Espiritua da gorputza beragaz daroana, baiña gogor egin ezik, leun-leun daroa ta zentzunak ez dira galtzen. Ni beintzat neure senean nengoa, eroana nintzala konturatzeke bes-

(1) 1565'garren urtean, Avila'ko San Josep monjategian.

tean. Aren Aunditasuna da ori egin daikena, eta uleak tente jarten jatzuz buruan eta bildur ikaragarria geratu oi da Jainko ain aundia iraindu daikegunarena. Bildurra bai, baiña benetako maitasunaz jantzia, gero ta aziago doan maitasunaz betea, Jainkoak ar ain ustelari dautsona ikusten dogula. Izan be, ez dauala naiko dirudi egi-egiaz arimea Beragana eroanaz, gorputza be nai dauala esan geinke, au barriz ilkor dozu ta lur zikiñezko, ainbat iraiñetan lokaztua.

8. Baita izten dau griñarik-ez gogo bakan bat, nik zelan dan adierazo eziña. Zelanbait diferentea esan neikela begitانتzen jat, espiritu soillaren antzekoa ez dala diñot; espirituari dagokien gauzetaz askatze osoa daukien ezkeru, Jaunak nai dau antza gorputzak berak be ipiñi daiala emen berea eta onan kirmimirri barri bat egin oi da lurreko gauzakaz, eta onek neketsuago biurtzen dau bizia.

9. Naigabe bat dator emetik, guk ekarri ezin geinkena, ta etorri ondoren, kendu ezin daitekena. Nik gurako neuke pena aundi au aitzen emotea, baiña uste dot ezingo dodala; esango dot, alan be, dakidana. Lenengoz oart-arazo bear dot, gauza oneik orain oso azkenerantza, gerotxoago esango dodan ikuskari ta agerpen guztien ostean, eta otoitzari jardutean, azalduko ditudala, Jaunak orduan egiten bai eustazan ainbat doai ta esku-erakutsi itzel. Orain be poz-atsegiñak ba daukadaz oindiño, noizik bein, baiña ia beti orain esango dodan atsekabeak lagunduta. Aundiago ta txikiago izaten da; aundiagoa dana aitatu nai dot orain. Aurrerago aitatuko ditut, ba, eukiten nitun zauskada aundi oncik Jaunak gaiñez-kaldiak emon nai izan eustazanean. Orduan, alan be, sufridu neban atsekabeak ez dauka zei-ikusirik orain diñodanaz. Uste dot ez dodala geiegikeririk esaten zer oso gorpuzki ta bestc zer oso gogozki balen artean dagoan aldea dagoala autor-tzean. Atsekabea dirudi lencn, arimeak be sentidu arren, gorputzaz batera dala, eta biok batera esku artzen dabela dirudi, ainbesteko alkar-bazter izte bagarik. Satri gertatu oi da, esan dodanez, nundik ez dakigula ta geuk ezer egin bage,

ez-orduan datorkigula gurari bat, zelan ez dakigula. Arimea lipar batez guztia artzen dauan gurari ontatik, nekatu ta nekatu egiten asiaz, bere gaiñ eta sorturiko guztiz gaiñ jagi oi da, eta Jainkoak uts-uts izten ba dau, berak alegiñak eginda be, uste dau lurrean ez daukala iior lagundu leikoenik, ezta berak nai be, bakartade aretan il gura dau-ta. Berba egiten dautsoela? Berak erantzuteko alegin guztiak erreta be, ezin ezer jadetsi, bere espiritua, egiñak egin, ez da aldenduten bakartade artatik. Orduan Jainkoagandik urrin dagoala begitanduta be, iruditu leiken eta modu arrigarrienean emoten ditu bere mesedeak. Artu-emon au, egiaz, ez doa arimea poz-aztera, on guztiak beragan daukazan onagandik urrin egoteak damotsan nekea zergaitik dan erakustearren baiño. Esan ezindako gauzak dira; ulertu ta siñistu be ezin leikezala deritxat, ortik igaro danak ezik.

10. Ar-emon onegaz, bitartean, bakarrik egoteko gogoa geitzen da, aurkitzen dan bazterraren zale-zale egiñaz; eta daukan naigabea be zorrotz-zorrotza egin jako, ta arimea eremuan aurkitzen dala be, orduan esan daikela deritxat, egiazki esan be, eta Dabid erregeak, bakartade bardiñean aurkitzen zala, esan ebana: *Vigilavi, et factus sum sicut passer solitarius in tecto* (Lorik egin ezifiik nago, txori bakartia teillatuan lez. (Ps. CI, 8). Arek, santua zan-eta, bakartade a era biziagoan sentiduko eban, ziur asko. Egoera orretan aurkitzen nazanean, bertso au gogora ekarri daroat beti, eta neuregan jazioa ikusten dodala iruditzen jat. Pozez beterik geratzen naz orduan, beste pertsona batzuk be, ta zelakoak, neuk lakoxe bakartasun naigabe gorriak sentidu dabezala uste izanik. Arimea ez dirudi beregan dagoanik, teillatuan edo berberaren eta sorkari guztien goiburuan baiño. Bere egoitza oindiño be gorago daukala deritxo bere alderdirik gorenengoaren gaiñean nunbait.

11. Batzuetan arimea arat-onat dabillena dirudi bear-izan ikaragarrian, bere burua esaka ta itaunka: *Nun dok ire Jainko ori* (Ps. XLI, 4). Begira bear da, nik ez nekiala ondo

bertso onein esan-naia, eta gcro ulertzera eldu nintzanean poza artu neban nik ezer egin bage Jaunak gogamenera ekarri eustazala konturatur.k. Bestc batzuctan Pabio deunak diñoana gogora emon oi neban, ots, munduarentzat gurutzean josia egoala (*Gai*, 6, 14). Nik ez diñot au olan danik, nik ondo dakit zelan dan eta; arimea, baiña orrelaxe dagoa-la begitanduten jat, zcrutik cz bai jatorko pozik, an ez bai dago, ezta lurrekorik be ez dau gura, bertan dago-ta. Zeruaren eta lurraren artean gurutz-untzatua aurkitzen da, gorriak ikusten iñundiko laguntasun barik. Zerutik datorkiona, esan dodanez, Jainkoaren barri arrigarri bat jako, opa izan gein-kena baiño be itzalagoa oiñaze geiago emoteko ezta bestetarako; onek aundiagotu egin oi dau, nik ustc, batzutan zentzuna kentzeraifio eltzen dan atsekabeaz. Zcntzun galize au laburra izaten da; baiña iltamuko uneak dirala esan leiteke, berau alan be gootasun aundi baten atzetik dtorrena dozu, nik zegaz bardiñean jarri ez dakidana. Martiritza latz-zurrun eta gozatsua da. Arimcak cz dau lurreko pozik artu nai, ezta ain atsegin jakozan gauzetatik ez dau ezerto be opa, eskiñiaz batera aizatzen dauala dirudi beraganaik. Bere Jainkoa ezik ez dau besterik gura, ondo erakusten dauanez; baiña Jainkoarenik z dau nai au edo bestea, gauza berezirik; dana batera nai dau, ta ez daki zer nai dauan. Ez dakiala diñot, imdimenari dagokionez ez dautsolako aurrean ezer jarten. Epe luzean, ain zuzen be, aalmenak, nik usie, cz dabe lantk egiten. Al-karterakoan eta gaiñezkaldian gozotasuncz bezela, emen nai-gabeak eraginda dagoz dilindan.

12. C) Jcsus! Nok adicrazo leikczun ondo auzi au, Aita zer cian esan daistazun baiña ezpada be, ortxe bait dabil orain atertu barik nire arima! Geienetan, lange ta nasai dagoanean, eriotz larri oneitan ipiñia da, eta bildur da eurak asten jakozanean, bildurrak jo oi dau egi-egiaz il bearrcz. Baiña orretan murgildua dagon ezkerro, geratzen jakon bizialdi guztian samintasun laiza ta gure izateak eroateko gordin nekeza izanik be, oiñaze orretan igaro nai leuke. Iñoiztik iñoizera pulstua be ia guztia joaten jat; olan difioe beintzat niri la-

guntzera datozen aitzak, nire goraberetan zerbait dakienak. Beste aldetik, besazurrak ondo edegiak eta eskuak biurri nik ezin dodaz batzutan alkartu-azo. Urrengo egunera'ño geratzen naz olan miña pultsuetan eta gorputzean, oso-osorik lokatu ba nindue lez.

13. Aldian bein nik uste dot, Jaunaren maitasunez, gauzeak orain arte lez jarraitu ba'leu, amaituko jatala bizia; nire eritxiz, ba, naigabe ain aundia naikoa dozu ortarako. Baiña nik ez dot merezi oraindiño. Bai, nire irrisik biziena iltea. Ez naz gogoratzen ez garbitokiz, ez egin dodazan pekatu aundiakaz be, naiz eta oneikaz inpernua merezita euki. Guztia aaztu oi jat Jainkoa ikuste gurari gartsuz; eta atsegiñago iruditzen jako arimeari eremu ta bakartadea munduko lagunarte guztia baiño. Ezek poza emotekotan, oiñaze onetatik ibillitako batekin tratu ta jarduna eukitea dau, ta oiñaze ori dala-ta aieneka jardunagaitik, ez defitxo iñok sinistuko dautsonik.

14. Mingarti jat baita, naigabe au latza zanean, bestee-tan lez ez nebala bakartaderik nai ezta iñoren laguntasunik be, kexak entzuteko gai zana ezik. Onelako samiña edo da, eriotzara apaitu batek lokaillua saman itoten dagoala, arnasea artzen alegintzen danarena. Orrela iruditzen jat niri laguntza gurari au dala geure argaltasunetik sortua. (au bai, ziur, cgin daroa; ifioizkoren baten ni egon naz arrisku onetan geixo ta okko tertzioetan, esan dodanez, eta autortu neikela uste dot au beste danak baiño latzagoa dala), eta atsekabe onek il-zorian jarten gaitu. Gorputzak eta arimeak ez dabe alkarrengandik banandu nai eta gurari auxe da laguntasunaren eske dabillena, arnasa artu daian; eta deika, aieneka ta jolasez osagarria billatu bizi izateko, espirituaren naiaren edo arimearen goi-aldearen aurka, onek ez leuke pena onetatik urtcn gurako ta.

15. Ez dakit diñodana igarten ete dodan, edo esaten ete dakidan; baiña neurc eritxiz olan jazoten dana, ba-dakit.

Egin gogoetak zcuk, ene Aita, ze atsedeen euki neinken nik bizitza ontan; neukena, bada, otoitza ta bakartadea; onetan atsegindu oi ninduan Jaunak oso-osoan! Baiña naigabe au egunerakoa da orain eta gozotasun aundikoa, balio ederrekoea be bai, ta leen oi ebazan gozotasen guztiak baiño berau naia-go ciau euki. Seguruago deritxo au, gurutz-bidea da-ta, beregan dauka, nik uste, balio aundiko gauza bat: gorputzaz ezda erkide naigabeaz baiño, ta arimea banatzen dauana cta bakarrik gozatu oi dau sufritzc onek emoten dauan poz-atse-giña. Ez dakit zelan izan daiteken au, olan jazoten da, orrai-tiño. Nik ez neuke aldatuko Jaunak egiten deustan grazi au (bere eskutik dator, esan dodanez, nik neure lanez bapc jadetsi barik, izatez goi-goitikoa baita), gero adierazoko ditudan zer guztiakaitik; ez diñot batera, banan-banan ar-turik baiño. Eta gogotan euki cgizu, liburu ontan idatzita doan guztiaren ondoren dala, eta Jaunak orain naukanean, a:n zuzen. Oldar-zauskada oneik diñot, Jaunak cgin daus-tazan doe ta mesedccn ostekoak dira.

16. Jaunak egin mcsede guztietan, beti jazoten jat, asic-ran, bildurrez ibiltea, eta au Berc aunditasunak sendotu nindun arte. Onan aurkitzen nintzala Jaunak berak csan eus-tan ez eukiteko bildurrik eta orduan cgindako mesede au ordurarte egindako guztiak baiño on-eritxi geiagotan eukite-ko; atsekabe ontan garbitzen zala arimea, eta arragoan urrea letxe garbitu ta araztu, bcre doaizpitxoak obeto cratu al iza-teko; garbitokian egin bear zan lana, antxe burutzen zala. Ondo ulertzen neban mesedea zana, baiña segurantza askoz aundiagoaz geratu nintzan, eta autor-cntzuleak iñostan ona zala. Alan be, ni kaskar izanik, bildur nintzan, grazi txarra zalakorik buruan sartu ezinda. Bildurra sartzen eustan, me-sede aundicgia ta nire irabaziekin duin-eza zala uste neba-lako. Onetsia izan bedi Jauna, ona baita. Olantxe.

17. Aritik urtcn nazala dirudi; gaiñezkaldietatik asi nintzan, ba, eta esan dodan au gaiñezkaldi baiño goragokoa dozu, ta aitatu ditudan ondorenak izten dauz.

18. Orain gatozan oster a be gaiñezkaldietara, eurotan geienez jazoten danera. Askotan diñot iruditzen jatala, gorputza oso arin izten eustala, onck bcrez daukan astuntasun guztiez arin; asko be asko zan au batzutan, oiñak doi-doi lurrean ondo jarten be ez nentorrela. Gaiñez egiñik dagoanean bat, gorputza illik lez jatzu gelditzen, sarritan ezer ezin dauala berez, eta beti artua danez, jarrita, esku-zabalik, itxita. Zentzuna gitxitan galtzen dan arren iñoiz jazo jat niri bera osorik galtzea, baiña banakatan eta epe laburrez. Geien baten kezkatu bai oi dau, kanpora begira berak berenez ezer egin ezin dauanarren, entzun eta ulertzen dau urriñeko gauza legez. Baiña ez diñot entzun eta ulertzen dauanik, giñezkaldi ori bere gorengo mailara eltzen danean. Gorenengo mailla difiot barriz aalmcnak galtzen diranetan; orduan, ba, Jainkoaz batu-batu eginda dagoz eta arimeak, nik uste, ez dauala ezer ikusten, ez entzuten, ez asmatzen. Alan be, aita-turiko alkarte-otoitzean esan nebanez, onek, arimearen Jainkoagan era aldatzc onek, gitxi baiño ez dau irauten; baiña iraunaldi orretan ez da igarten aalmen bat beraren zirkiñik be, eta ez daki an zer jazoten dan. Ez dau izan bear lur gaiñean bizi gareala ulertzeko, Jainkoak beintzat ez dau gura, ortarako gauza ez garealako. Au neugan ikusi dot.

19. Zuk esango daustazu, Aita, batzutan zelan irauten dauan ainbeste ordu gaiñezkaldiak, arrobamientuak. Nigan sarri jozaten dana da, aurreko otoitzean esan nebanez, artu ta itxi, tarteka gozatcn zala, Arimea murgildu oi da askotan, edo, obeto esanda, Jaunak berak murgildu-azten dau beregan, eta orrelaxe cukiz pitin batean, nai-izateaz bakarrik gcllditzen jatzu. Beste aalmen bi onein barailla eguzki orduarien miintxo batek daukan lakoxea dala dirudit, ez da egundo geratzen; zuzentasun Eguzkiak nai dauanean, geldiazten ditu, Au unetxo laburrez dala diñot, baiña espirituaren zauskada ta jasotzea aundiak izan ziran lez, eta oneik euren zaratara biurtu arren, murgildua geratzen da borondatea. Beronek dagi, etxeoandra orokor balitzan, egite au gorputzean, beste aalmen zorakor biak, ba, zoztorrak ipiñi gura

dautsoezan czkero, arerioctatik beintzat zentzunak ez clagioela jausgarri, eragozpen edo debekurik jarri. Olan dingilizka dagozala egin daroe, Jaunak orixe nai daualako. Eta geienetan, bcgiak itxita clagoz, geuk eurak itxi nai ezta be, eta iñoiz zabalik egonda be, aurrerago csan nebanez, ezin dau somatu ez igarri ikuslen dauana.

20. Egoera onetan gorpuizak galdu daroa ia-ia bere jardun-gaitasun osoa, eta olan aalmenak barriro alkar artzean, ez daukie ainbeste zaiitasun. Orixegaitik, Jaunak grazi au emon leiona ezpei naigabetu bere gaiña orduetan be oian loturik ikusiaz, eta batzutan adimena ta oroimena be ortik zear. Geien baten, cgia da, Jainkoareko gorespenetan sarturik egoten edo-ta eurekandi igaro dana barrendu ta ulertu naian murgil; onetarako ez dira beti esnatuegi egoten, luzaro lo ta ames, pertsona baten antzera baiño, oraindik itxartu eziñik.

21. Au luzez aitzen emoten alegintzen naz, ba-dakit ba, ementxe (Avila'n), oraintzc berton ba-dagozala pertsonak, Jaunak mesede oneik egiten dautsezanak; eta, lendik be ortik ibilliak ez ba dira, usteko dabe bear bada eta arduraz ibilliko, gaiñezkaldian ilda lez egon bear dabela, eskolatuak ezpa dira beintzat; zenbat sufridu bear izaten dan autor-entzuleakaz, gero esango dodanez, onako gauzetan tautik be ulertzen ez dabenakaz. Ba leiteke nik zer diñodan ez jakitea. zuk, Aita orrek, ulertuko dozu, zeozetan asmatzen dodanetz, Jaunak emon dautso ba onako gauzetazko experientzia, naiz-ta grazi au oraingo samar danez gero, nik baizen arduratsu ez zenduan bear bada begituko. Olan ba, nik alegiñak eginda be, momentu batzuetan gorputzak ez dauka indarrik ikara egiteko be; arimeak arean zitun beragaz indar guztiak. Sarri gaixorik, ziper, min eta oiñazez bete egoana, osaturik geratzen da, eta trebetasun geiagogaz, gauza aundia bait da emoten dana. Jaunak nai dau batzuetan, esan dodanez, gorputzak be gozau dagiala, arimeak nai dauana maiz egin oi dauan ezkero. Arimea seneratu danean, gaiñezkaldi aundia

izan bada, egun bat edo bitan, baita irutan be, aalmenak sor egon oi dira; mamarrotuta lez dabil arimea, berean ezpa-lego lez.

22. Emen datorkio arimeari bizira biurtu bearraren sarrintasuna. Lenengo ule ixarra jausi jakon, azi jakozan egoak egaz egiteko, eta emen zabaltzen dau jada Kristoren ikurriña guztizko. Egi-egitan dirudi etxe onetako torre-zaiña gora doala, edo-ta jaso daroala, torrerik garaienera, Jainkoaren ikurriña jaso dagian, eta andixek begiratzen ditu beekoak seguru dagonaren antzera; onezkero izu-ikararik ez dau arriskuan, baiña berak arriskuak opa ditu an garaitzaren ziurtasuna emoten jakonaren antzera guztiz argiro ikusten da emen emengo dana gitxi-gitxitzat etsi bear dala, izan be guzti ori uts-utsa da-ta. Goian dagoanak gauza asko lortzen. Ez dau gura onezkero, ez eukiterik be, eleuke gurako auke-ra askorik, eta olantxe eskatzen dautso Jaunari: bere nai-izatearen giltzak damotsaz. Ona emen barat-zaiña torre-zain tgiña; ez dau ezer egin nai bere Jaunaren naia baiño; ezta bere naiaz jokatu be, bertan ezer onik be'dago, Jainkoak banandu dagiala. Aurrerantzean ez dau ezer gura berea lez, Ak egin dagiala dana bere aintza ta nai-izatearen neurrira.

23. Egiazko gaiñezkaldiak ba dira, onelaxe gerta oi da guzti-guztia, eta arimea esandako ondoren eta onuraz betea geratzen da. Guzti au, baiña, ez ba dakarre atzetik, ni Jainkoagandikoak ete diran ezpaian jarriko nintzateke, eta bai Bizente deunak aitatzen ditun muzin-kaskarraldiak. Niri dagokidanez eta experientziz ikusi dodanez, arimea emen gauza guztien erregiña ta askatasunez betea geratzen da, berak bere burua ez ezagutzeko moduan. Arimeak, egia, ondo ikusten dau ez dala berea, ez daki zelan emon izan jakon mesede ain aundia, baiña argi be argi dakus gaiñezkaldi oneitako bako-txak dakartson probetxua. Ez dago au siñistu leikenik, bertotik ibillia ezpada; eta, jakiña, ez dautsoe siñistuten arima gaixoari, benetan ziztrin kaskar ikusten dabelako, alan be biotz aundiko gauzak aurrera eroateko beti prest agertzen

dala; bertatik dabil, ba, Jaunaren zerbitzuan berak al dabenik eta zoli kementsuen. Uste dabe tentaldia dala, ta ergelkeria. Beregandik ez dala erneten ba lekie, Jaunagandik baiño, Oni bait dautsoz emon dagoneko bere nai-izatearen giltzak, ez litzatekez izutuko.

24. Nik neuretzat daukat egoera ontara eltzen dan arkna batek, berak ez dauala geroztik berba egiten,-ezta berenez czer burutu be, cgin bear dauan guztiaren ardurea Erregc gain-gaiñeko onena izanik. O ene Jainko! Emen bai ondo ulertzen dala Dabid'en bertso aren zentzuna, errazoiz asea, eta olakoak ba dabela errazoia uso-egoak eskatzeko! (Ps. LIV, 7). Argi ulertzen emoten da egada dala espirituak cmoten dauana, munduko sorkari guztitik gora jagiteko, eta bere-beretik aurrenena. Egazkada leuna dozu, alan be, egada atsegiña, egots bakoa.

25. Zelako nagusitza daukan Jaunak onaiño ekarri dauan arimeak, mundua bertan nastauta egon barik begiratzten dauana! Lotsa bai dala eta izuturik, bertan sartuta egon zaneko itsutasunaz! Samingarriago oraindik itsu bizi diran orreik, otoitz-jentea bada batez be, ta Jainkoak dagoneko graziak egindakoak! Dedar otsak gura neukez zelako iru-zurrean dagozan adierazteko, eta olantxe dagit egiaz, batzutan, olakoen buru-gaiñ erasokintza ta jazar-euri zaparrada bailitzan. Laster da apaltasun gitxitzat joa ta ikasi bearra dautsanari ziria sartu nairik dabillega. Ez daigun ezcr esan emakumea bada batez be. Emengo gaitzetsi bearra eta errazoiz gero ez dakielako kemenak bultz-daragoioen; batzutan ez daki zer egin, ezta czin eroan maite ditunak iruzur ontatik ez askatzea; bizi ontako giltzape ontatik aske ta libre ikusi nai ditu, au ez da ba gitxiago, ta ez deritxo gitxiago, bera egon dana baiño.

26. Miña ta naigabea sartzen dautso dedu, oore ta olakoz arduratzen zan garaiak, eta munduak dedua deritxona dedua zalakoan bizi izan zanekoa; guzur biribilla dala ori

ikusten dau eta danok gabiltzala bertan sarturik. Orain uler-
tzen dau egiazko dedua (onrea) ez dala guzurrezkoa, bene-
takoa baiño, zerbitzutan eukirik zer bait dana, ta ezer ez
dana, ezer-eztzat; ezerez bait da oro, ta ezerez baiño gutxia-
go amaitzen dana ta Jainkoari pozik emoten ez dautsona.

27. Barre dagi orain dirua ta beronen irritsa zcozertzat
eukazan garaia; dirua gora aunditan, egia da, ez dot iñoiz
euki, erru lez autortu neban arren: zeozertzat eukitea, alan
be, naiko erru zan. Orain nigan ikusten dodan ona eurokaz
erosi aal ba leiteke, askotzat eukiko neuke; au ondo ira-
bazten dala ikusten da gauza guztiak itxiaz. Zer ete da
au opa doguzan diruakaz erosten dana? Baliokoa ete da?
Iraunkorra ete? Edo-ta zertarako gura doguz? Atsedan bal-
tza saiatzen da, ainbeste neke artu ondoren! Sarri inpernu-
rako lan dagigu eurakaz, azkenbako sua ta atsekabea erosiz.
Oi, danak ba leukiez probetxu bako lur elkortzat, mundua
bai ibilliko Htzatekela eraztua ta buru-auste barik! Orduan
bai alkarren arteko maitasun bikaiña, dedu-nairik eta diru-
zalekeririk ez ba lego! Uste dot guztik leukakiela urtenbidea.

28. Atsegiñen itsukeri itzela ikusten dau emen arimeak,
eta zelan, bizitz onetarako be, lan-iturri diran eurak, naiz-ta
sarri kezkek sortu. Naigabeak eta pozik eza! a!perreko lan-
neke! Emen ez ditu arimako amaraunak bakarrik ikusten,
uts-egite aundiakaz, legokezan auts-kimizak be bai, txikiak
izan arren, eguzkia oso argi bai dago. Olan arima batek, ale-
giñak alegin egiña-gaitik oso ta betea izaten, Eguzki onek
artu ba dagi bene-benetan, dana naasi ta ubel ikusiko da
osotoro. Ontzi baten dagoan ura iegez da, eguzkiak emon
ezik, garbi-garbi dago, baiña emoten ba dautso, orbanek be-
terik agertzen jafzu. Ule-ulean da emen iduri edo bardin-
kuntza au; arimea gaiñezkaldi edo zentzun-galtze onetan
egon aurretik, Jainkoa ez irainduteko arduraz bizi dala be-
gitanduten jako, eta bere indar-neurritz aal dauana dagiala;
baiña zuzentasunaren Eguzki onek emotcra eltzen danean,
begiak edegi-azten bait dautsoz, ainbeste zabar daukazala-ta,

barrero itxi nai leukez. Oindiño ez da, ba, arrano egalari onen alaba leial, Eguzki oni aurrez-aurre begiratzeko lain dana; baiña epe laburrean zabalik eukita be, loi ikusten dau oindiño bere burua. Urrengo bertso onek diñoana dakar gogora: *Nor egongo da zintzo zure aurreari*} (Ps. CXLII, 2).

29. Jainko Eguzki onek begiratzean, onen argitasunez lausotua gelditzen da arimea; beregan begiak jartean, loitu egiten ditu oneik, ta itsu dago usotxo. Orixe berori jazo oi da sarritan, era orretan geratzen dala oso-osorik, ebagita, izu-ikaraz, begi aurrean daukazan ainbeste aunditasunaz txo-lindua. Emen jazten da egiazko apaltasunaz eta ez dautso piperrik be ez bere onak aldarrikatuz, ez besteak difioenaz arrotzeko. Jaunak banatzen ditu ortuko frutuak eta ez berak; alan be ez jako ezer erantsiten eskuetan. Jainkoari zuzendua da daukon on guztia; Aretzaz ezer ba'difio, Aren aintzarako doa. Ba daki baratz-zaiñak an ez daukala ezer, eta nai izanda be, ez dauka ez jakiterik. Nai ezta be, bere begiakaz ikusten dau. Jaunak itxi erazo dautsoz munduko gauza guztientzat, zabal-zabalik euki daizan egi au ulertzeko.

XXI ATALA

Jarraitu ta amaitzen dau otoitzaren laugarren mailla. — Zelako miñak euki oi dabezan barriro lur-gaiñ bizi bearko leuken arimak. — Iruzurrai buruz Jaunak emoten dautson argia. — Irakatsi argarria da, eta oso mamintsua.

1. Otoitzari buruzko azken mailla onetazko jarduna amaituaz, au da nire amai itza, ots, Jainkoak ez dauala bear arimearen baiezpenik. Emona dauka aurretik; ba-daki oro-osorik, eta gogo onez, bere eskuetan itxia dala eta dongeak ezin leiola ziririk sartu Arek gauza oro ezagutzen dau-ta. Ez da emen bezela, emen dana bait dago maltzurkeriz eta azpi-tolezez josia. Borondate bat irabazita daukazuela uste dozuenean, erakusten dautzuenez, dana guzurra dala konturatzzen zarie. Ez dago onezkero ainbeste neke-lanetan bizi daikenik, interesik tarteko bada batez be. Zorioneko arima, Jaunak eskolatuz egiak ulertzen dauzana! Au bai egoitza erregeentzat! Nausitza aundietan baiño baliotsuago bai litzakiola onetan alegintzea! Gauzea zuzen lenbilke erreinuan! Alde batera itxiak litzatekez ainbeste gaitz, baita eurak alde bat itxi be! Emen ez da zetan bildur izan bizia galtzez, ezta Jainko-maitasunaren dedua itzuri bearrez be. Au bai on aundia gitxiago diran guztiak baiño geiago Jaunaren deduaren alde egiteko bearturik dagoz.mentzat, menpekoak ba erregeari jarraitzea besterik ez daukie. Siñismenaren izpitxo batzuk geitu ta siñausleai zerbaiten argi pizkat emotearren, milla erreinū ta errazoiz, galduko leukez. Beste zerbait bai da iñoiz amaitzen ez dan erreinua irabaztea, Aren ur ontatik arimeak tanta bat txastatu ezkerro, cmengo guztia nazkagarri iruditzen jako-ta. Beraz zcr izango ete ur onetan oso-osorik aseta ikustea?

2. O Jauna!, eta zergaitik ez daustazu emoten ogi au zarataka iragartea? Ba-dakit, ez nintzateke siñistua izango, nik baiño obeto egiten dakienai be siñisten ez dautsen legez; baiña nik beintzat beteko neukez zelanbait neure gurariak. Uste dot bizitzari berari be ez neuskiola gora aundirik ezarriko oneitariko egi bat bera aitzen emotearren. Gero alan be ez dakit zer egingo neuken, nigan ezin leiteke federik ezarritan, nazana izanik; zauskada itzalak artu daroadaz agintzen dabenai au esatean, zuzitua izten bait nabe. Ezin dodala ezer egin ikusirik, Zugana biurtzen naz, ene Jauna, guztirako osagarriaren eske. Zuk ondo dakizu, Zu ez iraintzeko moduan geratzearren, eurak gero goragokoai esanez. Orrela ba-dakit ezingo litzakezala laga orain lagatzen diran gauzak, ezta ainbeste on obari barik itxi be (1).

3. O ene Jainko! Emon egiezu zertara dagozan bear tuak; norbait eroatean, lurrean eta ortzian be, entzuna dot, Zuk ezaugarriak nai izaten dozuz. Egia, eta gogora ekartean, atsegin izaten jat, Zuk, ene Errege, nai dozula onetan Zeure antzeko izan bear dabela lurrean be, zelanbait zeruan ezau garria agiri da-ta, Zeu il ziñanean, zeure eriotzan legez.

4. Ausartegi agertzen naz nunbait. Zuk, Aita, ondo da-goala ez ba deritxazu, apurtu eizu au, eta uste izan eizu aurrez aurre, aal ba neu, obeto esango neuskizula berau, edo beintzat pentsatu siñistuko zeuskidala, Jainkoari asko goraintzi oi bai dot, cntzun daistala opa izanik. Dana da, izan be, nobere bizia arriskuan jartea. Nik sarri nai izaten dot onezkero galdua izatea, eta au izango litzake asko merke erostea. Bestela, ezin leike ba gaur bizi, ainbesteko maltzurkeritan sarturik eta dakargun itsukeria begien aurrean izanik.

5. Une onetara eldurik, arimeak ez daukaz lerak bakarrik Jainkoaren zerbiltzuan jarraitzeko; Jainkoa bera lagun, lera la gurari orreik egi biurtzeko alegintzen da. Gau-

(1) Orduan ztibil ebilti'an siñisk(>rak dakaz j'oyora.

zaren bat buruan jarten ba jako jainkoaren zerbitzurako ona dala, ortara joko dau joranez, eta alan be uste dau ez dauala ezer egiten, uste bai dau, diñodan lez, oro dala ezereza Jainkoari atsegin emotea ezik. Neke jake zer eskiñi ez eukitea, nik *lez* probetxu gitxi atera *oi* dabenentzat. Eder bekizu Zuri, ene On orri, nik aldikadaren bat izatea zor dautzudan guztitik lauzurikoren bat ordaindu al izatea. Zeuk antola egizu gauzea, Jauna, ondoen deritxazunez, zelan zure mirabe onek zeozetan beiñik-bein otsindu zaizan. Beste batzuk be emakumak zirala, egite arrigarriak burutu ebezan zure mai-tasunez. Ni ez naz berba egiteko baiña; dana doa itzetan eta gurarietan Zu zerbidu bear zaitudanean; onetarako be eskerrak ez dodala aukerarik, bestela okerrera joko neuke bear bada. Sendo eizu Zuk nire arimea; lenengo, baiña, Zuk, ene Jesus, on guztien On orrek, erakuts eidazu, Zuk oso neurritan ipiñi ostean, egin daidala, orain beintzat, zer edo zer Zure alde. Bai, Jauna! Ezln eroana bait da ainbeste artu ta ezer ez ordaintzea. Nai karu nai merke, Jauna, ez eizu nai izan ni zure aurretik ain esku-utsik joatea, egiñai dago-kienez saria dagokie-ta. Emen dozu nire bizia, emen nire dedua ta nai-izatea; guztia damotzut, Zeurea nozu, nabil-kizu zeure naiaren neurrira. Ondo dakust nik, ene Jaun, zein gitxi al dodan; baiña Zuganaño eldurik, egiak ikusten diran talai ontara igonda, Zu nigandik aldendu ezik, dana dagiket. Aldendu ba'zagiz, oster, gitxi izanik be, nengoan lekura, inpernura joango naz.

6. Ene!, atsekabe aundia bai egoera ontara eldu dan arimearentzat, orain barriro be munduaz ar-emon, euki be-rra, bizitza ontako joku irrigarri au, ain txarto eratua, be-giratu ta ikusi bearra, gorputzari be beroa, loa ta janaria aukeratuz, odola urtuz, Onek nekarazten dau arimea, ez daki zelan iges egin ortatik; loturik, atxillo ikusten dau zera; eta orduan somatzen gorputzakaz dakargun katigu ego-tea, egi-egiaz, eta biziaren mixeri utsa. Ezagutzen dau Paul Deunak (Rom., VII, 24) zelako errazoa eukan Jainkoari aske egiala eskatzeko, garrasika dabil aren antzera, Jainkoari

eskatuz, beste batzuctan be esan clodanez, askatasuna. Emcn alan be indartsu ta sarritan da, eta arimcak antza gorputzetik urten nai dau askatasun onen billa, ikusten bait dau iñok ez dauala andik ateraten. Arrotz-lurrera saldua lez ikusten dau bere burua, eta auxe da geien atsekabetzen dauana: berak oiugagian arren, beragaz oiugegin eta bcrak eskatzen dauana eskatzen dauaixk ez dauala aurkitzen; bizi izatea da geienak gogo dabena. Oi! , ezerezari loturik ezpa-gengoz eta geure poz-atsegiñak lurreko gauzctan ezpa-geunkez, eriotz pentsamentuak ez gindukez bildurtuko bera barik beti bizi izan bearra ekarriko leuskigun atsekabeak bildur ori neurrituko ezpa-leuke egiazko bizia gozatzeko gurariaz!

7. Burura dakart noizik-bein, ni lako bat Jaunak argi au maitasunean ain epel nazan eta egiazko atsedena ain seguru-eza dodan oni, nire egiteak merezi izan ez dabelako, erbeste onetan aurkitu bearra bizi be bizi askotan sentitzen ba'dot, zelakoa izango ete zan Santuen scntimentua? Zer sufriduko ete eben Paul deunak cta Madalena'k cta beste antzeko batzuk, Jainkozko maite-sutan kiskaitzen egozanean? Azken bako martiritza izango zan, egiaz. Apur bat arintzen nabenak dirala dirudi eta eurakin artu-emonak eukitean nasaitu egin oi naz, gurari oneikaz ase-beterik aurkitzun dodazan pertsonak; gurariak diñot egiteakaz. Eta egiteakaz cliñot ba-diralako pertsona batuk euren eretxiz ezeri lotu barik dagozanak, eta orrela otsegin daroe, ta orrela izan bear euren estaduak ori eskatzen daualako, eta batzuk urte asko dirala osotasun bidean ibiltan asi ziralako. Arima onek, baiña, ezagutzen ditu urriñctik, itzez bakarrik diranak, edo-ta itzak dagoneko egitez sendotu dabezanak; ba-daki, ba, batzuk egin oi daben probetxu urria ta besteak asko ugaria. Experiencia daukanak argi be argi ikusten dauan gauzea da au.

8. Onitxek dira ariman geratzen diran ondorenak, jainkotiar espirituazkoak clozuzan zentzun-galtze oso gaiñezkaldiak izaten dituenak. Izan daitekez, baifia, ondoren aundia-goak eta txikiagoak; txikiagoak diñot, leenengotan, ondo-

rio oneik ekarrita be, ez datoz beti egiñez lagundurik eta ia-ia ezin daiteke olan ulertu eurak daukazanik be. Aziaz doa osotasunean, eta amaraunen oroirik be egon ez daiten alegiñak egiñaz. Onek bere denporea bear dau, maitasuna ta apaltasuna ariman aziagotu ta birtutezko usain ugariago damoe lora oneik noberarentzat eta urko lagunen onerako. Egia da oneitako gaiñezkaldi bat bakarrean Jaunak burutu daikela ariman, beroni osotasuna lortu al izateko zeregin gitxi geratzeko moduan; iñok ezingo dau, ba, siñistu ortik ibillia ezpada, Jaunak emen emoten dautsona, nire ustez, ez bait dago gure alegiñik onaiño eltzen danik. Urte askotan Jaunak lagunduta ez diñot, otoitzaz idatzi dabenak aitatzen dabenez, dala asieran dala tartean, lan askoren bidez ez diranik elduko osotasunera ta griñarik-ez batera; ez baiña epe ain laburrean; guk ezer egiteke lez Jaunak lan dagi emen, zirt eta zarteko atera oi dau arimea lurretik eta jaun cta jabetasuna emon oi dautso bertan dagoanari, arima onetan ez egon arren neurean egoan baiño merezimentu geiago. Nik ezin neinke geiago esan, nik irabaziz ez neukan ezer be ta.

9. Au zergaitik egin daroa Jaunak? Nai naualako eta nai dauanez egin oi daualako. Eta au egiteko arimea gertu ezpa dago, berak gertatu oi dau Bere maitasunak damotsan grazia artzeko. Ortik, ba, on oneik ez ditu beti emoten ortua ondo erabiltetik merezi izan dabelako, gauza ziur-ziurra danagaitik au ondo dagianak, lurreko gauzetatik jarcgiñak, ez dauala gozotasunak artu barik itxiko; aren naia da noizik bein bere aunditasuna agertzea ezerez eta ziztriñena dan lurrean, esanda itxi dodanez. Edozein onerako gertatu oi da arimea, eta au ez da geroztik esan daikegunez, zelanbait ziran Jainkoari egiten eutsozan irain eta pekatuetara biurtu ta or bizi izateko. Oso egiña dauko pentsamentua bene-benetako egia zer dan aitzsra, eta gaiñerako guztia ume-jolasa dala deritxo. Batzuetan barre dagi bere kautan, pertsona otoitz-zaleak eta erlejiño aundikoak dedu ta oore-puntu batzuetan naas-maas ikusiaz, aiima onek dagoneko oinpean daukazan uskeriak, Diñoenez euren estaduko zuurtasun

aginpideari dagokiona dazu, obeto aprobetxetako. Berak ba daki, ondo jakin be, egun baten atzera itxiko ba leu onuragarriago izango litzakiola, euren giza-bideko aginpidea Jainkoaren maitasunarren lagata aginpide orren duintasuna amar urtean erabillita baiño.

10. Orrela da euren bizitzea, lanez betea ta gurutz astuna beti. Baifia ikusien dituenak diñoenez, azi ta azi aurre-ra doaz beti. Osotasunaren mendi gaiilurrean aurkitzen dira; gitxi danetik, obero egiñcz dagoz oso, Jainkoak gero ta geiago lagundu oi dautse-ta. Orain Jainkoarena da guztiko, Arek dauka bere pentzura bere argiz oso-osoan erraiñutan ipiñirik; etenbako arduraz dirudi zaintzen dauala beti iraindu ez dagian, eta itxartu, urgazi ta alde urten zerbitzari ona izan dakion. Mesede au egiteko neurrira nire arimea iritxi zanean, orduantxe gelditu ziran nire gatzak, eta Jaunak emon eustan eurretatik urtetako kemena eta ez eustan izten geroztik arriskueta eta besteratzen ninduen pertsonakaz egoten, len be ez eustan ba kalterik egin izango neure burua eurekandik zaindu izan bancu. Dana jatan Jainkoa obeto ezagutu ta maitatzeko bide, ori bera zor neutsona ikusi ta izan nintzana izan nintzanagaitik damu izateko be.

1 L. Ondo ikusten neban gnzti a ez etorrela nigndik, ez nebala nik neure indnr eta arduraz a irabazi, ortarako ez bait neukan bear besteko astirik. Jaunak berak emon eustan sentotasuna ortarako, ona zalako bakar-bakarrik. Orainarte, gaiñezkaldi onein grazi au egiten Jauna asi jatanetik, aziaz joan da beti sendotasun au, eta bere ontasunez bere eskutik cuki nau atzera biurtu ez nendin; ezta ez dot uste, orrela da, ez dot ezer egiten neure aldetik, Jauna da-ta ondo daki-danez dana egiten dauana. Auxegaitik, uste dot, Jaunak onako mesedeak emoten diardunean, arimea apal eta erabe joanaz, Tauna bera dala egillc ta guk ia ezer ez egiten, konturaturik beti, edozein jenteren erdian ipiñi daike-gula; gogo zabar, bestetaratu ta griñatieta izanda be, ez dau geiago kezkatuko ezta zirkiñ k be; bcstera, esan do-

danez, lagun egingo dautso, eta bide izango jako onura, probetxu aundiagoak jasoteko. Arima sendoak dira dagoneko beste batzui be lagun egin daioen Jaunak aukeratzen ditunak, indar au eurengandik datorrena ez bada be. Apurka apurka, Jaunak arima bat une onetara ekarri dauanean, ezkutu ikaragarriak iragarriaz doakio.

12. Emen gertatu oi dira, zentzun-galtze onetan, egiazko iragarpenak, mesede aundiak eta ikuskariak; eta oro jako arimeari onuragarri apal-azo ta sendotu dedin eta ezereztzat euki daizan bizitz ontako gauzak eta argiago ezagutu daizan eta zerbitzari on jakozanai Jaunak gerturik daukezan edertasunak be aintzat ar daizan. Nai dakiola Jainkoari zerbait izatea pekatari makur onegaz euki izan dauan esku-zabaltasun itzala, au irakurriko leukeenak bizkortu ta erabagi daitezcan danaren osoa Jainkoarren iztera. Onek, ba, ase-betean kitutu oi dau, bizitza onetan be ikusten bait da argiro Are-gandiko saria ta Aren zerbitzari diranen irabazia. Zer izango ete da bestean?

XXII A T A L A

Otoizlariak ez dau, bcre espirilua gora jaso naiez ibilli bear. jainkoak jasoten ezpadau. — Auxe da biderik ziurrena. — Gora jasote bikain dozu Kristo'ren gizatasuna ausnar-gai erabillea. — Onetzazko iruzur bat. — Onura edo probetxu aundia dauan alala.

I. Gauza bat adierazo nai dot, garrantzizkoa nik sute, zuri, Aita, ba'deritxazu. Ba'leiteke bearrezkoa izatea: besterik ezean, zuzenbide ta arau lez izan daiten. Idatzita dagozan otoitz-liburu batzuetan irakurten da. arimeak mailla onetara bakarrik eldu einda be, oso-osoan izatez goitiko gauzea dalako ta Jaunaren lana uts-utsean, alan be urte batzuk garbi-bidean igaro ta gero argi-bidean aurreratu danean, lagundu daikeola bere buruari, sorkari guztiz gaiñ espiritua aupatu ta apaltasunaz Jainkoagana berau jasoaz. Ez dakit nik zer dala-ta diñoen *argi-bidea*; nire ustez, osotasunean aurrera doazanen bidea esan bear leukie. Eta gero aolkatzen dabe ekiñaz-ekiñaz baztertzeko noberagandik soin-irudimen guztia ta Jainkotasuna ikuskatzera eldu daitezala. Irudikizun oneik, diñoen, Kristoren Gizatasuna izanik be, ain aurreratuta dagozanai, kaltegarri ta zoztor jakezah begiratze osorako. Esan au senciotzeko Jaunak, zerura igon aurretik, Aposloluai onetuz esana dakarre, Espirilu Santua etortean (*Jon.*, XVI, 7). Niri deritxanez, Apostolu areik s'ñ'stu ba'lebe, Espiritu Santua etorrita gero siñistu eben lakoxe fedez, Kristo Jainko ta Gizon zala batera, uste dot Gizatasun deuna ez jakela eragozpen izango; au ez jakon, ba, esan Jainkoaren Amari, beronek beste guztiak baiño maiteago Kristo izan arren. Idazle oneik uste dabe, egite au oso-osorik espirituzkoa dalako,

gorputzezko zeozer gauza zoztor eta eragozpen izan daitekela; lauki batz bezela begiratu bear jako oni; Jainkoak alde guztietatik artua, Aregan guztiz murgildua. Onelaxe da ikusi ta ausnartu bear dabena. Au ondo derist niri batzutan; baiña Kristo'gandik oso-osorik urrintzea eta Aren jainkozko Gorputza (1) gure mixeriakaz eta munduko gauza guztikaz antzekotu ta erkapide ipiñi bear dirala, ez, ez derist, ezin dot sufridu! Eder bekio Aren Aunditasunari nik au adierazten jakin daidala.

2. Nik ez dautset idazle orrei ezer kontrakorik esan nai, jakitunak eta gogozaleak diralako eta ba-dakielako zer diñoen, eta Jainkoak bide askotatik eroan oi dabezalako arimak. Nik orain neuri jazon adierazo nai dot emen (bestee-nean ez naz sartzen), eta zelako arriskueta aurkitu nintzan, irakurten nebanaz bat etorri nai izanik. Ondo dakit alkarte otoitzera eldu danak, eta aurrera igaro ez, gaiñezkaldi, ikuskari ta Jainkoak arimai egin oi deutsezan beste mesede batzuetara diñot, esandakoa eukiko daua oberentzat, neuk egiten neban lez, eta orretan egon ba'nintz, iñoiz be ez dot uste orain nagoan maillara elduko nintzanik, nire eritxiz ori engaiñua da-ta. Ba leiteke neu jzatea atzipetua, iragarriko dot orraitioño zer jazo jatan.

3. Ez neukan maisurik, eta apurka apurka liburu oneitan irakurriz zerbait ulertuko nebala uste izanik (eta gero konturatu nintzan Jaunak erakutsi ezik nik gitxi ikasi neikela liburuakaz, eta ezer eza bait zan ulertzen nebana, Aren Aunditasunak experientz'z aitzen emoten eustan arte, garai aretan ez nekian zer egiten neban be). Izatez otoitz pizkat eukiten asi nintzanean, au da, atsedenezkoa, gorputzezko edozcr neugandik baztertzen alegintzen nintzan, baiña ez nintzan arimeaz gorantza egiten, beti ain kaskar bizi nintzalako, ausarditzat neukan eta. ALm be, egia diñot, bizi-bizi senti-

(1) Kristoren Gizatasuna goratzen dau emen aundi ta jakintsu.

tzen neban Jainkoaren begi-aurrea cta Beragaz batu-batu cginda egoten saiatzen nintzan. Otoiz-egite gozotasunez be-tea zan, Jaunak lagunduta, eta atsegiñez cz urri. Arimca irabazi askoz cta atsedeen cz git.xiz ikusten zan lcgcz, ez egoan nok ni Kristo'ren Gizatasunera biur-aztekorik, bcstera uste neban au, egi-egiaz, eragozpena jatala aurrera cgiteko. O neure gogoaren Jaun eta On guztia, Jesukristo gurutzean josia! Lillura au gogora nekarren baktxean, atsekabe benetan aundia emoten eustan, eta uste dot, ez-jakiñean baiña, saldukeri astuna egin nebala.

4. Kristo zalea izan nintzan bizitza guztian. Eta au izan zan azkenerantza, au da, oneik mesedeok, gaiñezkaldi ta ikuskariok, Jaunak egiten asi aurretik. Onak gitxi iraun eban, edo obeto, labur etsi neutson eritxi oni. Egia esateko laster biurtu oi nintzan ncure ekandura Jaun onekin gozatzera, jaunartzen nebanean batez be. Beti erabilii nai neuke neure begien aurrean aren argazkia ta iduria, nik gura neukean lez neure ariman ain irarrita eroan ezin neban ezkerro. Daitekena ete da, ene Jauna, nire pentsamentuan sartu zala, ordu batean be, Zuk eragotziko zeustala neure on aundia-goren eskuratzea? Nundik etorri jatazan on guztiak Zeugandik ezik? Ez dot pentsatu nai onetan errurik euki nebanik, atsekabe aundia damost-eta; ez-jakiñez izan zan ziurrik asko. Zuk, oster, zeure oniasunez osagarria jarri nai izan zenduan ni oker onetatik nok atera emonaz, eta argiago ikusi egian zure mirabeak zein aundia zan engaiñu ori, geiagotan agertua izatea nai izan zenduan, gerotxoago esango dodancz. Pertsona askori ori iragartea be gura izan zenduan, cgin dodanez, gaiñera agindua danez cmen jarten dot orain.

5. Nik neuretzat daukat, otoitzari emondako arima asko cz dirala aurreratzen eta ez dirala espirituzko askatasun aundiagora eltzen, alkarte-otoitza eukitean, auxegaitik dala: nik neure errazoia, uste dot, oiñarri biren gaiñ jarri neikela, eta norbaitek esan lei ez diñodala czer, baiña esango dodana experientziz ikusia dala diñot. Oso txarto aurkitzen zan nire

arimea Jaunak argitu cban arte; arimako gozotasun guztiak txurrutaka lez, eta, otoitza itxi ondoren, ez neban aurkitzen laguntasunik geroko lan e'a ziJtzaldietarako. Lenengo erra-zoia da, ba, irakatsi orri. jarraituz, apaltasun gitxi euki oi dauala arimeak eta bai ondo gordeta sentitzen ez dan aundina kimua. Baiña nor izango da ni lez, ain arro ta ziztriña, bcre burua aberats eta ondo ordaindutzat eukiko ez leukena, bere bizitzaren ordaingarri lez, ainbeste nekc-lor, penilentzi, otoitz eta asmau leikezan erasoaldi guztiakaz jantzia, Jaunak laketzen dautsonean bere gurutzearen oiñetan egotea Juan deunagaz batera? Ez dakit zein burutan, neurean izan ezik, ez dan sartzen onegaz ez naikotzea, onegaz ez egoteko. Era onetan, irabazi bearrcko iturri guztiak galdu egin jatazan.

6. Ez dot ukatzen, Jaunaren nekaldian pentsatzeak miña ta atsekabea dakarskula; alan be, geure berezko izateak edo gaixoaldiren batek galazota au ezin ba'dogu be, nok galazoten dausku Kristo berbiztuari lagun egitea, ur-urrean daukagun ezker Sakramentuan, emen bai dago dagoneko aintzatua? Eta ez dautsagu begiratuko oso nekatua ta zati-zati egiña, odola dariola bidectan unatua, Berak ainbat on egingakoak eraso, Apostoluak be siñetsi eza? Egon be ez dago beti, Arek eroan ebazan beste neke-lor jasan leikenik aurkitzea. Ona emen, orraitio, oiñaze barik, aintzaz betea, zc-rura igon aurretik ba'.zuk bizkortzen eta beste b.itzuk adoretu naiez, geure laguna Altarako Sakramentuan, ez dirudi bere eskuetan egon zanik une baten be gugandik urrintzea. Eta ni, ene Jauna, Zu obeto otseintzcko ustez, Zugancbk izan naz ala urrindua. Pckatuz Zu izten zindudazanean izan be, ez zindudazan ezagutzen; baiña. Zu ezaguturik, bidc orretatik gciago irabaztea pentsatu! Oi, ain bide doillarra neroian, Jauna! Uste dot b:de bagc niñoia'a, Zuk bertara itzul-azo ezik, Zu barriro neure ondoan ikusiz, on guztiak ikusi dodaz eta. Ez jat etorri lanik, Zuri begiturik zelan egon zintzazan epaikarien aurrean, jasateko on egin jatan'.k. Lagun ain ona aurrca eukirik, buruzagi ain onaz, sufritzean aurrelari jarri zana, edozer gauza jasan daiteke. Laguntza dau ta adorea

emoten; ez dau iñoiz utsik emoten; benetako adiskidea da. Nik argi-argi dakust, eta gero ikusi dot, Jainkoa pozik euki ta mesede aundiak egin daiskuzan. Glzatasun txit santu onen eskuz izan dedilla nai dau, onegan Bere Aunditasunak e:an eban atsegin izan zala. Oso serritan ikusi dot oar-ikas'z: Jaunak berak esan dausi. Geiago, argi ikusi dot ate onetatik sartu bear dogula, Jainkac bere ezkuia guri erakustea nai ba'dogu.

7. Olan ba, zuk, Aita jaun (I) orrek, ez eizu beste bidc-rik opa izan, begiztatzearen gaillurrean egonda be. Ziurtasun aundiaz zoaz emendik. Gure Jaun onegandik datorkiguz on guztiak. Berak erakutsiko dauku bear dana; beronen bizi-moldeari begiratu ezkerro auxe dogu eredurik onena. Zer geiago gura dogu adiskide ain zintzo leiala aldamenean eukiaz? Ez, ez gaitu itxiko geure lan eta nekeetan, mundnak cgin daroan legez. Zorionekoa benetan A egiaz maite dauana ta beti bere auzoan dakarrena. Ikus San Pablo aintzatsua, Jesus izena beti aotan ekarrena, biotzean ondo josita eroian lez. Nik arduraz begiratu dot au, berau ulertu nebanetik, santu batzuk, otoizlari aundiak eurak aurrean izanik, eta bidc ortatik ebiltzanak ziran, Frantzisko deunak bere zaurietan erakusten dau ori, Padua'ko Antoir'o deunak Lfñre Jesus' ekin, Bernardo dcunak Kristo'ren Gizatasuna ausnartuz eukan bere atsegiña, Siena'ko Katalina deuna eta beste asko, zuk nik baiño obeto jakingo dozuzunak.

8. Edozein gorputz-iduri bazter iztea ona izango da ziur asko, pertsona txit gogo-za'eak olan erakusten dabe'ako; nire eritxiz, baiña, au arimea guztiz aurreraturik dagoanean izango da, ordurarte ba argi dago Eg'llca sorkarien bitartez billatu bear dala. Dana dozu, Jainkoak arima bakotxari egin oi dautson grazia zelakoa dan; nik alan be cz dot onetaz eztabaidarik sortu nai. Adierazo gura neukena da au ez daiala

(1) Olan dei dagitso Toledo'ko Aitn Gartzia'ri, Oropesa'ko Koruleen semea zalako, beai- barla.

iñok nastau Krisio'ren Gizatasun sagaratuaz. Puntu au ondo ulertzea, egoki be egoki dogu; nik argi nai neuke berau azaldu ta aitzen emon.

9. Jainkoak sorgortu nai dabezanean aalmen guztiak, azaldu doguzan otoitz modueian esanda itxj. dogunez, argi dago, guk gura ezta be, Gizatasunaren aurrez aurre egote au kentzan dala, noberak naiezta be. Ordu onean izan dedilla berau! Eta zorioneko galtzea galiz^n dogu'a irud.tzen jakuna baiño geiago gozatzeko da-ta. Arimea orduan bete-beteian Jaunari emona dago, adimena A ezagutu nairik nekatu dan lez A maitatzen nunbait, eta ulertu ez ebana maitatzen dau eta len ain beterik gozatu ezin izan ebana oso-osorik gozatzten, bere kabuz galtzen joan ezik, diñodanez, geiago irabazteko. Guk alan be ardura ta trebetasuna ipiñi oi dogu geure indar guztiz aurrean ez ekarteko (eta Jainkoari on ba'lekio beti izatea), Gizatasun txii santu au, barriro diñot, gauza ona ez deritxadana; bide ontatik dabillen arimea, bidez bide ez dabil esan oi danez aizean zear baiño. Jainkoaz be'ea dala uste izanarren, eusgarri barik dabil; lur gaiñean b'zi ta gizakiak gareanaiño, oba dogu Jauna giza-irudiz aurrean ekartea. Auxe da nik aitatu dodan beste eragozpena. Lenengo, esaten asi nintzanez, apaltasunlk eza da apur bat beintzat, Jaunak berak jaso baiño len arimeak berak gorantz jagi nai izatea, Kristo'ren Gizatasuna baizen gai ederra ausnartzeaz ase eziñik, eta Marta'gaz lanari ekin aurretik Maria izan nairik. Jaunak ori gura dauanean lenengo egunetan be, ez dago zetan bildur izanik; baiña, beste bein be esan dodala uste dodanez, gabiltzan neurriz. Apallasun gitxiren samartxo au, ezer ez dala iruditu arren, so-aldi ta ikuste-arloan aurre-ratu nai dauan arimcarentzat, beti izango kaltegarri oso.

10. Bigarren eragozpenera biurtuz, gu ez gara aingeru, guk gorputza daukagu. Aingeruena egitea nai izaten, lur gaiñean bizi gareala, eta ain lur gaiñean bizi nintzan ni, erokeria da. Pentsamentuak geienelan zek eutsia bear dau, arimea batzutan beretik urtenda dabil, edo-ta Jainkoaz betea, eta ez

dau bear soriuriko ezer beraganatzeko. Au ez da baifia arin arrunta, ar-emon eta eraso-aldi ta neke-lanetan ainbeste atsc-den euki ezin danean, eta liortasunak estutzen gaitun egunc-tan, guztiz adiskide ona dogu orduan Kristo. Gizaseme lez begiratzan dantsagu orduan, argalkeri ta lanetan ikusten dogu, eta lagun jaku, eta pizkat aitu ezkeru, erreza da geure ondoan eukitea iñoiz ez bata ez bestea ez'ñak ba dira be. Onetarako ona da, esana dodanez, espirituzko gozo-pozen billa ez agertzea; datorrena datorrela, gurutzeari oratzea, gauza aundia da. Poz-atsegin barik gelditu zan Jaun on au; bakar bakarrik itxi eben neke-miñetan. Ez daigun guk itxi, gorago igoteko Berak emongo dausku eskua, gure ale-giñak baiño obeto. Egokien deritxanean bear bada urrinduko da gugandik, baifia esan dot, arimea beretik atera nai daua-nean.

11. Benetan atsegin aundikoa jako Aita Jainkoari ari-meak apaltasun betez bere Semea bi^artekotzat artzen dauala ikustea. Oso maite dau, eta Jaunak, esanda daukat, b"gi-ikuste guztiz goira iaso naia daualarik be, ez dau bere buma ortarako ikusten. Pedro sanhiasaz esanik: «Alde nigandik. Jauna, oekatari bat naz-eta». (*Lk.*, V, 8). Au nik neugan ikusia dot; edu onetan eroan dau Tainkoak nire arimea; beste batzuk esan dot, beste zear-bide batetik joango dira. Nik ulertu dodana dozu, otoitzaren zimentarri guzti au apal-tasunean oiñarritua doala, eta arima otoizlaria apal-etsia"o ta Jainkoak gorago dala. Ez dot uste mesede nabarmen-na-barmenik egin daustanik, gero esango dodazanen artekoeta-tik, neure burua ain ezerez lrintzala ikusirik, urtuta nengoa nean baiño. Orrez gaiñ Jauna aparteko gauzak adierazten alegindu oi zan, nik nevire burua ezagutu nengian, nik cgun-do iruditut be egin bako gauzak noski. Nik uste dot, arimeak bcre aldetik zerbait dagianean alkarte-otoitz onez baliatzeko, asi-asieran probetxugarri jakola begitandu arren. buruan sar-tuta daukat, ondo oiñarritu bako etxea lez, laster jausiko dala oster a be. Bildur naz erabat olakon ez dala iñoiz elduko es-pirituzko txirotasun cgi-egiazkora, Zer da bcrau? Fz liilln

pozik ez atsegiñik otoitz-aldian, onezkero itxita dagozan lurrekoen orde; bai, oster, billa begiz arimeak poza ta atsegiña neke-lanetan, beti orreitan bizi izan zan Jaunaren maitasunagaitik; eurotan eta liortasunetan barruko bakea galdu barik iraun. Zerbait sentidu arren, ez alan be kezka ta naigaberik pertsona batzuk euki oi dituen, adimenaz beti lanean eta deboziñoa eukiaz, uste dabe dana galdurik doala, euren lanaz ainbat on merezi izango ba lebe lez. Ez diñot alegiñik ez egiteko ta Jainkoaren aurrean ardura bage egotekorik, baiña pentsamentu on bat be euki ezin ba lebe, beste bein be esana daukadanez, ez daitezela estu ta larri bizi. Probetxu bako mirabeak gara, zetarako gai gareala uste dogu?

12. Guk au ulertzea gura dau Jaunak, eta egin daigula esanda itxi dogun gupillaren bidez potzutik ura ateraten dauan astotxoaren antzera, begiak itxirik bada ta dagioana ulertu bage, ortuzaiñak bere arreta guztiz baiño ur geiago aterako dau-ta. Askatasunaz ibilli bear da bide ontatik zear, Jainkoaren eskuetan jarrita; Aren Goitasunak gura ba' gaitu bere nagusi egin eta kutunen ezkutuko arteko iziteraiño jaso, ar daigun gogo onez grazi ori. Orrela ezpalitz, gaiakozan zerbitzari egikizun apalagoetan eta ez jarri iñoiz be tokirik duiñenetan, noz edo bein esan dodanez. Jainkoak gutaz geuk baiño be ardura geiago dauka, eta ba-daki bako-txa zetarako dan. Zetarako ibilji norbere burua eraz ipiñi nairik, bere naia osorik Jainkoari emonik daukana? Niri deritxadanez, askoz gitxiago sufriduten da emen lenengo otoitz-maillan baiño, ta kalte geiago egin oi dabe, izatez gaiñetiko onak dira-ta. Norbaitek abots txarra ba dauka, abesten saiatu arren, ez jako obetuko; Jainkoak emon gura ba dautso, berak ez dau zctan ibilli zarataka abots ori azi naiez. Eska daiogun, ba, beti egin da'skuzala mesedeak, baiña eska daiogun apaltasunez, menpetasunez eta Jainkoaren esku-zabaltasunean uste osoa ipiñiaz. Kristo'ren oiñetan egoteko baimena daukan ezker, ez beite anclik aldendu, bego antxe nai dauanez, Madalena'ren antzera; eta olantxe, arimea sendotu daitenean, Jainkoak basamortura eroango dau.

13. Zu, ba, Aita ori, nik baiño experientzi geiago euki ta gauzak obeto dakian bat idoro arte, zagoz idatzi dodan onetan. Jainkoagandik gozotasunak artzen asten diran pertsonak ba'dira, ez eg'ezu siñistu olakoai, probetxugarri jakela uste bait dabe, alkarri lagunduz gozo-atsegin geiago artuko dabelakoan dabiltz eta. Oi, Jainkoak nai dauanean ederto bai agertzen dala laguntzatxo orreik barik be! Gure edozein alegin gorabera, Berak daroa gure espiritua erraldoi batek galtzu-izpi bat artuko leuken legez, eta ez dago ari gogor egiterik. Era ona, Berak nai dauanean, zapoak bere indarrez egaz dagian itxaroten dauala uste izatea! Oraindik gatxago ta astunago dala deritxot gure espiritua gora jagitea, Jainkoak jaso ezik; lurrez beterik eta milla eragozpenez zamaturik dagoalako, ez dautso asko balio egaz egin nai izateak, bere berezko izatea zapoarena baiño geiago izan arren, lupetz artean sakon sartuta dago ta eziña jako bere erruz galdu ebalako andik urtetta.

14. Gai au amaitu nai dot, esanik: Kristo'gan pentsatzen dago bakotxean gogora ekarri bear dogula ainbeste grazia egin euskuzunaren maitasuna, eta zein aundia erakutsi euskun baita Aitak Aregan bere samurtasunaren baimena emonaz; maitasunak maitasunari dei egiten. Gu ezerezak eta kaskarrak izanda be, au begi aurrean ekarten alegindu gaitetzan, maitasunerako gertu egonik, Biotzean maitasun au ixio-tzeraiñoako grazia Jaunak egiten dauskunean, errez egin oi jaku edozer, eta epe laburrean, neke oso gitxigaz, aurre-rakuntarik ederrenak egingo doguz. Egin beisku Jaunak maite-su orixe bcar-bearrekoa jaku-ta; Berak eta bere Seme aintzatsuak, gugaitik ainbeste sufridu ebanak, izan euskun maitasun aundiagaitik.

15. Itaun bat cgin nai neuskizu, Aita: Jaunak atima batj mesede ain garaiak astean, begizatze ostean adibidez, arimea be zergaitik ez da beingoan osotua geratzen? Gauza argia dala dirudi, olako zer arrigarria artzen dauanak, ba berezkoa da lurreko beste poztasunik ez gura izatea. Geiago

oraindik: zer dala-ta, gaiñezkaldiak ugaritzen diran neurriñ-n, arimea esan daiteke, graz'ak artzen egiña orain, ba-dakartzala dirudi ondoren garaia goak, gero ta geiago lurretik aldendurik doala? Zergaitik Jaunak jaso daroa osotasunera apurka apurka unetxo baten osoz santututa itxi leikealarik? Gero, izan be, egunak joan egunak etorri, Jaunak berak izten dau birtutezko osotasun betean. Auxe da nik jakin gura neukena, ez dakit eta. Orraitiño ba-dakit ez dala bardiña Jaunak emoten daben kementa, asi-asieran ain zuzen, mesede au begien itxi-edegi batekoa baiño ez danean eta ia-ia izten dauazan ondorenetan naiz grazi luzeago egitean, ez bait da sentitzen. Eta sarri iruditzen jat arimea osorik gertatzen ez dalako ete dan, Jaunak astiro-astiro ta urratsez urrats bcrau azi-azo ta erabagia artzera eroan arte; orduan bai, giza-indarrak artzen ditu, dana bertanbera itxi ta aurrera egiteko, eta au epe laburrean, Madalena'gaz egin eban lez. Bardin dagi Jaunak beste pertsona batzuekaz be, baiña beti ori egiteko askatasuna izten dautsoen neurrian. Egin-eginean ez jaku errez Jainkoak bizitza ontan bateko eun emongo dauskula siñistutea.

16. Urrengo antz edo alderakizun au be buruan nerabillen nik. Aurrei-atuai ta asibbari diranai emoten jaken janaria bat-bera da; askok jaten daben janaria lez nunbait, eta berau gitxi jaten dabenak unetxo baten bakarrik daukie orren zapore ona; asko jaten dabenai, lagungarri jake indartzeko, janariak bizia ta kementa dakarskulako. Eta bertatik, bizia dakarskun jaki onetatik asetzeko beste artu geinke, eta bertatik ezik cz dogu bcsterik jaten. Ogi onegaz ase-bete dan arimeak ba-daki zein onuragarri jakon, cta onen gozotasunera egifia dagoan ezkeron, bizi ez izatea gurago leuke jateko gozoak itxi eutson zapore ona uxatzeko baiño ez litzakiozan beste gauza batzuk jan baiiio. Lagun atsegingarri ta santu baten alkar-izketak be cz dau egun askotan lango probetxurik, ez dau egun baten egiten; aregaz artu-emonak eukiaz, baiña, egun mordoan gertatu leiteke, Jainkoak laguntzen ba dausku, gu be aren antzeko biurtzea. Azken ba-

tean, Jaunak zelan nai dauan dago gauzea, eta nori egin nai dautson grazia. Grazia oneik artzen asten diranentzat, alan be, garrantzi aundikoa da erabagi sendoko agertzea, danetik askatu ta mescdi-ak eukiaz dagokion gora ta on-eritxi ederrean.

17.—Orobat Jainkoa ustc dot, orain bata gero bestea, aztertu ta ikusten dabillega nok maite dauan ziur asko; fedea ilda ba'dago, biztu-azo nairik, ondasunak emongo dauskuzan gozotasunez beteriko jaun aundi nor dan adierazo nai, onela esanez: «Begira, ondasun itxaso oparo-oparoko tanta besterik ez da au». Ez dau ezertxo be egiteko itxi nai maite ditunakaz; eta maitasun orri erantzun oi dautsenai, eskua luzatuz, oparo damotse bere grazia, baita Berbera be oindiño. Maite dauenak maite ditu; eta bai maitale ona! , bai adiskide leiala! Oi, neure gogoaren Jauna! , eta nok euki leikezan itz egokiak aitzen emoteko Zugan uste ona daukcnai emon oi dautsezuela, eta zer galtzen daben mailla onetara eldu ta euren buruai itsats'rik gelditzen diranak! Zuk. Jauna, ez dozu au gura; Zuk ba, Jauna, au baiño geiago dagizu, nirea lako etxc baldanera etorten zara-ta. Onetsia izan zaitez betiren beti.

18. Zuri, Aita, barriro deskatzut, otoitzaz idatzi dodan gauzok otoizlarlakaz ikustea, ondo, baiña bide bat bakarretik ibilliak ba'dira, edo-ta erdian geratuak, ezingo dabc gauzca bear lez ebatzi. Ba-dira arima batzuk Jainkoak bide oso eskutu ta jagietatik azi-aziaz daroazanak, eta onakoak usteko dabe besteak be b'de ortatik ibilli zirala adimena bake-azo gorpuzki zera kasurik egileke. Eta zer? Eta zuurtasun gitxiko ustekari oneik egur-zati bat baizen legor geratuko litzakez. Ba-d;ra beste batzuk azkenez atsedenezlco otoitz pizkat eukitera eltzean, bsrtatik uste dabe, bata daukien ezkerro beste goragokora be igaro leikeela; eta, esan dodanez, aurrerantza eg'n orde atzerantza egingo, probetxuren bat atera bage. Gauza guztitan zuurtasuna bear da, la zentzuna. Jaunak, ona danez, b'ak emon beiskuz.

XXIII ATALA

*Barriro dalar bere biz'Uza edestera. — Zelan
ela zelako bideak artu zituan otoitzera zuzentze-
ko. — Atal garrantzitsua otoizlañentzat. — Asie-
ran batez be zelan jokatu bear daben. — Bera ain
gora joan ba'zan, maisu onak euki ebazalako zala.*

1. Orain barriro nai dot asi neure biziaren kondaira, itxi neban unetik (IX ataletik). Otoitzari buruz, uste dot, jardun dodala bearra zan baiño geiago, alan be datorrena esana baiño obeto ulertuko da. Liburu barri bat izango da emetik aurrera, eta, bizi barri bat; neurea izan da orain artekoa, neuk bizi izan dodana; otoitz gauzak azaltzen asi nintzanetik ba, begitantzen jatanez, Jainkoa bizi zan nigan. Izan be, eziña zala uste dot nik epe ain laburrean oitura, ekandu eta egite ain txarretatik urtetea. Onetsia izan bedi Jauna neuregandik askatu ninduna!

2. Jaus-zori, arrisku ta eretietatik alde egin eta otoitzari gogotsuago emonik, mesedeak egiten asi jatan Jauna; eurak niri emoteko ez eben bear, antza, nik artu nai iza-tea besterik. Aren Aunditasuna asi jatan atsedenezko otoitza eta sarri alkartasunezkoa, luzaro irauten ebana, oso sarri emoten. Niri, garai onetan, emakumezkoetan lillura aundiak (1) eta deabruagandiko iruzurrak ugaritz^n asi •dralarik, bildurra sartu jatan eta bizi-bizia sartu be, ekarstan gozotasuna ta atsegiña sarri estaldu eziñak zirala-ta, batez b"\\ Beste aldetik, baiña, otoitzean nengoala bereziki, senclo zuri-

(1) Kordoba'ko Madalena aiztea ta boste lilluratu batzuk dakaz gogora.

tuta nengoan a Jainkoak cmoniko grazia zala-ta bertatik urteten nintzan obeturik eta kementsuago. Baiña pizkat adia galdu ta okertzen ba'nintzan, bertatik etorkidan leengo bildurra, buruan irauliz deabruak nai ete eban a ona zala niri ulertu eragifia, adimena galduazo gogozko otoitza laga nengian, eta alan Kristo'ren Nekaldia gogora ekartea be galazo. Adimenaren jarduna osorik eten ezker, gogozko otoitz-egitez gabetzen nindun, Kristo'ren Nekaldia pentsatzeari be zoztorrak jarriaz.

3. Adimen-jardun au kentzea ez neban nik errez uler-tzen, eta oso kaltegarri iruditen jatan berau. Jaunak baiña argia emon nai eustan dagoneko, iraindu ez nengian aurre-rantzean, eta ezagutu zenbat zor neutsan. Diñodan bildur au, bitartean, asko geitu zan eta espirituzko gauzetan ja-kitun ziran pertsonak billatzen asi nintzan arduraz, areikaz artu-emonean sartu naita. Batzuen barri eldua zan orduko nire belarrietara, Jesus'en Lagundikoak ona orduko etorriak ziran, eta Lagundi au niretzat, eurotatik iñor ezagutzen ez neban arren, oso begikoa zan, erioen bizitzari ta otoitzari esker; baiña ez nintzan duin aurkitzen eurekaz itz egiteko, ezta bizkor euren mende jarteko be; eta cnek bildur geiago sartzan eustan, areikaz artu-emonu euki ta n'ntzana izateak, ba, gauza gogorra iruditen jatan.

4. Naas-maas onetan ibiJli nintzan aklikada baten, gero bildur artean eta neuregan igaro neban ulert-ezifiaren ondo-ren, pertsona otoizlari bategaz itz egitea erabagi neban, neu-kan otoitza zer zan itaunduteko; oker ba'niñoian, emon eidala argia, ni Jainkoari iraiñik ez egiteko al neban guztia beteteko gertu nengoala-ta. Neugan ikusten neban sendota-sunik-ezak, ba, esan dodanez, egiten nindun bildurrez egotera. Au bai iruzur itzala, ene Jainko! , ona izan nairik onetik uxatzen! Onetan ipifii bear dau deabruak berea ta bost, birtuteak lorturik bizitzen asten diran arimakaz batez be. Naspil utsa jatan au. Gaizto arek ba-daki Jainkoaren adis-kide izatea dala arimeak daukan osabiderik aaltsuena; nik,

alan be, ez neban iñoiz asmo sendorik artzen ori cgiteko. Bide oneratu bearra neukan eurrenik, otoitza itxi nebanean legez, eta bear bada ez neban egundo egingo, oitura ta ekan-du txarreko gauzatxoetan oso jausia nengoalako, txarrak ziranik iñoiz be ulertzera eldu bage. Orduan somatzen neban nik andik urteteko beste ba^zuen laguntasuna, esku bat bear nebala jagiteko. Onetsia izan bedi Jauna, azken baten Bera izan zan-eta aurrenik eskua emon eustana!

5. Otoitzean gorago ta nire bildurra aurrerago joiala ikusirik, uste izan neban onetan ba egoala ona edo kalte aundia. Orain, oster, ba-nekian neukana izatez goitiko zer bat zana, batzutan ezin neutsan eutsi-ta; neuk nai nebanean a eukitea be eziña jatan. Pentsatzen asi nintzan nik ez neukala beste biderik kontzientzia garbi eukiten alegindu ta galzori guztietatik urrintzea baiño; pekatu ariñak be itxi egin bear nebazan, Jainkoaren espirtua izanik argi egoan irabazia eta; deabruarena bazan, nik pena emon bear neutson Jaunari ta beroni iraiñik ez egiten saiatu, deabruak alan ez eustan ka'te egin al izango, eta bai maltzur au geratuko zan galpen aundiaz. Auxe egiteko asmea artu ta Jainkoari beti lagundu eistala eskatuz, egun batzuetan orretara jokaturik, nire arimeak ez eukala ikusi neban kemenik olako osotasunean aurrera bakarrik egiteko. Zergaitik ete? Gauza batzui neutsen griña ta zalekeriagaitik, berez txarrak ez zirala be, dana ondartzeko naiko ziralakoa.

6. Leku onetan bizi zan eleiz gizcn iakitun (2) batez itz cgin eusten; bizimodu onekoa, eta beronen ontasur.a (3) Jau-nak jenteai adierazten asi-barria. An zan gizaseme andiki baten bidez nik aregaz berba egitea lortu neban. Zaldun au ezkondua da, bizitza ona ta eredugarria daroana; otoizlaria ta urkoaganako maitasun berokoa, ontasuna ta ontasuna dariola ain zuzen. Eta errazoitan, arima askori beronen bitar-

(2) Gaspar Daza.

(3) Frantzisko Salzedo.

tez benetako ona etorri izan jake; eskola aundikoa, bere ogibideak itxi ezta be, arei egitez lagundu bearak artegatzen dauana. Adimen aundikoa, eta otzana guztiz, ezta astuna aren autua, leun-eskertsu baiño; aren aotiko berbak beti dira artezak eta santuak, berarekin artu-cmona daukenak bcti poz-bitsetan murgildurik. Oro dagi berbetan dkrduenen ari-raen onerako, ta ez darabil diru-goserik, eta bai sufritzen ikusten dituen guztiai lagundu eta pozez bete-azo.

7. Gizon santu ta on au, berc trebctasunaz uste dot nik asiera izan zala nire arimea zeruratu zedin. Arriturik nauka aren apaltasunak; berrogei urte asko gitxiago ez (ez dakit bi edo iru gitxiago), dira otoitzari d'iarduala, ta bere bizibideak eska laiken zintzo-leialena daroana, itxura danez. Jainkoaren morroi zindo ta danakin maitekor izan zan, baita bere emaztea be, Jaunak aukeratua azken baten, Bere zerbitzari on utsa izango zala ba-ekian-eta. Aren senitartekoak nire senideakaz ezkondata egozan; eta artu-emona eukan gaiñera, barru-barrukoa euki be, Jainkoaren beste zerbitzari aundiategaz, neure lengusiña batekin ezkondata egoanaz.

8. Bide onetatik, ba, alegiñak erre nebazan diñodan eleiz-gizon au nigaz itz-egitera etorri zcdi'n; beronen adiskide miña zan Jainkoaren zerbitzari au, eta nik onegaz autor-tu nai izan neban, eta neure maisutzat artu. Etorri eragin eutsan, ba. Ni, baiña, lotsaz gorri, g'zon a:n santuaren aurrean aurkitzean. Neure barruaren zati bat azaldu neutsan, eta nekarren otoitz-erea; ez nindun akn be antortuz entzun nai izan; lanpetuegi ebillela esan eustan, eta egia zan, izan be. Erabagi zintzoz asi zan ni arima sendo bat bai nintzan aurrera eroaten, ezelan be Jainkorik ez nengiala iraindu eskatuz. Eta errazoiz eskatzen eustan au, ni nengoan otoitz maillari begiratuaz. Ain tinko ta erabagitsu egoala ikusi nebanean utsegite txiki areik nik laga nengizan eta nik ez, diñodanez, areik itxi ta bcnetan zea'z jokatzeko sendotsunik, asko naigabetu nintzan. Eta konturatuaz ni, arek nire ari-

mako gaczak zirt-edo zart kolpez atondu bcar ziran !ez ar zcn ebazala, eta gidari baten premiaz nengoala, eroapen aundiz beroni burua makurtu ta men egitea erabagi neban.

9. Orduan ulertu neban arek burutan ipinten eustazan bideak etzirala niretzat, arima osoago ta aurreratuagocntzat baiño; ni, Jainkoaren mesede ta doaietan aureratua nengoala be, birtute ta buru-ukapenetan asi-barrien maillan aurkitzen nintzala oraindiño. Eta egi-egiaz, aregaz baiño artu-emonik ez eukitekotan, nik uste dot etzala iñoiz be lrre arimea aurrera joango. Arek agintzen eustana ez nebala egiten, eta indarrrik be ez neukala oti egiteko ikusirik, onek ekarstan naigabea naiko zan itxaropena osorik galdu ta dana bertanbera izteko. Batzutan miretsirik geratu oi nintzan arimak Jainkoagana zuzentzen asteko grazi berezia eukana izanik, zelan gai etzan izan nirea ulertzeko, ezta berau bere ardurapean artzeko be. Orain dakust guztia izan zala neure one-rako, nik Jesus'en Lagundikoak lako jente santuak ezagutu ta eurakaz artu-emona euki nengian.

10. Zaldun santu onekin geratu nintzan oraingo, noizik bein ikustaldiren batzuk egin eustazala esanaz. Emen agertu zan aren apaltasun aundia, ni lango pertsona ziztrifiaz tratua eukitea nai ebalako. Asi zan ikusiz etorten eta ni bizkor azten, eta ez uste izateko egun baten baztertuko nintzala guztitik, astiro ta ariz-ariz Jainkoak egingo ebala zera; bera iñoiz txikiagoetan egon izan zala eta azkenez loturak ausi ta aurrera egin ebala. O apaltasuna! Zenbat on egiten dautsozan zugaz jantzi diran arimai, eta berau daukanekana eltzen diranai! Santu onek (egiaz, nik uste, ezar nengiola izen au) esaten eustan, argaltasunak, ari apala izanik olan iruditera guztiz astuna zan eurak eroatea. Ez diñot au esatearren bakar-bakarrik. Zirimara nenbillela iruditzen, zcrbait luzatuz; guzti au alan be inoortantzi aundikoa da, zein arimearen len-aurreradaketako zein, esan ci cinez, o'ndifio himarik ez daukan gogoari egazera bultz eragiteko; emendik igaro ez danak ez dau au sinistuko. Eta nik uste dodanez,

zu, Aita, Jainkoaren maitasunez arima askoren laguntzaille izango zareala, emen diñot, auxegaitik luzatu nazala gogoz gai onetan, jakin daitcn niri osasun osoa ni czagutu nindun gizon apal ongillc aregandik etorri jatala; arek izan cban croapen errimeaa, baita sufrimcntua bc, cz nintzala bat-batean zentzatu ta oberalzcn ikusiaz. Zuur eta zentzunez ebillen, baktxean zerba.it adierazo ta emoten. eustala, deabruarcn maltzurkeriak azpiratzeko. Txeratsu niñarduan nik aregaz, maitasun aundiz; nik ikusi ncroian egunean baizen atsedcn beterik cz egoan niretzat, bcrau gitxitan zanarrcn. Ikustaldia luzatzen ebanean, asko naigabetu oi nintzan, ziztriña nintza-lako ez ninduala ikusi nai usc izanik.

11. Lenengo egin eustan ikustalditik obetua sentidu zan pizkat nire arimeaa, baiña utsegitez betea zan oindiño, utse-gitez betea bai, eta bear bada pekatuz. Gero, pizkat ezagutu nindunean eta nik, beti argi-billa, azaldu neutsazanean Jainkoak egiten eustazan mesede ta graziak, esan eustan bata ez etorrela besteaz, esku-erakutsi ta doai areik, buru-ukapene-tan oituak cta santutasunean aurrcratuta egozan pcrtsonen gauzak zirala, bildur izateko zala oso, espiritu gaiztoa gauza batean ebillela begitandutcn jakola-ta. Ez eban azken eba-tzirik gatzatu ta garbi esan, baiña bai ekin ausnar nengiala ondo otoitz erari buruz ulertzen neban guztia. Eta berari adierazo nengiola erabat. ALIXC bai lana! Nik ez nekian cz asko ez gitxi, esateko eran, zer zan neroian otoitza; orain-tsukoa da, ba, Jainkoak cgin daustan mesedea, au da, otoitza zer dan uletru ta berau zelan adierazo jakiteko grazia, ziur asko.

12. Au esan custancan, nik lcndik nekarren bildurraz, a'undia izan zan sortu jatan atsekabea, eta negar-malkoak ugari. Egiazki nik atscgin emon nai neutsan Jainkoari, eta ezin neban etsi ez buruan sartu an dcabruaren jokua ebi-llenik, bildur nintzan alan be Jainkoak ez etc nindun itsu-tzen ez ulertzeraiño ncure pekatu aundi.ikaitik. Irakurteari Jotti nintzakon, libuructan aurkitu nairik neukan otoitzaz

zerbait esaten ete eben, eta idoro neban alako *Mcudira Igo-nera* deritxon batean (4), arimea Jainkoaz alkartzen dana ikutzen dauan atalean, nik ne;ik?.zan ezaugarri guztiakaz, ezer ez pentsatzeaz batez be; auxe zan bai otoitz au neukancan nik ezin nebala ezertan pentsatu. Marratu neban idazkortz-puntaz zatitxo au eta bialdu neutson liburua berak eta aitatu dodan beste eleiz-gizonak (5), Jainkoaren zerbitzari onak ikus egien. Esan eistela zer egin bear neban, euren eritxia izatekotan, otoitza osorik izteko gertu nengoala-ta. Zertarako sartuko nintzan ni olako arriskueta? Ia ogei urte ziran orretan ni-ñarduala, eta ez neban izan irabazirik deabruaren izurrak ugari baiño; oba zala, beraz, ez jardutea. Au be, orraitifio, gogor egiten jatan, orduko ba-nekian-eta zelan egoan nire arimea otoitzari ekin ezik. Andik eta emendik, beraz, zailki ta gatxez betea ikusten neban gauzea, ibai baten sarturik, edozein lekutara doala, arriskuz dardaraka, eta bere ia-ia ito-bcarrean aurkitzen danaren antzean. Egoera larria dozu au, eta nik asko igaro ditut onakoak, aurrerago esango dodancz, Onek garrantzi aundirik ez dauala iruditu arren, probetxua ekarri leike bear bada, espiritua zelan aztertu oi dan jakiteko.

13. Larri aundia dozu, ziur asko, igaroten dana eta arreta baizen zentzuna bear da berton, emakumezkoakaz baitik bat. Gure argaltasuna ez da txikia, ta gaitz aundira ero'n daitekez deabrua dala argi esaten ba'jako; ikusi ondo aurretik eta saiatu egon leitekezan galzorietatik eurak alden-duten; esan ixillean jar daiala ardura aundia orretan, euren artean eta besteakaz egoki dala-ta. Gomendiozko cskab'd: au dagit ixilla gordeten ez dakien pertsona batzukaitik, bai au diñot neure otoitz era zalat-a, berau bide askotxo su-fridu bear izan nebalako. Asmo obez onek eta arek itan-durik, naikoa kalte ekarri daust;, danenlako ez izanik, neuk zabal-azten nebazan. Inoren erru barik uste dot, Jau-

(4i Bernardiño Larcdo'k idatzia ta 1535'an Scvilla'n argi-lara emona.

(5) Daza Maisua.

nak nai izan cban olantxc, nik gciago jasan nengian. Ez diñot nik autortcgian eurekin gurutzatzen nebana b'ila-bal-izten cbenik, baiña neukan biklurragaitik curak argia emnn eistcn nik konfiantzea emon oi neutsen pertsonak zirnnez, ustc neban ixildu bearrez egozala, Alan be, iñoiz ez nin-izan azartu ezer ix-Itzen alako pTtsonii. Nik dmodan,') nuxe oa: zuzen, zuur jokatu bear dala oso. arimak zuzper-azoaz eta Jaunak nigaz cg'n dauan lgegez arcu be lagunduko dmi-tsela itxaronez; bestelan, niri beintzat kalte galanta egingo eusten, bildurtu bai nintzan. Neukan biotzeko min cz txikiaz, arriturik nago zelan cz custan gaitz aundia egin.

14. Emon neutsan, ba, liburua zaldun ari. Neurc b'zitzako gorabera ta pekatu batzuk be, a1 nebanik eta ondoen, arildu neutsazan. Etzan antortza, kale-gizon bategaz niñarduan eta, baiña benetan alegindu nintzan zein ziztriña. nintzan aitzen emoten. Eta Jainkoaren otscin biak ikusi eben txera ta maitasun aunditan, niri egokidana. Izuz itxaroten neban erantzuna etorri ta Tainkoaren ardurapean iniñi egiela nire euzia pertsona askori eskatuta gero. bi-bien eritxiz, deabrua zala esanaz, niri Tesus'en Lagundiko aita bategaz ar-emonean jartea komeni jatala csan eustien; nik ori bear nebala eta dei egiten ba'neutsan bati, etorriko zala, eta aurtortza orokor baten bitartez emon nengiola neure b'zi osoko kontua. zelakoa nintzan eta dana argi be argi azalduz. autortzako sakramentuaren mdarrcz erleioso ari argi geiago emonao eutsola Jainkoak. Aita areik esnirituzko gauzetan oso ikasiak zirala-ta. Ez neban czetan be a<ek esatcn eustanetik aldendu bear, nok zuzendu ezna-nenkan arrisku itzalean nens'olako.

15. Alako erantzunak bildurra ta atsekabea sartu eusten, eta zer egin ez nekiala. negarrctan urtzen ni. Olan, otoizte.gr batcn bein aisekabez cta neure etorkiznnari buruzko zalantzaz nengoala, liburu baten irakurri neban. Jau-nak eskuetan ipiñi eusten liburuan ain zuzen, Paul cleunnk iñoan au: *Leiala cta Jainkoa, cta etzaitue Arck croc.ti eziña*

jatzuen baiño deabruaren zirika gogorrangoan itxiko (I Kor., X, 13). Berba oneik poztu ninduen ezin geiagoan. Asi nintzan, ba, lanean autortza orokor bat egiteko gertatzen; idatzita ipiñiz neure bizitzako onak eta txarrak, al izan nebanik argien nekian guztia, ezertxo be laga bagarik. Gogoratzen naz, idatzi a oster a be irakurri ta ikusi nebanean ainbeste txar eta onik ia ezcr bere ez, naigabe ta kezka itzaletan urtu nintzan. Min emoten eustan baita etxean jente ain onakaz, Jesus'en Lagundikoak ziranez, ar-emonean ikusten ninduenean; bildurra emostan neure ezerez-izateak, eta onek geiago beartzen nindun obeagoa izatera, neure zorakeriak iztera, eta au ezpa-nengian, negargarriagoa nintzala. Eta olan, eleiz-zain aizteaz eta atezaiñagaz berbatu nintzan, iñori ezer ez esateko eskatuz. Ez eustan onek ondo urten, atean egozan ba egin-eginean be, deitu nindunean, eta areik zabaldu eben komentu guztian barna. Baiña, zelako zoztorrak jarten ditun deabruak, eta zenbat izu-ikara Jainkoagana eldu nai dauanarengan!

16. Jainkoaren zerbitzari, zuur ta argiari oso-osorik agertu neutsazan neure arimako gauzak (6), eta barne-arazoe-tan asko ekian arek aurrean ipiñi eustan neure egoera osoa, eta benetan bizkor-azo nindun. Nigan iñarduana Jainkoaren espiritua zala esan eustan, eta otoitz-arlor a biurtu bearra neukala, barriro be. Ez joian ondo nire goitar bizitzea, ezta ez nebala oraindik ondo ulertu buru-ukapena (eta orrelaxe zan, izan be, izena bera ez dot uste aitzen nebanik eta), ez nengiala otoitza ezelan be itxi, gero ta geiago onetan saiatu baiño, Jainkoak mesede ain bereziak egiten eustazan ezker o. Zer nekian nik Jaunak neu tarteko nai ba eban be pertsona askori on egiteko? Eta olako beste gogarte asko, eta eurakaz aurrez iragarri cba la dirudi gero Jaunak nire bitartez egin dauana. Ni izango ei n'ntzan azkenez errudun Jainkoak egiten eustazan mesedeai erantzuten ezpa-neutsen. Guzti onetan Espiritu Santua mintzatzen zala uste neban nire arimea osatu zedin, nastua geratu bait nintzan.

(6) Diego Zetina Aita.

17. Aita arek alan be, iruditen jatanez bide ez oituz eroanda, oso aldatu nindun, beste bat egiñik. Arima ulertzea bai dala gauza bikain! Otoitzean egunero Nekaldiko puntu bat ausnartu nengiala eskatu eustan, bertatik probetxu ta onura atareaz, eta Krislo'ren Gizatasunean pentsatuz egundo ez aspertzeko. Barruko alkar batze ta gozotasunai buruz, ale-giñez eutsi ta gogor egiteko, berak beste zerbait esan artean lekurik ez emoteko.

18. Pozarren itxi nindun, eta kemencz gaiñezka. Jauna lagun izan jatan, eta ari be lagundu eutson, ni zelakoa nintzan ezagutu egian, eta bidenabar ni bide artezez zuzentzeko trebetasunez jantzirik. Arek agintzen eustanetik, ezetan be, ez okertuteko erabagia arturik geratu nintzan ni, eta olantxe egin dot gaur arte. Onetsia izan bc di, bete-betea ezpada be, autor-entzuleak agindua egiteko grazia emon daustan Jainkoa; ia beti Jesus'en Lagunciiko gizon zorioneko oneik izan dira nire autorle, eta naiz-ta ez bete-betea, euren esanen jarrai ibillia naiatzue. Oraintxe bertan esango dodanez, agiriko goraldia egiten asi zan nire arimea.

XXIV ATALA

Gai bardiñaren jarraikia. — Esaneko izateak aurre-rakada izugarria emon eutsan bere gogozko bizi-tzeari, — Aurka dagitxe Jainkoaren doai ta mese-deai, baiña ortik ez datorkio obari ez onik. — Jainkoa, beti biotz zabal, gero ta mesede aundiagoak egiten.

1. Autortza onen ostean ain guri-leun geratu zan nire arimea, edozetarako gertu nengoala uste nebala. Olan, geldigeldi, autor-entzuleak orren zorrotz sakatzen ez eustan arren, barrizatzen asi nintzan neure bizimodua puntu askotan. Aurretik ez neutson jaramon aundirik egiten ezeri, uste nebanez, eta au bizkar-akulu jatan askoz geiago, Jainkoganako maitasun-bidetik nindaroan eta, ni aske itxirik eta ez bear-tua, egiten nebana maitasunez egiteko esanik bait nengoan. Orrela iraun neban ia bi illabetea, Jainkoaren esku-erakutsi ta mesedeai arpegi emoteko al nebana egiñik. Kanpo aldetik agiria izan zan nik obero egiñiko aldakuntza, Jauna asi bait jatan etxean bertan eta ezagutzen ninduen beste pertsona batzuk, geiegiak zirala begitandu eta esaten zituen gauza batzuk eroateko, biotz-adorea emoten. Eta, izan be, aurretik egiten nebanari begiratz, errazoa eukien gauza bitxia zala esanaz; baiña aurrean ipiñiz neure jantziak eta Jaunari itzemonak eskatzen eustazan bete-bearrak ikusi, labur gertatzen nintzan oraindiño.

2. Jainkoaren gozotasun-mesedeai gogor egiñaz, Aren Goitasunak berak erakustea irabazi neban. Ordurarte, ba, uste izan neban, olako gozotasunak otoitzean artu al izateko, bakartade errimea bear zala, eta ni, doi-doi, ez nintzan ausar-

tzen zirkiñik be egiten. Laster ikusi neban, orraitioño, onek ez eukala garrantzi aundirik zenbat eta gauza askotan nas-tuago ta jaunak geiago estaldu oi ninduan leuntasunez eta atsegiñez. Andik ela emendik inguratua neritxon eta eziña jatala iges egitea, ta orrelaxe zan izan be. Ezintza onek larritzen nindun, atsekabe aunditan ipinten. Jaunak barriz ni graziz ornitzen ekion, leen baiño be mesede aundiagoz nunbait, eta leengo aldean bi illabete one:tan nabariago egi-ten. Ulertu eragin nai eustan, ots batez, nik gogor egitea ez neukala eskuan. Barriro asi nintzan maite-lera artzen Kristo' ren Gizatasun sagaratuari. Eta sendotu egin zan nire otoitza, oiñari gogorrean eregitako etxearen antzean. Buru-ukapen (mortifikaziño) ta penitentzi geiagora zaletu nintzan, asko-tako gaixo-miñak zirala-ta, bertanbera lez itxita neukazanak. Autortegian entzun nindun gizaseme santu arek esan eustan oneik ezingo eustela noizik bein kalterik egin, eta Jainkoak bear bada ainbeste gaitz bialtzen eustazala penitentzirik egi-ten ez nebalako eta orixegaitik Berak egin-azoten eustazala. Atsegin ez jatazan buru-ukapen batzuk bialtzen eustazan egi-teko, nik alan de dana bete oi neban autorle a Jaunak zera-rutik bialdutako bat zala uste izanik, eta Jaunak grazia egitsola niri agindu egistan nik errezago arek agindua egiteko moduan. Nire arimeak artean gero ta biziago sentitzen eban Jainkoari egiten jakon edozein irain, naiz-ta txikia izan; eta neure gauza artean bear etzanik ba nenkarren, bera kendu afte ezin izaten neban barrurantz batzaindu. Otoitzari emona nenbillen guztiz, Jaunak laga ez nendin bere eskutik; bere zerbitzariakaz ebillen ezkerro, ez eidalda atzera biurtzen itxi. Okerkeri aundia zala neritxon eurak nire erruz lagun-abarre-koa galdu bearra.

3. Garai onetan etorri zan ona Aita Frantzisko (Borja), Gandia'ko duke izana, eta ba-ziran nrte batzuk au, gauza guz-tiai agur egiñik, Jesus'en Lagundian sartu zala. Ni autortzen ninduana, eta gorago aitatu dodan zalduna orobat, eto-rrri jatazan, aregaz mintzatu ta nekarren etoitzcraren barri berari emon nengiola cskatuz; ba-ekicn onc'k Jainkoak, Be

ragaitik asko itxiak, bizitza ontan be mesede askoz babes-
tuak eta bezuzatuak zirala. Eta ak niri entzun ondoren,
niregan ebillena Jainkoaren e?piirtua zala baiestu eustan eta
bere eritxiz ordurartekoa ondo ba egoan be, aurrerantzean
etzala egoki gogor egitea, ta otoitza asi nengiala beti Ne-
kaldiko pasarte bat ausnartuaz; eta gero, nik ortaratu barik,
Jaunak nai ba eban nire espiritua jaso, ez neutsola geiago
gogorrik egin bear, Berak nai ebana egiten itxi baiño. Otoiz-
lari aurreratu bati egokionez emon eustazan osakaia ta kon-
tsejua, experientzia gauza onetan probetxu aundikoa da-ta.
Oker jokatzea zala, esan eban, eta gogor ez egiteko geiago.
Oso pozik gelditu nintzan, baita zaldun a be; atsegingarri
jakon aren aotik ori. entzutea. Gerora be lagundu nindun,
al eban guztietan kontsejuak emonez, eta orretan, egia esan,
gauza zana zan.

4. Garai aretan tokiz aldatu eben nire autorlea, eta
nik asko sentidu neban au, barriro be leen baizen makur
izatera biurtuko nintzalakoun, ta auxe lako beste bat aurki-
tzea eziña izango jatala uste izanik. Ere mu baten lez geratu
zan nire arimea, naigabez eta bildurrez, zer egin ez nekiala.
Neure senidarteko andra batek bere etxera eroan nai izan
ninauan, eta nik alegiñak egin nituan an Lagundikoen artean
beste autorle bat aurkitzen. Jaunak olan naita, oneikaz tratu
aundia eukan andra alargun (1) aundiki otoizlari baten adiski-
de egin nintzan epe laburrean. Bere autorleaz autor-azo nin-
dun ni be, eta egun asko igaro nebazan aren etxean; urrean
bizi zan. Atsegin jatan eurekazko artu-emon, arein bizitza
santua ulertuaz bakarrik aundia zan-eta nire arimeak sentitzon
eban probetxua.

5. Aita au asi zan ni on-bideratzen. Jainkoari eder izateko,
iñostan, edozer gauza zala nik ez nebala ezer be egin barik
itsi bear. Zuur eta samur ziarduan nigaz, nire arimea ez bait
egoan oindiño sendo oso makal baiño, batez be eukazan

(1) Giomni' edo Jeronima Ulloa.

kutunkeri batzuk izteko, eurak, Jainkoa iraintzeraiñokoak ez ba ziran be, ni loturik eukiteko naiko zirala. Eroapen eta zaletasun aundiz jantzia nintzan ni, eta euroi iztea esker txarreko izatea zala neritxon eta autor-entzuleari onen barri emon oi neutsan, Jainkoari egiten jakon iraiña ezpazan, zergaitik agertu bear neban nik esker gabeko. Arek esan eustan Jainkaoren pentzura izteko gauzea, Baita errezau nengiala *Vcni Creator* ereserkia be egun batzuetan, argia emon eistan zein zan onena jakiteko. Egun baten otoitzean luzaro jardun eta Jaunari zer guztietan eder izan nakion laguntza eskatu ondoren, asi neban esandako goratzarrea eta bera esaten niñarduala bat-bateko gaiñezkaldia etorri jatan, ia-ia senetik atera ninduana. Jaunak lenengoz egiten eustan arren gaifiezkaldi grazia, au oso nabarmena jatalako ezin izan neban beronen dudarik izan. Itzok entzun nebazan orduan: *Aurrerakoan ez dot nik gura zu.k glzakiakaz ar-emanik euki tla'zun, aingeruakaz baiño* (2). Latz-ikaraz jarri ninduan onek, aundia izan bait zan barruko eragiña, espirituaren ondar-ondarrean esan bait jatazan itzok. Latz-ikara au gozotasunez betea iznn zan, eta au ikarea joanda be geratu jatan, gauzearen barri-tasunagaitik sartua, uste dot, gero urtuz joan zana.

6. Itzok ondo betetu ziran nigan. Arrezkero ezin izan dot euki olako adiskidetasunik ez poz-atsegiñik, ezta iñori txera bereziirk be, bene-benetan Jainkoaren maitale ta zerbitzari zirala ikusten nebanakaz ezik. Ezin izan dot euki ezta neure senide ta adiskideakaz be. Jainkoa maite dabenakaz edo-ta otoitzean ez diarduen pertsonakaz, ifiogaz bez, ar-emona eukitea orain gurutz alagarri ta baketsua jat. Auxe da nire ustez, nire gogoaren ari-aria.

7. Egun atatik ondo erabagia geratu nintzan edozeiin izteko, Jainkoaren maitasunarren; Berak, ba, momentu batean, ez dot uste geiago izan zanik, beste bat eginda itxi eban bere mirabea; onetaz ez eukan geiago zetan agindurik. Nire autor-

(2) Gizakunde komentuan izan zan au, 1558'an.

leak, ni onako adiskidego ta ezaupideetan katigu nengoala ikusirik, etzan ausartu zirt eta zart eurok izteko esaten. Nik neuk be, Jaunak lagundu ezik, ez neban uste andik urtengo nintzanik, neuk be, ba, alegiñak eginda neukazan ortarako, eta, oker aundia etzala uste nebalako edo, ezin jadetsi izan neban naigabe aundiz. Autorleak itxaroten eban Jaunagandik etorriko jatala aldaketan argia ta arnasa, eta Arek egin dau ain zuzen lotura guztiak apurtzeko indarra ta askatasuna emonik. Esan neutson autorleari eta laga neban oro bere aginduaren araura. Erabagi au agintzen eustanari berari be probetxu aundirako izan jakon.

8. Bedeinkatua izan bedi Jainkoa betieren beti, nik urte askoren buruan egindako indar-saiaketakaz lortu ezin izan neban askatasuna eskuratu eustalako. Nik ainbat bidar osasuna be galtzeraiñoko indarrak egin oi nituan, baiña nai nebana ez eskuratzen. Berarena, ba, altsu danarena izan zan egiñikoa, oso-osorik; eta Bera dan ezkerro gauza guztien jaun eta jabe, ez eustan ezetariko atsekaberik emon.

XXV ATALA

Zelan ulertu bear diran Jainkoak arimeari eg'm oi dautsozan berbetak, ezer entzun bage. — Onetan egon leikezan iruzur batzuk. — Zelan ezagutu?. — Probetxu aundikoa cla otoitz-mailla onetan aurkitzen diranentzat. — Jrakatsi ugaria ta ondo azaldua.

1. Onurakor deritxat azaltzea Jainkoak zelan berba egiten dautson arimeari, eta beronek ortik artzen dauan biotz-eragiña, zeuk be, Aita, ulertu daizun; Jaunak mesede au lenengoz egin eustala esan dodanetik oraifiarte, esateko daukadanean ikusiko danez, grazi au naiko sarritan egifia izan jat. Itz ondo eratuak dira, baiña soin-belarriz ez dira entzuten, entzungo ba litzaz baiño be argiago ulerturik. Fz entzuteko egiten diran aletin guztiak, alperrekoak dozuz. Emen gauza bat entzun nai ez dogunean, belarriak itxi gein-kez, edo beste zer batera aldatu, entzun arrcn, ulertu ez daiten; baiña Jainkoak arimeari nai czta lez dago oso-osorik beartua, Jainkoak gura dauana guk u^hertzeko. Emen ez dago, ba, nai izan ela ez izaterik: oro al dauan A egi-egia?; agertzen da emen gcure jaun eta Jabe lez, eta Berak nai dau guk ulertzea Berak gura dauana egin bear dala, oso ta bizi. Ondo oar-ikasiz dakit au, neukan izuikira ba aund'a zan eta beroni aurka egiten ibilli nintzan urte bian lez. Orain be egin oi dot iñoizka bide ortatiko ibillia, baiña ez dakarst etekin edo irabazi aundirik.

2. Nik azaldu ta aclicrazo nai ncukez gai onetzaz emen cgon leitekczan lillura ta iruzurrak. Egia da benetan experientzi ederrez jantzitako areik cz dabela bearko, ez gitxi,

baiña beti bear da trebe, begiratu ta oar-ikasia izatea. Emen baita azpimarratu nai neuke zelako alde dagoan eta noiz jakin geinken espiritu ona dan eta noiz txarra, edo-ta zelan izan daiteken, izan daiteke ta, ulermen berberaren irudi itsa, edo-ta gure gogoak bere kautan itz egitea; (auxe, ez dakit izan daitekenik, baiña gaur be ni baiezkotan nago). Jainkoagandik danean neure aldetik esan neike ondo ikusita daukadala gauza askotan, bi edo iru urte aurretik esaten jatazanetan, danak bete egin dirala, gaur arte bat bera be ustel urten barik; bardin beste anitz gauzetan be, eta ontatik atera daikegu, gero esango dogun lez, Jainkoaren eskua dabillek emen argi ta argi ikusten danez.

3.Pertsona bat, uste dot, berari dagokion gauzaren bat Jainkoari goraintzi naiez txera ta biotz leial dabillenean, zoezer ulertzen dauala deritxo beteko dan ala ez dan beteko berak bere erreguan eskatzen dauana. Baiña alderantziz ulertu dauanak argi ikusiko dau, batetik bestera alde aundia dago-ta. Adimenak mamintzen dauan gauzea ba'da, zuurtasunez eta gogo biziz ba'doa be, laster agertzen da berak bakarrik atondutako zerbait besterik ez dala esaten dana. Emen argi ikusten da, izatez eta egitez, zelako alde dagon itzaldi bat eratu ta beste batek esaten dautsona entzun egiten danean. Orduan ikusiko dau adimenak, berak ez dauala entzuten, berba egin baiño. Eta berak asmatzen ditun itzak zuzmur minsor, amestutakoak lez dirala, eta ez beste oneik lez Jainko-itzak dauken argitasunez jantziak. Dana dala, geurc esku dago gogoa beste gauza batzukaz nastu ta adia galtzea, eta era orretan, itz egiten dogunean, aal dogu, nai izan ezkerro beintzat, ixillera jotea; beste onetan, barriz, ez dago onako aukerarik. Beste ezaugarri bat, oin-diño argiagoa, auxe da: adimenaren itzak ez dautsola zirkiñik eragiten arimeari, Jaunaren mintzoen itzak eta egitak batera bait dira. Deboziñozko itzak izan ezta be, irain gaiztoak bear bada, bertatik, entzunaz bakarrik aldatu daroa arimea, eta gai egin oi dabe au beingoan Jainkoaren edozein zerbitzu gogoz asteko, barne-samurtuz, argaiz bete, ar-

nas gozoz ornidu ta bakcz aserik, eta leendik leor ba'egoan bear bada, edo nastua ta urduri, krik eta krak, berealakoa sentitzen dau esku batek lez kenduta, uxatzen dirala gaitz guztiak, eta beste edozer gauza oba danik be bai, antza denez Jainkoak nai daula, altsu dala ulertazo ta bere itzak, egiñak.

4. Mintzo ugari onein artean, nire ustez, guk mintza-entzun doguneango aldea dago, ez geiago ez gitxiago. Nik itz egitean, barriro difiot, neu naz adimenaren bitartez diñodana eratzen dodana; baiña beste batzuk itz egiten ba'dauste, nik ez dagit besterik areik diraustena entzun baiño, eta ez naz bape nekatzen. Mesede au, gaiñera, emon oi da batzutan burua ta arimea naspil, zabar eta entzungor dagozanean, errazoi zentzunezko bat antolotzeko gai ez diranean; alan be, esaten dautsoezan itzur eta esari ederto onduekaz aurkitzen jatzu, berak, bere barruan txit kiribilduta egon arren, lortuko ez leukezanak, cta lengo itzez, diñoa-danez, osoan aldatu oi dabez. Gaiñezkaldian ba'dago batez be, aalmenak eskegita daukazala, zelan ulertuko ditu lenclik gogamenera be ctorri etziranak? Zelen orduan etorriko ete, ia-ia ezer egiten ezpadau, eta irudimena be momorrotua dagoclarik?

5. Konturatzekoa da, ikuskariak dagozanean edo barne-itzak entzuten diranean, nire ustez, ez da egundo be olakorik jazoten arimea gaiñezkaldian urkitzen dalarik, onako uneetan, ba, esanda itxi dodnez, aalimen guztiak galtzen dira eta orduan ezin daiteke ikusi, ez ulertu, ez entzun. Dana dago beste indar batzuen mende, eta aldi orretan, labur-laburra da-ta, Jaunak ez dot uste ezertarako askatasunik izten dautsonik. Epe labur au joanda, arimea oindiño sorgor dagoala, jazoten da diñodan au. Aalmenak, galduta ez dagozan arren, ez dabe ia-ia ezartxo be egiten; konkortuak dagoz eta ez dira gai errazoirik eraz jarteko. Bide asko degoz onetan datzan alde (diferentzia) ezagutzeko; beraz, bein ba'leiteke atzipetua izatea, baiña ez askotan. Ari-

ma oituak eta ardura pizkat daukanak, gauza guztia ikusiko dau argitasun zabal-zabaletan.

6. Esan dodana ondo iragarten daben beste ezaugarri batzuk albora itxirik, ezer ez dabela egiten beti dozu egia, arimeak be ez ditu onartzen, Jaunagand.k datozanak barriz, berak nai ezta be, onartzera beartua dago. Oni gaiñera ez dautso federik emoten, bestera adimenaren ames zoroa dala deritxo, eta ez jako jaramonik egiten ero-aldia daukala dakizun pertsona bati egingo leukioenari baiño geiago. Beste au, oster, pertsona santu ta jakitun bati entzungo ba' geuskio lez da, ez dauskula guzurrik esango dakigun itzal aundiko bati bezela. Antz-iduri au oindifio kaskarra da, olako itzak batzutan benetako itzalaz datoz, nok difiozan gogoratu barik; agirakazkoak ba dira bildurra sartzen dabe eta maitasunezkoak ba dira maitasunez urtu oi dabe. Beste aldetik esan dodan lez, aurretik ifioiz igaro ez diranak oroimenetik eta orain momentu baten burura datoz gauza txit sakonak eraz jarteko denpora ez gitxi eskatzen dabenak. Eta orduan ezeian be ezin daikegu, iruditu be egin, geuk asmautakoa izan ez danik. Onetan, beraz, alperrekoa da geiago jardutea. Uste dot ezifia dala oitua dan pertsona iruzur ortan jaustea, berberak jakiñez jausi nai ezik.

7. Sarri jazo jat, czbaian murgil nengoala, esan daustena ez siñistutea eta neuri tarantak edo bumak emona ete zan pentsatzea (au igarota gero, une aretan eziña da-ta), alan be mesedea eginda ikusi andik laster, Jaunak esaniko berbak gogoan getatzcn dirata ezin leitekez aaztu; adimenarena danean, barriz, pentsamentuaren lenengo eragiña lez da, igaro ta aaztuten dana, Jainkoagandik datorrena egillc dozu, pitin bat aaztu ta aldiak aurrera egin arren, ezta ain galdu oi gogoak esana. Denpora luze ondoren ba'leiteke aaztutea, edo-ta samurtasunezko ta irakatsizko itzak ba dira; baiña iragarpenezkoak ez dira aazten, nik uste, auxa da beintzat niri gertatzen jatana, nire gomutamena aul eta erkiña dalarik be.

8. Olantxe, barriz esatera nator, puntu onetzaz, arima bat ezingo dala iñoiz iruzurtua izan, berak itxura egin gura izan ezik, irrika suster-bakoan, olan izan eztan zerbait entzun dauala esanik; oker aundia litzateke au. Berbera danean itzak asmatu ta beretzat esaten dauzana, ez dot uste bide ona daroanik, Jainkoaren espiritua ulertzero eldu bada, eta eldu ezpada, bizi osoan egongo litzateke engaiñu orretan, eta ulertzen dauala begitandu, nik dakidan arren zelan ulertzen dauan. Edo arima onek ulertu gura dau, edo ez; ulertzen dauana beregandik astindu naiez ba' dabil, eta ezelan be ezcr ulertu gura ez ba'leu, bildur askoz eta onako buruko min barik bere otoitzean irauteko beste motibu askogaitik, zelan emoten dautso ainbeste leku errazoiak eratzen dabezan adimenari? Denporea bear da one" tarako. Emen, bape alperrik galdu barik, eskolatuak gerezten, eta bertatik ulertzen dira eurak eratuteko illabete bear zala uste genduan gauzak. Eta burua ta arimea biak gerezten dira ikaraturik, ulertzen diran gauza batzuetaz.

9. Au onelaxe da egi-egiaz, onen experientzia dauanuk, zeatz meatz olantxe dala ikusiko dau esan dodan guztia. Eskerka nago Jainkoari, gai au onela adierazteko argia emon daustalako. Eta amaitzen dot, gogoratuz, adimenak asmautakoa ba'litz, gura geunkan guztietan ulertu geinkcla deritxat, entzuten gago'zala iruditurik, batez be O'toitzean diirdegunean. Baiña Jainkoagandikoa danean, ezta orrela. Sarri niri jazotakoa, egun askoz egonda be zerbait aditu naian, eziña izan oi jat; eta beste batzuetan, neuk nai ezta be, naitacz entzun bear. Mundua engaiñatu nai dauanak Jainko-itza lez saldurik bere adimenak sortutakoa, iruditzen jat, ez jakola gaitz izango bere gorputzeko belarriakaz entzun ebala esatea be. Eta orrela da egi-egiaz: neuk ez neban egundo uste izan beste modurik egoanik entzuteko ta ulertzeko, orixe ezik, neurez ikusi arte. Experientzia, baiña, esan dot, garestia jat.

10. Deabruagandikoak diranean, ez ditu ondoren onak izten, txartzarrak baiño. Au jazo jat niri bi-irutan baiño

geiagotan, eta Jaunak berak iragarri eustan gero zelan izan zan deabrua. Igar ta elkor geratzen da arimea; kezkatan ori nundik datorren ez dakiala, beste batzutan lez edo, Jaunak nik eukitea nai izan dabezan askotariko tentaldi ta neke-min bizieta lez; eta, jagokan lekuan gero esango dodan bezela, sarri oiñazetzen nauan arren, urduritasun bat da nundik datorren jakin ezin daiketuna. Itxura danez, ari gogor egiñaz arimea nastu egin oi da, eta naigabetu zergaitik ez dakiala, deabruak diñostana ba ez da txarra ona baiño. Iñoiz nik uste dot espiritu biak alkar ikutuan dabiltzala. Deabruaren itzak dakarren poza ta atsegiña askoz diferenteagoak dira, nik uste, Jainkoarenak dakarrenetik; baiña Jainkoak bialdutako beste gozotasunik ez daukanari edota euki ez daunari sar leikeo ziria illunpetako maltzurak.

11. Gozotasunak diñot, egi-egiaz, atsegin samur, sendo, barne-muiñerño sartua; zoragarria ta ezti-luzakorra, deboziñotxo batzuk bear bada, nik olan be deituko ez neuskioenak, negar-malkoak eta olako sentipen nimiñoak sortazten dabezanak, len loratxu antzo; asiera ta sentipen onak diranak, baiña ez espiritu onaren ala txarraren ondorenak diran ebazteko. Eta ondo da beti be kontuz eta zuur ibiltea; otoitzean aurreratu samar ez dagozan pertsonak euki ba leukiez, ba, olako ikuskari ta iragarpenak, errez jausiko litzatekez maltzuraren sare artean. Nik, dagokidanez, ez neban iñoiz euki azkenengo grazi biotakorik, Jainkoaren ontasunez batasun-otoitzera jasoia izan arte, urteak dirala Kristo lenengoz ikusi nebala esan nebanean izan ezik. Eta eder bekio orain Jainkoari au be egiazko ikuskaria zala nik ulertzea, gero naizta belu ulertu dodan legetxe, ez bait jatan mesede txikia izango. Txerrenaren itzak ez dabe, ez arimara ezer ekarten, atsekabe aundia ta izuaren garraztasuna itxi baiño.

12. Ziurtzat dot deabruak ez dauskula ziririk sartuko, ezta itxi be bere ezertzat eukirik fedean sendo dagoan arimeari; fede au zaintzearren prest dago ta milla eriotza eroa-

teko be. Eta jainkoak ixuri oi dauskuna fede bizi ta indar-
tsua argi dauala, beti doa Elizak erakutsi daroanaren atze-
t.k, arei ta onci galdetuz, egi oneitan jada abi beroa egiñik
daukanen antzera. Ez, onakoa ez leukie mobiduko puntu
bat be Eleizeak daukanetik asmatti al lcikezan iragarpen guz-
tiak bc, naiz-ta zertiak zabalik ikusi. Unetxoren baten onen
aurka bere pentsamentua zalantzan balitz edo biotzez csan:
«jainkoak ba'diraust ati, cgia izan daiteke, santuei iñotse-
na lez, niri diñostana be», nik ez diñot siñistu daiala, dea-
bruak len-eragiña lez zirikatzen asten dala (eta orretan
iraun-azo ezkerro ba-dakigu oso txarra dana). Baiña len-era-
gin oneik sarri kasu onetan, uste dot, ez dirala etorriko ari-
mea onetan sendo ba'dago, grazi oneik emon oi dautsazana
Jaunak egiten dauan baizen sendo ta gotor; onakoak, bada'
indar oragarria dau, Eleizeak txikitizat jotzen dauan agiririk
pitiñena aldezteko ta deabru guztiak zati-zati cgiteko bes-
tekoa nunbait.

13. Nik diñot arimeak ikusiko ezpaleu bercgan scn-
dotasun aundi au, eta deboziñoak coo ikuskariak ortara
bultz eragingo ezpa-leutso, ez daiala euki segurutzat. Bein-
goan somatu ez arren kaltca, apurka apurka aundia ekarri
lcikeo, nik ikusi ta ezperientziz dakidanez, Jainkoarena da-
na itsatsia geratzcn da arima barruan Idazti Deunarcn arauz
dala diñoskuna; cta cmendik urrinduz doana, gitxi izanda
bc, deabruaren egintzat neukake oso-osoan, eta au orain go-
zatzen dodana Jainkoarena dala, ziurtasun askoz aundiagoz.
Eta orduan ez dago czaugarri billa zertan ibillirik, czta ze-
lako espirituzkoa dan jakin naila, ezaugarri au argi be argi
bait dago deabruarena dala siñistuteko; orduan mundu guz-
tiak csanda be Jainkorcna dala, ez neuskio siñistuko. Dea-
brua tarteko danean, on guztiak dirudi ezkututzen dirala
arimatik iges egiñaz, au bada motzeko ta gozagaitz geratzen
da, buru-bera ta tarrapata, on-egiterik bagako. Deubruak
gurari santuz bizkortzen daua esan lcike, baiña lcрак cz di-
ra eraginkorrak; apaltasuna damotsa, baiña gtizurrezkoa da,
naspilla ta leuntasun bako. Ezaugarri oneik espiritu onaren

experientziaz alkartu ezkerro, nik uste dot errez jakin leikela nundik gabiltzan.

14. Alan eta guzti be, azpikeririk asko egin daikeguz deabruak; emendik, ez dago gauza obarik eta seguruagorik, bildur izan, beti kontuz aurrera jo maisu bat euki eskolatua, ez ezer ixildu, eta emendik ez daiteke kalterik etorri; nik, egia esan, naikoa sufritu izan dot, baiña lar bildurti zila pertsona batzukaitik. Ona emen bein jazo jatana. Jainkoaren zerbitzari asko alkarregaz alkartu ziran baten, nik siñiste aundia emoten neutsenak ain zuzen, eta errazoiz eurak nik orduan bategaz baifio ez neukan artu-emotik, eta be rak agintzen eustanean itz egiten neutsen beste batzuei; maite ninduen, eta deabruaren maltzurkeria ete zan bildurrez, barzuk era bestetzuk nire osasun billa ebiltzan. Neu be bildur nintzan otoitzean ez nengoanean; otoitzari jardunaz eta Jaunak mesederen bat egiten eustanean barriz laster urtu oi ziran nire bildurrak. Bost edo sei zirala uste dot, danak Jainko zerbitzari zintzoak. Nire autor-entzuleak esan eustan, areik danak deabruaren gauzea zala uste ebenak zirala, eta ez nebala ain sarri jaunartu bear; saia neintela arimea gauza baten barik askotan erabilten[^] bakartasunetik iges egiñik. Gorago aitatu dodanez, txito bildurtia nintzan ni; eta bildurti-bildurtia izan be, ta sarri, biotzeko mña zala-ta, ez nintzan saia batean bakarrik egoten be ausartzen, naiz-ta egun argia izan. Au, ainbatek esanda be, nik ezin nebala siñistu ikusirik, urduriz josi nintzan, au neure apaltasusik ezagaitik izango zala uste izanik. Pertsona areik, jzan be, jakitunak ziran eta nik baiño askozaz bizitza ohea eroienak: Zergaitik ez neutsen ba arei siñistuko? Eta ori egi-tcko alegiñak alegin nik egiten; eta neure bizitza ziztriña ta ganora bakoa gogora ekarriaz, errazoia izango ebela us-tc ncban.

15. Naigabe ontan aseu urten neban bein Eleizatik otoiztegi baten abaro cginaz. Egunak ziran jaunartzea kendu eustenetik, kendua baita eder jatan bakartadea

nogaz artu-emonik cz ncukala, guztiak kontra ncukazan-eta. Nik iñoiz atsekabe ontaz berba cgkean, batzuk uste neban ixeka egiten eustela, neure lillura zalakoan; beste batzuk, nire autor-entzuleari iñotsen kontuz ibilteko nigaz; irugarren batzuk iñoen, gauza argia zala tartean deabrua ebille-na. Autorleak bakarrik, naiz-ta areikaz bat etorri, nire barrua aztertu ta ikustearren, geroago jakin nebanez, beti poz-tu oi ninduan, berak esan eustan, deabrua ba litzakean be, nik Jainkoa iraindu ezik, ez eustala ak maltzurak ezer egin-go; naigabe ori aienatuko jatala; Jainkcari eska neiola biotz-beroz. Berak be eskatzen eban, baita beragaz autortzen ziranak eta beste askok be, aiegiñak egin oi zituen. Nik orabat otoitzean nekarren neure ardura osoa; bai, Jainkoaren zerbitzari leial zirala uste nebanak be ortan ziarduen, da-non artean gauza bardiña eskatuz Jaunak eroan nendilla bcs-te bide batetik. Onela urte bian edo, eska ta eska Jaunari.

16. Nik ez neukan pozik, iñolaz bc, deabruak ainbat bider itz egiten eustala pentsatuz. Ez neban bakartadea izten, ezta otoitz egiteko be, baiña Jaunak berak batu oi nindun neure barrura, baita alkar- izketa aldian be. Nik gogor egin arren, Berari edcr jakon guztia esaten eustan, eta, mingarri jatala be, Ak esana entzun bear nik.

17. Bakarrik nengoan, ba, otoitz-leku aretan, poza ekar leikedan iñortxo be barik, eziña jatan crrezuan jardutea, ezta irakurri be; ainbeste neke ta lorrez ikaraturiko pertsona 'egez, oeabruak atzipetuko ete ninduncko bildur gatzak menderatua, nasi ta artaga, opil-opil eginda, zer egin ez nekiala. Onako naigabetan ez batzutan askotan ikusi neban neure burua, baiña emen aitatu dodan baizan kezkatu egon eziñik ez dot uste egundo aurkitu nintzanik. Onela emon nebazan lau edo bosr ordu zerutik ez lurretik poz-izpirik ez etorkidala; Jaunak itxi ninduan biotz-min eta larrialdi aretan, milla galzori aurrcz-aurre nitula. Baiña, cnc Jainko, egia bai Zu zareala benetako adiskide, aaltsu zareanez, nai dozunean aal dozu, ta cz dozu sekula nai izan barik izten, mai-

te ba'zaitue! Munduko gauza guztiak, Jauna, gorets zagieza-la! O, nok egin le:ken garrasi z;in zintzo zarean zeure adiskideekin iragartseko! Gauza guztik uts egiten; Zuk, Jauna, guztien egille, ez dozu egundo utsik egiten, Maite zaitue-nai, gaiñera, gitxi Zuk sufritzen izten. O ene Jaun!, bai samur eta gozo ta atsegin dakizula jokutzen! O Zu ezik, bcste iñor maitatzen ibilli ez dana! Dirudienez, Jauna, latz aztertu oi dozu maite zaituna, neke-lanaren azken-mugan aurkitu zedin zeure maitasunaren amai goren. Oi ene Jainko, nok leukakezan adimena ta jakiteak eta itz barriak zure egiteak goresteko, nire gogoak ulertzen dauanez! Oro falta jat, ene Jaun! ; baiña Zuk izten ez ba'nozu, nik ez zaitut Zu itxiko. Jagi beitez neure aurka jakitun guztiak, betorkidaz erasoka izakiak oro, oiñazetu nagiela deabruak. Baiña Zuk, Jauna, ez naizu laga, experientziz ba'dakit eta, Zugan bakarrik uste ona dabenak zelako irabaziak lortzen dabezan olako burruketatik.

18. Neke-itomen estu onetan aurkiturik, asi barik oincliño ikuskariak eukiten, itzok izan jatazan naiko neke ori uxatzeko eta ni baketan oso jarteko: *Ez izan bildurrik, alaba\ Neu nozu, ta etzailut erabat ilxiko. Ez izan bildurrik.* Nengoan egoeran egonik, orain deritxat, ordu asko bear nebazala baketzeko, ccio-ta ortaz itzokaz soil-soil, baketua, indar-azoa, bizkor eta kementsu, segurantzaz betea, mana ta argiz ornia; une batean ikusi neban neure arimea aldatua, beste bat egiña, grazi aren emoille Jainkoa zala mundu guztiaz eztabaidatzeko eran. Zu bai Jainko on! On eta aaltsu! Ez dau onek kontsejua emon bakarrik egin oi, baita gaixotik urteteko osabidea be. Egiñak dira Aren itzak. Oi, Jainoko aundi! , eta fedea bii dala indar-azten eta maitasuna •^eitzen!

19. Olantxe da bene-b:netan. Maiz nekarren gogora Jaunak aizeai agindu eutsenekoa: geldi egon eiteza¹a itxasoan, ekatxa jagi zanean. Onela niñoan nik: «Nor da au, nire aalmen guztien esana dagin au, eta unetxo baten illunpe

itzal onetan argia egiñez, arria zirudian biotza samurtu, luzaro liortasuna besterik ez egoala zirudianari malko eztizko ura emon? Nok jarten dauskuz gurari oneik? Nok gure biotzari kemena emoten? Auxe bururatu jatan: zerez bildur naz? Zer da au? Jaun onen zerbitzari izan nai dot nik; Berari poztasuna, atsegiña eraon, ez dot opa besterik. Neuretzat ez dot pozik nai, ez atsedunik, ez beste onik, Aren naia egin baiño (au bai ziurtzat neukan, eta esan neike, eta baietz esan be). Jaun au, ba, guztiz aaltsu bada, ba-dala ikusi daroanez, eta deabruak aren jopu fedeak diñostanez, zer gaitz egin leikide orreik ni Jaun eta Errege onen mirabe izanik? Zer dala-ta nik kemenik ez infernu guztiaz burrukatzeko? Eta gurutze bat artzen neban eskuan eta begitantzen jatan egi-egiaz Jainkoak biotz-kementzen ninduala; dana dalarik, ni, denpora laburrean, aldatua aurkitu nintzan, besoz beso eurakaz burrukatzeko gertu gurutz arcgaz errez azpiratuko nebazalakoan. Eta dedar nik orduan: «Zatoze orain danok, ni Jaunaren mirabe nazala, zuok zer zarien ikusi gura dot nire aurka! »

20. Eta ikusi nebanez bildurra eusten deabruak; bake-tan geratu nintzan, eta arrezkero ez dot bildur tantarik bc izan. Geroago esango dot, deabruak agertu oi jatazala noizean bein, baiña geroztik ez deusedala bildurrik izan, eurak barriz uste dot bildur eustela. Gauza guztien Jaube ta Jaunak ekarri eustan arein gaiñ aginpide betea, eta gaur ez jataz euli bat baiño geiago. Oso ko!darrak dirala deritxat, muziñ egin eta arbuiatuak ikusiz, oillo-busti agertzen jatzuzanak. Etsaiak ez dakie aurrez aurre eraso egiten errez burua markurtzen dautsela ikusten dabenai ezik, edo-ta Jainkoak izten dautsenean; bere otseiñen obekuntzarako Jaunak nai izaten dau batzutan euren burruka ta oiñazeen b'dez obari geiago lortu. Eder bekio Aren Goitasunari guk bildur izan daio-gula bildur izan bear dautsogunari, eta ulertu daigula etor leikegula kalte aundiago pekatu arin batetik infernu guztia aurka jartetik baiño. Au orrela da.

21. Ba-dakizue deabruak noiz egiten jakuzan izugarri? Arimea oiñazetu oi dogunean ainbestc arduraz dedua, etxe-ondasunak eta atsegiñak dirala-ta. Orduan, areik eta gu batera, aurkakoak izanik, zapuztu bear geunkena maitatu ta nai izanaz, kalte aundia egingo dauskue duda barik; orduan, bai, geure izkillu ber-berakaz geure aurka burrukan ipiñiko doguz, euren eskuetan jarriaz geure burua jagon eta aldeztuteko bear doguzan armak. Tamalgarria au bene-bcnetan! Baiña, alderantziz, gurutzea beso artean artu ta Jainkoarren oro zapuztu ba'dagigu, Bera egiazki zerbkzeko alegiñak egiñez, arek iges dagi onako egiñetatik izurritik bezela. Guzurraren adiskide da, bera guzurra bera dozu-ta. Ez dau itunik egingo egitan dabillenaz. Adimena illundurik ikustean, polko lagundu oi dau begiak lausotu daitezan; bat-edo-bat ikusi ba'dagi itsu bere atsedena alperreko gauzetan, eta ain alperrekoak, umeen jolasa bait dirudie mundu onetakoak, orduan ori deritxo alako ume dalata umetzat arturik, aregaz burrukatzen azartzen da bein eta barriz.

22. Ezpei izan nai Jaunak ni olakoen artekoa izaterik. Irakas daidala baiña Berak, bere grazi zerutarrez, atsedena dana atsedena lez, dedua dana dedu lez, eta atsegiña dana atsegin lez artu ta eukiten; eta ez iñolaz be itzulietara. Orain irri ta trufa, zirika nag'ela deabru ta txerren guztiak! Ez dodaz ulertzen «txerrena! txerrena!» bildur lekatzen ez ba dautso. Zer da au? Bera bada, nik diñot, nik garrasika, «Jainko! Jainko! » csan eta izuazo daikegunean. Bai, ba dakigu-ta, ezin leikela zirkiñik be cgin Jaunak lake-tzen ez dauño. Nik jadanik deabruarena dabcn arei, deabruari berari baiño bildur geiago dautsedala; arek ezin daust ezer egin, baiña bestea, autorleak ba dira baitik bat, kezka ta egon-eziña sartzen dabe asko be asko. Nik neuk neke-min itzelak sufridu bear izan dodaz urte batzuetan; orain ez dakit zelan eroan al izan ditudan eurak. Onetsia izan bedi Jauna, laguntza ain baliotsua egin izan daustalako!

XXVI ATALA

Gai barcliñari clakio. — Zelan aienalu ebazan bilclur guztiak. — Ilz egiten eutson espiritua, ona zan.

1. Jaunak egindako grazi aundienekotzat daukat deabruen aurka emon daustan adore au; izan be koldar eta Jainkoa irainouko ete dogun bildurrez ibiltea, eragozpen, engara ta makur aundia dozu. Or daukagu, ba, Errege aalguztiduna ta Jaun egiaz gurena, oro al dauana ta oro bere eskuan daukana. Ez dogu bildurrik izan bear esan dodanez, Aren Goitasunaren aurrean egiz eta barru garbiz ba gabiltz, Onetarako gura neukez nik bildur guztiak, unetxo artan bertan eze-reztu geinkezana une baten be ez iraintzeko. Guk pozik ba daukagu Jauna, ez daukagu gure aurka egin leikenik, gure etsaiak eskuak buruan igesari emongo leuskioe-ta. Orrela dala esan daikegu, baiña nor izango ete arima au, zintzo leiala egiz, gauza guztitan Jainkoari eder izango jakona? Bildur izateko ezer ez daukona? Nirea ez beintzat, ziurrik asko, ziztriña baita, obari bako ta milla mixeriz asiun. Alin be gure argalkeriak ulertzen dabezan Jainkoak ez dau gure antzera jotutzen. Susmo asko aundiz arimeak igarri oi dau beregan maite-su zintzoz ala ez maite dauan. Mailla ontara clclu diranetan,ba, maitasuna ez dabil asi-barrietan lez ixil-m'xilki, oldar aundiz eta Jainkoa ikusteko irritsez baiño, gero esango dodanez, edo-ta jadanik esanda itxi dodanez, eta guztiz nekatu daroa, guztik eskatu ta pot eragiten, guztik atsekabetu ta mintzen. Jainkoaz edo-ta Jainkoarren izan ezik, ez daco akitzen ez dauan atsedetik, egiazko atsedena dauanagandik urrin ikusten dalako; onela, diñot, gauza argia noski an ixillik, ezarian baiarian eukitea.

2. Ona geratuten jatazan jazoera batzuk. Dalako gorabera ta garatz bat zala-ta, aurrerago mintzatu naz onetaz marmar-gai izan nintzan bizi nazan urian eta neure Ordena osoarentzat; eta naigabeturik, egiaz, zer asko bai egozan kezkarazteko. Beste aldetik Jaunak z'raustan: *Zeren bilclur zara? Ez d dakizu alguztiduna nazana? nik beteko dot aginclu dautzuduna* (eta olantxe bete zan ondo gero), eta sendotasunez beterik geratu nintzan, eta bizkor barriro be lanean asteko. Jainkoari zerbitzu egitearren, leen baiño be oiñaze ta barru-min zorrotzagoak eroateko, naiz-ta neketsuak izan, pozik eta gogo beroz. Au sarri-tan jazo jatan, zenbatez baiezte gaitz izango litzakidan arren. Askotan agiraka egiten eustan Jaunak, eta egiten daust, uts-egiteren bat daukadanean. Aren itzak orduan arimea eratxi ta apal-erazteko, eta batera dakarre oneik utsak kentzen alogintzea, Jainkoak ba, esan dodanez, batera ezar daroa kontsejua ta osabidea. Beste batzutan, batez be Jaunak olako mesele aundiren bat egin nai daustanean, gogorazo oi daustaz leengo pekatu aundiak. Aiimea orduan benetako epaitegi aurrean dagoala dirudi; egia dan lez, ezaugera argi-argitan aurrean jarten ba:t dautso, eta arima gaixcak ez daki zein zokondotan ezkutatu. Beste batzutan, baita, jakiñean jarri oi dau daukadazan arrisku batzutaz, eta alako pertsona batzukaz; etorkizun airan gauza askotaz, iru edo lau urte aurretiaz, eta danak bete izan dira; batzuk adierazo leikezanak. Azken baten, ezaugarri asko dagozalako berbak Jainkoagandikoak dirala esan geinkezanak, arimea atzipetu barik, nik uste, ain zuzcn.

3. Biderik seguruena da onetan, eta nik orrela dagit; au egin ezik, gaifiera, bakerik be ez neuke cukito eta ez da komeni emakume gareanok euki daigunik be, letrarik ez daukagu-ta; emen ez da kalterik izango probetx'u aundia baiño, Jaunak sarri esan daustan Jez. Ez, ez nebala itxi bear neure arimako gauzarik autor-entzuleari aitatu barik, autorle au izan eitela ondo eskolatua, eta nik Jaunak egindako mese-deak be iragarteko, ak iñostana egiñik. Au sarritan esan eustan. Naikoa minduten nindun autorle bat neukan orduan;

batzutan asko nekatzen nindun eta lanez josten, kezka b'zitan itxirik, baiña auxe izan zan niri onik geien ekarri eustana (Baltasar Alvarez). Txera aundia neutsola be, bera izteok asmotan ibilli nintzan iñoiz, emon oi eustazan atsekabe areik otoitzari ekiteko zoztor jatazala uste izanik. Baiña neure asmoa bete nairik nengoan bakoitzean, dei nat entzuten neban olakorik ez egiteko iñostana, eta agiri-agiriko bat autor-etzuleak egianak baifio geiago zuzitu ta ler-eg!ñago izten ninduana. Batzutan su gogor-gogorra zan; oiñaze alde batetik eta agirika bestetik, eta dana bear neban, borondatea oraindik gitxi ezita neukan eta. Jaunak bein esan eustan sufritzeko gertu ez ba'nengoan, esana egiteko be ez nengoala gertu, eta errez egingo jatala dana Berak sufridu ebanean begiak jarten ba nebazan.

4. Autor-entzule batek, bein asieran autortu nindun batek, nire zera espiritu onekoa zan ezkerro, iñori be ez aita-tzeko aurrerantzean, esan eustan, oneik gauzok onezkero ixillik jagotea oba zala-ta. Ez neban au txartzat artu, gauzak autor-entzuleari agertzea, ba, beti jatan gogorra ta lotsagarria, batzutan pekatu lodienak es.itea baiño geiago samintzen ninduen; eta au, batez be, mesede nabariak ziranean, orduan uste neban ez eustela sjiistuko eta entzuten eustenak barre egingo eustela erruki arturik. Samiñez jarten nindun onek, Jainkoaren gauza arrigarriai lotsa ta begirune gitxi erakustea zala-ta; ixiltzera eragistan guzti onek. Autorle arek orduan txarto aolkatu ninduela esan eustan, eta autortzerakoan ezagaitik be ez nebala ezer ixildu bear, au bait bide segurua, bestera egiñik oster a iñoiz atzipetua izateko arriskuan egotea izan leitekela.

5. Noiztik noizera jazoten zan, Jaunak agintzen eustala zerbait otoitz aldian, autor-entzuleak beste zerbait iñostala, Jaunak autor-enzulearen esana egin nengiala; andik laster aldatu eban eritxiz, leengo agindu berbera emonez,

Erromantzezko libururik asko galazo ebezanean (1), ez irakurteko aginduz, naigabe ez txikia emon eustan onek, eurotariko batzuk irakustea jostagarri bait jatan. Aurreran-tzean, beraz, ezingo neban olakorik irakurri, besteak latīñezkoak ziralako. Jaunak, alan be, esan eustan: *Ez izan atsekaberik, Neuk emonga dautzut liburu bizi bat.* Ezin izan neban ulertu itzok zer adierazo nai eben, ikuskaririk ordurarte ez neban euki-ta. Andik egun batzuetara alan be dana ulertu al izan neban ederto. Izan be, neure begipean jazoten zanak naiko gai emostan oldaoteko ta barrurantz biltzeko, eta Jaunak nai izan eban ni eskolatzea samur-samur gauza askotan eta era askotara, eta orain ez daukat liburuen premiñarik, oso gitxi edo ia-ia bapez. Jainkoa izan da nire liburu egiazkoa, eta bertan ikusi al izan dot egia. Onetsia bedi liburu ori, onek bait dau ariman ondo josirik izten, irakurri ta egin bear dana, aaztu ezin dai-teken eran! Ain zuzen, Jauna ba'dakus, biotz-samur dana, zauriz beterik, zoritxarpean estu ta larri, nok ez ditu besarkatuko ta irrikaz maite izango neke-lor orreik? Zerbitzari jakozanai emon oi dautsen aintz apur bat ikusiz, nok ez dau jakingo ezer ez dala guk egin eta jasan geinken guztia, sari orren aundia aurrean zain daukagula? Gogora ba'dakardaz madarikatuak infernuan sufritzen dabezan oiñazeak, nori ez jakoz samur leun egingo emengo samintasunak eta neke guztiak arein aldean, eta ezagutu zenbat zor dautsan Jaunari ainbat bider kezka, alamen ta oiñazezko toki aretatik askatu ditulako?

6.—Baiña Jainkoak lagunduta, gauza batzui buruz geia-go esango dan ezkerro, aurrera jo gura dot neure biziari dagokiozan zeaztasunetan. Jaunaren gogoko izana bedi nik esan dodana ondo adierazota izatea. Ba-dakit, experientzi daukanak ulertuko dauala, eta ikusi erabat, eta zerbait beintzat aitzen emotea be lortu dodala. Olakorik ez daukanaz

(1) Frantzisko Valdes, Espaiña'ko Inkisidore Nagusi Zanak liburu asko galazo ebazan, baita deboziñozkoak be.

ez naz bape arritzen guzti au zentzun bakokeria dala iruditzea. Onetarako, beste aldetik, neuk esan dodalako, ez legoke ortatik oso garbi, neuk be ba ez neuskio ori diñokanaren errurik egotziko. Jaunak itxi beist bere nai arteza jo daidan. Olantxe.

XXVII ATALA

Jaunak beste era bat erakusten dautso arimeari: berba egin barik aclierazten dautso bere borondatea, —era miragarrizko batean. — Mesede batzuk azaltzen ditu, eta batez be ikuskari berezi bat, idurizko, etzana. — Atal jakingarria.

1. Barriro nator neure bizitz arira; aitaturiko naigabe estuak eta nire alde egiten zituen etenbako otoitzak gogoratu nai ditut, Jainkoak ni beste bide ziurrago batetik eroan nengiala egiten ziranak aurki, neroian bidea iñoenez zelan alangoa bait zan; nik be neure aldetik, egia da, gauza bardiña eskatzen neutson Jainkoari eskatu ta gogoz opa nebanagaitik bidez aldatzea, beste aldetik nire arimea obero egiñez joiala ikusiz ez nekian bide ori zelan artu, esaten eustezan eta bildurrez jarten ninduen une batzuetan izan ezik. Aldatua ikusirik neure burua, zelan nai izango aldatzea? Jainkoaren eskuan izten neban neure arazoa, Arek bai ekian ondoen niri egoki jatana, eta arrenka eskatzen neutsan bete eitela nigan Bere naiera santua, oso-osorik bete be. Bide onek zerura neroala nekusan, eta lengoak infernura. Emendik, zelan nik gura izan sartu naita alegifiak egin arren, ezin neban lortu iñundik; etzan nire eskuan egoana. Egintza on gauzatzen nebana, Jaunari eskintzen neurson elburu ortarako. Neure santu za:ntza;lleak artu oi nebazan lagun, deabruaren lakio ta sare artetik jagon nengien. Bederatziurrenak egiten nitun Ilarion deunari ta Mikel Goiangeruari, auxegaitik barriro be esraspentsu egin jatanari, eti beste santu asko be nitaz arduratu eitezala eskatzen neutsen, Jaunak erakutsi eidala egia, biziro eskatuaz.

2. Eta urte bi onela egiñik ona zer jazo jatan, neuk eta beste pertsona batzuk onetarako otoitzari emonaz, edo Jaunak beste bide batetik eroan nengiala edo adierazo egis-tala egia, izketaliok Jaunak sarri be sarri egin oi eustazan eta. Pedro apostolu aintzatsuaren egun baten otoitzean ni-ñarduala, neure ondoan ikusi edo sentidu neban obeto esa-teko, ez bait neban ezertxo ikusi gorputzeko begiakaz ez arimakoakaz, baiña begitandu jatan Kristo neure alboan egoala, eta neritxonez Bera zan itz-egiten eustana, nik uste. Alako ikuskizunik izan leikenik be uste bagc, bildur aun-diak jo nindun lenengotan eta negarrari emon neutsan be-netan; alan be, Jaun eztitsu onen itz bat bakarrik naikoa neban beti lez geratzeko, baketsu, atsegiefiez eta bildur iz-pirik bako. Uste neban Jesukristo ebillela beti neure alda-menean, ezin neike esan zer itxuratan; baiña egoan neure cskumaldera, argi-argi somatzen neban, eta Bera zan nik egiten neban guztiaren testigu. Adia galdurik oso edo gauza askotan sarturik ez ba'nengoan, pizkat barrura batzen nintzanetan, beti sentiduten neban neure ondoan.

3. Bertatik joan nintzan neure ator-entzulearengana, kezkaз betterik, gauzea zan lez ari esanaz. Onek itandu eus-tan ze erapean ikusten neban. Ez nebala ikusien erantzun neutson. Zelan nenkian Kristo zala, ak itandu. Ez nenkiala zelan, baiña ezin neinkela Bera zanaren ezpairik izan nik auzoan neukana; argi ulertzen nebala, eta sentidu, eta ari-mearen barne-batzea sakonagoa zala atsedenezko otoitz-aldi Juze batean lez, eca ondorenak be euki oi nebazanetatik bes-telakoak zirala; gauza argia zala nunbait. Nik era askotako adibide ta antzeko irudiak jarten neutsazan zer zan obeto aditzera emon nairik, naiz-ta, nik uste, onako ikuskariak argi azaltzeko ez dago itzegoki datorkigun k. Garaienetakoa danez, g'zaseme santu arek gero adierazo eustan legez, otoiz-lari aundi AlkantaiVko Aita Pedrok ain zuzen, auxе dozu ikuskarietatik goienengoa; beste jakitun batzuk, barriz, auxе dala gaiñeratzen dauskue deabruak eskua gitxien tar-teratu leiken ikuskizuna. Ortik, ba, ez daukagu guk gitxi

baiño ez dakigun emakumeok itz egokirik bera aitzen emon al izateko, jakitun eskolatuak jakingo daben arren. Nik diñot, Jauna ez dodala ikusten gorputzeko begiakaz, ezta arimearenakaz be, irudizko ikuskaria ez bait da. Orain, zelan ulertu ta esan neike Bera neure ondoan egoala, eta au neure begi-begiakaz ikusiko ba neu baiño be argitasun geiagogaz? Arimea itsu dala, edo-ta illunetan aurkitzen dan pertsona bat lez, bere alboan dagoan beste bat ikusten ez dauana, ez da egoki datorrena. Antz apur bat ba dauko, baiña ez larregi, beste pertsona arek, zentzunekaz igarri bai, edo berbaz entzun, naiz igitzen sentidu, naiz ikutzen oar-azten dauana. Emen ez dago olakorik, ezta illuntasunean egoterik be, arimea eguzkiarena baiño be argi askoz dizditsuagoz ondatua dago-ta. Eguzkia ikusten danik ez difiot, ezta argitasunik be, ezpabe argi bat, argia ikusi barik, adimena argitzen dauana, arimeak on aundi artaz gozatu daian. Aundiak dira orrek arimeari dakartsozan onak.

4. Jainkoa ur egote au ezta sarri somatu oi dan lakoa, alkartasun eta batasun otoitza daukienak batez be, otoitza eukitea astea nai izateaz bat, itxura danez, aurkitu oi dogu nogaz berba egin; Jainkoak entzuten dauskula be begitanduten jaku, somatzen doguzan maitasunezko, fedezko ta samurtasunezko erabagi batzuen ondoren, naiz espirituzko sentipen batzuk bitarteko dirala. Mesede goiko au Jainkoagandikoa dozu, eta olakotzat euki bei, aunditzat nunbait, ori artu izan dauanak; grazi-otoitz goi[^]goikoa da, ez alan eta guzti be ikuskizun. Jainkoa an dagoala ulertu arren, au jakin geinke bakar-bakarrik, esan dot, arimeari egindako probetxuetatik, Aren Goitasunak olantxe nai dau sentierazo. Emen ikusten da argi be argi Jesukristo, Andra Mariaren semea, bertan dagoala. Beste otoitzetan Jainkotasunaren eragiña agertazten da; emen, aregaz batera, lagun dogula ikusten da Kristoren Gizatasun txit Deuna be, guri mesedeak egin gurata.

5. Autor-entzuleak itandu eustan gaiñera, nok esan ete eban Jesukristo zala. Berak esaten daust sarri, erantzun neu-

tsan nik. Baiña Ak esan aurretik be ondo itsatsia egoan nire ai'iman Bera zalakoa. Nik bera ikusi aurretik be, oster, esan oi eustan. Egin daigun pertsona bat nik egundo ikusi bakoa, baiña entzun dodazala aren barriak, itsua bera, ta illunpe aundian, ta itz-egitera etorri jatala. Berak diraust nor dan, eta nik siñistuko neuskio; baiña arpegiz arpegi ikusi ba'neu lez, ezingo neuke baieztu erabagi-erabagitsu pertsona axe dala, Emen bai, emen ikusi barik be, gogoan josita geratzen da barri argi-argi bat, dudarik ez izateko eran. Jaunak adiñean egon nai dau sakon itsatska, ziur be ziur, geure begiakaz ikusi gendun baizen ziur, edo-ta are geiago; cnetan bada batzuetan ames zororen bat izan ete danaren susmoa. Grazi onetan, barriz, lenengotan olako susmoa jagi arren, arima ziurtasun aundi baten jabe geratzen da, ta duda-ezpaiak ez dauka indarrik.

6. Onela, ba, esanik geratu dan era onetan, erakutsi oi dautsa Jainkoak arimeari, eta itz egin itzik esan bage, Zeruko izkera da, esan nai izanik be emen txarto adierazo leikena, Jaunak experientziz irakutsi ezik. Jaunak jarten dau arimeak ulertzea nai dauana, arimearen barren-barreneko zokoan eta antxc idui'tzen dau iduri ta itz-itxura barik, esan dodan ikuskizun orren gisara. Eta-ar eizu kontuan bene-btnetan, Jainkoaren jokabide au Berak nai dauana arimeak ulertu dagian, egiak eta misterio aundiak. Askotan, ba, nik ulertzen dodana Taunak ikuskariren bat azaltzen daustanean, ots, niri antzeztu nai daustanean, onela da, eta nik uste dot orixc dala deabrua gitx'en tartetu le'kena, esandako errazoi oneikaitik. Errazoiok onak ez ba'litzatekez, ni atzi-petua nazala dirudi.

7. Ikuskari ta izkcta-modu au oso espiriluzko gauzak dira-ta, ez dago barailik ez aalmenetan eta ez zentzunetan, eta, nik uste, ez dauko nundik jakin ariman zer jazoten dan. Au banaka batzuetan da cta oso labur, beste batzuetan, uste dot, aalmenak ez dagozala sorgor, ezta zentzunak be lozorro, ondo itxarrik baiño. Au ez da gaiñera begiztatze aldian beti,

ezpabe oso gitxitan; baiña diran oneitan guk ez dogula diñot ezer egiten, ez burutzen; oro dirudi Jaunaren egiña dala. Jatekoa jan barik urdaillean ipinten danean lez dozu; guk geuk be ez dakigu zelan agertu zan an, ulertzen ciauana an dagoala da; emen alan be ez da ulertzen zelako janaria danik, ezta berau nok ipiñi eban'k be. Emen, oster, bai; baiña ez dakit zelan ipiñia izan zan, etzan ikusi ez ulertu, etzan ortara egundo egin ezta etzan iñoiz belarrietara eldu au izan leitekenik be.

8. Gorago esan dogun autuan, Jainkoak beartu egin oi dau arimea beraren naiaren aurka be adi-adi egon daiten eta ulertu daian esaten dautsona. Arimea dirudienez beste entzun-gaillu batez jantzita dago, eta bearturik lez entzateko eta adia galduta ez egoteko. Onela edo jazoten jako: ara, ondo entzuten dauan bat, eta ez dautsoe izten belarriak zarrazten, bere ondoan abots zoli mintzo diranean entzun ez dagian; nai ezta be, entzungo leuke diñoena, ta azken buruan be, zerbait egiten dau, esaten dautsena ulertzeko adi-adi dago-ta. Emen, oster, arimeak ez dagi ezer; auxe berau be, ots, entzutea bakar-bakarrik, leen egiten ebana, ainbarik itxia da. Orain guztia aurkitzen dau egiña, ta jana urdaillean; gozamenari atsegin emon, ez dago besterik. Edo-ta onela: batek ez dau alegiñik egin ikasteko, ez irakurten, ez beste ezertaz trebetzeko, eta bat-batetan aurkkzen da zientzi guztiak jakinda. Berak ez daki ez zelan ez nundik etorri jakon jakitate ori, beren-beregi ba, egundo etzan arduratu ikasteaz, ezta *Abeze* ikasten be.

9. Azken iduri onek, nik uste, zerbait argitzen dauala zerutiko emoitz au. Arimea, izan be, jakitun aurkitzen da bat-batean eta argitasun osoz ikusten dau Irutasun Deun-deunaren misterioa, eta beste gauza goi-goikoak; edozein jainkolarigaz eztabaidatuko leuke gauza miragarri oneik ezkutatzen daben egia. Ixil ta konkortua geratzen da arimea bera be, eta onelako mesede bat naikoa da arimea oso-osoan aldetzeko. Aurrerantzean ezingo dau iñor maite izan A ez'k,

bete ta asetua ikusten bait clau bcre burua berak ezertxo be egin barik, on eta doai itzaiez, bere eskuluak iragarritz eta esan eziñezko ondo-nai ta maitasunezko ar-emonaz b:nm txcra cginik. Onetariko mcsede batzuk sortu leikie b ldur-susmoa, aundi-izugarriak diralako nunbait, eta ain gitxi me-rezi izandako pertsonai cgiñak d'ralako. Eta fede biziz in-clarturik egon ezean, ezingo litzatekez siñistu. Orixegaitik, beste zerbait agindu ezpa-Icgide, Jaunak egin daustazan me-sedeetatik batzuk baiño ez nik aitatuko. Zerbait onerako litzakezan ikuskari banakak esango ditut bakar-bakarrik, edo-ta egin oi neban lez, Jaunak olakoz ornidutzen dauana, eziñak zirala uste izanik, izu-larritu nadin, edo idazteko agindua dau-kadanez, Jaunak naroan bidea ta tankera adierazteko.

10. Ulert-era ontara biurturik, ba, niri deritxodana auxe cla: Jaunak nai dau, nik uste, arima onek euki daiala zelanbait zeruan jazoten danaren albiste pitiña. Ezagutzen emoten deu-tso, bai, zelan ulertu dagiken itzik egiteke. Eta nik uste, an itzik egin barik alkar ulertzen daben lez (eta auxe da nik sekula ziur jakin ez nebana, Jadnak, bcre ontasun utscan, nik ikustea nai izan arte, zcnfzun galtze baten erakutsi eus-tana); emen be antzera gcrtatu oi dala esan gengike: Jainkoa ta arimea alkar aitzen dira Bere Goitasunak adimenak ulertu daiala nai izanaz bakar-bakarrik, beste maiña ta modu bage; adiskide bi dira, biotz-biotzez maitc cliranak, cla ez dabce ezer bear maite-su ori alkarri agcr-azteko. Mundu onetan be, pertsona bik alkar maitc izanik alkar onclo aitzen cliranean, kiñu barik, begituz bakarrik dirudi ulcrtzen clirala. Orixc izan bear dau emen bc; guk ikusi bage, adi-adi begiratzcn dautse alkarri maitale biak, Abesti Irkaiñefan {*Cant.*, VI. 9) iñoiz entzun dodala uste dot Scnarrak Emazteagaz itzez d'ai'-duelarik.

11. O Jainkoaren (mtasun arrigarri! Zu, Jauna, neurc arimearen lako begiak, ain txarto ikuskatu zaituenak, izten dozuz begiretzen! Onczkero, Jauna, gera beitzc begiok gauza ziztriñik begiratu bage, eta ez daizala ezek poztu ta alaitu

Zeuk izan ezik. O ilkorren eskertxar aundia! Noraiño nai ete dau jo? Nik ba-dakit neugan ikusi ta ikasiz, egia dana diñodan au, eta ezer ez da esan geinken guztia. Zuk, Jauna, barrukotasun ain berora ekarri oi dozun arimeari egin doaiak, noraiñoakoak diran, esan eziñak noski! O zuok arimok, oto'izta eukiten asi zarienok eta egiazko siñismenean bizi zarie-nok! Zer onik billatu zeinkie bizitza ontan be (betikorako irabazten dana albora itxiaz), oneitako txikiena beste izan leikenik?

12. Euki bai ziurtzat, ziur-ziurra da-ta, Jainkoa Bera-gaitik dana izten dabenai emona dala. Ez dabil norkerietan, guztiak ditu maite, iñok ez dauko atxakirik kaskar alena izan arren, orrela bai dagi nigaz egoera ontara ekarririz. Begira, ez da kopurua esan leitekenagaitik diñodana; esana doa soil-soilki esan bear dana, Jainkoak arimeari egiten dautsozan ikuskari ta mesedeak zelakoak diran aitzen emoteko bear di-ranak erabat. Baiña ezin dot esan zer somatzen dan Jaunak bere ezkutu ta aunditasunak adierazten dautsazanean, emen ulertu leikezan atsegin eta poz guztiak, guztiak batera be sats-simaur besterik cz dira-ta. Nazkagarri benetan emengo czegaz be bardindu ezin daikeguzanak, bet'-betikoz gozatc-ko izanda be. Jaunak cmon oi ditun oneitatik, oster, Berak guretzat prest daukan ibai aundi joriko uraren tanta bat ba-karra baiño ez da.

13. Baiña, au lotsa! Ni benetan lotsaz beterik nago. Eta iraiñik ba lego zeruan, errazoiz nengoke ni an iñor baiño be lotsatuago. Zergaitik nai izan bear ditugu on-atsegin eta betiereko aintza, guztiok ain zuzen Jesus onaren bizkar? Ez dogu negar egingo beintzat Jerusalem'go alabakaz, laguntzen cz ba dautsagu gurutzea eroaten Zirineo'gaz batera? Zcr, atsegtñakaz eta jolaska gozatu bear ete dogu Arek ainbeste odolez irabazi euskuna? Eziña da. Eta dedu ta lots guzurrez-koakaz uste dogu kitutuko doguln Arek eroan eban lako gitxi-entxi ta destaiña, gu betikoz errege ;zan geintezan? Au cz aoa bide onetik, oker, oker doa bidea; ez gara egundo ara

elduko. Egin garraxi zuk, Aita orrek (1), cgi oncik aldarrikatuz, Jainkoak niri kendu bai eusian askata:>un au. Nik bein eta barriro ots-egin nai neukez, baiña idatzi onek beronek autorra egingo dauanez, berandu ipiñi neutson belarria Jainkoaren deiari. Eta onetaz idaztean lotsa gorriak daragist dardar, beraz ixildu gurago dot. Gogoketa bat bakarrik diñot emen noizean beinka buruan darabiltan au, zeruko poz-atsegiñai buruz. On dakiola Jaunari on orren atsegin-gozotasunera ni be eroatea.

14. Erazkiñezko aintza zelakoa ez da izango ta ouaz gozatzen diran zoriontsuen poztasuna ikusi dagianean, naiz-ta berandu, ez ebela itxi ezertxo be egin al izan ebenetik Jainkoagaitik egiteke, al eben eran ez ebela ezer laga emon barik, euren bizibideari ta indarra egokienez, eta geien al ebenak geien emon be! Aberats bai aurkituko dala Kristo-gaitik ondasun guztiak itxi ebazana! Aintzaz betea bai Agaitik bertako ainrzirik opa izan ez ebana, bere burua baiña eratxia pozarren ikusirik! Jakituna bai zorotzat jotea nai izan ebana, egi-egiazko jakiturira deitua izan zalako! Zoritxarrez gaur gitxi dira olakoak, geure pekatuakaitik! Lenago Kristorcn maitale gisa gauza arrigarriak egiten ikusten genduzanari, zoroak esaten eutsen; baiña gaur olakoak ostendu dira mundutik, itxura danez. O ludi, ludi, bai, zoazala dedua irabaziz, czagutzen zaituen urri eukitean!

15. Baiña uste ba dogu Jainkoa obeto zerbidua dala gu jakituntzat eta zuurtzat eukiaz? Orixe, orixe izan bear dau, zuurtasunalc orixe eskatzen dauala ta. Gero bakoxa bere bizibideari dagokionez ez ba dabiJ, oso neurriz eta aginpidetsu, ez gabiltzala erakutsi onaren bidean barna, ustc dogu. Gcuk be lekaide, elizgizon eta lekaimeok, usteko dogu gauza zaarra, konpondu edo adabakitua ekarte irudituko jaku arritasuna dala eta makalai jauspidea ipintea; bardin otoitza euki ta zentzunak baturik ibiltea be. Gaur munduak aaztu-zulora

(1) Toledo'ko Aita Gartzia aitatzten dau, antza danez.

bota dau onbideari ekitea, baita santuak eukiezan biotz-zauskada beroak be. Gaur-egun negartzen ditugun kalte aundlak, nire ustez, emetik datoz geien bat, eta ez lckaideak curen itzez eta egitez, mundua zirzirtzat euki bear dala erakutsiz, emon oi daben erakutsi txarretik. Jausbideak dituzu oneik iñorentzat txundio naiz topozarri ez direnak, Jaunak eurotatik on aundiak ateraten bait ditu. Eta bat-edo-batentzat gaizpide ba dira be, beste batzui kezka jatorke. Oi begi aurean ba geunkaz Kristo cta bere Apostoluen bizitza ta oiñazek! Gaur iñoiz baiño gciago daukagu orren premiña.

16. Jainkoak bai erakutsi dauskula orain Alkantara'ko Aita Pedro zorientsuagan! Mundua ez dago gaur osotasun orren aundia eroateko. Osasunak makalago dagozala diñoe, ez gagozala aspaldiko denporetan. Garai ontako zan giza-
seme santu au; sendo egoan espiritzuz, leengo garatetan lez, eta olantxe eukan mundua bere oinpean. Aren antzera ortozik ibilli eta arek aiña penttentzi latz egin ez arren, gauza asko dagoz, beste batzuetan esan dodanez, era asko aurkitzen dira mundua oinperatzeko; eta Jauna, guban gogo ona ikusi dauanean, beti dago gertu bcrc doaiak erakusteko, Zelako gogo-kemena emon cutsan diñodan santu oni Jainkoak berrogetazazpi urtean edonok dakian benetan penitentzi latzaf Ontaz esan nai dot zerbait berariaz, egia dana ba dakit eta.

17. Neuri esan custan eta beste pertsona bati (Mariadiaz) ixillekoak gordeten urri ekian bati, eta nikez oso maite ninduana zan; Jaunak, ustc dot, arck ni orrcia maitc izatca nai eban, ni ncurec larrialdi ta kezketan zaindu ta bizkor-azo neinkean, esan edo esango dodanez. Berrogei urtean, ustc dot esan eustala, gau ta egun, ordu t'erdi bakar-bakarrik lo cgin ebala. Aren penitcniz'rk gogorrena asicran Iogurea garitzca izan zan, eta ortarako zutunik edo belauniko egoten zan beti, Egiten eban loa jarrita izaten zan, eta burua orman sarturik eukan oltxo bati eutsolark. Etzunda, nai izanik be, czin eban; bere gelea, dakigunez, lau o'n ta erdi besterik eizan luze, Urte guzti oneitan, cgundo be ez eban txotiñoa

ipiñi, eguzki-galda ta euri zaparrada galantak eginda be. Ez eban iñoiz erabilli oiñetakorik, ez barrukorik. Oial latzezko jantzia eroian, soin gaiñean beste ezer bagarik. Bere jantzi, abtiua, estu-estua zan eroan al giñoan, eta sorbaldan besana bat oial bardiñezkoa. Esan oi eustan, otz aundietan kendu egiten ebala berau; b[^]re gelako atea ta leiatilla zabalik izten ebazala, gero bere gorputzari atsegin pizkat enion e'kean besana jarri ta atea itxiz, epeltasun geiagogaz atsedeen egian. Iru egunetik iru egunera jan oi eban, geienez; bein ni miretsia ikusirik, esan eustan: oitu ezkeru, erreza zala ori egitea, Aren lagun batek autortu eustan, batzueuin, jan barik egofen zala zortzi egunez be. Au, uste dot, otoitzean murgildurik egoanean izango zala; zentzun galtze ta Jamko-maitasunezko zauskada aundiak eukazan, bein nik ikusi nebanez, eta orduan kontuz ibilli oi zan (2).

18. Aundia zan oso aren txirotasuna. Ezita ekarren gorputza gazte-gaztetatik; bein gogorazo eustanez, begiak ez zituan lurretik jasoten, bere Ordenako komentu baten iru urtez bizi izanik ez eban praille bat be ezagutu, mintzoz ezik; eta legeak agintzen eutsan bezela iñora joan bear ba eban, besteen atzetik joaten ei zan begiak jaso barik. Onelaxe bardintsu, bidari joan bear ebanean. Urte askoan ez eutsen iñoiz emakumezkai beg.'ratzen. Bardin eutsala baieztu eustan ikusi nai ikusi ez. Urteetan aurreratua zan nik ezagutu nebanean, eta guztiz argal emoten eban, zugatz-sustraiz egiña zala zirudiena. Alan eta guztiz be, mazal, alai ta gozoa zan, itauntzen jakonean izan ezik, berba gitxikoa. Ttaunari erantzuteko atsegin-atsegiña genduan, buruz argi ta gurbilla oso. Beste gauza asko be esan nai neukez artaz, baiña lyldur naz zetan sartzen nazan onetan zuk, Aita, esango daus-tazulakoan; bildur orregaz idatzi dot idatzi dodan apurra. Emen izten dot bizitzea lako amaia izan ebala autorturik, egia otsegiñez eta bere lekaide-kideai aolku emonez. Bere bizialdia azkeneruntz joiala ikusiz, *Laetatus sam in his quae*

(2) Pedro Alkantara zan praille au.

dicta sunt mahi (Bai poztu nintzala esan eustenean salmua (Ps. CXXI, 1) esan eban; gero, belauniko jarjrik[^] azken arnasa emon eban.

19. Jaunak gero nai izan dau nik euki daidala aregan liizitzan baiño laguncasun geiago, aolkulari izan jat gauza askotan eta. Sarri ikusi izan dot aintza bete-betea. Lenen-goz agertu jatanean, beste gauza askoren artean esan eustan: «Zorioneko penitentzia sari ain *ederra* merezi izan *daustana*\ » 11 zan baiño urte bere lenago, kanpotik zala agertu jatan eta orduantxe jakin neban laster ilgo zala; nik iragarri neutson, idazkiz. Bera emendik leku batzuetara aurkitzen zan orduan, eta il zanean, agertu jatan, atsedena artzera joiala esanik. Ez neban siñistu, baiña pertsona batzui esan neutsen; andik zortzi egunera etorri zan il-albistea, obeto esateko, bizi izaten asi zala beti-betiko.

20. Ona amaiturik aren bizitza latza, aintzazko egon-leku zoragarrian! Onek ni geiago poztu naroa emen bizi zanean baiño. Jaunak bein esan eustan aren izenean eskatuko geuntson edozer gauza arek entzun eta emongo euskula. Gauza asko eskatu dautsodaz Jaunari bere bitartez eta eskariok ez dauste porrot egin. Bedeinkatua izan bedi Jauna betiren beti. Olantxe.

21. Baifia zenbat itz-jario, Aita, zuk mundua ta beronen gauzak zapuztu daizuzala esateko! Mundua zer dan ezpa-zenki zuk, dagoneko, eta zelakoak diran beronen zorakeriak, eta ezpa-zengoz lez onezkero dana saiets izteko erabagita, egi-egiaz itxita gaiñera! Ain da aundia munduan dakustan gaiz-takeria, eta ni au idaztean nekatzea baiño beste probetxuKk aterako ez ba neu be, auxe litzakit errazoizko atsedeen artzea, dana neure kaltez letorkit eta. Asketsi beist Jaunak onetan iraindu dodanagaitik, eta bardin zuk, Aita, errazoi barik nekatzen bait zaitut. Antza danez, zeu beartu nai zaitut, neuk onetan egindako pekatuengaitik penitentzi egitera.

XXVIII ATALA

Jaunak egin eutsozan mesede aundiak, eta zelan agertu jakon lenengoz. — Zer dan irudimenezko ikuskizuna. — Zelako ondorenak eta ezaugarriak izten dabezan ariman, Jainkoarenak diranean. — Garrantzi aundiko atala.

1. Geure gaira biurturik, egun batzuk, ez asko, igaro nebazan etenbakoa zan ikuskizun onetan; eta probetxugarri jatan ezker, otoitzetik ez nintzan aldenduten. Eta beste zer guztietan be alegiñak egiten nitun neugaz testigu zala argi nekusana ez atsekabetuteko. Au ta guzti be, esan oi eustezan arriskuetatik oindiño bildurtzen nintzan, batzuetan, iruzurpe ete nenbillen; baiña momentu gitxiko bildurra jatan, bat-batean etorri oi jatan Jauna laguntzera-ta. Egun batean, otoitz-ordua zala, eder izan jakon Jaunari bere eskuak bakar-bakarrik niri erakustea, eder zoragarri, nik goratu ezin ala-koak, Bildur aundia egin eustan onek, Jaunak egindako edozein mesede goitikoak barritan eta asieran egin oi dausten lez, eta jazo jatan oraingoan be. Baiña andik egun gitxira, Aren jainkozko arpegia ikusi neban, eritxi baten zur ta lur itxi ninduna. Ezin neban nik ulertu Jauna zegaitik agertzen zan olan, pizkaka ta polito, ondoren egingo bai eustan oso-osorik ikusteko grazia. Goretsia izan bedi betiraun guztiz, izaki ain kaskar ta makalak, ni nazan lez, ezin ba ainbat aintza sufridu, eta Jauna onak, au ekialako, apurka apurka joian nire barrua gertatuaz.

2. Bear bada zuri, Aita orri, irudituko jatzu indarketa aundirik ez dala bear esku batzuk eta arpegi bat, aren ede-nai izan dot, ba, errazoi batzuk jarriaz ikuskari oneik ezin

rrak, ikusteko. Gorputz aintzatsuak, izan be, egi-egiaz ederrak bait dira, eurak dakarren aintza ikusteak sena galduta lez izten zaitu, Ni bildurrak jota grratzen nintzan, kaskartua ta naasia, naiz-ta gero ziurtasunez eta bakez gelditu barriro; onek ekazan ondorioak naiko ziran bildur guztiak aienatzeko.

3. Paul Deunaren egunean, mezatan, Kristoren Gizata-sun txit santu au oso-osorik agertu jatan. Berbiztua margo ta oi dan itxurakoa, parerik bako edertasunez eta aundilasunez, zuri, Aita, berariz idatzi neutzuzan, zuk erregu ta erregu agindu zeustanean. Orain deritxat naiko eskax egin nebala gauza arrigarria da-ta, ezin daiteke adierazo andeatu barik, Alan be emon neban nekianik! onena, eta alan emen ez daukat barriro zetan esanik. Bakar-bakarrik diñot, zeruan begiai atsegiña emoteko beste gauzarik ez legokenean, gorputz aintzatsuak baiño, aintza aundi-aundia dala, Jesukristo gure Jaunaren Gizatasuna ikuskatzea batez be. Emen lurrean be, gure kaskartasunak eroan daiken lez agertzen jaku Jainkoa, eta, zer izango ete da oso osorik dalako onez gozatzen dan lekuan?

4. Ikuskari au, irudizkoa dala be, gorputzeko begiakaz ez dot egundo ikusi, ez bestez, arimearen begiakaz baiño. Nik baiño obeto dagienenak diñoenez, aurrekoa baiño bete-agoa da au, eta au ostera gorputz-begiakaz ikusten diranak baiño askotaz ohea. Gorputzezko au dala diño danetatik beekoena ta deabruak amesketarik geien berton sartu lHkezana. Orduan nik ez neban ulertzen arrisku au eta gogoz nai izaten neban, mesede au egiten jatan ezkerro, gorputz-begiakaz ikusten zana izan zeitela neuri otu ta buruak emona zala esan ez eistan autor-entzuleak. Eta baita igaro ta gcro be jazo oi jatan (au gero zan, gero); neuk be auxe pentsetea; au da, buruak emon eustala. eta asko nekarazten n'n'zan autor-entzuleari esan neutsolako, atzipetu ete neban ustc izanik. Auxe zan niretzat beste negar-iturri bat eta beingoan niñoian autor-entzulearengana zer jazoten jatan ari iragar'en. Arek itanduten eustan, ia nik gauzea orrela zala neritxon

ala bera engaiñetea nai izan neban. Egia esaten neutson nik, neure eritxiz nik ez neban ba guzurrik esaten, ezta nik olako asmorik be, munduko ezertxogaitik be gauza bat beste baten orde ez neuke esango-ta. Arek ba-ekian au ondo be, eta alegiñak egiten ebazan ni bakerazten; ni oster miñez nengoan gauza oneikaz arengana joateagaitik, eta ez dakit deabruak zelan ipiñi oi eustazan zoztor oneik neuk neure burua naigabetzeko gauzok irudituz. Jauna baiña bizkor ibilli zan mesede au niri egiñik egi au azalduten, laster kendu bait jatan lillura ta amesa ete zanaren ezpaia, eta gero argi dakust nire ergelkeria; urte askotan ba nenbil be, jakiña, zelan itxuratu gauza ain ederra, ezingo neuke iruditu, ezta jakin be zelan iruditu, guk asmetako zerak baiño gorago bait dagoz, aren zuritasuna ta dirdira eurak be.

5. Ez da lausotzen dauan dirdaia, zuritasun leuna bai-fia; dirdai ixuria; ikusmenari, neke erazo barik, atsegin bete-betea dakartsona, ezta ain jainkozko edertasun au ikusteko ikusten dan argitasuna. Emengo argia oso besterik da; orregaz bardiñean jarri ezkerro, dakusagun eguzkiak bere argitasun guztia galduko leuke, ondoren begiak edegi be nai ez izateko bestean. Ur gardena ikustea lez jatzu, kristal gaiñez doala dizdiz dagi eguzkiak bertan eta bestean ur loa oso, zeru laiñotsuan, lur-gaiñez doana. Ez da, jakiña. Ez eguzkia antzezten dalako, argia be ez da eguzkiarena lakoa; labur, berezko argia dirudi, eta beste au asmatutakoa. Gaurik bako argia da, beti argi dan legez ezek ez dau orbantzen. Azken batean, adimen bete baten jaube dan pertsona bat, bere bizitzako egun guztietan asma ta asma ba'lebil be, ez leuke zelakoa dan igarriko, Jainkoak, bnrriz, beingoan ipiñi oi dau-tso aurrean, ikusteko, begien itxi-edegi bat besterik bear ez daualarik. Baiña, Jaunak gura dauanean, bardin da begiak zabalik naiz itxita euki; guk nai ezta be, ikusten da. Ez dago ortarako sorraklirik ez josketarik, naikoa danik, ez indai'rik gogor egiteko, ez ardurarik, ez alegin naikorik. Au neugan ikusita daukat nik, esango dodanez.

6. Nik orain adierazo nai neukena da, Jauna zelan agertzen dan ikuskizun oneitan; ez diñot azalduko dodanik zelan izan daiteken argi ain sendo au gure barruko zentzuan kokatzea, eta adimenean, irudi ain argia, antxe dagoala egi-egiaz esan daikeguna, au eskolatuena da-ta. Au zelan dan Jaunak ez daust ulertzen emon nai izan; ni ez jakina naz eta adimen kamotsekoa, beraz askotan azaldu nai izan dausten arren, oraindik ez naz eldu zelan dan jakitera. Eta au gauza ziurra da, zuri, Aita, adimen bizikoa nazala irudituta be, ez dala orrela; oar-ikasiz konturatu naz, ba, gauza asko-askotan, ez dauala aitzen, or esaten dabena, jaten emon oi dautsoena baiño. Batzutan zukuruzten zan nire autorlea neure zer ezjakiñak adierazten neutsazalako; ez eustan iñoiz aitzen emon, ez eban gura be, Jainkoak zelan egin eban au, edo zelan izan zeinkean, ezta itandu be, urte asko ziralara, esan dodanez, gizaseme eskolatu onakaz ar-emonean nengoan arren. Gauza bat pekatu zan ala ez, ori bai; gairakoan ez egoan zertan arduratu, beste guztia Jainkoak bait egian niregan; ikusten eban ez egoala ni zertan izutu Jainkoa goretsi baiño. Gauza gaitz-nekezak, beraz, deboziño geiago dakarste; are geiago ta obe.

7. Esango dot, ba, neugan ikusi dodana. Jaunak zelan damoskun ikuskari au, zuk, Aita, nik baiño obeto adierazoko dozu, emen illun legoken eta nik aitzen emoten ez nenkian guztia. Zer batzutan argi begitantzen jatan irudia zala, ondo ikusten neban; beste eskotan ez, ez jatan olan begitantzen Kristo bera zala baiño, eta au zelako argi-diriraz lagundurik joian ikuskizuna. Bein baiño geiagotan, naiko illuna zan eta irudia begitantzen jatan, ez emengo gizakiak egin marrazkien antzekoa, asko ta onak ikuskatu dodazan arren. Pellokeria litzake euren artean antzeren bat egon leitekela uste izatea, ezta eginda be; pertsona bizi baten eta beronen argazkiaren artean dagon diferentzia, ez geiago ez gitxiago, ondo artutakoa izanik be, berezkoa bai zen ederra; bai, laster ikusiko da gauza illa dala. Irudi au ondo dator emen, nire pentsamentua azaltzeko, eta ez dot uste geiago saia-bearrik dagoanik.

8. Ez diñot bardintza edo paretasuna danik, oneik be-ti dira-ta oso-ezak; emen dagoala baiño, ez geiago ez gi-txiago, bizitik margoztura iakoxe aldea. Irudia bada be, iru-di bizia da; ez g-zon illa, Kristo bizia baiño. Eta Gizon eta Jainko dala adierazten dau; ez illobian zetzan lez, ber-biztuta andik urten zan lez baiño. Batzutan gurentasun izu-garriz dator eta iñok ezin lei dudarik izan Jauna bera ez cte danekorik, batez be jaunartu ondoren, ba-dakigu-ta an-txe dagoana, siñismenak dirauskunez. Ostatu aren Jaun eta jabe lez da aundi be aundi, ta arimea ererezten dala dirudi oso-osoan Kristogan irotu ta txautzen. O ene Jesus! Nok adierazo leiken zelako aunditasunaz agertzen zarean! Eta zein Jaun mundu guztiko ta zeruetako, eta beste milla mun-duko, eta Zeuk sortuko zeunkezan azken bako lur-zerueta-koa! Baiña, zeure aunditasunaz txunditurik, arimeak Zeu-gana egaz dagi, bere ezereza ta Zu gauza guztien Jabe ikusiz.

9. Emen ikusten da argiro, ene Jauna, deabru guztien al-izatea urria dala zurearen ondoan, eta zelan Zu pozik zeu-kakezanak ostikopetu leiken infernu guztia Emen ikusten dogu argi deabruak euki eben errazoa bildur izateko lin-bura jatxi ziñanean eta beste beeragoko milla infernuk be nai izango leukan Aunditasun ain aundiaren aurretik iges egiteo; emen dakust, arimeai emon nai dautsezula aditzen zein garrantzitsua dan eta zelako indarra dauan Gizatasun txit santu onek Jainkotasunaz batera. Ondo iruditzen da emen zer ixango dan epai egunean Errege onen aunditasun au ikustea eta batez be begi-zorrotz ikustea gaiztoentzat. Emen egiazko aaltasuna, ariman bere mixeria ikusiz itxi daroana, ezagutu ezin-eza nunbait; emen pekatuak dakarren nastea ta egiazko damua, arimeak, maite-erakutsiz ikusita be, ez bai daki nun gorde bere burua, oso-osoan desigiten dalarik. Ikuskizun onetaz, barriro diñot, indar ikaragarria daukala Jaunak arimeari erakutsi gura dautsanean bere aun-ditasunaren eta gurentasunaren zati on bat; ez dago gogo-rik indar ori jasan leikenik, Jainkoak berak goitiko lagun-tzaz babestu ezik, zentzun-galtze birloraren baten jarri-rik;

orduan galdu egiten dau arimeak, gozamenari emonez, jainkozko begi-aurre egotearen ikuskizuna ikustea, bestela diño-dan lez, eziña litzateke edozeiñentzat ori sufridutea. Baiña egia ete da guztia aztuten dala gero? Ez. Bestera baiño, aunditasun eta edertasun areik josita geratzen dira ariman, ezin aztuteko moduan, Jaunak nai dauanean, gero esango dodan leor-aldi ta bakar aurkitze aundia zizan ezik. Orduan bai Jainkoaz aaztu egiten dala dirudi. Aldatu-aldatu egiña geratzen da arimea; murgildua dago beti ta barriro asi dala uste Jainkoaganako maitasun bizia artzen, mjite-su gar;suag;;z eta, nire eritxiz, goragoko batean. Jauna ikusi bage agertzen dalako ikuskizunaz mintzaturik, oso-oso ta jagia dala esan neban; au alan be, egokia da gure makaltasunarentzat gomutapenean irartzen dalako sakon be sakon, adimenari be zertan jarduna eskiñirik. Gauza ederra, izan be, irudimenean gertarazoa ta josia geratzea jainkozko begi-tartea. Geien baten, ikuskizun mota biak batera datoz ia beti, ta oba da izan be orrelaxe alkarri lagunduz ibiltea, arimearen begiak ba Kristoren Gizatasun txit santuaren gurentasuna, edertasuna ta aintza ikusten diran bitartean, esaniko beste era orretara Jainkoa zelakoa dan aitzen emoten jaku, aaltsu ta jakitun, oro al dauana, oro agindu ta jarri, oro maitasunez asetzen dauana.

10. Aintzat artzekoa da oso ikuskizun au. Niri eristen jatanez, arrisku guztitik askea; bere ondorenetatik eza-gutzen da deabruak ez daukala emen indarririk. Iru edo lau aldiz, gogoratzen naz, zirika ibilli jat gaiztoa era bardifiean niri Jauna erakutsi eragin naita, guzurrezko aurkezpenez jakiña. Aragi-itxura artzen dau, baiña ez da gauza Jainkoarena danean daukan aintza irudi-azteko. Aren elburua arimeak izan dauan ikuskizun egiazkoa ezereztu ta lorrintzea, ez da besterik; arima gaixoak onan indar dagi, naspiltzen, garraztu ta urduritzen, leen eukan debozifioa ta bakea galduaz, otoitzerako gogo ta kemen barik geratzen dala. Lenengotan izan zan au, esan dodanez, iru edo lau bider. Baiña alde aundia dago jazoera biotan, eta atsedenezko otoi-

tza euki dauana laster konturatu oi da zer dabillen tartean, izketai buruz esan ditudan ondorenetatik batez be. Gauza nabari ta ezaguna dozu, cta arimea lau baizen apal ba dabil, ez dot uste iñoiz jausiko danik iruzurrean, berak nai ezik beintzat. Ez oiñot emen ezer Jainkoaren ikusikizunen bat euki dauanari buruz, onakoak ba beingoan urrindu oi dau, guzurrezko esku-erakutsi ta goitasunakaz etorrita be. Gozotasun-atsegifia bera be, nire aburuz, ez da bardiña; ezta ez dakar maitasun uts garbiaren itxurarik be; laster aitzen emoten dau nor dan. Olan ba, experientzi pizkat dagoan lekuan, deabruak ezingo dau kalterik egin.

11. Au irudikizuna izatea, eziña baiño eziñagoa dozu. Ez dago errazoirik ori ez siñesteko, esku baten edertasuna ta zurtasuna dagoz bakar-bakarrik giza-irudimenaren gaiñgaiñetik. Irudimenak, izanbe, itxuratu leikez, bat-batean, iñoiz pentsatu edo gogora ekarri ez diran gauzak, irudimenez epe luzean be eratu ezin leitekezanak, zelan momentu baten alkartu? Eziña dozu au guztiz be guztiz, guk ulertu al doguzan gauzak baiña goragoko zerbait da-ta. Onetan ezer al b:i gendu, argiago ikusiko litzateke oindiño oraintxe bertan doatzun kasu onetan. Guk ikuskizun ontan geuk nai doguna egin ge'nke, geuk geure adimenaren bitartcz edozer gauza irudituko ba genduke, ez geunkez onek dagizan egite aundiak egingo, ez orixe ez besterik; lotan dagoanaren antza bai, baiña itxarrik, logurarik ez bai iako etorri, dagoana lez dozu. Berak, naiz bear daulako edo-ta burua makal, nai loak artzea, eta alegintzen da ortarako, ta batzutan antza egiten dau pizkat: ez da baiña egiazko loa, ez dautso eusten buruari, ez indarrik emon be, bestera baiño joana geratzen da sarri. Emen be, zati bat beintzat olan litzake, arimea joana da, suntsitua, baifia eutsia ta gogor, nekatua, asarratu ta txutxu eragiña. Tkuskizuna Jainkoagandik datorrenean, b-irrtz, itzcz goratu cziñczko aberastasunez g^iñezka geratzen jatzu arimea. Gorputzari be osasuna ekarri oi dautso, indarrean ipiñiz.

12. Beste batzukaz errazoi au emon oi neutsen nik deabrua zala iñostenean, eta sarri izaten zan, gaiztoaren irudikizunak eta neure ames zoroak ziralakoa. Nik, alan be, antzak eta paretasunak ipinten neutsezan neuk al nebazanak, eta Jaunak aitzen emoten eustazanak. Guzti onek, alan be, ez ekarstan onura aundirik. Ni nengoan lekuan bertan bizi ziran pertsona on-on batzuk, eta ni, gaitz utsa, arein ondoan. Areik ez eroiazan Jaunak bide bardiñetik, eta ortik sortzen ziran susmo-ikarak. Neure pekatuen ordaiñerako, itxura zanez, gauza oneik bala-bala ebiltzan augandik agana ta erriaren belarrietara be eltzen ziran, nik iñori ezer esan bage, ator-entzuleari ta onek agintzen eustanai ezik.

13. Esan neutsen egun baten: zuek, esaterako, esango ba zeuskide nik arestian berba egin dodan pertsona a etzala nik ezagutua, zuek ondo dakizuela ikusi ta iruditua, ziur neure ames zoroa besterik ez dala, nik ariñago siñistuko nebazan zuen itzak nire begiak iñostena baiño; pertsona arek, alan be, bitxi batzuk itxiko ba leustaz, daustan maisun aundiagaitik adibidez, eta bitxiok leendik bat be ez nebala neure eskuetara ekarri, leen egiazki beartsu nintzan au aberats eginda nengoke aurki, eta naita be ez neunke siñistu al izango. Bitxi areik, izan be, ari ta oni erakutsi neinkeoz. Kasu onetan, ezagutzen ninduanak argi ta garbi oartzen nire anrimea benetan aldatua egoala. Olatxe ifioan nire autorleak berak be. Nigan gertatutako aldakuntza, oso-soa zan, gauza guztitara edatua, agirikoa beraz, edozeiñek ikustekoa. Leen ez nintzan zintzoa, ziztrin ezereza baiño; eta ezin neinke siñistu, esan oi neban, deabruak, ni atzipetu ta infernuan amildu nairik, bide ain aukerakoak erabiltea, griña ta jokabide txarrak niri kendu ta birtutezko jaztea. Antzeko ikuskizun bat naiko zala ikusten neban bein-beingoan ni aldatua izteko.

14. Nire autorleak, diñot, Jesus'en Lagundiko Aita (Baltasar Alvarez) guztiz onak auxe berau iñoan, geroago jakin nebanez. Zuurra zan eta apaltasun aundikoa, baiña

apaltasun orrek naiko izerdi ekarri eustan niri otoitz-zale ta irakatsi aundikoa izan arren, ez eukan uste larregi beregan. Jaunak, izan be, ez eroian ni neroian bidetik. Eta ni nintzala-ta gorriak ikusi zituan, era askotakoak ikusi be. Jakin nebanez, kontuz ibilteko nigaz esaten eutsoen, deabruak ez egiola sartu ziririk nik esaten neutsonetik zer-edozer siñistu orren alde beste pertsona batzuei jazoak aitzera emonez. Guzti onek atsekabez jota izten ninduan ni. Bildur nintzan nogaz autorturik ez nebala eukiko ta; igesari emongo eutsoen eleiz-gizon guztiak nigandik. Negar ta negar besterik ez nengian.

15. Jainkoaren ardura izan zan Aita arek ni autortzen jarraitu nai izatea. Jaunaren zerbitzari aundia zan, eta Aren aldeko gauza guztietarako beti gertu egoana. Ak esaten eustan Jaunarentzat iraingarri zan guztitik iges egiteko, berak iñostanetik ez urteteko, eta ez izateko beldurrik, ez nindula ifioiz bertanbera itxiko-ta. Beti bizkor-azten ninduan, eta bakearen pozez bete. Ezer ez ningiala ixildu, agintzen eustan beti; nik arek esana egiten neban. Berak gaiñeratzen eustan, nik au egiñaz, deabrua tarte izanda be, ez eustala kalterik egingo; arek nire arimeari egin nai eutsan txarretik ba Jaunak ona aterako ebala. Labur esanda: alegiñez niri santutasun osora bullz eragin nai eustan. Ni alako bildur bait nintzan, aren esana egiten alegintzan nintzan edozer gauzatan, naikoa txarto izanda be. Lar ikusi eban gaixoak neke-larri oneikaz autortu nindun iru urte ta geiagotan. Jaunak nai izan eban nik ainbat erasoaldi ta gorabera iztea; Berak nai izan eban baita, gauza orreik gaizki artu ta epai-tuak izatea, eta erru barik, aJan be beragana jo oi eben eta neuk neukan errua berari egozten eulsoen, ezaren errurik ez eukana errudun egiñik.

16. Orren ona izan ezpalitz, eta Jaunak adorerik cmon ez, ezingo eban ainbeste sufridu. Alde batetik ni atzipetua nenbillela, ameslari nintzala esaten eutsoenak etikazan, eta bestetik ni baketu egin bear ninduan, gero ta geiago-

tuz nekarren bildurra aienatu bear eustan. Onez gaiñera, gorde ta begiratu bear ninduan, ikuskizun bakotxean, ba, gauza barria izanik. Jainkoak nai eban ni gero izu-ikara aundien mende geratzea. Dana zan ni ain pekatari izan nintzalako, ta oindiño be nazalako. Berak poztu ta alaiastzen nindun erruki aundiz, baiña bere buruaganik geiago entzindu balitz, nik ez neukean ainbat jasango; Jainkoak guztian, ba, egia ulertazoten eutson, nik uste dodanez, Sakramentuak berak emoniko argiaz.

17. Onen barri ez ekien Jainko-zerbitzariak artu-emon sarria euken nigaz. Nik batzutan konfiantzaz oso berba egin oi neban euren aurrean, eta eurak zentzun bestelakoan artzen ebezan nire itzak. Bazan bat euren artean on-ona ta nire arimeak asko zor eutsona; onek bene-benetan nai eban espirituzko gauzetan nik aurrera egitea, eta Jaunari eskatu oi eutson argia emon eistala; baiña ez nindula ulertzen ikusirik, mingostasun aunditan urtzen nintzan. Oni be, barriro diñot, ain ardura gitxitxuz nik esaten neutsona, apaltasunik eza zala eritxon; nigan uts-okarren bat ikusiz, asko be asko ikusiko ebazan, dana zan gaitz-etsi bearra. Zerbait galdetu ta nik lau-idor erantzuten ba neutson, bertatik uste eban ni bera eskolatu nairik nenbillela, neure burua jakitun egiñik. Eta eurak nire arimearen ona besterik billatzen ez eben lez, gauza ori neure autorleari eroan oi eutsoen eta onek niri oizko erremuskada.

18. Atsekabe oneikaz asetzen ninduen nunaitik, luzaroan gaiñera; eta Jaunalt egiten eustazan mesedeakaz dana joian ondo. Au diñot, ulertzen emoteko, zein lan eta kezka bizia dan gogozko bide onetan experientzia daukon norbait ez eukitea, Jaunak eutsi ez ba'leust bere grazi ta laguntza ugariz, ba, ez dakit zer jazo izango jatan. Gauzarik asko ziran sena g'aldu erazotekoak, eta batzuetan ainbeste-raifio eldurik, ez nekian zer egin, Jaunagana begiak jaso baiño. Gizaseme onak ni lango emakume ziztrin, makal ta bildurta bati ukatu ta aurka egitea, errez ez dala dirudi, ba'-

ña nik neure bizitzan ainbat min-oiñazc sufridu dodan onck, auxe da danetatik latzena. On bekio Jaunari nik onetan Aunditasuna zerbidu izana; ni egotzi ta biraokatzen ninduenean, ziur nago, guztia zala Jainkoaren aintza geiagorako ta neure arimearen onerako.

XXIX ATALA

*Asilakoari darraio. — Jaunak egindako mese-
de batzuk. — Jaunak esan oi eutsona ziur-azote-
ko ta bere aurkakvai zelan erantzun erakusteko.*

1. Nekarren asmotik okertu naz, ete ez gitxi. Adierazo nai izan dot, ba, errazoi batzuk jarriaz ikuskari oneik ezin daitekezala izan geure irudimenaren sorrera, ez ekarria. Aalmen onek, izan be, zelan itxuratu leikean Kristoren Gizatasuna. Onen edertasun aundi-aundia irudimenez kidekatu-rik? Ez litzakean denpora gitxi bearko Aren antzeko zerbait, pitin bat be, asmatzera jo ezkerro. Egia da, antzetztu leikela olako zerbait bere irudimenaren aurrean, eta ari begira pizkaten egon: daukazan itxura ta zuritasuna, astiro astiro eurak osatuz joango litzateke, ta gogamenari emonaz dalako irudia. Au, nok kendu daikero, adimenaz be taiutu leikena dau-ta? Baiña diñodan ikuskari onetan eziña da ori oso-osorik, Jauna ikus-azoten da, ba, Berak nai dauna lez eta Berak nai dauan bestean. Guk ezin geinke or ezer kendu ez ipiñi, ta, guk nai izanda be ez dago gure eskuan ikusi edo ez ikusi, Berari eder ez dakionetik kanpo. Zerbait bat-banaka begitu naiz aztertu nai izan ezkerro, Kristo ostendu egin oi da bcrtatik.

2. Urte bi ta erdian egin eustan Jaunak, guztiz sarritan, mesede au. Eta orain iru baiño geiago dira onako mesederik ez daustala egiten; aren orde, alan be, beste jagi-ago bat egiten daust, geroago bear bada esango dodana. Jaunak berba egistali, nik Aren edertasun zoragarria miretsi oi neban eta Aren so eder jainkozkotik urtendako itzen gozotasuna, iñoiz latza be bazan; eta bizi-bizi nai neban

czagutu Aren begien kolorea edo-ta Aren goibe ta tamaña, zerbait esateko be jakin nengian. Baiña olakorik & dot iñoiz merezi izan, alpcrrekoak ziran nirc alegiñak; orrc-tan leiatzen baldin ba nintzan, ikuskizuna bertatik joan oi jatan. Batzutan ba-dakust begira daukadala onezonean; eta guztiz indarkorra dala ikuste ori, eta arimea berau eroan cziñez gaiñezkaldi goi-goikoan murgildu oi da, ta oncn gozoa-ren gozoa osorik gozatzearren, ikustea galdurik gcrazten da. Emen ba ez dago gura izaterik ez gura ez izaterik. Argi ikus-ten da Jaunak ez dauala nai gure apaltasuna ta begirunea baiño, cmoten dausku ta emoillea goretsi.

3. Onela jazoten da ikuskizun danelan, bat bera kendu bagarik. Guk geurez ezin geinke ezertxo be; ez gitxiago ez geiago ikusteko, gure leia ta ardura guztiak gauza-ezak dira. Jaunak gura dau guk argi ikusi daigula au ez dala gu-re egintza bere Aunditasunarena baiño, cta arrokeritik urrin egon gaitezcan, erakutsi-azo gura dausku apal lotsatiak izaten, ikusi nai doguna ikusteko indarra Jaunak kentzen dauskula ikusiz, mesede ta grazi oneik be kendu leiskuza-la, ta mixeri ikaragarrian nasturik gu itxi; Berak erbeste on-tan bizi gareala beti bildur-ikaraz bizi izatea nai dau-ta.

4. Ekanduz eta geien baten, Jauna agertu oi jatan berbiztua, onetara ikusi neroian baita Ostian bertan be. Batzutan barriz, atsekabez bai nengoan, ni bizkortu naiez, bc-re zauriak erakusten eustazan. Noizik bein ikusi neban gu-rutzean eta Baratzean; ifioizkoren baten baita gurutzea eroaten bc, eta gitxitan arantzazko burestunaz. Zelakoak ziran nire bear-izanak eta beste pertsona batzuenak, diño-danez, alantxe agertzen jatan, baiña beti berc aragi aintza-tuaz jantzita. Oneik gauzok adierazten lotsa gorriak cta la-nak, jazarpenak eta azkenbako atsekabeak eroan bear izan ditut. Pertona batzuk deabrua neukala uste eben, eta eleiz-araoak (konjuruak) egin nai eustezan. Onek cz eustan ar-durarik emoten; naigabe bakarra jatan ni autor-enlzuleen aurrean jorratzen ebiltzala eta oneik ni bildurrez autortzen

ninduela ikusi naiz zer-edo-zer esaten eutsela nekianean. Alan be ez nintzan egundo be garbai izan zerutiko ikuski-zunak euki nitula-ta: orreitako bat bera be ez neuke aMa-tuko munduko on eta atsegin danakaitik. Jaunaren grazi aundi-aunditzat euki izan neban beti ondasun izugarria iru-ditzen jatana, eta ori berori baieztu eustan Jaunak be sa-rrri askotan. Nik neuregan ikusten neban egunetik egunera geiago azten niñoi-ala Aren maitasunean. Berari erakutsi oi neutsozan neure lan eta buru-auste guztiak; eta otoitzetik urtekeran beti nengoan pozik eta indar barriz gaiñezka. Neure aurkalari-ai ezer esatea txarrago litzakela ikusiz, gau-zea apaltasunik ezagaitik zala uste izango ebelako, kontuz nenbillen, neure barruko gauzak neure autor-entzuleagaz ba-karrik erabilliaz. Eta onek beti, atsekabetua ikusten nin-duanean, alegiñak egin oi zituan ni poztuteko.

5. Ikuskariak gero ta ugariago joiazan lez, eurok zira-la-ta, leen lagundu oi ninduan oneitako batek, Aita Nau-siak ezin ebanean entzuten nindun autortegian, eta nire ze-ra deabruarena zala esaten asi jatan, argi-argi. Ikuskariak eukitea galazo eziña jakon ezker-olakoren bat etorkidanean aitaren egiteko egindu eustan, eta siñu nardagarritz uxatu nengiala, eta deabrua zala egi-egitzat artzeko, eta era orre-tan ez jatala geiago urreratuko. Uxa nengiala, beraz, bildurra osorik, seguru egonaz Jainkoak zaindu ta jagondo nindula. Oso jatan mingarri agintzen eustana, ezin nebalako ezelan be siñistu a Jainkoa etzanik. Ezta ezin neikean, esan doda-nez, ikuskizunak kentzerik nai izan. Ba'ña beti nengoan, esa-ten eustena egitera. Bitartean bero-bero eskatu oi neutsan Jainkoari ez nengiala itxi iru-zurrean jausten, eta nire eska-riak beti joiazan malko ugariz oretuak, San Pedro ta San Pab'o bitarteko nitula. Jauna lenengoz euron egunean agertu jatan, eurak lagundu ta lillura guztitik zainduko ninduela esanik. Askotan, izan be, ikusi nebazan biak Jaunaren ezker-aldean, ez irudi-ikuskariz, baiña bai beste batera argi-argi. Santu doatsu oneik ditut zaindari berezi.

6. Atsekabe aundi-aundia emostan ikuskizuna ag[^]rtzen jatanean Jaunari adarrak ipintea. Aurrez aurre nik ikusia deabrua zanik ezin neikean nik siñistu zati-zati egingo ba ninduen be Auxe izan niretzat ipiñi eustien penitentzirik gogorrena. Eta beti aitarenka ez ibiltearren, gurutze bat artu neroian eskuan, eta oJan nenbillen ia beti. Adarrak ipiñi edo siñu egin etzan ain sarritan izaten, onek pena aundia ekarten eustalako. Gogora joten eusten bertatik judutarrak egin eutsoezan iraiñak, parka eistazala eskatuaz; nik, ba, bere ordeko zanari men egiteagaitik egiten neban ori ta ez eistala errutzat artu, olan ag[^]ntzen eustana Berak bere Elizan ipiñitako zerbitzarien arteko zala-ta. Berak orduan ez estutzeko esaten eustan ondo egiten nebala zerbitzari orrein esana egiñaz, baiña Berak egingo ebala orreik egia ikusi egien. Otoitza kentzen eustenean, orraitino, naiko gogait eragiña gelditu zala uste izan neban, a egiazko nausikeria zala arei jakin-erazo nengiela aginduaz. Errazoi batzuk be argi emostazan obeto ulertzeko niri jazoten jatana etzala deabruaren lana aitzen jarriaz. Batxoren bat laster adierako dot.

7. Bein, errosario baten nenkarren gurutzea eskuan neukala, Jaunak artu eustan bere eskuaz eta barriro biurtu eustanean, au lau arri-pitxi aundikoa zan, diamantez baino metal askoz bikainagoz egiña; izan be, diamanteak ezer-eza ta baliorik bakoa dirudi, lurtar gauzakaz eta izatez goitikoakaz bardiñean jarri ezin geinkena. Jaunaren bost zauriak, guztiz polito zizelkatuta eukazan. Aurrerantzean, esan eustan, olantxe ikusiko nebala, eta Aren itzak egiazkoak ziran, geroztik ez neban ba gurutzea eginda egoan zurik ikusi, bost arri-pitxiak baiño. Au, barriz, iñok ez eban ikusten neuk ezik. Arek agindutakoa egiten asi nintzanean, sarriago etorkidazan zeruko mesedeak. Gogamena besteratzen alegiñak erreta be ezin nintzan otoitzetik urten; lo bitartean be, bera zala neritxon nire berarizko arlo. Gero ta lotuago egiten jatan maitasunean arimea, eta Jaunaren eskue-tan izten nituan neure neke, naigabe ta atsekabe guztiak,

olan ezin neinkela jarraitu aitzen cmonik. Aregan pentsatu nai ezta be, eta ortarako zazpi egiñalak egin, eziña neban. Orraitiño, neure indar guztiz esan jatana bete nai neban; gitxi edo ezerez zan, alan be, nik onetan egin neinkeana. Jaunak ez eustan iñoiz be kendu graziak egitea, beti be esana cgin nengiala aolkaturik. Bera zalako ziurtasuna sartu oi eustan, baita zelan erantzun bear neutsen aurka egiten eustenai, erakutsi, eta auxe berau dagist oraintxe be. Errazoi benetan argiak ziran eraoten eustazanak, ni ziurtasun osoz itxirik.

8. Andik lasrer asi zan Jainkoa, agindu eustanez, Bera zala niri argiago erakusten. Barrua asi jatan Jainko-maitasun gartsuago baten ixiotzen, nundik etorren ez nekian maite-su bizian ain zuzen. Izatez goitiko a zan oso-osorik, orretan nik zer ikusirik ez neukala. Jainkoa ikusi naiez nengoan, il-zori: Bera zan nire bizia, eta ez nekian nun billatu bizi au, eriotzearen bitartez ezpazan. Gero ta aundiagoak ziran maite-zauskada oneik, beste toki batean esanda daukadazanak baizen eroan-eziñak eta baliotsuak izan ezta be, nik ez nekian zer egin, neure buruaz; ez ninduan, ba, ezek asetzen, ez neure buruak artzen, eta iruditzen jatan egiazki arimea ba joakidala gorputzetik. O ene Jaunaren esku maiña! Zelako atrikuluak ez zenduzan Zuk erabiken zeure mirabe ezerez onekin! Gordeka zenbiltzan nigandik, zeure maitasun berroz estutu ta erio gozo-gozoan pulunq-erazten ninduzun: arimeak ez eban ortik iñoiz be urten gurako.

9. Oldar zauskada ain gogorrak egundo euki ez dabezanak, ezin olakorik ulertu. Ez dauka onek zer ikusirik, biotz-ikara ta erason batzukaz; ezta sarri izaten doguzan deboziñozko kilika sentikarrakaz, ezin-egon eta ito-zorian jarten gaituenakaz. Gauza oneik jazoten diran otoitz-aldiak, beeragoko maillakoa izan, cta olde-ikara oneik alegiñez baztertu egin bear dituzu, samur-samur eurok barneratzen saiatu ta arimea baketan ipiñiaz. Jazo oi da, umetxo batzuen negar-jarioa lez dala, negar atertu bagea, ito bear daualj di-

rudi, ta beingoan uxatzen da zerbait edaten emon ezkerro, Orobat emen be, errazoiak ebagi daroa edozein zauskada ta ugela estutu, berezkoa bera be sartu leiteke emen laguntzaille. Ekar daigun gogora barriro izan daitekela dana cz izatea ain on-betea ta sar daitekela onetan, eta ez gitxi, geure zentzun aldekoa be. Goza daigun arimea, umetxoa lez, Jainkoa maite izatera daroan maitezko ao-gozagarri battegaz, eta ez, esan oi danez, ikumilka. Barruan batu daiela maitasun au, eta ez irakin geiegian dagoan lapikoaren antzera, egur larregi inguratu dautsoelako, gaiñezka dana dariola. Neurritu daiela ainbat irakin ekarri dauan su ori, negar-malko bigunez su-garra itzaliz, baiña negarrak ez daitezala izan naigabearen frutu, sentimentu oneinak diran lez, kalte aundia dakarrenak ain zuzen. Neuk be euki nebazan asieran olako batzuk, eta makal izten eusten burua ta benetan ler egiñik espiritua; urrengo egunetan ez nengoan ototzari ekiteko moduan. Lenengotan bada, zur jokatu bear da, ezti ta bigun jardunik, espiritua oitu dedin barru-lanera, kanpotiko erakuspenai buru-adarrak mozten alegiñak egiñaz.

10. Guztiz diferenteak dira beste zauskada oneik. Guk ez dogu emen egurrik jarten, sua bizteko; sua biztua dagoala dirudi aurretik, beingoan jarten gaitue sutura erre gaitazan. Arimeak, Jaunaren urrintasunagaitik minduta be, berak ez dau atsekabe ori nai bere izerdiz ekarria; besterik da, gezi bat josten dautsoe erraien lekuri bizienean eta batzutan biotzaren erdi erdian, arimeak ez dakiala zer izan dan ez zer nai dauan. Ba daki Jainkaok maite dauana eta geziak bedar pozoitua ekarrela dirudi Jaun onen maitasunarren bere burua gorrota daian; Jaunaren maitasunagaitik, barriz, bizia bera galtzeko pozik legoke. Ezin daiteke aundi-etsi ezta adierazo be Jainkoa zelan datorren arimara. Min bizi-bizia egiten dautso zauri onek, eta arimeak ez daki nundik dabillen be; min au alan be, gozoa bait da, munduko poz-atsegin guztiak baiño beteagoa, arimeak beti egon naiko leuke, esan dodanez, onako gatzex ilten,

11. Samintasun eta aintza biok batera burua galdurik nenkarren, ezin neban ulertu guzti a zelan izan eikean. Oi, arritzekoa ziñez olan zauritutako arima bat ikustea! Une batetik bestera, zelan ez dakiala, berak ezertxo be egin barik, maitasun bizi ori bereganatzeko zauritua aurkitzen da, goitiko zerbaitek jota. Bat-batez jausi zala, uste dau, orain su bizitan daukan txingarra, goitik etorri jakola, eta uste-kabea, Jaunak dautson maitassun aunditik. Oi, olan nagoanean, zenbat bider datorkidan gogora Dabid'en bertsoa: *Quemadmodun desiderat cervus ad fontes aquarum* (Basanuntza ur-bizien billa dabillenez (*Sal.*, XLI, 1). Orain dirudit bertso au neuregan dakustala bete-betean!

12. Arimea bitartean, zer egin ez daki-ta, osakai billa dabil beiñik-bein, bere miña zerbait bigundu nairik, eta arako mesedeak zauskada gogorrekoak ez diranean, uste dau penitentzi batzuren bidez arinduko dauala bere oiñazea. Baiña gorputza be minsor biurtu da-ta, ez da ezer sentiduten, illik ba lego lez, ezta odola aterata be. Modu ta erarik asko artzen dauz egoera barriak nunbait, Jainko-maitasunaren pizkat sufriduteko; baiña leenengo miña bizi-bizia baita, ez dakit gorputzeko miñik ete dagoan oiñaze ori gitxitu leikeanik. Berari dagokion osabidea an ez dagoanez, oso exasak dira osakaiak aren gaitz itzalarentzat. Pizkat aringarriago egin daion Jainkoari eskatzen dautso osabidea; arimeak, eriotzea ezik, ez dau sendabiderik ikusten, eriotzeaz bakar-bakarrik uste dau bere Onagaz oso-osoan gozatzea. Beste batzuetan oñaze au arras gogorra da-ta, ezin daike erregu auxeratu be, ezta beste ezer. Gorputza illik lez dago, ezin dautse eragin ez eskuai ez oiñai. Zutunik ba dago, norbaitek eutsita lez dago, amasarik artzeko be gauza ez dala; noiztik noizera alako ene-ots eta zinkurin batzuk botatzen ditu, au be makalka ta sentimentuz naste, ezin dau geiago-ta.

13. Onela nenbillela gogoko izan jakon Jaunari nik batzuetan ikuskizun au eukitea: aingeru bat ikusten neban

neure alboan, ezker aldean, gorputz itxuran. Bakana dozu nik olan aingeruak ikustea. Sarri itxuratzen jatazan aingeruak, baiña eurak ikusi barik, aurreko ikuskizunaz esan dandanaren antzera baiño. Emen alan be, onela ikustea nai izan dau Jaunak. Azken baten arako aingerua etzan aundi, txiki baiño, ta edei'eclerra; aren arpegi-dizdizerak goi-goi dagozan aingeru areitakoena emoten eban, dirudienez guztiz ixio-txigarturik dagozanen artekoa. Kerubin diñotsenen artekoa bide zan, izen:k ez daustelako iñoiz be esaten. Ikusten dodanez, zeruan aingeru batzuetatik bestera alde aundia dago, bardin euren artean be, baifia nik ez neuke au adierazten jakingo. Arako kerubiñek, ba, urrezko gezi luze bat eukan eskuan, eta puntan burdiña iruditu jatan niri su pizkat eukala. Berau, iruditu jatan biotzean sartzen eustala uste neban, ni Jainkotasunez kiskaldua itxirik. Aundia zan nire samiña, eta areik alarauak aterazten eustazan; era berean, oiñaze bizi onek emostan gozotasuna benetan zan aundia ez dago ezer ori gura ez izatea kentzekorik, ezta arimea be ezegaz naikotzeko Jainkoaz beragaz izan ezik. Ez da gorputz oiñazea, gogozkoa baiño, naiz-ta gorputzak be parte artu zelanbait, eta batzutan naikoa, oifiaze orretan. Ari-mearen eta Jainkoaren artean gertatu oi da orduan maite-oiñazezko jardin gozoa. Baiña nik Jainko-ontasuna otoizten dot egin daiala onen partekide nire itzetan federik ez daukara be.

14. Egoera ontan aurkitzen nintzan egunetan, momorrotuta lez ibilli oi nintzan, senetik urtenda. Ez neban iñor ikusi nai, ezta iñogaz itzik egin be; bai, ostera, aoz-ao egon neure samintasunari lotua, niretzat berau bait zan sorkari guztietan aurkitu leikedan gozotasunik beteena. Noizik-bein neukana zan au, gaiñezkaldi ain itzalak etortea Jaunak nai izan ebanean; onein kontra, naita be, beste pertsona batzuen aurrean bereziki, alperrekoak ziran nire alegin guztiak gogor egiteko, ta oneik jente aurrean gero ta geiago zabaltzen asi ziranean, ez eusten atsekabe txikia ekarri. Oiñaze a geroztik makaldu egin jat zerbait eta, autor

daidan, naiko diferentea dala esan dodanetik ez dakit zein ataletan; diferentea puntu askotan eta balio aundiagokoa. Orain diñodan oiñaze au asteen, arimea Jaunak jaso oi daula dirudi, ta sorgortuta itxi, gozotasun utsean murgil; eta, jakiña, emen ez dago lekuri oiñazearentzat, ezta sufritzeko aalbiderik be. Bedeinkatua izan bedi menderen mende ain txarto erantzun oi dautsonari on ain itzalak egin daroatsazan Jainkoari!

XXX ATALA

*Bere bizi-zeaztasunak edesten asten barriro. —
Pozik ipiñi eban Jaunak Aita Pedro Alkantara
egoan urira ekarñaz. — Tentaldiak eta barru-sa-
mintasunak, ez txikiak. — Noizik-beiñera eukiak.*

1. Gaiñezkaldi gogorrokaz ezer gitxi edo ezer be ezin nebana jadetsi ikusiz, sartu jatan baita eukiko ete nebazanaren izua. Gaitz egin oi jatan ulertzea zelan izan leitekezan batera naigabea ta poza. Gorputzeko oiñazea ta ari-mako poztasuna! , ba-nekian daitekena zala, baiña espiritu-zko naigabe guztiz samur ez makala, gozotasun ain beteaz, onek nastu oi ninduan osorik. Alan eta guztiz, saiatzen nintzan egiten, baiña gitxi al nebanez, nekatua nenbillen batzuetan, Gurutrapean babestua, berau neukan gorde-armatzat gu guztiok salbatzearren erabilli ebanaz neure burua zaintzeko. Ez neukan ifior ulertzen ninduanik, eta nik ondo nekusan au, iñori be esaten, neure autorleari ezik, ausartu ez arren; au bai litzakidan egi-egiaz apaltasunak ez neukala esatea.

2. Baiña Jaunak berak konpondu zitun nire oiñaze-miñik geienak, eta ordukoz dana, gorago aitatu dodan Aita Pedro Alkantara uri ontara ekarriaz; onen penitenziaz esan neban zerbait. Orain gaiñeratzen dot, ziurtatu daustela, beste gauza batzuren artean, ogei urtetan jarraian ekarri ebala latazko orriz egindako zurdatzaz. Otoitzezko liburu txiki batzuk idatzi ebazan, erromantzez, eurok gaur asko zabal-duta dabiltz. Oitua zan eta aspertu barik otoitzari ernona, sakon eta garbi itz egin leitekean gai orretzaz otoizlari diranen onura aundirako. Frantzisko Deunaren lenengo legedia zeatz-meatz gorde eban, eta nik an aitatu nitun beste zertxo batzuk.

3. Esan dodan alarguna (1), Jainkoaren mirabe aundia ta neure adiskide zana, gizaseme arrigarria an egoala jakin eban. Ba ekian arek ni zelako bear-izanean nengoan, nire atsekabeen barri ba ebalako ta ni poztuteko alegiñak aleg'n burutu oi ebazalako. Fede errimekoa; besteak deabruaren zera baiño ikusten ez eben lekuan, arek Jainkoaren espirtua zala esatetr eustan. Adimenez argia, ixillik euki bear zana eukiten ekiana. Jaunak eman eroatsazan grazi ez gitxi otoitzean, bardin argi berezia be jakitunak azaldu ezin ebezan gauzak azaldu al izateko. Autor-entzuleak baimendu nindun orduan neukazan gauza batzuk arekin erabilliz poztasun apur bat aurkitu al izateko, ortarako balia ebana zan eta. Bera be batzutan erdikide zan Jau-nak niri eistazan mesedeetan, aren arimearentzat probetxugarri ziran abisuakaz Beraz, Aita Pedro Alkantara etorri zala jakiñik, niri ezer aitatu barik, nire Probintzialagandik baime-na atera eban bere etxean egon nendin zortzi bat egunez, eta olan askatasun osoz neure barrua azaldu nengion. Orduantxe etorren lenengoz gure urira, eta zein adiskide aren etxean zein eleiza batzuetan, sarri egon al izan neban beragaz. Geroztik, arako ta onako eretietan, neure barruko gauzak sarri agertu al izan neutsazan. Berari egin neutson neure bizi osoaren laburpen bat, nire otoiz-jokabidea zelakoa zan adierazorik, alik eta zeatzen egin be. Neure arimearejr zuzendariakaz, egia esan, beti izan naz argia eta leiala. Ezagutu eizala mundu guztiak nire arimearen zirkin ixillak be, ori nai neban nik; gauza ziur-ez, zuzmur ta zaiokoak ziranean, neu nintzan lenen olakoak esetsi ta errazoiak neure aurka ipinten. Olan, ba, guztiz agirian jarten neutson neure barrua.

4. Asiera-asieran konturatu n'ntzan ulertzen ninduala berak eukan experientziaren bidez. Eta auxe zan, izan be, nik bear nebana, orduan ez bait nekian orain lez zer jazoten zan neure barruan. Geroago emon daust Jainkoak ulertu ta ulert-erazteko, egiten daustazan mesedeak ulert-erazteko gra

(1) Giomar UUoa.

zia. Egoki zan, bai, nire gauzak ondo ulertu ta zer ziran eurak artez azalduko eustazana be ortik ibillitakoa izatea. Argi izugarria ekarri eustan arek. Nik ezin neban ulertu zer izan zeitekean irudimenezkoak etziran ikuskizunetan beintzat, eta onetan arek ezarri eustan bene-benetako argitasuna. Arimako begiakaz ikusten nebazanetan be, iruditzen jatan ez nebala ulertzen zelan izan zeitekean; esan dodanez, gorputzeko begietatik sartzen d ranai bakarrik uste neban nik egin bear jakela kasu, eta onakorik cz ncukan nik.

5. Gizon santu onek azaldu eustan gauzea argi be argi; ez eukiteko atsekaberik esan eustan, Jainkoari eskerrak egiteko, ziur egoteko Aren espiritua zala-ta, fedea bera ezik, ez ei egoan gauza ziurragorik, siñistuteko nigan ziarduana Jainkoa zala. Eta poz aunditan egoan bera nigaz, ondo-naiez eta begirunez aitzen emonik au. Aurrerantzean beti euki ninduan izen aunditan, bere asmo ta egiñetan be partedun egiten ninduala. Eta ni ikusten nindun lez, berak dagoneko egitez aukazan zerak bete gurarik, Jaunak oneik emon oi eustazala indar eta erabagi sendoz, eta ni biotz eta gogo beroko agertzen nintzala ortarako, eder jakon beraz artu-emona aukitea nigaz. Izan be, a egoan maillara jasota aurkitzen danaz kidetu leiken atsegifiik ez poztasunik, onen asierak Jaunak emon dautsozanik idoro daikenik ustez be; nik ez neban orduan askoz geiago euki bear itxuraz, eta nai bei Jaunak orain euki daidala.

6. Ez eustan samintasun txikia emon onek. Bein esan eustan, lurrean izan leiken oiñazcetatik aundienetarikoa zala nik sufridu nebana: pertsona onen aldetik datorren aitu-eziña, eta oindifio asko jasanbcarko nebala, norbaitek ja'raian lagundu bearra neukana nintzala ta uri unetan ez neukala ulertuko nindunik. Alan be, berak itz-egingo ebala ni autor-tzen nindunaz eta baita alako zaldun ezkonduaz, niri penarik aundiena emon oi eustan aregaz be, Onek, ain zuzen, gerra ikaragarria emostan gene-benetan maite ninoualako. Arima jainko-zale ta eratsua, baiña beti ziztrin ikusi nindun ezkeror,

etzan egundo be zuritzan. Olantxe egin eban santu arek, biai berba egin eutsen, zuritu eitezan zergaitiak eta errazoiak arilduz, ni kezkarazo ez nengien geiago. Autor-entzuleak (2) ez eban ainbeste bear; zaldunak bai, oster, ori ta geiago bear izan eban. Ordutik aurrera, baiña, ez ninduan ainbeste samintzen.

7. Alkar arturik geratu giñan gizon santua eta ni; aurrerantzean jazoten zan guztia Matziko neutsola, eta batak besteagaitik Jainkoari eskatuko geuntsola. Guztiz apala zan, arima ganorabako onen otoitzak be aintzat artzen ekiana, eta onek ni lotsaz urtzen nindun. Itxi nindueanean, egiaz biotzbizkortuta geratu nintzan. Joan aurretik, otoitzari ekiteko esan eustan, eta nire gauzea Jainkoagandikoa zala dudarik bege; eta ziurrago jokatzeko oraindik, autor-entzuleari emon nengioala jazoten jatan guztiaren barri, eta onenbestez ziurtasun osoan bizi. Baiña bildur-bidetik nerabillen Jaunak; eta deabruaren jostaillu nintzala ziraustenean, leenagoko bildurkezkan jausi oi nintzan, orri buruzko ziurtasun osoan iraun eziñik. Gizon areik, ba, zala bildurra eta zala ziurtasuna ekarstena, ezin eikeen nigandik lortu Jainkoak berak bere errukiz ariman ixurtzen eustana baifio fede aundiagorik. Jainkoaren zerbitzari arek bakea ta poza jadetsi eustazaia esan dot, aren itzai emon neutsen fedea, baiña, etzan izan naiko ni oso-osorik bildur бага geratzeko, Jaunak orrela nai izanik batez be, oraintxe esango dodazan arimako kezketan murgildurik neure burua ikustean. Alan be, esan dot, adoretua ta pozez geratu nintzan oso; Jainkoari eskerrak emon eta emon nenbillen baita neure Aita Jose doatsuari be, Santu onetxek uste nebalako ekarri eustala, San Jose'ren Zaintzako Ordezkarri orokorra bait zan gizon zintzo au. Nik, beste aldetik, bera ta Andra Maria neukazan bitartekotzat.

8. Batzutan jazoten jatan, eta gaur bai oindiño, ain sarri ezta be, afimako neke-miñetan egotea, gorputzeko oifiaze ta

(2) Domingo Bañez edo Toledo'ko Gartzia.

miñekaz batera, zer egin ez nekian lako gaitz biziakaz. Beste batzuetan gorputzeko miñak, biziagoak, nenkarren aulduta, baiña arimakorik ez neukan ezker, pozik eroaren nitun; biak batera ziranean, barriz, estu ta larri erabilten ninduen. Gogotik joan oi jatazan orduan Jaunak aurretik egindako mesede guztiak; oroigarri bat geratzen jatan, ames egin dan gauza batena lez, min emon eistan. Lauso jarten zan adimcna, ni milla zalantzatan eta usmotan ipiñirik. Uste neban ez nebala jakin neugan gertatzen zana ulertzen, edo-ta bear bada neure irudimenaren txoria zala. Orduan esan oi nik, zer dala-ta nekazan beste batzuk be kaparra sartuta? Ez ete naiko neu bakarrik ortan ibiltea? Onek zirauan artean, pentsamentu gaiztoz nengoan: jagitako gaitz eta ereji guztiak, uste neban, neure onen cta txarto egiñen ondorenak zirala.

9. Au igarrian etzan guzurrezko apalkeria besterik, deabruak biotzean jarten eustana ni kezkarazo ta ia arimea etsipenara eroan eikidan ikusteko. Aspaldi daneko experientzia daukat deabruaren gauzea dala jakiteko ta deabruak, nik ulertzen dodala dakianez, ez nau onetan oi eban bestean mindu ta alatzten. Argi ikusten, asten dan ezin-egon eta artegatasunean, eta dirauño ariman darabilten nasteen, eta bertan ipiñi oi daun illunean eta naigabean, otoitzerako naiz beste cdozein onerako leortasuna ta ari gaiztoa, deabrua dabil lelako or azpi lanean; arimea itoz doala dirudi ta lokarritu gorputza, biai zoztorra jarritz aurrerantz egin ez dagien. Egiatzko apaltasuna ez da orrela; apala dan arimeak ezagutzen dau bere ezereza, min emoten. dautso daukan mixeriak, aziagotuz doakion gaiztakeriak, esan ba'izen aundia ez diranak; ikusten dau bere sentimentu oneik egiari zelan erantzuten dautsen; onek baiña ez dau naspiltzen, ez artogatzen, ez dau illun ez lior jarten. Bestera baifio, apaltasun onek bakez, aintzaz, gozotasunez eta argiz beteten dau; labur, dagi osooan deabruak dagianez. Beste aldetik, bizkortzen dauan atsekabea da, arimcak ikustcn daulako Jainkoak damotson beste bide barri bat, beste grazi bat, aurrera egin daian. Min egiten dautso Jainkoa iraindu izanak, baiña beste aldetik

beingoan dakar gomutara Aren erruki zabala. Artu dauan argiak lotsarazten ba dau be, Aren Aunditasuna goretsi oi dau, ainbeste denporaz bera sufridu ebalako. Deabruak jarri dagian beste apaltasun onetan ez dago argirik ez ezetariko onik burutzeko, eta dana Jainkoak berak jarten dauala dirudi suz ta odolez. Bere zuzentasuna ipinten dautso begien aurrean, eta deabruak ez diukan arren arimeari gaidu-azteko indarririk onek Jainkoaren errukian daukan fedea, alan be pentsamentu onek ez nau bape poztuten, ainbeste erruki ikusiz, oiñaze geiago emon daroast, goragora bearturik nen-goala begitantzen jat eta.

10. Au, nire eritxiz, deabruak asmatu-rik maltzurkeri uts, nik agandik izan dodan gogaikarri, zorrotz eta malmu-tzena dozu eta zuri, Aita orri, esan bearrez nagoala iruditzen jat, iñoiz alde ortatik zirakatua izango ba litz, argia euki daian, eta ezagutu, ezagutzeko adimen-argirik laga ba'legio. Ez uste izan, ikastea ta letrak naiko dirala ontarako. Nik, egia esan, ez dot olakorik, baiña egoera aretatik urten ondoren, ondo ulertu daroat a guztia iruzur utsa zala. Ziur nago ni, au Jaunak naia dala ta Berak naimena emonda. Job santua zirikatze-ko emon eutsan lez; baifia ni kaskar zatarrago nazala ikusirik, ez dautso a baizen latz zirikatze-ko baimenik emoten.

11. Gogoratzen dot zer jazo jaten Korpus Kristi bez-pera aurreko egunean: jai onen zalea naz ni, bear neuken aiña ez izanda be. Oraingoan, egun artara arte iraun eustan, besteetan zortzi ta amabosteraíño, eta iru asteraiño be bai, ez dakit geiago ez ete zan, oi eustanak. Deabruak batez be Aste Santu aldera zirikatzen nindun, niretzat otoitza poz-atsegiñaren iturri izan oi zan garaian. Adimena batzutan bape suster bako gauzaz nastua geratzen jat buru-itzul baten, beste une baten barregarri litzakidazan zer utsakaz. Arimea, berak nai lez eukiten dau nasia, eragetu ta lausotua; atxillo ta katigu legez daukazu bertan, bere buruaren jabe ez dalarik; pentsatu be, gaizto arek aurrean jarten dautsozan gan-

garkeri txaldanak, utsalak, umekeriak, susterrik eta funtsik ez daukienak, arimea ito ta beretik aterateko baiño ez diranak. Olantxe da, bai, niri gertatu jatana; deabruak, begitانتzen jat, arimeaz dabiltzala pelota jokuan legez, eta au ez da gauza arein esku artetik iges egitcko. Ezin daiteke adierazo kasu onetan zer sufritzen dan. Laguntza gura dau berak andik edo emendik, eta Jainkoak ez dau gura idoro dagianik; naimenaren aukera gcratu oi da bakar-bakarrik, eta ori be ez ain argi. Begiak itxita gab'ltzala, diñot, toki bardifietik sarri ibilli dan pertsona baten antzean, gaba izan arren eta illunetan, leen illunak lagunduta, ba daki zirkun-zarkun nun cgin daikcan; egunez ikusi daualako, ango zoztor artetik urrindu egiten. Olan da gure kasuan be, Tainkoa pekatuz ez iraintzeko, oituraz legez doalako emoten. Itxi daigun berariz Jaunaren laguntza, orrek bai gaitu beti onik ateraten.

12. Egoera ortan erdi-illik eta lotan dago fedea, beste birtute guztiak lez, galduta ezpa-dago be, arimeak siñisten bait dau Eleizeak siñiskaitzat daukana. Alan bere fedezko egintzak ao-soiñuak dirudie, ez besterik. Kateetan lez aurkitzen da, loturik eta gauza ez dala eta Jainkoarekiko eza-guera bera be urriñeko doiñu bai'litzan iruditen. Oso apal biurtu jako maitasuna, Aretaz itz egiten ba dantz, dana dala siñistuten dauan lez entzuten dau, Eleizeak akkotzat daukalako; baiña beiñola txastatu edo gustatzen ebanetik ez dau ezer gogoratzen. Otoitzera ba doa edo errezatzeko bakartad billa, daukazan kezka ta naigabeak geitu bssterik ez jakoz egiten. Labor, nundik datorren ez dakigun eta barruan sentitzen dan atsekabe ori, egi-egiaz eroan eziña da, nire gard'z, apur bat beintzat infernukoen antzekoa. Onelaxe da au, Jau-nak ikuskizun baten aitzera emon eustanez; arimea erre egiten jatzu bere kautan, nok eta nundik sua ezarten dautson jakiteke, eztaki andik zelan iges egin, ezta berau zelan itzungi be. Irakurten billatu nai dau aringarriren bat, irakurten ezer ez ba leki lez jatzu. Au jazo jatan bein, zerbait lilluratzen nintzan ikusi nairik, santu baten bizitzea irakurten asi nintzan, arek sufridu ebanaz neu be poztu nendin. Baiña lau

edo bost bider beste ainbeste lerro irakurri, erromantze zagnagaitik, asieran baiño gitxiago u'ertzen neban azkenean; liburua itxi neban. Sarri gertatu jatan au, baiña auxe gogora datorkit batez be.

13. Norbaitegaz autuan jardutea, dozu txarrago; dea-bruak, ba, unc oneitan sumiña ta umorc txarra sartzen dau-tzuz, eta neurcz uste dot danak gurkatuko neukazala. Neure aldetik ez naz gai ezer egiteko. Edo-ta, eristen jat, ezer egitekotan neure austea; baiña egietan Jauna bera da orrela dagiana bere eskuz daukana ezer egin ez dagian, ezta ezer be, urko-lagunen kontrakcrik edo Jainkon iraintzekorik. Eta autor-entzuleagana joan? Au bai egiten nebala! Sarrikoa zan esango dodana. Garai atan, eta orain, arima arazoetarako daukadazanak ain santuak izanik be, berba gogorrak eta ez-esatekoak botaten eustezan, eta geroago, nik arei esanak bide zirala zelako itzak erabillezan nigaz, eurak be sor ta lor ge-ratzen zirala, euren eskuan ez egoala besterik esanaz. Eta, ain zuzen, crruki ta kezka, gorputz eta arimako ainbeste naigabe niri ekarstelako, eta geiago ez ekarteko asmoa artuz, ni poztuteko alegiñak egingo ebezala aginlu eusten, egitez gero ori ez egoala euren eskuan autortu arren. Ez eben egiaz itz txarrik botaten, Jainkoa iraintzeko lakorik, baiña autor-entzula bategandik cntzun leikezanik eta latz-gogorrenak ziran. Orrela egien ni ezi ta neke-erazteko, bear bada. Bcste egoera baten pozik croango nitun irain orreik, baiña orduan oro jatan oifiaze. Garai aretan uste neban orreik be guzurrean sartzen nebillela, eta eurengana zuzenduz egi-egiaz oar oi nebazan kontuz ibilteko nigaz, nik eurak oker erabiltea dni-tekena zala-ta: jakiñez ondo nekian ez nebala olakorik nai, ezta guzurrik be ez neutsen esango, b'ldurrak baiña edozertan jarten ninduan. Orreitako ba*:ek (2) bein, tentatua nenbi-llena iakinik, uxa nengiala bildur gnzta esan eustan, nik tran-kart egin ba neuskio be. ba-ebaia berak garunik naiko lakio orretan ez jausteko. Berbok poz aunditan itxi ninduen.

(3) San Antonio'ren Fcderiko aita.

14. Batzuetan, ia geienetan lez, jaunartu ondoren, ba ketan jarten nintzan dapa, arnasean; beste batzuetan, Sakramentua artu ta ordu betera lez, guztiz nasai geratzen gorpulz eta arima, neure arrimen egiaz aundiz. Esan leitekean, jainko Eguzkia agertu-ala arimako illunpe danak ezereztan zirala beingoan, aulak bai ziran ordurarte kezkar jarri ninduen bildur-ikarak. Beste batzuetan, leen be esanda daukadanez, Jaunak itz bat esatea naikoa neban, adibidez: *Ez zaite kezkal Ez izan bildurrik*, guztiz ondo geratzeko. Ikuskizun bat izaten nebanean, egundo ezar izan ezpa-ncu lez geratzen nintzan. Jainkoaz josta oi nintzan, illetak Berari joaz, zergaitik bialtzen eustazan ainteste oiñaze, nik jasan-bearrak eta olakoak adierazoz. Baiña min orreik ondo ordainduak izaten ziran, gerora be, ja beti, ugari-ugariak izaten bai ziran egistazan mesedeak eta. Arimea, urrea lez edo, urteten dala dirudit bere su-katillutik leunago ta garbituago, Jauna bere kautan ikus dagian. Olan txiki geratzen dira gero neke-miñak, aurretik eroan eziñak iruditu arren; eta oster a be, eurak sufritzera biurtu nai leuc, apika ori balitz Jaunari geiago zerbitzu egiteko bidca. Naigabe ta eraso-aldi geiago eroan bear ba litzatekez be, Jaunari iraiñik egiteke eroatekotan, eta bai Agaitik sufriduaz poztuteko, dana dozu irabazi geiagorako, naiz-ta nik, bear lez eroan ez, uts eta makur askogaz baiño.

15. Beste ari bateko lorrak ctorkidazan bein baiño gciagotan, eta gaur be ez jataz palta, eta arakoak buruan gauza onik ez erabilli ez egiteko moduan izten nabe, arima ta gorpulz txit baldan eta astun. Onan, alan be, ez dot izaten tentaldi ta kezkarik, zertazkoa dan ez dakidan lor-naieza baiño, arimeari poztasuna itzaltzen dautsona. Indarka legcz, zerbaiti jarduteko, egintza onak burutu nai izaten nebazan, eta ondo dazau zer gitxi dan arima bat Jainkoaren grazia ostendu oi jakonean. Esan bear dot alan eta guzti be, au ez jatala naigabe iturri, neure ezereztasun ikusia atsegin poxi bat bai jatan.

16. Bein edo beste gertatzen jat ezin dodala pentsamenturik eran jarri, ez Jainkoari ez beste ezeri buruz, zentzunez doanik. Bakar ba nago be, ezin dautsot otoitzari ekin, Jainkoagazko olako sena izanda be. Adimenak eta irudimenak, uste dot, kalte besterik ez dabela emen egiten; naime-na, barriz, bakez dago ta on guztirako gertu; baiña adimen au oso galduta dabil, zoro sumindu baten pareko, ez dago berau lotu daikenik; kredo esan bitartean be, ez naz gauza berau geldi euki azoteko. Iñoizka barreari emon oi dautsot neure mixeria ikustean; adi-adi egon oi naiako zer egiten dauan lagarik. Baiña, gauza arrigarri!, Jainkoari esker, ez doa egundokoan be, zer txarrera, ez bai ez ez diranetara baiño, emen, an edo aruntzago ezer burutu bear bada. Sakonago dazaut orain Jaunak egiten dauan mesede guztiz aundia, zoro au katetan daukanean bcgiztatzen betea daUi bide. Konturatzen naz zer esango leukien ontzat naukien pertsonak burutik jote au ikusiko ba lebe. Benetako errukia dausat lagun-arte ain gaiztcan legoken arimeari; aske ikusi nai dot oJakoa, eta oiu dagitsot Jaunari: «Noiz, ene Jainko, dakusket nik neure gogo a zure goralpenetan oso-osorik? Noiz gozatu al izango nire almenak Zutaz danak batera? Ez eizu nai, Jauna, nire arima au ain zatitua izate-rik! Zati bakotxa, itxura danez, bere aldetik bai dabilkit». Naikoetan euki daroat estualdi au; batzutan baita ikusten dot neure osasun gitxitik datorkidda. Gogora dakart sarri jatorrizko pekatuak ekari dauskun kaltea; andik d^htorrela deritxot niri gauza ain bikaiña ez ezagutu eta ez gozatzeko gai ez izatea. Ortarako bide izan dira, ta ez gitxi, nire erru eta obenak be. Aingeste egin ba nitun, egin be, gaur tinkoago cgongo nintzan onean.

17. Beste lor bat be izan neban, irakurten nebazan otoi-tzez ziarduen liburuak, ain zuzen; danak ulertzen nebazala uste nik, areitan etozan gauza guztiak ulertzea Jaunak da-;oneko emona neukala, eta ez nebazala bear, ez nituan beraz irakurtcn, Santuen bizitzak izan ezik. Arein birtute ederrak crakusten eusten ni zein atzeratu nengoan Jainkoaren zer-

bitzuan, eta onek bizkortzen ninduan santutasun bideari zoliago ekiteko; probetxugarri izan jatala deritxat. Apaltasun urria zala neritxon ni otoitz-mailla ara eldu nintzala pentsatzea, eta nik neLirez besterik ezln neinkean ezkerro, atschabe bizia sartzen eustan onek. Azkenez, gizon jakintsuak eta Alkantara'tar Aita Pedro doatsuak esan eusten ez eukiteko orren penarik. Jaunaren mirabe izaten, eg'a esan, ez naz oindiño asi, ikusten dodanez, naiz-ta Berak orduko arima on askori egin oi eutsozan iango mesedeak niri be egiñak euki. Ni lorrin eta makets utsa naz, gurarietan eta maitasunean ezik; onetan, ba, ikusten dot Jauna biotz zabala izan dala nigaz, zer-edo-zertan beintzat zerbidu al izateko era emotean. Uste dot maite dodala, egiteak baiña ez jataz pozgarri, ezta neugan dakustazan makiña bat akats-utegite be.

18. Batzutan, irudi danez, egoera motel ergelean daukat arimea. Ona zelan. Ez onik ez txarrik egiteko gauza ez dala, ibilli bakarrik jentearen arira; esan daroenez, ez min ez ats, ez bizi ez il, ez atsegin ez naigabe: arimeak ez dau nire begitako ezeren sentikortasunik. Au, nik uste, larran dabillen astotxo lez dozu, arat-onat ibilliz eta konturatu barik bazka aurkitu daroanez janaritzen da. Gogoa barriz, egoera ontaraiño eltzen danean, ez dago jan barik, Jainkoak berak janaritzen bai dau zenbait mesede aundi egiñaz, bizi ziztrin makal onen pisua eroapentsu daroalako sarri sainar egiñak nunbait. Bera baiña ez da oartzen bere egoera ortaz, ez dau somatzen barne-zirkiñik ez ondoriorik. Begitantzen jat itxaso zabal zear dabilela arimea aizeño leunak eraginda, eta olan konturatu barik aske clabil.

19. Ez da beste egoera batzuetan bezela. One'tako ondorioak benetan errimeak dozuz; laster igarri oi dau arimeak bere oberaldia; arnasean dator, ba, gurarien irakiñi, eta arima bat ez da egundo be bere betera eltzen. Auxe daukie maitasunezko zauskada gogorak, Jainkoak emonda daukazala esan dodazanak. Nik borborka ikusi ditudan ur-sorburu batzuen antzekoa da: azpiko areak beti diar-

du gora igon gurarik. Iruditzen jatanez, konparaketa au berez-berezkoa dala autortu daikegu, onaiño jaristen diran go-goentzat. Maitasuna beti dago bol-bolka, eta buruan zer-egiña irauliz; ez dau bere barruak artzen, ura lurak ez dauala artzen esan daikegunez, beragandik kanpora bota baiño. Olantxe aurkitzen da arimea sarri askotan, egon eziñik, daukan maite-sua barruan artzen ez dauala. Bera onezkero ondo ur-asetua dago, eta beste batzuk be ortik edan daicla opa dau, eta gizasemeai deiez diardu etorri ta berak lez edan dagien ortatik. Betoj jente asko ta asko Jainkoa goresten. Oi! , zenbatetan dakardan gomutara Jaunak samaritar emakumeari aitaturako ur bizia! Bari Oneko pasarte a beti izan jat eder. Eta olantxe da, egi-egiaz, on au orain lez ulertu barik, neskato nintzanetik jatan bikain, eta sarri eskatu oi neutson Jaunari ur aretatik emon eistala, eta beti egoan lekua marraturik neukan, Jauna potzura eldu zanean samaritarrak esan eutsozan itzokaz: *Domine, da m'ih i aquam* (Jauna, emoidazu ur ortatik) {Luk., IV, 15}.

20. Maitasun au, nire eritxipenez, su aundi bataz be bardinkatu leike, eta berau motelduz joan ez daiten,ugarri barria euki bear dau etenbarik. Olantxe dira nik diñodazan nrimak: bear dan egurra eurak ekarri bear izanda be, eurak ekarriko leukie sua amaitu ez dedin: beti dagoz prest opagai izateko. Ni, neure mixeria ikusiaz, su orretan agotza botata be, pozik aurkituko nintzateke. Batzutan barre dagit eta besle batzutan asko nekatzen. Bultz dagist barru eragiñak zerbait egitera; beste ezertarako gauza izan ezta be, Jaunaren mirabe izateko beintzat, lora txortak ipinten ditut egoki irudien aurrcan, arratzaz farraztaka dagit garbiketan, otoitztegi bat eratu edo apaindu, onako gauza zirtzillak egin oi nebazan, erdi-Iotsaturik izten ninduenak. Penitentzi apurrik ba nengian, oso zan bitxi, eta Jaunak arnasa emon ezik, ondo ikusten neban ez nebala ezer balio, eta neu nintzan aurrenik onetaz irri egiten. Ez daukie neke gitxi, Jainkoak bere ontasunean bialduta, onako maitesua oparo artzen daben arimak; batez be Aren aintzarako zerbait egin nai ta gorputzeko ke-

menak erantzuten ez dautsoenean. Samintasun gorria au; eta gogoak indarrrik ez daukan ezkeru su oni egur pizkat ezarteko, eta daukana itzali ez dadin alegiñak egin, akituaz doala dirudi gogoa bera, auts biurtuaz; negarrez dago ta erretan. Oiñaze ezin adierazoa, baiña gozatsua.

21. Onaiño eldu dan arimeak gora bei Jauna eten barik. Berak emon dautsoz soin-indarrak penitentzi egin daian, baita talentu ta letrak be, eta askatasuna Jainkoaren itza otsegin, autortu ta arimak Arengana eroateko. Ez daki, ezta ulertu, zelako ondasunak daukazan, iñoiz ikusi ez badau zer dan ezer egin ezin izatea Jaunaren zerbitzuan, beti be Beragandik asko artu izanaz. Onetsia izan bedi ori danoigaitik, eta aintza emon begioe aingeruak. Olantxe.

22. Ez dakit ondo egiten dodan, ainbeste zeaztasun idatziaz. Zuk, Aita orrek, bigarrenez be agindu zeustan-eta, luzatu arren, idazteko ardura barik, ezer ez izteko, orixegaitik jarten dot emen burura datorkidana, argitasunari ta egiari dagokiena emonaz. Alan eta guzti be gauza asko geldituko dira esan barik. Denpora asko txautuko neuke ostantzean, eta gitxi baiño ez daukat, esan dodanez. Ez dakit, gaiñera, noraifio izan daiteken onuragarri nik idatzitako au.

XXXI ATALA

Kanpotik datozen tentaldi batzuk. — Deabruak egiten eutsozan antzeketa batzuk, eta oiñazeak. — Gauza bereziak, onbidean aurrerantza doazan otoiz-larientZiU.

1. Deabruak nire barruan erabilli ditun burruka ta tentaldi batzuk adierazo dodaz; orain, oster, ia aginan be eragin oi eustazan beste batzuk, bereak zirala ezin ukatuak, azzalduko ditut.

2. Bein otoitz-lekuan nengoala, itxura gorrotogarrian agertu jatan neure ezker aldean. Bere aoa izan zan batez be beregana erakarri ninduana, berba egin eustalako; iguingarria eukan benetan. Gar itzala erion gorputzetik, geriza bako gar zuri-zuria. Ikaragarriro esan eustan onik jarei nintzala bere eskuetatik, baiña oster be areitaratuko nindula. Bildur-ikara izugarria sartu jatan, eta al neban lez aitaren egin. Gorde zan nunbait, alan be laster biurtu zan barriro. Birritan jazo jatan au, eta nik ez nekian zer egin. An ur-ur neukan ur bedeinkatua, nengoan lekua aregaz txipristindurik, eta etzan geiago nire begi aurrenn agertu.

3. Beste bein bost orduz euki ninduan oiñazetan, barru ta kanpo, egon-eziñez, min izugarriekin; gogor-latzak iruditen jatazan oneik, eroan ezifiak benetan. Nigaz egozanak, arri ta zur, darda-gaiñ aurkitzen ziran zer egin ez ekiela, ezta nik be zelan baliatu. Oituraz daukat, neke-miñak eta gorputzeko oiñazeak alako jasan-eziñezkoak jatazanean, zer-bait egiten jardun oi dot al dodan eran, Jaunari eskatuz, ori on ba leritxon, Aren Aunditasunak emon daidala eroapena,

eta ni egon nendilla orrelaxe mundua amaitu arte. Nengoan cgoerian, ba, zorrotzak bai ziran nire miñak, egintza ta asmo oneikaz eroangarriago egin oi jatazan, apur bat beiñik-bein. Baiña, Jaunak aitzen emon eustan legez, deabruarena zan guztia, eta alboan ikusi neban baltz txiki bat, nazkagarri oso, etsi-etsita lez, erramuskadaka, irabazi uste ebana galdurik aurkitzen zalako. Bera ikusiaz bat, barreri emon neutsan ezetariko bildur barik. An egozan pertsona batzuk min areik niri eroangarriago egin gurata. Deabruak bere aldetik ni berari gogor egiten ikusiz, golpe aundiagoak eragiten eustazan gorputzaz, buruaz eta besoakaz; txarrena zan, nik barruko kezka ta ezin-egonaz atsedetik ezelan be artu eziña. Ez nintzan azartzen ur bedeinkatua eskatzen, an egozanak izu-ikaraz ez j'artearren eta a zer zan jakin ez egien.

4. Sarritako ikusi ta experientziz dakit, ez dagoala gauza obarik deabrua igesean ipiñi ta geiago biurtu ez dadin, ur bedeinkatua erabiltea baiño. Gurutzearen aurrean be iges egin daroe, baiña barriro biurtzen jatzuz; ur bedeinkatuaren indarra, alan be, aundia izan bide da. Niri oso aparta jat, eta artzen dodanean benetako poza sentitzen dautzu nire arimeak. Geien-geienetan, ziurra da, jostaldi bat ba'litzan sentitzen dala, nik zelan ulertzen emon ez nenkian lako barne gozotasuna, arimea alai-azo ta birbizten oso daustana. Au ez da illargi-aldi edo griña, ezta bein bakarrik gerta jatan be. Sarri jazoa dodanez, berau askotan sakondu be egin dot arduraz. Egin daigun, norbait berotan egarri dala eta pitxer bete ur otz edan dauala, pozaldi benetakoa artuaz, Gogoan erabili oi dot nik, zein gauza ederra dan Eleizeak aginduta daukan guztia, eta atsegin jataz areik urean ezarten dauazan berbak ur bedeinkatuari ain zuzen, bedeinkatua ez danaren aldean, zelako indarra damotsen jakiteak.

5. Deabruaren ziriketa etzala amaitzen ikusirik, ba, esan nebau neure kolkorako: ikusten nabenak barre egingo ez ba'lebe neure bizkar, ur bedeinkatua eskatuko neuke.

Bertatik ekarri eusten eta bota eusten neuri be, baiña ez eustan ezer egin. Bota neban egoan lekura, eta bat-batean joan zan. Eta gaitz guztia kendu jatan, esku errukior batek ikutu ba leust legez; nekarazoa gelditu nintzan, alan be, ma-killaka zapal-zapal egin banindue letxe. Erakutsi aundikoa izan jatan jazoera au. Jaunak baimena emotean, ba, arimea ta gorputza bat-bera ez dirala be, ainbeste kalte eglten ba dau-tse, zer ez dau oneikaz egingo bere esku euki ezkeru? Barriro sartu jatan gurari bizia lagunarte doillor aretatik iges egiteko.

6. Beste bein be, andik laster, bardin gertatu jatan; etzan orraitino epe luzekoa izan. Bakarrik nengoan, ur be-deinkatua eskatu neban. Lekaime bi, egitiak oso ta ifiundik inora be guzurrik esango ez leukienak, deabrua joanda gero, gelara sartu ziranak, olan esan eben, usain guztiz txarra, kirats-arriaren parekoa, sentidu ebela. Nik ez neban nabari izan usainik, baiña orrek iraun eban ondo konturatzeko bestean. Beste baten koruan nengoalarik, neure kautan batunai itzala asmatu neban; aldendu nintzan andik, an egozanak igarri ez egien, baiña ni egon nintzan leku aretan danak entzun eben kolpe aundiak emoten, eta nik itz-otsa alboan, pertsonak zerbait barbar erabillen antzekoa. Zer zanik ez neban ulertu, berbaro lodia zan arren. Otokzean sartua oso bai nengoan, ez neban ezer aditu, ezta bildurtu be. Au izan oi zan geienez, Jainkoak nire bidez arimaren bati on egitea gura ebanean. Egia da gertatu jatala orain esango dodana, asko dira onen testigu, eta onein artean bat orain autortzen nauana (Aita Domingo Bañez), karta baten idatzita ikusi ebana: nik aitzen emon barik nor zan eskutitz a idatzi ebana, ondo ekian arek nor zan.

7. Pertsona bat etorri jatan bein urte bi ta erdi pekatu astunean, au da, nik entzun izan dodan iguingarrienetakoa bizi zana. Denpora guzti onetan ez eban egundo be pekatu ori autortzen, ezta bera itxi be, eta olantxe mezea emon oi eban. Beste pekatu batzuk autortuta be, augaitik esan oi eban zelan autortuko eban gauza ain itsusia. Urten naita be

bizitza ortatik, eziña jakon. Niri barru-barruan ikutu eustan onek, eta Jainkoa olan iraintzen zala jakiteak naigabez jarri nindun osorik. Ari agindu neutson Jainkoa otoiztuko nebala egoera aretatik atera egian, eta pertsona batzuei be, ni baiño obeak ziranai, orixe barori egiteko eskatuko neutsela. Bardin egin neban, berak esanik, bere kartak niri izteko erreguz idatzi neutson beste pertsona batekin be. Eta Jaunak, ain-beste arima santuren eskariak entzun eta onarturik, errukia erabilli nai izan eban arima onekin, ni, naiz-ta ezereza izan ainbat arduratu nintzan oneikin. Al nebana egin neban nik, eta berak andik laster idatzi eustan askoz obeto aurkitzen zala esanaz; oberantza orri esker, egun bi zirala etzala pekatu orretan jausten. Jaunari eskatzeko, alan be, bene-benetan eskatu be, tentaldiaren indarrak ekartson oiñazea aundia bai zala, infernuan bertan egoala iruditzen jakon eta. Barriro eskatu neutsen neure aitzai eg'uela Jainkoari eskari arima aren akle, eta arein erregu, otoitz eta eskabideai esker, Jaunak egin bear eustan mesede ori, eurak oso benetan artu ebona. Iñok ezin leikean igarri nor zan arako urlia. Jainkoari eskatu neutson nik arindu eitezala neukazan oiñaze ta tentaldiak eta nik ezetan be Jauna ez iraintzekotan etor eitezala deabru areik ni atsekabetan jartera. Eta orrelaxe illabete osoan neke-min bizi-bizietan egon nintzan; ain zuzen be, esan doclazan gertakizun biok jazo jatazanean izan zan ori.

8. Idatzi neutson eleiz-gizon ari zer jazoten jatan, eta berak erantzun eustan illabere aretan egin-egiñean be, eskerrak Jainkoari, bat bere tentaldi barik ibilli zala. Tndartu zan aren arima eta guztiz jareiña geratu zan kate areitatik, Jaunari eskerrak emon eta emon, eta niri be bardin nik zer-edo-zer egin ba neu lez. Onurakor izan jakon, itxura danez, Jainkoak ni mesede askoz ornidua nintzala jakitea. Gogor zirikatuta aurkitzen zanean, esan oi eustan, n're eskutitzak irakurriz bcratik joan oi jakozala tentaldiok. Oso egoan arriturik, bcre askatasuna lortzeko sufridu bear izan nebana jakiñaz; ni ez nintzan gitxiago zurtu artaz. Gertu nengoke, gaifiera, aren onerako, beste sufrimentu batzuk be

eroateko, arima a bere oiñazetatik aske ikustearren. Onetsia izan bedi Jauna, gauza guztitan! Zerbitzari dabezanen otoitzak ba dau indarrik Aren baitan, eta zoriontsu artean onein kopuruan sartzen dira, ez izan dudarik, parte egiteko, komentuko aizta oneik be. Alan be, nik nerioazan lez otoitz egitera, nigaz sumindurik ziran deabruak geiago ta geiago; Jaunak askatasuna emotsen, antza, neure pekatuen ordaiñerako.

9. Unekada ontan, gabaz, ito bear ninduela uste izan neban. Eta inguruan ur bedeinkatu ugari bota ebelako, igesi joian deabru andana ikusi neban, mendian beera labanka doan jentearen antzera. Ainbestetan bai nabe madarikatuok zirikatzen eta exkasa eurok onezkero sartzen dausten izu-ikara, Jaunak baimena emon ezik ikara be egiteko ez dira gauza ikusiz gero, eurok azalduaz zeu, Aita, nekatuko zen-gikedaz eta neu be nekatuko nintzake.

10. Esan guzd oneik izan bediz, Jainkoaren zerbitzari leial danak, deabruak gu ikaratu naiez jarten dabezan txorikuso ta mamu oneik gitxi-eritxi ta erdaiñatu daizan, eta jakin daian guk zenbat eta jaramon gitxiago egin, areik indar gitxiagoz geratzen dirala, eta arimea bere buruaren jabeago. Beti geratzen olako probetxu aundia, geiago ez luzatzearren aitatzen ez dodana. Alan be, illen gau batez jazo jatana esango dot soil-soil. Otoiztegian nengoala, gau-aldi bat erre-zau ta onen amaian datozen otoitz labur biozti geure arrendian datozenak esatean, liburu gaiñean jarri jatan bera, otoia-aren azkena galazoz; aitaren egin neban eta joan zan a. Barriro asirik, a be biurtu zan; iru aldiz uste dot izan zala asi ta amaitu ezin; ur bedeintatua bota neban arteño, ezin amaitu izan neban. Arima batzuk, ikusi nebanez, bat-batean urten eben garbitokitik, gitxi falta jakelako edo. Eta daukat deabruak au galazo nai ete eban. Gaizto ori gitxitan ikusi izan dot itxura zeatzean, eta itxura bape barik, adimen ikuskizun-ean legez; esan dot, ba, arimeak ondo dakiala ba-daukala norbait aurrean.

11. Esan nai dot beste gertakizun au be, asko arritu nindulako. Irutasun deunaren egunean arako santutegiko koruan nengoala, sorgor jausi nintzan zentzunak galdurik, eta burruka itzela ikusi neban deabruen eta aingeruen artean. Orduan ezin neban ulertu zer adierazo nai ete eban ikuskizun arek. Amabost egun baiño leen ondo jakin zan jente otoizlari ziranen eta etziranen artean eukitako liskar eta eztabaida, eta naiko zoritxar etorri jakon iskanbil ori izan eban etxeari; luzaroko baieza izan zan, ezin-egon benetakoa ekarri ebana. Beste batzutan deabru taldea ikusi oi neban neure inguruan, biran oso inguratzen nindun argitasuna nekusala uste nik, eta argitasun orrek ez eutsen niganaiño etorten izten. Jainkoak gordeten ninduala begitandu jatan, nik Jauna iraintzeko moduan beintzat niganatu ez eitezen. Egiazko ikuskizuna zan niretzat, neugan be ikusia neukan eta. Orduko ondo nekian orrein al-iazte urria; ncu egon ezik Jainkoaren aurka, ez dautset bape bilduriak. Orrein indarrak cz dira ezer, oso koldarrak dituzu, arimarik ikusten ezpadabe euren oiñetan auspez; orduan bai, orduan erakutsi oi dabe euren alaren jokoa. Iñoiz aitaturako tentaldietan irudi egiten jatan, aspaldiko uskeri ta ergalkeri guztiak bir-itxartuz etozala nigan, eta Jainkoaren zainpera jo bear nebala. Gero ctorren irudi jatanaren naigabea, pentsaintu areik etorkidazan ezker deabruaren gauzea zala guztia. Uste neban, ba, Jaunagandik ainbeste mesede artuak, begitanduten jatan, pentsamentu txar baten leen-eragaiñik ez leukela euki bear.

12. Oiñaze cz txikiagoa jatan, noizik bein^ gaur bc ba jat, niri ta nire gauzai kasu geiegi egiten jakela, pertsona aundikiak batez be, nigaitik ondoegi esaten ebenak; onetan asko sufridu dot, eta sufritzen. Kristori begiratzen dautsot gero eta santuai, eta iruditzen jat areik eroicn bidez ez noala, beste bat diferentez baiño, areik irain eta destaiña bidetik ibilli zirala-ta. Onek bildurrez narabil, burua jasoten be ez naz azartzen, ez neuke agertu gura, baifia ez dagit au erasoaldietan; arimea bere jaube lez dabiJ, gorputzak sentidu arren, eta beste aldetik naigabetan dago; nik ez dakit zelan izan daiteken au. Baiña orrela da, ta arimea orduan bere erre-

nuan dagoala dirudi, eta oro dakarrela bere oiñen azpian. Noizik-bein neukan ori, egun batzuetan irauten eustala, eta alde batetik birtutea zala emoten eban eta apaltasuna, eta orain tentaldia zala argi dakust, lekaide domekar jakintsu batek egoki be egoki ulert-erazo daustanez. Jaunak egiten eustazan grazi oneikaz jentea be konturatzen asi zala jakitean, susmo oiñazetsua sartu jatan arimea be kezka batezteraiñokoa: naiago neban orduan lurra emon ba leuste bizirik, gauza orreik bala-bala ebiltzala jakitea baiño. Eta olantxe, oneik barruratze ta zentzun-galtze aundiok asi jatazanean, agirian ezin gorde nebazanak ain zuzen, lotsaturik geratzen nintzan gorri-gorri, eta ez neban iñok ikusterik be gura.

13. Alako baten, naigabez aurkitzen nintzala, Jaunak esan eustan: *7,eren bildur zara? Onctan gauza bi besterik ezin leitekez egon, nitaz mormoxean jardun, edo-ta ni goretsi.* Onekin aitzen emon nai eustan Jaunak niri egindako mesedeak onartzen ebezanak, Jainkoa goratuko ebela, ta siñis-tuten ez ebenak ni erru barik gaitzetsiko ninduela; gauza biak zirala niretzat irabazgarri, eta ez nebala origaitik atsekabetu bear geiago. Itzok benetako poztasuna emon eusten, eta oindifio be eurok gogora dakardozanean, pozgarri jataz. Geituz joian tentaldia, nengoan tokia itxi ta beste komentu batera, nengoana baiño itxitu geiagokora, ildura ta laztasun geiago ekarren beste komentu batera aldatu ta neure bizisariaz moldatu. Au be neure Ordenakoa zan, eta urrin egoana; auxa zan nunbait nik opa nebana, ezaguna ez nintzan leku baten bizi izatea. Autor-entzuleak, baiña, ez eustan egundo be laga.

14. Barne-askatasuna asko murrizten eusten bildur oneik. Azkenez konturatu nintzan, kezka aundien iturri jatazan ezkerro, apaltasun onetik ezin leikezala etorri. Olan Jaunak nai izan eban nik egi au ulertzea: ni aberasten ninduen mesede ta on guztiak etzirala neuretik erneak, Jainkoak egiñak baiño; eta beste pertsona batzuk goratzen entzunaz

damurik cz neukan lgcgz, asko alailzen nintzala baiño an Jainkoa agertzen zala ikusiz, era berean ez izateko naigaberik bere egiñak nigan dirdirutzen ba zituan be.

15. Beste mutur batera be jo neban, eta auxe izan zan: Jainkoari eskatu bear neutson, arren bero-beroz, nigan ezer onik ikusten ebala pertsona bati iruditen ba jakon, Jainkoak erakutsi eiozala nire pekatuak, ikus egian, bai, mesedeak Berak nik irabazi barik egiten eustazala; au beti nai izan dot. Alan be, ori ez egiteko agindu eustan neure autor-entzuleak, baiña oraintsu arte, pertsonaren batek nitaz eritxi ona eukala ikusten ba neban, zearka mearka, al nebanez, neure pekatuen jakitun ipinten alegintzen nintzan; eta onela, itxuraz, atsedeen pizkat artzen neban. Onetan be naiko barnezimikoz jarri izan nabe.

16. Au ez etorren oso-osoan apaltasunetik; zirikaldia zan egi-egiaz, eta onek bere aldetik beste asko sor-azten, Danak neukazan, uste nebanez, trankart eginda, engaiñuz beterik, eta nigan ezer onik ikusten ebenak bene-benetan oker egon arren, nik ez neban gura alakoak engaiñetarik, burura etorri be ez jatan iñoiz egin bearrezko dala ikusi ezik, ez neuskio esango kezka aundia lekarkidan gauzarik. Bildurrok, naigabeak eta apaltasun-gerizak, orain ulertzen dodanez, neukazan uts eta akatsak eta ildura barik nengoa-lako ziran. Jainkoaren eskuetan bere burua izten dauan arima bati ez dautso ardura naiz txarto naiz ondo beragaitik esan, eskolatua da ba, ulertzen dauanez, Jaunak grazi bat egin nai dautsonean, ondo daki beretik ez daukala ezer, eta Aren eskutik datorkiola dana. Siñistu beio emoten dautsonari, Arek jakingo dau-ta zergaitik zabal-azten dauan, eta gerta bedi eraso-aldirako, oneik orain ziurrak bai dira, Jainkoak arimai eginlako mesedeak ezagutu daiezala nai dauan ezkerro. Oneitako arima batentzat, egon be, milla begi dagoz ikus-nairik, bestelako egitada batzuk ikusteko milla arimatik bat be ez dagoanean.

17. Bildur ezanbait apaltasunak sartuak dira. Egia csan, etzan errazoirik bildur izateko, eta auxe zan antza nirea, eta ez apaltasuna, txepeltasuna baiño; egitan ba, Jainkoak munduaren begitan, Berak naita, ibilten izten dauan arimeak gerturik egon bear dau munduaren martiri izateko; berak nai ezpa-dau munduarentzat ilda egon, munduak berak ilgo dau. Nire begientzat munduak daukan meritu bakarra, auxe da: ez dakust, ziur, beregan ondo deritxodanik, beste ezer, onak diranengan oker-egiñik ez onartzea baiño, marmar-ots etenbakoz eurak onbiurtuz. Gogo beroagoa bear dala diñot, bat oso-osoaz ezpada jadanik, laster martir izateko; osotasuna ez da goizetik gabera lortzen dan gauzea, Jaunak bere grazi utsez au egin nai dauksan mesede berezi-bereziaren bitartez ezpada; munduak, barriz, norbait ba dakus bide ortatik joateko xedea artu dauala, lenengo momentutik olakoa on-ona nai dau; eta oso urriñetik, milla lekutik, ikusi daroatso, bear bada arengan birtutea izan daiteken uts bat, eta ori maxiatzen diarduana bera griñaz jausi oi da uts orretan. Olako epailariak gara. Munduaren arabera, osotasunera doozanak ez leukie jan bear, ez lorik egin, ezta, esan oi danez, arnasarik artu be. Daukan on-eritxi aundiagoa ta are geiago bear dabe oindiño jakin aragiz jantzita lurrean dagozala. Bai, arimea osotasunez osotasun dabillega be, bere mixeriak daukaz, lur au oinpean euki arren. Eta kemen aundia bear dau gaixoak, eta ibilten asi besterik egin ez dauanari egaz joateko eskatzen dautsoe. Ez daukaz apika bere griñak ezita oraindik eta ereti garrantzitsuetan nai dabe ikusi, grazian sendoturik egozan santuen antzera, olan irakurri daroe-ta, oneik be lengolenetik izan daitezala oso ta santuak. Jauna goratzekoa da onetan jazo oi dana, baita bcnetan zauritzekoa be. Arima naiko, ba, atzera biurtzen dira, gaixoak ez bait dira gauza euren buruak jagoteko. Nik be, uste dot, errukitsu be errukitsu dan Jaunak egingo ebala, dana Berak egin ezpa-leust; eta dana Berak bere ontasunean ipifii arte, zuk, Aita orrek, ikusi dozu nik ez dodala egin jausi ta jausi besterik.

18. Azaltzen jakin nai neuke, emen uste dot ba, adarra sartuta geratzen dirala, Jainkoak egoak emon eurretik,

egaz asi nai daben arimarik asko. Beste bein be ekarri dodalakoa nago irudi au, emen ederto egokitzen dana. Oni ekingo dautsat, arima batzuk auxe dala-ta guztiz atsekabeturik ikusten bait ditut. Olakoak gogo aundiz, deboziñoz eta erabagitsu asi oi dira onbidean aurrera, eta batzuk dana izten dabe kanpoko gauzai dagokienez, baita, oro laga daroe Berregaitik, eta ikusten dabsnez beste pertsona batzuk goragoko gauzakaz eta Jaunak emondako birtute bikaiñagoakaz, guk artu ezin geinkezanakaz; otoitzari ta begizteari buruz idatzita dagozan liburu guztietan ikusten daben lez duintasun ontara igoteko egin bear doguzan gauzak zeintzuk diran esanez, eta eurak egiñalak eginda be ezin dabezala eurekandu, kikildu ta lur jorik geratzen dira. Liburu orreik, adibidez, ez daiguela ardurarik izan gugaitik txarto esanda be, goralpena balitzan poztu baiño; ooreari buruzko eritxi zuria, senitartekoenganako ederrik eza, otoizlari ezpa-dira olakoakaz artu-emonik ez, nekarazten dabe-ta; olako beste gauza asko, Jainkoak emon bcar dabezanak, nik uste, izatez goitiko zerak duzuzalako, edo-ta geure izate-griñaren aurka doazanak. Onako arimak ain azkar goi-goraiño eldu ezin ba'dira, beukia paz'entzia ta cz beitez nekatu, Jaunagan itxarorik; orain gurariz daukiena Jainkoak emongo dautse egitez eukitera jaristen ciiranean, otoitzaren bidez eta eurengan dagoana egiñez. Gure mixeria gogoan izanik, oso garrantzitsua da, konfiantza bete-betea euskaitzat eukitea, eta ez etsi, ezta pentsatu be, alegin apur bat ba dagigu, garaille izango ez gareanik.

19. Eta gai onetaz experientzi pizkat daukat-eta, zeure aburu ta jakiñerako, Aita ori, zerbait esango dot. Ez uste izan, gogoan erabillita bc, birtutea irabazita dagoanik, bako-txa bere aurkakoaz neurtzera ezik. Eta zuur egon bearra dogu beti bizi gareala, iñoiz be larre itxi barik geure arazoa, askotxo itsasten bai jaku, eta laster, diñodan lez, grazia osorik onezkero emona ezpada, guztia dana ezagutze-ko, eta bizitza ontan nekez dago guztirik arrisku asko bage. Urte gitxi dirala uste neban nik ez nengoala senitartekoai

lotuta bakarrik, nekagarri jatazala be bai, eta alantxe zan, gogaikarri jatalako eurakazko alkar-izketa. Bein inportantzi aundiko gauzea eskuratu jakun cta neure aizta nik asko maite nebanategaz, egon bearra etorri jatan. (Ni baiño obea zan arren, ez neukan beragaz artu-emon aundirik, ezkondua iza-nik bizimodu deferentea geunkalako, ezin eikean beti nik nai lango autu-gaia erabilli, eta al nebanik eta geien bakarrean cgoten nintzan), Alan eta guzti be, aren naigabeak niri be naigabe jatazan, aren kezkek ta penak urko-lagunarenak baiño mingarriago jatazalarik. Labur: oartu nintzan ez nen-goala nik uste baizen aske, eta oindiño ba egoala zeregiñik arriskutik iges egin eta birtute au, Jaunak emoten asi jatana nunbait, aziaz joan, eta geroztik cmen, aren laguntzaz, olah egiteko alegiñak erre ditut.

20. Jauna emoten asten jakunean aunditzat artu bear da egiten jakun birtutea, eta es gaitezan iñoiz be bera gal-tzeko arriskuan jarri; olan da, esate baterako, dedua gaitzetsi naiz beste antzeko edozein gauza. Ez siñistu, Aita, guztitik jareginda gagozanik, uste dogun guztitik olan gagozanik egi-egiaz. Onetan kontu zolia euki bearrez gagoz. Eta deduzko punturen bat beregan somatzen dauan edozein pertsonak, aurrerantz jo nai ba dau, siñest beist eta opurtu bei osorik lokarri au; egiazko kalei baten antza dauka ta berau ebagiteko karraska (limarik) ex dago. Jainkoak egin al dau bakar-bakarrik, baiña guri eskatzen dauskuz, geure aldetik, otoitza ta biotz aundiko alegiñak. Bai, nik ustc, egiazko zoztor bat da dedu ta oorearen ardurea birtute bidean aurre-ratzcko, eta arriturik nauka cgin oi dauan kalteak. Pertsona batzuk ikusten dodaz euren santutasun aundiz eta burutu dabezan egite ikaragarriakaitik, mundua basarazita daukenak. Zergaitik dago, alan be, ene Jainko! , alako ori oraindik be lur gaiñean? Onczkero, zcr dala-ta ez da aurkitzen osotasu-naren gain-gaiñean? Zer da au? Nok geldi-azten dau Jainkoa-gaitik ainbeste dagiana? Oi, oore puntu bat daukala! Eta txarrena dana, ez dau ulertu nai olakorik daukanik; dea-bruak ba, batzuetan, buruan sartu oi dautso ori eukitera beartua dagoala.

21. Siñistu eidazue, alaji be, Jaun maitearrcn siñ:stu ciozue ar kaskar oni, Jaunak nik berba egitea gura clau-ta, lupu au bizkor kendu ezik, zugatz osoari kaltea ekarri czta be, birtute batzuk, tente geratu arrcn, danak geratuko dirala zerenduak. Itxura bakotu egin da zugatza, ez da azten, ezta auzo daukazanai azten laga be. Dakarrcn eredu onezko frulua be, ez da egiz zindoa, eta gitxi iraulen. Sarri diñot, dedu-puntu ori pitiña izanik bc, organu-kantuan iez da, puntu edo nota bat galdu czkero, musika osoa dab.il doiñu txarrean. Onek, neurritik urtenda jokatzc onek, edozein lekutan dakar kaltea, baiña otoitz-bide onetan izurria dakartso arimeari.

22. Jainkoaz gabihz bat-bat egin nairik, eta irain-guzur autorrez bete-bete egin eben Kristoren kontsejuak bizi gurarik, eta oso-osoan gero gorde nai doguz geure izen ona ta ospea? Bestelakoak dira bideak, eta eziña nunbait muga berberara eltzea. Jaunak daroa arimea geu saiatzen ba gara ta bere aldetik bildurrean ez ba dabil, gauza askotan, daukazan eskubideak galtzeko. Norbaitek, baiña, esan daike, nik ez daukat gairik, ezta zori, birtute ta aukerarik be neure eskubideak itxi-azteko. Nik uste dot, asmo onetan dagoanak, ez dau Jaunak naiko ondasun ain aundiak galtzerik, eta izango ditu ainbat eta ainbat ereti ta ebaguna, Jainkoak olan nairik, birtute ortaz jarduteko. Lanera, bada!

23. Gai oni nagokioia, aitatu gura ditut nik asieran eg'n oi nebazan iski-miski ta zirtzilleri batzuk, edo beintzat banaka batzuk askoren artetik. Esanik daukadazan galtzu apur-rak jarten ditut sutan ez bait naiz geiagorako. Jaunak oro artu daroa; onetsia izan dadilla betiraun guztian! Nire ots askoren artean, bat auxc zan: ez nekizaia bear lez koruko Liturgi liburuko legeak, zelan atondu ta zelan bete eurak errezu bitartean; ardura gitxikoa n'ntzalako berau, eta b"stc uskeri batzutan nenbiilelako. Beste mojatxo sarbarri batzuk ikusten neban niri erakusteko adiña ba zirala, nik alan bc, gitxi nekiala arei aitzen ez emoteko, ez neutsen ezer itan-duten. Gero jarri oi jatan buruan ikasbide txarrarena; guzti

au askotan samar. Geroago barriz, Jainkoak pizkat zabaldu eustazanean begiak, iñok jakin ez arren be, duda pitiñen bat sortzen jatanean, gaztetxoai be galdetu oi neutsen. Ez neban orregaz dedurik ez izen onik murriztu, bestera baiño, Jaunak nai izan eban gero, nire ustetan, gogamen zoliagoa. Ez nekian ondo abesten, eta asko sentidu oi neban egokidana gertauta ez ba'neukan (au ez gero Jaunaren aintziñean jakin bear nebalako, ori ba birtute litzakidan, entzuten neukazanak asko ziralako baiño); izen onak ekarstan lotsaz eta kezkaz, nekian baiño txartoago abestu oi neban. Gero erabagi au artu neban, ondo ez nekianean ez nekiala esateko erabagia. Lenengotan penagarri jatan, gero barriz atsegingarri. Eta alantxe da, ez nekiala zabal esateak ezeren ardurarik emoten ez eustan lez, askoz obeto abestu oi neban. Berba baten, deduzko puntu onek ez eustala izten nik deduzkotzat neukana ondo egiten. Dedu ta oore au, oster, bakotxak jarten dau atsegiñen jakon lekuan.

24. Txirtxilleri ta zirimara oneikaz, ez dot ukatzen, naiko ezereza nintzan ni agiri-agirian, eta onek min aundia ekarten eustan. Gauza txikiok, baiña, ekandutu egin oi gaitue egintza onak osatzera; gauza pitiñok oster, Jainkoarren egiñez gero, Beronek emon indarrez, gauza aundiagoak burutzeko gai izaten gara. Olan gertatzen jatan niri apaltasunezko zeretari. Nire aitzak danak aurrera joiazala ikusiaz, neu ezik, ni ezetarako be ona ez nintzalako; oneik korutik joiazanean, arein kapa zuriak, ixil-ixillik, batzen nituan. Zergaitik au? An Jainkoa goratzen eben aingeru arei laguntzen neutsela iruditzen jatalako. Azken baten, ez dakit zelan, jakin eben zer egiten neban, eta onek benetan lotsarazi nindun nire on-izatea ez bai zan oraindik jaristen gauzak jakin egiezala nai izateraiño. Au etzan apaltasunez be, zer ezerezak ziralako, neure lepotik barre egin ez eien baiño.

25. Lotsagarria bai niretzat, oi Jauna! , ainbeste pekatuz loitua neure burua ikusi ta, alan be, onezko egite ain txikiak kontetan ibiltea, ondar-aletxoak Zeu zerbidutearren lu-

rretik jasoten ez nebazanak, milla akatsez eta mixeriz murgil nengoan onek! Are onein azpitik ez etorren oindiño zure graziazko urik, areik jalgi eragiten ebezanik. O ene Sortzaille!, leukaken ona dan zerbait edesteko ainbeste gaitz eta saldukeri artean, Zugandik artu dodazan mesede aundiak zabaltzen ditudan ezkerro? Bai, ene Jainko! Ez dakit zelan aroan leiken nire biotzak ori, ezta ni zelan itxi neinken be gorrotatu barik au irakurriko leukenak. Oneik, izan be, ikusiko dabe, argi ikusi be, zelan, Zure doai ta mesedeai orren gaizki erantzun ondoren, ez neukala lotsarik gauza ain ziztriñak, neureak azkenik be, kontetan jarduteko. Bai, ene Jauna!, lotsa naz! Baiña neure aldetik kontatzeko besterik ez eukiteak esan eragiten daustaz egite ain ganorabakoak, aundiak egin dagizana itxaropenez jantzi dedin, Jau-nak kontuan artu ba ditu txikiak, bereak obeto artuko ditula uste izanik. Eder bekio Aren Aunditasunari emon daiclala grazia beti egon ez nadin asiera-asieran. Olantxe.

XXXII ATALA

*Zelan eroan eban Jainkoak, berak bere peka-
luen b'ulez, mcrezi izan cban infernura. — Zeatz-
zeatz azpi-marratzen dau an ikusia. — Orcluan,
egotez egoan, San Josep komentua eregiten asi
zaneko goraberak.*

1. Esandako graziak eta beste asko Jaunak eginda andik luzarora, egun baten otoitzari niñarduala, unetxo baten nik zelan ez dakidala, infernu barruan sartuta lez aurkitu nintzan osorik, Jaunak nai eban antza deabruak an niretzat gertu eukien tokia nik ikustea, neuk neure pekatuengaitik merezi nebana. Momentu laburrekoa izan zan baifia urte luzeetan bizitzeak iraungo ba'leust be, ezingo litzakit bera burutik k.endu. Sarrereak etxarte luze-estu batcn antza eukan, laba zabala zirudiala, illun ta medarra. Azpia, iruditu jatan, urez betea, lokatz txit loiz gaifiezka, kiratsa eriola, txamarro ta zirringillo gaiztoz kuin-kuin. Barrcn-barrenean egoan utsune bat orman egiña, arasa irudiko, estu-estua, antxe sartuta somatu nintzan. Auxe zan an ikusi nebana egiaz zana zan baiño askozaz motelago margoztuta, nik csan daikedanaren aldcan ikaragarria zan eta.

2. Samin-tokia, nik uste, zelakoa zan ezin daitekela ulertu, ezta zerbait adierazo be bera; giza-irudimenaren barne ez da jausten ori. Ariman sentitzen neban su berezia nik ezin adierazo dagikedan langoa. Goroutzeko oifiazcak eroan ezifiak oso, bizitza ontan asko ta aundiak igaro ditudan arren. Osagilleak diñoenez, emen sufridu leikezanak eta gogorra-goak, nire kirio guztiak ba elbarriturik cgon nintzan^an, samin asko ta era askotakoak, cta batzuk, esan dodanez, dea-

bruak berak ekarritakoak; baiña oneik ez dira orduan su-fridu uebazanen ondoen, oiñazeok beti-betiko ta egundo arindu bakoak zirala, uste nebalako batez be. Au ez dozu ezer ba arimearen il-urren egotearekin. Biotz-estura bat dozu, ito-bearra, barru-barruko atsekabea, zelan adierazo ez dakizun miña, samintasun bizi-biziz lagundua. Arimea atertu barik atera-sartu eriotz-urren egotea dala esan leike, baiña ez da naikoa; azken orduan or beste batek kendu daroatzula dirudi bizia, baiña emen arimea bera da bere izatea txikitzen dauana. Ez, ezingo dot idoro itz egokirik barruko sua adierazo al izateko ezta ak batera dakarren etsipena ta izugarrizko suntsitzea be. Ez neban ikusten nik nok emon-azten eustazan, baiña erreten nengoan, zeatu ta txikitzen. Alamen eta oiñaze aldirik latzena, alan be, barruko sua zan eta arimearen etsipena.

3. Toki atsitu, iguingarri, ezeren pozik bageko, leku estu-estu onetan ezin zaitekez jarri, ez etzun, orman egiñiko irrikitan ipiñi ninduen arren; begientzat izugarri dozuzan orma areik, eurak estutzen dabe ito eragiteraiño; ez dago ai'girik, eta bai illunpe goibsl-goibela. Eta argirik egon ezta be —nik ezin au zelan dan ulertu—, begientzat oiñaze dan guztia ikusten da. Jaunak ez eban nik orduan geiago ikusterik nai izan, enfernu guzti ari egokionez; gero bai, zan dot eretia, gauza lazgarriak, ikuskariz, ikusi izan ditut, baita bertan igaro izan oi dan griña ta p;kalu batzuren zigorra be, Tkusteko izugarrkigoak begitandu jatazan, baiña niri ez bait jatazan mingarri, ez eusten ainbesteko bildurra sartzen. Aita-turiko ikuskizun ontan Jaunak nai izan eban nik benc-benetan min-naigabe orreik cspirituan asmatzea gorputza be su-fritzen ba lego lez. Ez dakit nik zelan izan zan au, baiña ba dakit Jainkoaren mesede aundia izan zana. Berak nai izan eban nik begiz ikusi nengiala Aren crrukiak nundik atera nindun. Infernuaz berba egit^on entzutea, ez da ezer. Infernua, egia, gitxitan izan zan nire gogarte-gai, ezta miñezko beste gairik be, bildur-biden ez datorkio nire arimeari; ez dcnbrunk estutzen dauala, ez irakurri dodazan beste oiñaze

mota batzuk, oneik guztiok ez dira ezer an sufritzen diran penakaz, beste zer bat dalako angoa. Azken batean, egiazko pertsonatik bere marrazkira dagoan aldea; emengo erretea ezta ezer suaz bardiñean ezarri ezkeror.

4. Arri ta belarri gelditu nintzan ni, eta gaur be alan-txe nago au idazterakoan, au gertatu zala sei urte ozta-ozta dirala, Oraintxe bertan be, izu-ikarak nauka, berezko beroa falta jatala dirudit. Eta auxe berau datorkit edozein kezka, marmar edo neke-lor daukadanean, emen sufridu daikegun guztia ezer gitxi dala, ta sarritan bape errazoi barik ai-eneka gabiltzala irudi jat. Olan, barriro diñot egin daustazan eun mesedeetatik bat izan dala au. Onek ez daust gitxi lagundu, bai bizitzako miñak eta bai giza-ezezkoen zapladak bildur barik eroaten; eroan al izateko ez bakarrik, baita euretatik askatu ninduan Jaunari eskerrak emoteko; orain uste do-danez, ba, gaitz aundi ta betikoetatik Rerak askatu nau.

5. Arrezkero emcn, diñodanez, crrcza iruditzen jat edozer gauza, nik orduan sufritzen nebanaren ondoan. Arri-turik izten nau, infernuko oiñazeak pizkat beintzat ailzen emoten dabezan liburuak askotan irakurri ondoren, zelan , ez ninduen bildurtzen, ezta gnrrantzi aundirik ezarri be. Nun ete nengoan? Zelan emon leikedan atsedena olako ne-gargarrira eroan neiketan gauza batek? Bedeinkatua. Zu, ene Jainkoa ori, beti-betian. Oi, Zuk bai nik neure burua baiño maiteago nozula egi-egiaz! Amaika bider Zuk, jarein nin-duzun zulo ain illun baltzetik! Eta zenbat bider ni oster a niñoian ara, zure naiaren kontra!

6. Ikuskizun ontatik etorri jatan, baita, betiko galtzen diran arimak, asko gero (lufeitarrak batez be, bateoz jada Eleizaren soin-atal ziranak), atsekabe guztiz aundia. Arimen alde ta onerako lan egin nai neban eta ziur-ziur deritzat, oiñaze ain Iatzetatik bat bakarrik askatzeagaitik, gogo onez sufriduko neukezala milla eriotza. Gogoeta au egin daroat: norbait ikusten dogunean, maite dogun pertsona bat atan

be, pena aundi batek abailduta, geure berezko izate-jitak garoazala dirudi ari erruki artzera, eta aundia bada, geu be estutu egin garoaz. Arima bat, izan be, beti-betikoz oiñazetik samingarrienean ikusteak, nori ez biotza errukiz joko? Nok eroan ori naigabe ikaragarri barik? Mundu onetako zorigatxak errukiz beteten ba gaitu, azkenean be, biziaz amaituko dirala ta azkena daukela jakiñik, orrenbesteko samintasuna sartu ba dagiskue, besteok, azkenik ez daukenak, ez dakit nik zelan ezti-erazo ta baketu, deabruak egunero beragaz ara daroazan arimak ainbat eta ainbat izanik.

7. Beste au be gogo beroz nai izan dot beti: auzi garrantzitsuetan betiko salbamenaren buruzkoetan batez be, ez dogula iñoiz esan bear naikoa danik, geure aldetik dagoana bene-benetan eginda gero izan ezik, ezertxo be egiteke itxi bage. Emon beigu Jaunak ortarako bear dogun indarra. Nik gogo emon eta ausnartzen dodanean, egun areitan gaiztoa be ba nintzan baiña, Jainkoari eder izan eta Aren mirabe ona izateko alegifiak egiten nebazanean; ez nebazan egin oi gauza batzuk ezer ezpa-gengi lez, munduan irusten dabezanak, eta azkenez gaixoaldi aundiak eroaten nitun eta Jaunak emosten pazientzi itzalez. Ez nintzan marmar-zalea, ez neban iñorgaitik txarto esaten, ezta iñori gaizki nai izan be, ez nintzan bekaizti, ezta ez dot uste inoiz ondamurik euki izan nebanik Jauna iraintze bestean beiñik-bein, eta beste gauza batzuk, doillor nintzan arren, jarrai-jarraian nenkarrena zan Jainkoaren bildurra; eta, aian eta guzti, ondo dakust nun neukien ni orduko deabruak ostatu emonda. Ez dot ukatzen, nire pekatuak, iruditzen jat, ori baiño be zigor gogorragoa merezi ebela; au, orraitino, oiñaze izugarria zala diñot, eta gauza arriskutsua dala edozegaz naikotzea, jausi ta jagi oben astunean dabillen arimea kezka bage ta pozik ekartea; ez, Jainkoarren, egokiera ta tertzioetatik urrindu gaitezala, ortarako Jaunak lagunduko dausku-ta nigaz egin dauan legez. Atsegin bekio Aren Aunditasunari ez naiala bere eskutik itxi barriro jausi ez naiten. Ikusita daukat, ba, nora joango nintzaken. Ez bei Jaunak, dana dan ezkerok, olakorik nai izan. Olantxe.

8. Ikuskizun onen ostean, Jainkoak bere ontasunez beste mesede batzuk egin eustazan, eta ezkutuak iragarri, esate baterako zorionerako diran aukeratuentzat daukan aintza eta gaiztoak ondoren izango dabezan samin-oiñazeai buruzkoak. Eta nik onelaxe, gurari bizitan nai neban zer-bait jadetsi on egiñez, onan edo alan penitentzi egin gaitz ori aizatzeke, gertu nengoan beti jenteartetik alde egiteko, eta olan mundutik baztertuteko oso-osorik. Burutapen onek ez nindun ez eustan iñoiz be izten, baiña naigabetu bearrean bake iztia ekarstan. Ondo ikusten zan Jainkoagandikoa zana, eta Aren Aunditasunak orduko emona eukola nire ari-meari alako berotasun bizi bat, artu oi ebazan baiño beste janari lodiago batzuk egosi ta eioteke gai izan zedin.

9. Jainkoagaitik zer egin neinkean gogoan erabilliz, ezer baiño len pentsatu neban, neure Jainkoak egin eustan goi-deiari erantzutea, neure Ordenako legedia arik eta ondoen gorderik. Lipar aretan bizi nintzan komentuan Jainkoaren mirabe zintzo, zerbitzari leial asko egozan arren, bear-izanean aurkitzen ziralako mojak sarri kaleratzen ziran, erabetsu, lotsa ta ganora aundiz, beste leku batzuetara. Legedia etzan betetan leenengo egunetan baizen zeatz eta zorrotz; an be Ordena guztian lez, gordeten zana arindutako Buldeak ekarrena zan. Onez gaiñera, ba ziran beste oker batzuk be, nire eritxiz. Ango biziera, begitantzen jatan, aukera ta adiguri larregikoa zala, etxea zabal atsegiña zalako be. Niretzat, baiña, eragozpenik aundiena zan komentutik urten bearra. Egia esateko, neu nintzan orretan geien nenbillena; nagusiak, izan be, pertsona batzuei ezetz esateko arpegirik ez eukienak, euren etxean neu eukitea nai izaten eben, eta nik nagusien aginduz arein guraria bete bear izaten neban. Eta gauzea orrela ebillelarik, denpora gitxi geratzen jatan komentuan egoteke. Onetan, deabruak be sartzen eban bere eskua, etxean egotea galazoaz, ba, batera galazo oi eustan lekaima batzuen artean egiten niarduan ona, eurai erakutsirik neure zuzendariagandik artzen neban dotriña. Probetxu ez gitxikoa.

10. Bein pertsona bategaz nengoala, niri ta beste batzui esan euskun onek, ez ete giñan gauza moja Oiñutsen antzera bizi izateko, andra aregaz, adiskide neban alargun aregaz tratuan asi. nintzan, esan dodanez neuk lakoxe go-goak azkorturik bai ebillen. Andra axe asi zan egitamugiñen, diru saria ta etorria billatzen moja barrientzat. Orain daukat etzala ona guk geroan bidea, biak geunkan nai bi-ziak baiña ona zala irudi-azten euskun. Nik beste alde, nengoan etxean gogara aurkitzen nintzan lez, neure gelea be neuk gura neban ez atonduta, ez nintzan oraindik benetako asmoa artzera erabagitzen. Alan ba, gauzea Jainkoaren eskuetan iztea onartu gendun.

11. Eta egun batean, Jaunartu ondoan, Jaunak agindu eustan azkenik alegiñak jarri nengizala gauzea aurrera eroateko, lekaimetxea egingo zala eta Berak antxe izango ebala bere atsegin-tokia. San Josep'i eskeiñia izan zeitela, gura eban, eta beronen ate bata Santu orrek zainduko euskula eta bestea Andra Mariak, eta Bera (Kristo) geure artean ibilliko zala; monastegi au olan dizdiz bizia emongo eban izarra izango zan, Esan eustan gaiñera: Erlejiño-alkarteko naiko zabar ibiltzan arren, ez uste izateko eurretan Jainko-zerbitzari leial gitxi egoanik. Zelan egongo ete litzateke mundua lekaide-lekaimeakaitik ezpaltiz? Eta eskatu eustan, neure autorleari aitzen emoteko bere agindu:¹, eta Berak erreguz eskatzen eustala agindu orren kontra ez joateko, ezta niri zoztorrik ipiñi be.

12. Ikuskizun au zer aundiaz inguratua izan zan, eta Jaunaren itz areik nigan laga eben zirrara guztiz sakona, nik ezin adierazoa, ezta izan zanaren dudarik euki be. Nai-gabe bizia somatu neban, erdizka, beintzat aurrean jarri jatatزالako gaiñ izango nebazan kezka, neke-lorrak eta gorabera itzalak, etxe aretan pozik nengoalakoz batez be; eta lenengotan asmo orrek berotuta pozik ba nenbillan be, gero etorkizunari buruz ez bait neban gauzea ain errez ikusten. Emen orretara bultz eragiten eustela uste neban, eta kezka

sortzen jatala ikusiz, ezbaian nengoan zer egin ez nenkiala. Jaunak alan be ainbestetan berba egin eustan eta ain argiak izan ziran begi aurrean ipiñi eustazan errazoiak, azkenez, ikusiz Aren gogoko zala erabagi ori aurrera eragitea, ez neban zer egin jakin neure autorleari (Aita Baltasar Alvarz'i) esan baiño. Idatziz ezarri neutson jazoten jatan guztia.

13. Izteko burutasun ori ez eustan erantzun, baiña berezko zentzunari jarraituaz ez jakola bide egokia bai; nire laguna zan geratz au aurrera atera bear tbana eta augandik ezin leikean asko itxaron, ezta gitxiago be. Asmoa begusiarri agertzeko agindu eustan eta arek iñostana nik be egiteko. Nik ez neutson, geienik beintzat, neure ikuskizunen barriarik neure nagusiai emoten; nire ordeaz, alan be, andra arek, asmo bardiñez berotuta ebillanak, berba egin eutson, eta Aita Probintzialak (Gregorio Fernandez'ek), oso erlijiozaleak, ontzat jo eban gure asmoa, bere laguntza osoa be eskifiiaz, eta bere zainpean artuko ebala dalako etxea. Eta beste barik egokion diri-kontuaz mintzatu ziran. Monjak, errazoi askogaitik, ez genduan nai izan amairutik gora izan eitezanik. Ezer egiten asi baiño leen, Alkantara'ko Aita Pedro santuari idatzi geuntson gertatzen zanaren zeaztasun guztietaz; bere eritxia bialdu eustan, geunkan asmoa eurre-ra eroan barik ez izteko esanaz.

14. Gure burubidea urian zear zabaldu zaneokoxe, eraso kontra gogor-gogorra jagi zan gure aurka, idazten asi ezkeru luze izango litzakiguna. Esanak, barriketak eta irriparr maltzurak andik eta emendik, zorakeria zala ta abar. Niri egokidanez, barriz, ondo aurkitzen nintzan nengoan komentuan. Nire laguna be, miiñez eta egitez, guztiz atseka-betua. Ez nekian zer egin; alde batetik errazoiak eukala; eta ona miñez nengoala ta gauza Jainkoari goraintziz, Aren Aunditasuna asi jatan poza ta adorea emoten. Emen ikusiko nebala, esan eustan erlejiño alkarteak sortu ebezan santuak noraiño min eta atsekabeak eroan ebezan, eta nik

uste izan neinkean baiño jazarraldi eta pertzekuziño askoz geiago igaro bearko nebazala, baiña ez genduala penarik euki bear. Neure lagunari aitatu bear neutsazan gauza batzuk be adierazo eustazan; ni batezbe arritzen ninduana auxe izan zan, biok geratzen giñala oso pozik igaroaz eta guztiai arpegia emoteko kementsu. Alaxe zan, otoitz-jentea bera be bai, gu gengozan lekuan ez egoan pertsonarik orduan guri kontra ez joianik: zorakeri aunditzat eukien danak gure asmoa.

15. Aundiak bota ebezan egiaz. Esan eziñak dira nire komentuan sortu zan arranbolo itzala; au ikusiz, Aita Probinzialak, gauza gogorra zala eritxiz zalapart burrunbatsu ari aurka egitea, aburu aldatu ta ez eban nai izan lekaretxe barria onartu. Diru-saria etzala segurua iñoan, eta gitxi gaiñera, eta kontrakoen jarkipena, izugarria; errazoizkoa zala deritxat guzti ori, azkenez, bertanbera itxi eban gure asmoaren auzia, ez eban onartu nai izan. Aita nagusia bera be kontrako ikusirik, guri len-kolpeak arturik geunkazala uste genduanoi sekulako pena emon euskun onek; neuri batez be, Probinziala aurka ikusten nebalako, onen baime-na euki ezkerro ba naiko igesbide neukan edozeiñen aurrean. Nire lagunak ez eban geroztik aurkitzen nok pekatuak par-katurik, gaitz-bidean ipiñitako oztopoa kentzera bearturik egoala esaten bai eban.

16. A orduan Santo Domingo'ren Ordenako Aita jakintsu ta Jainkozerbitzari aundi bategana (Pedro Ibañez) joan zan, jazoten zan guztiaren barri ari emotera. Probinzialak gauzea laga baiño lenago izan zan au. Une aretan ez geunkan iñor be guri kontsejua emon gura euskunik, eta olan geure kasketaldi bat basterik etzala esan oi eben. Andra arek, ba, gizon santu ari egin eutsan gure arazoaren kontu-emote zeatza, agerturik baita berak ortarako ekarri ta emon leikezan jarauntsi ta ondasunak be. Alegiñak alegin egiskuzala ortarako, arren bai arren, bera bai zan orduan toki aretan aurkitzen zan gizasemerik eskolatuena, eta

bere Ordenakoen artean gitxi bera baiño goragokorik bear bada. Ari azaldu neutson guk egiteko asmotan geunkan guztai, eta errazoi batzuk arildu. Ikuskizunetaz ez neutsan ezer aitatu, komentu barria jasotera bultz-eragisten errazoiak soil-soil baiño; onei buruz nai genduan guk aren eritxia. Ak esan euskun zortzi eguneko epea emon gengiola eta erantzungo euskula, eta prest gengoan ozt-oztan berak esango leuskiguna egiteko. Baietz erantzun neutson nik; baiña nik au esan arren eta uste dot egingo nebala, iñoiz be ez jatan kentzen burutik egingo zalakoaren onako ziurtasun bat. Ordukoz gogo aundirik erakutsi ez neban arren, nire lagunak nik baiño fede geiago eukan, eta egundo be ez etorren, gauza bitxiak entzunda be, genkarren asmoa saiets iztera.

17. Niretzat, barriro diñot, eziña zan burutu barik iztea esku artean genkarren asmoa. Egizkotzat daukat nik Idazti Deunetan dagoanaren aurka ez doan iragarpena, edota guk bete bear doguzan Elizaren lageen aurka ez doazanak. Egitan niri a Jainkoagandiko gauzea zala begitandu arren, gizon santu arek esaten ba eustan ezin geinkela egin Jainkoa iraindu barik, eta geure kontzientziaren aurka giñoiazala, asmo ori uste dot bertatik laga ta beste bide batetik joko neukeala. Baiña Jaunak niri ez eustan bide auxe besterik emoten. Jainkoaren zerbitzariak iñostan gero, gure erabagia aztertu ondoren esan be, oso-osoan autortu eustan guri ezezkoa emotekoan egon zala, erritarrak atera eben iskanbil itzala ikusirik, eta guztiak, baita b:rak be, zorakeritzat eukiela asmo ori, eta beragana jo genduala jakin ebanean, arek jakin-erazo eutsola kontuz ibilteko gugaz laguntza emonaz batez be. Baifia gero, zer erantzun bear ete neutson pentsatzen asi zanean, gauzea astiro gogoan irauliaz, guk geunkan elburua, guk jarri nai genduan barru-bizia ta jardunbidea osorik zurituta geratzen zala, asmo ori Jainkoaren zerbitzu aundirako zala ta etzala aurrera eroan barik itxi bear, autortu eban. Orrelaxe id.uzi euskun, arik eta ariñen asi ta amaitu gengiala eskatuz; zelako bideak artu ta

erabilli bcar genduzan be argi ta garbi azpiinarratzen euskuzan. Urria ba zan be geunkan diru laguntza, ona zala Jainkoagan konfiantza pizkat ipintea; eta onen aurka egoanak jo egiala beragana, berak erantzungo tbala-ta. Egin-eginëan be beti lagundu izan dausku, gero esango dodanez.

18. Erantzun onegaz guztiz pozik geratu giñan; beste pertsona batzuk be, Jeen kontrako genduzanak, otzanago egozan orain, batzuk lagun etorkiguzala. Onein artean sartu geinke zaldun santua, oraindik orain aitatu doguna; birtute zalea zan-eta, gure arazoa on betera zuzendutakoa zala ikusirik, uste eban, otoitza zala gure asmoaren oiñarria. Guk arturiko bideak, orraitio, makalagoak ziran bere eritxiz eta itxaropen bakoak. Jaunak alan be biotza ikutu eutson eta gogoa samur biurtu, gauza aretan Jainkoaren eskua ibilli leikela pentsaturik. Bardin esan daikegu beste eleiz-gizon Jainko-zerbitzari aundi ta jakitun agaitik be, au da, esan dodanez (Gaspar Daza); au, inguru aretako ispillua zan, eta Jainkoak berau dauka aukeratua arima askoren salbamena eta onerako, niri aurretik be laguntzen eustana. Gauzak onela, ta beti erregu askoten laguntasunaz, etxe bat erosi gendun, toki ederrean egoana. Txikia zan, baiña onek ez eustan buruko miñik ekarten, Jaunak esan bai eustan sar nedilla al neban lekuan, gero ikusiko nebala-ta Aren Aunditasunak egiana. Eta ondo bai ikusi dodala! Olantxe, gitxi zan arren geunkan diru-babesa, siñisturik neukan Jaunak cgingo ebala beste bide batzuk eroso ipiñiz, bear genduana.

XXXIII ATALA

*Gai bardiñean diardu. — San Josep lekaime-
txea. — Arazo ortan ez sartzeko agintzen dautse.
—~Noiz itxi eban. — Izan ebazan naigabe batzuk.
—Jaunak zslan poztu oi eban eurotan.*

1. Egoera ontan aurkitzen zirala, ba, gure erazo ta ze-regiñak, aurreratuak alan be, paperak eta argibideak orduantxe osotzeko ziran-eta, gure Aita Nagusiak aldatu egin eban bere eritxia. Jainkoak emondako argiz uste dot izan zala, gerora agertu zanez. Asko ziran asmo ori aurrera eroateko zerura zuzendutako otoitz eta eskariak; eta Jaunak, ezpai barik, apurka apurka osoturik eroian gauzea, eta beste bide batetik dagokion elburura zuzenduz. Aita nagusiak ontzat emon ez eban ezkerro komentu barria, autor-entzuleak agindu eustan arazo ortan ez sartzeko geiago. Eta nik, Jaunak ondo dakizan beste neke-min eta lan asmoa araiño bultzatzeko jasan bear izan nebazan onek, bertanbeera itxi bear izan neban guztia. Eta olantxe asmotan geratu zan lez egiteko zan ori, argiago egin zan dana emakumezkoen txorakeri bat besterik etzala; eta marmarra ugari nire gaiñ, gero ta geiago, ni ordurarte beti nagusiaren agindupean ibilli izan arren.

2. Txarto ikusia nintzan neure komentu guztian (Enkarnaziñokoan), beste monastegi estu ta itxituago bat jaso nai nebalako. Irain egiten neutsela esan oi eben, egoan lekuan be Jaunari mirabetza egin nengiola, an egozala b^oste monja batzuk ni baiño obeak, ez nebala etxea maite, oba zala bertarako dirua billatzea, eta ez kanporako. Beste batzuk, ni giltzape sartu nengiola eskatzen eben; beste bana-ka batzuk baita nire alde jokutzen eben. Nik ikusten neban

gauza askotan errazoi eukela, eta batzutan neure jokabidea azaltzen neutsen; baiña zio edo motibu nagusia azaltzen ez neutsen lez, au da, Jaunak agintzen eustala, ez nekian zer egin, ixillik egonez. jainkoak bitartean mesede aundiak egin oi eustazan, eta zer guztiak ez eusten kezkarik ekarten; beraz, errez eta pozik dana itxi neban, ezer kosta izan ez ba litzakit legez. Alan be, ni egoera artan nengoanik iñok be ez eban siñisten, ezta nigaz artu-emona euken pertsona otoitz-zaleak be; oneik uste eben ni naigabetan eta lotsaz beterik nengoala. Neure autor-entzuleak be ez eustan fede aundirik emoten. Nik, barriz, al izan neban guztia bete ne-bala-ta nengoan ezkerro, Jaunak agindu eustana egiteko ez neban uste geiagora beartuta nengoanik, eta alai ta gogora nengoan komentuan geratu nintzan. Alan eta guzti be, nik ez neban egundo be komentua egingo etzanik siñistu gura; gauzak ez nekusan orduan argi, ez nekian zelan eta noiz, baiña egingo zalakotzat neukan ziur-ziur.

3. Niri miñik biziena emon eustana, bein neure autorleak esan eustana noski: nik aren naiaren kaltez zeozer egin ba neu lez (Jaunak be gura izango eban mingarrien izango jatan alderditik lana ta nekea etorri barik ez iztea), eta olantxe ainbeste erasoaldi ta neke artean nik uste neban autor-entzulearen eldetik poztasun apur bat etorriko jatala, eta idatzi eustan onezkero konturatuko nintzala, esanaz, jazotako guztia amesa besterik etzala izan, eta jazotakoaz ez arauratzeko geiago, ezta mintzatu be orri buruz, neuk ikusi neikela-ta jauspiderako zelako zarata sortu neban, eta olako beste zer asko danak atsekabez josi ninduenak. One-xek mindu ninduan beste guztiak baiño geiago, neu izan nintzala bide ta errudun Jauna iraintzeko. Begitantzen jatan, ba, nire ikuskizunak guzur ba ziran, neukan otoitz guztia be guzurra ta engaiñua baiño etzirala, eta ni bidetik urtena ta galdu bat nintzala oso. Bildur onek benetan ler-azo eustan biotza, guztiz barru-nastua itxirik. Jaunak, baiña, egundo be laga ez ninduanak, esandako neke-miñetan ainbeste aldiz poztu ta indar-azo nindunak, emen ez bai dago

au zetan aitaturik, ulcrtzen emon eustan orduan, ez na'gabetzeko, asko egin nc-bala Jainkoaren zerbitzuan, eta cz nc-bala iraindu arazo orretan sartu ta ibilliaz; ordukoz cgiteko autor-entzuleak agintzen eustana, ixillik egonda; geroago, ordu erazkoagoan itzuliko nintzala lengora ta. Itzokaz pozarren gelditu nintzan, ezer-eztzat jorik nire gaiñ erabi-Uen zaparrada ta eraso guztia.

4. Argi erakutsi eustan emen Jaunak eder-ederra dala pertsekuziñoak eta atsekabeak Beragaitik eroatea; Jainkoarekiko maitasuna azi egin zan nigan, eta beste gauza asko, ni neu be arriturik geratzeraiño azi be, eta orain ezin dot besterik egin lanak eta buru-ukapenak nai izan baiño. Nire ingurukoak uste eben barriz, ni lotsa gorritan nengoala, eta olan egongo nintzan egon be, Jainkoak grazi ugariz asetu ezpa-nindu. Orduantxe asi jatazan esanda daukadazan Jainko-maitasunezko zauskada biziak, zentzun-galtzeak eta gaiñezkal-dirik aundienak; nik eurak ixilik eukiten nebazan, irabazirik be ez neutson iñori irragarri. Aita domekar santua (aita Pedro Ibañez) bitartean, siñistuta egoan oso-osorik, neugaz, lekaimetxe barria jasoko zala-ta; nik, autor-entzulearen kontra ez joatearren, ez neban arazo orretan eskua sartu nai, baiña arek nire lagunaz lan egian orretan: Erroma'ra idazten eban, gauzak asko egokitu ta bide artezez zuzendurik,

5. Emen be, baiña, deabrua asi zan bere jokuan, onei ta arei jakin erazten, nik arazo ontaz agertaldiren bat izan nebala ta abar. Olan etorkidazan batzuk, bildur aundiaz, niri jakin-erazten egin-egiñean be ikuskizunetaz egun txarrak ebiltzala ta izan leitekela niri salakuntzaren bat jaso ta fede-zaiñagana jotea. Barre eragiten eustan onek. Ez dot iñoiz onako salakuntzaren bildurrik izan. Ondo nekian fedegaietan ni Eleizearen zeremoni txikienaren aurka niñoi-ala jakin ezker, beraugaitik edo-ta Liburu Santuetako beste edozein egiagaitik milla bider eriotzea artzeko gertu nengokela. Ez egiela oncn bildurrik izan, erantzun neutsen, naiko gaitz izango litzakela, ba, nire ariimearentzat, bertan

ba legoke ezer nik Fede-zaintza edo Inksiziñoarcn bildur izatekorik. Olan balitz, gaiñeratu neutsen, neuk salatuko neukela neure burua; eta ei*ru barik salatua ba nintz, Jaunak berak agertuko leukele nire erru-bakotasuna, eta ni meritu geiagogaz geratuko nintzakela. Onetzaz berba egin neutson neure Aita domekarrari; au, esan dodanez, gizon jakituna zan, eta onen kontsejuak jarraituz ibillirik, kezka bage egiteko moduan nengoan. Ari esan neutsozan alik eta argi ta garbien neurc ikusk'.zun guztiak, otoitz egiteko bidea ta Jaunak egin oi eustazan mesede aundiak, eta arren eskatu neutsan aztertu egiala gauzea dagokionez eta esan eistala punturen bat Liburu Santuakaz bat ez etorrenik ete egoan; esan eistala, arren, zer eritxon guzti orretaz. Ziurtasun aunditan ipiñi nindun, eta berak be probetxurik atera eban or-tatik, nire ustez. Izan be, bera on-ona zanarren, ordutik aurrera otoitz-zaleago egin zan, eta bere Ordenako monas-tegi batera joan zan, bakartade oso aundikora (1); ementxe bizi izan zan urte bi ta geiago, bakar-bizitza oso-oso egiñik. Gizaseme ain on eta zintzoaren bear-izana beste leku baten somatzen zalako, naiz-ta bere atsekabe aundiz, menpekotasu-nak andik atera egin eban.

6. Alde batetik asko sentidu neban a joan zanean; baiña aren laguntasunaren premiña aundia neukala be, ez neutson eragozpenik ipifii joan ez zedin. Rere arimak obari galanta atera eban bakartadean egon zanean. A ba joiala-ta, naiga-bez aurkitzen nintzan egun baten, Jaunak berak esan eustan poztu nedilla, ez naigabetzeko, Aita a ondo zuzendua joiala-ta. Egin egiñean, andik etorri zanean, birtutez beterik eta espirituzko bizitzan oso aurreratua etorri zanean esan bai eustan ezer be gaitik ez eukala naiko ara joan barik iztea. Nik be beste orrenbeste esan neikean, leen be ikasiz eta jakituriz ondar-eza ta poztasunez beteten ba ninduan, orain be espirituaren esperientziz egiten eustan, izatez goitiko gauzetaz an oar-ikasiz jadetsia aundia zan izan be ta. Aukera

(1) Trianos'ko komentura joan zan.

onean ekarri eustan Jainkoak barriro, Ak ikusi eban ba bear nebala aren laguntza komentu barria aurrera eroateko, Jainkoak berak nai eban-eta komentu au egitea.

7. Bost edo sei illabetea ixiltasun onetan egon nintzan esku arteko arazoaz ezertxo be, ez egitez ez itzez, egin barik. Jaunak be gaiñera ez eustan denpora guzti onetan jarraitze-korik agindu. Ez nekian zergaitik, baiña ez jatan burutik kentzen egingo zalakoa. Aldikada onen azkenerantza, Jesusen Lagundiko nagusia uri ontatik joan zanean, Jaunak onen ordeaz beste Aita bat ekarri eban ona, arima bideetan oso aitua, kemenez aberatsa, alimen onekoa ta letraz jantzia, ni bear izan estuan nengoala ain zuzen. Ordurarte autortzen nindunak nagusia eukan, eta oneik birtute au zorrotz daukie nagusiaren gurariz beti ibilteko, eta arek ondo ulertzen eban nire espiritua eta ni aurrerantz joan nendin nai eban, etzan baiña ausartzen gauza batzuk erabagiten, orretarako eukazan errazoi askogaitik. Nire espiritua orduko zauskada aundiakaz ebillen lez, penagarri jatan berau loturik eukitea. Alan be, ez neban iñoiz ezer egin agintzen eustenetik kanpo.

8. Egun batean, autor-antzulcak ez eustala siñisten uste izanik, naigabez nengoala, Jaunak esan eustan ez naigabetzeko samiñaldi a laster amaituko zala-ta. Benetan pozgarri izan jatan au, laster ilgo nintzala adierazo gura eustala pentsaturik, eta poz aundia nekarren au gogoratzera. Argi ikusi neban gerora diñodan Nagusi onen etorrera-gaitik zala; au etorriaz bat, ain zuzen, nire naigabe guztiak uxatu ziran; onek ez bakarrik ez eban estu artzen nire Aita autor-entzulearen askatasuna, baita esan oi eutson bizkortu ta poz emon custala niri, ez eukiteko bildurrik, ez nengiala bide ta neurri ain zapaldutik eroan, aske izteko Jaunaren espirituari lanean. Batzutan, izan be, espirituaren zauskada gogorrakaz ez ei jakon arimeari zelan arnasa artu be geratzen.

9. Ikustera etorri jatan nagusi au, eta nik, autor-entzuleak aginduta, berari adierazo bear neutson guztia, argi

ta garbi. Arimako gauzak norbaiti adietan emon bear izaten neutsazanean, alako ingira, nai-eza somatu oi neban eurak agirian ipinteko; baiña oraingoan, autortegian sartu-ala, barruan onako espiritu eragiera berezia sentidu neban, gogorutzen dodanez beintzat, ez leenago ez geroago iñogaz senti-du ez dodana. Neuk be ez neuke jakingo zelan izan zan; ezta konparaketaz be ez neuke adierazoko. Barruko poztasuna izan zan, gogozkoa; eta nire arimeak uleriu eban arima arek be ulertuko ebal, au da, biok bat etortekoak giñala. Alan be, barriro diñot, ez dakit au zelan izan zan. Iñoizkoren baten beragaz berba egin izan ba neu leendik, edo-ta aren barriak eta on aundiak emon izan ba leustez, berezkoa zan onek ulertuko ninduala-ta euki neinkean poztasuna, baiña ez ak niri eta ez nik ari ez geuntson bata besteari berbarik ebagi; niretzat orren gaiñ oso-osoa zan ez-ezaguna. Gero ikusi dot nire barruak ez ninduala atzipetu, arekin artu-emon eukiteak ba neuri ta neure arimeari, edozelan be, probetxu aundia ekarri izan dausku. Miragarriro zuzentzen ditu Jaunak, antza danez, aurreratuak daukazan arimak, eta ez gero atsaren gaiñean edo bara-bara, ariñeketan ba'ño. Bere irakas bidea da arimak lotura guztitik askatu ta ilduraz eroatea. Jaunak ontarako ta beste zer askorako buru argia emon eutsan.

10. Aregaz artu-emonean asiaz batera konturatu nintzan zelako arimearen jaube zan, arima garbi, santu ta espirituak ezagutzeko Jainko-dei bereziz ornidua. Benetan izan jatan pozgarri. Gizon santu arekin ni asi ordukoxe, Jauna be asi zan ni estutzen monastegiaren arazora ni barriro be bultzatu nairik, neure autor-entzuleari ta Nagusi oni azaldu bear neutsezan errazoi ta gauza asko burutara emoten eustazala, eragozpenik ipiñi ez egiden. Gauza batzuk bildur ekarsten, Aita Nagusi onek ba ez eban egundo Jainkoaren espiritua zanaren dudarik, ikasi sakonez eta argi apattekox aztertzen ebazalako nigan jazoten ziran gertakarien ondorenak. Eta olan, beste jazoera askogaitik, ez eben izan kemenik niri zoztorrik jarteko.

11. Neure autorleak barriro baimendu nindun neure arima guztia ortan ipiñi nengian, Jakifiaren gaifiean nengoen zelako lanak eta buru-austeak etorkidazan, bakarra bait nintzan lanerako ta nora-jo gitxi aurrean. Gauzea, beraz, oso ixillik eroatea erabagi genduan: emendik urrun bizi zan neure aizta batek (2) eroslko eban etxea, eta beratztat bailitz legez egokitu. Diruari buruz, Jaunak berak erreztuko euskun anemen arima onak ortarako zuzpertuz, esatea luze izango litzakidan eraz zuzpertz be. Onetan n'k alegin osoa ipinten neban esanda neukanaren aurka ezer be ez egiteko; ez neban ezer iragarten, ba nekian jakin be, aurretik gertatu zan legez, neure nagusiak jakitun ipiñi ezkerro dana galduta edo-ta leen baiño txartoago oraindik neukala gauzea; beraz, ixillik. Diruak batu, ara ta ona jorik; etxea atondu ta gauzak egoki jarri, onekin lan asko leporatu eta batzuk neuk bakarrik atondu bear izan nitun; nire lagunak be, egia, al ebana egiten eban, baiña gitxi eta ain gitxi, ezin eban geiago-ta, bere izenean eta mesedez aurrera ateratea ezik; ain gogorra bait zan neukan arazoa, orain arriturik zelan eroan al izan neban guztia. Naigabez nengoan batzutan, au esaten neban: «Ene Jauna, zelan agintzen daustazuz eziñak dirudien gauzak? Egiaz, emakume naz; askatasun p'zkat ba neuka be... Baiña andik eta emendik lotua, diru barik, ezta nundik atera jakin be; ez Bulda aterateko, ez beste ezetarako, zer egin neinke nik, Jauna! »

12. Bein premiñaz egon eta langilleai zelan ordaindu ez nekiala, San Josep agertu jatan, neure egiazko Aita ta babesle, dirurik ez iatala faltako u¹ert erazorik, eta ez eukiteko bildurrik egi-unea (kontratua) osotzeko. Orrela egin neb[^]n zuri bat be csku artean euki ez arren, Taunak onridu ninduen, entzun ebenak zurtuta gelditurik. Oso txikia iruditu jatan etxea, ain txikia zan izan be! Eleizea jasoteko ez egoan lekurik, eta beste toki bat erosi gura zan; ez egoan zeraz, ez erosteko erarik, ezta ez nekian zer egin toki ori

(2) Juana Ahumada, Avila'n bizi zana.

an ondoan egoala be naiko medarra zan, eleizea jasoteko, eta egun baten, Gure Jauna artu ondoren, Jaunak esan eus-tan: *Esan izan dautzul al dozun lez sarlzeko*. Eta gero, oiuka lez, gaiñeratu eustan: *Oi, giza-endaren diru-zalekeria\ , lurrak berak uts-egingo dautzula uste dozu-tal Zenbat bider lo egin neban nik izarpean, ntin atsedan artu ez neukalal* Itzok ikaraz itxi ninduen, au ziñez iñoala ikusiz. Beingoan joan nintzan etxetxora; bereiz neban gauza bakotxarentzat lekua, naiz-ta estu samarra, monastegi bat eregiteko beste toki. Ez nintzan geiago arduratu beste leku bat billatu ta erosteaz; bertan jasoko genluan geure etxetxoa (3), zakarra ta apaindu-ra bakoa bear bada, baiña osasunari kalterik ekartxeke, bizi izateko aiña jakuna: olantxe egin bear da beti.

13. Santa Klara egunean, Jauna artzera niñoialarik, Santa au agertu jatan edertasunez gaiñezka; saiatzeko esan eustan eta joateko aurrera orretan beark be lagunduko eus-tala-ta. Deboziño aundia artu neutson orduan, eta laster ikusi neban egindako agintzaria egia zala. Egin-egiñean be, aren Ordenako komentu batek, emen urrean aurkitzen danak, lagundu euskun, eta gaur be oindiño laguntzen dauku; arrezkero geiago, egia, bera izan bait zan nik neukan guraria bere osotasunera ekarrj ebana. Santa doatsuak bere etxean eukan txirotasuna daukagu, ba, geure onetan be; eta esku-pekoz bizi gara. Ez jat au gitxi kosta izan Aita Santuagandik orretarako erabagia lortu ta ateratea; auxe bedi gure legea, diru-sari ta errenta bakoa. Jaunak orrela, Santa doatsu onen otoitzai esker, dudarik bage, egiten daust guztia; guk eskatu barik, izan be, Berak orniduten gaitu bear dogun guzti-guztiaz. Onetsia izan bedi auzi onetan! Olantxe.

14. Egun bere-beretan, abuztuko Andra Mariarenean, Santo Domingo doatsuaren Ordemako komentu baten nergo-ala, buruan iraulka neragoion aurreko urteetan zenbat pekaiu

(3) Ijorontzo Zcpda'k lagundu cutson asko bcrc arrobaeari huii diruz eta bai ai'n:i.saz San Josep Komcntua cgiten.

autortu nituan etxe onetan, eta alako makiña bat neure bizi-
tzako zirtzilkeri. Zentzun-galtze bai etorri jatan bat-batean,
aundia benetan neure senetik ia atera ninduana. Jarri ninzan
eta ezin izan nebala uste dot sagarakorik ikusi ez mezarik
entzun. Gero be kezkaz beterik geratu ninzan. Olan nengo-
ala, jantzi ninduela uste dot soiñeko zuri dirdaitsuz. Lenen-
gotan ez nekusan nok jazten ninduanik; gero Andra Maria
ikusi neban neure eskumaldean, eta Aita San Josep ezkerral-
dean, jantzia jazten eustela. Orrek aitzen emon eustan garbi
nengoala neure pekatuetatik. Jaztea amaitu ta ni pozik be
pozik eta aintzaz betea, gero Andra Mariak eskuetatik ora-
tzen eustala begitandu jatan. Poz aundia emoten neutsola
esan eustan, San Josep doatsuari neutson jaiera ta zaleta-
sunaz. Komentu barria egingo zala gaiñeratu eustan, eta gure
Jauna, Bera ta San Josep zintzo ta leial otseinduak izango
zirala bertan. Barru-zaletasunaren ardura ta ataza beti irann-
go ebala; nik ez izateko orren bildurrik, eta neure gogoko
izan ezta be artzen neban menpekotasuna, eurak zainduko
ginduezala, bere Semeak be dagoneko berba emonda eukala
geugaz ibiltea, eta au egia zanaren ezaugarritzat bitxi a emo-
ten eustala. Sama inguruan ipiñi eustala iruditu jatan, idun-
estun urrezkoa, guztiz ederra, balio aundiko gurutze bat lo-
tuta eroiana. Urre au ta arri-pitxiak emen ikusten diranetatik
diferenteak dituzu, ezta antzik emon be; aren edertasuna
ezin geinke emen asmatu, Ezin lei ulertu gure adimenak
zelakoa zan jantzia, ezta iruditu be Jaunak zelako zuriaz
antzeztu nai dauan, emengo guztiak esan oi danez, kedarrez
egindako marrazki lez emon daroe-ta.

15. Bete-betea zan ikusi neban Andra Mariaren eder-
tasuna, irudiz bereizi ez nebala ezer bertan: nastuan ikusi
neban erabat bere arpegikera, zuriz jantzia ez neban ikusi,
orraitino, Josep doatsua; an aurkitzen zala oartu nintzan ba-
kar bakarrik, besterik ez, gorago esandako ikuskizunetan lez,
irudirik ikusten ez dala. Andra Maria guztiz neskato iruditu
jatan, eta biak egon ziran pizkaten nigaz. Ni aintzatsu ta
esan-ezin lakoxe gozotasunez asea nengoan, egundo egon ez

nintzan baiño be geiago, nik uste, eta gozotasun orretan murgil iraun gura neukean beti. Ondoren iruditu jatan biak zerura igon zirala aingeru aldra aundiak inguratuta. Bakartade gorrian lotu nintzan, naiz-ta poztua ta jaso, otoitzean batua ta biotz-samur; olantxe egon nintzan zati batean, ez ibilli ez mintzatu ezinda, neuretik joana lez. Jainkoagaitik ezercztutako biotz-eragin itzala zan, ondoren ederrak erantsi eustaana; dana gertatu zan, nik alegin ez txikiak egin-da be, Jainkoaren gauzea zanik, egundo dudan ez ipinteko rnoduan. Bake ta poz aunditan itxi ninduan onek.

16. Aingeruen Erregiñak, menpekotasunari buruz niri esandakoari gagokiozala, niri gogor egiten jatan komentu barria ez jartea Ordenearen eskuetan. Baiña Jaunak esan eustan egoki zala orrela egitea, errazoi batzuk be ipinten eustazala (4). Erroma'ra joteko esan eustan, Berak erakutsi eustan bide berezi batez jo be, erantzuna andik etorriko zalata. OJan izan zan, Jaunak esan eustan bidetik bialdu zan gauzea, eta egundo cz amaitzeko itxurea eukan arazoa zoragarriri burutu zan. Gerora etorri ziran gauzai begira, ondo agertu da oso egoki zala gure ardurea Gotzaiñaren menpean jartea. Orduan, alan be, nik ez neban ezagutzen, ezta ez nekian oindiño zein gotzain izango zan; baiña Jaunak nai izan eban benetan ona ta etxe oni ainbeste laguntasun emon eutsona; eta orixe zan izan be bear zana bertan jagi zan ekaitz gogorrari arpegi emon eta gaur aurkitzen dan egoeran jarri al izateko, gero esango dodanez, Bedeinkatua Bera gauza guztik atondu dabezana! Olantxe.

(4) Geroago, Santa Teresak jarri ebazan bero komentuak karmeldar Ordenearen agindupean.

XXXIV ATALA

Uritik asao joateko errazoia. — Nagusiaren aginduz, atsekabez aurkitzen zan emakume aundiki bat poztutera doa. — An zer jazoten jakon. — Edertzat artzen dau Jaunak, au bere bitartez, osotasunera eroatea. — Pertsona au gero guztiz lagungarri jako. — Gora aundiko atala.

1. Gure arazoari dagokionez, nik iñok jakin ez egian ardura aundia ipiñi arren, ezin zeikean gauzea ain ixillik eroan, pertsona batzuk ez konturatzeko moduan beiñik-bein: batzuk siñisten eben, beste batzuk ez. Bildur nintzan ni bitartean, Aita Nagusia etorri ta ortaz berba egingo ete eutsoen, eta arek ziur asko dana bertanbeera itxi eragingo eustan. Jaunak alan be guztia zuzendu oi dau eratsu. Uri aundi baten (Toledo), emendik ogei leku baiño geiagora, naigabez eta penaz egoan andra bat, senarra il jakon-eta; atsekabetua aurkitzen zan benetan, osasuna be galduaz joiakolarik. Pekataritxo onen barria izan eban ak nunbaite-tik eta eder izan jakon Jaunari nire alde norbaitek ondo itz egitea, emen gertatu ziran beste onegite askogaitik. Andra aparteko au gure Aita Nagusiaren ezagun-ezaguna zan eta ni be kanpora urteten ziran komentuan nengoala jakin eba-nean, ni ikusteko gogo bizia sartu eutson Jaunak, andra arek iñundik be euki ezin eban poztasuna nigandik izango eba-lakoan; alantxe saio guztiak egin zituan ni aren etxera eroa-teko, urruti samar aurkitzen zan Aita Probintzialari be :da-tziz. Eta onek orduan, egi-egiaz agindurik idazten eustan ara nendilla lenbaitlen, beste moja bat lagun nebala. Agindu au Gabon gabeen eldu jatan.

2. Ni egiazki ain ezereza izanda uste ona neukela kon-turaturik, nastu egin nintzan eta pena aundiz bete: ezin neban berau eroan. Jainkoaren eskuetan itxi neban gauzea; gabeko Maitinen errezu bitartean, edo luzaro beintzat, sor-gortasun itzalean egon nintzan. Gero Jaunak esan eustan joateko, eta ez emoteko belarririk eritxi ta esamesai, eritxi ariñegi barik gitxik aolkatuko ninduela-ta, nekerik ugari ja-san bearko nitula, baiña ondo zerbid.ua izango zala Jainkoa. Komentu barriko arazoetarako, barriz, egoki zala ni urrin-tzea Erroma'tik Baimen-Idazkia etorri arte. Aita Probintzia-la etorten zanerako, ba, deabruak mataza ikaragarria euka-la eiota, baiña ez izateko bildurrik, orretan Berak lagundu-ko eustala-ta. Ni adoretzu guztiz eta poztuta geratu nintzan. Jesuiten Aita Nagusiari esan neutsan guztia, eta onek be joateko ifiostan. Beste batzuk, oster, ez egoala ondo, dea-bruaren asmakeria zala, an gaitzen bat etorri leikedan, Aita Probintziala bera be oriaz jakitun ipiñi bear neukela.

3. Nagusiak esana egin neban, otoitzean ulertu neba-nari jarraituz, beraz bildur barik niñoian. Ara eroaten nin-dun errazoa, baiña, kezka azetzen ninduana zan, zelako engaiñuan bizi ziran ikusiz. Onek buruz eragiten eustan Jaunari are geiago alamen emoteko, ez nengiala bertanbee-ra itxi eskatuz. Asko poztuta niñoian uri aretan Jesus'en Lagundiko etxea egoala jakiteaz, eta agintzen eustena bete ezker, emen egiten neban lez, ziurtasun pizkat izango ne-bala. Dalako andrea, Jaunari esker, pozez bete zan eta ber-tatik asi zan otera egiten, egunetik egunera poztasun be-teagoz aurkitzen zalarik. Miraritzat eukan au, esan doda-nez ba atsekabearen atsekabez lur jota modu negargarrian egoan. Taunak mesecie au egian nire alde nik ezagutzen ne-bazan pertsona onak otoitz eta erreku oparo egin eroielako nire gauzak ondo zuzentzeko. Dalako andrea Jainkoaren bil-durrean bizi zana gend.uan, eta on utsa, eta aren ontasunak egistan niri onetan ordaingoa. Maite-txera agertzen asi. jatan guztiz beroa; nik be orobat berari, on-ona ikusten nebalako. Baifia ia dana jatan gurutze ez txiki. Oiñaze jatazan esku-

erakutsiak, eta nigaitik ainbeste ardura artzeak ikara sar-
tzen eustan. Arimea tartean barne kiribilazten jatan, eta ar-
duraz ibilli bear Jaunak be bere aldetik akulatzen nindun,
an nengoala ba mesede aundiak gaintitu eustazan eta oneik
espíritu askatasunez jazen ninduelarik, ikusten neban guz-
tia arbuiaztera bultz eragistan, zenbat eta bikaiñagoak eta
utsalagoak iruditzen jatazalako; olan jazo oi jatan, andra
aundiki areikaz artu-emonu euki bear aretan; pozik neroian
arein zerbitzaritza egin bearra euren arteko bardiña ba nintz
legez.

4. Orduan irabazi aundi bat atera neban neuretzat,
andra ari be adierazoten neutsona. Onekin konturatu nin-
tzan, andra a, bera be, emakume zala, neu lez griña ta ar-
galtasunen menpeko; eta gitxitzat etsi bear dala giza-aun-
ditasuna: mailla goiragokoak kezka ta lan geiagoz ingura-
turik bizi dirala; eta nobere bizi-maillako duintasun eta
arazoai eutsi bearra dakazan ardurak, ez eutsela bakian
bizi izaten be izten. Ez-orduz eta neurritz kanpo jan bear
da, dana antolatu bear bai da ez nobere neurritza, nobere
bizierak eskatzen dauanez baiño; sarri jan bear dira bizi-
moldeaz bat datozan janariak eta ez nobere guztokoak. Ez
bei ifiok olako legerik ausi. Nazka ekarstan onek, andera
izatea iguindurik. Andiki a, erreinuko gurenatarikoa izanda
be, gitxi uste dot izango dirala ain apal eta lauak. Erruki
neutson, eta erruki dautsot oindiño be, bere maillako es-
kakizunai erantzun bearrez, sarri ikusirik, zelan ukatu bear
ditun bere berezko joerak. Etxeko morroi-mirabeak onak
dirala be, kontuz ibili bearra dago eurakaz beti; ez da ber-
ba geiago egin bear onegaz aregaz baiño, mesede egin dau-
tsazuna txarto ikusia izango da-ta. Menpeko izate bat da
au egi-egiaz eta munduak asmatutako guzur askoren artean
bat auxu dozu, jaun izena emon oi dautsela olako pertso-
nai, nire eritxiz, gauza asko ta askoren menpeko diranai.

5. Eder izan jakon Jaunari, etxe aretan egon nintzan
denporan, an bizi ziran pertsonak Jainko-zaleago egitea, an-

dra arek eustan maitasun aundiagaitik pertsona batzuk eukin bekatxetik eta neke-lanetatik asko egin ezta be. Uste eben itxura zanez, onura ta probetxu billa nenbillela. Jau-nak opa ebazan bear bada alako gauzak eta antzeko beste batzuk, ekar eistezala buruko min batzuk, beste aldetik neukan gozotasunak zuzpildu ez nendin. Danetik atera nindun, azkenez, neure arimearen aldeko irabazi aundiz.

6. Antxe aurkitzen nintzala, egin-eginean be, entzute aundiko praille bat etorri zan urira nik leendik be urteetan beragaz artu-emon naikoa eukitakoa. Aren Ordenako eleiza baten, ni nengoan lekutik ur-samar ain zuzen, meza entzuten aurkitzean, arima a zelako egoera edo gaitan egoan jakin nai izan neban, Jaikoaren zerbitzari zintzo bait gura neban nik, eta jagi nintzan nengoan lekutik aregaz berba egiteko asmotan. Otoitzean orduko bilbil eginda nengoan ezkerro, aldia alperrik galtzea zala buruak emon eustan, nok sartzen nindun ni gauza aretan, eta jesarlekuratu nintzan barriro. Uste dot iru bider gertatu jatala au, eta azkenik, aingeru txarrak baiño geiago al izan eban onek, eta joan nintzan dei egitera, era autortegi batera etorri jatan itz egitera. Urte mordoa joana zan alkar ikusi ez genduala; neu asi nintzan ari itaunka ta bera niri, neure bizitzari buruz. Ni asi nintzakon esanaz, nirea arima aldetik neke-lor askoz betea izan zala, eta ak arduratsu jakin nai izan eban zertzuk izan ziran arimea neketan jarten eusten min orreik; adieraz nengiozala, mesedez. Nik esan neutson etzirala jakitekoak, ezta nik esatekoak be, ixillik eukitekoak baiño. Ak esan eustan, oraintxe aitatu dodan Aita domekar bere adiskide zanak d'ana ekiala, ta arek esango eutsozala gauza guztiak; geldi nedilla, ba, ardura barik.

7. Gertatu zana au izan zan, bere esku etzala egon ni zirikatu ta txutxu eragin barik iztea, ezta nirean be, uste dot, esateke. Izan be, gauza oneik erabilliaz artzen neban neke-alamen eta lotsa aregaz eta esan dodan Lagundiko Nagusiaz, ez neban penarik izan, bestera poztu egin nindun

oso-osoan. Autortzen lez esan neutson. Iñoiz baiño zuur eta zentzundunago iruditu jatan, eta adimen bikaiñeko, beti euki neban nik. Arek eukazan talentu ta alderdi onakaz konturatu nintzan eurekaz baliatu nairik, guztiz Jainkoari emona izatekotan. Urte batzuk dirala nik bai daukat atsegin jatan pertsona bat ikustean, onakoa Jainkoari emona gura neukela baingoan eta osorik; nire gurari oneik batzutan guztiz gogorak dira, eurok gordeteko lain ez nazararik. Eta mundu guztia Jainkoaren zerbitzati nai izanik be, atsegin jatazan pertsona oneik, zauskada sendoagoa damoste. Orixegaitik nekarazo oi Jauna ez gitxi. Eta olantxe jazo jatan aitatzen dodan lekaide orrekin be.

8. Jainkoari gogoz eskatzeko eskatu eustan erreguka, baifia ori ez eukala berak niri zetan esanik, ni ez bai nengoan orduan beste ezer egiteko egoeran. Itzuli nintzan, ba, neure betiko bakartadera, otoitzari ekiteko. Barruz ondo batuta nengoala, Jaunagaz sartu nintzan artu-emonean sarri oi dodan legez, izketa egoki-ezean, zer diñodan ez dakidala askotan. Maitasunak itz egiten, eta arimea osoan daukazu joana, eta nik ez dakust onegandik Jainkoarengana dagoan aldea. Aren Aunditasunak dautson maitasuna ezagutzen dauanak, berea aaztu dagi oso-osoan, eta Arengan dagoala iruditzen jako, eta banaketa barik gauza bat-bera diralakoan, zorakeriak esan oi ditu. Orduan, ba, gogoratzen naz, malko ugaritan eskatu neutson Jaunari jar egiala arima a bere zerbitzuan, oso-osorik. Nik guztiz ontzat jotenebala be, ez jatan oso eder, obeago nai nebalako. Olantxe aitzen emon neutsan: Jauna, ez daustazu ukatu bear mesede au; begira, pertsona ona da berau, gure adiskide izateko!

9. Oi Jainkoaren ontasun guren! , oi gizabide eder! Egia da Zuk itzak neurtzen, eta bai gurariak eta itzak zelako gogoaz esaten diran! Eta zelan iraun oi dozun ni lan-go batek; Zuri ain urtenik eta arro berba cgitea! Izan zaitetz betiren beti bedeinkatua.

buruari eta oraindik gitxiago berak zuzendu daroan arimeari. Apaltasunean ondo oiñarriturik ba dago, oster, utikan bil-durra, bego ziurtasun osoz, jaunak ez dau naiko, ez, bata ez bestea trankart egifiik iruzakuan jausterik.

13. Diñodan Aita, ba, Jaunak egindako gauza askoren artean, experientzi galanta artua da Agandik, eta, ikas-zale dozun ezker, kasu onetan ikasi leiken guztia ikasten alegindu izan da. Gauza baten experientzirik ez eukela-ta egoa-nean, itandu egitson eukanari, eta olan, Jaunak emondako fede aundiz lagunduta, probetxu ikaragarriak atera izan dau beretzat eta arima batzuentzat; onein artekoa dozu nirea. Jaunak jakiñik zeiaiko neke-miñak izango nebazan nik gaiñ, Berak, antza danez, beretzat artu eban, agintzen eus-ten batzuk Beragaz eroan bear zituan ezker, gerta eitezala beste batzuk neure lan naiko aundietan lagundu ta mesede itzala egingo eustenak. Ia danetik Jaunak berak agindu dau-tso, beraren eskua orretan ozt-oztan ikusten ez dala, esan oi danez. Jaunak osatu dau baita penitentzi egitea leen izten ez eutson gorputz-indarrez ornidurik, orain ortarako be gai dala. Edozein ekintza on burutzeko kemenez jantzi dau, ain-beste grazi ta mesedc egiñez. Jaunak beraziz begiko dauala erakutsiz. Onetsia bedi bcti-betiko.

14. Jaunak, uste dot, egin dautsozan mesedeetatik da-torkiola on guztia. Onak ez dira azalekoak: Jainkoak ipiñi eban probetatik beti onez urtenik, aitzen emon dau bere jokabidez ondo ulertzen dauala aundia dala erasoak eta ja-zarpenak eroanez irabazten dan meritua. Jaunaren ontasu-nean ditxarot on ugaria etorriko jakola, berau dala bide, bcre Ordeneari ta bertako lekaide batzuei. Ikustcn dira dagoneko orren ezaugarri batzuk. Egin jatazan ikuskizun aundi batzue-tan, Jaunak gauza batzuk iragarri eustazan aretaz cta aitatu dodan Jesus'en Lagundiko Nagusiaz, mirezgarriak iragarri be; baita Santo Domingo'ren Ordenako beste lekaide bie-taz (1) be. Azken biotatik bateri buruz, Jaunak emon dau

(1) Pedro Ibañez eta Domingo Bañez.

dagoneko ulertzen nik leen be entzun nebazan gauza probe-tzagarri batzuk, baiña orain askoz geiago dira.

15. Orain gauza bat esan nai dot emen, lekaide ontaz. Bein iztoki baten beragaz berbaz nengoalarik, nire arimak arena ikusi eban Jainko maitasunez ixiotua, ni doi-doi sortua eukirik. Jainkoaren aunditasuna gogoan nerabillen, arima bat denpora ain laburrean orren gora jaso ebala-ta. Nastua nengoan, nik esaten neutsozan otokz-gauza batzuk berak apaltasun aundiz entzuten ebazala konturaturik. Nirea bai zala arrokeria olako pertsonakaz orrela itz-egitean! Uste dot, Jaunak parkatzen eustala au, nik olakoa santutasunean oso aurreratua ikusi nai nebalako. Probetxu aundi-aundikoa zan niretzat aregaz egotea, su barri batek ixiotua izten ninduala uste neban, Jainkoaren zerbitzuan adore barriz ekiteko. O ene Jesus! Zer ez dagi arima batek Zeure maitasunak gori-gori ikututa dagoanean! Zelako arduraz eta on-eritxiz cz dogu inguratu bear! Zelan eskatu oi dautsagun Jaunari lur onetan beti iraun dagian! Al balitz, su bardiñean ixioturik, arima guztiak egur bateko izaten saiatu bear genduke.

16. Gauza ederra da gaixo batek beste bat, gaixo b.'r-diñak jota aurkitzea. Bakarrik ez egoteak, poz aundia dakar-to; eta biak alegitzen dira gaixotasuna eroaten, eta baita gaixo ori merezigarri izan daiten be. Alkar adoretu ta biz-kortuz, erabagitsu dagoz aleun bider Jainkoarren bizia emo-teko be, ortarako bideak aukeratu nairik. Gudariak lez dira, ondakiñak arrapatu ta eurakaz aberats egiteko, burruka nai dabenak; ba-dakie, bada, bi.de ontatik soil-soil jadetsiko da-bela opa dabena. Jasan, or euren lanbidea. Oi, gauza aundia da Jaunak argi au emotea, asko irabazten dala Agaitik jasa-naz konturatzea! Au ez da ondo ulertzen dana itxi artean. Lurreko ondasuncn bati josita dagoanak, argi erakusten dau zerbait orretan daukala bere biotza; eta zerbait ori on-eres-ten ba dau, naitaez min egingo dautso ori izteak, eta jakiña, dana doa utsik eta galdua. Ondo dator emen esaera zaarrak diñoana: galdua da galduaren atzetik doana. Eta, ain zuzen,

zer galera aundiagorik, cta itsukeri aundiagorik, cla zcr zoritar gorriagorik, ezcr ez dana askotzak eukitea baiño?

17. Neroan arira biurturik, ba, ni arima ari begira poz betean aurkitzen nintzalarik, Jaunak nai izan eban itxura danez nik argi ikustea Berak arima artan ezarri ebazan altxorrak eta au neu tarteko nintzala egin eustan mesedea zala konturatuz, ni orren duin ez nintzala-ta, ederragotzat neukazan Jaunak ari egindako mesedeak, eta begiramen betea-goa erakutsi oi neutsen neuri egiñak izanda baiño. Asko be asko goersten neban Jauna berc Aunditasunak nire gurariak beteaz joialako, antzeko pertsona asko itxartzeko egin neutsen O-toia entzunik. Ainbat poztasun ezin eroanik nengoala, beretik urten zan nire arimea. Baiña geiago irabazteko izan zan; galdu eban, ba, zentzuna, galdu eban jainkozko izkera a entzutea. Espiritu Santuaren mintzoa nunbait, ela onako birlora sakonean sartu nintzan, naiz eta gitxi iraun zentzuna galdu eragin eustana. Kristo ikusi neban aundi ta aintzaz beterik, an jazoten zanagaitik poz aundia erakutsiz; Berak esan custan au, ezaguterazo nai izan eustala alako alkarizketan Bera aurkitzen zala beti tarteko, eta oso atsegingarri izaten jakola gizascmeak cta emakumeak Beretzaz berba egiten poz-eztitan ikustea. Beste bein, loki ontatik (2) urrin ncn-goala, aingeruak jasoten eben diñodan lekaidea ainlza aundi-aunditan; ikuskizunak iragarri eustan onen gogoaz guztiz aurrera joiala onbidcan. Eta orrelaxe zan izan be. Guzur cder bat sartu eutson egun baten bere izen onaren kaltcz, berak deduan eta ariman ainbat on egindako pertsona batek, berak barriz poz-pozik eroan eban irain ori. Aurretik be egintza aundiak eukazan buruturik Jainkoaren zcrbitzuan, beste era-saldi batzuk be onez jasanik.

18. Ez dot uste orain ontaz geiago adicraztca cgokidanik, zuk, Aita orrek, aurretik be dana dakizu-ta, Geroa-go, ondo ba deritxoau, sar leikez gciago Jaunaren aintzarako. Esan dodazan etxe oni buruzko iragarkizun guztiakaz,

(2) Avila.

eta beronetaz oraindik esango dodazanataz, eta abar, guztiak bete izan dira. Batzuk jakin izan baiño iru urte leenago, oneik geiago ta areik gitxiago, esan oi eustazan Jaunak. Autor-entzuleari esaten neutsazan nik eta neure adiskide alargunari, esan dodanez, beroni iragarteko baimena neukalako. Gero jakitun egin nintzanez, onek beste pertsona batzui esan oi eutsen, eta onek ba dakie nik ez dodana guzurri esaten. Jainkoak ez beist itxi olakorik esaten, eta gitxiago oindiño nik gauza astunak izanik, iñolaz be ezin baieztu egi utsari dagokiona baiño.

19. Neure koñatu bat onik onenean il zalarik, eta ni autortu barik il zalako atsekabetan nengoala, otoitzean iragarri jatan, nire aiztea be orrela ilgo zala; joan nendilla ara eta alegindu nengiala ortarako gertatu zedin. Neure atortleari esan neutson, baiña onek ez eustan joateko baimenik emoten. Bein eta barriro nik eskatu arren, a berean egoan. Gero, au ikusi ebanean, ara joateko esan eustan, azkenean be ezer ez bait zan galtzen. Baserrian (3) bizi jatan aiztea. Ezer esateke joan nintan ara, ezta Jaunak iragarri eustanik be; zer guztietaz al nebana emonaz aratu nintzan. Aiztea sarri autortu zedila lortu neban eta ekar eiala gauza guztietan bere barruaren ardurea. Ona bait zan, aintzat artu zituan nire kontsejuak; lau-bost urtetan oitura jarraituz eta bere buruazko ardura zeatza eukiz, il zan, iñok ikusi bage ta autortzeko aukera barik. Sarri autortzeko oitura zan lez orduan, zortzi egun be etziran azkenengoz autortu zala. Poz aundia artu neban nik il zala jakin nebanean. Oso labur egon zan garbitokian. Zortzi bat egunera uste dot, jaunartu ondoren, Jauna agertu jatanean, eta nik ikustea nai izan eban, zelan erioen zerura. Urte guzti oneitan, esan jatanetik aren eriotzararte, ez jatan aaztuten aitzen emon jatana; ezta ni-ñe adiskideari be, au ba aren eriotz ostean, neurera etorri jatan, agindutakoa zelan bete zan ikusiaz guztiz arrituta. Beti-beti goratua izan bedi Jainkoa, arimak galdu ez daitezkan, ardura ain aundia dakar eta.

(3) Castellanos de la Cañada.

XXXV ATALA

Aurrera jarraitzen Josep deunaren komentu barria jasoten. — Jaunak agintzen dau elxe a fxi-rotasunean egiteko. — An aurkitzen zcin emakn-mea. — Gertatu ziran beste gauza batzuk.

1. Esan dodan andra orrekin nengoala, berton bizi izan nintzan urte bi baiño geiago, Jaunak nai izan eban nirekiko albista izatea gure Ordenako serora batek (1), emendik irurogeta amar legua baiño geiagora bizi zanak, eta egun batean emendik ibillirik, alegioak egin ebazan nigaz itz egiteko. Jaunak eragin izan eutson neuri lez urte ta egun bardiñetan, Ordena onetako beste monastegi bat jasoteko; eta gurari au sut-azo eutson lez, eukan guztia saldu ta Erroma'ra aldatu zan oifiez eta ortozik, ortarako baimena ekartera.

2. Penitentzi ta otoitz aundiko emakumea da; jaunak mesede asko egiten eutsozan, eta bein Andra Maria agertu jakon komendu barri ori egiteko aginduaz. Ni baiño naikoa aurrerago joian Jaunaren zerbitzuan, eta lotsa nintzan aren aurrean egoten. Erakutsi eustazan Erroma'tik ekazan pape-rak, eta nigaz amabost egun egiñaz, orduan erabagi gendun zelan egin bear genduzan komentuak. Eta ni mintzatu naia-kon arte, ez neban nik jakin, gure Araudiak, arindu zan ar-tiño, norbererik ez eukiteko agintzen ebanik, neu be ez nen-goan errenta barik egitekotan, nire asmoa ba bear izango gendunaren ardura barik bizi izatekoa zan, eta ez neban be-giratu noberena eukiteak beragaz dakazan ardura asko ta aundiak. Emakume santa onek, Jaunak erakusten eutson-eta,

(1) Jesus'en Maria, Granada'n jaioa, 1522'an.

irakurten ez ekian arren, ondo ulertuta eukan nik, Oin-legeak irakurten ainbat denpora emondako onek, ez nekiana. Arek esan eustan eta ondo eritxi neutson, bildur nintzan arren, ez eustala lagako, zorakeria zala esan baiño, ezta ez egiteko neure ordeaz beste batzuk sufridu bear eben gauzarik; bakarrik izan ba nintz, ez askok ez gitxik ez ninduela atzeratuko, Kristo Gure Jaunaren konisejuak betctea alschg'n aundi-aundia jatala-ta, Aren Aunditasunak bai eustazan emon txirotasun gurari bero-beroak. Neuretzat, beraz, axe zala one-na ez neukan orren dudarik; egunak zirala, ziur, neure bizitzarako izan-aalezkoa izan eitela ni Jainkoaren maitasunarren eskean ibikea, etxerik ez beste gauzarik eukiteke. Baiña bildur nintzan, Jaunak besteai be emoten ez ba eutsezan gurari oneik, pozik ez ete ziran bizi izango, eta ez ete zan izango au zabarkerirako bide; komentu ez-euki batzuk nekusan, ba, baru bizitza asko bagakoak, eta ez nintzan konturatzen ez izatea zala ez-euki ta beartsu izatearen zergaitia eta zabarkeriaren txirotasuna; onek ez dau iñor aberatsago egiten, ezta Jainkoak utsik egin be egundo zerbitzari jakonari. Azken baten, aul eukan fedea, Jainkoaren zerbitzari oni ez egokiona.

3. Nik danetan ainbat eritxi artu oi nebazanez, ia iñor be ez neban aurkitzen eritxi onetako, ez autor-entzulea, ez jakintsu ezagunak; errazoi ugari ekarten eustezan eta nik ez nekian zer egin, nik ba-nekian ba Araudia zala ta ohea zala ikusten, ezin nintzan etorri errenta eukitera. Eta batzutan zurituta lez neunkien ezkerro, otoitzera biurtu ta Kristo gurutzean ain txiro ta billosik ikusirik, ezin neban ezertara be aberats izaterik jasan. Malko-intziriz eskatzen neutson Berak gauzak erabagita ni Bera baizen ez-eukia izan nendilla.

4. Errentea eukiteko ainbeste oker eta eragozpen aurkitzen nebazan eta ainbeste kez karen eta zabarkeriren iturri zala ikusi, ez neban egiten besterik eskolatuakaz eztabaidatu baiño. Idatzi neutson laguntzen euskun domekar lekaideari (Ibañez Aitari); ukamenez ta teologiz beteriko orri bi bialdu eustazan idatzita nik ikusi nengizan: astiro ta sakon

ikasi ebala gauzea, esaten eustan. Nik erantzun neutson, neure deiari ez jarraitzeko, eta eginJt neukan txirotasun botuari uko egiteko eta osotasun osoz Kristoren kontsejuak ez beteteko, ez nebala teologirik bear, ezta kasu onetan letrakaz mesede eginda be. Lagun izango jatan norbait aurkitzen ba eustan, asko poztuko nintzala. Ni nengoan etxeko andra arek (2), bai, asko laguntzen eustan one^an; batzuk lenengotan ondo eritxoela iñosten; gero, geiago begiratu ondoren, ez egoki asko aurkitzen ebezan, ez egiteko atzeragarri ta koska ugari ipiñiaz. Nik esaten neutsen: eurak eretxiz ain aldakor ba ziran be, nik leenengora eldu nai nebala.

5. Bitartean, neuk eskatuta, andra au ba Alkantara'ko Aita Pedro santua ikusi barik egoan eta bere etxera etorri zan au, Jaunari esker; txirotasuna ondo maite ebana ta ainbat urtean olan bizi izana, ondo ekian onek eukan ondasun betea, eta asko be asko lagundu ta aurrera eroan barik ezelan be ez izteko agindu eustan. Onezkero eritxi ta ezin ohea zan laguntzaz, experientziz ondo nekianez, beste batzures billa ez ibiltzeko erabagia artu neban.

6. Egun batean, Jainkoari arren bai arren erreguka nengoala, Jaunak esan eustan, iñolaz be ez izteko txiro egin barik, auxa zala bere eta bere Aitaren naia, Berak lagunduko eustala. Eragin aundiko zentzun-galtze baten izan zan au, eta Jainkoarena zan, iñotara be ezin izan neban onen dudarik. Beste bein esan eustan, errentan egoala naspilla eta beste gauza batzuk txirotasunaren onerako; baita esan eustan bere zerbitzuan bizi zanari ez jakola iñoiz faka bizitzeko bear ebana, eta falta izate onek, diñodanez, ni ez ninduan iñoiz bildurtu. Aurkeztutakoaren (Aita Ibañez'en), domekar lekaidearen, errenta barik ez egiteko idatzi eustala esan dodanaren biotza be, samur-azo ta itzuli eban Jaunak. Ni pozarren nengoan au ulertu ta alako eritxiekin sendotua izanik; Jainko maitasunarren bizi izanaz munduko ondasun guztia neurea nebala, uste neban.

(2) Luisa de la Cerda.

7. Aldikada oneian, nire Aita Nagusiak (3), an egoteko jarri eustan agindua jaso eustan, eta neuregan itxi eban nai ba'neban joan joateko, eta zati batean egon nai ba neban, jarraitzcko bertan. Eta onetan autsekundeak ospatuko ziran nire monastegian, eta iragarri eusten askok niri emon nai eustela nagusi kargua; niretzat ori burura ekartea bakarrik jatan oiñaze larri, edozein martiritza errez artuko neuke Jainkoarren, onetarako barriz ezertxogaitik be ez n'ntzateke gertu egongo. Lan aundiena itxita be, asko bait dira ola-koak, eta beste zer batzuk nik iñoiz be nai izan ez dodazanak, eta aginte-arazoak gitxiago, beti uko egin bai dautset, arrisku aundia zala uste neban neure kontzientziarentzat, eta olantxe Jainkoa goretsi neban an aurkitu ez nintzakko. Ango adiskideai idatzi neutsen botorik emon ez egisten.

8. Iskanbil aretan ez nintzala-ta pozik nengoan oni Jau-nak esan eustan ezelan be ez izteko ara joan barik; gurutzea opa neban ezkerro, laster etorkidala, ez ukatzeko, joan nendilla gogo onez, Berak lagunduko nindula, joateko jarraian. Maigabe aundia artu neban, eta negar ta negar ni; gurutzea zala, pentsatu neban, nagusi izatea, eta, iñodanez, ori ez egoala ondo uste neban nire arimearentako, nik ezin neban itzik idoro ori onartzeko. Esan neutson neure autorleari. Beingoan joateko agindu eustan, argi egoan ba ori osoagoa zala, eta egun berotsuak ziralako, auteskunde bitartean an egotea naikoa nebala, eta egun batzuk egoteko, bidaldiak kalten'k egin ez egistan. Baiña Jaunak beste gauza bat eukan erabagirik, eta axe egin bear zan; estu ta larri nengoan, ezin neban otoitzik egin, Jaunak agindu eustanik ez nebala egiten, eta au atsegiñez eta pozarren nengoalako, ez nebala lanari oratu gura; Jainkoagaz neukazan itz utsak zirala; ze zergaitik, osoagoa zan lekuan egon al izan ezkerro, ori zergaitik izten neban; ilgo ba nintz, il naitela, eta onekin gogo estutze aundia, Jaunak ni gozotasun barik otoitzean iz[^]ea. Azkenez, oiñaze ta neke-lorrari ezin eutsiz, andra ari erreguz

(*) Anjel Salazar.

eskatu neutson ontzat artu eidala ta etorten izteko, neure autor-entzuleak be, ba, orrela ikusi nindunean, joateko esan eutsan, Jainkoak neuri lez berari be cragiten eutsola.

9. Min eban arek nik izten nebalako; eta au beste oiñaze bat zan niretzat, asko kosta bai zan Aita Nagusia-gazkoa, era askotako eta ordut-kanpotiko esan nekegarriakaz. Asko sentitzen eban-eta, gauza oso aunditatzat euki neban a ortara etortea; Jainkoaren bildur zalako eta ortik Ari zerbitzu ederra etorriko jakola esan neutsolako, eta beste gauza asko, eta iñoizkoren baten etorriko nintzakola ikusten be, eta olan, pena aunditan, ontzat euki eban.

10. Niri orduko ez eustan penarik emoten etortek; izan be, nik naiago neban Jainkoaren zerbitzurako ohea zana, Berau poztutzeak emoten bai daust pozik aundiena; uxatu zan andra a izteko neukan sentipena, baita berak ni iztea be, bardin asko zor neutsen beste pertsona batzuk be, batez be neure autorlea, Jesus'en Lagundikoa, ondo joatana; baifia Jaunaganako poza galdu neurian, poz aundiagoa ekarstan bera galtzeak. Au zelan zan ezin izan neban ulertu, aurka-ko bi oneik ba argi ikusten nebazan: atsegin artu eta poz-azo ta alaitu ariman jazoten jatanaz; ni bada pozik nengoan eta baketsu, eta aldia neukan otoitzari ordu asko emoteko. Ikusten neban ez su aundi baten sartzera niñoian, Jaunak orduko gurutza aundia igarotera nentorrela esan eustan, naiz-ta nik iñoiz be pentsau ez gero ikusi neban baizen aundia izango zanik; eta, alan be, pozik nentorren jada, ta urduri nengoan oindiño burruka-zelaian ezarri ez nintzalako; ortxe bai nindun nai Jaunak, eta Aren Aunditasunak laguntasuna bialdu eta neure argal-izateari itsasten eutson.

11. Ezin neban, diñodan lez, au zelan leikean ulertu. Alderakizun au gogoak emon eustan: nik ba'daukat bitxi bat edo atsegin aundia damostan gauza bat eta nik neure burua baiño be maiteago dodan eta neure atsedena baiño naiago ba dot ari poza emotea, eukan guztia eskintzen

eustan pertsona ari poza emotearren ni ainbarik geratuta be. Eta a poztuteko poztasuna nire poza baiño geiago dan ez-kero, bitxiak edo maite dodanak dakarstan pena kentzen daust, ala berean emoten eustan poza galtzeak be; beraz, euki nai izanik be, neugandik urrintzeak ain naigabeturik izten nebazan pertsonak ikusteak, ni bere esker onekoa oso nintzala, beste sasoi baten benetan biotz-mindua geratuko nintzan au, orain, penaz egon naita be, ezin neban penarik euki.

12. Nik emen beste egun bat ez luzatzeak garrantzi aundia eukan zorioneko etxe oni dagokionez; ez dakit zelan amaituko zan orduan luzazu izan ba neu. O Jainkoaren aunditasuna!, burutara dakardanean, sarri itxi oi nau izutua, Aren Aunditasunak zein berezi lagundu nai izan eustan baztertxo au egiten, orrela da-ta, nik uste, Jainkoaren egoitza Aren Aunditasunari eder jakona, bein otoitzean nengoala Berak esan eutanez, Bere atsegin paradisua. Eta orrelaxe Aren Aunditasunak berak autatu dabezala dirudi ona ekarri dabezan arimak, eta onein aldran bizi naz ni artegatasun aundi-aundiz; nik ez neuke, ba, olakoak nai izaten jakingo ainbat estutasun eta ez-euki ta otoitzean diarduela. Gauzea eroanaz beneteko poz-alaitasunez gaiñezka, bakotxak uste izanik ez ebak merezi toki onetara etortea; batzuk batez be, Jaunak munduko uskeri ta galamiña ezgitxi artetik deituak; an mundutar legeai jarraituz, pozik egon leitekezan, eta emen emon dautsez Jaunak atsegin askoz aundiagoak, eta argi ikusten dabe eurak Jaunak zelan emon dautsen itxi ebena baiño bateko eun geiago, eta ez dira aspertzen Aren Aunditasunari eskerrak emon eta emon. Beste batzuk onetik obsra aldatu ditu. Urte gitxikoai sendotasuna eta ezagutza damotse beste gauzarik nai izan ez dagien, eta ulertu atsedean geiagok bizi dirala beera begira be, bizitzako gauza guztietatik alhenduta. Urte geiagokoak diranai eta osasun gitxigaz, kemena emoten dautse eta emon dautse danak eroan bear daben laztasuna ta penitentzia eroan al izan dagien.

13. O ene Jaun! , Zuk bai erakusten dozula aundia zarana! Ez dago errazoi billa ibilli bearrik Zeuk gura dozunerako, berez errazoi guztien gaiñetik gauzak ain errez egin oi dozuz, ulertzen emonez ortarako ez dala bear Zeu benetan maite izan eta Zeugaitik dana itxi baiño besterik, Zeuk, Jaun orrek, dana errez dagiguxun. Ondo dator emen esatea, *lana da zure legea* (Sal, 93, 20); nik ez dakust baiña. Jauma, ezta ez dakit zelan dan estua Zugana daroan bidea (Mat., VII, 1). Nik uste dot bide erreala dala, ez bidezidor; benebenetan jarten dana seguruago daroana. Urrin dagoz mendilepoak eta arkaitzak jausteko, eretietan bait dagoz. Bidezidor deitzen dautsot nik, zidor ziztriñ ta bide medar alde batetik ibar bat daukana, oso sakona jausi leitekena, eta beste aldetik amiltegi bat; arreta barik ibilli oi dira, amilbeera jausiz zatitzen diranean.

14. Egiaz maite zaituana, ene On, seguru doa errege bide zabaletik; urruti dauka amildegia; ez dau topozik egin ezegaz be, Zuk, Jauna, emon bai deutzazu eskua. Maite ba zaitu ez da naiko jauste bat ez asko, ezta munduko gauzai uko egitea be, galtzeko; apaltasunareren ibarretik zear doa. Ez jat sartzen buruan zeren bildur diran osotasun bidean jarri gura dabenak. Jaunak, dana dalako, ulertzen emon beigu zein txarra dan ziurtasuna arrisku ain agirietan, jentearen ariaz ibiltean dagoan lez, eta zelan daukagun ziurtasun osoa Jainkoaren bidean guztiz aurrera joatean. Jarri begiak Arengan eta ez izan Zuzentasunaren Eguzki au sartuko dan bildurrik, aurrena geuk itxi ezik, galdu gaitezana gabaz bide egiten itxiko gaitunik be.

15. Ez bildur izan leoi artean ba zabiltze be; bakotxak eroan nai, ba, zati bat antza danez, au da, munduak diñotsen ooreak eta atsegiñak eta antzeko poz-alaitasunak; eta emen sartu oi dau deabruak sagutxuen bildurra. Milla bider izutzen naz eta amarmilla bider nai neuke negarretan ase ta danai deadar egin neure itsutasuna ta gaiztakeri aundiak; zerbait balio ba leukie beiñik-bein eurak euren begiak zabaldu dagiezan, ona dalako egin al daikenak egin begioe ori, eta ez bei nai izan niri barriro itsututerik. Olantxe.

XXXVI ATALA

Gai asitakoari ekiten. — San Josep zoriontsuaren komentua zelan amaitu zan. — Lenengo lekaimeak abitua artu ondoren izan ebezan erasoaldi latzak. — Teresak berak eukitako lanak eta tentaldiak. — Jaunak danetatik atera eban garaienez. — Aintza eta gorespenak Jaunari eurrez.

1. Uri atatik urtenda pozik nentorren bidean, erabagi sendoz Jaunaren zerbitzurako zan guztia gogo beroaz egiteko gertu. Lur ontara eldu nintzan gau aretan bertan eltzen da gure baimen-idazkia be monastegirako, eta Erroma'ko buldatxoa; ni arritu nintzan, baita Jaunak al bait ariñan etorteko emon eustan leia ekienak be, une onetan nire premiña aundia egoala ta Jaunak ona ekarten nindun abagunea ikusiz batez be; emen aurkitu bait nebazan Gotzaiña ta Alkantara'ko Aita Pedro on-ona, eta beste zaldun bat Jainkoaren zerbitzari oso leiala; onen etxean gaba egin oi eban gizon santu onek, ementxe aurkitzen bait eben abegi ona ta aterpea Jainkoaren zerbitzariak.

2. Gotzaiñaz biok artean lortu eben monastegi barria eregitea, etzan gitxi izan, oso beartsu ta ezeukia zalako, eta batez be ondo be ondo ikusten ebazalako Jauna zerbidutzeko orrela erabagita egozanak, eta ortik etorri jakon lekaime-etxe orri laguntzeko irritsa: eta zaar santu onek onartzea ta areik eta oneik guri laguntzera ipinteak, auxa izan zan guztia arildu ebana. Tarte ta abagune ontara eldu ezik, esana dodan lez, ezin dot ulertu zelan egin leitekean; emen ba denpora oso laburrean egon zan gizon santu a, zortzi egunean ez dot uste, eta euroitan ondo gaixorik, eta andik laster Jaunak berarekin

eroan eban. Egun asko aurretik, ez dakit urte bian eta geiagor, oso txarto ebillela, Aren Aunditasunak beraz gure negoziua amaitu arte gorde ebala dirudi.

3. Ixil-gordeka bete-betean egin zan guztia, orrelaxe ezik ez bait zan ezer egingo, gero agertu zan legez, erria orren aurka egoan eta. Jaunak neure koñatu bat (1) gaizki egotea nai izan eban, eta onen emaztea ez emen, premiña aundian aurkitzen zan eta baimena emon eusten aregaz egoteko; eta bitarte ontaz etzan ezer ulertu, pertsona barzuk zerbaiten susmoa ba euken arren; baiña ez eben oraindik siñesten. Arrigarria benetan, gaixorik etzan egon negoziarako bear izan beste baiño; osasunez egon zan ni neure arazoz aske jarri eta arek etxea garbi ta gertu itxi arte; osasun ederra emon eutsan gero Jaunak, bera be miretsirik egoala.

4. Naiko lan izan neban emen batzukaz eta besteakaz gauzea onartu egien, eta gaixoagaz, eta ofizialakaz, arin be arin etxea amaitu egien, monastegi itxura artuaz, amaitzeko asko falta zan eta. Eta neure lagunarena (2); ez egoan emen, eta oba zala uste genduan gauzea obeto estalduteko; nire us-tez dana joian arin ibiltetan, errazoi askogaitik, eta bat zan, ordutik ordura nengoala beste toki batera bialduko ninduelako bildurraz. Askotariko lanez bete ninduen, auxe zala gurutzea pentsatzeraiño ain zuzen; alan be, gtxi neritxon oindiño igaro bearko nebala Jaunak ulert-azo eustan gurutze aundia-ren alboan.

5. Dana atondu ta eraturik, ba, Jaunak naita, San Bartolome egunean, moja gazte batzuk jantzia artu eben, Sakramentu guztiz Santua jarri zan, eta aginpide ta indar osoz egiña geratu zan gure aita San Josep aintzatsuaren lekaimetxea, milla bosteun eta irurogeta bian. Neuk emon neutsien abitua, eta orduan ain zuzen an aurkitzen ziran geure etxeko

(1) Juan de Ovalle.

(2) Giomar andrea.

beste moja bik. Monastegia egin zan etxe onetan, nire koñatua bizi zana, esan dodanez, beronek erosi eban esku artean genkarren zera obeto azal-edertzeko, baimenez bertan bizi nintzan ni be, eta ez neban ezer egiten jakitunen eritxi barik, menpekotasunaren kontra ezetan be ez joateko. Eta Ordena guztiarentzat, motibo askogaitik, probetxugarria zala guztiz, ixillik joian arren, eta kontuz neure nagusiak jakin ez egien, egin neinkela esaten eusten; osotasunaren aurkako apur bat ba-legokela ortan esango ba leuste, milla monastegi itxiko neukezala deritxat; bat zertan esanik bere ez. Au egia da, dan-danetik alde egin eta osotasun eta itxitasun geiagoz neure profesa ta Jainko-deia betetea bizi gura ba neban be, Jaunaren zerbitzuan obeto jarduteko dana itxi bear ez-kero, egingo neuke, beiñola egin neban bezela, bare ta baketsu.

6. Niretzat, bada, au izan zan, Sakramentu guztiz Santua ipintea, aintzatan egotea; lau umezurtz txiro bear-izanetik atera, dote barik artzen ziralako, eta Jainko-zale itzalak (leenengotan auxe nai izan zan, sartu eitezala lekaime pertsona duifiak, euren ikasbide onagaz geunkan asmo ta erabagia, euren bizitza osoz ta otoitzez, eta abarrez, erakunde barri onen oiñarri izan eitezan), egikizun bikain bat jasoten bai genbiltzan, nire ustez Jaunaren zerbitzarako ta bere Ama aintzatsuaren jantziaren dedurako izango zana ziur-ziur, oneik bait ziran bere gurariak. Baita poztasun betea emon eustan Jaunak agindu eustana egiña zalako eta orobat toki onetan Josep doatsuaren, neure aitaren omenez beste eleiza bat jasoten zalako, emen ez egoan eta. Ez gero nik onetan zerbait egin nebala uste nebalako, ez neban ba olakorik uste izan, ezta izango be; beti uste izan neban Jaunak egiten ebala, eta nik neure aldetik egiten nebana, akatsez ondo betea joiala, eta ez leuskide au eskertuko erru bezela egotzi baiño; baiña pozgarri jatan oso Aren Aunditasunak, ain kaskarra izanik, egintza aundi ortarako tresna nindulako. Beraz, poz-[^]bitsetan egon nintzan neuretik urtena, otoitz be-roan.

7. Dana amaiturik egoala, iru edo lau ordura izango zan, espirituzko burruka nasian jarri ninduan deabruak, oraintxe esango dodanez. Aurrean ipiñi eustan egin nebana txarto egiña ete zan, menpetasunaren kaltetan ete joian Pro-bintzialak agindu barik gauzak aurrera eroatea (kezkaren bat ekaririko neutsola argi ikusten nebala, Gotzaifiaren mende bera jartear, berari lenengo adierazo ez neutsolako; baiña, arek onartu ez eta nik aldatu ez, neuk be uste neban or-tatik ez neutsola gora aundirik emongo), eta emen ain itxitu estuan egozanak poza euki bear ba eben, zer jana faltarik bez; zorakeria izan ba zan, nok sartzen ete nindun ni onetan, nik moja komentua bait neukan. Jaunak agindu eustari guz-tia, eta ia atertu barik urte bi ta geiagotan eritxi-erakuste ta otoitzak; gaur dana nire oroimenetik uxatua, iñoiz izan ezpa-litzaz lez. Neure aburuz bakarrik gogoratzen nintzan, birtute guztiak eta fedea nigan orduan dindil ezarriak egozan, nik indarrik ez neukala batek be lanik ez egian, ezta ni ainbeste kolpetik zaindu ta babestu be.

8. Deabruak buruan jarten eustan baita zelan nai neban etxe ain estuan sartzea, eta ainbeste gatxez beterik; zelan eroan al izango neban ainbeste penitentzi, eta zelan izten neban etxe ain aundia ta atsegingarria, ainbat moja lagun nebazala beti pozik bizi nintzan tokia; an ainbeste la-gun on neukazala, emengoak, bear bada, etzirala neu-re gogoko izango; gauza askotara beartu nintzala; etsita egongo nintzala apika, eta nok jakin?, deabruak auxe gura ba eban, bakea ta gozotasuna niri kendu, eta olan ezingo nebala otoitzik euki kezkaz bizirik, eta arimea galduko nebala. Itxura ontako gauzak jarten eustazan aurrean, ez bait nintzan gauza beste ezertan neure pentsa-mentua ipinteko; eta onekin, naigabea ta goibeltasuna ta illunpeak ariman, nik goraipatzen ez dakidan langoak. Olan ikusiz neure burua, Sakramentu guztiz Santua ikustera joan nintzan, Ari babesa eskatzea eziña jatan arren. Atsekabe ikaragarrian nengoala deritxat, eriotz-agiñean dagoanaren antzean. Iñogaz jardun eziña jatan, autor-entzulerik be oin-diño ez neukan izentaturik.

9. O, lagun zakidaz, Jainko! Bizi au bai errukior! Ez dago poztasun segururik, ez aldakor eztan gauzarik! Ez neuke ezegaitik neure komentua truk-egingo, lurreko bat beragaitik bere ez, eta oraintxe beraren kezka nengoan oso, neurez zer egin ez nekiala. Oi, zentzunez miretsiko ba genduz geure bizitzako gauzak! Bakotxak bere esperientziz ikusiko leuke zein apurretan euki berari buruz pozik naiz atsekaberik. Egia da, uste dot, neure bizitzan igaro dodan momenturik latzenetarikoa bat izan zala; espirituak igarten eban antza igaroteko egoan guztia, iraungo ba leu, au beste izan etzala be. Baiña ez eutson Jaunak itxi bere mirab; gaixoari asko sufriduten, iñoiz be ez eustan itxi ba atsekabeetan laguntza barik; orrelaxe emen be argi pizkat emon eustan-eta deabrua zala ezagutu nengian, eta egia ulertuz, dana zala ni guzur biribillein izutu nai izatea; eta olantxe asi nintzan Jauna zerbiduta Beragaitik sufriduteko ifioiz izan nebazan erabagi ta gurari aundiak gogora ekarten. Eta pentsatzen orobat eurak bete nai ba nebazan, ez nebala ibilli bear atsedean billa, eta lanak bai datorkidazan gaifi, orixe zala irabaz-bidea, edo-ta atsekabea, Jainkoa zerbiduz artu ba nengian, garbitoki ordeizango jatala; zeren bildur ete nintzan, lanak opa nitun ezkerro, ba, onak zirala oneik; inkimako ta muturgoan dagoala irabazia; zergaitik ez ete neban adorerik ainbeste zor neutsonaren zerbitzari izateko. Oneikaz eta onako beste gogeta batzuekaz, benetako indarketa egiñik, Sakramentu guztiz Santuaren aurrean zin egin neban, neure aldetik al neban guztia egingo nebala etxe ontara (3) etorteko baimena ateraten, eta era onean al izan ezkerro, itxitu edo klausurako promesa egin.

10. Au egiterakoan, beingoan uxatun zan deabrua, ni baketan eta pozik itxiaz; olan gelditu nintzan eta egon naz beti, eta itxitu, penitentzi ta etxe onetan daroaguzan beste gauza guztiak, leun eta gitxi egiten jataz oso. Bertoko poza aundi-aundia dozu, batzutan nik pentsatu oi dot lurrean au-

(3) Avila'ko San Josep.

keratu ete leiteken gozoagorik. Ez dakit au bide dan nik iñoiz baiño osasun ohea euki daidan, edo-ta Jaunak olan nai daualako; bear dodalako bestea dagiena nik be egin dagidan, naiz-ta nekez izan. Al dodanaz arriturik dagoz nire gaixoen barri dakien pertsona guztiak. Bedeinkatua izan bedi Bera dana emoten dauana, eta Aren indarrez eziñik ez daukaguna.

12. Burruka aretatik ondo nekatuta geratu nintzan, eta deabruaren lepotik irri-barreka, bera zana argi ikusi nebalako. Jaunak itxia zala nik uste, nik iñoiz ez nekian ba zer zan moja izateagaitik atsekabez egotea, ezta unetxo baten be, ogeta zortzi urte ta geiago alakoa nintzan arren, onetan egin eustan mesede aundiaz konturatu nendin, eta bardin jagon nindun oiñaze gorrietaz, eta orobat olakoetan iñoiz aurkitzen ba nintzan, izutu ez nendin, artaz errukitu ta pozerazten jakin baiño. Au igaro ondoren, ba, bazkal ostean apur baten atsedena artu nairik (gau osoan bada ez neban ia begirik itzi, ezta beste batzuetan be lanak eta ardurak lagata be, eta egunero ondo nekatua) jakiña egoan neure komentuan eta urian zer egin zan, beraz ardailla ta zalapart ugari zan nire monastegian, esan dodazan errazoia-kaitik, kolorez jantziaz joiazala zirudien arrabotsez ziur asko. Ama nagusiak gero agindu nindun arin be arin ara joan nendin. Nik aren agindua ikusirik, neure monjak, naiko saminduak itxi ta ara aldatu nintzan bertatik. Laster konturatu nintzan lanik naiko izango nebazala berton; baiña egitekoa egiñik geratzen bait zan, ez nindun asko arduratzen. Otoitz egin neban, lagun egistala Jaunari eta neure aita Jose doatsuari be neure etxera biurtu nendilla eskatu ta jazoko zana biai eskiñiaz; oso pozik, jakiña, Beragaitik zerbait jasan eta obeto otseindu al izan ezkcro, andik alde egin neban, gero presondegira botako ninduenaren susmoaz. Baiña onek, nik uste, poz aundia ekarriko eustan, orreia iñori ez neutson barbarik egingo eta bear-izan ederra neukan bakartadean atsedena artzeko, jenteagazko ar-emonak izan be, austuta nenkarren.

12. Ara eldu ta Ama nagusiari neure zuribidea emon neutsonen, baretu zan pizkat, eta danak bialdu eutsoen Aita Probintzialari (4), eta gauzea geratu zan arek erabagiteko; eta a etorri zanean, auzi egitera joan nintzan, Jaunagaitik zeredo-zer sufriduten nebala-ta, oso pozik joan be, Aren Aunditasunaren eta Ordenaren kontra ez neban uste kasu onetan, ba, ezetan be iñor iraindu ta ezeri kalta egin neutsonik; bestera barriz bai, Ordenea azi ta aunditzen saiatzen nintzan neure adore ta kemen guztiakaz, eta bizia bera be pozik emongo neukean origaitik, dana osotasun osoz betea zan nire guraria ta. Kristoren epaia emon eustan buruak, eta ikusi neban zein ezereza zan nirea. Agert-azo neban neure errua, erru txit aundia bezela, eta izan be orrelaxe iruditen jakon zeaztasun guztiak ez ekizanari. Agiraketa ederra egin ondoren, ez baiña okerrak merezi eban aiñakoa, eta askok Probintzialari iñotsena, nik ez neuke nai neure burua zuritzerik, ortarako erabagitua niñoian-eta, alderantziz parkatu ta zigortu nendilla ta ez zedilla bera nigaz zakar eta gozagatx egon, eskatu neutson.

13. Gauza batzuetan argi ikusten neban nik erru bage zigortzen ninduela; esaten eusten, ba, zeozer nintzalakoan, ospetsu izategaitik eta antzekoakaitik, egin nebala ori; beste batzuetan, oster, argi ulertzen neban egia iñoela, ni besteak baiña zirtzillago nintzala, eta etxe aretan eroaten z?n erlejiño osotasuna gorde ez ba neban, zelan uste ete neban gordeko nebala zeatz-meatzago beste batean, jauspide ta beatz-topo nintzala errian, gauza berriak jasoz. Guzti onek ez ekarstan buruko miñ.k ez zalapartarik, nik aren azal-itxura egin arren, iñostenari ez neutsula gorarik emoten esan ez egisten. Azken baten, agindu eustan monjen aurrean egiteko neure zuribidea; eta orrela egin neban.

14. Ni odol-otz eta baketsu nengoan ezker, Jaunak lagunduta, egin neban neure zuritzea, eta ez Aita Probin-

(4) Anjel Salazar.

tzialak ez an egozan monjak, zigortzekorik ez eben aurkitu; gero ari bakarrik berba egin neutson eta oso pozik gelditu zan; eta agindu eustan, aurrera jotean, uria baketzerakoan, joateko beragana baimen billa emongo eustala-ta; orduan uriak ekarren iskanbilla ikaragaria zan, oraintxe berton esango dodanez.

15. Andik egun bi edo irura, errejidoretatik, korrejidora bera eta kabilduko batzuk, eta danak batera esan eben ezelan be ezin leikela laga egiten ebiltzana egiten; erriari kalte aundia etorkiola, Sakramentu guztiz Santua kendu bear zala, eta ez ebela iñolaz be itxiko aurrera jarraitzen. Ordena guztiak batu ebezan, esan egiala bakotxak bere eritxia; etxc bakotxetik letradun bi izango ziran. Batzuk ixillik, beste batzuk gaitzesten. Azkenez, egiña desegin egiela bertatik erabagi eben. Santo Domingo'ren Ordenako Aurkeztuak (Bañez Aita) bakar-bakarrik, aurkakoa ba zan be, ez gero komentua-rena, beartsu zalako baiño, etzala adierazo eban orrela desegin bear zan gauzea, arduraz begiratu bear zala, desegitea erreza zala gero be, Gotzaifiaren gauzea zala au, edo-ta antzeko zerak, probetxu asko egin ebenak; asarre be asarre ziran arren, danak egozan asia etzala suntsitu bear zalakoan. Baietzean egozan azkenez, zerbitsu ona etorriko jakola Jaunari ortik, eta guztien artean be gitxi al ebela Jaunaren naia-aren aurka. Bakotxak bere eritxia erakusten eban, benetako ondo-naiez emon be; olan eurak ezetan be Jainkoa iraindu barik, niri sufridu eragiten eusten, eta beste pertsona batzuei, asko ezta be, egintza orren alde egozanak: jazarpen ez gitxi euki ebezan oncik.

16. Naste izugarria zan crrian, etzan beste ezer miiñcan, eta danak arbuiatu ta txartzat joten ninduen, Aita Probin-tzaliagana jo eta ni neure komentura bialtzeko eskatuz. Ez neukan miñik neurez esaten ebenagaitik, esan naiz ez esan, etxea botako ete ebenak bai kezka ekarstan. Onek min emostan, eta bardin lagun jatazan pertsonak izen ona galtzen ebela ikusteak, eta eurnc neke-lanak; nitaz iñoenak samin-

tasunik ez baiña poztasuna emon oi eustan. Eta federik ba neu, ez neuke aldaketarik izango, birtute baten zerbaitek uts-egitea asko da beste danak lotan jarteko, eta olantxe egon nintzan oso mindua egun bitan alkarregaz, diñodan errian egon gintzazanean; eta benetan nekatua nengoan egun baten Jaunak esan eustan: *Ez al dakizu altsu nazana*}, *zeren bildur zara*;, eta ziurtu eustan egiña etzala botako. Pozez gaiñezka geratu nintzan onegaz. Errege Kontseillura bialdu eben euren txostenaz; neurriak etorri ziran egin zanaren zeaztasunak eskatuz.

17. Eta ona emen auzi luze bat asita: kortera joan ziran uritik, eta monastegiaren pentzura joan bear izan eben, ez egoan dirurik, eta nik be ez nekian zer egin. Jaunak lagundu nindun, nire Aita Probintzialak ba agindu eustan iñoiz be ez izteko esku artean nerabillen egitekoa; au izan be birtutez zabala dozu, agirian lagundu ezta be, ez eban izan nai orren aurkakoa. Ez eustan baimenik emon, gauzea zetan gertzen zan jakin arte, ara etorteko. Ja:nkoaren mirabeok bakar-bakarrrik egozan, eta euren otoitzakaz, nik ara-ona ibilliaz baiño geiago egiten eben, ardura ta alegin naiko bear zan arren. Batzutan, dana falta zala zirudian; egun baten batez be, Probintziala etorri aurretik, Ama nagusiak ezer ez egiteko agindu eustanean, eta au dana bertanbeera iztea zan. Ni Jainkoagana joan nintzan, eta esan neutson: Jauna, etxe au ez da nirea, Zeugaitik egin da; orain berau aurrera eroateko iñor ez dagon ezkerro, burutu bei Zeure Aunditasunak. Bake-tsu ta pena barik geratu nintzan, neure orde z negoziu au aurrera eroateko mundu guztia ba neuka lez, eta ziurtasun betez jantzi ninduan onek.

18. Jainkoaren zerbitzari on bat, beti lagundu nindun apaiza (5), onbidean aurreratua ebillena, kortera urreratu zan auzia samurtzera; oso langillea zan. Gorago aitatu dodan zaldun santuak asko egian kasu onetan, asko be asko lagun-

(5) Gonzalo Aranda.

durik. Neke-lanak eta eraso aldiak ugari izan zituan, eta nik beti ta zer guztietan aitatatzat euki neban, eta gaur be olakotzat daukot. Lagun gintuzanetan Jaunak egiazko sua ipiñi oi eban eta bakotxak bere gauza lez artzen eban, orretan bizia ta izen ona ba loa legez, eta ez joian besterik euren ustez Jauna zerbitzea zana baiño. Argi ikusten zan Jainkoak lagundu egiten eutsola esan dodan Maisu eleizgizonari, niri be asko laguntzen eustanari; Gotzaiñak bere aldetik eratu zan batzorde nagusi baten sartu eban, eta au egoan danen kontra bakarrik, eta jokabide batzuk aitatuz areik poztuazteko naikoa ziranak; baiña oneitatik bat bera be etzan naiko izan areik gero, bizia emon bear izanda be, lengora ez biurtzeko. Diñodan Jainko zerb!tzaii au (6) izan zan monjar jantziak emon eta Sakramentu guztiz Santua ipiñi ebana, naiz-ta ortik esetsi ta aurka egiña izan. Eraso-aldi onek ia urte erdi iraun eban, igaro ziran neke-lan aundiak apur ta bizi kontatzea kize egingo litzakit.

19. Izu-laborri nengoan ni deabruak andratxo batzuen kontra ipinten ebana ikusiaz, eta zelan iruditzen jaken guztiai toki atarako kalte aundia zala amabi emakume bakarrik, eta ama nagusia, ez bait ziran geiago izango, aurka egozanai diñot, eta biziera estu-estukoak. Zala ori kalte edo-ta okerra, eurentzako zala, baiña tokiari kaltea ekarte ez egoala ondo, eta eurak kalterik asko aurkitzen ebezan, barru onez ezetza erakusteko. Azkenez ettorri ziran, errentaz izatekotan, onartuko leukela eta joiala aurrera, esatera. Ni guztiz akituta nengoan laguntzen ninduen guztien lana ikusiaz, neurea baiño geiago, eta etzala txarra izango neritxon, jentea baketu arte, errentea euki, eta gero itxi. Eta beste batzuetan, ezereza ta oso-eza nintzalako, uste neban bear bada Jaunak nai ebala, ori barik ezin bait genduan aurrera egin, eta jada itun onetan gengozan.

20. Au egitekoa zan gau aurrean otoitzean jardunik, Jaunak esan eustan, ez egiteko olakorik, errenta eukiten

Uli Gaspar Doza.

asten ba'giñan, gero ez euskuela izten itxiko, eta beste gauza batzuk. Gau aretan bertan agertu jatan Alkantara'ko Aita Pedro santua, aurretik illa zana; onek gaiñ geunkan aurkakoa ta eraso gogorra jakin ebanean, il aurretik idatzi eustan, marmar eta ezeztapen aundi artean be, poztuten zala errenta barik eroateaz, kontra egite ori monastegi ontan Jauna ondo be ondo zerbiduko zanaren ezaugarria zala-ta deabruak beronen kontra ainbat alegin egian ezkerro; eta ezelan be ez artzeko errentan. Eta bi edo iru kartan be orixe aolkatzen eustan, eta onela egin ba'nengian, neuk nai neban lez egingo zala dan-dana. Nik orduko il ondoren ikusi izan neban beste bi aldiz, eta eukan aintza bete-betea ikusi be; ori zala-ta, ez eustan bildurrik emon, asko be asko poztu baiño; beti agertzen bai zan gorputz aintzatuan, gurentasunez beterik, eta bene-benetako atsegiña artzen neban bera ikusiaz. Gogoan daukat lenengoz ikusi nebanean zer esan eustan, beste gauza batzuen artean, zelako zoriona eukan, eta sari ain aundia lortu eutsona egin eban penitentzia izan zala.

21. Lendik be uste dot onetzaz zerbait esanik daukodan ezkerro, ez diñot emen geiago, oraingoan estura geiago erakutsi eustala baiño; bakar-bakarrrik esan eustan ez artzeko errentarik, eta zergaitik ez neban jarraitu gura bere kontsejua, eta bertatik ostendu zan. Izuturik geratu nintzan ni, eta gero beste egun baten zaldunari esan neutson, edozer iragar-teko aregana joten bai neban, gauza onetan geien egiten ebana bera zan-ta, zer gertatzen zan, ez egiala ezelan be errenta-konturrik onartu, eta aurrera eroateko auzia. A ni baiño gogorrago egoan ontan, eta asko poztu zan; gero esan eustan, benetan gogo barik itz egiten ebala antolaketan.

22. Gero beste pertsona bat jagi zan, Jainkoaren mirabe ona zan emakumea, oso ardura onekoa; gauzea ondo joian ezkerro, jakitunen eskuetan izteko eskatzen eban. Emen naiko atsekabe ta aldakura izan zituan niri lagun etorkidazim batzuk onetan bai egozan, eta auxa izan zan deabruak ariklu

eban mataza, guztien artean eiote txarrenekoa. Zer guztietan lagundu eustan Jaunak, labur esanda, urte bian etxe au asi ta amaitu arte jazo zana egi-egiaz adierazo ezin daiteken arren. Azken erdi au ta lenengoa izan ziran nekezenak.

23. Uria pizkat bakera zanean, ba, esku-dantza ta ma'ña bikaiña Aita Aurkeztu Domekarrak (Ibañez'ek), lagun-tzen euskunak; au berton ez egoan arren, Jaunak ekarri eban on aundia egin euskun momentuan, eta itxura zanez Aren Aunditasunak onetarakoxe bakarrik ekarri ebalá esan leikean, berak esan eustan ba gero, ez eukala zetan etorri, egin-egi-ñean be jakin ta etorri baiño. Bear izan zan beste denporan egon zan. Atzera joanaz, andik eta emendik alegindu zan gura Aita Probintzialak baimena emon egistan ni etxe onetara beste batzukaz batera etorteko baimena, ia eziña zirudian epe laburrean, koruko errezua egin eta an egozanai berau erakusteko. Benetako poz-eguna izan zan niretako ona etorri giñana.

24. Komentuan sartu baiño leen eliz barne otoitzean nengoala, ain sorgortua, Kristo ikusi neban, maitasun berotzen artzen nindualarik eta, nik uste, koroi bat buruan jarten eustala, bere Amagaitik egin nebana zala-ta eskerrak emonez. Beste baten, guztiok koruan gengozala otoitzean, konpletak esanda gero guztiok artzen ginduzala zirudian. Nik ulertzen: zenbateraiñoko aintz-mailla gurena emongo eutsen Jaunak etxe onetakoai.

25. Ofizio egiten asirik, aundia izan zan erriak etxe onekin artzen asi zan eraspina. Monja geiago artu ziran, eta Jauna asi zan gure kontra geien jokatu ebenai eragiten, mesede ta limosna askogaz lagundu egiguen; eta olan onartzen eben leen ain gogor ezesten ebena, eta apurka apurka aldendu ziran auzitik; azkenez jada Jainkoaren egintza zala iñoen, ainbeste kontrakoz Aren Aunditasunak nai izan ebalako gauzeak aurrera egitea. Eta gaur ez diño iñok be cgin barik iztea errazoizkoa izango zanik; olan, alkarren leian,

limosnaz laguntzen dauskue, guk iñori eskatu ta eskean ibilli bage, Jaunak itxartu daroaz bialdu daiskuen, eta orrela gabiltz bear dogunak uts-egin barik, eta nik uste dot jaunagan olan izango dala beti. Gitxi diran lez, bear dabena ba-dagie, Aren Aunditasunak orain lez aurreantzean be ori egiteko grazia ba'damotse, ziur nrgo ez jakela faltako, ez dabela iñori nekerik emon bearrik izango, ez ari ta oni gogait eragin bearrik be, Jaunak izango bait dau, gaur arte legez, euren ar-dura.

26. Niretzat poztasun guztiz aundia da arima ain zabal eta griñarik ezakaz sartuta ikustea. Euren bizibidea da zelan aurrera egin Jainkoaren zerbitzuan. Bakartadea da euren gozagarria, eta lana jake euren Senarraganako maitasunean ixiotzen laguntzeko ez dan iñor ikustea, oso urrekoak izanda be. Eta etxe onetara ez dator iñor onetan diarduana ezik, ez ditu ba poztuten, ezta eurak be. Jainkoaz mintzatea da euren izketa, eta eurak ez dabe ulertzen ezta ulert-erazo.be izkuntza ori daukanak ezik. Karmengo Andra Mariaren Araudia goedetan dogu, eta au beterik nasaiune ta lazokeri bage, Aita Hugo, Santa Sabinako Kardenalak agindu ebanez, MCCXLVIII (1248) garren urtean urtean emona, Inozenzio IV'garrena Aita Santu zala, onen Aitasantutzako V'garren urtean.

27. Uste dot ondo igaroak izango dirala eroan diran neke-lan guztiak. Orain, laztasun pizkat ba daukan arren, aragirik ez bait da jaten egundo be bear-izan barik, eta zortzi illabeteko baraua, eta beste gauza batzuk, lenengo Auraudiak berak dakarrenez, gauza askotan oindiño aitzai gitxi egiten bai jake, eta beste zer batzuk be gordeten dabez, eta araudi au betetasun geiagoz, bearrezkoak iruditu jakuz, eta Jaunagan ditzarot asitakoa oso aurrera joan bear dauala; Aren Aunditasunak esan daustan lez.

28. Beste etxea, esan dodan serorak beragandu nai eba-na, Jaunak aldeztu izan dau, eta Alkala'n dago egiña, eta ez

eban kontrako eraso-aldi gitxi izan, neke-lan aundiak ikusi-rik. Ba-dakit an be erlejiñoa oso-osorik zaintzen dala, gure lenengo Araudi onek eskatzen dabenez. Eder bekio Jaunari bere aintza gorespenerako izatea, baita dakargun jantziko Andra Mariaren osperako be. Olantxe.

29. Uste dot zu, Aita ori, asarratuko zareala monasregi onetzaz luze idatzi dodalako, eta labur doa Jaunak onetan egin dabezan lan izugarri ta miragarriak zeatz-meatz edestuteko; zin-egiñez be onen testigantza emon leikeenak askotxo dira, eta erreguka eskatzen dautzut zuri, Aita (7), Jainko maitearren, emen idatzita daukazu guztia apurtu nai ba zeunke be, komentu oni dagokiona gorde daizula; eta ni ildakoan emon berau, arren, emen egon ziran aiztai, onek ba, nik uste, ona datozenak asko bizkor-aziko ditu Jainkoaren zerbitzari onak izatera, eta egindakoa jausi ez daiten alegindu aurrera joan dadin baiño, ni lango gauza ziztrin baten bitartez Aren Aunditasunak berau jasoteko zelako ardurea ipiñi eban ikusiaz. Eta Jauna ain bereziki, berau jasotean, aldeztu ta laguntzen agertu izan dan ezkerro, nire eritxiz kalte aundia egingo dau eta Jainkoak zigortuko Jaunak cmen asi dauan osotasuna arindu ta gaiztotzen asiko litzakena; Jaunak, egi-egiaz, eztau gitxi lagundu bertoko bizimodua leuna ta eroan-erreza izan dedin, argi kusten baita eroangarria dala, eme-eme ta ondo jasan daitekena, eta zelako bakea ta bizitasuna nabari dan bertan beti bizi izateko, euren Kristo senar maiteaz bakarrik gozatsu bizi nai dabenentzat atan be. Auxe da izan be nainoz opa izan bear dabena, eta bakarrik bakar Aregaz, amairu baiño geiago izan barik, auxe daukat ba jakiña, egoki dala, aren eta onen eritxi ez gitxi erkatu ta aztertuz, eta expe-rientziz ikusirik, emen daroagun espiritua eroaeko eta limosnaz eta eskabide barik bizi, ezin bait da geiago. Eta beti siñistu egiozue ardura ta lan askogaz eta pertsona askoren otoitzakaz obeagoa zanaren arduraz ibilli zanari eta emen gagozan urteotan daukagun poztasuna, atsegiña ta lan gitxia-

(7) Toledo'ko Gartzia Aita.

goa, eta leen geunkana baiño askoz osasun ohea, onek era-
kutsi dausku argi ta garbi, auxe konbeni jakula. Eta iñok
uste badau latza dala, bota begio errua euren espiriturik
ezari eta ez emen daroagun bizi-moldeari; ba-dira pertsona
batzuk guperak eta ain osasuntsu ez diranak, *eme-eme* bizi
nai dabenak: bioaz onakoak beste monastegi batera, eta or
salbatuko dira euren espirituari jarraituz.

XXXVII ATALA

Jaunak mesederen bat egin oi eutsoenan gelditzen jakozan ondorenak. — Onegaz batera dotriña on-ona dakar. — Au diño: zelan alegindu ta aunditzat euki leiken aintzazko mailla bat geiago lortzea. — Ezelako lan-neke ta naigabegaitik, betikoak diran onak ez dira itxi bear.

1. Gaitzari buruz esan eragiten jat piztasunen Jaunak egin daustazan mesedeai buruz baiño areago, eta larregi dira oraindik pertsona ain ezerezari egiñak izan dirala siñistuteko; baiña agindu daustan Jaunaren esana eta zuona (Aita Domingo Bañez eta Gartzia Toledo) egiteagaitik, Aren aintrarako esango ditut gauza batzuk. Aren Aunditasunari eskatzen dautsat arimaren baten onerako izan dedilla, Jaunak onako gauza ziztriña doaiez olan ornidu nai izan dauala ikusiz. Zer egingo ete benetako zerbitzari izan jakon bategaz? Guztiak bizkor eitezan olan Aren Aunditasunari poza emoten, bizitza onetan be eskualdi ain bikaiñak emoten dabezan ezkeru.

2. Lenengo ulertu bear da, Jainkoak arimeari egin oi dautsazan mesede oneitan geiago ta gitxiago dagoala aintza-auzian; ikuskari batzuetan, ba, batzuetan emon oi dauan aintza, atsegiña ta poza beste batzutan baiño geiago da, gozatze-maillan, bizitza ontan be, ni izuturik nago ain alde aundia oartuaz. Diferentzi aundia dagola dirudi Jainkoak emondako ikuskari edo-ta gaiñezkaldi batetik bestera, esan leike ba enien ezin leikela geiago opa izan, eta olan arimeak ez dau opa, ezta eskatu be atsegin eta poztasun geiago. Alan be, batzuk eta bestetzuk zeruan gozatzen daben diferentzia zein

aundia dan Jaunak ulert-azo daustanean, argi dakust emen be emotean ez dagoala neurririk, Jauna zerbidua danean, eta olantxe, nik ez neuke nai olakorik Aren Aunditasunari egin gura neuskion zerbitzuan, onetan neure bizitzea, indarrak eta osasuna erabilliz; ez, ez neuke neure erruz gozotasun geiagoren apurño bat be galdu nai. Onelaxe diñot: esango ba'liñoste zein nai dodan geiago, munduko neka-lan guztiakaz beronen azkeneraiño iraun eta gero aintz-maillatxo bat gorago igon, ala bape barik beeragoko aintza apur batera joan, nik guztiz gogo onez artuko neukez neke-lan guztiak Jainkoaren aunditasunak pizkat geiago ulertu ta gozatzearren; ondo ikusten bai dot zenbat eta geiago Jainkoa ulertu, geiago maitatu ta goersten dogula.

3. Ez difiot ez nintzakela pozik egongo, eta zeruan egonaz zoriontsu egon be, naiz-ta beerengo tokian izanik; infernuan olakoa eukanari, ba, naiko erruki egingo eutson Jaunak onetan, eta eder bekio Aran Aunditasunari ni ara joatea, nire pekatu aundiak kontuan artu bage. Auxe da diñodana: neure neke-min aundiz izanda be, al ba neu, eta Jaunak emongo ba leust grazia lan ugari egiteko, ez neuke neure erruz ezer galdu nai izango. Ni bai errukarri, neure makiñatxo bat erruz, dana galduta neukana!

4. Azpimarratu bear da baita, Jaunak egiten eustan ikuskari naiz iragarpen mesede baktxean, nire arimea irabazi aundiren batez geratzen zala, eta ikuskari batzuekin asko be askogaz. Kristo ikusetik josirik geratu jaran Aren edertasun arras itzala, eta gaur be orrelaxe daukat; onetarako bat naiko bait zan, eta zenbat geiago Jaunak mesede au sarri egiten daust eta! Probetxu aunditan gelditu nintzan, eta auxe zan: Akats ikaragarri bat neukan, kalte aundiak ekarri eustazana, eta auxe izan zan: pertsona batek naia eustala konturatzen asi eta txeratsu ba jatan arekin zaletu ta oroimena, aregan pentsatuz, bene-benetan loturik itxiko eustala etzan Jainkoa iraintzeko asmuz, baiña atsegin jatan bera ikustea eta beregan ikusten nebazan

gauza onetan pentsatzea. Kaltegarria zan niretzat, ari-me naiko galduta izten eustana. Jaunaren edertasuna ikusi nebanetik, ez nekusan iñor aldean eder zanik, ezta nire irudimena artegatu be; begiak pizkat arima barruan daukadan irudian jarri ezkerro, askatasun osoaz gelditu naz onetan, geroztik emen ikusten dodan guztia iguifia iruditzen jat Jaun onegan ikusten dodazan bikaintasun eta grazien ondoan. Ez dago jakiterik, ez erregalu antzik jainkozko ao arek esandako itz bakar bat entzutetik datorkidanik, eta zenbat geiago asko diranean! Eta nik ezintzat daukat, Jau-nak neure pekatuakaitik kentzen ezpa-daust oroimen au, bete al izango daustanik, Jaun onegaz gogoratzen une baten asi ezkerro, asko itxiko ez nauanik.

5. Autor-entzule bategaz jazo jatan, nik beti kutun bait ditut, eta asko nire arimearen ardurea dabenak, Jainkoaren ordezkotzat egi-egiaz artu oi dodazanez, uste dot, nire naia ara doala geienbat nainoz, eta nik ziurtasunaz jotkatzen neban legez, txairotasuna agertu oi neutsen. Eurak, Jainkoaren zerbitzari lotsakor lez, bildur ziran ez eitezan niri itsatsi erabat era eurak maite izatera ni lotu, naizta santuki, eta errukior lez agertu oi nintzen. Au zan eurai men egitera bearturik nengoanetik, orren aurretik ez bait neutsen olako maitasunik. Neure kolkorako nik barre egiten neban zein iruzurturik egozan ikusiz; neugan neukanez, ba, ez neban beti ain argi erakusten iñori lotzen ba nitzakon; baiña seguratzen nebazan, eta alkarrekin ar-emon geiago izanik, konturatzen ziran zenbat zor neutson Jau-nari, niri begira ekarrezan tuku ta susmoak lenengoetan izaten ziran beti. Jaun onen maitasun eta konfiantza askoz aundia sortu jatan a ikusirik, onegaz etenbako solasa neukalako. Argi nekusan Jainko zan arren, Gizon be ba-zala, giza-argalkeriakaz izutzen ez dana, gure izakera kupigarria ulertzen dauana, Berak barriztu eban lenengo pekatuagaitik jausketa askori lotua. Jauna dan arren, adiskide kz artu nei Bera, izan be nik uste ez da emen jauntzat daukaguzanen antzekoa, oneik ba euren aunditasun guztia jarten da-

be guzurrezko aginpideetan. Berba egiteko orduak egon bear eta izentatutako pertsona batzuk itz egiteko. Egiteko edo negozioren bat dakarren txiro edo beartsuren bat bada, itzulinguru, mesede ta gorabera geiago kostako jako edozer eskuratzeko. O, Erregeaz balitz! Emen ez da jente ezeukirik ez zaldun ez danik, zeintzuk diran aldekoenak itandutea baiño; eta ziur asko, ez dira izango mundua oinpean dauken pertsonak, oneik egiak esaten dakie-ta, ezeren bildur bage, ezta zetan euki be; ez dira korterako, an ez da esan bear ba ixildu baiño txarto deritxoena, olakorik ezta burura ekarri be, purrust egiñak izan ez daitezan.

6. O Errege aintzatsu ta errege guztien Jaun, zure erreinua zelan ez da zotzez armatua, ez bait dauko azkenik! Zelan ez da bear zuretzat irugarrenik! Zeure izakia begiratu soilki laster ikusten Zuk merezi dozula bakar-bakarrik Jaun deitzea, erakusten dozun Aunditasunaren araucraz; ez da bear jarraigo-joaterik ez jagolerik, Zu Errege zareala ezagutzeko, Emen errege bat bakarrik, txarto ezagutuko da berez, berak erregetzat ezagutua izan gogo izanik be; ez dautse siñistuko, ez bait dauko besteak ez daukenik; ikusi egin bear da zergaitik siñistuten daben. Orixegaitik guzurrezko aginpidedunok errazoi bat bear dabe, euki ezik, ba, ez leukiez olakotzat artuko; norberetik ez bait urteten itxuraz altsu izatea; beste batzuengandik etorri bearko jake aginpidea. O ene Jaun!, o ene Erreege!, nok lekiken orain Zuk daukazun aunditasuna itxuratzen! Ezifia da ez ikustea Nagusi ikaragarri zareala Zeure baitan, ikara sartzen dauala aunditasun ori begiratzeak; baiña arrigarriago da, ene Jauna, aunditasun orregaz batera zure apaltasuna begiratzea, eta ni lango ziztrin erakusten dautsazun maitasuna. Zugaz, nai dogun lez, edozer gauza ta auzi erabilli ta ebatzi geinke, zeure Aunditasuna ikusterakoan len-ikara ta bildurra galdu ondoren, lotuago geraturik Zu ez irainduteko asmotan; baiña ez, ene Jauna, zigorraren bildurrez, au ezerez baita Zu ez galtzeagaz erkatu ezkerro.

7. Ona emen ikuskari onen probetxuak, ariman izten dabezan beste askoren artean. Jainkoarena bada, dakarzan ondorenetatik ikusiko da, arimeak argia daukanean; sarri esan dodanez, bada, Jaunak gura dau illunpean egon dedin, argi au ikusi bage; beraz ez da arritzekoa bildur bada, nik lez, bere burua kaskar ikusten dauana. Orain baiño geiago ez, zortzi egunez egotea jazo bai jat, Jainkoari zor dau-tsanaz ez oar ez ezagutu, ez mesedeak gogora ekarri, arimea guzti sor eta gor, ez zertan ez zelan, nik dakit, ipiñia; ez pentsamentu txarretan, baifia onetarako be ain nengoan motel ta baldar, barre egiten neban neure ganora ezagaitik, eta atsegin jatan arima baten txatxartasuna ikustea arek eten barik jainkoaren eragiñik ez daukanean. Ondo dakus A barik ez dagoala egoera onetan, ez baita batzutan dauka-zala esan dodan neke-lor aundiak lakoa; baiña egurra ipi-ñi ta bere aldetik al dauantxo ori egiñik be, ez dau surik egiten Jainkoaren maitasunak. Aren erruki aundia da, kea ikustea, osorik ilda ez dagoala jakiteko; barrio dator Jau-na su emotera, eta orduan arimeak, burua ausi arren puzka ta puzka eta egurrak atonduten, dana geiago ito besterik, itxuaz, ez dau egiten. Onena da, nire eritxiz, osorik amore emon eta ezagutu bakarrik ezin dauala ezertxo be aurrera atera, eta beste zer batzuetan pentsamentuakaz dantzatu, esan dodanez, irabazi geiagoko gauzetan; bear bada Jaunak kentzen dautso, ba, otoitza, areitan arazotu ta experientziz ezagutu daian bercz cgin al dauan ezereza.

8. Egia da gaur ni Jaunaz gozartu nazana, eta Aren aunditasunari uluka joan nakiola, ausarditsu, au esanaz: Ze-lan, ene Jainko, ez dala naiko ni bizitza kaskar onetan eu-kitea, eta Zeuri dautzudan maitasunarren pozik daroat da-na, eta bizi gura dot Zu goratzeko atzerabide jatan tokian, jan, lo egin, arazoak eroan, pertsona guztiekaz artu-emona euki, ta oro eroango dot Zeure maitasunarren, ondo daki-zu, ba, ene Jaun orrek, oiñaze ta neke-min ikaragarria ja-tala, eta Zeugaz atscgiña eukiteko geratzen jatazan une la-burrak be, gorde egiten ete daustazuz? Zelan bat dator au

Zure errukiaz? Zelan jasan al dagike au daustazun maitasunak? Nik uste dot, Jauna, daikena balitz, ni Zugandik ezkuta, Zu nigandik lez, daustazula uste dodan eta siñisten, ez zeunkela sufriduko; baiña Zu neugaz zagoz, eta beti ikusten nozu. Eziña da au eroatea, ene Jauna; begira eizu, arren deskatzut, bidebagea ta iraiña egiten jako ainbeste maite zaituanari.

9. Au eta beste gauza batzuk jazo jat esatea, ikusiaz batetik bat, merezi nebanarentzat, leku zein leuna neukan infernuan. Baiña batzuetan zorakeriak ekarri daroadaz sentitzen ez dodan maitasunean, baita nire garunak dakarren beste kexa guztietan be, eta Jaunak dana sufritzen. Bedeinkatua izan bedi Errege ain aundia! Onak lelokeriakaz urreratu ba'giña lurreko erregeengana! Ez naz arritzen erregeari berba egiten be ausartzen ez bada, arrazoizkoa da ixan be bildurra ari ta aren ondoko aundiki buruzagiai; gaur munduak gura leukenez, luzeagoa izan bear leuke bizitzeak azikera onak eskatzen dabezan puntu, barri eta moduak ika" si ta usuario egiteko, orren zatiño bat erabilli bear ba dabe Jainkoa zerbiduteko. Nik aitaren egin oi dot zer gatatzen dan ikusiaz. Au da istillua nik orduan ez nekian zelan bizi, emen (san Josep komentuan) sartu nintzanean; ixeka ta irritzat ez da artzen merezi baifio adeitsuago pertsona bategaz artu-emonen ba'daukazu, egi-egiaz lotsa gorritzat baifio, eta au zeure asmoaren ordaiña erakutsiz kitutu oi da, difiodan lez, deskuidurik egon bada. Eta olan be, Jainkoak nai bei, siñistu daizuen.

10. Barriro diñot, egia da, nik ez nekian zelan bizi, batek bere burua ikusten bai dau txiro ta arimaz nekaria. Agintzen dautsoela ikusten dau Jainkoagan erabilli daiala beti pentsamentua, eta bear-bearrezkoa dala olan egitea, arristu ta galzori askotatik alde egiteko. Beste ertz batetik ikusten dau munduko puntuetatik bat bera be ezin leikela ausi, bere dedua puntu oneitan ipiñita daukenak zirikarika-azoak izan ez daitezkan. Nekaturik nenbillen eta iñoiz be

ez neban naiko egiten neurc burua garbitu nairik, alegiñak ikasi ta egin arren, ezin nebalako, onetan uts asko egin bairik, eta au munduan, esan dot, etzan uts txikia. Eta egia da, Erlejiñotan, euki bear geunken onetan atxaki eda zuribidea. Ez, ao batez diñoe komentuak izan bear leukiela ikastegi ta aziera onaren jauregi. Nik, egia esateko, ezin dot au aitu. Iñoiz uste izan dot, alako santuren batek esan ete eban jauregi izan bear ebaia zeruko jauregitar izan nai ebenai erakusteko, eta bestera, erdikoz bestetara ulertu izan dabe; Jainkoa atsegindu ta mundua gorrotatuz bizi bear dauanak ardura au ekartea, ain arin aldatzen diran gauzetan, munduan bizi diranai poza emotearren, ez dakit zelan daitekezan. Bein baten ikastekoak ba litzaz, tira; baiña karta tituluetarako be ikastegiak bear dira, zelan antolatu irakasten dautsuezanak, esan oi danez; orain, ba, papera itxi oi da alde batetik zein bestetik, eta leen yaukal ipinten jakonari, orain argitsu ipiñi bear jako.

11. Nik ez dakit geratuko dan au, oraindik ez daukadaz, ba, berrogetamar urte, eta bizi izan nazeño, ainbat aldakuntza ikusi ditut, ez, ez dakit bizi izaten. Eta orain jaio ta urte askotan biziko diranak, zer egingo ete? Egi-egiaz nik erruki dautset eleiz-jenteari, asmo on batzukaitik munduan egotera bearturik dagozanai, izugarria bai da onetan daroen gurutzea. Danak alkartu ta ezjakin biurtuko ba litzaz, eta zientzi oneitan a'akotzak eukiak izan, lan eta lor askotatik arinduak izango litzatekez.

12. Baiña, zelako kokolokerietan sartu nazan! Jainkoaren aunditasunetan nenbillena, munduko txatxarkerietara jatxi naz, izlari. Jaunak egin daust, ba, mundua izteko mesedea, urten nai dot bcrtatik; aton daitezala euren artean zirtzilkeriok ain laiatsu gorde nai dabezanak. Eder bekio Jaunari bizitzaji, aldaketa bakoan, ez daigula eurak kitutu bearrik izan, Olantxe.

XXXVIII ATALA

Emen azaltzen ditu Jaunak. egin eutsozan mesede aundi batzuk, bai zeruko ezkutu batzuk erakutsiz, eta baila Aren Aunditasunak euki ta ikustea gura izan ebazan ikuskari eder eta iragarpen bikaiñak. — Ondorio lez geratzen jakozan eragiñak. — Añmearentzat probetxugarñ.

1. Gau batean ondo gaixorik nengoala otoitz egitea itxi nai izan neban; errosario bat artu neban aoz zerbait errezetako, adimena batzeko alegiñik egiteke, gorputzez barkaturik aurkitzen nintzan arren otoiztegi baten. Jaunaren gogoko ez diranean ez dabe askorik balio ardura oneik. Olan guztiz gitxi egon nintzan, eta bertatik espirituzki sorgortasuna etorri jatan eraso itzalez nunbait eta ezin izan neutson gogor egin. Zeruan sarturik nengoala iruditzen jatan, eta an lenengo ikusi nebazan pertsonak neure aita ta ama ziran, eta gauza aundiak «Agur Maria» esateko bear dan besteko denpora laburrean, eta ni neuretik urtena geratu nintzan, mesede aundiegia zala uste izanik. Denpora laburreko au izan daiteke geitxoago izatea, aldi labur laburrekao egiten jatzu-ta. Lilluraren bat ete zanekoa neban; ez neritxon, baiña, eta ez nekian zer egin, autor-entzuleagana onekin joateko lotsa aunditan nengoan-eta; eta apaltasunarren, neure ustez, neure lepotik barre egin eta au edo esango eustalakoa baiño: Ona emen Paul deun barria, zeruko gauzak ikusteko, edo-ta San Jeronimo bat! Eta santu doatsu oneik onako gauzak euki ebezalako, bildur aundiago sortzen jatan, eta negar nengian, ezetarako ganorarik ez nerioiala uste neban-eta. Atzenez, asko sentiduta, autor-entzulearengana joan nintzan, ezer ixiltzen ez bai nintzan iñoiz

ausartzen, ori esatca neketsu cgiten jalala b:, atzipetua izango ete nintzaren bildur nintzalako. Arek orren naigabetan ikusi ninduanean, asko poztazo nindun, naigabea kentzeko ainbat gauza on csanik.

2. Aldia geiago ibilliz, jazo jat eta jazoten jat au batzutan; ba-joian Jauna gero ta ezkutu aundiagoak erakutsiaz, eta arimeak aurrean jarten jakona baiño geiago ikusi nai izateak ez dauka biderik, ezin daiteke izan bc, eta olan ez neban ikusten Jaunak bakotxean erakustea nai eustana ezik. Ainbeste zan, baiña, gitxi bat zan naikoa ni arriturik geratzeko; onurakorra zan arimearentzat, angoak ederratsi ta bizitza ontakoak gkxitzat joteko. Adierazo al nai neuke nik ulertzen nebanetik gitxienaren zerbait; eta zelan izan daiteken ausnartzen asiaz, ikusten dot ezifia jatala; zelako alde dagoan ikusiz, ba, ikusten dogun emengo argiaren eta an agertzen danaren artean, biak oro argi izanik be, ez dago konparaketarik, eguzkiaren argitasunak berak lausotua emoten. Azkenik, jrudimenak, zorrotza zala be, ez dau zelan izan leiteken argi a margoztu edo-ta itzalak aterateko indarririk, czta beste gauzak be, adierazo ezin daiteken atsegin ain betean Jaunak ulertzen emon eustazanak; zentzun guztiak dagoz gozotasun bete-betea, esan-eziña dan moduan, eta olan obe izango ixillean laga.

3. Orrela egon jatan bein Jauna ordu bate baiño geiago gauza arrigarriak erakusten, neure albotik, kendu barik. Au esan eustan: *Begira, alaba, zer galtzen daben nire aurka dabiltzanak; eurai csaiezu au.* Ai, ene Jaun, eta zein gitxi balio dautsen nire esana euren egiñak itsu daukezanai, Zeuk, Jaun Guren orrek argirik emon ezik; Zuk emon dautsezun pertsona batzuk baliatu dira, bai, zure aunditasunak jakiñaz; baiña ikusten dabez, ene Jaun, gauza ain ziztrin eta kaskarrean erakutsiak, nik uste iñok be ez daustala siñesten. Onetsia bedi zure izena, eta errukia, neure ariman beintzat obero emote nabaria oartu bai dot. Arek gero, antxe egon nai leuke beti, bizitzara biurtu barik,

emengo guztiak itxi eustan destaiña aundia izan bait zan. Satsa neritxon, eta argi dakust nik orretan geldi-azten ga-reanok zein beetik egaz dagigun.

4. Aitatu dodan andreaz nengoanean, gertatu jatan bein, ni biotz-miñez aurkiturik (esan dodanez, nik biotz sendoa euki dot, orain czpada be), ma'te-egintza zalea za" lako, urrezko txingi ta arri-pitxiak, balio aundikaok, atera eustazan, asko ederresten eben diamantezko bat, bereziki. Arek uste eban poza ekarriko eustela; ni, alan be, irribarrez nengoan neure barruan eta erruki ta min emonik, giza-semeak ederresten dabena ikusiz, eta Jaunak gureztat gordeta daukana gogora ekarriz; au nekarren buruan: eziña litzakidala, nik neure artean alegiñak eginda be, gauza areik zeozertzat eukitea, Jaunak kentzen ezpa-eustan beste batzuen gomutakia. Au jaun izate aundia da arimearentzat, aundia benetan, eta ez dot uste berau ulertuko dauanik, daukanak izan ezik; norbere izatetik askatzea bai da, geure neke-lan barik. Jainkoak dagi dana; egiok Aren Aundita-sunak erakusten ditu, ba, geugan tinko josita, argi ikusten dala, guk ezin lortu al izango genduzala alan eta denpora ain laburrean.

5. Baita geratu jatan eriotzari bildurrik eza, edo gixia, leen nik bildur aundia bai neutson beti; orain gauza erreza iruditen jat Jainkoaren zerbitzari danarentzat, arimea unetxo baten aske ikusten da baitegi ontatik eta atsedenean jarria. Jainkoak espiritua eroate au ta gauza ain bikaiñak erakustea onetariko zentzun-galtzeetan, niri iruditzen jat antz naikoa daukala arima bat gorputzetik urteteaz, lipar baten ikusten bai da on au bere osotasun betean. Laga daiguzan nrten-zarrako oiñazeak, ez jake kasu aundirik egin bear eta. Jainkoa benetan maite izan ebenak eta bizitza ontako gauzai agur eginda legokezanak, askoz leun-eztiago ilten bide dira.

6. Baita uste dot probetxu askokoa izan jatala gure egiazko lurraldea ezagutzeko, eta emen erromes gareala ikus-

teko, eta ortarako gauza ederra an zer dagoan eta nun biziko garean jakitea. Norbait, ba, bizitzetaz bizi izatera ba doa lurralde batera lagunlasun aundia izango jakoz guztiz atsedentso egongo dan lurra aurretik ikusita arako bidea egitea, eta erabat zerutar gauzak gogoan irauli ta gure autua angotz izan dedin, errezago egin oi da. Onek irabazi galanta dakarsku; zerura begiratzeak bakarrik batzen dau arimea, au ba, Jaunak an dagoen zerbait erakutsi nai izan dautson ezkerero, pentsakor gernalzen jatzu ara begira; eta batzuetan gertatzen jat lagun dodazanak eta poza emoten daustanak eta an bizi dirala dakidanak, eta egi-egiaz bizi diranak, eta emen bizi diranak, baiña ondo illik, mundu osoak dot ez daustala lagun egiten, zauskada areik daukadazanean batez he.

7. Ames iruditzen jat ikusten doclan guztia, eta ixeka, soin-begiakaz ikusi ezket.ñño; jadanik arimako begiakaz ikusi izan dodana, orixe da arimeak gura dauana, eta au urrun ikusten dana da-ta, auxe da iltea. Azken baten, Jaunak olako ikuskariak emoten dautsazanari, mesede aundi-aundia dagitso, neurri zabalean laguntzen dautsolako, baita gurutze astuna eroaten be, ezek ez bait dau naikitzen, oro iguingarri jako-ta. Eta Jaunak noizik-bein itxi ezik ortaz aaztuten, gogoratzeraz itzulita be, ez dakit zelan bizi izango litzaken. Bedeinkatua izan bedi beti ta beti. Eder bekio Aran Aunditasunari, bere Semeak nigaitik ixuri eban odolagaitik, on ain aundietaz zerbait ulertu ta eurotaz zelanbait gozatzen asi nazan ezkerero, bere erruz guztia ga'du eban Luzifer'i lez ez daidala gerta. Ez, zareana zarealako, ez begi olakorik nai izan, batzutan ez bait dot orren bildur gitxi; naiz eta beste aldetik, ta geienetan, Jainkoarcn errukiak ziurtasuna emon, ainbat pekatutik atera nauan ezkerero, ba, ez nau bere eskutik laga nai izango, galdu nadin. ALixe eskatzen dautsot nik zure Aunditasunari beli eskatu daizudan.

8. Esandako mesedeak ez dira, alan be, nik uste, orain esango dodan au baizen anndiak, ari askogaitik eta bcrak itxi eustazan gurari biziengaitik, eta arimea sendoturik oso;

ain aundia bai da gauza bakotxa berez begiratu ezkerro, ez dago zegaz bardiñean jarririk be.

9. Egun baten, Espiritu Santuaren jai bezperan, meza-tan egon ondoren, leku ondo bakar batera joan nintzan, nik sarri errezau oi neban lekura, eta *Carlujano* batean (1) jai au irakurten asi nintzan; eta asibarriak eta aurrera doazanak eta oso-beteak, Espiritu Santua eurekaz dagocla jakiteko ezaugarriak irakurriaz, iru egoera oneik irakurririk, begitandu jatan Jainkoaren ontasunez, nik ulertu nengianez, nigaz be ba-egoala bera goraltzen nebala; eta gogora ekarriz beste bein irakurtaldi bardiña egiñik, orduan ondo ikusten ba neban nik guzti aren faltan aurkitzen nintzala, argi nekusana zala, orain barriz bestera ikusten nebala; olan ezagutu neban Jau-nak egin eustan mesede aundia izan zala. Olantxe ausnartzen asi nintzan zelako tokia neukan infernuan neure txarkeria-kaitik, eta goralden aundiak eskintzen neutsozan Jainkoari, ez ebalu uste neban ba ezagutzen nire arimea aldatuta eku-sanez. Au buruan irauliaz nenbillela, barru-zauskada aundi batek jo aldatuta ekusanez. Au buruan irauliaz nenbillela, barru-zauskada aundi batek jo nindun, zergaitik zan nik ez nekiala; arimeak gorputzetik urten naiez bezela zan, ba-rruak ezin eban artu, ezta ainbat on gozatzerik itxaron be. Barne-bultzada bizi au, eroan eziña zanez, eta, neure eritxiz, besteetan langoa etzana, ez nekian zetan zan arimea, ez zer nai eban, ain iraulia ta bestetua bai egoan. Urreratu nin-tzan jarlekuan, jarririk be egoteko ez bait nintzan gauza, berezko indarrak uts egiñik guztiz.

10. Onetan nengoala, uso bat ikusten dot neure buru gaiñean, emengoen antzik ez eukana, ez bait eukan emen-goak lako lumarik, dizdiz bizia egozten eben maxkorño ba-tzuen egoak baiño; aundia zan, usoa baiño aundiago. Egoa-

(1) Sajonia'ko Ludulfo'k idatzi eta Cisneros kardemalaren denporan Ambrosio Montesinos'ek paztelerartua. Kristoren Bi-zitz.ea c'a.

kaz egiten eban zarata entzuten nebala, iruditu jatan. Egoai eraginka egongo zan «Abemari» baten lez. Arimea orduko egoera bitxian, beretik urtenda berea galduaz, ikuspegitik galdu eban. Baketu jatan espiritua arrotz ain onegaz, mesede ain arrigarriak ba, nik uste, artegatu ta izutua itxi eban, itxuraz; eta gozotasunean sartu zanekeoxe joan jakon bildurikara, atsedeen eztiak aren lekua artu ta gaiñezkaldian murgildurik.

11. Itzala izan zan gaiñezkaldi onen aintza. Pazko-aldi geienean guztiz ergel ta momorrotua ibilli bai nintzan, ez nekian zer egin neure buruaz, ezta zelan atontzen zan nire barruan doai ta mesede ain aund akaz. Esan oi danez, ez neban ezer entzuten, ez ikusten, barruko gozoaren gozoz. Egun aretatik ikusi neban Jainkoaganako maitasun gartsuagoan aurkitzen nintzala, asko be geiago obero egiñaz, eta birtute arloan be sendoagotua. Izan bedi onetsia ta goratua beti-betikoz. Olantxe.

12. Beste bein, lengo usoa bera ikusi neban Santo Domingo'ren Ordenako Aita baten buru gaiñean, baiña erraiñuak eta egoen dirdira begitandu jatan asko geiago zabalazten zirala. Aitzen emon jatan, Ordena orretako semeak arima ugari ekarri bear ebezala Jainkoagana.

13. Beste baten Andra Maria ikusi neban Ordena ontako Aurkeztuari (Aita Bañez'zi), batzutan aitatuta daukanari, kapa zuri-zuri bat ipinten. Au esan eustan: etxe au egiten ein eustan mesede ta laguntzagaitik emoten ei eutson kapa zuria, aurrerantzean bere arimea garbi zaintzen lagunduko eutsonaren ezaugarri lez, eta etzala pekatu astunean jausiko. Nik ziurtzat daukat olantxe izan zala, andik urte gitxira il zan, eta aren eriotza ta bizi izan zana, bizia ainbat penitentziz betea ta eriotza ain santua, guk ulertu daikegunez, ezin dogu pitsik 'be ezbaian ipiñi. Aren iltamuan egon zan praille batek esan eustan azken arnasa emon aurretik, esan eutsola, Santo Tomas egoala beragaz. Poz-

pozik il zan eta erbeste au itxi gurata. Gero agertu izan jat noizik-bein aintza bete-betean, gauza batzuk esanik. Otoitz askokoa izan zan, eta il zanean, aul egoala-ta itxi nai izanik be, ezin eban itxi, sorgortasun ugari eukazalako. II aurretxoan idatzi eustan, ze bide eukiko ete eban esanaz, mezea esan ostean, ba, luzaro egon oi zan gaiñezkaldian, itxura egin eta gorde nairik. Jankioak emon eutsan azkenez bizitza osoan egin eutson zerbitzuaren saria.

14. Iñoiz aipu egin dodan Jesus'en Lagundiko Nagusiari buruz Jaunak egiten eutsozan mesede aundi batzuk ikusi izan dodaz, ez luzetzarren emen jarten ez dodazanak. Egiteko latz bat izan eban bein, aurrean erabillia eta oso atsekabetua izan zana. Egun baten ni mezea entzuten nengoala, Kristo ikusi neban gurutzean Ostia jasotzean; poztu zedin berba batzuk esateko eskatu eustan, eta beste gauza batzuk, etorteko eukona jakin eg'an, beragaitik sufridu ebana begi aurrean ipiñiz, bera be gaiñ etorkona eroateko gertatu zedin. Onek poztu ta bizkortu eban oso-osoan, eta guztia jazo izan da gero Jaunak esan eustan lez.

15. Aita onen Ordenakoetatik, au da, Jesus'en Lagundietakoetatik, Ordena guztia ikusi dot gauza aunditan: batzuetan zeruan ikusi ditut ikur zuriak eskuetan dabezala eta diñodanez, euren beste gauza batzuk ikusi dodaz miresgarriak, eta origaitik Ordena au niretzat begiramen itzalekoa da; artu-emon betea izan dot eurakaz, eta euron bizi-moldea, dakustanez, Jaunak euroetaz aitzen emon daustanaz bat datorrena da.

16. Gau baten otoitzean nengoala Jauna asi jatan itz batzuk esaten, eurakaz gogora ekarstala zein dongea izan zan nire bizitza, nastu ta naigabetu egiten ninduen; ain zorrotz ez doazan arren, birrindu ta izpi eginda izten zaitue penaz eta sentipenez, eta benetako probetxua atera oi da onetatik, onetariko berba batek guk geure mixeria ezagutzeko egun askotan darabilguzan askok baiño geiago; bera-

rekin bai dakar egi bat tinko itsatsia, guk ukatu ezin gein-kena. Aurrean ipiñi eustazan euki nebazan naiak ainbeste uskeriz josiak, eta esan eustan zer aunditzat euki nengiala Beragan naia ipiñi nai izatea, nirea adibidez ain txarto, Berak lagata, txautua izan zalarik, Beste batzuetan esan eustan gogora nendilla ooretzat neukala, itxuraz, beraren aurka joatea. Beste batzuetan, gogora ekarteko zenbat zor neutson; nik kolpe aundiagoa emoten neutsanean, Bera mesedeak egi-ten neukala. Akats batzuk ba'neukazan, ez dira gitxi be, Aren Aunditasunak ulert-erazten daustazunak dira, eta onek austen, eta askotxo daukadazan lez, sarri nago atsekabetan. Iñoiz jazo jatan autorleak agiraka egin eta, otoitzean poztu nairik, antxe aurkitzea benetako zentzaldia.

17. Esaten nebanera itzuliz, ba, Jaunak zelan ekarri eustan neure bizitza kaskarra, negar-malkoak iraulika, nik garai atan, neure eritxiz, ezer egin ez nebalako, pentsatzen asi nintzan egin nai ete eusten mesederen bat. Geienetan jazoten jatana da, izan, Jaunagandik mesede bereziren bat artzen dodanean, neuk neure burua austuta euki oi dot; ikusi daidan aurki argiago oneik artzeko zein lekutik kanpo nengoan ni, Jaunak egin bear dauala pentsaturik. Denpora gitxi dala, arrapaka artua izan zan nire arimea, ia gorputzetik at nengoala oso-oso uste izanik; ez dau uste beintzat bertan bizi danik. Egundo ikusi neban baifio aintza aundiagotan ikusi neban Kristoren Gizatasun guztiz santua. Barne-ikuste miragarri ta argiz Aitaren galtzarrean sarturik egoala, iruditu jatan. Nik ez neuke au zelan dan adierazten jakingo, ikusi barik, ba, Jainkotasun aretan nengoala uste neban. Egi-egiaz zukurrutza sartuta, uxu geratu nintzan egun batzuetarako, neure senera biurtu eziñik; eta beti uste neban Jainkoaren semearen gurentasun a aurrean nenkarrela, lenengotan lez ezpa-zan be. Ondo nekian nik au, tinko josita geratzen bait da irudimenean, eta beingokoa izanda be, labur eta arin noski, ezin daiteke gaiñetik kendu; poza ekarri daroa, eta baita probeixua be.

18. Ikuskari auxe berau euki izan dot beste iru bider. Auxe da nik uste, Jaunak niri ikustez, ikus daidan egindako mesedeetatik garaiena, eta beragaz onura aundiak dakazana. Arimea benetan garbitu egiten dauala dirudi, kementa kendu oi dautso ia guztiz gure zentzunkortasun oni. Sugar aundi bat da, bizitzako gurari guztiak kiskali ta ezereztan daroazana; ni ba, aintza Jainkoari, uskerietan ez neukazalako, ondo agertu jatan emen zelan zan oro uskeri, eta zein ezezezak, eta zein utsalak diran emengo nagusitza guztiak; eta irakaskintza bikaiña da gurariak egi utsean jarteko. Irarrita gelditzen da nik zelan dan adierazo ezingo dodan mendetasun bat, alan be ezta emen lortu geinkenaren antzekoa, bes-telakoa baiño. Izaturik izten dau arimea oso, zelan ausartu zan, ezin bait da iñor ausartu, Aunditasun ain aundi-aundiari irain egiten.

19. Batzutan esan izango nebazan ikuskarien ondoren oneik eta beste gauza batzuk, baiña baita esan dot leen be oneitan probetxu geiago eta gitxiago ateraten dala; onena oso aundia geratzen da. Jaunartzera niñoianean eta ikusi neban Aunditasun aundi-aundi a gogora etorten jata-nean, eta Sakramentu guztiz santuan egoana za'a eta Jaunak berak nai eban nik sarri Ostian Bera ikustea, uleak zuritu egiten jatazan, eta oso eratxirik geratzen nintzan. Oi, ene Jaun! Baiña Zuk zeure gurentasuna estalduko ezpa-zeunke, nor ausartuko litzateke ainbat bide, ain gauza loi ta kaskarra ain Aunditasun gurenaz alkartzen? Onetsia izan zaitez, Jauna. Gora zagiezala aingeruak eta izaki guztiak, olan neurtzen bai dozuz gauzak geure auleriaz, mesede ain aundiakaz atsegin arturik, zure al izate aundiak bildurtu ez gagizan, efa jente makal ta doakabe lez gozartze ortatik atzeratu ez gaitzezan.

20. Jazo leikegu lugin edo nekazari bati jazo jakona, eta au egia da, olantxe gertatu zan eta. Altxor bat aurkitu eban, eta bere gogoan sartzen zana baiño aundiago zalako, bere eskuetan eukala ikusirik, atsekabe bizia emon eutsan,

eta apurka apurka il egin zan naigabe aundiz, altxor aregaz zer egin ez ekielako. Dana batera aurkitu ez ba leu, apur apurka emon eta bera onegaz bizi, ezeuki izanda baiño pozago bizi izango zan, eta etzan ilgo.

21. O ezeukien aberastasuna, eta arrigarriro bai daki-zula arimak janaritzen, eta aberastasun ain aundiak ikusi bage, apurka apurka eurai erakutsi azorik! Nik aunditasun ain aundia Ostia dan baizen gauza txikian estalduta ikusten dodanean, niri gero einen jakituri aun aundia miretsi eragiten daust, eta ez dakit Jaunak zelan emoten daustan kemena ta adorea Beragana eltzeko; Berak, mesede ain aundiak egin eta egiten dabezanak, emongo ez ba leust, eziña izango litzakit eurak gordetea eta otsegin barik iztea gauza ain arrigarriak. Zer sentiduko dau orduan ni lako errukarri batek, ainbeste loi iguingarriz beteak, eta Jainkoaren bildur gitxigaz bere bizitza urtu dauanak, zelan urreratu daike Jaun ain aundiagana, nire arimeak. Bera ikustea nai izatean? Zelan alkartu aoa, Jaun beraren aurka ainbat berba esan dituna, gorputz txit aintzatsu, garbi ta maiteaz? Samintasun aundiagoa emoten dau, eta arimea naigabetu, zerbidu ez daua-lako, ain ederra dan arpegi arek agertzen dauan maitasunak, samur eta ondo-naiez beteak, Beregan ikusten dauan aunditasunak ipiñi daroan bildurrak baiño. Baiña, zer sentidu neinkean nik au birritan ikusi neban onek? Zer esango dot?

22. Ziur, ene Jaun eta ene aintza, esalekotan naz, zelan edo alan, nire arimeak sentidu i'zan dabezan naigabe aundi oneitan, zei--edo-zer burutu tiotala zure mirabetzan. Ai, ez bait dakit zer difiodan!, ia-ia neu mintzatu barik, berez lez idazten dot au! Naasia nago, ba, ta neugandik urtena, gauza oneik gomutara ekarterakoan. Ondo esango neban, sentimentu au neugandik ba letor, zerbait egin nebala Zeugaitik, ene Jauna; baifia, Zeuk sort-azo ezik ezin daikegun lez pentsa-inentu onik, ez daukazu zerez niri eskerrak emonik; ni nozu, Jauna, zorduna ta Zu iraindua.

23. Bein jaunartzera joanaz, arimearen begiakaz (irudi-menez) deabru bi ikusi nebazan, gorputzeko begiakaz baiño argiago, itxura nazkagarrian oso. Begitandu jatanez, arein adarrak eleiz-gizon gaixoaren eztarria inguratzen eben; ene Jauna, barriz, esanda daukadan gurentasunean egoan, aren eskuetan, niri emotera joian Osti santuan, iraintzera joiazan esku areitan ain zuzen, arima a pekatu astunean aurkitzen zala aitzen emon bai jatan. Zer izango, ene Jaun, irudi ain gorrotogarri ta itsusi artean Zure edertasuna ikustea? Eurak ikaraz zur ta lur egiñik egozan Zure aurrean; pozik iges egingo eben andik, Zuk itxi ba zeuntse. Naas-maas durduri itzala sartu eustan onek; eta ez dakit zelan artu al izan neban gure Jauna; izu-ikara aunditan geratu nintzan, eta konturatu, a Jainkoaren ikuskaria izan balitz, Aren Aunditasunak ez ebalta itxiko arima aretan egoan gaitza nik ikusi nengianik. Jaunak berak esan eustan otoitz egiteko arima aren alderako, niri begien aurrean jarri eustala sagarako berbak zelako indarra dauken ulertu nengian, eta Jainkoak ez daukala an agotea izten itzok esaten dabezan opariza gaiztoa izanda be, baita ikusi nengian orrez gaiñ bere ondo-nai zabal, zelan jarten dan bere arerioaren esku areitan, eta dana neure eta guztien onerako. Argi ikusi neban emen eleiz-gizonak besteak baiño obeak izan bearrean dagozala, eta gauza gogorra dala Sakramentu txit Santu au zital ta gaizki artzea, eta zein jaun dan deabrua pekatu larrian aurkitzen dan arimearena. Probetxu aundia egin eustan niri onek, zenbat zor neutson Jainkoari jakitun jarten ninduala. Beti-betikoz bedeinkatua izan bedi.

24. Beste baten, beste gauza bat jazo jatan edu orretan, oso bildurturik laga ninduana. Toki batean nengoan, eta emen il bait zan alako pertsona bat, jakin nebanez, urteetan txarto bizi izan zana. Bi ziran gaitz bardiñekoak, eta gauza batzuetan damuturik ete egoan. II zan autortu barik, baiña alan eta guzti be nik uste neban etzala betiko galduko. Aren gorpua il-miesaz jazten ziarduela, deabru asko ikusi nebazan gorpu a artu ta beragaz jolasean ebiltzala uste nik,

epai-auzia be egin eutsoen, niri sarrako ta zurtaldi galanta sartu eustana; ortz eta gapirio aundiakaz batetik bestera ekarri ta eroan. Obira eroiela ikusi nebala uste dot enparauai egin oi jakezan illeta ta zeramoniakaz; Jainkoaren ontasuna nenkarren nik gomutara zelan ez eban nai arima bat azpiak jan eta ospegetu egien, Bere etsai zala ezkutatu baifio.

25. Ni erdi lelaturik nengoan ikusi nebanaz. Illeta aldi guztian ez neban geiago deabrurik ikusi; gero, gorpua obian sartu ebenean, moltzo ikaragarria agertu zan barrutik bera artzeko; ni au ikusiz senetik urtena geratu zintzan eta ez neban adore gitxi bear izan zoroaldi au estalduteko. Arima arekin zer egingo ete eben zan nire ardura guztia, gorpu zurbillaz olan jaubetu ziranean. Nik Jaunari eskatuko neuskio nik ikusi neban au, txunditzen dauan, egoera txarrean aurkitzen diran guztiak ikusi daiela, ondo bizi izateko uste dodanez gauza ederra izango litzake-ta. Guzti onek Jainkoari zenbat zor dautsodan obeto ezaguterazten daust, baita zelako galzorietatik askatu nauan be. Ondo bildurtuta ibilli nintzan neure autor-entzuleari esan neutson arte, arima aren izena loitzeko lillura ete zan pentsaturik, kristiñau ona zalako entzutea ez eukan arren, deabruaren lillura ete zan pentsaturik. Egia da, lillura izan ezta be, gogoratzen dodanean bildurra sartzen daust.

26. Illen ikuskariak aitatzen asi nazan ezketiño, gauza batzuk esan nai neukez, kasu onei dagokienez, arima batzuetan ikusiak. Banaka batzuk aitatuko dodaz ez luzatzearren, eta bearrezko be ez diralako, iñoren onurako beintzat. Illa zan esan eustenez gure Nagusi izan zan Aita bat, eta il zanean beste Probintzi batekoa zana, nik ezagutu ta egintza on batzuetarako bear izan nebana. Birtute askodun pertsona zan. Il zala jakin nebanean, zauskada aundia artu neban, aren salbamenaren bildur nintzalako; ogei urtez nagusi izan bait zan, eta arimen arduradun izatea niretzat beti be arriskutsu dalako, eta naigabez otoiztegi batera jo neban. Oso gitxi zan arren, Jaunari esan neutsan neure bizitzan egin neban

guztia, eta olantxe, Bere irabaziak ordeaztu egiela arima arek garbitokitik urteteko bear ebana.

27. Jaunari au eskatzen nengoala, alik eta ondoen nun-bait, neure eskumako aldetik, lurraren barren-barrenetik urteten zala eta zerura igoten ikusi neban, poztasun zoragarritan. A zarra zan onezkero, baiña ogetafflar urtedun lez ikusi neban, edo gitxiagokoa iruditu jatanez; atpegikera dizditsuz. Oso laburra izan zan ikaskari au; baiña pozez betea itxi nindun oso, eta aren eriotzak ez eustan iñoiz be penarik emon geiago, beragaitik, guztiz oneretxia zan-eta, pertsona naigabetuak egon arren be ezbaian jarri a ikuskari ona zala-i"ik, au da, a etzala lillura diñot. Amabost egun edo ziran illa zala, alan be Jainkoari eskatzen neutsan bere alde, al nebana, orraitino, ezin neban egi au ikusi ez ba neu egin izango neban garraz; Jaunak onela erakus-azten daustanean, ba, ta gero Aren Aunditasuaren zainpean jarri nai izan, iruditzen jat, geiago eziñez, aberats bati limosnea emotea lez dala. Gero jakin neban, emendik urrin il zalako, Jaunak emon eutsan eriotzearen barri, ona baiño be obea, danak itxirik arituta, ezaugera osoz eta negar-malko ta benetako apaltasunez illik.

28. Etxean il zan moja bat, egun bat eta erdi lez, benetako Jainko mirabea. Eta moja bat illen irakurgai bat esaten ziarduala, ildako aren alde koruan esaten zana, ni zutik nengoan bertsoa esaten ari laguntzeko. Irakurgaiaren erdirantza begitandu jatan arimea alde aretatik urten eta zerura joiala. Au etzan izan irudimenezko ikuskaria, esan dodazan beste batzuk lez; baiña ez da ezbaian jarten, ikusten diranak baiño geiago.

29. Beste moja bat, amazortzi edo ogei urtekoa, neure komentuan il zan. Gaixorik egon zan beti, Jainkoaren mirabe ona, koru-zalea ta onbide errimekoa. Nik, egia, uste izan neban etzala garbitokira joango, gaixoaldi aundi ta luzeak

igaro bai ebazan, eta merituz beterik il zan. Orductan egonik lur-emon baiño leen, lau ordu ziran il zala, asmatu neban toki aretatuk urten eta zerura joaten.

30. Jesus'en Lagundiko ikastetxe baten nengoaJa, batzutan eukiten nebazala esan dodan neke-lan aundiakaz, eta orain be ba'daukadaz, arimakoak eta gorputzekoak, pentsamentu on bat be artn eziñik, neure eritxiz, aurkitzen nintzan. Gau aretan illa zan an Lagundiko anai bat, eta al neban lez aren alde Jainkoari eskatzen eta aren gogoaren alde Lagundiko aita batek esaten eban mezea entzuten ni, barnera dei berezia sentidu neban, eta a zerura joiala ikusi, bera eta Jauna beragaz. Mesede apartekoz ikusi neban Aren Aunditasunak lagunduta joiala.

31. Geure Ordenako beste praille bat, ona benetan, oso txarto aurkitzen zan, eta ni mezatan nenguala barne-batze bat etorri jatan, eta ikusi neban zelan il eta zerura joan zan garbitokitik igaro bage. Nik ikusi neban ordu aretan i] zan, gero jakin nebanez. Ni arriturik gelditu nintzan garbitokian etzala sartu ikusiaz. Ulertu neban bere profesa ondo bete ebalako Ordenako Buldak balio izan eutsoela garbitokian cz sartzeko. Ez dot aitzen zergaitik au ulertu neban; baifia uste dot, izan daitekela, praille izatea ez bait dago jantzian, bera eroatean diñot, osotasun geiagoko maillako onak gozatzeko, aure bait da praille izatea.

32. Ez dot geiago esan gura gauza onei begira; esan dodanez, ez dago-ta zertan geiago aitatu, niri ikustera Jaunak emon daustazanak naiko dira. Baiña ez dot asmatu, ikusi dodazan arima danetatik bat bere cz cia gelditu garbitokira barik, Aita onen arimea eta Alkantara'ko Aita Pedro santua eta esanda geratu dan Aita Domekarra (Aita Bañez) ezik. Batzuen artean nai izan dau Jaunak nik ikustea zeruan zein aintzamailla daukien, jarten diran lekuak erakutsiz. Aundia da aurki batzuetatik besteetara dagoan aldea.

XXXIX ATALA

*Aurreko ataleko gaiari ekiñik, Jaunak egin dau-
tsozan mesede aundiak goratzen dauskuz. — Berak
eskatutako pertsonakaitik otoitz egiten lagunduko
dautso. — Aren Aunditasunak zertan egin dautso-
zan onako doai ta mesedeak.*

1. Bein Jaunari gogait eragiteraifio eskatzen nengoala ia osorik ikusmena galdurik euka_n eta nik orren bai arren emon egiola barriro, nik asko zor neutson erruki ekarstan, baifia baita bildur nintzan Jaunak ez eustala entzungo neure pekatuakaitik. Agertu jatan besteetan lez, eta ezker eskuko zauria erakusten asi, eta besteaz bertan sarturik eukan untze aundi bat ateraten: untze-biran aragia ateraten ebalu iruditu jatan. Ondo ikusten zan arek ekartson oiñaze bizia, neu be oso naigabetzen ninduana, eta esan eustan nigaitik a eroan ebanak, dudarik ez izateko, eskatuko leuskiona egiñaz obeto betea legokela; Berak agintzen eutsola egingo ez leuken gauzarik ez eskatzeko, Berak ba-ekiala ba nik ez neutsola ezer eskatuko bere aintzari egokiona ezik, eta olan egingo ebalu orain eskatzen neutsonaz be; ondo otseintzen ez neban arren, begitu nengiala nik ezer ez neutsola eskatu nik eskatzen nenkian baifio obeto egiteke itxi eustanik; orain barriz, maite nebala ba ekialako, askoz obeto egingo eustala, ez izateko onen ezpairik. Ez dot uste zortzi egun joanak ziranik, eta Jaunak bere ikertaldia egin eutson dalako pertsonari. Au nire autorleak jakin eban bertatik. Ba leiteke nire ototzaren frutua ez izatea; baiña nik ekuskisun au artu neban ezkerro, ziurtaruna geratu jatan, eta neuri eg'ndako mesedea zalakoan, eskerrak emon neutsozan Aren Aunditasunari.

2. Beste bein, pertsona bat oso gaixorik egoan gaitz neketsuaz, eta zelako gaixoa zan berea ez dakidalako, ez dot bereizten emen. Jasan eziña zan ila bitan eukana, miñaren miñez gorputza be zati-zati egiten ebala. Nire autorlea joan jakon ikusten, esan dodan jesulagun Buruzagia eta errukiz bete eban bera ikusteak; a ikusten joateko esan eustan, egin nengikeala ori, neure senitartekoa zala-ta. Ara joan nintzan eta niri be erruki ikaragarria sartu eustan, eta bertatik asi nintzan Jaunari, orduz eta ez-orduz, arentzako osasuna eskatzen. Argi be argi ikusi neban onetan egin eustan mese-dea, urrengo egunean ba min aretatik oso ondo aurkitzen zan.

3. Atsekabe aundi-aundiz nengoan bein, ni zorpeko nintzakon pertsona batek Jainkoaren eta bere deduaren kontrako gauzea egin nairik; ba-nekian jadanik erabagi-erabagi egoala ortarako. Ain aundia bai zan nire kezka, ez nekian ze bide artu eukan asmoa itxi egian: onezkero ez egoan antza biderik. Jainkoari eskatu neutson ipiñi egiala Berak, biotz guztiz eskatu be; baiña erremedio ori ikusi arte, etzan arinduko nire penea. Joan nintzan, olan nengoala, urrin, oso urrin aurkitzen zan ermita batera (asko daukaguz olakoak emen), eta an Kristo Arpil edo zutoiñari lotutakoari begira, mesede au egistala eskatu neutson; abots oso leunak, txistu batetik datorrenak lez itz-egistala entzun neban. Laztu nintzn oro, bildurra sartzeraño, eta 2er iñdstan jakin gura neukean; baiña nik ezin, aida bateko izan zan-eta. Laster joan zan nire bildurra joanda, barruko poz, gozotasun eta atsegiñ aunditan geratu nintzan; abots bat bakarra entzunaz izutu nintzan, au soin-belarriekin entzun neban eta itzik ulertu bage, zelako eragiña egin eustan ariman. Eta onetan ikusi neban cskatzen zana egin bear zala, eta orrelaxe izan be, oso-osorik kendu jatan neukan atsekabea, oraindik etzan gauza baten, gero izan zan legez egiña ikusi ba'neu bezela. Esan neutsen neure ator-entzuleei, orduan bi bai nebazan, ondotxo eskolatuak eta Jainko-zaleak (1).

(1) Bañez eta Gartzia aitak.

4. Ba-nekian pertsona batek erabagi sendoa artu ebala Jainkoaren benetako zerbitzari izateko, egun batzuetan gaiñera otoitz cgiten asia zala; Arcn aunditasunak mcsede asko egiten cutsozala otoitz-aldian; baiña otoitz-aldi-batzuk eukita gero laga egin ebala, eta naiko arriskutsu ziran batzuetatik etzala urintzen. Onek naigabe aundia emon eustan niri, nik zor neutsana ta maite neban pertsona zalako; illa betean baiño geiago, uste dot, ekin neutsala Jainkoari eskatzen arima au Aregana biurtu eiten. Egun baten, otoitzean nengoala, deabru bat ikusi neban neure aldamenean, eskuan eukazan paper batzuk asarre biziz apurtu ebazana. Poztu nintzan ni oso, eskatzen nebana egiten zala uste izan nebalako, eta orrelaxe izan zan, gero jakin bait neban, damu aundiko autortza egiñaz, Jainkoagana biurtu zala oso-osoan, eta Aren Aunditasunean ditzarot nik, beti aurtera joango dala. Bedi onetsia guztiagaitik. Olantxe.

5. Onetan, au da, Gure Jaunak, neuk eskatuta, arima batzuk pekatu astunetatik atera eta beste batzuk bizitza osoagora ekarri, askotan izan oi da. Eta arimak garbitokitik atera ta onako beste gauza berezi batzuk, asko be asko dira Jaunak onetan egin daustazan mesedeak, eta eurok adieraztea neure burua lenengo eta irakurleak gero neke-eraztea izango litzateke, arimaz geiago gorputzez baiño be. Au gauza ondo ezaguna izan da, lekuko lez askok ikusia. Gero, kezkaz jarten ninduan, nik czin bai neban itxi siñistu barik, Jaunak neure otoitzagaitik egiten ebala, ez daigun laga beiñena Aren ontasunagaitik bakar-bakarrik; onezkero banri ainbeste gauza dira ta ainbeste pertsonagandik ikusiak, ez daust miñik emoten siñ'stuteak, cta Aran Aunditasuna goratu oi dot, eta naastu egiten nau, zordunagoa ez nazalako ta gei azten, nik uste, Ari zerbiduteko gogoa, maitasuna bizkortuz. Eta geien izutzen nauana da, Jaunak dakusanak ez ciirada egoki, naita be ezin d'iutsot eskatu, indar, eta espiritu ta axola gitxiagoz ezilc, nik geiago adorctu gurata be eziña jat; Arcn Aunditasunak egin bear dabczan beste gauza batzuk lez, nik sarri ta gogotsu eskatu neikela ikusten dodan

arren; ardura au nik ekarri ezta be, aurrean jarten jatala esan daiket.

6. Alde aundia dago cskatzeko modu bion artean, eta cz dakit berau zelan adicrazo; bita esktzen dot, ba, Jaunari. eskatzen aleginduta, gartsu ikuturik be, besteetan lako mai-te garrik neugan sentidu ezta be, miifia lotuta daukanaren antzean da, mintzatu nai arren ezin dau, eta mintzo bada, ulertzen ez jakon lez edota argi ta erne, gogoz entzuten daukala ikusten dauanari berba egiten dauanaren antzera. Bata cskatzen da, diñogun orain, aozko otoitza bezela, ta bestea begiratzeko goi-goikoan, Jauna guri ulertzen lez agertzen dala, eta Aren Aunditasuna poz-pezik eskatzen dausagulako, eta mesedeak egiten. Onetsia izan bedi ainbat emon oi dauana, eta nik ain gitxi emotea dausadana. Zer dagi ba, ene Jauna, Zeugaitik artzen ez danak? Eta zcr, eta zer, eta zer, eta milla bider esan dagiket, falta ete jat ortarako! Orixe-gaitik, bizi nai izan bear (bcste zio batzuk be ba-dagozan arren), ez naz bizi-ta zor dautzudanari dagokionez. Zenbat utsegitez ikusten dot neure bnrua! , zein nagi zure zerbitzuan! Ziur, batzutan uste dot zentzun barik egon nai neunke daukadan ainbeste txarkeri ez asmatzeko. Berak, al dauana da-ta zuzen begi,

7. Esan dodan andra (2) aren etxean nengoalarik, ardu-raz ibilli bear zala diñot, bizitzako gauza guztiak aldean daka-rrren arrokeria gogora ekarriz; andra au, ba, aintzat artua ta goratua oso, eta gaitasun asko ni euren sare artean ondo lotzeko gauza ziranak, niri begiratzuz; baiña egiazko begia daukanari begiratzen nik, berak eskutik laga ez nen-gian.

8. Egiazko begia aitatti dodan ezkerro, buruak emon daust zelako nelce-lor aundiak igaro bear izaten dabegan (Jaunak egia zer dan jakiteraiño goratu dabegan per-

tsonak) lurreko gauza oneitan, eurok ain errez estaltzen diran lekuan, Jaunak berak egun baten esan eustanez. Emen idazten dodazan gauzetan asko ez dira, ba, nik ncure burutik jalgiak, neure Maisu zerutar onek esan oi eustazanak baiño; nik beraiaz «auxe ulertu neban», edo-ta «Jaunak esan eustan» jarten dodanean, kezka larria egiten jat silaba bat bakarra kendu edo ipiñi egitea; beraz, dana ondo gogoratzen ez dodanean zeatz-zeatz, neure gauzea lez doa esana, edo gauza batzuk neureak izatea be jazo leikelako. Ona danari ez dautsot neure deitzen, badakit ba ez dagoala niregan Jaunak merezi barik emon daustana baiño; «neuk esana» diñotsot, goi-argiz emondakoa izan ez danari.

9. Baiña, ai ene Jainko, eta zelan sarri gogozko gauzak be ulertu nai izaten doguzan geure erara, egitik lar okertuta, munduan legez, eta itxura danez geure on-obariak neur-azo nai doguz otoitzean burutu doguzan urteen araura, eta oindiño neurria jarri gura dautsagu, neurri barik eta Berak nai dauanean bere doaiak emoten eta bati urte erdian beste bati urte askoan baiño geiago emon leikeozanari! Eta au oso ikuaia daukat nik, pertsona askoengan, eta ni arritzen nauana da gu zergaitik gagozan ain miretsirik onen aurrean.

10. Uste dot engaiñu ontan ez dala egongo espirituak ezagutzeko buru-sena euki ta Jaunak egiazko apaltasunez ornidu dauanik; onek bada eragin, erabagi ta daukan maitasunetik ebazten daki, Jaunak emon dautsan argiaren bidez. Eta onetan ipiñi daroa arimen aurreraketa lez ortik datorren onura, eta ez urteetan; urte erdian batek lortu leike-ta beste batek ogeian aiña; diñodan lez, Jaunak emon oi dautso nai dauanari ta obeto gertatzen danari. Orain ikusten dot etxe onetara datozala urte gitxiko neskatillak, eta Jainkoak ikutu ta argi ta maitasun pizkat egiñaz, difiot epe laburrean itxaron ez eben emoiren bat artuz, ez ekarren ezer gogop.n, ezta jaterik be, be;iko sartu bait ziran errentarikbako etxean, maite dauazala dakianaren antzera bizitzeari gora

aundirik emon barik. Oro izten dabe, naiari be uko egiten, eta begi aurrera etorri be ez jake egiten nai-ezik itxitu ain estuan: danak alkarturik opari lez Jainkoari eskintzen.

11. Pozik damotset nik emen aldea! Eta nik lotsaz ibilli bearra neukan Jainkoaren aurrean; Aren Aunditasunak, ba, nigaz ainbat urteren buruz, otoitza eukiten asi ta mesedeak ugari artu ondoren lortu ebana, iru illabetean areikaz lortu eban, eta iru egunean oindiño bateren bategaz, niri baiño askoz mesede gitxiago egiñaz ain zuzen, Aren Aunditasunak ondo ordaintzen dautsen arren. Egia autor-tzeko, egon-eziñez ez dagoz, ez, Beragaitik egin dabenak.

12. Onetarako gura neuke nik oroimena astintzea, profesa ondoren urte asko daroiaguzanak eta bardin otoitzari emonik luzaro dabiltzanak, eta ez gero denpora laburrean aurrerago doazanak nekarazteko, atzera biurtu-azoz, geure urratsez ibilli daitezkan; eta Jainkoak egin oi dautsezan mesedeakaz arrano antzean egaz dagienai txita lotu legez ibilli eragin nairik. Ipiñi daiguzan begiak Aren Aunditasunean, eta apaltasunaz ikusi ba'dagiguz, emon lasa, ainbat mesede egiten dautsezan Jaunak ez bai ditu amiltzen itxiko. Uste osoa dabe eurak Jainkoagan, onetarako dabelako ezagutzen daben fedearen egia; eta guk ez ete dogu uste onik izango, geure neur-ariz neurtu baiño, geure gogo motelen ari-ra? Ez, otoi, olan, arein eragin eta erabagi aundiak jades-ten ezpa-doguz, experientzi bage txarto aitu leikez-eta, apal daiguzan geure buruak eta ez daiguzan gaitzetsi; arein probetxua babesten dogulakoan, geureari kalte egiten bai gabiltz eta geu apalazteko Jaunak egiten dauskun abagune au galdu dagizu; baita zer falta jakun asmatu daigun be, eta arima orreik gu baiño naiko aske ta Jainkoagana elduago dagozala jakin daigun, Aren Aunditasunak orreingana bai dauka joera.

13. Ez dot ulertzen beste gauzarik ezta ulertu nai be ez neuke izango epe laburreko otoitzak ondoren berebizi-

koak egin oi ditula (gero asmatzen diranak, eziña baita dana bertanbera iztea, Jainkoari atseg'n izatearrtn bakarrik, maitasun-indar aundi barik), nik gurago neuke au urte askotakoa baifio, iñoiz erabagi etzana noski azkengora naiz lenengora geiago ezer Jainkoaren alde egiteko; gauza pitin batzuk ezik, gatzaz lez, pisu ta neurri bakoak, txori batek mokoan daroazanak, eragin eta ildura txikitzat daukaguza-nak; Jaunagaitik gauza batzuk, bai, garrantzizko iruditzen jakuz, asko eginda be, penagarri dana eurakaz arduratzea. Auxe nozu ni, eta berban-berban aaztuko ditut mesedeak. Aren Aunditasunak, ona da-ta ez diñot kontuan eukiko ez dabezanik; baiña nik ez neusioe arei kasurik egingo, ezta egiten dodazanik be, ezer ez dira-ta. Alan be, parka eidazu, cne Jaun orrek, eta ez nagizu errudun egin, zeozegaz poztu bearra bait daukat, ezertan ez zaitut ba otseintzen: gauza aundietan mirabe ona ba ninduzu, iski-miski ta ezerezai ez neuskioe jaramonik ezarriko. Zorionekuak egite aundiakaz zerbiduten zaituen pertsonak! Bekaitz pizkat ba neutsoe olakoai eta nik kontua artzea gura, ez nintzake ain etzera geldituko zuei poza ematerakoan; baiña ez dot ezer balio, ene Jauna. Ezar eidazu Zeuk balioa, benetan maite bai nozu!

14. Egunokaz, Erroma'tik Agiri bat (3), monastegi onek errentarik ez ebala eukiko iñoana, ekarri eustenean, ainbat neke-lan igarota be dana amaitu zalata, pozpozik aurkitzen nintzan, lanok gorabera, zeozetan lagungarri neu artu nindulako, goratzarreka; eta ondoren, zelako gauzak jazo z[^]ran pentsatzen asi nintzan. Eta olaxe, nik egindako gauzak, zeozer zirala emoten ebenak banan-banan ikusiaz, ainbat uts eta akats aurkitzen neban eurotan, eta batzutan gogo urria, eta askotan fede g[^]txi; orain arte, ba, etxe au egin bearzala Jaunak esan eustan arte, benetan, zirt-zart siñistu barik neukan oraindik, ezbaian ezta be. Ez dakit au zelan izan zan. Askotan ba, alderdi batetik eziña neritxon, besetik ezin neban ezbaian jarri, ots, etzala egingo siñistn.

(3) 15G5'ko gai aparrillaren 17'an eldu zan Idazki au.

Azkenez, ona etorri jatana, Jatnak berak egin etistala dana, eta nik txarra, eta olan agur egin neutson pentsatze orri, eta ez neban geiago gogoratu be egin nai izan, neure ainbat oker eta utsegitez topo ez egitearren. Bedeinkatua .zan bedi Bera gatiza guztietatik cma ateraten datialako, bere zerbitzukoa danean, Olantxen.

15. Izan be, diñot: arriskutsua dala otoitzean emondako urteak zenbatzen ibiltea; etisgarri lez apahasuna cgon arren, egin dan zerbitzuagaitik merezi dalako zerbait, esan eziña, geratu leikela-ta. Nik ez diñot merezi ez dabenik, eta ondo ordaindua izango jake; baiña edozein espiritu-za!e urte askotan otoitza euki cialalako espirituzko erregalu oneik merezi ditula uste dauana, ziurtzat daukat nik aren erpiñeraiño ez dala igongo. Ez ete da naiko [ainkoak bere eskutik eukitea merezi izatea otoitza etiki atirretik egiten eutsozan iraiñak ez egiteko, esan oi danez, bere diruakaitik Bera auzira eroateko? Ez diruti au apaltasun sakona danik. Ba leiteke izan izatea, baiña nik nabarmenkeritzat daukat; nik ba, apaltasun gitxi eukita be, ez dot uste egtindo olakorik egiten azartu nazanik. Izan daiteke, ni iñoiz mirabe izan ez nazalako, eskatu be ez egitea; egin ba neu, bear bada, naiago neuke Jatinak ordainduko ba leust oro.

16. Ez diñot nik arima bat aziaz ez doanik eta Jainkoak emongo ez dautsonik, otoitz apala izan bada; baifia urte orreik beioaz aztu-zulora, nazka bait da guk egin daik egun guztia, Jaunak gugaitik jarion eban odol-tanta baten ondoan. Eta geiago zerbiduta zordun aundiago egiten ba gara, zer da eskatzen dogun au, zorra lauzurietan ordaintzen ba dogu, ba, mllla dukat atzera biurtzen ba dauskuez? Eaga daiguzan, Jainko maitearren, eretxipen oneik, eurenak dira-ta. Beti doztiz txarrak, bardinketa oneik, baita emengo gauzetan be; eta zer izango, Jainkoak berak baka-rrik dakizanetan, eta Aran Aunditasunak argi be argi agertu eban ori leenengoai nai azkenengoai bardin ordaindu eutsean.

17. Ainbeste bider idatzi dodaz iru orri oneik, eta ainbat egunetan, euki dodalako ta ba-daukadalako, esan dodanez, asti gitxi, aztu egin jat esaten asi nintzana, ots, ikuskari au. Otoitzean niñarduala, landa zabal batean aurkitu nintzan bakarrik, neure biran ari bedegarreko jente askok, esitzen nindualarik; guztiak eukiezan armak eskuetan, ni iraintzeko: batzuk, lantzak; beste batzuk, ezpatak; irugarrenak, sastakaiak, eta beste batzuk, puntzel oso luzeak. Dana dala, nik ez neukan nundik urtenik eriotz arriskuan neure burua ipiñi bage, eta bakarrik nengoan, laguntzeko iñor be ez neukala. Nire espiritua estuasun onetan egoala, ez nengian zer egin; jaso nebazan begiak zerurantz eta Kristo ikuskatu, ez zeruan, goian neure gaiñean, eguratsean baiño; eskua luzatzen eustan, eta andik jagoten nindun nik beste jentearen bildurrik ez izateko moduan; eurak be, nai izan arren, ezin leuskiden kalterik egin.

18. Ikuskari au frutu bakoa dala dirudi, eta alan be probetxu aundia ekarri daust, zer esan nai eban aitzen emon jatalako; andik laster aurkitu nintzan ia-ia alako zer baten, eta ikuskari a zala asmatu neban munduaren argazki bat, bertan dagozan gauza guztiak iskilluak dirala begitantzen arima gaixoari kalte egiteko. Itxi daiguzan Jaunaren zerbitzari kaskarrak, eta deduak, eta ondasunak, eta atsegiñak eta antzeko beste gauza batzuk; argi dago emen, ba, begiratu ezik, arimea saretan artua da, gauza guztiok beintzat nastuten alegintzen dira, eta onez gaiñera, adiskideak, senidartekoak, eta geienen arritzen nauana, pertsona oso onak: guztiez aurkitu nintzan gero ain estutua, eurak on egiten eustela pentsatuz eta ni neure burua zelan aldeztu ta zer egin ez nekialarik.

19. Oi, Jainko on!, esan dodana saiets itxita be, aldikada onetan euki nitun lanak, era askotakoak eta bereziak, naiko abisu ta oar izango litzake dana iguingarritzat artzeko! Igaro dodazan persekuziñoetatik eundiena izan zala, uste dot. Batzutan diñot egon nintzan alde guztietatik estu ta larri,

begiak zerurantz jaso ta Jainkoari ots-egiñez bakar-bakarrik neukan gozotasun apur bat. Pozgarri jatan ikuskizun ontan ikusiaz gogoratzea. Probetxu asko egin eustan onek iñogan be u'ste geiegi ez jarteko, Jainkoagan ezik ez bai dago iraunkorrik. Onako neke-lor aundietan beti bialdu oi eustan bere aldetik, erakutsi eustanez, eskua luzatuko eustan pertsonaren bat, ikuskari onetan be argi agertazo ebanez, iñori loturik joan bage, Jaunari atsegin alaia emotera baiño; eta orixe izan da nik Zu zerbidutzeko neukan on-indar pitin orri eutsi al izateko. Onetsia izan zaitez orain eta beti.

20. Bein artega ta abarrostatua egonik guztiz, liskar burrukan, pentsamentuak iges egistala onak etziran gauzetara, eta ezta oi lako esku zabaltasunean eta griñarik ezean neure burua ain kaskar ikusirik, bildur izan nintzan Jaunak egin eustazan mesedeak, ames-aldiak ete ziran uste izanaz. Nengoana zan, bai, arimearen illunpe ikaragarrian. Atsekabe onekin aurkitzen nintzala, Jaunak itz-egin eustan, ez nendilla naigabetu esanik, onela egonaz ulertu al izango neban, Berak izten ba ninduan, ikusiko nebala zein kaskar nintzan, eta agirian bizi giñan artean ez egoala ziurtasunik. Ulert-azo eustan bide batez ondo eukia dala gerra ta liskar au artzeko dogun sariaren ordezt, eta iruditu jatanez errukia euskula Jaunak munduan bizi garanoi; eta ez pentsatzeko nik Berak aaztuta neukanik, ez nindula iñoiz be bertanbera itxiko, baiña bearrezko zala nik neuri egokidana ondo betetia. Jaunak au samur baizen ezti adierazo eustan, eta beste itz batzuekaz, emen zetan bir-esan beafrik ez daukedanakaz; mesede galanta egin eustan.

21. Oneik askotan esan oi daustaz Aren Aunditasunak, maitasun joria erakutsiz: *Onezkero neurea zaitut eta Ni zurea*. Eta nik oi dodanez beti esaten dodazanak, eta egiaz, oneik dira: *Niri zer, Jauna, neurez, Zeurez ezik?* Itzok eta erregaluok niretzat naas-maas eta lotsa oso aundia dakartenak dira zer nazan gogoratzen nazanean, esan dodanez, batzutan siñisten dot ba, eta orain nozik-bein autor-entzu-

leari esaten dautsot, gogo geiago euki bear, nik uste, me-sede oneik artzeko, min aundiak artzeko baiño; joaten da-nean ia aaztuaz joakidaz neure lanak, ezereza nazanaren zer-bait izan ezik, adimenaren iraulketa barik, eta au be batzutan izatez goitikoa dala deritxat.

22. Banaka batzutan Jaunartzeko leia biziak etorri oi jataz, adierazo ezin leikezanak. Euri aundia zan goiz baten, gertatu jatan, etxetik urteteko be giro etzala, ni kanpotik ninzala, neure senetik urtena nengoan ni leia arek eraginda, euri-jasa ikaragaria zalarik, bular-aurrean lantzak ipiñi ba leustezan andik aurrera joango nintzan, nik uste. Eleizara eldu nintzanean zetzun-galtze aundia etorri jatan. Zeruak za-balik irudi jatazan, ez sarrera bat besteetan ikusi dodan lez. Aurrean ezarri jatan esan neban aulkia beste batzuetan be ikusi dodanarena, eta onen gaiñean beste bat, emen, nik ikusi ez neban arren, zelan esan ez dakidan barne-argi baten bitartez Jainkotasuna egoala asmatu nebana. Abere batzuk eukazan eusgarri; abere onein irudi bat entzun dodala di-rudit; ebangelariak ete ziran niri buruak emon. Baiña ze-lan egoan aulkia, ez zer egoan barten, nik ez neban ikusi, aingeru talde aundia baiño; zeruan ikusi dodazanak baiño askozaz ederragoak, nik uste. Iñoiz pentsatu dot serafiñek edo kerubiñek ete ziran, aintzatan diferenteak dira-ta, ga-rretan. Esan dodanez, alde aundia dabe; eta orduan neu-gan sentidu neban aintza ezin daiteke ez esan ez idatzi, ezta asmatu be orretatik igaro ez danak. Gura izan leitekena da-na ta batera dagoala an ulertu neban, eta ez neban ezer ikusi. Esan eusten, eta ez dakit nok, an egin neinkena ezin neinkela ezer ulertu ulertzea zala, eta aren aldean dana eze-reza besterik etzala. Gero nire arimea, ain zuzen be, irau-nak emonda geratu zan, sortutako gauza baten geldi, lillu-raturik ikusita, dana begitanduten bai jatan txifiurri-meta bat.

23. Jaunartu neban eta, ez dakit, zelan, mezatan egon nintzan. Guztiz motza izan zala begitandu jatan; erlojua

joteak izutu nindun, eta ordu bitan egon nintzala gaiñez-kaldi aretan, aintzaz beterik. Geiago izutu nintzan gero, zelan, goitik datorrela dirudian Jainko maitasun egiazko su ontara eldurik (nik bizi-bizi nai izanda be, ba, nik alegi" ñak erre ta nai orrelan austu, Aren Aunditasunak gura ezik, beste batzuetan esan dodanez, ni ez naz gai orren txingartxo bat eukiteko), gizon zaarra garbi-azten dauan bere akats, epelkeri ta mixeritik; eta fenix txoriak egin oi dauanez, irakurria dot, erre ondoren bere autsetik beste bat jalg, olantxe arimea be, ondoren, beste bat egiña geratzen da, bestelako gurariakaz eta sendo be sendo; ez da antza le:nngo, eta garbitasun barriaz asten dau Jaunaren bidea. Orre-la eskatuz nik Aren Aunditasunari, barriro asiaz Bera zerbiduten, au esan eustan: *Konparaketa ona egin don; begifa, ez eiñ aaztu, obetzeko gogoan euki daizun beti.*

24. Bein, oraindik orain esan dodan duda berberagaz nengoala Jainkoarenak ete zirnn ikuskari oneik, Jauna agertu jatan eta latz-samar esan eusten: O giza-semeok!, noiz arte izango zarie biotz-gogor? Gauza bat neugas ondo aztertuko ba neu; berarentzat emona zan ala ez osorik; ete egoan eta ete zan; siñistu ezkcro, ez, ez nintzakela galduko Oiu arek asko Iarritu nindun. Samur eta gozo barriro adierazo eustan ez larrituteko, nigaitik ba-ekiala ez ebalaz ezer itxiko bere zerbiturako zanik, neuk nai neban guztia egingo zala (olantxe burutu zan orduan eskatzen neutsona); begitu nengiala zelan joian nigan egunez-egun gaituaz A maitatzeko leia, onek erakutsiko eustala, etzala deabrua; ez uste izateko Jainkoak ainbeste esku emoten eutsela deabmai bere zerbitzari ziran arimetan, eta zuri emongo leutzunik daaukazun adimen-argitasuna ta bakea. Aitzen emon eustan, ainbat eta alako pertsonak aitaturik, Jainkoa zala, eta gaizki legokela, siñistuko ez ba neu.

25. Bein *Qtdcumque* salmua errezetan nengoala, ulertzeko argia emon jatan, zelan zan Jainko bakar bat eta iru Nortzu edo Pertsona, argi-argi emon be, ta bildurtu ta poz-

tu egin nintzan batera, asko be asko. Probetxu galanta egin eustan Jainkoaren aunditasuna ta arrigarritasunak geiago ezagutzeko, eta Irutasun Deuna burura etortean naiz erabiltean, pozgarri jat eta bera obeto ulertzen dodala deritxat.

26. Andra Maria, Aingeruen Erregiña ta geuze Amaren zeruetara Jasokunde egun baten, mesede au egin nai izan eustan Jaunak: gaiñezkaldi baten aren zerura jasotea iruditu jatan, pozez gaiñezka ta aundikiro an artua izanik, eta nun auzkitzen dan. Au zelan izan zan, nik ez neuke jakingo berau esaten. Aintza auditan aurkitu zan nire espiritua, ainbeste aintza ikusiz. Ondoren itzalez geratu nintzan, eta asko balio izan eustan neke-lan latzak igaroteko be; ainbat merezi izan eban Andra onen zerbitzari zintzo izan naiez geratu nintzan.

27. Jesus'en Lagundiko Ikastetx baten nengoala, etxe aretako anaiak jaunartzen ziarduen baitartean, palio edereder bat ikusi neban euren buru gaiñean; gorritan ikusi neban au. Beste pertsona batzuk jaunartzen ebenean, ez neban ikusi.

XL A T A L A

Orobat mesede aundien gaia. — Probetxu aundia atera leike batzuetatik. — Auxe izan da, ain zuzen, bere asmoa. — Agindu dautsoena beterik, arimai on egin. — Atal onekin amaitzen da bere bizi-edestia. Bedi guztia Jaunaren aintzarako.

1. Bein baten otoitzean egonik, atsegin aundia asmatzen nebalako, alako onaren duin ez bait nintzan, pentsamentura etorri jatan zelan mcrezi neban neuretzat infernuan ikusi neban lekuan egotea, esan dodanez, iñoiz be aaztuten ez jatala neure burua an ikusitako modua. Gogoera one-gaz asi jatan arimea gero ta geiago suak artzen, espirituaren gaifiekzaldi bat etoriaz, nik esaten ez dakidan kkoxea. Beste batzuetan asmatu dodan aunditasun aretan oartu ta beterik nengoala begitandu jatan. Aunditasun onetan egi bat emon jatan ulertzen, egi guztien betetasuna dana; ez dakit zelan esan, ezer ez bait neban ikusi. Esan eusten, nik ifior ikusi bage, obeto ulertu neban Egia bera zala: *Ez da gitxi zugaitik egiten dodan au, ela gauzotatik bat da, asko zor daustazuna gero; mnnduari datorkion gaifz guztia da, ba, egiazko argitasunez Liburu Santuetako egiak ez ezagutze-tik; bertako tilet batek be ez dau uts-egingo.* Niri begitandu jatan, nik au beti siñistu nebala, eta kristiñau guz-tiak siñistuten ebela. Jaunak niri: *Ai, alaba, oso gitxik mai-te nabe benetan\ , maite ba' nindue, nik ez neuskiez gorde-ko neure ezkuuak. Ba al dakizu zer dan Ni egiaz mai.le iza-lea? Neuri alsegin emotea izan ezik, beste guztia guzurra dala ulertzea.* Orain ulertzen ez dozun au argi ta garbi iku-siko dozu, zeure arimearentzat probetxugarri danean.

2. Eta olantxe ikusi dot, goratua bedi Jauna, geroztik emen arrokeria ta guzurra dala deritxat Jainkoaren zer-bitzura ez doala ikusten dodan guztia, ulertzen dodan lez esan ezin dodana, eta zelako miña damosten egi onetan illun-illunetan dagozala ikusten dodazanak, eta onekin beste irabazi batzuk emen adierazoko dodazanak, eta beste asko atzenez ez dodaz esaten be jakingo. Emen Jaunak berba bat esan eustan, mesede aundikoa. Ez dakit nik au zelan izan zan, ez bait neban ezer ikusi; baiña sor ta lor geratu nintzan, eta ez dakit zer esan, sendotasun aundi-aundiz, eta bene-benetan erabagia neure gogo ta arima guztiz jainkotiar Liburu Santuetako zatirik txikiena be beteteko. Edozer gauza aurrean jarrita be, nik uste, ortik igaroko nintzake.

3. Aurrean jarri jatan jainkozko Egi onen egi bat, zelan ezer ez nekiala, tinko ta ondo josia geratu jatan, eta onek Jainkoaren aintzinean begirune ta mendetasun bereziz ego-tera beartzen nau, aren aunditasunaren eta al-izatearen barri ezin-esan alakoz asetzen daulako; gauza aundi bat dala esaten dakit soil-soil. Egi-egiak ziran gauzaz baiño ez mintzatzeko gogo betea geratu jatan, munduan darabiltzenak baiño obeak izan eitezan, eta orrela asi nintzan bertan bizi nintzalako samintasuna erakusten. Samur, gozo ta apal laga ninduan. Jaunak emen, uste dot, zelan nik ulertu bage, asko emon eustala; ames zoro zanaren ezbairik ez jatan geratu. Ez neban ezer ikusi, baiña ulertu, bai, egin neban zelako ona dan Jainkoagana geiago erodateko ez litzakigun gauzaren bati jaramonik ez egitea, eta olan aitu neban zer gauza dan arima bat Egia bera danaren aurrean egitan ibiltea. Ulertu neban au Jaunak, Egia bera danak niri ulertzen emotea zala.

4. Esan dodan guztia ulertu neban, batzutan berba egi-ñik, eta beste batzutan berba barik, gauza batzuk berbaz esaten eustezanak baiño argiago nunbait. Egi oso zabal-aundiak ulertu nebazan Egi oneri buruz, jakitun askok irakatsita baiño be obeto. Ez dot uste areik olan josita itxiko eustezanik, ezta munduko uskeria olan asierarik ez amairik, eta

beste egi guztiak onek eutsita dagoz, maitasun onen beste maitasun guztiak eta aunditasun onen aunditasun guztiak legez; au, alan be, illun esana doa Jaunak niri ulertu nengian emon nai izan eustan argitasunaren aldean. Eta zelan agertzen dan Aunditasun onen al-izatea, ain epe laburrean, ba, orren irabazi aundia itxi daroa, eta ain eder diran gauzak ariman irarrita! O ene Aunditasun eta Gurentasun! Zer egiten dozu, ene Jaun, guzti-aldun orrek? Begira, nori egiten dautsazuzan mesede ain garaiak! Ez al zara gogoratzen arima au izan dala guzur-oni.zi ta uskeri-ondar, eta dana neure erruz; Zeuk emon zeustan arren guzurra iguintzeko berezko sena, ni neu ibilli nintzan guzur diran gauza askoren artean sartuta. Zelan jasan, ene Jainko, zelan datoz egoki ainbeste laguntza ta mesede, ain txarto merezi izan dauanari egiten?

5. Bein baten, guztiok batera, Orduak esaten gengozala, Jesus'ean kiribildu jatan arimea, eta dana iruditua jatan ispillu argi lez, sorbaldarik, ertzik, goi ta beerik etzala argi be argi, eta barnean, arimearen erdian, Kristo Gure Jauna agertu jatan, besteetan ikusi oi dodanez. Uste izan neban neure erimako zati guztietan argi ikusten nebalak ispillu baten legez, eta ispillu au be, nik ez dakit zelan esan, Jaun berberagan kizkatzen zan osorik, nik adierazten ez dakidan ar-emon maitakorrez. Ba-dakit ikuskari au probetxu aundikoa izan jatana, Jaunartzerakoan gogora etorten jatanean batez be. Arima bat pekatu astunean aurkitzean, ulertu neban, ispillu au laino lodiz estaldu ta oso baltz geratzen ei da, eta olan ezin daiteke iruditua ez ikusi Jaun au, naiz-ta beti geugaz egon izatea emoten; eta siñausleak ispillu apurtua lez dirala, lauso ta illun egotea baiño txarrago dana. Ez da gauza bardiña zelan ikusten dan eta berau esatea, gaizki adierazo leiteke-ta. Niri probetxu aundia cgin daust, baita pena aundia artu be, Jaun au ez ikusteko, neurc biurrikeriakaz arimea ainbat aldiz illundu nebalako.

6. Probetxukoa deritxat ikuskari au barru-batzca dauken arimentzat, euren arima barru-barruan Jauna asmatzen

ikasteko; gogoraziño auxe bait da geien itsasten dana, eta kanpokoa baifio frutu geiago dakarrena askoz be, beste batzuetan esan dodanez, eta otoitz liburu batzuetan idatzirik dagoanez; emen billatu bear da Jainkoa. Agustin deunak diño batez be, ez enparantzetan, atsegifietan, ez billatzen iñun be, bere barruan legez, ez ebala aurkitzen. Eta au argi dago ohea dala; eta ez dago zetan zerura joan, ezta geu baiño urriñago be, au ez baita besterik espiritua nekatu, gogoa barreiatu, eta ez ainbat fruturekin.

7. Gauza bat erazagutu nai dot emen, norbaitek onako zerbait ba leuko be; gaifiezkaldi aundietan jazo oi da, arimea batasunean dagoan une a igarotakoan, une laburra benetan, esan dodanez, aalmenak osorik sor ta lor dagozanekoa, arimea kiribilduta geratzen da, kanpotik be beregan etorri ezi-fiik; baiña aalmen biak, gomutamena ta adimena, geratzen dira, ia-ia samiñaldian, eta nora jo ez dakiela. Iñoizkoren baten au gertatu oi dala diñot, lenengotan batez be. Gure berezko auleriak ezin ete dauan eroan, nago, espirituaren ainbeste indar, irudimena be meetu ta bakartuz. Ba-dakit pertsona batzueri olan jazoten jakena. Ez litzateke txarra izango ordukoz otoitz egitea itxiko ba'lebe eta galtzen daben denpora ori gero ordaindu, ez dana batera be, onek gaitz ugari ekarri leike-ta. Onetaz ba-dago experientzirik, eta ondo jokatzeara dozu gure osasunak zenbateraifio eskatzen dauan begiratzea be.

8. Gauza guztietan bear da experientzia ta maisua, arimea une oneitara eltzen danean, ba, sarri eskiñiko da laguntzaille bateren premiña; eta billatuz aurkituko ezpa-leuke, Jaunak ez dautso utsik egingo, niri be nazana izanik, ez daust utsik eginda. Gitxi uste dot dirala ainbeste gauzaren experientziara eldu diranak, eta ori ez ba dago, alperrik ibilli oi da erremedio billa, besteak kezkatu ta naigabetu barik. Au be, baiña, Jaunak kontuan artuko dau, eta orixegaitik oba da erabil-aztea, aurrerago be esan dodanez; eta orain difiodan beste guzti au bardin, ondo gogoratzen ezpa-dot be,

eta uste dot garrantzi aundikoa dala, cmakumak ba dira batcz be, euren autor-entzuleaz, bear lakoa danagaz. Eta gizonezkoak baiño geiago dira Jaunak onako mesedeak egin oi dau-tsezanak; Alkantara'ko Aita Pedro santuari entzun neutson au (baita neik be ikusi dot), bide onetan gizonak baiño ema-kumak onura geiago ateraten cbela esaten bait eban, au sendotzeko errazoi galantak ekarriaz; emen barriro zetan esanik ez daukadan arrcn, danak emakumezkoen aldekoak,

9. Otoitzean niñarduan baten, oso labur aurkeztu jatan, eraturiko ezer ikusi bage, baiña argitasun osoan egiñiko irudikizun bat izan zan, zelan ikusten diran Jainkoagan gauza guztiak, eta zelan daukazan clanak Beragan. Au idazten nik ez dakit, baiña ondo josirik geratu zan nire ariman, eta egin daustazan mesede aundietako bat da, eta, egin dodazan pe-katuakaz gogoraturik, geien nastu ta lotsatuta itxi nauana. Uste dot Jaunak gurata au beste aldikada baten ikusi izan ba neu, eta ikusiko ba'lebe Jauna iraintzen dabenak, ez leu-keela ez biotzik ez ausardirik ori egiteko. Iruditu jatan, ezin baiestuz ez nebala ezer ikusi, baiña zerbait ikusten bide da, nik ba alegi edo bardinketa au ipiñi neinke; baiña tankera mee ta eme batan izanik adimenak ez dau antza artzen, edo-ta nik ez dakit ikuskari. oneik asmatzen, irudimenak sortuak ez dirudielako, batzuetan onako zerbait egon bear dauan arren; alan be, gaiñezkaldian dira-ta, aalmenak ez dakie gero Jaunak an itxuratu ta arimak gozatzea nai dauan bezela,

10. Esan daigun Jaungoikotasuna diamante argi-argi bat lez dala, mundu guztia, edo ispillua, baiño askoz aundiagoa, beste ikuskarian arimeaz esan nebanaren antzera, nik adierazo ezin neinken baiño askozaz edet-goikoago; dagigun guztia diamante onetan d; kus«ula, berak barne artzen dauala, aunditasun ontatik kanpo ixurtzen danik ezbai dago ezer. Izugarria izan jatan, ain epe laburrean, ainbeste gauza batera diamante argi onetan ikusirik, eta txit mingarria, gogoratzen dodan bakotxean, gauza ain motzak agertzen zirala ikusiz,

nire pekatuak, an argitasun garbi arctan. Eta olantxe da, au gogoratuz nik ez dakit au zelan jasan neiken, eta orduan lotsa-lotsa egiñik gcratu nintzan, nun gorde ez nekiala, nik uste. O, nok adierazo leikioe au pekatu ain loi ta itsusiak egin oi dabezana, jaki.n daien ez dirala ezkutuak, Jainkoak sentitzen dauazanak, Jainko aundiaren begipean egiten diranak, lotsa ain gitxiz Aren arpegi aurrean! Ondo merezia egoala, ikusi neban, infernua pekatu astun bat gaitik, ulertu eziña bait da zein gaiztakeri itzala dan Gurentasun ain gurenaren aurrean ori egitea, eta A dana dalako, antzeko gauzarik merezi ez daualako. Eta olan obeto ikusten da Aren errukia, guk au guzti au ulerturik, sufritzen gaitu-ta.

11. Onek burura ekarri daust, onako gauza batek ari-meia izten badau laztua, zer izango ete dan epai-egunean, Aunditasun <au argi be argi agert-azo eta Berari egin dautsoguzan irain eta txarkeri guztiak ikusten doguzanean? O, ene Jainko on! , zer itsutasun da au nik ekarri dodana! Izu-ikaraz ipifii nau sarri idatzi dodan onek, eta ez zaitez zu, Aita, izutu, zelan bizi nazan baiño, gauzok ikusiz eta neure buruari begira. Onetsia izan bedi beti-betikoz, ni ainbat sufridu nauana.

12. Bein baten, oto'tzean oso batuta nengoalarik, samur cta baketsu, aingeruz inguratua ta Jainkogand'k ur-ur aurkitzen nintzala begitandu jatan. Eleizearentzat eskatzen asi nintzan Aren Aunditasunari. Bertatik ulertzen emon jatan zelako ona ta probetxua egingo eban garai aretan Ordena batek, bertakoak ba gartsu lan egingo eben, dudarik bage, fedearen alde.

13. Beste bein Sakramentu txit Santuarcn ondoan errc-zatzen nengoala, santu bat agertu jatan, bera bizi izan zan Ordenea ain zuzen be pizkat iausita egoanekoa. Liburu aundi bat eukan eskuetan. edegi eban eta letra batzuk irakurteko esan eustan; letra oneik aundiak ziran, eta errez irakurtekoak, onela iñoen: *Da'ozan denporetan loratuko da Ordena au; martiri asko eukiko ditu.*

14. Gau baten, koruan Maitinak esatcn gcngozaia, aurrean jarri jatazan sei edo zazpi, uste dot Ordena bat berekoak zirala, eskuan ezpatak eukczala. Onetan, nik uste, ulertu-azo naiko zala fedcartn alde jokatzca. Beste bein be, ba, otoitzean aurkitzen nintzala, zorabiotu ta eroana izan zan nire espiritua, gartsu burrukatzen zan zelai zabal aundi batera, Ordena onetakoak (1) kementu ekioen erasoan. Eder ixiotuak eukezan arpegiak, asko agertzen ziran lurrean azpiratuak, beste batzuk burrukan ziarduen oraindik. Burruka au siñausleen aurka zala, iruditu jatan.

15. Santu doatsu au geiagotan ikusi dot, eta gauza batzuk adierazo daustaz, bere Ordenearen onerako egiten dodan otoitza eskertuz eta neure alde Jaunari eskatuko eutsola aginduz. Ordenak ez eustazan bereizi. Jaunak nai ba leu iragarri ta jakitea, azalduko ditut, besteak sumindu cz daitezcan; Ordena bakotxak, baiña, a!egiñak egin bear leukez, edo-ta eurotako bakotxak berenez, euren bitartez Jaunak bakotxaren Ordenea egin daiala zoriontsu be zoriontsu, Elei-zeak orain daukan lako bear-izan larrian, zintzo ta leial zerbidu dagien.

16.—Erreguka urrcratu jatan bein pertsona bat Jainkoari otoiztu nengiala eskatuz, ulert-azo egiola ia bere zerbitzurako izango litzaken gotzain-barruti bat artzea. Jaunartu ostean, Jaunak csan eustan: *Egiazko nagusitasuna ezer ez eukitean dagoala, egi-egiaz eta argiro ulertzera ellzen danean, orduantxe artu al izango*. Aitzen ernon nai izan eban onegaz, gura naiz opa izatetik urrin egon bear dauala nagusitzara igon bear ebanak, edo-ta beintzat ez ebal a ezer egin bear ortarako.

17. Mesede oneik eta beste asko egin dautsoz, eta egiten diardu Jaunak pekatari oni, cta uste dot ez dagoa'a eurak zetan aitaturik; esanetatik ezagutu daiteke zelakoa dan nire arimea, cta Jaunak emon daustan espiritua. Onetsia izan bedi beti-betikoz, nirez ainbat arduratu dana,

(1) Santo Domingo'ren Oi'denekoak, Aila Grazian'en critxiz.

18. Bein esan eustan, neu poztu nairik, ez nedilla nairigabetu (au maitasun aunditan), bizi onetan ezin geinkeza'a beti cgoera bardiñean bizi, batzutan irakiten eta beste batzutan epel baiño, batzutan kezka betarik eta beste batzuetan baketsu ta tentald.akaz, baiña itxaroteko Beregan bildur barik.

19. Bein pensakor nengoan eraspina ete zan neure ari-meagertazo ta maite dodazan pertsonakaz egon eta poz artzea, bardintsu, nik Jainkoaren zerbitzari leial ikusi ta alai-azoten ninduenakaz; Jaunak esan eustan: Eriotz-arriskuaz dagoan gaixo batek, uste ba'dau, medikuak emoten dautsola osasuna, etzala ona (birtutea) eskarrak emon eta maitasunik ez erakustea; zer egingo ete leikean, ba, oneikaitik ezik; onak diranen autuak ez dakarrela kalterik, baiña nire itzak beti izan eitezala zuurrak eta santuak, eta euki negiala eurekaz artu-emon, kalte baiño on geiago ekarriko daustela-ta. Asko poztu ninduan onek, batzutan bada, atxikimentua zala-ta, osorik itxi nai izan neban eurekaz neukan artu emona. Gauza guztietan beti Jaun onek emon oi eustan kontsejua, argalakaz eta pertsona berezi batzukaz zelan jokatu bear neban esateraiño emon be.

20. Iñoiz ez dabil zabar nigaz. Batzutan nekatua egon oi naz, Aren zerbitzuan ain gitxi dagidala ikusiaz, baita nik nai baiño denpora geiago neure gorputz ziztrin aul onetan indarrak galduaz be. Otoitzean nengoan bein eta lotara joateko orduak jo, eta ni oiñazez ondo mindua, eta oizko oka edo errebesa euki bear neban. Neure burua ain lotua ikusten eta tspiritua bere aldetik bsrarantza tiraka, neke gorrian aurkitzen nintzan, negarrari emon neutsan aieneka. Au ez da baten bakarrik, askotan baiño, diñot, asarre be asarre ipinten ninduala, iguiña artzeraifio ain zuzen. Baiña jarraian eta itxuraz ez nauka iguindua, ezta utsik be ez dautsot egiten bearko jatala ikusten dodanari. Eta otoitz dagoit Jaunari ez daidala askotan artu ez egin bear danetik kanpo. Diñodan onetan, atsekabez nengoala, Jauna ager-

tu jatan, oso atsegingarri, eta esan eustan gauzok nik Berari neutson maitasunarren egiteko, ta aurrera, orain ori be neure bizitzarako bear nebala-ta. Olan, uste dot, iñoiz ez nintzala penatan egon, neure Jaun eta pozemoille au, neure indar guztiakaz otseintzeko erabagia artu neban ezkerro; onek, ba, pizkat jasan eragiten eustan arren, poza be ekarten eustan, neke-lorrik ez eskatzeraíño atan be. Eta orain uste dot ez dagoala zetan bizi ortarakoxe ezik, eta auxe da Ja'inko:iri gcgo beroz eskatzen dautsodana. Batzutan bizi-bizi diñotsat Jaunari: Ene Jaun! , il edo sufridu; ez dautzut eskatzen besterik neuretzako. Poztasuna damost erlojua entzuteak; uste dot, ba, apurtxo bat geiago aurrera-tzen nazala Jainkoa ikusteko, bizitzako ordua igaroaz doala-ta.

21. Beste batzuetan ain zera nago, ta ez dot bizi izateko jitik ez ilteko gogorik, esan dodan lez, sarri daukadazan neke-lor aundiak eraginda, zer guztietan illuna ta epelkeria. Eta jaunak berak nai izanik be, agirian jakitea Aren Aundisunak egin daustazan mesede oneik (urte batzuk dirala Berak esan eustan lez ni asko naigabetutekoak izango zirala), eta orainñarte ez gitxi eroan bear izan, zuk, Aita, dakizunez, bakotxak berari deritxonez artu oi bait dau, pozgarri izan jat neure erruz ez izatea; neure autor-entzuleei edo-ta ba-ekiela nekian pertsonai ezik iñori ez esatea abisu onez ta zuur jokatzea izan da niretzat; eta ez apaltasunez, autorleai eurai be, esan dodanez, pena emoten berau adieraztea. Orain, beraz, aintza Jainkoari (nigaitik marmar egin dabe ondo, eta lleba onaz, beste bildur ziran nigaz artu-emonak eukiten eta autortzen be bai, eta beste batzuk gauzarik asko diñostez), Jaunak onela arima asko bide onera ekarri nai izan dabezala dakidan ezkerro, argi be argi au ikusi bait dot, eta gogorazten nazan lez Jaunak zenbat jasango leuken bat bakarraaitik, ori guzti ori gurbilki emona da. Onetarako ez dakit zerbait dan Aren Aunditasunak ni ain zarratua dan baztertxo oneta.n (2) sartu naulako, eta orain ementxe, gauza illa lez,

(?) Avila'ko San Josep rnonjategia.

iñor etzala nigaz gogoratuko pentsatu neban. Baiña ez da izan nik gurako neban bestean, pertsona batzukaz naitaez itz eg'n bearra bait daukat. Alan be, ikusiko nabon lekuan ez nagoan ezkeru, Jaunak nai izan eban portu batera ni botatea, eta Aren Aunditasunean ditxarot segurua izango dala.

22. Mundutik kanpo ta lagunarte gitxi ta santu artean aurkiturik, gaiñaldetik lez so dagit, esan naiz jakin bardin-bardin daust guztia. Obetzat neukake arima bat zerbait geitxoago obetuko balitz, nigaitik esan leiken guztia baiño; emen nagonetik, Jaunak nai izan dau nire gurari guztiak onetan kokatzea. Eta ames bat lez agertzen daust bizitzea, ikusten dodana amesten nagoala iruditzen jat; ez pozik, ez naigaberik, askorik beintzat, ez dakust neutegan. Olakorcn bat ba damoste gauza batzuk, abiada itzelean doaz, ni miretsirik eta amestu dan gauza batek itxi oi dauan sentimentuz itxirik. Egi utsa da au, eta nik gero poz aregaz jolastu edo-ta atsekabe aregaz naigabetu, ez dago nire eskuan, bakar-bakarrik pertsona zuur bati, amestu eban amesagaitik, naigabea edo aintza aukitea lez izango litzake; Jaunak nire arimea, ba, itxartu eban, ni munduko gauzai aaztu ta illa ez nengoalako, sentimentu egin izan eustana, eta Aren Aunditasunak ez dau gura barriro lotaratu daitenik.

23. Onela bizi naz orain, ene jaun eta Atia. Eska eiozu, otoi, Jainkoari, eroan naiala Berarekin edo-ta emon daidak Bera zelan mirabetu. Jainkoak ba letsa emen idatzirik doan onek zuri, Aita orri, probetxuren bat egitea, niretzat toki motz eta neke-lan izan dana. Baifia doatsu litzake nire lana, zerbait egin ba'dot orren orde z bein bakarrik gure Jauna goretsia, izatea, ni ba onekin ondo ordaindua nintzake, zuk, Aita orrek, gero erreko ba zendu be.

24. Ez neuke ori nai izango zuk, Aita orrek, dakizuzan iru pertsonak berau ikusi aurretik, neure autorleak izan dira eta gaur be ba-dira eta; txarto ba'dago, ondo bai doa nitaz dauken eritxi ona galtzea, ondo ba'doa, onak eta jakintsuak

dira irurak, ikusiko dabe nundik datorren eta goratuko dabe nire orde berba egin dauana. Aren Aunditasunak euki zai-zala beti bere eskutik, eta ain santu aundia egin zaizala, bere espirituz eta argiz argiztatu daian errukarri au, apal-eza ta oso ausarta, gauza orren gurenak idazten azartu dana Eska daiodan Jaunari errakuntzarik ez daitela berton aurkitu, apara ta men egin beste asmorik izan ez dodan ezkerro, eta urteak dirala eskatzen dautsodanez, neu nazala bide Jauna zerbaitean goratua izan dedin. Eta ontarako egiñak falla jatazan ezkerro, neure bizitza naasi ta egaberatu au atontzera ausartu naz, orretan idazteko bear izan dan baiño ardura ta aldi geiegi parrastatu bage, bertan nigandik igaro dana al izan dodanik eta lau-egitien czarriz.

25. Jaunari nai dakio, altsua da-ta, eta nai bada al dau, egin daidala nik danean Bere naia, eta bere laguntzaz ez daitela galdu Aren Aunditasunak ainbat modu, maiña ta ariz eta ainbat bider infernutik atera ta Beregana ekarri dauana. Olantxe.

* * *

{Teresa Amak, BIZITZAKO Liburua bialduaz, idatzi eban eskutitza} (3).

J H S

Espiritu Santua izan bedi beti zurekin. Olantxe. Ez litza-teke txarto etorriko zerbitzu au zuri emotea, Geure Jaunari nire alde ardura aundiz eskalzeko zure mende jarriaz, igaro dodana idatzita ikusi eta ainbat mixeri neure gogamenera ekarririk, ori ondo egin nengiken arren; egiaz esan neinke, alan be, Jaunak egin daustazan mesedeak idazten geiago sentidu dodala Aren Aunditasunari nik egindako iraiñak

(3) Karta au, "Bizitzaren" azkenean idatzia ta Toledo'ko Cai'tzia Aitari zuzendua.

idazten baiño. Nik, luzatuaz be, zeuk agindu zeustana egin dot, zeuk agindu zeustana, ots, txarto zeritxona apurtzekotan. Idatzi ta gero, oraindik irakurri barik neukan, eta zuk bere billa bialtzen. Ba leitekt gauza batzuk txarto adierazota joatea, eta beste batzuk birritan esanda; laburra izan baita orretarako euki dodan epea, eta ezin izaten neban idatzitakoa barriro ikusi. Zeuk aztertu ta baita aldatzeko agindu be, Aita Maisu Avila'ri eroan bear ba'jako, batedobatek letrea ezagutu daikelako.

Idatzi au zelan ikusten dozun zuk zeure eritxia emotea gura neuke eta zure agindua, asmo orrekin asi bai nintzan berau idazten; zeuri ba deritxazu, ba, bide onetik noiala, oso pozik geratuko naz, onezkero nik neurea egiña daukateta. Zuk egizu oro zeuri deritxazunez, eta ikus eizu ortara bearturik zagozala bere gogoan olan fidatzen dautsunari egitera.

Nik Geure Jaunari eskatuko dautsot neure bizitza guztian zeure arimearen onerako; orixegaitik, zabiltz arin Aren Aunditasunaren zerbitzuan niri mesede ori egiteko, arazo oni dagokionez, dana emonez bait da egiten, zu asi zaran lcz neurri barik emoten jakunari egiten.

Bedeinkatua izan bedi beti-betikoz, nik bada Aren errukian ditxarot zeuk eta neuk, biok, alkarrekin ikusiko bai doguz gurekin egin dabezan gauza arrigarriak, eta betiraun osoan goretsi. Olantxe.

Liburu au MDLXII'ko Bagillcan amaitu zan.

(Aita Domingo Bañez'ek «Bizitza» oni ezarritako eretxia).

Ikusi dot eta arduraz, Jesus'en Teresak, karmeldar mojea ta karmeldar ortozen irasle danak idatzi dauan liburua, bertan difiosku lau-lau bere ariman jazoten dan guztia, bere autor-entzuleak eskolatu ta zuzendua, eta guzti orretan ez dot aurkitu, nirc eritxiz, dotriña okerra dan gauzarik, eta

bai asko erakutsi onerakorik, eta otoitzean diarduen pertso-
nentzat abisuak. Lekaime onen experientzi zabala eta bero-
nen zuurtasuna ta apaltasuna, bere autorleengan beti argia
U letrak aurki.tu nai izanik, otoitzari buruzko gauzak zen-
tzun aundiz edieraten ditu, batzutan oso eskolatuak be, ex-
perientzi bakoak diralako, esaten ez dabezanak.

Gauza bat dago bakar-bakarrik liburu onetan oar daike-
guna, eta errazoiz, ondo aztertu ezkeru, ikusten dana da-ta:
goi-agertaldi ta ikuskari asko daukazala, eta oneik beti dira
bildurgarri, batez be andrazkoetan, oneik ba errezago siñistu
oi dabe Jainkoagandikoak dirala; eurtan ipiñi daroe santuta-
suna, eta areitan ez bait dago olakorik, bestera baiño, lan
arriskutsutzat euki bear dira osotasuna lortu nairik dabilta-
nentzat. Deabruak ba argizko aingeru biurtu oi da ta arima
beg-luze ta apaltasun gitxikoak atzipetu, gure egunotan ikusi
danez. Baiña origaitik ez dogu ori legetzat artu bear goi-
agertaldi ta ikuskari guztiak deabuarenak dirala esanez.
Orrela balitz San Pablok ez leuke esango Satanas argi-aingeru
biurtzen danik, argi-aingeruak noizik-bein argituko ezpa-
ginduz.

Santuak eta santak euki izan dabez goi-argitaldiak, eta ez
antxiñako aldietakoak bakarrik; gerogokoak be, euki dabez,
Santo Domingo, San Frantzisko, San Bizente Ferrer, Sena'ko
Santa Katalina, Santa Gertrudis eta esan leikezan beste as-
kok. Eta beti lez Jainkoaren Eleizeak ba-da eta izan bear dau
santua azkeneraiño, ez bakarrik santutasuna ziñez gorde bear
daualako, bertan zintzoak eta santutasunez orniduak dago-
zalako, ez da erraoizkoa ta bidezkoa guk bete-betean ikus-
karia eta goi-agerpenak gaitzetsi ta laskitzea kristautasun eta
birtute askoz inguraturik egon oi dira-ta; oba da Apostolua-
ren esana (Tes. V, 19-22). *Ez egizue Espiriturik itzali, ez
igarritakorik gitxietsi. Dana attertu, ona bakarrik artu. Gaitz
dan danetik alde egizue.* Toki ontaz Santo Tomas irakurriko
leukanak ulertuko dau zelako arduraz aztertu bear daben
Jainkoaren Eleizan urko lagunaren onerako naiz kalterako

izan daiteken doai bereziren bat agertazten dabenak, eta zelako zolitasuna erakutsi bear daben euren aldetik aztertzaileak zintzoen kautan Jainkoaren espirituaren irakiña ez itzaltzeko, eta bestzailleak zintoen kautan Jainkoaren espirituaren irakiña ez itzaltzeko, eta beste batzuk kristau bizitza batean dabiltzanak kikildu ta lur jorik gelditu ez daitezan.

Emakume au, ibere ibizi-txostenetik agiri danez, berak bere burua zeozetan engañau, iruzurtu arren, ez da beiñik bein iruzurtzaillea, ona ta txarra, lau-lau adierazten bai ditu eta beti untzean joteko asmo onez, iñoiz be ezbaian ipinteko lekurik emoteke. Eta zenbat eta errazoi geiago dagon olako espirituak aztertuteko, gure egunotan onibide kolorepean jente ixekatzaillea ikusten dan legez, ainbat geiago konbeni da kolorez birtutezko egia daukela dirudienak babestu ta zaintzea, Gauza arrigarria da, ba, zenbat poztuten diran jente nasai ta mundu-zaleak onbidez bizi diranak izen ona kenduta ikustez. Kejaz egoan Jainkoa antxiña Ezekiel igarlearen bitartez (13, 22) sasi-igarleen aurka, zintzoak estutu ta pekatariak gain-txuritzen ebezalako, esanik: *Nik atsekabetu nai ez dodan zintzoa, zuek guzurrez naigabetu gura dozue*. Zelan edo alan otoitz eta osotasunezko¹ bidetik doazan arimak dirala-ta be esan daikegu beste orrenbeste, bide arriskutsuak eta bitxikeriak billatzen dabiltzala eta bide ontatik joanaz asko jausi dirala okerrean, seguruena burdibide lau ta arrunta dala otsegiñik.

Olako berbakaz, argi dago, naigabetu egin oi dira, al danean jarraiki otoitz egiñez eta barau, aragi-izte ta soinilduraz kontsejuak eta kistar osotasuna zaindu ta gofdeaz aurren jo gura dabenak. Nasaiaik eta griñatsuak, beste aldetik, bizkortu egiten dira Jainko-bildurra galdurik, euren bidea ziurragotzat daukielako. Eta auxe, bide lau ta seguru deritxen au, bai dala egi-egiazko iruzurra, ziri-sartzea: guztiok gabiltzan mundu onetan dagozan amildegiak eta arriskuak ez ezagutu, ez kontuan artzetik datorkiguzan kalteak; beste ziurtasunik ez ibai daukagu, geure eguneroko

etsaiak ezagutu ta apal-apal Jainkoari errukia eskatu baiño, euren katigu izan nai ez ba dogu; baita orrez gaiñ, ba-dira arimak Jainkoak berak estutzen ditunak on-bideratu daitezana, barne-irakiña joan ezkerro ez bait dakie nora jo, ta sarri beste mugako okerkerietara doakiguz. Eta arima oneik zaindu bearra daukie eta otoitzari ekin atertu barik eta, azken baten, epelkeriak edozeiñi ekarri eutson gatxa. Sar begi bakotxak ber, eskua kolkoan eta au egia dala ikusiko. Nik gauza ziurtzat daukat, Jainkoak iñoiz jasaten ba'ditu epelak, arima egartsuen erreguakaitik dala, eten barik diñoeta: *Ez gagizuz itxi tentaldian jausten.*

Au esan dot, ez bertatik altaretara jaso daiguzan kontenplaziño bidetik doazala uste doguzanak, mundutarrentzat au beste mutur bat bai dogu, birtutearen aurka maltzurki joateko: santu egin gero, orrelako antz pizkat daukienak. Onek arrokeria daroa ta birtutea dedu asko barik eta leku arriskutsuan itxi; ain sonatuak izan ziranak, ba, jausiko balitzaz birtutearen deduak galpen aundiago artu oi dau, ain on-eritxiak iñoiz izan ezba-litzaz baiño. Eta auxegaitik, deabruan tentalditzat daukat, mundu onetan bizi diranen santutasunari buruzko goralpenak. Jainkoaren zerbitzarienganako eritxi ona, oso da bidezko; baiña orretxek be, on-onak izan arren, beti begiratu bear dautsegu arriskuan dagoan jentea lez, eta onak izatea ez jaku nabari; oraingoz be ezin daikegu ori ziurtu,

Nik, esana egia dala barruan irauliz, beti jokatu izan dot arretaz lekaime onen otoitz eta bizitzako txosten au aztertzean, eta iñor be ezta izan ni baizen siñisgogor bere ikuskari ta agerpenai buruz, naiz-ta ez bere birtute ta gurari onai buruz, ontaz bada experientzi aundia daukat, bere egia, menpekotasun, penitentzi, pazientzi, erasoten ebenenganako maitasuna eta beste birtute batzuk, beragaz artu-emonu euki nai leuken edonok ikusiko ditunak. Eta auxe ederretsi daikegu, ikuskariak eta agerpenak baiño, Jainkoaren maitasun egiazkoaren ezaugarri ziurragotzat. Onekin ez dodaz gitxies-

ten aren agerpenak eta ikuskariak eta zentzun-galtzeak, bestera Jainkoagandikoak izan daitekezala uste dot, beste santu batzuetan izan ziran lez. Baiña kasu onetan ziurragoa da beti bildur eta begirunez gelditzea; ziurtasuna egon ezkerro, ba, deabruak ba-dauka nundik tiro egin, eta leen bear bada Jainkoarena zana, aldatu ta deabruarena izango da.

Eta nire erabagiz, elburu au ez dago edozeiñen eskue-tan izteko, gizaseme jakintsu, experientzi ta Kristau zuurtasun aundia dabenen eskuetan baiño. Liburua oso ondo dago idatzi zan asmorako, au da, moja onek bere arimearen barri adierazo bera zuzendu bear ebenai, atzipetua izan ez eiten.

Gauza batez nago ni ziur be ziur izan geinkeanez: bera ez dala engaiñatzaille, eta olan, aren argitasunak merezi dau danak alde egin dagioela bere asmo on eta egintza onetan. Amairu urtetik onantza, ba, dozena bat, uste dot dirala, jaso dabezan karmeldar moja ortozen monestegiak, edozeiñek baiño be bizitz latz eta osoan; bera ikuskatu dabeneik batez be testigantza emoten dabelarik: Aita Pedro Fernandez, domekar Probintziala, teolojian maisu; Aita Hernando Castillo, maisua, ta beste askok. Oraingoz auxen nire esan bearra, liburu onen eritxiari dagokionez, Ama Eleiza Santuaren eta beronen zerbitzarien mende ezarririk.

Valladolid'en, San Gregorio Ikastetxean, 1575'ko garrillaren 7'an.

Aita Domingo Bañez

AURKIBIDEA

<i>Sarrera</i>	5
<i>I A'TALA.—Jauna zdan asi zan arima au ume-umctatik gauza onetara itxartzen, eta zenbat lagundu eutson ortarako guraso onak eukiteak.</i>	12
<i>II ATALA.—Apurka epeldu egiten da goi-birtuteelan. On-ona da umetan pertsona onakaz artuemona izatea.</i>	16
<i>III A.TALA.—Moja baten adiskidetasunak laguntzen dautso bere lenengo gogo-asmoak itxar-azten. — Eta Jauna zelan asi jakon, berak ekarren iru-zurrari buruz argi pizkat emoten.</i>	22
<i>IV A'TALA.—Jaunak erabilli ziluan bideak, bere bu-ruari indareragiñez, lekaime jantzia artzeko. — Jaunak bialduta asi-asieratik izandako ainbat eta ainbat gaixo-aldi.</i>	26
<i>V ATALA.—Bere gaixo-aldiak azaltzen diardu; Jau-nak eurotan emon eutsan eroapen betea. — Ga-txetik onez ateraten. — Osatzera joaten zan Beze-das'en gertatua.</i>	33
<i>VI ATALA.—Neke-miñez egoala Jaunak emon eutsan eroapena azaltzen dau. — Zelan artu eban bitar-teko ta zdindaritzat Jose Doatsua.</i>	41

- VII ATALA.—Zelan joan zan galduaz Jaunak egin izan eutsozan mesedeak, eta zein bizibide galdua asi zan egiten. — Zelako gaitzak datoza lekaime-komentuak guztiz itxiak ez izatetik 48
- VIII ATALA.—Arimea ezgaltzeko, otoitza osorik ez iztetik etorri jakon ona, eta zein bikaiña dan galdua eskuratzeko. — Otoizlari nai ditu guztiak. — Irabazi aundia dala diño. — Eta iñoizka itxi arren, egoki da añketa ortara biurtu ta on aundi orri berea emotea. 62
- IX ATALA.—Jauna zelan asi zan bere arimea itxar-tzen. — Illunpe aundi artean argia emoten dau-tso. — Bere birtuteak sendotu ta babesten dautsoz, iraindu ez dagian. 69
- X ATALA.—Jainkoak otoitzean egin mesedeak esa-ten asten da. — Guk zelako probetxua atera gein-ken. — Oso ona da Jaunak egiten dauskuzan me-sedeak ulertzea. — Au bialtzen dautsonari eska-tzen dautso, aurrera idazten doana, ixillik euki-teko, agintzen dautse-ta. — Agintzen dautselako esango ditu Jaunak egindako doai ta mesedeak ain zeatz-meatz. 74
- XI ATALA.—Zer uts-egin oi dauan Jainkoa epe labu-rrean, oso-osorik, ez maite izateko. — Lau otoitz-mailla azaltzen ditu, adibide baten bitartez. — Le-nengoa adierazten dau emen. — Oso ona da otoi-tzean asten diranentzat, eta otoitzean atsedetik ez dauknentzat 80
- XII ATALA.—Gai berean darrai. — Geure alegiñez, Jainkoak lagunduta, jakiña, noraiño eldu geinke-zan. — Zelako kalteak dakazan, Jaunak berak egin arte, gora ikon nai izateak, au da, izatez gaiñetiko ta otez-lako gauzetan murgiltzean. 90

- XIII ATALA.—Lenengo egoeran darrai. — Oar mol-
tzoa, deabruak asieran ipiñi oi dabezan tentaldiak
azpiratzeko. — Atal onek ba-dau bere inportantzi. ^L)4
- XIV ATALA.—Otoitzaren bigarren mailla azaltzen. —
Jaunak arimeari berarizko gozotasunak emoten
dautsoz. — Dagoneko izatez-goitiko doaiak dirala
diño. — Garrantzi itzaleko atala. 105
- XV ATALA.—Gai bardiñean darrai. — Atsedean otoi-
tzean zelan jardun bear dan. — Arima asko eltzen
dirala otoitz-era onetara. — Gitxik baiña aurrera
jarraitzen. — Bearrezko ta onurakor dira emen
datozan gauzak. 111
- XVI A.TALA.—Irugarren otoitz-mailla. — Gauza gu-
renak axaltzen ditu. — Une onetara eltzen danean
arimeak egin bear dauana. — Jaunaren doai itza-
lok dakarrezan ondorenak. — Mailla ontako añ-
men gozotasunak. — Eta Jaunari egiñiko gores-
penak. 120
- XVII ATALA.—Gai bardiñari ekiten dautso. — Iru-
garren otoitz-maillari dakio. — O/oitz onek clau-
kazan ondorenak azaltzea amaitzen dau. — Iru-
dimena ta gomutamena dira mailla onetan aurrera
joateko eragozpenik aundienak. 125
- XVIII ATALA.—Laugarren otoitz-mailla. — «Era
bikaiña» adierazten asten da. — Jaunak, arima
egoera ontara eltzen danean, jarten dauan duinta-
suna. — Iraka/si onak asko indartzen ditu arimak
otoitz-bide onetan aurrera jarraitu dagien. —
Egoera au jadelsi daiteke lurrean, ez guk merezi
dogulako, Jainkoaren on-izate aundiz ba'mo. —
Adi-adi irakurri bear dala, goi-samarrez itz-egiten
dalako ta gauza garrantzitsuak adierazo. 131

- XIX A.TALA.—Errazoiketa bardiñean darrai. — Otoitz-mailla onetan dagozan ondorenak. — Ezta atzera biurtu bear, mcsede onen ostean jausi arren, ezta oioitza itxi be. — Kalteak datoz au ez egitetik. — Oargarri dozu berton datorren irakatsia. — Atsegin aundia dakartsena aul eta pekatariai. 139
- XX ATALA.—Alkarlze ta gaiñezkaldia ez dira gauza bardiñak. — Gaiñezkaldia zer dan. — Mesedeak artzen ditun arimeak daukan ona, Jaunak bere onizatez egiña. — Ondorenak. — Arrigarria da ... 148
- XXI ATALA.—Jarraitu ta amaitzen dau otoitzaren laugarren mailla. — Zelako miñak euki oi dabezan barriro lur-gain bizi bearko leuk.en arimak. — Iruzurrai buruz Jaunak emoten dautson argia. — Irakatsi argarria da, eta oso mamintsua. 162
- XXII ATALA.—Otoizlariak ez dau, bere espiritua gora jaso naiez ibilli bear, Jainkoak jasoten ezpadau. — Auxe da biderik ziurreba. — Gora jasoten bikain dozu Kristo'ren gizatasuna ausnar-gai erabiltea. — Onetzazko iruzur bat. — Onura edo probetsu aundia dauan atala. 169
- XXIII ATALA.—Barriro dator bere bizitza edestera. —Zelan eta zelako bideak artu zituan otoitzera zuzentzeko. — Atal garrantzitsua otoizlarientzat. —Asieran balez be zelan jokatu bear daben. — Bera ain gora joan ba'zan, maisu onak euki ebazalako zala. 180
- XXIV ATALA.—Gai bardiñaren jarraikia. — Esaneko izateak aurrerakada izugarria emon eutsan bere gogozko bizitzeari. — Aurka dagitse Jainkoaren doai ta mesedeai, baiña ortik ez datorkio obari ez onik. — Jainkoa, bet't biotz zabal, gero ta mesede aundiagoak egiten. 190

- XXV ATALA.—Zelan ulertu bear cliran Jainkoak ari-
meari egin oi dautsozan herbetak, ezer entzun
bage. — Onelan egon leikezan iruzur batzuk. —
Zelan ezagutu? — Prohetxu aundikoa da otoitz-
mailla oneian aurkitzen diranentzat, — Irakatsi
ugaria ta ondo azaldua. 195
- XXVI ATALA.—Gai bardiñari dakio. — Zelan aiena-
lu ehazan hilchtr guztiak. — Itz-egiten eutson es-
piritua ona zan. 207
- XXVII ATALA.—Jaunak heste era bal erakusten dau-
tso arimeari-_t berba egin barik adierazten dautso
bere borondatea. — Lra miragarritzko batean. —
Mesede batzuk azaltzen ditu, eta hatezbe ikuskari
herezi bat, ulerkor etzana. — Alal jakingarria ... 212
- XXVIII ATALA.—Jaunak egin eutsozan mesede aun-
diak eta zelan egertu jakon lenengoz. — Zer dan
irudimenezko ikuskizuna. — Zelako ondorenak
eta ezaugarriak izten dabezan añman, Jainkoare-
nak diranean. — Garranlzi aundiko atala. 223
- XXIX ATALA.—Aislakoari clarraio. — Jaunak egin-
clako mesede batzuk. — Jaunak esan oi eutsone
ziur-azoteko ta bere aurkakoai zelan erantzun era-
kusteko. 234
- XXX ATALA.—Bere bizi-zeaztasunak edesten asten
da barriro. — Pozik ipiñi eban Jaunak Aita Pedro
Alkantara bera egoan urira ekarriaz. — Tentaldia
eta barru-samintasunak, ez txikiak. — Noizik bei-
ñera eukiak. 243
- XXXI ATALA.—Kanpotik datozen tentaldi batzuk.
— Deabruak egiten eutsozan antzeketa batzuk,
eta oiñazeak. — Gauza bereziak, onbidean aurre-
rantza doazan otolrientzat. 256

- XXXII ATALA.—Zelan eroan eban Jaunak, berak bere pekatuen bidez, merezi izan eban infernura. — Zeatz-zeatz azpimarratzen dau an ikusia. — Orduan, egotez egoan. San Josep komentua eregiten asi zaneke gorabera. 270
- XXXIII ATALA.—Gai bardiñean diardu. — San Josep lekaimetxea. — Arazo ortan ez sartzeko agintzen dautsoe. — Noiz itxi eban. — Izan eban naigabe batzuk. — Jaunak ezlan poztu oi eban eurotan. 280
- XXXIV ATALA.—Uritik asao joateko errazoa. — Nagusiaren aginduz, atsekabez aurkitzen zan emakume aundiki bat poztutera doa. — An zer jazoten jakon. — Edertzat artzen dau Jaunak, au bere bitartez, osotasunera eroatea. — Pertsona au gero guztiz lagungarri jako. — Gora aundiko atala. 290
- XXXV ATALA.—Aurrera jarraitzen Josep deunaren komentu barria jasoten. — Jaunak agintzen dau etxe a txirotasunean egiteko. — An aurkitzen zan emakumea. — Gertatu ziran beste gauza batzuk. 301
- XXXVI ATALA.—Gai asitakoari ekiten. — San Josep zoriontsuaren komentua zelan amaiu zan. — Le nengo lekaimeak abitua artu ondoren izan ebezan erasoaldi latzak. — Teresa berak eukitako lanak eta tentaldiak. — Jaunak danetatik atera eban garapenez. — Aintza eta gorespenak Jaunari eurrez- 308
- XXXVII ATALA.—Jaunak mesederen bat egin oi eutsonean gelditxen jakozan ondorenak. — Onegaz batera dotriña on-ona dakar. — Au diño: zelan alegindu ta aunditzat euki lelken aintzazko mailla bat geiago lortzea. — Ezelako lan-neke ta naigabegaitik, betikoak diran onak ez dira itxi bear. 323

- XXXVIII ATALA.—Ernen azaltzen ditu Jaunak egin
 eutsozan mesede aundi balzuk bai zeruko ezkutu
 batzuk erakutsiz, eta baita Aren Aunditasunak
 euki ta ikustea gura izan ebazan ikuskari eder eta
 iragarpen bikaiñak. — Ondorio lez geratzen jakozan
 eragiñak, — Arimearentzat probetxugarri ... 330
- XXXIX ATALA.—Aurreko ataleko gaiari ekiñik, Jaunak
 egin dautsozan mesede aundiak goraltzen dauskuz. — Berak eskatutako pertsonakaitik
 otoitz egiten lagunduko. — Aren Aunditasunak zertan
 egin dautsozan onako doai ta mesedeak. 344
- XL ATALA.—Orobat mesede aundien gaia. — Probetxu
 aundia atera leike batzuetatik. —• Auxa izan da,
 ain zuzen, bere asmoa. — Agindu dautsoena baterik,
 arimai on egin. — Atal onekin amaitzen da aren bizi-
 edestia. — Bedi guztia Jaunaren aintzarako. 357
- Teresak, BIZITZAKO Liburua bialduaz. idatzia ... 367
- Aita Bañez'en eritxia 368

